

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

ZABALen ISURIA

(1973-1976)

EZKER ABERTZALEA PARADIGMA

BERRIEN AURREAN



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du

© Paulo Iztueta Armendariz
© Utriusque Vasconiae
Lehen argitaraldia: Donostia, 2015eko iraila
ISBN: 978-84-942531-6-4
Lege-gordailua: SS-666-2015
Azaleko argazkia: *Zabalen* sorlekua
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.
20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailak:
BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)
Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak hausteak jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

ZABALen ISURIA

(1973-1976)

EZKER ABERTZALEA PARADIGMA

BERRIEN AURREAN

Utriusque Vasconiae

AURKIBIDEA

HITZAURREA	9
------------------	---

LEHEN ZATIA

Paradigma berriak

I. ESKOLAK MARXISMOAN ETA SOZIALISMOAN	17
1. Marxismoak	18
2. Sozialismoak	30
II. EZTABAIDA AKADEMIKOEN PLAZAN	43
1. Hizkuntza eta estrukturalismoa	46
2. Sozialismotik marxismora	49
3. Marxismoa eta nazionalismoa	58
4. Subjektua, objektua eta egiturak marxismoan	69
5. Marxismoa eta alderdia	76
6. Orduko eztabaidaren haritik	78

BIGARREN ZATIA

Koloni eta demokrazi arazoak nazioarteko politikan

III. KOLONI ARAZOAK AFRIKAKO ITSASO GORRIAN ..	91
1. Etiopia	91
2. Eritrea	92
3. Somalia	96
4. Jibuti	97

IV. KOLONI ARAZOAK EKIALDE ERTAIN ETA	
HURBILEAN	99
1. Jemen	99
2. Oman	100
3. Dubai	101
4. Iran	101
5. Palestina eta Israel	103
6. Zipre	120
V. KOLONI ARAZOAK ASIAN	125
1. Kurdistan	125
2. Bangladesh	138
VI. NAZIO-ARAZOAK MENDEBALDEKO EUROPAN ...	143
1. Erresuma Batua	144
2. Eskozia	147
3. Gales	150
4. Irlanda	151
VII. DEMOKRAZI ARAZOAK	155
1. Txile: segidarik gabeko iraultza	158
2. Portugaleko egoera politikoa	161
3. Errusiako sozialismoa auzitan	166
4. Mendebaldeko Europa demokratikoan kapitalismoa krisian	169
5. Zenbait gogoeta euskal iraultzaz	171

HIRUGARREN ZATIA

Ezker abertzalea independentzia eta sozialismoaren xeka

VIII. HEGOALDEKO EUSKAL POLITIKAREN NONDIK	
NORAKOA FRANKISMOAN	177

1. Frankismoaren ezarpenetik Burgosko prozesua arterainokoa (1937-1970)	177
2. Burgosko prozesutik Carrero Blancoren atentatua arterainokoa (1970-1974)	179
3. Carrero Blancoren atentatutik Francoren heriotza arterainokoa (1974-1975)	182
4. Euskal ekonomiaz begirada zabal bat Euskal Herritik Europara	197
IX. IPARRALDEKO OLDE ARMATU ETA SOZIALISTA BERRI	
BATZUEN ABIADA	201
1. Hauteskundeak	202
2. Ekonomia	213
3. Aberri-Egunak	226
4. Langile-Eguna: Maiatzaren lehena	228
5. Enbata mugimenduaren krisia	230
6. Euskal ezkerria: Iparraldeko mugimendu aber- tzaleak	240
7. Euskal departamentua	246
8. Gose-greba Baionan	249
X. ETAREN ANTOLAKETA-ARAZOAK	
1. Adar Militarra	257
2. Kultur Adarra	261
3. Langile-Adarra	267
4. Adar Politikoa	273

LAUGARREN ZATIA

Kultura, hezkuntza, gai berriak

XI. EUSKAL KULTURAREN SOZIOLOGIAZ	279
1. Euskal kultura erbestetuaren aurpegia	280

2. Euskal kultura ulertzeko giltza teorikoak eta arazo praktikoak	290
3. Kontzeptugintzaren zimentarria: kultur praxia	295
4. Kultur elkarte eta plataformen errepasoa	297
XII. HEZKUNTZA-SISTEMA EUSKALDUN BATEN BILA .	309
1. Irakaskuntzaren saila	309
2. Hezkuntza sexuala	339
3. Alfabetakuntza	340
XIII. SEKULARIZAZIOAREN ZEINUA EUSKAL GIZARTEAN	345
XIV. EMAZTEKIEN BORROKA	359
1. Gogoeta-saioak	360
2. Euskal emaztekin talde-funtzionamendua . . .	363
3. Emazteekin elkarrizketak	365
4. Ondorioak	366
XV. KEZKA EKOLOGIKOA	369
1. Larzac	369
2. Iparraldeko ehiza-lekuak	371
3. Hegoaldeko gune nuklearren asmoa	371
XVI. EUSKARA LANDUAREN JORRAKETAN BATUAREN BIDETIK	373
XVII. LIBURU-KRITIKAK	387
OIN-OHARRAK	393
BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA	429

HITZAURREA

Oraindik historia laburra duen euskarazko kultur aldizkarien zohardian, –zer dira, bada, berrogei urte!–, *Zabalek* ez du beste kultur aldizkariak izan duten eta oraindik ere horietako batzuek izanez segitzen duten distirarik. *Euzko-Gogoa* defuntua aintzaz gorai patuko da, *Egan* zerbait izan da, egun malbizi bada ere. Bi hauek genituen gerrate aurreko belaunaldikoen emaitzak. *Jakinek* gerrate ondoko belaunaldi desberdinak bereganatzen asmatu du. Bertatik esaten zaigunez, 1970eko hamarkada aurretik eta ondoren, bera izan da protagonismoa eraman duena, bai hizkuntza modernizatzen, bai kultur gaiak monografietan lantzen, bai Euskal Herri oso-ko kultur arazoak erabiltzen, bai euskal pentsamendua berritzen, bai hiztegi gintzaren bideak irekitzen, bai euskararen normalizaziorako proiektu burutsuak egiten. Eta mila gauzatan. Orain berdin.

Aldizkari horiek duten garrantzia, aitortzen zaien ospea, ez da inola ere zalantzan jartzekoa, lehendik behin baino gehiagotan jardunak baikara aldizkari horien ekarriez. *Zabalek*, ez dakigu zeren patuz, ez bide du ezein begiramenik ezagutu. Nekez ikusiko duzue haren izena garai hartako euskal kulturaren historia sozialaz aritu izan diren azterketetan. Berrikitan *Jakinek* 191ko zenbakian (2012, 31-61) goi-mailako kultur aldizkariak argitaratu duen artikulua batean hiru aldizkari horiek baino ez dira aipatzen.

Liburu handi-handiren batean, bai, agertu izan da haren izena beste familiakoen zerrendan. Abertzalea eta sozialista omen zen eta, batik bat, euskal arazoak ukitu omen zituen, gehienbat Iparaldekoak. Zerbait da. Izan zela bederen, konstatazio gisa han dago idatzia.

Aurten betetzen dira 42 urte *Zabalek* argia ikusi zuela Iparraldean. Lehen zenbakia, hain zuzen, 1973ko maiatz-ekainekoa izan zen. Isilik jaio zen, etxean baina erbestekoen sormenean. Erbeste-

tuak etxeratzean, hil egin zen. Jaio bezala, batere espanturik gabe. Izan zuen bizitza laburra Iparraldean izan zuen. Zilarrezko ezteiak bete zituen urtean, 1998an, zerbait argitaratzekotan egon ginen eta testu bat ere prestatu genuen, baina apaletan geratu zen. *Erbesteko euskal pentsamenduan* liburuan (2001) izan genuen *Euzko-Gogoaz* eta *Zabalez* jarduteko parada eta hor jasotzen genituen gerra aurreko eta ondorego belaunaldikoeak bi erbeste-aldi desberdinduetan egosten dituzten ideiak. Doluz, oraindik ere, hurbileneko lankideen artean ere aski erbesteturik jarraitzen du. Horregatik gatoz, inoiz ez baita berandu, haren ekarria argitan jartzera.

Kultur egitate guztiek –indibidualek bezala kolektiboek–, izan ohi dute beren testuinguru historikoa, eta are gehiago oraindik proiektu bati talde-lanaren izaera eman nahi zaionean. *Zabalek* ere badu berea eta horixe azaltzea izan zen lehen egitekoa, jadanik burutu eta argitaratua dena arestian aipatutako *Erbesteko euskal pentsamendua* liburuan. Hemen *Zabalek*, prozedura kuantitatiboa erabiliz, zein neurritako kultur herentzia utzi zuen eta zein sail landu zituen zehazten zen. Oraingo asmoa zabalagoa da. Lehen entregan *Euskal pentsamendu berritzailearen sorrerak. Zabalen Testu hautatuak* (2015) liburua jarri dugu merkatu-zirkuituan, irakurle-riak haien berri zuzena izan dezan. Oraingo honetan, testu hautatu horien osagarri gisa, lau zatiz osatua dagoen liburu hau dator. Arestian esan bezala, bazuen bere garaian beste bosgarren zati bat ere –hastapenekoa, hain zuzen–, datu soziologikoez oratua, baina hori *Erbesteko euskal pentsamenduan* (2001) argitaratu zenez gero, ez da sartu. Lau zati hauen edukiaz zerbait aurreratuko dugu.

Eskuartean duzun liburu honen lehen zatian ezker abertzalearen baitan sortu eta garatu diren ideologi korronte desberdinen azterketa egiten da. Ezker abertzaleak 1960ko hamarkada-bukaeran izan zituen bere lehen harremanak sozialismoarekin, bere bi bertsio nagusitan, hots, humanistan zein marxistan. Hurrengo hamarkadan, nazionalismo iraultzaileak, bereziki ETA mugimenduaren ondoan zebilenak, ia ezinbestez egingo du topo marxismoarekin, korronte haxe baita gehien indartzen dena ezkerreko militantzia politikoan. Gero ikusiko den bezala, euskal marxismoaren eraketan Frantziako autore marxistek eragin nabarmena izango dute, ziur aski *Zabalen* idazten duten lankideek, bereziki Hegoaldekoek, Parisen ikasita-koak direlako. Hurbileko testuinguru honek bere arrastoak utziko ditu.

Zabal aldizkarian marxismoaren zein sozialismoaren gainean argitaratzen diren tituluak, handi eta txiki, 260tik gora zenbatu ditugu. Asko da, zalantzarik gabe. Estrukturalismoa, marxismoa, sozialismoa eta nazionalismoa, hauek dira aldizkari honetan agertzen diren korrante nagusiak. Hemen ageri da nondik nora doan horko idazleen orduko kezka. Zenbait gai edo puntu jakinen inguruan, gainera, eztabaida-giro bizi bezain aberatsa sortzen da. Kritika sanoa denean, *Zabaleko* tribunan bezala, onuragarria gertatzen da, zeren eztabaidaren dialektika-sarean hartuta daudenak beren ikuspegia areago zehaztu eta, zenbait kasutan, beren zenbait tesi birformulatu beharrean aurkitzen baitira. Bi ataletan banatzen dira korrante ideologikoei buruzko arazo teorikoak. Sozialismo eta marxismoaren aurrean nolako irakurketak egiten diren azaltzetik hasten gara. Joe- ra desberdinen aurkezpen orokor hau egin ondoren, euskal kasuari dagokionez, eztabaidak zein puntu jakinen gainean zertzen diren aztertzen da.

Atal hauen buruan ohartuko gara euskal ezker abertzalearen barruan, ezkerria izateari uko egin gabe, ikuspegi anitza ematen dela. Ahots bat baino gehiago barreiatzen da, guztiak bere neurrian entzungarriak suertatzen direnak.

Nazioarteko politikari buruzko bigarren zatian, *Zabalen* argitaratzen diren artikulua bi sailetan banatzen dira: batetik, espezifikoki nazio-arazoa planteatzen den herrialdeari dagozkionak daude eta, bestetik, jokoan iraultza demokratikoa daukatenak. Sistemaz, bada, azalpenak argiagoak izan daitezten, banaturik ekartzen ditugu demokraziaren zein naziotasunaren arazoak, osagarriak diren arren, aldi berean espezifikoa ere badirelako.

Bestalde, ageri da *Zabalek* ikuspegi zabala daukala eta bere orrialdeetan mapa politiko ia osoa besarkatzen duela, Afrika, Asia, Amerika zein Europako kasu garrantzitsuenak aztertzen dituelarik.

Europako Mendebalde kapitalistan boteredunek Ekialde Hurbileko gatazkez hitz egiten dutenean, egun zutik dauden estatuen arteko gatazka gisa agertzen dira. Uste hori zuzentzera dator Jokin Apalategiren “Nazional borrokak itsas gorrian eta arabeen itsaskolkloan” artikulua¹, esanez Ekialde Hurbilean 1970eko hamarkada-hasieran gogortuz datozen gatazkak, egiazki izan, nazio-arazo gordinak direla. Izan ere, hango zenbait herrialdek daramaten borrokaren xedea, Palestinaren kasua salbu, kolonialismoaren edota inperialismoaren menpetik atera eta beren estatua lortzea da. Berak jarraian

dakartzagun herrialdeak kokatzen ditu borroka-mota honetan: Afrikako kostaldean, Itsaso Gorrira emanez, Etiopia aurkitzen da, mugakide Eritrea, Jibuti eta Somalia dituela; Arabiar Penintsulan, berriz, Jemen Itsaso Gorriko kostaldean, Oman Arabiar Itsasoan, Dubai eta Iran Pertiako Golkoan. Ingurune geografiko honetako herrialdeetan nazio-arazoa sutan dago eta hemengo borrokaren lekukotza jasotzen du *Zabalen* Jokin Apalategiren lumak zuzeneko iturriak erabiliz. Beste lankide batzuek beste hainbat herrialdetako borrokak ere badakartzate. Kurdistangoak eta Txiprekoak hor datoz artikuluen izenburuetan. Demokrazi ezaren arazoak ere aipatzen dira, hala nola Txilen, Errusian eta Portugalen.

Hirugarren zatian, Iparraldeko zein Hegoaldeko euskal politikaz diharduten hainbat artikulua aztertzen dira. Hegoaldekoaz dihardutenak artikulua bat baino gehiago dira, gehienbat frankismoarora mugatzen direnak. Iparraldeko politikaz ere badira, baina ez hainbeste eta hain era sistematikoan landuak.

Zabalen argitaraldi-datak frankismoaren azken hiru urteak eta frankismo osteko urte bat hartzen ditu ozta-ozta eta, epealdi labur horretan, barru-barrutik segitzen du politika espainolaren prozesua. Zati honetan, hain zuzen, ezker abertzaleak diktadura frankistaren azken urte horien norabidea eta haren jarraipen politikoa nola aurreikusi zituen aztertzen da. Bistako gauza zen Francoren heriotzarekin batera, nahiz hark eraikitako sistemak indarrean segitu, epe politiko bat itxi eta berri bat zetorrela. Horregatik, irekitzera zihon epealdi berrirako, ezker abertzalea bere etorkizuna birplanteatu beharrean aurkitzen da beste alderdi eta mugimendu politikoekin batera legalitatean aritzeko xedearekin. Ordukoak dira herri-masetan oinarritutako ezkerreko plataforma politikoak.

Lehen atalean, Espainiako politikari errepasso bat ematen zaio, bere orokortasunean hartuta, azpimarratuz, batez ere, Carrero Blanco almirantearen atentatuari ematen zaion garrantzia, hura agertzen baitzen erregimen frankistaren jarraitzaile eta berme bezala. Frankismoaren baitan hiru aro bereizten dira eta lehen atalean, hain zuzen, horietako bakoitzean euskal politikak nola jokatu duen azaltzen da, Euskal Herritik frankismoaren zapalkuntza sistematikoari nola erantzuten dion, alegia. Arorik erabakitzaileenak, noski, Burgosko prozesuari eta honi jarraitzen dion Carrero Blanco almirantearen atentatuari dagozkionak izango dira. Erregimen frankistaren jarraipena dago auzitan.

Bigarren atalak Iparraldeko euskal politikan agertzen diren olde berriak hartzen dira kontuan, ordura arte ez bezala, euskal independentzia eta sozialismoaren aldeko hautuak gero eta sarrera handiagoa baitu belaunaldi berrian. Lurralde-batasunaren aldarrikapena inoiz baino sendoagoa da Hegoaldeko eta Iparraldeko ezker abertzalearen baitan. Honen froga da Iparraldeko EHAS eta Hegoaldeko EAS erakundeetatik sortzen den EHAS herri-mugimendua. Hirugarren atala ETak une honetan ezagutzen dituen barne-antolaketari buruzko arazoak aztertzeari eskaintzen zaio. Lau fronte historikoen barne-kohesioa apurtzen deneko garaia da. LAIAk hor du bere sorrera. *Zabalek* zuzenetik ezagutzen duen prozesu hori argigarri izan liteke ETA erakundearen historiografian.

Laugarren zatian, azkenik, euskal intelligentsiaren harrobia aberastera datozen sailak harrotzen dira, gerra osteko belaunaldi hau gehien kezkatzen dutenak, bereziki, kulturari eta hezkuntzari buruzkoak, lehen bi ataletan lantzen direnak, eta horiei atxikirik sail berriagoak datoz, zeinetan sartzen baitira denbora berrien ikur diren beste gaiok: sekularizazioaren fenomenoak, feminismoaren indartzea, kezka ekologikoaren gizarteratzea, euskara modernizatu beharraren kontzientzia, Europako iturri bibliografikoen etxeratzea. Azken bost gaiok banakako ataletan aztertzen ditugu, erreferentzi testua beti *Zabal* aldizkaria dugula.

Saio hauek, jakina, kultura eta hezkuntzaren soziologian sartzten dira, batzuk apalagoak beste batzuk baino, eta edozein kasutan —ez gara lotsa aitortzeko—, hasikin gisa hartu behar direnak. Berritasuna gehienbat betiko gai horietara hurbiltzeko moduan aurki liteke. Eta hemen, hain zuzen, saio honetan harrotzen diren gaien trataeran kausitzen da paradigma berrien itzala. Estrukturalismoa, sozialismoa, marxismoa, sexismoaren iratxoak hegan bezala dabilta *Zabaleko* taldekideen adimenetan eta horien eragina nabarmena izango da lehen saioak plazaratzen hasten den idazle-talde honen baitan.

Zabalen ekarria, bere uzta onduz etorriko den idazle-talde baten ahots propioa da, etorkizunari ezkerretik begiratzen diona, Euskal Herri euskaldun, batu eta sozialista bat eraiki nahi duena. Eta askea. Anitza ere bai, baina beti bere herri-nortasunari errotik atxikia egonda, ideia berritzaileen unibertsoa bertako gizarte-arazoetatik begiratuta kontenplaturaz. Partikularitasunaren eta unibertsaltasunaren arteko joan-etorriak, txikia bada ere, konkretutasun hurbilean du

bere abiapuntua. *Zabal* aldizkaria munduko gertakizunei eta ideiei irekita dagoen leihoa da.

Irakurleak berak ikusiko du *Zabalek*, bere bizitza laburrean, ezker abertzalearen esparruan mezu berririk ekarri zuen ala ez, euskal kulturaren baitan eraginik izan zuen ala ez, geroztik hango gogoetak zein neurritan izan diren gaingituak eta zeinetan ez. Eta horrela segi dezakegu galdezka. Erantzunak, entregak irakurri eta gero, norberak formulatuko ditu.

Donostian, 2015eko maiatzean

Paulo Iztueta Armendariz

LEHEN ZATIA

Paradigma berriak

I

Eskolak marxismo eta sozialismoan

“Hi marxista al haiz?”, galdetu zidan mahai-inguru batean moderatzaileak, nik uste maleziaz, mahaikoen eta entzuleen artean eztabaidarako nolabaiteko konplizitatea sortu nahirik-edo. Ustekabean harrapatzeko teknika bat izan zen huraxe, abila, erantzun biritil bat ezin emanez geratu bainintzen. *Enbata*ko kazetariak, ikusirik *Zabalen* marxismoaz asko hitz egiten zela, Kattalin Idiart zuzendarari aldizkariaren ideologia politikoa zein zen galdetu zionean, honек erantzun hau eman zion:

“Dés le départ, nous sommes définis comme abertzale et socialiste. Nous sommes un carrefour de militants basques de gauche sans liens de dépendance avec une organisation politique précise. Tous nos rédacteurs ne sont pas marxistes, mais il est impossible d’être socialiste et d’ignorer le marxisme, pas plus que les implications politiques de la culture. D’un autre côté Marx a peu dit sur les problèmes nationaux. Je le répète, si nos rédacteurs viennent d’horizons politiques et culturels différents, ils se définissent comme abertzale et socialistes” (*Enbata*, 340, 1975-02-27).

Erantzun horretan bi aldiz errepikatzen baita *Zabale*koek hasiera-hasieratik abertzale eta sozialista gisa definitzen zituztela beren buruak, badirudi bi ezaugarri horiek direla *Zabale*ko lankideak batera dituztenak. Ez horrela marxismoa, zeren lankide guztiak, sozialistak izanik ere, ez baitira horregatik marxistak. Beraz, goiko aipu horren arabera, *Zabale*ko lankideen artean abertzale sozialistekin eta abertzale marxistekin, biekin aurkitzen gara.

Hori guztia, gehiago zehaztu gabe esanda, zuzena da. Baina orokortasun horren barruan nabardurak mila baitira, lankide des-

berdinen artikulua paradigma horien arabera azpisailkatuz etorriko gara. Zehazki, joera hertsiki marxisten artean, Lenin, Gramsci, Althusser, Bettelheim eta Lukacs-en ekarpenak egiten dituztenak aztertuko ditugu; hertsiki sozialistak direnen artean, berriz, kristauak eta kritikoak. Eskema honen eskutik barneratuko gara gaian. Atal honetan sozialismoa diogunean, esan dezagun kontzeptu hori bere adierarik zabalenean hartzen dugula, hor barne-hartuz marxismoa bera ere. Hurrengo atalean jardungo dugu marxismoaren inguruan sortutako eztabaidez.

1. Marxismoak

Marxismoak bere osotasunean hartuta ikuspegi koherente eta bateratua agertzen badu ere, haren teoria praktika politikoa gauzatu nahi izan denean bereziki, herrialde desberdinetako intelektual marxistek beren interpretazioak landu izan dituzte. Jon Sudupek, materialismo historikoaz jardutean eta maila zientifikoa zer-nolako ikerketak egin ziren esaterakoan, esana zeukan, autore klasikoen artean, Marx-ek bere *Kapitala* lanean maila ekonomikoa landu zuela, azpiegiturari zegokiona, alegia; gainegituren mailan, politikari buruzko kontzeptuak Lenin eta Gramsci-k eta ideologiari buruzkoak, berriz, Mao Tsé-Toung-ek.

Horregatik, historian zehar, marxismoa irakurtzeko modu monolitiko bat baino gehiago ezagutu dira. *Zabal*en, zehazki, Gramsci, Althusser, Bettelheim eta Lukacs-en ekarpen batzuk aztertzen dira, autore horiei eskainitako artikulua berezietan, beste azterketa politikoa batzuk, Mikel Urteagaren kasuan bezala, marxismo-leninismoaren bidetik doazen bitartean. Une honetako euskal marxismoaren iturriak, bada, anitzak dira nola maila politikoa hala akademikoan, jarraian ikusiko dugun bezala.

1.1. Karmelo Arroiabek *Zabal*en (9, 1974, 30-35) Gramsci-ren ekarpena, bereziki, ideologi mailan kokatzen du. Honen *Quaderni del carcere* izeneko izkribuak, haren hitzak erabiliz esanda, “Mendebaleko gizarte kapitalisten sistema ideologikoaren analisisa dira, eta Marx-en *Kapitala*-ren konplementu edo betegarri beharrezkoak” (Arroiabe, 9, 1974, 30). Marxismo ortodoxotik urrun, Italiako Lenin deitu ohi zaio.

Artikulu honetan hiru ideia nabarmentzen ditu haren ekarpean: estatua eta ideologi borroka, intelektualen egitekoa eta alderdi iraultzailearen beharra.

Estatua aztertzerakoan, Gramsci-k bi maila bereizten ditu: batetik, *gizarte zibila* eta, bestetik, *gizarte politikoa*. Lehenengoan sartzekoak dira gainegiturari dagozkion erakunde ez-bortxazkoak (erlijiozkoak, eskolak, komunikabideak, etab.) eta bigarrenean, berriaz, gainegiturari dagozkion bortxazkoak (politikoak, polizialak, militarrek, etab.). Estatuak, beraz, bi funtzio betetzen ditu: hegemoniazkoa gizarte zibilaren bidez, eta menerapenezkoa, gizarte politikoa bidez. Horregatik, egun, gaurko gizarte kapitalistan, iraultzak ezin eskura dezake kolpe batez estatu-boterea, zeren gizarte zibileko elementu guztiak jokoan baitaude eta klase menperatuek beren zapalkuntza onartzen baitute. Langile-borrokak, bada, estatu-botereari eraso aurretik, gizarte zibilean nagusitzen den indar hegemonikoaren kontra borrokatu behar du. Lehen bataila, bada, gizarte zibilaren zelaian irabazi behar da, orokorrean maila ideologikoan eta, berezikiago, kulturean. Hemendik dator intelektualei aitortzen zaien egiteko historikoaren garrantzia.

Intelektualak klase bati lotuak dauden arren, hauek nolabaiteko autonomiaz jokatzeko baitute, ez klase-mailan, baizik kapa-mailan sailkatzen ditu. Eta hauen baitan, bi intelektual-mota aurkitzen dira: *organikoak*, gizarte-egitura batean klase aurreratuei atxikiak eta beren egiteko hegemonikoa jokatzerako deituak daudenak, eta *tradizionalak*, klase atzerakoei uzartuak daudenak eta desegiterra doazenak. Iraultzaren estrategia finkatzeko orduan, kontuan hartu beharrekoa da intelektualen egitekoa, zeren, boterea lortzeko, klase guztiak intelektualen beharra baitute. Intelektual tradizionalak norik bereganatu, hementxe jokatzeko da burgesen eta langileen arteko borroka ideologikoa.

Klase batek beharrezkoa du erakunderen bat izatea beren xede politikoa aurrera eramateko. Egiteko hau betetzera dator alderdi iraultzailea. Ezin da espontaneismoz jokatu. Lau dira alderdi iraultzaile baten egiteko nagusiak: a) bere klase-ikuspegia zabaltzea; b) zabalkunde ideologikoa metodo pedagogikoa erabiliz egitea; c) populu-masa intelektuali eta moralki gidatzea; d) borroka fronte desberdinetan egitea, langile-mailan, kultura mailan, etab.

Artikulu-egileak azpimarratzen duen ideia nagusia, azken batean, hau da: Gramsci-k gainegiturren mailan kokatzen den “kul-

tur eta ideologiazko gatazkari ematen diola garrantzia eta lehentasuna”, alegia (Arroiabe, 9, 1974, 35).

Beraz, Gramsci-rekin, azpiegiturarena ukatu gabe, gainegituraren egiteko historikoa berreskuratzen da, hemen, bereziki, intelektualen egitekoa nabarmenduz. Izan ere, gramsciaren arabera, gizarte zibilean borroka ideologikoa irabazi gabe, ezin da pentsatu gizarte politikoan boterea lor daitekeenik. Zergatik? Harik eta gizarte zibilean klase menperatuek beren zapalkuntza-egoera asimilatua daukaten arte, langileriak zer eginik ez daukalako. Guk azken ondorio hau ateratzen dugu hortik.

1.2. Jon Sudupe “Perugorria”^{k2}, bere aldetik, hiru artikulu idazten ditu Louis Althusser-en gainean eta bera da haren teoria sistematizaturik euskal kulturaren txertatzen ahalegintzen dena. Hemen, oinarritzat, haren *Eléments d'autocritique* (1974) edota, euskaraz, *Autokritika gaiak* liburuko tesiak laburbiltzen ditu. Marxismoak, honen ustez, azken hamar urte hauetan (1965-75) aurrerapen handiak egiten ditu eta, Txillardegik 1960ko hamarkada-bukaeran iragarri zuenaren kontra, oraindik modan segitzen du, inoiz baino biziago, gainera.

Louis Althusser-ek eraginda, “Nouvelle École Française” izeneko eskolaren inguruan, metodologia marxista darabilten ikertzailemordo bat agertzen da: Balibar, Baudelot, Establet, Poulantzas, Bettelheim, Palloix, Rey, etab. Frantzian bederen, Althusser izan zen 1964-68 urte-inguru horretan marxismora berrikuntza teorikoa ekarri zuena, PCF krisian sartua zegoen unean, alegia. Autore hauek izango dira diziplina desberdinetako ikerketetan teoria marxista aplikatuko dutenak: André Gorz-ek lanaren zatiketari buruz, Castells-ek hirigintzaz, Baudelot eta Establet-ek eskolaz, N. Poulantzas-ek klase-borrokaz.

Filosofian ikuspegi erlijioso, espiritualista eta idealista nagusitzen omen da eta honi materialista kontrajarri behar omen zaio, pentsamendua zientifizismoz hornitu ahal izateko. Euskal kulturgintza, “bots fraile eta sei intelektualen” esku dagoena (Sudupe, I, 12, 1975, 48), humanismoaren gaitzak joa daukala uste du. Beren izen propioekin izendatuta, besteak beste, Joxe Azurmendi, Garate anaiak eta Txillardegi gaitz horren kutsatzaileak dira. Hauek eta hauen antzekoek, hala dio, marxismo dogmatikoaren tesiak ezezten gastatu dituzte beren indarrak eta ekarpenik ez da egin ikerlanen mailan. Defizit hori gainditu nahirik, Jon Sudupek Althusser-en

lanak eman nahi lituzke ezagutzera euskal kulturaren, haren idazlanak euskarara itzuliz. Jakinarazten digu haren *Pour Marx* (1965) Mario Onaindiak euskaratua dela jadanik, eta haren bigarren aldikoak, zehazki *Lénine et la philosophie* (1969), *Idéologie et appareils idéologiques d'Etat* (1970), *Réponse à John Lewis* (1973) eta *Eléments d'autocritique* (1974), euskaratzen ari direla. Ez dakigu zertan diren azken hauek, ezta Marioren itzulpena inoiz argitaratua izan den ala ez. Dakarrena da, *Jakinen* eskuetan zegoela eta lehenbailehen argitaratzeko eskatzen diela.

Marxismoa dela-eta, berebiziko nahasketa dago euskal munduan. Berak esatera, “teoria marxistako kategoria filosofikoak (filosofia marxista) eta kontzeptu zientifikoak (materialismo historikoa) nahasten dituzte” (Sudupe, I, 12, 1975, 48). Horregatik, komeni litzateke, Althusser-en ekarpenak euskaratzeaz gain, terminologia marxistaz ere jabetzea. Alde honetatik begirata, Marta Harnecker-en *Los conceptos elementales del materialismo histórico* liburua, edo horren gisakoren bat, euskaratzea proposatzen du.

Nolanahi ere, Jon Suduperen ustez, Althusser-en ekarpenik handiena, berak “ebakidura epistemologikoa” kategoriaren bidez adierazten duena da, zeina 1968an, hots, haren pentsamendu-eboluzioko bigarren aldiari kokatzen baita. Kontzeptu hori Bachelard-i zor dio. Maoismora pasatzen diren bere zenbait dizipulurekin eten egiten du une honetan, berak PCFn segituko duelarik. Hauek dira haren tesi nagusiak:

1. *tesia*: Haustura edo “ebakidura” honetan Marx zaharra aurkitzen du, zehazki *Aleman ideologia* izeneko lanean, zeinetan, gaztaroko lan humanistetan ez bezala, kontzeptu zientifikoak lantzen baititu, hala nola: produkzio-modua, produkzio-erlazioak, produkzio-indarrak.

2. *tesia*: Haustura horrek, zehazki, marxismoaren ideologia burgesarekiko etena suposatzen du eta, hori eginez batera, zientziaren eta ideologiaren arteko antagonismora pasatzen da³.

3. *tesia*: Hausturak zientzia berri baten jaiotza suposatzen du: hots, historiaren kontinentearena. Marx-en aurretik bi kontinente bakarrik zeuden: matematikarena grekoekin eta fisikarena Galileo-rekin; agian, Freud-ena ere bai, inkontzientearena, alegia. Marx eta Engels dira historiarena aurkitzen dutenak⁴.

4. *tesia*: Haustura etengabea da. Kontzeptu zientifiko berriak aurkitu ahala, beroriek beti, etengabe, berrikusi beharrekoak dira, erroreak zuzendu beharrekoak⁵.

Dena dela, lehen artikuluko honen bukaeran, onartzen du J. Sodupe (I, 12, 1975, 52), garai honetan, marxismoak baduela oraindik “gaizki esploratutako kontinenterik: problema nazionala, emakumeen kondizioa, e.a.”. Gaur ez dakigu honetaz guztiaz zer esango lukeen.

Bigarren artikuluan dakarrenez, Althusser-en azken izkribuei jarraituz bereziki, 15 tesitan formulatzen ditu marxismoari buruzkoak. Lehen bost tesiek, hain zuzen, teoria marxistaz dihardute orokorrean, hots, historiaren zientziaz eta filosofiaz. Hemen egiten den baieztapen nagusia, bere hitzez esanda, hauxe da: “Teoria marxistak zientzia bat (materialismo historikoa) eta filosofia bat (materialismo dialektikoa) ditu(ela). Bi diziplina berezi, beraz” (Sodupe, II, 13, 1975, 40)⁶. Proletalgoak, klasearteko borrokan, materialismoa historikoa zein dialektikoa erabiltzen ditu arma gisa. Iraultzaile marxista handiek (Engels, Lenin, Stalin, Gramsci, Mao-k eta) aitortu izan dute proletalgoak, “historiaren zientziarena ez ezik, filosofia marxistaren beharra ere” baduela (Sodupe, II, 13, 1975, 41).

5. *tesia*: Materialismo historikoa zientzia bat da. Bera da historiaren kontinente berria irekitzen duena. Honi buruzkoa honela formulatzen du:

“Marx-ek zientzia berri bat finkatu zuen: Historiaren Zientzia. Azken denboretan eman den gertaera teorikorik inportanteena da berau. Grekoek matematikarena eta Galileo-k fisikarena bezala, Marx-ek historiaren kontinentea idoro zuen. 1845 aurretik ez zen zientzia baten zimenduak eraikitzen hasten da Marx une horretan. Humanista aroko obretan aurkitzen ez den kontzeptu zenbait lehen aldiz agertzen digu: produkzio modua, produkzio indarrak, produkzio erlazioak, infraestruturak, ideologia, e.a. Hau ukaezineko egin bat da. Ezin gibelatuzko zerbait abiatzen da, hortaz, 1845ean. ‘Haustura epistemologiko’ bat obratzen da (...) Produkzio modua instantzia edo plano desberdinez artikulatutako ‘osotasun organiko’ bat da: infraestruturak ekonomikoa, (determinantea azken instantzian), superestruturak politikoa eta superestruturak teoriko-ideologikoa. Osotasun konplikatua horren teoria da materialismo historikoa” (Sodupe, II, 13, 1975, 40-41).

Tesi hori da funtsezkoena, zalantzarik gabe, hemen oinarritzen baita Marx zaharraren 1845az geroztiko idazlanean idoro uste duen zientzia berriaren eraikuntza, historiarena, alegia. Hirugarren artikuluan dihardu espezifikoki materialismo historikoaz. Honetaz dakartzan puntuak, hauek dira:

a) Marx-ek bere zahartzaroko idazlanetan historiaren kontinente berria aurkitzen duela, zeinetan barne-hartzen baititu ekonomia, politika, ideologia, instituzioak, zientziak, etab. Beste pasarte batean dioen bezala, “historia kontinenteak praktika sozial historikoaren artikulazio ekonomiko-politiko-ideologikoa du adierazten”⁷. Althusser-ek, aurkikuntza honekin, frogatu nahi du marxisten materialismo dialektikoa ez dela mito bat, burges ideologoen salatzen duten bezala, diziplina zientifikoa baizik.

b) Materialismo historikoa, funtsean, teoria zientifiko bat da. Eta hala da, pasarte honetan esaten den bezala⁸, metodo gisa berak artikulatzen dituelako bilakabide historikoa esplikatzen duten oinarritzko hiru elementu hauek: hots, produkzio-modua, dialektika materialista eta klasearteko borroka. Hemen, J. Sodupe, materialismo historikoa eta klasearteko borrokarena at utzita, produkzio-modua eta formazio soziala bakarrik aztertzen ditu.

c) Produkzio-moduari dagokionez, Althusser-ek hala dio bere azalpenean, bi maila espezifikoz artikulaturik aurkitzen da gizarte-egitura. Honen baitan, batetik, *azpiegitura* ematen da, zeinaren oinarria, produkzio-indarren eta produkzio-harremanen bidez, ekonomiak zertzen baitu; bestetik, *gainegitura* ematen da, eta hau elementu juridiko-politikoek eta ideologikoen mugatzen dute. Beraz, produkzio-moduak hiru mailaz osatutako egitura globala du, zeinetan sartzen baitira, esan bezala: a) maila ekonomikoa (produkzio-indarrak eta produkzio-harremanak), b) maila juridiko-politikoa (estatua, administrazioa, etab.), eta c) maila ideologikoa (eskola, eliza, ohiturak, etab.).

“Kristau marxistak direla eta...” artikuluan, adibidez, erlijioaren egitekoa, klasearteko borrokan, ideologi mailan kokatzen du (Sodupe, 18, 1976, 24-25). Marx baitan, bestalde, erlijioari dagokionez, bi aro bereizten ditu, gaztarokoa eta helduarokoa: lehenengoan, Jainkoa eta gizakiaren arteko antagonismoan oinarritutako humanismoa aldarrikatzen du; bigarrengoan, ordea, haren ateismoa metodologikoa da, fenomeno erlijiosoak esplikatzeke ez baitauka

Jainkoagana jo beharrik. Ondorio gisa, esan behar da garai honetan kristau marxisten inguruan sortzen diren mugimendu desberdinak (Frantzian “chrétiens-marxistes”, Txilen “cristianos por el socialismo” eta Euskal Herrian horren adarreko “sozialismoaren aldeko kristauak”) izan zirela, Marx-en althusseriar irakurketaren arabera, ateismo metodologikoari dagokion elementuetako bat. Ez dauka zerikusirik humanismoarekin.

Goian azaldutako egitura orokor honen baitan, aldi berean, oinarrizko beste puntu hauek azpimarratu behar dira:

Lehenik, testuinguru historiko desberdinen arabera, gerta daiteke, nahiz eta, azken instantzian, azpiegiturak (funtsean, ekonomiak) determinatzen duen beti gainegitura, ekonomikoa ez den beste faktore bat nagusi izatea: Erdi Aroan, adibidez, ideologikoa, hots, erlijioa.

Bigarrenik, azpiegiturak mugatzen badu ere beti gainegitura, azken honetako maila bakoitzak –juridiko-politikoak nahiz ideologikoak–, badu bere autonomia erlatiboa eta, zentzu honetan, gainegitura ez da faktore ekonomikoaren ondorio huts bat; aitzitik, badu bere izaera propioa.

Hirugarrenik, produkzio-modu orok bere iraupenerako behar dituen jarraipen-baldintza guztiak erreproduzitzen ditu. Bestela esanda, kapitalismoak, zutik irauteko, langile-zapalkuntza gauzatzen duen gizarte-sistema birsortzen du. Ondasun materialak produzitu ahala produkzio-moduak erreproduzitzeko joera du.

Kontuan hartu behar da, Althusser baitan, erreprodukzioaren ikuspegia nagusitzen dela. Gainegiturari autonomia erlatiboa aitortzen bazaio ere, ez da hori ezer berenetik produzitzeko gai. Pasibotasunera kondenatua dago. Eskema honetan erresistentziarako ez da lekurik geratzen.

d) Produkzio-moduaren kontzeptua, ordea, kontzeptu abstraktu bat da, gizartea bere osotasunean ukitzen duen tipo ideal bat. Errealitate konkretuan eman, ez da ematen bere egoera hutsen produkzio-modu garbirik. Historian zehar, segun zein testuinguruan, produkzio-modu desberdinak eman izan dira. Horregatik, noiz-nongo jakin bati loturiko gizarte-errealitatea osotasun konplexu eta nahasia izaten baita, honi *formazio soziala* deitzen zaio. Beraz, gizarteko errealitate konkretuan izan, formazio sozial desberdinak dira, zeinak lehen aipatutako hiru mailez osaturik baitaude.

Materialismo historikoaren egitekoa, hain zuzen, gainegituraren funtzionamendua azpiegituraren argitan deskribatu eta esplikatzea da. Hau egin, ikergai den formazio sozial jakin bat modu enpiriko batez aztertuz egiten da. Galdetzen bada zein den Marx-en *Kapitala* liburuaren ikergaia, esango da produkzio-modu kapitalista aztertzea dela, errealitatean inoiz ere egoera huts-garbian aurkitzen ez den objektu abstraktu bat, alegia.

Materialismo historikoa teoria zientifiko bat den ala ez, hau da beste galdera garrantzitsu bat. Bai, hala dela erantzungo da, zeren materialismo historikoa baita formazio sozial desberdinak zientifikoki aztertu eta ikertzeko kontzeptu abstraktuak ematen ditue-na, hots: produkzio-indarrak, produkzio-moduak, azpiegitura eta gainegitura, maila hirukoitzak –ekonomikoak, juridiko-politikoak eta ideologikoak– osaturiko batasuna, formazio soziala, maila ba-koitzaren autonomia erlatiboa, etab.

Azkenik, materialismo historikoan bi maila bereizi behar direla esango du: batetik, teoria *orokorra* eta, bestetik, produkzio-modu desberdin bakoitzaren teoria *erregionala* (esklabista, feudala, kapitalista, sozialista, etab.). Laburpen gisa, materialismo historikoaren zientifikotasunaz, hauxe dakar:

“MHk, teoria guztiak bezala, ez digu ezagutza konkreturik ematen, baina bai objektu konkretu horien ezagutza zientifikoa lortu ahal izateko lan tresnak (teori langailuak). MHk ez luke deusetarako balio, baldin eta errealitate konkretuak analizatzeko erabiliko ez ba genu” (Sudupe, II, 15, 1975, 24).

6. *tesia*: Materialismo dialektikoa filosofia bat da, zeinaren egitekoa, azken batean, mundua eraldatzea baita:

“Materialismo dialektikoa da filosofia marxista (...) Feuerbach-i buruzko XI. tesiak ordurarteko filosofia *interpretatzailearekin* (Hegel, Feurbach) hautsi zuen. Filosofia marxista hortxe hasten da. Zer zioen XI. tesi horrek? Filosofoek mundua interpretatu bakarrik egin dute, problema berau itxuraldatzea da. Argiro dago: ez dugu filosofia berririk behar, *filosofiaren praktika berri* bat baizik” (Sudupe, II, 13, 1975, 41).

Materialismo dialektikoa klasearteko borrokari buruzko teorian oinarritzen da. Klasearteko borrokak historian zehar forma desberdinak hartzen ditu: hots, ekonomikoa, politikoa, ideologikoa

eta teorikoa. Platonez geroztik, filosofo handi guztiak mintzatu izan dira politikaz. Honek esanahi du du filosofia, funtsean, politika dela. Filosofia politika da teorian.

Nolanahi ere, pasarte honetan azpimarratzen duen bezala, filosofia eta zientziak izaera desberdinekoak dira:

“Filosofiak enuntziatzen dituen proposizioak tesiak dira. Zientziak agertzen dituzten proposizioak demostrazioak dira (...) Tesiak proposizio dogmatikoak dira: ezin daitezke proposizio matematikoak bezala demonstra, ez eta zientzia esperimentalen modura, zientifikoki proba” (Sudupe, II, 13, 1975, 42).

Hemendik ateratzen diren ondorioak, hauek dira: bat, filosofia eta zientziak diziplina desberdinak direla; bi, filosofiazko proposizioak, izaeraz, teoriko-praktikoak direla; hiru, filosofia zientzia ez denez, ezin dela esan tesi filosofikoren bat, edozein, zuzena den ala ez, egiazkoa den ala ez. Horregatik, filosofian enuntziatuak ez baitira demostratzen ahal matematikan edo fisikan bezala, haren sailean joerak ematen dira, zeinak, funtsean, materialismo eta idealismoaren arteko binomio antagonikoen inguruan biltzen baitira, elkarri kontrajarrita, segun eta tesi filosofiko horiek zein klase-ikuspegitik abiatuta formulatzen diren. Alderdi honetatik begiratuta, politikagintza, ideologigintza eta zientziagintza gauzatu, klase-posizio teorikoen gunetan gauzatzen direnez gero, horiek, azken batean, praktika sozialak dira. Jarrera filosofiko orotan, dauden joerak oro kontraesanen hegitik behar dira begiratu, kontraesan horietan joera nagusiak, sekundarioak-eta, bereiziz. Filosofian gertatzen den orok ditu bere ondorio politikoak, ez bakarrik teorian, baita klasearteko borroka politikoan ere (Sudupe, II, 13, 1975, 43).

1.3. Jose Manuel Odriozola “Izarreko”k (14, 1975, 27-30), “Sozialismoaren egungo zenbait arazo” artikuluan, berenetik aritu gabe, L. Althusser-en eskolakoa den Charles Bettelhim-ek Paul M. Sweezy-ri zuzendutako azken gutunetik jasotako ideiak dakartza, Siglo XXI argitaletxeak kaleratutako bilduman datozenak. Hiru puntu ukitzen ditu: hots, iraultzaren baitatik irtendako boterearen klase-izaera, klase proletario baten ezaugarriak eta, azkenik, gidari den alderdiaren ezaugarriak.

Lehen puntuari dagokionez, autore honek egiten duen lehen galdera da ea, iraultzaren bidez boterea hartu eta gero, botereaz jabetzen den *alderdi iraultzaile* nagusiak zeini zerbitzatzen dion, langile-

klaseari ala proletarioa ez den beste klase bati. Izan ere, boterearen izaera nolakoa izan, halakoa izanen baita iraultzarena ere. Euskal ezkerrek argitu beharra dauka puntu hau.

Argitu beharreko bigarren puntua, *proletalgoaren diktadurari* buruzkoa da, jada Lenin-ek 1917an landu zuena. Esaten da, langileek iraultza ondoren egoera berriaren erabateko kontrola har dezaten, behar-beharrezkoa dela estatu zaharreko aparatu osoa desagitea. Hauxe da eman beharreko lehen urratsa, zeren, produkzio-bideen mailan egiazko etenik ematen ez bada –zenbait iraultzatan gertatu izan den bezala–, lehengo harreman zapaltzaileak erreproduzitzen baitira. Honek inplikutzen du, bada, langileriak berak kontrolatu behar dituela bere produkzio-bideak. Zentzu horretan ulertu behar da proletalgoaren diktadura, zeina sozialismoaren oinarritzko ezau-garria baita.

Hirugarren puntuari dagokionez, gidaritzat hartua den alderdi jakin bat egiazki iraultzailea den ala ez jakiteko, hark praxi politikoan daraman jokabidea hartu behar da kontuan, ez baita nahikoa bere burua maila ideologikoan halakotzat aitortzea. Alderdiak, gidaria eta iraultzailea izango bada, proletarioen aldekoa izan beste biderik ez du. Puntu hau gure testuinguruan argitzeari ere garrantzizkoa deritzo, zeren, laburtzailearen ustez, euskal ezkerren munduan ari diren erakunde batzuen aurrean, hauen mundu nahasian, ematen baita errotiko burgesia txikiari dagokion politika-motarik ere.

Bere laburpenarekin jarraituko duela agintzen badu ere, hurrengo zenbakietan ez dator segidarik. Baina honaino esana aski da haren marxismoa proletalgoaren diktaduran oinarritzen dela ohar-tzeko. Praxi politikoan langileriaren interesak lehenesten ez dituen alderdia ez da iraultzailea. Printzipio honen gainean eraikitzen da, hain zuzen, LAIAren filosofia politikoa.

1.4. Mikel Urteaga “Baigura”k (11, 1975, 45-52, “Legezkoa, justua, zuzena” artikuluan, Budapest-en 1971n hilberria zen Lukacs-en *Histoire et Conscience de classe* liburuko ideiak jorratzen ditu, bereziki, ezarritako ordenari buruzkoak. *L'ordre établi* da oinarritzko kontzeptua.

Arazoaren planteamendua honela formula dezakegu: onartuz gero marxismoa iraultzaren teoria dela eta, bidenabar, bera dela langileria bere zapalkuntzatik askatzeko gidaria, nola lortzen da langileriak bere egiteko honen kontzientzia historikoa hartzea? Zergatik gertatzen da langileriak berak –klase zapaldua den horrek,

alegia-, bere zapalkuntza-egoera legeztatzen duen ezarritako ordena onartzea?

Galdera horiei erantzuteko, marxista iraultzaileen eta sasi-marxisten arteko bereizketa egiten da, esanez haientzat lehentasuna estatu-boterea hartzeak duela eta hauentzat, aldiz, estatua klase guztien gaintetik dagoen erakundea dela eta, beraz, ez dagoela zergatik uzkailei. Azken hauen jarrera, beraz, erreformista dateke, oportunistata, burgesa, likidazionista, estatuaren sakratutasuna aldarrikatzen duena. Jarrera hauxe da, hain zuzen, Frantziako gobernu liberalean nagusitzen dena. Taktika demagogiko hau biziki eraginkorra gertatzen da alienatua den herri batean.

Hori horrela izanda, pentsamoldez aldatu beharra dago, beraz. Berriro hemen gainegituraren garrantzia azpimarratzen da, zeren espresuki esaten baita, “proletalgoaren iraultzan, ideologiaren garrantzia handia” dela (Urteaga, 11, 1975, 46). Kapitalismoak “bakea” ezarritako ordenaren barruan aldarrikatzen baitu, errealitatean konstatatzen da “langile masa handiak kapitalismoaren ideologiapean bizi” direla (Urteaga, 11, 1975, 46). Beraz, iraultzarako traba, izan, ideologiazkoa da, eta hori gainditu egin behar da. Hemen Lukacs-ek ere, Gramsci-ren antzera, lehenik maila ideologikoan borrokatzera deitzen du alderdi iraultzailea. Masen kontzientzia berreskuratu gabe, estatu-botereak ez luke ez lekurik ez zentzurik.

Zer egin behar den ataka horretatik ateratzeko? Bi gauza. Lehenik, traba ideologikoa gainditu ahal izateko, hots, burgesen legea praktikan ez dela legea erakusteko, bide legalak eta ez-legalak, biak txandaka, erabili behar dira. Bigarrenik, etengabeko iraultza eraman behar da maila ideologikoan, bereziki kulturaren eragina izan dezan. Maila honetan Txina, Korea, Viet Nam eta Kubako iraultzak hartzen dira eredutzat.

1.5. Orokorrean, marxismo-leninismoaren ereduak indar handia du, handiena agian, *Zabaleko* lankide marxisten artean. Baina bat nabarmentzekotan, Mikel Urteagaren lanak kokatu beharko genituzke korrante honen barruan. Marxista-leninista purua dugu bera.

Autore honek berak, “Nora goaz” lanean (Urteaga “Huarte”, 2, 1973, 6-7), Ikastolez eta Alfabetakuntzaz ari dela, “Lenin-en erranak matematikoki eta dogmatikoki” hartzen dituzten jendeak salatzen ditu, esanez, “euskal populua tronpatu nahi” dutela eta bide horretatik likidazionismora doazela.

“Proletalgoaren aginte bakarra” izeneko artikuluan (Urteaga, 7, 1974, 37-42), berriz, Kropotkin anarkistak diktadura-mota guztien kontra botatzen dituen ideiak arbuia garri iruditzen zaizkio. Anarkismoak esaten duenean diktadura guztiek, azken batean, iraultza hiltzea dakartela eta esklabotasuna iraunarazten dutela, hori esatean, nahiz haren diskurtsoa ezkerretik arituz eraikia izan, marxismo klasikoak aldarrikatzen duen oinarritzko printzipioetako bat ezezten du: hots, proletalgoari bakarrik dagokiola boterea izatea. Proletalgoaren diktaduraz ari dira bai Marx eta bai Engels ere. Pariseko Komunan (1789-95), adibidez, langileriak bereganatu zuen boterea eta, Engels-en ustez, han konplitu zen proletalgoaren diktadura.

Mikel Urteagak bi botere-mota bereizten ditu: bata gutxiengo batek gehiengo baten kontra borrokatuz erdiesten duena –honelakoa zen botere frankista–, eta bestea gehiengoak, proletalgoak alegia, gidatzen duena –marxistena, alegia–. Azken botere-mota hau aldarrikatzen du Euskal Herriarentzat⁹. Eta adibide gisa, lehengo eredu historikora joatea proposatzen du, Parisko Komunara, alegia. Hurbilekoen artean, berriz, Albaniako kasua dakar, non, nazioa askatuz gero, “aginte hau, proletalgoaren aginte bakar bihurtu zen, estatu Herriko demokratikoaren era hartuz” (Urteaga, 7, 1974, 40).

Bestalde, likidazionismoaren haritik segituz, maila batean edo bestean egiazko iraultzaileak ez diren marxistak bereizten dizkigu orokorrean. Honela, “Likidazionistak eta gu” izeneko bi artikuluetan¹⁰, marxismo-leninismoak nazionalismoa zein internazionalismoa –biak–, sostengatzen dituela baieztatzen du. Hori esan eta gero, nazio-arazoa likidatzen dutenak kondentzera pasatzen da. Hego Euskal Herrian ezkerreko erakunde eta alderdi estatalak sartzten ditu likidazionismoaren taldean, garai hartan sozial-inperialismoaren habian kokatu ohi zirenak, zehazki, MCE, ORT, ETA VI eta PCEkoak. Hauek aldarrikatzen duten kosmopolitismoa gezurrezkoa da, proposatzen duten internazionalismoa sasikoa, Euskal Herriari bere subiranotasuna ukatzeko tranpa ideologiko bat besterik ez dena:

“Soberania utzi behar da, hala demokrazia hobekiago zaintzeko, gerlak aldentzeko eta bakea azkartzeko. Herri kapitalistek eta organizazio likidazionisten pentsalariak diote, soberania, USA-n batzuek eta URSSen eskuetan besteak (edo Espainiaren edo Frantziaren babesean besteak) utzi behar dela, horrela elkarrekin demokrazia eta etsaiak hobekiago defendatu ahal izateko” (Urteaga, I, 15, 1975, 5).

Beraz, Mikel Urteagaren irakurketan, euskal nazionalismoaren defentsa marxismo-leninismoaren ikuspegitik begiratuta egin ezinik ez da. Alderantziz, nazionalismoa, berez, ez dago internazionalismoaren kontra. Ez dira joera antagonikoak marxismoaren barruan¹¹. Eta baieztapen honen frogaiturri gisa, Engels-en aipua dakar. Txinan, Korean, Viet Namen, Kanbodian-eta, eramandako borroka, orobat, nazionala da. Eta autoreak ateratzen duen ondorioa da “independentziaren zaintzea, nazioko indar sano guztien benetako in-tereseekin bat” datorrela (Urteaga, 16, 1975, 4).

Harentzat, bada, marxismo-leninismoak nazio-arazoei atarabide egokia emateko balio zuen, nahiz eta ordurako gai espezifiko horren inguruan kontrako argumentuak emanak ziren erdarazko nahiz euskarazko argitalpen desberdinetan. Ezker abertzalean badira oraindik, Mikel Urteagaren antzera, euskal nazionalismoaren defentsa marxismo-leninismotik itsu-itsuan egiten dutenak, honek, koloni kasuetan salbu, independentziaren aldarrikapena aintzakotzat har baliezan. Geroztik ere nahasketak jarraitzen du. Puntu honetan, gure ustez, likidazionista deituak zuzenago zebiltzan.

Azkenik, “Ultra ezkertiarak” izeneko beste artikulua batean (17, 1976, 27-30), horien akatsak zein diren zehazten du. Dio, indar herrikoiak ez dituztela aintzakotzat hartzen, klasearteko aliantzak (laborariekin-eta) egiteari uko egiten diotela, iraultza-bidean etapak ez dituztela onartzen, proletalگو puruaren kultu abstraktua aldarrikatzen dutela, espontaneismoan inspiratzen direla, langile-alderdiak txartzat dauzkatela, nazio-arazoa ukatzen dutela, etab. Hauek dira, besteak beste, ultra ezkertiarztat dauzkan iraultzaile troskista eta luxemburgistei leporatzen dizkien salakuntzak.

Laburtuz: Mikel Urteagarentzat, marxismo-leninismoa behar bezala ulertzen ez duten horiek dira iraultzarako bidean desbiderapenari leihoa irekitzen diotenak. Arriskutsuak benetan. Horrelakoak ditugu, goiko testuetan esan bezala, bai likidazionistak bai ultraezkertiarak.

2. Sozialismoak

“Kultur mugimenduz” izeneko artikuluan, pasarte hau irakurtzen da:

“*Zabal* aldizkari gaztea Iparraldekoa dugu. Zuzendari eta bertako idazleek diotenez aldizkari sozialista bat izan nahi omen luke. Orduan, beraz, *Zabal* litzateke bere ahoz baieztatu duen lehen euskal aldizkari sozialista. Halere ez da garbi ikusten sozialismo hortaz duten zentzabidea eta irizpidea. Dena dela, aldizkari honi esker Ipar Euskal Herria sakonagotik ezagutzeko aukera bat dugu, han bizi dituzten arazo nagusien lekuko da eta. Bestalde, artikulu jakingarririk azaldu da bertan. Eta gaur gaurkoz euskal sozialistok nahitaezkoa dugun aldizkari bihurtu zaigu, borroka politikoa, teoria eta ideologia mailan ere nonbait adierazi behar harko baita noski. Gorago jakinarazi dugu nola hegoaldeko aldizkarietan egin behar hori ezin den bete, burutu. Euskara batuaren aldeko da halaberrez, eta oraingo eredu bat aurkitu ez badu ere horretarantz doala ematen du” (*Zabal*, 10, 1974, 51).

Hori da “Eneko” ezizenez izenpetzen duenak *Zabal* aldizkari gazteaz duen aburua. Hori idaztean, *Zabaleko* 1974ko 7. zenbakiko “Aintzin Solas”a irakurriko zuen, seguru asko, hor esplizituki esaten baita aldizkari horren atzean “abertzale sozialista talde bat” ari dela lanean¹². Eta berak ez bide du batere garbi ikusten zein eduki ematen zaion kontzeptu horri *Zabalkideen* artean. Jada 10. alearen aurretik, hamaikaxto artikulu badira argitaratuak sozialismoaren gainean. Beharbada, ez zituen denak irakurriak izango. Dena dela, transkribatu berri dugun pasarte hori ezin egokiago dator hemen, zeren, izan, oinarritzkoa baita garai honetan sozialismo eta marxismoaren inguruan irekitzen den eztabaida, dakigunean, gainera, gai honen muinak ertz-gune anitz dituela eta modu askotara ulertua dela. Batzuk iturriak arakatuz eta aipatuz, beste batzuk bere kabuz jardunez. Horregatik, gure lana, etxegintzan kantoï-harriekin bezala, hemen kiski han koska, ertz horiek arteztuz eta leunduz, bakoitzarena zehaztuz joan besterik ez zaigu geratzen. Honek, jakina, testuak berak barrutik iruzkintzea eskatzen du. Horrela jokatzu bakarrik iritsiko gara *Zabalen* sozialismoa kolore bakarrekoa ala askotarikoa den jakitera.

“Eneko” hori nor den ez dugu jakin. Oso ezaguna izango da –idazkeraz Hegoaldekoa dela ematen du–, baina nor den ez dakigu. Berdin da. Zuzendaritzak noiz esan du bera dela lehen aldizkari sozialista? Esan ala ez, badago hala izan zen jakiteko biderik, eta da, hain zuzen, orain egiten ari garen bidea egitea, urratsez urrats segituz bakoitzaren ikuspegi eta zertzeladak.

Hemen eskola “sozialistakoak” esatean, hertsiki marxistak ez direnak eta pentsaera sozialista dutenak aipatzen dira, sozialismoa bere zentzurik zabalenean hartuta, izan dadila kristaua zein laikoa, kritikoa zein eklektikoa. Adiera zabal honetan sartzen ditugu, asmatu ala ez, J.-L. Davant eta F. Krutwigen ikuspegiak.

2.1. Kristau-sozialismoa

Jean-Louis Davantek¹³ sozialismoaz *Zabalk*ideok sozialismoaren gainean dituzkegun aldeak eztabaidatzeko asmoarekin idazten du bere artikulua, haren ustez euskaldunok zer-nolako sozialismoa nahi dugun ez baita gutartean inoiz finkatu. Berak kristautasunari atxikiz bereganatzen du sozialismoaren ekarria euskal kultura eta politikaren sailean. Bere iritzia agertu aurretik, sozialismoaren inguruan dauden zenbait iluntasun argitzen saiatzen da. Izan ere, sozialismoa duela XIX. mendeaz geroztik teorian zein praktikan gauzatu baitator, jakin behar da ideologoez zer idatzi duten hartaz eta erakunde sozialistek nola praktikatzen duten beren gizarte-egitasmoa.

Honela, sozialismo humanistari dagokionez, berak ez daki hori zer den, dioenez, “nehork ez baitigu behin ere azaldu” (Davant, 13, 1975, 1). Neurri batean, ezin ukatu hala izan dela, zeren eskola jakin bat baino gehiago joera bat izan baita, historian zehar adiera desberdinak izan dituen¹⁴. Nolanahi ere, gurean bederen, sozialismo-joera hau zerbait argitua zegoelakoan geunden, *Branka*-koek, adibidez, bide hori hautatzen baitute garbiki. Gero itzuliko gara puntu honetara. Marxismo-leninismoari dagokionez, honen filosofiak akonfesionaltasuna aldarrikatzen duela dio, baina, haren ustez, egiazko sozialismoak izan –hau ez baitzen Marx eta Leninek in bukatu–, “ekumenikoa” izan beharko luke. Sozialismoaren teoria eta praktika batera hartuta, balorazio gisa, ondorio orokor hauek ateratzen ditu.

Bat: Sozialismoaz teorizatu dutenak, ez bat, baizik asko izan direla: Marx-en aurretik Proudhon, eta ondotik Lenin, Stalin, Bakunin, Gramsci, Trotsky, Mao eta beste zenbait. Nolanahi ere, nahiz eta Marx-ek ez zuen “guztia erran”, aitortzen du “aztertzeo tresnarik hoberena” hark utzi zigula. Haren metodoa eta filosofia bereiziz, zer duen baliagarri zer eskas esanez, aburu hau luzatzen du:

“Gizarte azterketan eta ekintzan, sozialismoaren bizkar hezura zait Marx-en metodoa, zientziak eta esperientziak erakusten

didan bezala. Filosofia mailan, frogantza konkretuak eskas dira, bai Marx-en alde, bai Marx-en aurka. Maila hartan bere askatasuna ireki dezake gutarik bakoitzak” (Davant, 13, 1975, 2).

Sozialismoaren eskolan sartzen ditu J.-L. Davantek, liberalismoari kontrajarririk, gizartearen antolaketa kolektibista aldarrikatu izan duten doktrinak oro, nola aitzinakoak ala modernoak. Egia da, zentzu zabalean hartzen bada, sartu ezinik ez dago eskola horretan sozialismo erlijiosoa, estatuzko sozialismoa, sozialismo humanista, marxismoa, anarkismoa, edo besterik. Guk, eskola gisa, nahiago dugu bereiz eman sozialismoa eta marxismoa, hemen beren oinarri teorikoa marxiar iturritik hartua duten korronteak sartuz, hala nola: leninismoa, trokismoa, titoismoa, maoismoa, kastrismoa, etab.

Bi: Ez du uste, sozialista izateko, iraultzailea izateak nahitaezko baldintza izan beharko lukeenik, hots, aurrez kapitalismoa errotik uzkaile behar denik. Iduri du harentzat balukeela lekurik sozialdemokraziaren baitako erreformismoak, baieztapen hori espresuki egiten ez badu ere.

Hiru: iraultza sozialista burutu izan den herrialdeetan, nahiz eta hauetan sozialismoari buruz urrats batzuk eginak izan diren, ez da oraindik inon konplitu izan haren egitaraua bere osotasunean; beste estatu kapitalista aurreratuetan, berriz, mugimendu sozialistek ez dute garaipenik erdietsi. Jakin behar da J.-L. Davantek artikulua hau 1975ean idatzi zuela eta Frantzia eta Espainian, hauetan zehazki, gobernu sozialistak geroago etorri zirela boterera. Dena dela, Txileko esperientzia sozialista –Allende-k 1970eko irailean gobernu-lehendakari hautatu izan zenean hasitakoa eta handik gutxira Pinochet-ek uzkaile zuena–, ez du aipatzen, nahiz, geroago ikusiko dugunez, gai horri buruz artikulua bat baino gehiago datozen aldizkari honetan bertan. Nork esango zuen orduan Pinochet jenerala, santiamen batean milaka hiritar garbitu zituen diktadore ahalguztidun hura, bere ekintza kriminalengatik Nazioarteko Auzitegian epaitua izateko bidean aurkituko zela. Egun, 1998ko abenduan, Madriler a estraditatu izateko agindua emana da. Ikustekoa da historiak, eguneroko gertakarien itzuli-mitzulian, nolako irriak egiten dituen gizonntoon kontura!

Zehaztapen horiek guztiak eginez gero, abertzaletasuna eta sozialismoa lerro berean kokatzen ditu Euskal Herriaren askapen-mugimenduaren barruan. Berak kontzeptu biak eltze berean egosi eta urtzen ditu, honelaxe, kredoa errezatzen den bezalaxe:

“Beraz abertzale sozialista naiz. Euskadi guztia bat eta beregain nahi dut:

- demokraziaren obratzeko
- euskararen bidez euskal jakintza herrikoi baten hazteko
- sozialismoaren eraikitzeke

Euskal-Herriko gobernu herrikoi batek haste-hastetik egin behar ditu sozialismoari buruz doazkeen urrats batzuk: hala nola bizibide nagusien nazionalizatzea, haietan behintzat langileen partzuergotasunaren eskubidatzea, plangintza herrikoi baten antolatzea, euskalduntzearen abiatzea, etab.

Horretarako beharrezkoa deritzait, langileriaren ardurapean, euskal ezker baten organizatzeari, eta bereiziki sozialista iraultzaileen alderdi baten elkartzeari. Honek beste abertzale eta sozialistekin harremanak izan ditzake, hala nola Programa Batu baten bitartez. Bide beraz, herria lagun dezake askatasunari, batasunari eta sozialismoari buruz” (Davant, 13, 1975, 3).

Horretaz aparte, sozialismoa egiazkoa izan dadin, beste herri zapaldu guztiak borroka berean besarkatuko dituen iraultzaile sozialisten internazionala begi onez ikusten du. Eta ildo beretik, baita euskal emazteen mugimendua ere, jada Baiona inguruan martxan dagoena. Esanguratsua da, zentzu honetan, *Zabalen* zuzendari lehe-na, emaztekoa izatea Kattalin Idiart, bere koinata, hain zuzen ere.

2.2. Sozialismo kritikoa

Sozialismo humanista zer den mugatzea zaila gertatzen bada, sozialismo kritikoarekin zer adierazi nahi dugun azaltzea ez zaigu errazago egiten. Gerra iraultzaileaz teorizatzeke maoismora jo zuen Federiko Krutwigen ikuspegia nonbait kokatu egin behar eta –nonbait hor ezkerrean–, haren ikuspegia kritizismoaren zaku orohartzailean sartzeari iritzi diogu erosoan, ez dakigu egokien.

Federiko Krutwigen¹⁵ artikulu bakarra du idatzia *Zabalen*, “Egiak eta gezurrak sozialismoan eta sozial-asmoan” izenekoa, erbestetik etxeratu eta gero, 1976an argitaratua. Baina lehenago ere nazionalismo iraultzaileaz eta marxismoaz orrialde asko idatzitako egilea dugu, ETAKo V. Batzarrean eragin handienetakoa izan zena eta, orokorrean esanda, ez bakarrik errusiar klasikoen teoriak, koloni herrietakoena ere –eta bereiziki hauenak–, euskal politikara ekartzen ahalegindu izan zena. ETAK argitaratutako *La cuestión vasca* liburuxkan¹⁶ nazionalitatearen teoria, herrien autodetermina-

zioko eskubidea, euskal arazoa eta iraultza sozialista aztertzen ditu, gai bero horiek tradizio marxistaren erreferentzian gogo emanda. Errusiako iraultza sozialista teorizatu eta gidatu zutenen tesiak, ia bere osotasunean, euskal kausa nazionalistaren alde eta, jakina, espainolisten kontra arrazoitzeko dakartza bertan. Nazio-arazoari dagokionez, bada, Mao Tse-Tung ez ezik, Marx, Engels, Lenin, Stalin eta beste autore klasikoak ere, harentzat nazio-askatasunaren aldekoak ditugu izan. Argudio hau erabili izan zen ETAn garai batean, espainolista deituen joera likidazionista salatzeke, hain zuzen. Nazio-askapenerako ETAn estrategia gehienbat militargintzan oinarritzen baita, Krutwigek maoismotik hartzen ditu gerrilla-estrategiarako ereduak.

Krutwigen ikuspuntu horiek zehaztasunez aztertu genituen geure *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian* liburuan (1874), kolonialismoaz eta inperialismoaren menpeko nazio-iraultzez ari garen 2. atalean¹⁷ eta hemen ez goaz han esanak berritzera, ordukoak oraingo azken ekarpenekin osatzera baizik, hauetan zerbait berririk dakarren neurrian. Esango dugun bakarra da, orduko euskal teorilari nazionalisten kontra, marxismo klasikoan nazio-arazoa behar bezala ulertu eta planteatzeko eskasia teoriko nabariak ikusten genituela eta praktika politikoan, iraultza sozialista burutu izan zen herrialdeetan, kolonialetan barne, nazioak sistemaz zapalduak izan zirela. Gotzon Garatek aspaldi eman zuen Txinako nazio zapalduen berri bere *Maoren marxismoa: maoismoa* liburuan (1977). Vietnamen ere beste hainbeste gertatzen zen.

Baina *Zabalen* baino lehenago, *Brankako* 1. zenbakian, –seguru asko, pentsamenduaren aldetik trinkoena izan bide daitekeen zenbaki hartan, hain zuzen–, “Nacionalismo revolucionario” deitua-ren artikulua argitaratzen da¹⁸, zeinetan, Mao Tsetung-en kontraesanak dituela gidari, euskal nazionalismo iraultzailearen strategi plangintza eraikitzen baitu. Klasearteko kontraesan nagusia, beti ere euskal nazio-arazoa koloni arazo tipikotzat hartuz, Espainia eta Euskal Herria dira. Hauetako bakoitzaren ezaugarri ideologikoak, aski nabarmenduta gera daitezen, formulazio antagonikoetan sailkatuta ematen ditugu:

Espainia

gaztelania
feudalismoa/burgeseria
erreakzioa
jabetza burgesa eta feudala
hispanitatea

Euskal Herria

euskara
sozialismoa
aurrerapena
jabetza soziala
euskalduntasuna

Euskal Herriak aurkakotasuna Espainiarekin du. Frantziaren izena ez du aipatzen, nahiz Iparraldekoa ongi azpiratua daukan Iraultza Handiaz geroztik. Bitxia da. Espainia zergatik den erreakzioaren sinbolo? Hona hemen galdera horri erantzutera datozen arrazoi batzuk, guk jatorrizko aipuan eman bezala transkribatzen ditugunak:

“Por *España* no entendemos este o aquel español de más allá. Y si en muchos casos se trata de un español explotado innoblemente por la clase feudal y burguesa, este español merece toda nuestra simpatía y calor humano. Pero la realidad *España* en la sociedad burguesa no está dada por el proletariado español. En la actualidad la clase que representa en su totalidad a España y encarna los destinos de España es la burguesa. Evidentemente que si los proletarios españoles (como por desgracia sucede muchas veces) se ponen al servicio de la idea encarnada por el Estado opresor, serán nuestros enemigos, *no por proletarios, sino por agentes de la burguesía hispana*. En tal sentido forman tales proletarios parte del aparato de opresión hispana, al igual, que la policía que también suele salir del pueblo” (Krutwig, I, 1979, 30).

Ezin garbiago esan esatekoak. Ondorioa ere ezin izan naturala-go:

“El concepto España está hoy en nuestra tierra representando la opresión nacional y social; es por ende un concepto reaccionario” (Krutwig, I, 1979, 31).

Aurkako ezaugarrien arabera sailkatutako eskema hartan, bada, aurrerapena eta sozialismoa euskalduntasunari dagozkion tasunak dira; erreakzioa eta klasismo feudala zein burgesa, aldiz, espainolis-

moari dagozkionak. Hizkuntzari dagokionez, Frantziako Iraultzakoa bereganatuz, esango du aurrerapenak euskaraz hitz egiten duela eta erreakzioak, aldiz, gatzelaniaz. Horra! Eskema dikotomiko horretan ez dago erdibiderik, antagonismo hutsaren dialektika besterik.

Hemen sozialismoa baitugu hizpide, horrela pentsatzen zuen Krutwigek 1966ko apirilean. Hurrengo urtean (1967), Txillardegia, Benito del Valle, Agirre eta X. Imazek ETA uzten duten urte berean, bera erakunde barruan geratuko da eta eta handik aurrera *Brankan* idazteari utzi egiten dio. Aldizkari hau, ordudanik, ETAtik alden-tzen den organoa izango da¹⁹.

Historiak paratzen dizkigun kointzidentzia bitxiak ditugu horiek denak. Baina galdera hau da: hamar urte pasa eta gero, zer pentsatzen du ETAk jadanik kanpoan utzia duen edo kasurik egiten ez dion F. Krutwigek?

Galdera honi erantzuteko, herentzia ederra da –beharbada, haren azken orduko pentsamendu-eboluzioaz jabetzeko dokumenturik osoena–, *Zabaleko* artikulua bakarra, “Egiak eta gezurrak sozialismoan eta sozial-arloan” jadanik aipatua. Argitasunaren amorez, haren ideiak banan-banan, tesi antzera, jaulkiz etorriko gara.

Bat: Sozialismoa zer den zahaztera baino gehiago, praktika politikoa zer izatera iritsi den esatera mugatzen da gehienbat. Frantziako sozialistak aurreikusi bezala, hala dio Krutwigek, herrialde sozialistetan praktikatu den sozialismoa, “intolerantziatzko eta arrogantziatzko fetitxez” moztortutako sozialismoa izan da, eta ez, izan beharko zukeen bezala, “gizonen askatasun psikikoaren, ekonomikoaren eta moralaren alde beti-ere borrokatzeko” tresna (Krutwig, 19, 1976,16). Berarentzat, egiazko sozialismoa gizarte zuzen baten aldeko borroka da, xedetzat berezko edo sortutako injustiziak kentzera zuzendua dagoena eta, zentzu honetan, haren sozialismoa aski hurbil dago balio etikoak oinarritzat hartzen dituen sozialismo humanistatik. Sozialismoak herrien zein gizaki guztien duintasuna bilatzen du. Bera horretxegatik dago sozialismoaren alde, “Euskal Herrian injustiziaren kontra” dagoelako, hain zuzen (Krutwig, 19, 1976,16). Justiziaren egarria gizakiak berez bere kromosometan dakarrena baita, zuzengabeko egoeratik askatzeko giza joera hori ez dezakete ezaba ez kapitalismoak ezta iraultza marxistaren ondotik sortutako erregimen politiko zuzenkontrakoez ere²⁰. Maila honetan, iraultza marxisten ondoko erregimen politikoen porrot historikoa konstatatzen du behin eta berriro.

Oinarrizko bigarren ideia, Krutwig baitan, zera da: gizarte-errealitatearen zolaren zolan herriak daudela eta klasearteko gatazkak oro herri jakinetan ematen diren epifenomenoak baizik ez direla. Eta herrietan, klasearteko gatazkak ematen diren bezala, nazioen artekoak ere ematen dira. Hemendik bi ondorio ateratzen ditu: bata, “menperatu herri baten problematika, nazional probleman” hasten dela, eta bestea, esperientzia politikoak erakutsi bezala, “nazional problema bethi sozial-problema hutsa baino inportanteagoa dela, batez ere, herriaren sentimenduan” (Krutwig, 19, 1976,16-17).

Horregatik, egiazko sozialismoaren helburua herri jakin bateko zapalkuntza mota guztiak –sozialak bezala nazionalak–, gainditzea baita, mugimendu sozialista batek arazo soziala eta nazionala barnehartu beharko lituzke, biak batera, txanponaren bi aurpegiak bezala. Irudi hau erabili izan zen ETAre V. Batzarraz geroztiko literatura iraultzailean.

Bi: Euskal Herrira etorrita, honek, bere osotasunean, bi arazo-mota desberdindu dauzka: bata *nazionala* da, beste herri menperatzaileekiko gatazkan gauzatzen dena, haiek ez baitiote bere nortasuna zaintzeko daukan eskubidea aitortzen, eta bestea *soziala*, euskal gizartearen klasearteko konposizioari dagokiona. Baina lehentasunen arabera, esan bezala, lehenagokoa da nazio-arazoa klaseartekoa baino. Nazio-subiranotasuna ziurtatu eta gero ekin behar zaio herri barruko berrikuntza sozialari²¹:

“Euskaldunok gure nazional-problematikan garai dezagunean, gure barnako estrukturak ere finkatu behar ditugu. Batzuek, orain arte sistema kapitalistaren bidez bortxatu nahi zizkiguten egiturak, gorde nahi lituzkete; geuk, kanpotik bere egiturak bortxatu nahi zizkigun etsaia azpira dezagunean, gureak diren estrukturak, Euskal Herriarentzat pentsatu behar ditugula uste dugu... Eta estruktura hauek euskal gizonaren probetxuan izan litezen nahi genuke” (Krutwig, 19, 1976,17-18).

Behin nazio-subiranotasuna lortu eta gero, Euskal Herrian sozialismoa nola finkatu izanen litzateke hurrengo urratsa. Honek gure barruko egituren antolakuntza egoki baten arazoa inplikatzen du. Jakina, asmo onak praktikara eramateko orduan teoriak agertzen baitira, Krutwigek, bere aldetik, zibernetika dauka jokabide-gidaritzat eta teoria honetatik ondorio hauek ateratzen ditu: a) teoria guztiak –bereziki gizarte-zientzietakoak–, gizakiek asmatutako sistema batzuk besterik ez direla, konbentzionalak, alegia,

praktikan beren balioa egiaztatu behar dutenak; b) gizakiak bere irudipenak mota desberdinetako hitzen bidez sinbolizatzen dituela, patternak edo ereduak zuzenean praktikatik ateraz eta kontzeptuak abstrakzio-bidez sortuz; c) hizkuntzak eta kulturak mendez-mende antolatu izan direla eta horien garrantzia, faktore ekonomikoaren aldean, askoz ere handiagoa dela.

Hiru: Euskal Herriaren berezitasuna kulturaren eta “gizartelogia” edo soziologian datza. Zibernetikak erakusten duenez, hala dio, euskarazko hitzen bidez sinbolizatzen ditugun oinarrizko kultur ereduak ez dira latin berritik eratorritakoen araberakoak. Euskal kulturaren kutxa euskal gizartearen historian finkatua dago eta, horregatik, Euskal Herriak badu sozialismoa ulertzeko bere modu berezia, bere “sozial-asmo” propioa, tradizioetik eta kultur altxorretik aterata osatzen dena. Izan ere, marxismoak eta beste sozialismo-motek lege orokor batzuk besterik ez dituzte aurreratzen. Herri bakoitza da, bere kulturaren harian, bere sozialismo berezia bere gizartean aplikatu behar duena. Berak “erkidegoa” deitzen diona da, hain zuzen, euskal sozialismoaren ezaugarriarik garrantzitsuenak, zeina, erregimen politikoari dagokionez, gizartearen antolakuntza federalista batean gauzatuko bailitzateke ondoenik. Federatzea, izan, horixe da: kidetzea. Guzti honetan, noski, F. Krutwigen aburua askoz ere hurbilago dago Proudhon-en ikuspegitik ez eta Marx-enetik baino. *Zabaleko* bere artikulu hau, hain zuzen, Proudhon-ek Marx-i zuzendutako erantzun-gutun batekin irekitzen du, zeinetan “tolerantzia zuhur eta prestuaren jarraibidea” gomendatzen baitio (Krutwig, 19, 1976,15). Zentzu honetan, erregimen sozialistetan nagusitzen diren estatu-antolakuntza zentralistak alde batera utzi behar dira, eta utzi printzipioz, gainera, hura izatez antidemokratikoa delako eta menpekoak despertsionalizatzen dituelako.

Baina hemen arazo-pare bat bederen ezin dira utzi azaldu gabe, Krutwigi burutik ere pasatzen ez zaizkionak: bata da, praktikan gauzatu, sozialismo utopikoaren asmoak ez direla inon gauzatu, eta bestea, federalismo-mota desberdinen esperientziak estatuen inguruan eginak izan direla, baina beti estatu-zentralismoa auzitan jarri gabe. Krutwigek gogor kritikatzeko ditu marxisten materialismo historikoa eta dialektikoa, biak. Ederki. Baina haren haritik segituz, ez dugu batere garbi ikusten zein den, nolakoa izan daitekeen, zertan litzatekeen berezia, berak aipatzen duen –baina ez esplikatzen–, euskal sozialismoaren izaera. Ezta ere ez daukagu hain ebidentetzat, oro har, sozialismo utopikoaren ikuspegia.

Lau: Marxismoaren inguruan, lau mito-mota indartu dira (Krutwig, 19, 1976, 123-26), berak, hurrenez hurren, honela formulatzen dituenak:

Lehen mito, gizaki guztiak sortzez adimen berekoak eta berdinak direla dioen teorian zertzen da, zeren, datu biologikoetan frogatua dagoenez, gorputzeko zein espirituko ezaugarriak kromosomen bidez transmititzen baitira²². Pedagogia meritokratikoan eskola-arrakastaren eragina adimen-koefizientean ezartzen zutenen tesiak aspalditxo honetan xake-mate eginda daude²³. Kultura ez da bide biologikoz heredatzen.

Bigarren mito, funtsean, praxi politikoari dagokiona da, dioena sozialismorako lehen urratsak produkzio-bideak nazionalduz ematen direla. Hau ez da egia, zeren, oinarritzko industriak –garraioak, industria handiak eta askotan nekazaritza handikoak ere–, nazionalizatuak izan diren arren herrialde sozialistetan, lehengo klase burgesaren lekuan beste berri bat sortu baita. Langileriak ez du bere lanaren kontrolik. Puntu honetan zuzenago dabilela uste dugu. Izan ere, gaur egungo espirtu neoliberallean, produkzio-bideen jabetzan baino gehiago, jabetza horien kontrolean ezartzen da arreta. Hortik doa gaurko sozialismo demokratikoa.

Beraz, berriro hemen, historiak jadanik faltsutzat joa duen marxiar azterketaren utopikotasuna alde batera utzi-eta, eredu horren orde, Marx-ez aurretiko autore sozialistek eraikitakoa berraztertzea proposatzen du, nahiz eta hauena, praktikan ezarria izan ez denez gero, ez dakigun aurrekoa bezala utopikoa izanen denetz²⁴. Ongi dago abisatzea eredu hori ez dela inoiz aplikatua izan. Baina hemen arazoa, eredu hori ea zergatik ez den gauzatu esplikatzea da eta hori ez du egiten F. Krutwigek. Gizarte-eredu federalista baten aldeko apustua egin duen anarkismoak, adibidez, behin eta berriro bere hainbat eta hainbat ekinaldi eginak ditu langile-mugimenduen barruan, baina, herrialde isolatuetan izan ezik, ez du lortu izan herritar masen onarpen zabalik. Eztabaida honetan, beste ezer baino gehiago, diskurtso politikoa da polita, baina, praktika politikoan, bideragarria izango litzatekeen eta jende-gehiengoak onartuko lukeen plangintza alternatiborik ez da eskaintzen.

Hirugarren mitoak oinarri filosofikoa du, marxiar dialektikari darion histori ikuspegiaren linealtasunari dagokiona. Marx-ek herrialde guztietan produkzio-moduen jarraipen historikoa, lineala, ematen zela asmatu zuen, zeinaren arabera, jabetza pribatuaren bidez, hasierako

komunismoa desegina izan zenez geroztik, produkzio-modu desberdinak bati besteari gain hartuz baitatoz. Honela, iraultza burgesa feudalismoa uzkailez burutzen da. Logika horretan, iraultza komunistak produkzio-modu burgesa osoki gaingaitzea inplikatzeko du. Hau guztia, mito hutsa da, baieztapen maltzur hutsa, zeren “Marxen konfirmazio hori bi-ehpa-hiru herrialdeetan baizik ez baitzen agertzen” (Krutwig, 19, 1976, 25). Norabide historikoaren irakurketa linealak, zalantzarik gabe, ez duke erro zientifiko handirik. Baina ezingo da ukatu klaseartekotasunak –honen garapena herrialde desberdinetan eta historian zehar nola izan den, eta den, alde batera utzita–, baduela errorik gizarte-errealitatean, zehazki jabetza pribatu kapitalistan oinarritzen den sistema ekonomikoan.

Laugarren mitoak, erabiliena izan dena, hau da: nazio-arazoa, arazo sozialaren alderdi bat besterik ez dela izan. Baina gertakarien historiak orain arterakoan justu alderantzizkoa erakutsi du: hotz, gizarte-klaseak beti nazio-zapalkuntzaren ondorioa izan direla. Herri menperatzaile batek herri ahulagoa menperatu izan duenean, menperatuak haren gizarte-egituretan morroi-neskame gisa txertatuta geratu izan direla. Horregatik, zuzenago da esatea arazo soziala arazo nazionalaren alderdi bat besterik ez dela, ez alderantzizkoa baino. Eta hau hala da, honetan kategorikoa da Krutwigen baieztapena, lehenetsun hori izadiak berak emana delako²⁵.

F. Krutwigek marxismoaren inguruko mitoak deseginez eman dituen arrazoiak azaltzen etorri garen honetan, tarteka, ohar kritiko batzuk sartu ditugu, aditzera emanez ez gentozela erabat ados harekin. Segidan, sozialismoari buruzko haren ikuspegia orokorrean hartuta, geure zertzeladak modu sistematizatuagoan azalduko ditugu.

Lehenik, esan dezagun Krutwigek marxismoari oro har eta, batez ere, mitoen sailean egiten dion kritika zorrotz hau Gérard Chaliand-ek²⁶, *Partisans* aldizkariaren sortzaileak, egindako *Mythes révolutionnaire du Tiers Monde* lanean oinarritzen dela. Badakigu, bada, nor dagoen Krutwigen atzean.

Bigarrenik, Krutwigen tesi biologista eta naturalistak, arestian aurreratu bezala, berrikustekoak dira gaurko ekarpenen argitan. Naturatik emana datorkiguna zer den jakitea, ez da hain aise erabakitzen dena. Zer zor zaion gizabanakoari, zer gizarteari, autore klasikoengandik hasi eta gaurkoak arte, oso eztabaidatua da. Puntu honetan haren baieztapenak biribilegiak iruditzen zaizkigu.

Hirugarrenik, Krutwigek erakusten duen sinpatia anarkisten eta utopisten alde, lehen esan bezala, horien teoria praktikan egiaz-tatu beharrekoa da, baliozkoa izan dadin. Nola ez den praktikan ezarria izan, besteak beste, atzetik herri-mugimendu aski indar-tsurik izan ez duelako, ez da sekula egiaztatu izan. Baina esperantza hor geratzen da. Eta horixe da, hain zuzen, berak iradokitzen duena. Berak bezala joera horretako beste intelektualek ere. Ez bakarrik zi-legizkoa da, desiratzekoa ere bai, injustiziarik gabeko gizarte sozia-lista eta demokratiko baten ametsa egitea eta horren alde jokatzeara, baina horretara eramán gaitzakeen gizarte-sistema zein den edo no-lakoa irudikatzen den ere aurreikusi behar da. Alderdi honi buruz-ko gogoeta falta da hemen. Egungo neoliberalismoari aurre egingo dion eredu alternatiboa lantzeke dago oraindik.

Laugarrenik, ez dugu uste Krutwigen nazio-arazoari buruzko tesia erabat zuzena denik. Zeren ez baldin bada zuzena nazio-arazoa arazo nazionalaren alderdi bat besterik ez dela, ez da zuzenagoa al-derantzizkoa ere, hots, arazo soziala arazo nazionalaren alderdi bat besterik ez dela. Ez bata eta ez bestea. Sinpleki esango genuke bi gizarte-errealitate direla, eduki desberdina duten aldetik, maila desberdinean kokatu eta tratatu beharrekoak, baina, aldi berean, elkarrekin zerikusi zuzena duten aldetik, bi alderdi horiek modu koherente batez planteatu eta formulatu beharrekoak. Gizartean eman, biak ematen dira, biak elkarri ongi asko josita, gainera, eta lehentasunen gerra teorikoan sartzeak ez luke arazoa asko argituko. Bego horretan.

II

Eztabaida akademikoen plazan

Aurreko atalean, sozialismoaz jardutean, bi eskola bereizi ditugu ezkerreko tradizioan: sozialistena eta marxistena. Ikusi dugu bi joera horiek, zentzu laxoagoan edo hertsiagoan ulertuta, presente egon direla *Zabaleko* lankideen artean. Lankideren batek autoreren baten lana aurkezten duenean, zerbaitegatik egiten du: harekin ideologi kidetasuna izanik, haren ekarpenak etxeratzea interesgarri iruditzen zaiolako, ala, alderantziz, haren ikuspegia kritikagarri atzematen duelako, harena bere osotasunean edo alderdi batzuetan ezeztatzeko. Pentsamenduarekin lanean ari den batentzat, eskulanean diharduen batentzat bezalaxe, liburuak gogoetarako tresnak besterik ez dira. Egokiagoak ala desegokiagoak. Eta liburuen atzean, egileak daude, hauen eskolak eta joerak, tradizio jakin baten barruan kokatzen direnak. Hauek ere garaian garaikoak. Marxismoarena ere, pentsamendu-joera gisa, ideien historia sozialen barruan kokatu beharko da. Beste edozein pentsamendu-eskolaren antzera. Bere ekarpen baliagarri guztiekin eta, bidenabar, dituen gabezia guztiekin. Egia zientifiko bakarreko pentsamendurik ez da ez giza ez gizarte-zientzietan. Erabateko ziurtasunik ere ez zientzia zehatzetan. Paradigma-aniztasuna dugu arau nagusia metodo soziologikoa darabilgunok. Dena dela, ordukora itzuliz, komeni da gogoratzea marxismoarenean aiseago ematen zitzaiola baiezkoa haren metodoari haren filosofiari edo “ideologiari” baino, zeinaren arabera, gainegiturazko elementuen gaintetik, azpiegituraren funtsean zetzan faktore ekonomikoari ematen baitzitzaion lehentasuna, hemen sartuz, esan bezala, produkzio-indarrak zein produkzio-harremanak. Baina bego hori guztia hor gaintetik aipu-zipriztin bat botata, ondoko orrietan pausatukiago sakonduko dugu-eta.

Zabaleko lankideek gogoan badituzte autore marxistak eta sozialistak, da, hain zuzen ere, horien ikuspegiak lehenesten —ez derrigorrez onesten—, dituztelako une horretan Euskal Herriak planteaturik dauzkan gizarte-arazoen azterketarako eta, bide batez, berorien aterabiderako. ETak, zehazki, marxismoaren hautua egina zuen eta garai hartako arazo espezifiko nagusienen gune komuna bihurtu zen garai hartako ezker abertzalean. Orduan marxista ez zena, sozialista zen, edo anarkista. Edo korronte horren kutsu edo eraginik ez zuen intelektualak, kasurik onenean ere, ezin zezakeen horiena ez jakin. Gizabanakoaren garaia joana zen. Bazirudien gaindituta zeudela aurreko hamarkadan indarrean egondako pertsonalismoa, existentzialismoa eta gisako filosofiak. Orain, gizabanakoengandik abiatuta eraikitako ikusmoldeak ukatu ez baina bigarren mailan utzita, gizarte-egiturek hartuko dute garrantzia. Azentu-kontua da, agian. Sentipen hori daukat.

Atal honetan, bereziki, marxismoa, sozialismoa, nazionalismoa eta estrukturalismoaren inguruan sortutako arazo puntualak izango ditugu aztergai. Eta eztabaida hauek bere testuinguruan kokatu ahal izateko, azken batean eztabaidan daudenak eredu teorikoak baitira, garai honetako paradigma soziologikoak zertan ziren azaltzeak probetxuzko argirik eman diezagukeelakoan, has gaitezen atariko atontzetik.

Marxismoari buruzko ikerketak 1945-1974 urte-bitarte horretan ugaltzen dira Frantzia, Italia, Alemania federal eta Estatu Batuetan. Paradigma marxista gizarte modernoaren eta beraien eraldakuntzarako zein neurritan den baliozkoa luze bezain zabal eztabaidatzen da maila akademikoan. Gu Parisa iritsi ginenerako, 1968ko Maiatzak utzitako txingar iraultzailearen beroaldi hartan, marxismoak bere sarrera akademikoa egina zeukan gizarte-zientzietan eta entzute handiko irakasle marxistek beren argitalpenak egiten hasiak ziren sail desberdinetan. Filosofia, soziologia, historia, antropologia edo antzeko beste diziplinaren bat landu zutenek gogoan izango dituzte P. Vilar, F. Chatelet, L. Althusser, A. Badiou, P. Francastel, N. Poulantzas, M. Lowy, Ch. Baudelot, R. Establet, E. Terray eta beste hainbaten izenak. Modan zeuden literaturan G. Lukckas baten lanak eta W. Reich-enak psikoanalisian. Hauen lanak laster zabalduko dira itzulpenen bidez European eta Estatu Batuetan zehar. Hezkuntzaren soziologian, zehazki, Frantziar Baudelot eta Establet-ek bezala, Estatu Batuetan Bowles eta Gintis-ek jarraituko dute L.

Althusser-en eredua. Euskal Herrian ere, aurreko atalean ikusia dugunez, korrante horrek izana du bere itzala.

Zenbaiten ustez, ordea, ekarpen marxista horien oihartzuna ozenagoa izan omen zen literatura polemikoan zientifikoan baino, honekin aditzera emanez paradigma marxistak ikerketa zientifikorako erakusten omen zuen ahulezia. Hori frogatzeko, datu gisa, esaten da Aron, Gurvitch eta Madjarian bezalako autore batzuen tesiek, hain zuzen, gizartea ekonomiak determinatzen duela dioen marxiar hipotesia ezeztatu zutela eta, hain zuzen ere, ikerketarako premisa teorikoen maila horretan jasaten duen kritikaren ondotik, marxismoa indargetuz joan zela 1970 eta 1980ko hamarkadetan zehar (Ansart, 1990, 32-33). Baliteke hala izatea. Guk, halere, litekeenago ikusten dugu marxismoaren krisia arrazoi akademikoengatik baino gehiago politiko-ideologikoengatik edo, agian zuzenago, arrazoi bien ondorioz gertatu zela.

Bestalde, marxismoaren ondoan, estrukturalismoak ere aro oparoa irekitzen du gizarte-zientzia desberdinetan, bereziki Claude Lévi-Strauss antropologoak *Structures élémentaires de la parenté* 1949an argitaratzen duenez geroztik. Antropologia eta linguistikan ez ezik, beste diziplinetan ere azterketa estrukturala aplikatzen da: psikologian Piaget-ekin, historian Duby-rekin, erlijio-zientzietan Dumézil-ekin, soziologian Goldmann-ekin, filosofian Foucault-ekin, hezkuntzaren soziologian Bourdieu-rekin. Eta abar. Hauek denak, batzuk gehiago besteak gutxiago, estrukturalismoaren printzipioetan oinarritzen dira. Batera dute auzitan jartzen dituztela azalpen tradizionalak, nola eboluzionistak hala enpiristak. Gizarte-fenomeno baten azalpena iraganean, hots, jarraitasun historikoan aurkitzen saiatu ordez, estrukturalistek gizarte-fenomenoak beren egoera sinkronikoan nola antolaturik dauden ikertzen dute. Hauen abiapuntu teorikoa da, hain zuzen, edozein errealitate-mota, soziala bezala linguistikoa, bere baitan egituraturik dagoela eta iker-tzailearen egitekoa, hain zuzen, hark bere kanpoko itxuren azpian gordetzen duen ezkutuko sistema eta beronen eraldakuntza-legeak aurkitu eta agirian jartzea dela. Eredutik honetan, bada, ez dira ikertzen egitateak edo fenomenoak beren izaera enpirikoan agertzen zaizkigun bezala; alderantziz, ikergetzat hartzen den edozein gizarte-fenomeno, beronen erak eta eraldakuntzak, osotasun egituratu eta egituratzaile gisa hartuta gogo ematen da (Ansart, 1990, 100-101). Ikuspegi estrukturalista honek auzitan jarri zituen epis-

temologian onartutzat ematen ziren zenbait presupostu, besteen artean, kausalitate eta determinismoaren teoria. Nolanahi ere, gabiltzan mantso-mantso geure esanetan, estrukturalismoak bazituen bere aldamenean eraso egiten zioten korronteak-eta, hauen artean soziologia dinamikoa deituarena, zeina, G. Balandier, Alain Touraine, E. Morin eta beste hainbaten bidetik, aldaketa historiko eta sozialen esperientzian oinarritzen baitzen. Beraz, estrukturalismoari zerion ikuspegi estatikoak izan zuen erantzun egokirik bere eredu teorikoa gizarte-aldaketan funtsatzen zuen soziologia dinamiko horretan.

Soziologiaren sailean, pentsamendu-korronte horiek bederen kontuan hartu beharrekoak dira *Zabaleko* orrietan barneratu aurretik, nahiz Mendebaleko Europan beste joerarik ere bazen. Nolanahi ere, batik bat marxismoa eta estrukturalismoa, bi hauek izan izan ziren indartsuenik sartu zirenak garai honetako euskal kulturari. Biek sarrera aski zabala izan zuten, lehenengoak soziologiaren bidetik eta bigarrenak linguistikarenetik.

1. Hizkuntza eta estrukturalismoa

Hizkuntzarena aztertzeko, bide zientifiko bat baino gehiago da. Chomsky-ren teoriak izan zezakeen onarpen-hedaduraren aldean, baziren garai hartan gure inguruan –gugan bederen–, gehiago eragiten zuten beste eskola indartsuago batzuk, horien artean, hain zuzen, estrukturalismoa.

1.1. Jokin Apalategik, “Begiko” ezizenez, “Hizkuntza, pentsakera eta herrikidetasuna Larresoro baitan” izeneko *Zabaleko* bi artikulutan (1973, 1, 61-64; 2, 59-65), Txillardegik hurrenez hurren *Branka* aldizkariko 1. eta 2. zenbakietan (1979, 1, 35-59; 2, 2-19) argitaratu emandako “Hizkuntza eta pentsakera” eta “Hizkuntza eta herrikidetasuna” artikulua artoski bezain zorrozki aztertzen ditu. Autore hauek biek gai horixe bera beste saio berri batean areago sakonduko dute, bakoitzak bere ikuspegitik, Larresorok *Hizkuntza eta pentsakera* idazlanean, 1972an, eta J. Apalategik hurrengo urtean, Paulo Iztuetaekin batera, “Begiarmen” ezizenez argitaratzen duten *Sei idazle plazara* idazlanean (1974, 82-111). Lehen artikuluan *Brankako* artikulua biak eta bigarrenetan liburu bera kritikatzeko ditu.

Euskal kulturaren historiografian aldizkari honetan egiten dute topo, lehen aldiz egiten ere, 1970eko hamarkada-hasieran Mendebaldeko Europan indarrean dauden bi korronte handi hauek: marxismoak eta estrukturalismoak, alegia. Lehen esana gogoratuz, lehen teoriak klasearteko borroka ezartzen du historiaren motortzat eta giza eta gizarte-fenomenoak klasearteko gatazkek eragindako baldintza objektiboen arabera bilakatzen dira. Bigarren paradigmak gizarterrealitatearen zolan, azaleko aldaketan azpian ezkutatuta, aldatzeke dirauten osotasun egituratu eta egituratzaileak aurkitzen ditu.

Euskal intelektualak nola bereganatzen dituen jarrera horiek? Bakoitzak une hartan inguruan zeukan giro intelektualaren eta herri-sentsibilitatearen arabera. Garai honetako euskal intelektual atzerriarua ideia eta ikuspegi berrien hartzaile dela bistan da. Baina aldi berean hain dago murgildua herriak bizi dituen gizarte-arazoetan, irakurle ohartu eta jantziak egin ohi duen zuhurtziarekin jokatzeko baitu. Zentzu kritikoz beterik, alegia. Ez da hartzaile itsua.

Txillardegik Belgikan bizi da eta honek, Saussure linguista, Whorf soziolinguista eta Lévi-Strauss antropologo eta Lacan psikoanalistaren teorietan oinarrituta, estrukturalismoren tesiak defendatzen ditu eta nazio-arazoa, batik bat, hizkuntzaren ikuspegi estrukturalista horren argitan gogo ematen du. Izan ere, berak esatera, antza handia atzematen du hiru autore horien artean (Begiarmen, I, 1974, 102). *Branka*-n zehazki, lau tesi hauetara iristen da: a) herri baten nortasuna hizkuntzan datzala; b) hizkuntza dela nazioaren instituzio nagusia; c) hizkuntza trukatur gero, herrikidetasuna ere trukatu egiten dela; d) trukaketa horretan, klase nagusia dela bere hizkuntza ezartzen duena.

Jokin Apalategik (1, 1973, 61), tesi horietako bakoitzari hainbat zehaztapen jakingarri egiten dizkio. Batez ere, Txillardegik bere tesi horietatik ateratzen duen azken ondorioaren formulazioari deitzen biziotsua: hots, “etnia-liferentziari, klaseena eransten” zaiola. Jokin Apalategirentzat “klase intzidentzia ez da eranskizun bat, aitzitik gizarte osoaren zimentarrien birberitze bat” (1, 1973, 62).

Geroago, *Hizkuntza eta pentsakera* liburuan, beste lau tesiok ere gaineratzen ditu Txillardegik: hots, a) hizkuntzaren erroa inkontzientean datzala; b) haren egitura, logikoa ez, baizik etnikoa dela; c) ez dagoela historiaren azalpen objektiborik eta, ondorioz, marxisten materialismo historikoa mito hutsa dela; d) estrukturalismoak ez dituela onartzen aurrerapenaren eta superazioaren ideiak; e) Zientzia eta Egia, hauek horrela maiuskulaz idatzita, marxismotik at daudela.

Jokin Apalategik, bere aldetik, oharrok egiten dizkio tesi horietako bakoitzari: a) hizkuntzaren sorrera eta bilakabidean materialtasunak ere baduela bere parte; b) hizkuntzaren inkontzientek baduela bere logika eta haren etnikotasunak, orobat, baita bere eduki klasista ere; c) gizarte-gertakari azalpenean ezin dela baztertu ikuspegi historikoa eta, horren barruan, klasearen intzidentziak baduela bere lekua; d) hizkuntzaren baitan, soziolinguistikaren aldetik begiratuta, aldaketak ematen direla hari buruzko balorazioan eta haren gizarte-bizitasunean; e) zientzia zein egia, biak letra txikiz idatzi beharrekoak direla, ez zerbait estatikoak, kontzeptu dinamikoak baizik. Erlatibismoaren barruan, halere, badira zenbait ezagutza lorpen zientifikotzat har daitezkeenak.

1.2. Txillardegik, *Zabaleko* (4, 1973, 55-57), bere erantzunean, bi baieztapen egiten ditu. Batetik, klaserik gabeko gizartea utopia hutsa den bezalaxe, era berean, etniarik gabeko gizartea utopia hutsa dela gogorarazten dio: “Klase-borrokatik at bilatzen diren azalbideak gezurraz oratuak badira ere, dena klase-borrokara biltzea onartu ezinezko sinplekeria dela zirudik” (4, 1973, 56). Baina bi kontraesan horietan zein zeini nagusitzen zaion esatera ez da ausartzen. Bestetik, Freud-en teoriari jarraiki, zientziaren izenean kontzientziatik at jokatzten duten bulkada ezkutu horiek ez direla bigarren mailakoak. Jokin Apalategik, *Sei idazle plazara* saioan egiten dion kritikan (1974, 105-108), ez bata eta ez bestea ukatzen dizkio, ongi azpimarratuz ez dituela azalpen guztiak monokausalismo klasistara biltzen: “Esan dugun bakarra, zera da: lehen akumulazioaz gero, gizarte jokabidearen hegi guztietan klase interesek intzidentziarik badutela” (1974, 105). Eta, adibide gisa, emakumearen zapalkuntza-egoera dakar.

1.3. Dena dela, J. Apalategiren eta Larresororen arteko eztabaida horretan, nabarmen ageri da donostiarrak estrukturalismoari ematen dion garrantzia, teoria honetan aurkitzen baitu, batez ere, hizkuntzarena aztertzeko metodo zientifikoa²⁷. Aitortzen du, bai, hizkuntzaren arazoa historiatik eta klasearteko borrokatik at ez dagoela, baina zalantzarik ez du estrukturalismoak linguistikaren esparruan egindako ikerketak zientziaren erabateko ekarpenak direla²⁸. Metodoa da halakoa: zientifikoa, alegia.

Harez gero, noski, azken hogeita bost urte hauetan, paradigma horiei buruzko diskurtsoak asko aldatu dira eta gaur orduko kontu

haiek hein batean gaindituak dirudite. Askori noizbaiteko ipuin zaharrak irudituko zaizkio. Maila batean, izan, halaxe da, zeren ordudanik berrikuntza sakonik egin baita, bereziki, biei zerien gizarte-egituren baitan ezarria zeukaten gehiegizko determinismoaren kontuan. Gaurko kritikak aho batez onartua du bilakabide historikoa maingua dela gizarte-egileen eraginik gabe. Egun, A. Giddens²⁹ lekuko, joera bateko zein besteko estrukturaz baino gehiago, *estrukturatzeez* hitz egiten da, gizarte-gertakarien historia prozesu baten emana bezala gogo emanez. Badirudi Pierre Bourdieu-ren pentsamendua ere hortik doala, estrukturalisten eta interakzionalisten artean bide autonomoa eginez.

Baina *Zabalek* irekitzen duen eztabaida teoriko honetan, gure herriak bizi zituen funtseko arazoak planteatuta zeuden eta, zuzenketa eta zehaztapen batzuk gorabehera, egun ere baliagarriak gertatzen dira orduko ekarpenak. Meritu hau bederen ezin zaio ukatu euskal ezkeraren topagune izan nahi zuen aldizkariari. Jadanik bere bidetxoia egina zuen *Branka* elebidunean harrotutako arazo intelektualek *Zabalek* jaso, harrotu eta birpentsatu egiten ditu eta, honela, euskal ezkeraren baitan ikuspegi-aniztasuna hedatzen da.

2. Sozialismotik marxismoa

Askotan marxismoa eta sozialismoa, hauek orokorrean ezker-raren ikur orokor gisa gogo emanak izan diren heinean, ideologia bereko anaia bikiak bailiran hartuak izan dira. Ezker abertzalearen baitan, ordea, bi ikusmolde horiek garbiki bereizi izan dira eta, V. Batzarrak jardutean esan bezala, ETArene barne-zatiketako zioetako bat, hain zuzen, bi ikuspegi kontrajarri horien arteko ideologi gatazkaren arazoa izan zen. Zentzu honetan, esan behar da aiputan dugun arrazoibidearen norakoan *Brankatik Zabalera* jauzi nabarmena ematen dela, azken kolektibo honetako marxistek ez baitute onartzen hangoen humanismo-koloreko sozialismoa. Sozialismotik marxismorako jauzi hori *Zabalen* nabarmentzen da argienik.

Beraz, *Zabalen* Jose Manuel Odriozola “Izarreko” eta Larresororen artean irekitzen den eztabaida behar bezala ulertu ahal izateko, *Brankara* joan eta hango iturrietan sozialismoa nola gogo emana dagoen aztertu beharra dago. *Brankaren* iturria erreferentzia obligaziozkoa da, eta, beste maila batean, baita *Enbata* aldizkaria-

rena ere, bereziki, Burgosko prozesuaz geroztik ezker abertzalean garatzen den bilakaera ideologikoaren aurretikoak non dauden jakin ahal izateko.

2.1. *Brankakoen tesiak*

Branka aldizkariak hainbat artikulu argitaratu zituen sozialismoaz, batzuk maila ideologikoan, filosofia gisa, landuak eta beste batzuk, berriz, praktika ekonomikoan. Honelakoak dira, adibidez, Benito del Valle (1967), “Zabala” ezizenez, Jugoslavia ohiko sozialismo autogestionarioaz eta Euskal Herri sozialistaz idatzitakoak. Txillardeggi eztabaidaren karanbolan sartuta aurkitzen baita, gu hemen harena ekartzera mugatuko gara, baina ez lehenago “G. Hirurizar”en (1967) “Por un socialismo vasco” artikulua edukia hustu gabe. Interesgarria da euskal sozialismoari buruzkoa nola ulertzen duen jakitea.

2.1.1. “G. Hirurizar” ezizenez izenpetzen duen hori Agirre Bilbao dugu. Honek, artikulu horretan, oinarritzat 1951ko uztailaren 3an II. Internazionalak Frankfurt-en onartu eta aldarrikatutako Manifestua hartuta, hor diseinatzen den sozialismoa demokratikoaren xedea zein diren zehazten du, azterketa-mailan leudekeen zeinu ideologikoak (marxistak, erlijiosoak edo humanitarioak) alde batera utzita. Sozialismoaren xedea, hala esango da, gizarte-zuzentasuna, ongizate handiagoa, askatasuna eta mundu-bakea lortzea da. Baina honek ez du suposatzen produkzio-bitarteko guztiez jabetzea³⁰.

Beraz, sozialismoak, gizarte-arazoak aztertzerakoan, korronte ideologiko desberdinetatik hartzen ditu –edo, bederen, har ditzake–, bere ikerketa-tresnak: hots, marxismotik bezala, kristaupentsamendutik edota, soilki, humanismotik. Horregatik, doktrina-koherentzia hertsirik ez du erakusten. Sozialismoa izan, liberalismoaren berezko semea dela esango da eta, maila praktikoan, alderdi sozialistek ez dutela auzitan jartzen gizarte kapitalistaren egitura.

Halere, marxismo-leninismoaren aldean, badu bere abantaila sozialismo humanistak, eta da, hura bezala ez dela dogmatikoa, pragmatikoa baizik. Politikagintzan emaitza praktikoak nagusitzen baitira, helburutzat ezartzen diren dogmak, tesiak, obragaitzak gertatzen dira³¹. Espiritu praktiko hau oso garbi islatzen da lehen aipatu ditugun Benito del Valleren artikuluetan.

Agirrerentzat, bada, sozialismoa arrazoian, justizia sozialean eta eskubidean oinarritutako gizarte-prozesu bat da izan, eta elementu horiek dira egiazko gizarte demokratikoaren zerizana osatzen dutenak, xedetzat duena, hain zuzen, justizia soziala ezartzea gizarte-paktu baten bidez, hots, ez iraultzaren ondorioz. Gizarte demokratiko hori nola lortzen den? Horra: zuzeneko ekoizleak produkzioaren gestioan txertatuz, baina praktika-mailan. Honetan legoke demokraziaren muina. Produzitzailerak gidatu eta kontrolatu behar du bere produktua. Bestalde, herri bakoitzari baitagokio bere sozialismoa eratzea, euskal sozialismoak ere, beti ere haren ustez, Euskal Herriak bere historian zehar ezagutu izan duen tradizio komunitarioan inspiratu beharko luke³².

Baina Euskadi sozialista eraiki, Euskadi sozialista batean baka-
rrik eraiki daiteke. Ideia hau esplizituki jasotzen da hurrengo zen-
bakiko hitzaurrean, dioenean, gure herriak atzerriari buruz Euskadi
Askatua eta aberriari buruz Euskadi Sozialista izan nahi duela³³.

Honaino *Brankakoen* ideia sozialistak, aldizkariak bere egiten
dituenak bere hitzaurrean. Nik dakidala, Txillardegik ez du lantzen
sozialismo humanistari dagokionez ezer berezirik. *Brankako* artikulua
bakarra, beraz, Agirrerren hori da. Kontuan hartu beharreko oharra
da, beraz, Txillardegik sozialismo humanistaz diharduenean, zertaz
diharduen jakin dezagun. Horregatik ekarriko dugu artikulua hori.
Bai, badago beste artikulua txiki bat, “Tribuna libre” delakoan dato-
rrena eta Xabier Mendillorri (1978) delako batek izenpetua, baina, ge-
hienbat oharrez atondua denez, ez du guretzat aparteko garrantzirik.

2.1.2. Txillardegik, “Usako” izenpean (1967, 36-43), “El marxismo-leninismo y los problemas nacionales” artikuluan lantzen ditu marxismoari eta nazio-arazoari buruzkoak. Hemen, Marx, Lenin, MaoTse-Tung, autore klasiko hauen iritziak aztertzen ditu eta, halaber, komunisten praxi politikoa, horien ikuspegia nazio-arazoa duten herrialdeetan nola aplikatu izan den azalduz. Noski, irakurketa negatiboa egiten du, eta hau bi zentzutan. Maila teori-
koan –hala dio–, nazio-arazoak izan, sasi-arazoak dira, zeren burgesiak sortuak direnez gero, klasearteko borrokak gaitzearrekin batera erabakiko baitira haiek ere. Erroan, bada, klasearteko arazoa datza; azalekoa da, beraz, nazioarena³⁴. Eta logika horren har-
rian, maila praktikokoan, alderdi komunistek nazio-arazoa ulertzeko,
–ezago bultzatzeko–, gaitasunik ez dute agertu inon: ez Arjelian,

ez Dolores Ibarruriren Espainian, ez Kurdistanen, ez Quebec-en. Zergatik? Marxistentzat, nazio-arazoa izan, bigarren mailako arazoa delako³⁵. Horra hor arrazoa.

Zenbaki berean, oraingoan Txillardegi izenarekin, Roger Garaudy-ren *Le grand tournant du socialisme* liburuari artikulua bat eskaintzen dio (1970, 20-27), zeina, frantses komunistak marxismo-leninismoaren ortodoxia ofiziala –bereziki moskutarra–, eta honi atxikiriko alderdi komunisten politika arbuiatzen duen aldetik, goratu egiten baitu. Txillardegi, Garaudy bezala, Tito eta Dubcek-en alde dago, horiek, hurrenez hurren, Stalin-engandik aldentzen direnez geroztik Jugoslavian 1948an eta Txekoslovakian, berriz, Pragako 1968ko udaberriko gertakarien ondotik. Baina, aldi berean, jarrera kritikoa agertzen du Garaudy-ri buruz: lehenik, nazio-arazoaz deusik esaten ez duelako, ezta Jugoslaviar ari denean ere; bigarrenik, pentsamendu-askatasunaz ezer gutxi dakarrelako; hirugarrenik, liburua komunistentzat egina izaki, egi iturritzat Marx eta Lenin hartzen dituelako.

Aurreko zenbaki berean bada beste artikulua bat, “Irmokeritik pluralismorako bidean” deitua, “Menara”³⁶ delakoak izenpetzen duena (1970, 12-14), eta bertan, abertzaleon batasuna aldarrikatzen duen aldi berean, jokabide pluralista onartu behar dela esaten du. Pluralismoak gizotasun heldua izatea, zentzu kritikoa izatea, guztien gainetik pertsonaren duintasuna jartzea inplikatzat du³⁷. Pluralismo horretatik etor daiteke, etortzekotan, abertzale guztion elkartasuna.

Azkenik, *Branka* aldizkaritik aparte eta data jakinik gabe, “Harribizketa” ezizenez argitaratutako *Proyecto de manifesto vasco* izeneko saiakeran (1979, 731-800), *sozialismoaz* zer ulertzen duen esan gabe, CFDTk 1973an Nantes-ko Batzarrean aldarrikatutako printzipioak bere egiten ditu Txillardegik. Beraz, hala estalinismoa eta marxismo-leninismo dogmatikoa nola sozialismo klerikala ezeztiz, marxismo kritikoa, bizi eta berritzailea, hots, demokrazia ekonomikoa ezarriko duen sozialismoa bakarrik onartzen du³⁸. Beste pasarte batean, sozialismo-mota hau autogestioan zehazten dela, dio³⁹.

Honez gero zerbait azalduak ditugu *Brankakoen* eta, zehazkiago, Txillardegiren sozialismoari buruzko aburuak. Sarrera honekin, hala uste dugu, eztabaidan sartzeko moduan gaude.

2.2. Sozialismoaz tesiak eta antitesiak

Aurreko atalean ikusiak gara sozialismoaz, orokorrean, irakurketa bat baino gehiago egin direla *Zabalen*. Hemen, han azaldutakoaren testuinguruan oinarrituta, J. M. Odriozolak eta Txillardegik izandako eztabaidaren arrastoak segituko ditugu orpoz-orpo, desadostasunak zertan zehazten diren jakiteko adierazgarriak direlakoan. Lehenik, J. M. Odriozolaren tesiak formulatuko dira eta segidan Txillardegiren kontraesanak, azalpenean artikuluko bakoitzaren kronologia errespetatuz.

2.2.1. Jose Manuel Odriozolak (1975, 33-36 bis), “Txillardegiren sozialismoa” izeneko artikuluan, honek *Enbata* astekarian, 1976ko 390. zenbakian, argitaratutako “EHAS y el abanico político vasco” izeneko artikulua aipatzen du eta horko zenbait tesi kritikatzen, haren luma burges txikiaren ideologiaz estalia atzematen duelarik. Hauek dira hari egozten dizkion hiru tesion izenburuak, hitzez hitz dakartzagunak:

I. tesis: “Marxismoaren fenomenoak Euskal Herrian erlijioaren ondorio bat dela”⁴⁰. Ideia hau, guk jakitera, Rikardo Arregirekin izandako eztabaidan atera zuen lehen aldiz. Geroztik askotan errepikatu izan du. Adibidez, aipatu berri dugun *Proyecto de manifiesto vasco* lanean⁴¹ dioenez, marxismo ideologikoa da Euskal Herrian tesi sozial-inperialistak nagusi izatea esplika dezakeen hiru arrazoietako bat.

Baina Txillardegiren tesi hori, izan, burges ideologiari dagokionna dela uste du J. M. Odriozolak, honela arrazoituz: langileriak bere ideologia proletargoaren diktaduraren gainean eraikitzen duen bezala, burgesiaren ideologiak demokrazia eta pluralismoa bezalako kontzeptuak erabiltzen ditu eta horien azpian, funtsean, produkzio-mota kapitalistari dagozkion egiturak ezkututzen dira. Halakoa da Txillardegiren sozialismoa:

“Nahita edo nahi gabe, esplizituki edo inplizituki, ideologi bat sistema baten alde eta beste baten kontra doa: Txillardegirena ere orobat berdin” (Odriozola, 1976, 34).

Eta hala da, teoria marxista erlijioaren ideologia arrunt gisa hartzen baitu, marxismoa gainegiturari legokiokeen fenomeno soiltzat hartuz. Bai, egia da, Txillardegik ematen duen esplikazio hori

izan, argigarri da, baina burges ideologiak ematen duen esplikazioa da, ez egiazkoa, zeren marxismoa ez baita erlijio-krisiaren isla ideologikoa, euskal gizarte kapitalistaren muina azaltzen duen teoria bat baizik:

“Marxismoa, Euskal Herrian eta nonahi, egoera sozial jakin baten ondorioa da; eta zehazkiago adieraziaz, kapitalista sistemaren ikerlan teorikoak eman duen produktu bat da, jarrera iraultzailearen ildotik” (Odriozola, 1976, 34).

Bestela esanda, soziologia marxistak gizarte kapitalista aztertze-ko eredu teoriko bat eskaintzen du.

2. *tesia*: “Euskal ezkerren baitan datzan arazoari ezin dakiokeela marxismoak ihardespenik eman” (Odriozola, 1976, 34).

J. M. Odriozolaren ustez, Txillardegiren tesi horretan, marxismoari dion beldurra ezkututzen da. Izan ere, sozial-demokraziaren metodo psikosozialak (hemen sartzen ditu psikosoziozia, estrukturalismoa, zientzien diziplinartekotasuna, etab.) burges txikiek darabiltzatenak dira eta horiek burgesen interesak sostengatzen dituzte. Horregatik salatu eta arbuiatzen ditu metodo horiek. Bere ahaleginak hizkuntzalaritzara mugatzeko aholkua ematen dio, ondo ari, diziplina horretan ari baita, ez besteetan.

Txillardegik, bere artikulu horretan, antza, EHAS alderdia “gauchista”tzat dauka⁴². J. M. Odriozolaren ustez, ordea, ez sorreran da “gauchista” eta ez bilakabidean. EHAS sortu, ez da sortzen klase mailako planteamendu erradikal eta independente batetik, ezkerreko zenbait indar moderatu bilduz baizik. Gizarte-arazoetan metodo marxista erabiltzen duen arren, alderdi gisa, irekia agertzen da benetan. Gainera, eraginik gehien kultur alorrean du, oraingoz bederen.

Dena dela, alde batera utzita Txillardegiri egindako kritika, EHASen planteamendu ireki hori arriskugarri iruditzen zaio Odriozolari (1976, 35), zeren, “klase mailako politika *independentea* ez den heinean, politika hori zehatz eta mugatuki *proletalgoaren* ‘lineatik’ ez doan neurrian”, ‘ezker guztiarentzat’ dela aitortzen denean, ez baita bereizten klaseen arteko politika *fusionista* eta *autonomista*, haren ustez zehazki bereizi beharrekoak direnak.

Bistan da, J. M. Odriozolarentzat, proletalgoaren alderdiak bakarrik du marxismoaren muina argien eta garbienik beregana-

tzen. Hortik abiatuko da LAIAren bide sindikala, berak espresuki adierazi bezala:

“Nik dakidanez, bai teorian eta bai praktikan, egungo Euskal Herrian, politika sozialista bat daraman Alderdia LAIA da, ez ezkerkerian erori delako, ez erreformismoan amildu delako, ez eta ere zenbait sozialista idealistek uste duten moduan ‘euskal gizarte osoaren’ interesak defendatzen ez dituelako, baizik eta interesok euskal proletalgoaren politika *jarreratik* gordetzen dituelako” (Odrizola, 1976, 35).

LAIAtik barrutik ari da hor arrazoitzen J. M. Odrizola.

3. *tesia*: “Marxisma ez den euskal ezkerrek, arazo osoaren barne, nazional arazoari ematen diola lehentasuna klase borrokaren aldamenean”⁴³.

Beste leku batean ere formulatua zuen antzeko tesi hori Txillardegik, ezaguna zaigun *Proyecto de manifiesto vasco* lanean, hain zuzen, galdetzean ea bi elementu horiek –nazio-arazoa eta klase-arazoa, alegia–, elkartu egin behar ziren, kimikoki elkartu ere Krutwigek egin bezala, ala, elkartze kimiko horretatik at, ez ote zitekeen bien artean lehentasunik ezarri maila taktiko-tenporalean. Onartzen du, halere, punturik zailenetako bat dela hori. Berak hor fronte nazionalaren aldeko apustua egiten du, alderdi nazionala lehenetsiz⁴⁴.

J. M. Odrizolaren ustez, ez da lehentasunik ematen arazo nazionalaren eta sozialaren artean; alderantziz, biak batera datoz elkarri josiak. Horregatik, oker dabil Txillardegi, zeren euskal goi-burgesiak ez baitu inoiz izan nazio-kontzientziarik, baina bai populuak. Burgesa da, beraz, Txillardegik egiten duen planteamendua:

“Zeren euskal burgesia, tipia kenduaz behintzat, ez baita sekula ‘conciente’ izan nazional arazoarekiko, eta bai euskal populua. Eta jakina denez, eta Txillardegik jakin behar luke, edo bestela ez du jakin nahi eta orduan badakigu zergatik den, euskal populuak ez diola *ezeri* lehentasunik ematen. Ez eta euskal eskerrak ere, espainolisten kasua beste kasu bat da. Eta ez zaio lehentasunik ematen, populuak ere ongi baino hobeto dakielako, nazional arazoa ere arazo sozial bat dela, forma *jakin* eta determinatu batekin. Nazional arazoari *lehentasuna* damaion tesi hori, burgesa da, erreformista denez gero, eta hori jadanik ez du euskal populuak onetsiko, betiko ‘haiek’ kenduz gero” (Odrizola, 1976, 36).

Beraz, nazio-askapenaren bidean, euskal burgesia nazionalistari ez dagokio euskal proletalgoaren bidea segitu besterik, horixe baita, ez besterik, “alternatiba *iraultzailea*”. Beste guztia, laburki esanda, jokabide *erreformista* izanen da.

J. M. Odriozolak, Txillardegiren planteamendu horretan, aleman eta laboralisten sozialismoa ikusten du, politika erreformista eta posibilista ororen sozialismoa, alegia, “langile interesak behin eta berriz traizionatu” dituen (1976, 36). Sozialismo humanista eta pluralismo hori da, izan, sozial-demokraziari bere onespen ideologikoa ematen diona. Familia ideologikoa honetan sartzen ditu J. M. Odriozolak, hain zuzen, marxista izan gabe, materialismo historikoa metodo analitiko gisa erabiltzen dutenak ere. Marxismoan, harentzat, batera doaz, elkarri lotuta, materialismo historikoa eta dialektikoa:

“Eta nik ezin dut konprenitu marxista nolaz arraio izan litekeen materialismo historikoa *hartuaz* eta materialismo dialektikoa *utzi*az, bi diziplinon printzipioak elkar osatzen dutenez gero, nahiz eta bakoitzaren objektua berezia eta bestelakoa den” (Odriozola, 1976, 37).

Honaino iristean, materialismo historikoa eta dialektikoa bere egitean, J. M. Odriozola eta lehen marxismoaz jardutean aipatu ditugun J. Sudupe, K. Arroiabe, M. Urteaga eta beste batzuen aburuak kapera berean elkartzen dira, marxismo-leninismorik heretsienez, zeina, orduko modaren arabera, gehienbat althusserianismoz barnizatzen baita.

2.2.2. Txillardegik, (1976, 19, 40-45) “Izarrekoren sozialismoa” artikuluan ematen dion erantzunean, garbiki aitortzen du mingarri gertatu zaiola haren “lore mordo” hori irakurtzea: burges txikia, erreformista, posibilista. Orokorrean, dio, J. M. Odriozolak bere bizkar botatzen omen dituela berak inoiz esan ez dituenak. Bere erantzuna, tesiak banan-banan iruzkinduz, ematen du. Arrazoi didaktikoengatik, hemen ere, ordena horixe bera jarraituko dugu geure azalpenean.

Lehen tesiari dagokionez, zehazten du esanez sekula ez duela pentsatu marxismoaren fenomenoak Euskal Herrian erlijioaren ondorio soil izan denik. Alderantziz, frankismo-garaian zehazki, marxismoaren gorantzian eragina izan duten hiru faktore bederen izan dira: a) “kapitalismoaren zapalketa lotsagabea”, b) “abertza-

letasunaren kontrako borroka etsian, faxistek berek bultzatu dute, marxismoaren zabalketa” eta marxismoa, etni arazoa dagoen herrialdeetan, “*inperialismoaren iskitutzat ere* hazi eta hedatu da” (eta zentzu honetan, Espainian, ESBA, MCE, LRC, ORT, PCEn kasuak aipatzen ditu), eta c) euskal seminarioak eta komentuak hustu zirenean –dioenez, gizakia nekez bizi baitaiteke ideologiarik gabe–, kristau militante ohiek, populuari lagundu nahirik, ideologiaz aldatzen dute eta erlijioaren ordeztatu marxismoa onartzen. Azkenean, marxismoa eta erlijioa asoziatzeko orduan, bere planteamendua ez dela batere originala frogatu nahirik, Bertrand Russel eta Mircea Eliaderekin aipuak transkribatzen ditu, azken ondorio hau ateratzen duelarik:

“Marxismo ideologikoa erlijio berri gisa agertzen zaio filosofo askori; ez niri bakarrik. Apezak, fraideak, serorak eta kristau militantek, horregatik, trumilka, ia batera, marxista bilakatu dira; eta lehengo fededun kartsuenak, gaur marxistatik dogmatikoenak dira. Izen mordo bat emango nuke aisa; baina ez naiz horretara iritsiko (...) Euskal Herrian modan dagoen marxismoa, bestalde, *ideologikoa* dela berehala erreparatzen da. Ez dago gure errealitatean funtsaturik, liburu sakratuetan aurkiturik baizik” (Txillardegi, 1976, 19, 41).

Zentzu honetan, bada, marxismo ideologikoa da nagusi Euskal Herrian, merkea, dogmatikoa. Ikuspegi kritikoa agertzen duten, edo zientzietan lehentasuna hizkuntzalaritzari ematen dioten, edo nazio-arazoa funtsezkotzat daukaten autoreak ez dira ez ezagutzen ez aipatzen. Ignoratuen izen-zerrenda luzea da: H. Lefèvre, P. Fougères, P. Daix, Garaudy, Marcuse, Saussure, Hjemslev, Martinet, Lacan, Foucault, Derrida, Benoist, Proudhon, Memmi, Connolly, Sartre, Otto Bauer. Alderantziz, aintzakotzat hartzen direnak besteok dira: Marx, Engels, Rosa Luxemburgo, Trotsky.

Bigarren tesiari dagokionez, onartzen duen arren kapitalismoaren kritikarik zorrotzena Marx-ek egin dela eta haren ekarpen batzuk erabatekoak direla, uste du marxismoak ezin eman diezaiokeela erantzun zuzenik euskal ezkerari. Besteak beste, marxismoa ez da tresna egokia nazio-arazoa esplikatzeko. Eta honen arrazoia da, hain zuzen, Marx-ek geroztik sortu eta garatu direla hainbat diziplina berri, hala nola, psikoanalisi, estrukturalismoa, zibernetika, biologia, erlatibitate, fisika kuantikoa, etab. Eta baieztapen honen frogantzan, H. Lefèvre, K. Korsch, Edgar Morin, G. Friedmann,

Monod komunista ohien eta korronte horretatik urrun den Benoist baten aipuak dakartza. Dena esateko, Marx hila dela.

Hirugarren tesiari dagokionez, Txillardegik berretsi egiten du marxista ez den euskal ezkerak lehentasuna nazio-arazoari ematen diola eta tesi hau defendatzeak ez duela inplikatzeko “burgeskierian” erortzea. Koloni herrien kasuan, zehazki, bai Memmi eta bai Mao-ren tesiak bere egiten ditu, hauek, atzerritarra uxatzeko, lehenik fronte nazionala egin baitzuten.

3. Marxismoa eta nazionalismoa

Ilusio hutsa zen estaturik gabeko nazioen historia behin-betiko bukatua zela pentsatzea, hainbat marxista klasikok pentsatu izan zuten bezala. Kapitalismoak bere lehen krak orokorra 1929ko krisi ekonomiarekin egingo du eta estatu aurreratuenek, ongizatezkoak izatera pasatuko diren arren, ez dute lortuko faxismo eta nazismoari aurrea egin eta nazioarteko politikan gizarte-orekari eustea. Bestalde, bigarren mundu-gerraz geroztik, batik bat, mugimendu nazionalak zein kolonialak gogortuz baitatoz mundu zabalean –Europaren bezala hemendik kanpora ere, bereziki, koloni lurraldeetan–, berriro nazio-arazoak teorizatu beharra sortzen da. Krisian dagoena gizarte kapitalista da. Horren barruan kokatu beharrekoak dira borroka nazionalak zein kolonialak. Horregatik, ezkerria, internazionalismoaren aldeko diskurtsoa eraikitzen den unean, hain zuzen, nazionalismoaz ere gogoetak egin beharrean aurkitzen da. Nazioarena burgesiaren asmakizun historiko bat dela esaten baita, diskurtso horretan internazionalismoa eta nazionalismoa borroka berean nola elkartu, hemendik etorriko dira zailtasunak teoria marxistan.

3.1. Urrutiko iturrietara joan gabe, oso eskura geneuzkan ezkerreko frantses literaturan, nazio-arazoari buruzko lan monografikoak argitaratzen hasiak zeuden 1970eko hamarkada-hasieran. *Partisans* aldizkariak⁴⁵, “Le domaine national” izenarekin, bi zenbaki ematen ditu argitara 1971n, François Maspero-ren zuzendaritzapean⁴⁶. Euskal Herriari buruzko artikulua luze bat ere badator 2. zenbakian⁴⁷, “Entiki” ezizenez, seguru asko, Patxo Unzuetak idatzia. Urtebete lehenago, 1970ean, argialetxe berean argitaratua izan zen *Batasuna: La répression au Pays Basque* izeneko liburua –egile-izenik

gabea-, torturari buruzko “liburu beltza”, frankismoak euskal aberzaleengan gain eragindako terrore sistematikoaz diharduena⁴⁸. Le-kuko aparta.

Aldizkariaren sailean, orobat, aipatzekoa da Jean Paul Sartre-k zuzentzen zuen *Les temps modernes* aldizkariak⁴⁹ Frantziako herri zapalduetz 1973an argitaratutako zenbaki monografikoa, 22 lankidek buruturiko 24 artikuluz osatutakoa, zeinetan, arazoaren egoera orokorrean azaldu ondoren, Okzitania, Britainia, Euskadi, Katalunia, Alsazia, Korsika eta Flandriako nazio-mugimenduak aztertzen baitira. Honen berri dakar *Zabalen* (4, 1973, 29-34) Jean-Louis Davantek *Les Temps modernes* agerkarian Aberri zapalduak” izeneko artikuluan. Beraz, bi aldizkari garrantzitsu horietan artikulua bana aurkitzen dira Euskal Herriaren gainean emanak. Maspero-renean garaiko ETaren bertsioa eskaintzen da, VI. Asanblearena, eta bigarrenean, berriz, *Enbata*rena.

Zuberotarrak bazuen lan hori *Zabalen* aipatzeko motiborik ere, bera izan baitzen Euskadiko aberri borrokaz eta klasearteko borrokaz idatzi zuena. Esan dezadan, bidenabar, horko eduki bera emango duela geroxeago, aldaketa handirik gabe, euskarazko *Aberri-borroka eta klase-borroka* liburuan. Komeni da ikustea euskal arazoaz zer-nola pentsatzen zuen berak garai honetan. Ideia pare bat nabarmentzen dira laburpen gisa eskaintzen duen haren artikuluan.

Lehenik, Frantziako estatupeko herri zapalduet dagokienez, hedaturaren aldetik Okzitania eta Britainia dira garrantzi handia dutenak. Bereziki, lehenengoa da kontuan hartzekoa, honek 31 departamendu dituelako. Ipar Euskal Herria, aldiz, arras txikia da eta, gainera, Frantziako estatutik kanpo dagoen beste eskualde handiago baten zati bat besterik ez da. Horregatik, Ipar aldeko euskaldunen etorkizuna, ez Frantziako estatu-estrategian kokatuta, baizik Hegoaldeko euskaldunen mugimendu nazionalistekin estrategia bakar batean elkartuta ikusten du berak⁵⁰. Estrategia bakar honetan elkarlanean edo fronte komunean ikusi nahi lituzke ETA eta jada sozialismorako urratsa emana duen *Enbata*⁵¹.

Bigarrenik, marxisten nazionari buruzko pentsaeran, Ives Person bretoiaren ikuspegia azpimarratzen du, zeinek azpiegituren mailan ezartzen baititu kultura eta honen barruan, bereziki, hizkuntza. Hau, teknika-mailan harremanetarako eta elkartasunerako tresna bat izateaz gain, bera dugu herritasuna bera hezurramitzen duena⁵². Ikuspegi honek nolabaiteko etena suposatzen zuen mar-

xismo ofizialarekiko edo klasikoarekiko, zeren hor kulturari buruzko adierazpen-motak oro –hauen artean nazio-borrokak–, gainegituran kokatzen baitira, klase-borrokak azpiegituran gelditzen diren bitartean. Ikuspegi hau ez dela batere marxiarra esango du. Nolanahi ere, horren arrazoa ez da hor behar adina esplizitatzen⁵³. Literatura marxistarekin segituz, autore honek berak, Person-ek alegia, Luxenbourg-en joera ekonomizista kondenatzen duen Leninen lanak eta Stalin-ek herritasunaz egindako ekarpenak aipatzen ditu, esanez Stalin-ek, obretan, nazio-arazoa ez zuela Lenin-ek bezain ongi errespetatu. Hori bai, Mendebaldean ez bezala, non hemengo marxista gehienak luxembourgistak baitira, Sortaldean –Errusian, zehazkiago–, askoz hobea izan omen zen nazionalismoari emandako aterabidea, bereziki kultur mailan, nahiz azkenaldian hasierako federalismo-egitura zentralismora lerratuz etorriko den⁵⁴.

Joera likidazionistak zirela-eta, ezker abertzaletasunaren inguruan hain sentikortasun handia zegoen, ezen, askotan, ez zegoen lekuetan ere mamuak ikusteko arriskua baitzegoen. Horrelakoetan, badaezpadan ere, argi gorriak pizten ziren. Ez nuke esango horrelakorik inoiz gertatu ez zenik *Zabalen* ere. Gertatu ala ez, nazio-arazoaren ingurumari piztutako eztabaidak argitasunik ekarri zuelakoan nago. Eztabaidaren zurrunbiloan sartuta aurkitzen dira, zuzenean edo zeharka, “Altzürükü”, “Meakaberri” eta Joxe Azurmendi. Nazio-arazoari buruzko gaia, bada, emankorra gertatuko da *Zabalen*.

3.2. Andolin Eguzkitzak, Altzürükü ezizena erabiliz, “Euskal iraultzaz gogoeta zenbait” idatzi zuen 1974an (7, 1974, 24-29). “proletargoaren alde borroka egiteko prest gauden euskaldun sozialisten estrategia jeneralaz”; hots, euskal iraultza osoari buruzko norabideaz, ari da eta, bidenabar, nazio-arazoaz. Bere ikuspuntua bost puntutan banatua ematen du, banan-banan azaltzea komeni dena, zeren artikulua honetatik sortuko baita gero soka luzea ekarriko duen eztabaida.

3.2.1. Sarrerakoan, aurre-ohar terminologiko batzuk egiten ditu nazionalismo, internazionalismo, nazio, nazionalitate, abertzale eta estatuaren gainean. Honek garbiki bereizten ditu “nazio burjesa”, estatu burgesak eraikitakoa, alegia, eta herri batek osatzen duen nazioa, nazio-komunitate hau Stalin-en zentzuan ulertuta, gehienbat etnikoan. Hemendik ateratzen duen ondorioa da estatu-nazio burgesari datzekion nazionalismoak konnotazio historiko negatiboa

duenez gero marxiar tradizioan, kontzeptu hori gainditu beharra dagoela. Autore honek zentzu positibo horretan ulertzen zuen ETA VI.ekoek orduan aldarrikatzen zuten “nazionalismarekiko apertura edo hautsidura”. Horregatik, nazionalismo-mota hau sorreraz eta funtzionamenduz burgesa delako, “nazionalista” hitza baztertuz, “internazionalista eta abertzalea” kontzeptuak erabiltzea hobesten du, berak berdintzen dituenak, zeren, dioen bezala, “internazionalista izateko modu zuzen bakarra abertzale izatea” baita (Eguzkitza, 7, 1974, 25).

3.2.2. Gero, langileriak zuzendu beharreko iraultzaz ari denean, euskal gizartearen errealitatea aztertzeko metodo dialektiko gisa, “objektibotasun” eta “subjektibotasunaren” kontzeptu operazionalak aipatzen ditu. Bakoitzaren edukia honela zehaztua dator hitzez hitz:

“Lehen ekonomiak eta uneko politikak egiten duena da, bai eta berdintzen gaituena estatuan estatuko; bigarrena, berriz, gure kasu honetan euskalduna euskaldun egiten duena dugu, edo eta espainiar eta frantziarra espainiar edo frantziar. Agerian dago, Espainiako edozein proletario eta Hego Euskadiko beste edozein, kapitalismoak era berean zapalduak direla, baina agitzen dena zera, bi proletario ezberdinen zapalkuntza bera, h. d., euskaldun eta erdaldun batzuen zampaketa bera. Berdintsu Frantses Estatuaz erran dezakegu” (Eguzkitza, 7, 1974, 26).

Aipu hori nola ulertu, hor sortuko dira gero nahasketak, bere lekuan agertuko direnak. Badirudi, eskema kontzeptual horretan, objektibotasuna hertsiki faktore ekonomikotik eta politikagintzatik eratorritakoari dagokiona dela eta subjektibotasuna, aldiz, kasu honetan, euskal nazionalitatearen marka espezifikoari dagokiona. Honela, bi estatutan erdibiturik dagoen euskal langileria, alde batean zein bestean zapalduarik baldin badago ere, ez dago berdin-berdin zapaldua ez maila objektiboan ez subjektiboan. Eta ez dago hala, hain zuzen, mugaren alde bietan baldintza ekonomiko-politikoak desberdinak direlako.

Horrek ez du esan nahi, berak segidan ohartarazten duen bezala, “nazional arazoa kultur arazoa” denik (Eguzkitza, 7, 1974, 26). Egja da hau, baina ezin da ukatu, bestalde, nazio-arazoa subjektibitatearen esparruan kokatzen duela. Geure irakurketan subjektibitatearen edukia faktore subjektiboetara mugatu genuen eta badirudi,

horrela egitean, interpretazio okerra gin genuela, esaten ez zuena esanarazi geniola.

3.2.3. Euskal arazoa klase-ikuspegi honetatik begiratura, badirudi euskal arazoaren berezitasuna, zeinetan klase-alderdi komunaz gain, nazio zapalduaren alderdi espezifikoa ematen baita, sozialismo internazionalistaren ganean eraikitako teoriaren barruan planteatu behar dela. Internazionalismoaren kasuan, nahiz eta munduko langileak oro “objektiboki” modu berean dauden zapalduak, euskal langileriak testuinguru orokor horren barruan kokatu behar du bere burua, bai, baina bere iraultza “lehenengoz hemen borrokatuz”. Puntu hau garbi azaldua dator haren testuan. Baina galdera zailagoa, beste hau da, guk argi ikusten ez genuena: nola jokatu behar du euskal langileriak Frantzia eta Espainiako langileriaren aurrean? Nola, ordea, bi langileria horiek –horien ordezkari politiko eta sindikal espainolak zein frantsesak–, euskal langileria abertzaleak daraman borroka nazionalaren aurka baldin badaude?

Badirudi, puntu honi dagokionez, askatasunerako alternatiba berriak –Euskal Herri sozialista eta askatua lortzeari dagokionak, alegia–, menpean hartua daukaten bi estatu burgesetako kapitalismoa gairiditzetik pasatu beharko zukeela. Hala zirudiela generitzon, zeren Euskal Herria Espainiako eta Frantziako estatuek baitaukate erdibitua eta menperatua. Baldin euskal nazioaren zapaltzaileak bi estatu burges horiek badira, hauen oinarri den kapitalismoa uzkaile gabe nekez burutu ahal izango da euskal iraultza.

Zehazkiago esanda, euskal iraultzaren estrategian elementu politiko hauek sartzen dira: a) euskal langileriak munduko beste langileriekin baino interes “komunagoak” dauzkala Espainia eta Frantziakoekin; horregatik, b) euskal langileriak zuzendutako iraultzak “internazionalki” bat egin behar duela bi estatuetako langileriekin interes komunak dauzkaten jokabide-mailan, harik eta komuna duten sistema kapitalista irauli arte; c) bestalde, alderdi bakoitzak baldintza eta estrategia desberdinak dituen aldetik, komunak ez diren helburuak lortzeko orduan –gurean, adibidez autodeterminazioa–, nazioarteko langile-alderdi guztien laguntza izatea suposatzen da; d) euskal iraultza, funtsean, bat-bera izanen da bai Hegoan bai Iparrean, baina, bitan zatitua dagoenez, lehen aipatutako faktore horientatik, politikagintza desberdina eramango da (Eguzkitza, 7, 1974, 27). Xede guztiok ezin baitira kolpetik lortu, euskal askatasunerako ibilbidea mailakatua izango da. Honela, bere hitzekin

esanda, euskal iraultzak hiru aro hauek iragan behar ditu bere bidean:

- “a) Espainiar Estatuan (gauza bera Frantziar Estatuan) bizi den euskal proletalgoak, bertako (espainiarra, katalandarra, e. s.) proletalgoekin sozialismoa erdiesteko burges Estatu ezabatu arteko borrokaldia, Estatuaren desegitea erdiesten ez den bitartean ‘Eskualdekatze’ jaundi eta Zuzen (?) baten alde borrokatuz.
- b) Estatu bi hori deseginik, Euskadi sozialistako bi aldeak bat egiteko borrokaldia.
- c) Autoerabakikuntzarako borrokaldia” (Eguzkitza, 7, 1974, 28).

Marxismo-leninismoan oinarritutako eskema honetan, berori euskal kasuari aplikatuta, sozialismo internazionalak, bertan marikatutako printzipioen arabera jokatuz gero, munduko langile guztiek aldarrikatutako autodeterminazioko eskubidean beharko da ezarri borrokaldiaren azkena.

Euskal Herri osoaren askatasun nazionala, bada, iraultza sozialistaren barruan kokatzen da eta, horrela egitean, nazio-arazo espezifikoak zein nazioarteko langileriari dagozkionak, hauek komunak diren heinean, euskal iraultza bat-bederan txertatzen dira, zeinaren arabera, bi borroka-mota horien azken xedea estatu burgesa uzkaileteza denez gero, sozialismoaren garaipenak Euskal Herriaren nazio-eraikuntza ekarriko bailuke.

3.2.4. Azken asmo honen alde borrokatzeko, azken puntuan, alderdi berri bat sortzea proposatzen du, berak EASI (Euskal Alderdi Sozialista Iraultzailea) deitzen diona. Alderdi horren estrategia marxismo-leninismoan oinarritua legoke eta taktika, berriz, masalanean eta borroka armatuan.

Alderdi horren egitekoak, hauek izango dira: a) euskal langileria askatzea, b) produkzio-bideak euskal langileriaren eskuetan jartzea, c) Euskal Herriko bi aldeak bat egin eta gero, autodeterminazioa burutzea, d) Euskal Herri osoa berreuskalduntzea, e) kapitalismoa gaingidteko, mundu osoko langile-klasearekin bat eginik borrokatzea. Beraz, langileria da euskal iraultzaren gidaritza eraman behar duena.

3.2.5. Euskadiz eta euskal langileriaz ari denean, Ipar eta Hego Euskal Herriaren batasuna aldarrikatzen du, egun Espainia eta Frantziako estatu burgesek erdibiturik daukatena. Politikoki zati-

tua badago ere eta, areago oraindik, zenbait lekutan kontzientzia nazionalik ematen ez bada ere, herri bat-bera izanez segitzen du. Era berean, langileriak, bere klase-egoeraren kontzientziarik eduki ez arren, ez dio horregatik bere langile-izateari uzten. Pasarte hau jakingarri da:

“Gure herria bada herri, kultura bat daukalako, historia, hizkuntza eta kontzientzia nazionala. Ene iritziz argi eta garbi dago, Bar-koxe (Zuberoan) eta Mungiako (Bizkaian) baseritar bi euskaldun direla biak, herri berekoak alegia. Eta inork, kasu, ez badu nazional kontzientziarik, Ipar Euskadin edo Nafarroako Erriberan usu gertatzen den bezala, ez da Euskal Herria ez delakoz, gizarte honen gainegiturak edo gainestrukturak jartzen dizkigun baldintzengatik baizik. Era berean, bere klaseaz edo egoeraz ez balu proletario batek kontzientziarik, ez luke proletalgoak proletalgo izaten uzten” (Eguzkitza, 7, 1974, 25).

Aipu horretan, garbi dago haren abertzaletasuna. Arazoa ez da hori, nazio-arazoari sozialismoaren barruan ematen dion trataera teorikoa baizik.

3.3. Hurrengo zenbakian, “Meakaberri” ezizenez izenpetzen zuen Paulo Iztuetak lan horretako zenbait alderdi auzitan jartzen ditu “Altzürüküri ohar batzuk” artikuluan (8, 1974, 18-20), zehazki hauek:

3.3.1. Haren tesiak ETA Sextakoekin zenbait puntutan kide-tasunik bazuela uste izan zuen. Hasteko, internazionalismoaren kasuan, hitzez hitz, Alzürükürentzat eta ETA Sextakoentzat euskal askatasunerako urratsak, estrategiaren aldetik begiratuta, berdinak direla baieztatzen da. Hona hemen bien aipuak zutabe hauetan jarrita:

<p>ETA VI. Asanbladak:</p> <p>“Askatasun bidea berdina da guzientzat: indartsuak eta hauen Estatua desegin. Zeren, Espainiako, Kataluniako eta Galiziako langileekin praktikan batuko garen heinean bai ditugu menperatuko oligarkia eta bere Estatua” (<i>Berriak</i>, 2 zk., 6 or.)</p>	<p>Altzürükük:</p> <p>“Espainiar Estatuan (gauza bera Frantziar Estatuan) bizi den euskal proletalgoak, bertako (espainiarra, katalandarra, e. t.) proletalgoekin sozialismoa erdiestekoz burges Estatua ezabatu arteko borrokaldia, Estatuaren desegitea erdiesten ez den bitartean ‘Eskualdatze’ handi eta Zuzen (.) baten alde borrokatuz” (op. cit., 28 or.)</p>
---	--

Bien formulazioa berbera ez bada ere, edukian ez da alde handirik.

3.3.2. Autodeterminazioko eskubideari dagokionez, berriz, zertan ez datozen bat arras garbi zehazten da. Altzürükürentzat autodeterminazioaren alde jokatzen “gaur bertatik” hasi behar da, azken mementorako utzi gabe; ETA Sextarentzat, aldiz, banatzearen alde egon ala ez “behar den unean” erabakiko da. Puntu honetan, bai, bada alderik, zeren lehenengoak banatzearen aldeko aukera hasieran bertan egina daukan bezala, bigarrenak isilik gordetzen baitu azken ordura arte. Eta orduan, azken kasu honetan, Lenin-en esaldi hura gogoratzen zaio bati, zeinek, dibortzioarekin konparatuz, esaten baitzuen berak ezin zuela autodeterminazioko eskubidea ukatu, eskubide demokratiko bat zelako, baina ez zuela banantzerik nahi. Ondorengo praktikak Lenin-ena egiaztatu besterik ez du egin. Izan ere, Patxo Unzueta aspalditik ari da euskal abertzaletasunari erasotzen Espainia handitik, horretarako, besteak beste, *El Paíseko* orrialde indartsuak erabiliz. Haren *Los nietos de la ira* (El País-Aguilar, 1988) irakurri besterik ez dago.

3.3.3. Meakaberrik orduan, Altzürüküren euskal iraultzari buruzko plangintza orokorrari puntu ahul eta arriskutsu batzuk ikusi

zizkion, horregatik, ordea, zalantzan jarri gabe haren abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna. Honela, puntu horien aurrean, bi zehaztapen hauek egiten ditu:

a) Euskal politikagintzaren estrategia euskal lurraldera mugatu behar dela, zeren ez baitago alde zurretik ziurtatuta estatu-mailan lortutako sozialismoak, ustezko bertako langileriaren laguntzaz-edo, euskal askatasuna ekar dezakeenik. Optimismo honen errotiko ukoa da pasarte honetan datorrena:

“Euskal-politikagintzaren estrategia Euskal Herritik harat lekutzeak, hots, Espainiako eta Frantziako Estaturen peko langileriaren baitan lekutzeak alegia, ez bide du garantizatzen euskal askatasunaren aldeko borrokaldiaren berezitasuna. Pentsa ahal dezakegu, sozialismora heldu eta gero ere, Estatu erdirakoiek zutik jarraituko dutela. Iraultza sozialista egin duten herriek horixe frogatu digute, ez praktikan bakarrik, baita teorian ere. Stalin-ek garbiki esan zuen sozialismoarekin zentralkeria gogortu egin behar zela langileriaren onetan. Historiak ez digu erakusten beraz, herri ttipientzako kontzesiorik. Zergatik egonen gara mirakuluen zain gure Herrian? Politika ikuspegiz zozoen fidantzia litzateke hori eta autodeterminaziorako aipamenek ez dute praktikan deusen baliorik, baldin gaur bertatik, eta gaurko gizartearen testuinguruan, Euskal Estatu baten alde jokatzeko ez bagara” (Iztueta, 8, 1974, 19).

Geroztik garaitu dira alderdi sozialistak Frantzian eta Espainian gobernu eskuratuz. Horiekin zer gertatu den esan beharrik ez dago. Euskal autonomistekin aliantza hertsian, ezker abertzalea isolatzen, txikitzen eta ezabatzen ahalegindu dira alderdi sozialista estatualistak eta, ez ahaztu hau ere!, Euskadiko hala deituak, etxe-koak.

b) Klasearteko interesak eta herrien artekoak, biak batera joan daitezkeen arren, ez daukatela nahitaez batera joan beharrik eta, nazio zapalduen kasuan, praktikan ez direla batera joan. Gauza bat dira langile-klase zapalduaren interes komunak, orokorrak, eta beste bat herri zapalduen nazio-interes espezifikokoak. Elkarki loturik doazen arren, izaera eta maila desberdinetako bi errealitate dira bai teorian eta bai praxi politikoan. Ideia hau da pasarte honek jasotzen duena:

“Bistan da, burgesiaren interesak ezin berdin daitezkeela langileria-renekin. Hauetako klase bakoitzak baditu bere interes bereziak. Langileriaren interesak edonongo eskualdeetan komunak badira

ere, (teorian hitz eginda akort gara), ezin onar daiteke, bestalde, burgesiaren eskabideak oro deuseztatzekoak direnik. Gauza bat da, borroka burgesiak zuzendurik eramatea eta beste bat, arras diferentea, burgesiak ere parte hartzea, langileria buru dela, herri baten askatasun osoaren, edo beregaintasunaren aldeko borrokan. Horregatik ez dago zertan kontrajarririk, strategiaren aldetik, langileria eta burgesia iraultzailea *herri desjabetu eta zapaldu baten beregaintasun politikoa erdietsi nahi denean, behar denean*. Zeren Altzürükü eta VI.gn. Asanbladakoen tranpa horretan dago, ohar-tua edo ohar-tu gabe, hots: burgesak eta sozialistak kontrajarriz gero, abertzaleak oro burgesiarekin berdintzea. Eta hau mundu guztiak dakike gure kasuan ez dela egia. Abertzale sozialistok nahi dugun Estatu, ez burgesa, baizik eta *sozialista nahi* dugu, eta hala dadin borrokatzen dugu, eta borrokatzen gaur bertatik, gerorako utzi gabe. Hortik dator langileriari borroka honetan ematen zaion buruzagitza. Alderantziz, ordea, ez da egia Espainiako eta Frantziako Estatuetak langileek herri zapalduen aldeko borroka abertzalearen alde direla” (Iztueta, 8, 1974, 19).

Burgesiak parte har dezake borroka nazionallean. Gertatzez hartzen duen ala ez, besterik da. Marxismo klasikoak beti onartu izan du kolonietako mugimendu nazionaletan bertako burgesia nazionalarekin borroka-fronte bakarra egitea, atzerriko etsaia menperatu arteko lehen epealdian bederen; baina inoiz ez Europako Estatu multinazionalak menpean dauzkaten nazio-askapenaren aldeko herri-mugimenduetan. Aipu horretan, ETA Sextakoen eta Altzürüküren izenak batera badatoz, ez datoz kasualitatez, baizik, puntu jakin batean, batetik, biek nazionalismo-mota oro burgesiarekin berdintzen dutelako eta, bestetik, biek euskal burgesiaren egitekoa iraultzaren estrategiatik bazter uzten dutelako. Honek ez du esan nahi, hortik aparte, berdin pentsatzen dutenik.

3.3.4. Halere, eztabaidarako bide ematen duen puntua, batik bat, Meakaberrik (8, 1974, 20) Altzürüküren subjektibotasunaz egiten duen nolabaiteko interpretazio honetan aurkitzen da:

“Garbi dago autore honen abertzale izatea *faktore subjektiboetan* finkaturik dagoela. Beste askoek ere sentimentalismoan finkatu izan dute abertzaletasuna, hots, herritasuna. Ez da erraza jakiten zenbateraino mugatzen edo determinatzen duen klasetasunak (ekonomiazko harremanak) herritasuna (etnia-ezagugarriak) eta herritasunak klasetasuna, baina uste dut gaurko zientzian oinarri

objektiborik ba dutela herritasuna osatzen duten elementuek. Nekez da herririk gabe gizarterik pentsa ahal izatea. Marxek ez zuen sekulan herritasuna ukatu; ukatu zuen herritasunari burgesiak eman zion forma politikoa”.

Hemen, bai, balegoke zer zuzendurik eta, agian, baita zer zehazturik ere. Jakin beharko da, halere, berez zuzena ez den subjektibotasunetik subjektibismorako jauzi hori zergatik ematen den. Baina hau Altzürüküri berari emandako erantzunean azalduko dugu, bide batez gogoan izanda Joxe Azurmendik egindako kritika. Gatozen, bada, hauengana.

3.4. Altzürüküren erantzuna hurrengo zenbakian agertu zen, “Meakaberriri ohar beharrezko batzuk” izenburupean (10, 1974, 55-57). Honek ere, hala dio, bereak ez diren esaldiak leporatzen dizkiola Meakaberririk. Hori esanda, hiru zehaztapen dakartza:

Lehenengoa da, askatasun nazionalaren aldeko borrokari nazioartekotasuna kontrajarri ez, baizik lotu egiten duela dio berak, abertzale internazionalista nazionalista burgesari kontrajarritz. Seguru asko, zuzenketa hori egitean, “politikaren aldetik, beraz, internazionalismoa = nazionalismoa delako banaketa simple horrek ez du balio” dioen Meakaberriren aipu laburto hori irakurriko zuen (9, 1974, 19). Egia da, esaldi hori ez da egokia, hor “nazionalismoari” berak ematen ez dion esanahia ematen baitzaio, justu alderantzizkoa. Gertatu dena da, oharkabean, lerrakuntza semantikoa ematen dela: hots, Altzürükürentzat nazionalismo oro berez txarra den bitartean, Meakaberrirentzat abertzaletasuna nazionalismoaren baliokide dela. Hortik dator, zalantzarik gabe, nahasketa: hots, biek ez dutela modu berean gogo ematen nazionalismo eta abertzaletasunaren kontzeptuen edukia. Abertzaletasuna eta internazionalismoa bat eginda datozela edo, bederen, etor daitezkeela onartu ezinik ez dago. Baina nazionalismoa berez burgesa dela aitortuz gero, nazio-iraultzan onartezina dela ondorioz ateratzeari ez genion, ez diogu, oinarririk ikusten.

Bigarren esaldia, “gure iduriz Frantziako eta Espainiako estatuetako langileria osoaren borroka komuna proposatzen du euskal politikagintzaren ardatz bezala”, dioena da. Berak, eta arrazoiz, “ez dizut nik horrelakorik proposatu” gaineratzen du (Eguzkitza, 10, 1974, 55). Esaldi hori ez badakar ere, haren lanaren testuingurua ikusita, ordea, ezin da esan interpretazio hori egitea hain desbidera-

tua denik ere, zeren sarritan errepikatzen den tesia baita sozialismoak bakarrik ekar lezakeela Frantziako eta Espainiako estatu burgesen suntsitzea eta, ondorioz pentsa daitekeenez, Euskal Herriaren askatasuna. Estatu horiek uzkaileta bertako langileriari dagokionez gero, ikuspegi honen arabera, normala ere badirudi euskal politikagintzaren ardatza hor finkaturik egotea. Ala ez?

Hirugarren oharra, objektibotasunari eta subjektibotasunari buruzkoa da. Honetan ere, Meakaberrik oker ulertua zuzentzen du, esanez berak ez duela bere “abertzaletasuna faktore subjektiboetan finkatzen” (Eguzkitza, 10, 1974, 57). Eta hori esanda, noski, eztabaida-eremua asko zabaltzen da.

4. Subjektua, objektua eta egiturak marxismoan

Honez gero, galdera nagusia da nolakoak diren subjektuaren eta objektuaren arteko harremanak zehaztea eta, areago joanez, nolakoak, orobat, gizabanakoaren eta gizartearen artekoak. Gizarte-egiturek zein neurritan determinatzen dute gizabanakoaren mundua eta, alderantziz, gizabanakoek zein neurritan eralda dezake, edo eraldatzen du, ezarritako sistema? Marxismo klasikoak gainegiturak kokatzen dituen elementu horiek zer egiten dute: erreproduzitu soilki, ala baita produzitu ere? Hauek dira galderak, nolabait *Zabal*en ere bere garaian planteatu zirenak, baina sakondu gabe, artean neomarxismoa bere bidea egiten hasteke baitzegoen. Honetaz da jarduna hemen.

4.1. Bazirudien Altxurükü eta Meakaberriren arteko eztabaida hark, berek bukatutzat emana, berea emana zuela. Baina ez. Katea luzatu egingo da. Ez hasitako bidetik, beste batetik baino, azkenean, filosofiaren historian sekulako itzulia egin eta gero, gogoeta epistemologikoetan bukatzeraino. Goazen aurrera, ibilaldiak merezi du-eta, besterik ez bada egun ere geure azterbideetan zehar aurkitzen ditugun zokogune ilunxkoetan argi pixka bat egin dezagun.

Joxe Azurmendik, hurrengo zenbakiko “Marxismoa eta euskal arazoa” artikuluan (*Zabal*, 11, 1975, 29), hamasei orrialdeko diskurtsoa hariltzen du, abiapuntutzat Meakaberriren pasarte bat hartuta, “pauso bakar baina, hori bai, sekulako pauso luze batez, subjektibotasunetik subjektibismora ta are sentimentalismoraino” joan omen delako.

Hori esan-eta, azalpen luzea egiten du subjektu eta objektu kontzeptuen inguruan, beroriek marxismo klasikoan, epistemologian, historiaren filosofian eta propagandako erabileran nola ulertuak izan diren zehaztuz. Egileak, funtsean, marxismoaz baitihardu, objektu eta subjektuaren arteko harremani buruzko gai honetaz jarduteko parada eskura datorkiola-eta, ez da geratzen ohar batzuk bertan txertatu gabe.

a) Marxismo klasikoan, sobieten marxismoak egindako erabileran politikoan bereziki, subjektiboak “ia beti kolore hits negatiboa” izan duela dio, oinarririk gabekoaren parekoa: hots, subjektibismoarena. Lenin-entzat, adibidez, “errealitate objektiboa, giza kontzientziatik aparte eta independente” dena da, eta errealitate subjektiboa, aldiz, hau zer den ez badago “hain garbi” ere, “kontzientzia, batik-bat, subjektiboa” dela esango da (Azurmendi, 11, 1975, 30). Baina kontzientziaren izaera subjektiboa bada ere, objektiboa izan daiteke. Zentzu honetan, Lenin-ek, arazoa epistemologiaren aldetik begiratuta, ez du zalantzan jarriko izaera subjektiboa duten gauzen objektibotasuna. Arbola bat ikusten dudanean, nik ikusten dut –subjektuak–, baina ikusten dudana –objektua–, egiazki arbola bat da. Historiaren filosofian, berdin, marxismo klasikoak “faktore objektiboak eta subjektiboak” bereizi izan ditu (Azurmendi, 11, 1975, 32). Marx-ek ere garbi ikusi zuen gizarteko produkzio-harremanetan parte hartzen duten gizakiak gizaki konkretuak direla edota, Engels-ek esan bezala, “subjektu objektiboak”.

b) Era berean, tradizio filosofikoa oro har hartuta, hemen ere “subjektiboak eta objektiboak ez dutela elkar ukatzen”, dio: “Gai-nontzekoan, filosofia moderno guztian hala da hori, Kanten ondorengoez gero behintzat, eta Fichtezen gero batez ere” (Azurmendi, 11, 1975, 30).

c) Beraz, Meakaberrirengana itzuliz, zehaztuko du “subjektibotasuna” ez dela nahastu behar “sentimentalismoarekin”. Eta egia da, ez da nahastu behar. Meakaberrik, bada, “susmo txarrak” eraginda, hanka sartu zuen subjektibotik subjektibistarako jauzi moralala eman zuenean. Bidegabeki, noski. Harena zuzenduz, hala dio:

“Orduan, ez dakit ‘subjektibo’ hitzak Meakaberri zergatik ikarratu behar duen. Subjektuok, izan ere, euskaldun hala txino izan daitezke. Baina produkzio jarduneko objektuak, lantzeko materiala (ikatza edo burdina, adibidez) eta lantresnak, ez euskaldun eta ez txino izan daitezke, Euskal Herrikoak nahiz Txinakoak

izan arren. Euskaldun hala txino izatea, izan ere, 'subjektuen' gora-behera da. Eta guztiz objektiboa, noski. Lanerako aurre-baldintza jakina besterik ez da eta. Beraz, Meakaberri ez bedi kezka: ez gaude herririk gabeko gizarte bila inora joatekotan. Aitzitik, herritasunari ere begiratu behar zaiolakoan, esaten dugu, subjektu aldeari ere begiratzeko eta ez produkzio moldeari bakarrik" (Azurmendi, 11, 1975, 32).

4.2. Meakaberriri zehar-ohar horiek egin eta gero, marxismo klasikoak subjektuaren kontzeptua nola lantzen duen aztertzeraz pasatzen da.

Lehenik, esango du subjektua aldi berean "beregain ta libre izan liteke, besteren menpeko halaber" dela. Pasarte batean, hau honela formulatzen du:

"Marxismo klasikoak produkzioaren produktutzat dauzka gizona eta gizartea. Baina biok produkzioaren subjektu ere badira. Produkzioaren azken subjektua *gizartea* da" (Azurmendi, 11, 1975, 33).

Bestela esanda, azpiegiturak determinatzen du gainegitura. Produkzio-harremanen zolan gizaki konkretuak daude eta harreman-mota horiek gizarte jakin batzuetan gauzatzen dira eta, zentzu honetan, bistakoa da bai gizakiak eta bai gizartea, subjektuen edo subjektuarterko harremanen obrak direla. Baina, aldi berean, ekonomiazko azpiegituren mailan gauzatzen diren harreman horiek dira gizakiak zein gizarteak egiazki determinatzen dituztenak. Beraz, bi maila horiek bereizi beharrekoak dira. Zentzu honetan, gainegituren mailakoak bihur daitezke, bai, "ismoak": hots, ikuspegi subjektibistaren parekoak. Hau da Meakaberri egin nahi zuen oharra bere lan hartan, agian behar bezala zehaztu gabe geratu zena.

Baina Joxe Azurmendiren asmoa, Meakaberrirena hizpide hartuz, marxismo klasikoaren tradizioa errotik kritikatzeko izan zelakoan gaude, eta kritikatzeko, hain zuzen, Marx baitan oinarrituta, sobietar irakurketa historikoa ezetsi eta horren ordeztu hertsiki marxiar irakurketa aurreratuz. Haren tesiak hauek dira, 1) Marxek, gizarteko harremanen zolan, produkzioko harremanen aurretik, gizakia eta gizartea bera ezartzen dituela subjektu gisa, nahiz ez dituen esplizitatzen herritasuna bera osatzen duten gizakien arteko harreman oinarritzekoak (odolezkoak, hizkuntzazkoak nahiz bestelakoak); 2) harez geroztik, subjektuaren alderdi historiko hori ez dutela aintzat

hartu ez marxismo klasikoak ezta marxismoaren irakurketa mekani- zista eta ekonomizista salatu duten kritikoei; 3) subjektuari akti- botasuna aitortu behar zaiola. Hau guztia pasarte honetan bildurik dator eta bere luzean dakargu, funtsezkoa delako, kritika hau zein garaitan egin zen kontuan hartuta:

“Marxek beti gogotik argi agertu eta destakatu du, gizona bere harreman sozialek egiten dutela (...) Lana beti eginbide soziala da. Lanean elkarturiko gizonak, lanera aurretik, mila modutako harremanak dituzte beren artean. Badute nortasun bat. Marxek ez ditu harreman horiek zehazkiago argitu (odolezkoak, usadioz- koak, hizkuntzazkoak, familiazkoak, arrazazkoak direla, esaten du). Hots, lanaren aurretiazko eta presupostu diren langileria- ren gizarte bizitza ta kontzientzia, badirela esan besterik ez du egiten. Gizarte bizitzan benetako subjektu bilakatzea eragozten dion kausa anitz dago. Marx halako baten azterketan enplega- tu zen. Psikoanalisiak eta eragozpen gehiago ere aipatu digute. Beraz, psikoanalisiak eta marxismoak osatu beharko lukete (...) Baina Marxek abiarazi zuen joera alderdikorra, Marx ondoren, marxistek (ortodoxoek), osatu ordez, alderdikeria are beroagoz sistematizatu eta dogmatizatu dute. Era honetan gizonak berak eta historia filosofiaz iritzi labur orokorrik ematea zaila iruditzen zait (...) Egun zabalkunderik duen historia filosofia sistematiko bakarraz, ostera, marxismoa sobietarrarenaz, mekanizismoa, eko- nomismoa eta teknologismoa akusazioak jadanik korrienteak bihurtu dira. Althusseren luman bezalaxe kausitzen dira Garay- dyrean, eta Golmannen izkribuetan bezalaxe Poulantzasetan. Korrienteena, bestalde, marxismoa sobietarra da oraindik. Eta, gainera, kritika eginda badago ere, historia filosofia hartatik ater- ratzen ziren ondoriorik eta ikusbiderik gehienekin, deus gertatu ez balitz bezalaxe jarraitzen da. Ikuskera honen arabera historia produkzio moldean isuria besterik ez da. Subjektua ere pasiboki konportatzen da, itxuraz” (Azurmendi, 11, 1975, 34).

Marxismo honek, bada, subjektua –gizaki historikoa–, pro- dukzio-indarren artean “egile eta eragile” dena (Azurmendi, 11, 1975, 36), pasibotasunera kondentzen du, eta kondentzen du, hain zuzen, hura produkzio-indarren objektu eta produktu bihur- tzen duelako. Murriztapen hau gertatzen da, hain zuzen, gizakia bi mailatan zatitzen delako, hots, azpiegituraren eta gainegituraren mailetan, zeinaren arabera bi maila horietako gizakia, funtsean ber- bera izanda ere, praktikan desberdina baita:

“Oinarrian, determinatzaile oraindik determinatu gabeko bezala, kontzientziarik ere gabe itxuraz (baina teknologiaren asmatzaile jadanik!), langile soil-soila. Produkzio harremanetan eta gaine-gituretan beste gizon bat, produkzio indarrek determinaturik, produkzio indarrek erabakitzen dioten kontzientzia moldeaz, eta abar. Lehenengo mailan ‘gizon abstraktua’ –langile eta tresnagile hutsa– eta bigarren mailan zu eta ni, gizaki historikoak” (Azurmendi, 11, 1975, 37).

Eta ikuspegi murriztaile honek ondorioz ekarriko duena izan da, Joxeren iritziz, naziotasunik gabeko langileriaren kontzeptua, arte klasistarena, etab. Kontua, ordea, besterik da: alegia, maila horiek abstrakzio-mailan baizik ez direla ematen, ez errealitatean. Sakonean eta oinarrian, berarekin esanda, gizaki kulturala dago:

“Ez jabegoa, ez produkzio harremanak, ez ekonomia ta ez ezer ez da, bere subjektu konkretu-konkretua gabe. Jabegoa, jabegorik eza bezalaxe, kultura da. Ekonomia kultura da. Eta guztion autorea den gizakia izaki kulturala da, gizon den une beretik bertatik. Eta kultura –hots, pentsamendua, hizkuntza, lana– beti gizartekoa, soziala da!” (Azurmendi, 11, 1975, 39).

Horregatik, propagandako marxismoa alde batera utzi-eta, subjektuari gehiago begiratuko dion eta herri bakoitzeko baldintzetara moldatuko den marxismoa eskatzen du. Herrialde bakoitzak egin behar du bere neurriko sozialismoa, zeren, garai hartako euskal marxismoaren nondik norakoa ikusita, iruditzen baitzaio “marxismoaren zati on batek ez dirudi(ela) Euskal Herrikoa denik” (Azurmendi, 11, 1975, 41). Beraz, oso kritikoa agertzen da, oro har, marxismoari buruz eta, zer esanik ez, Euskal Herrian nagusitzen den marxismo-korronteari buruz.

Azken buruan, berriro subjektu eta objektuaren gaira etorrita, aurrerantzean “solas korrienterako” kontzeptu horien “usadio handirik” ez egitea gomendatzen du Joxek, nahiz eta berriz ere asko izango diren, “Mekaberri bezala, ‘subjektibo’ irakurri edo entzun eta ‘ez objektibo’ ulertuko dutenak” (Azurmendi, 11, 1975, 44).

Artikulu honetan, gehienbat, marxismo klasikoa kritikatzera jotzen du eta ez du zehazten berak zein sozialismo-mota hobesten duen. Baina 1971n argitaratutako *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* liburuan, bai, Garaudy-k eta Althusser-ek duten eztabaida dakar, zeinetan hark honen antihumanismo teorikoari subjektutasunaren

galera leporatzen baitio. Joxe Azurmendi Garaudy-en marxismo humanistaren aldekoa agertzen da, esanez, Althusser-ek arrazoia izatekotan, bere argudio guztia “hankaz gora” doala⁵⁵. Gizartearen funtsean, azken batean, hizkuntza legoke eta horren baitan erneko lirateke herri-kulturak, klaseak, etab. Honek abiapuntuan subjektua hartzea inplikatzeko du⁵⁶. Ondorio honetara iristen da Garaudy eta Schaff marxistekin batera eta literatura estrukturalistaren bidetik.

Ez da harriztekoa, bada, “subjektua tartean denean eta garrantzia duen guztietan, marxismoa larri-larri edo burua galdurik” ibiltzea (Azurmendi, 1971, 31). Zailtasunak ditu, esandako arrazoiengatik, adibidez, arteaz, literaturaz, mitologiak, erlijioaz, moral burgesaz, nazio-arazoaz, hots, gainegitura osatzen duten horietaz diharduenean. Zailtasun hauek izan, subjektuaren lehentasuna baztertzen duen eskema dualista eta murriztailearen ondorio zuzenak dira.

4.2. Joxe Azurmendiren artikulua luzean, marxismo ofizialak ez baina Marxek gizabanakoari ematen dion garrantziaz eta, orokorrean, edozein eredu teorikotan izan beharko lukeen lekuaz ari baita gehienbat, hari ere kritikak hurrengo zenbakian etorriko zaizkio. Jose Manuel Odriozola “Izarreko” da, hain zuzen, hark marxismo klasikoari egindako kritikaz diharduena “Gizona, dialektika eta beste” artikuluan (12, 1975, 33-36). Joxe Azurmendik berarentzat baliagarritzat hartutako pasarte batzuk jorratzen ditu, zeinetan giza-kiaren eta dialektikaren kontzeptuak eztabaidatzen baititu.

Lehenik, Joxe Azurmendik gizarteko errealitate orenen azpian eta oinarrian subjektu konkretua –*gizakia*, alegia–, ezartzen baitu, puntu honi buruzkoak ditu kritika-gai. Hasteko Joxeren pasarte hau du aipagai:

“Ez jabegoa, ez produkzio harremanak, ez ekonomia, eta ez ezer ez da, bere subjektu konkretu-konkretua gabe. Jabegoa, jabegorik eza bezalaxe, kultura da. Ekonomia kultura da. Eta guztion autoreak dan gizakia izaki kulturala da, gizon den une beretik bertatik. Eta kultura, hots, pentsamendua, hizkuntza, lana beti gizartekoa, soziala da!” (Azurmendi, 11, 1975, 39).

Baina J. M. Odriozolaren adimena ez du asko argitzen gizakia kultura dela, edo jabegoa kulturala dela, edo kultura gizartekoa dela esateak⁵⁷. Honentzat, kultura nagusia klase nagusiari lotua dago⁵⁸.

Era berean, ez du onartzen ekonomia eta kultura berdintzea, gauza bera bailiran. Ez dira gauza bera, horietako bakoitzak baitu bere prozesu autonomoa⁵⁹.

Joxe Azurmendik beste pasarte honetan baieztatzen duena, zeinetan baitio produkziozko harremanak baino “lehenagokoak” direla gizakien gizartekoak, haren tesi hau ere ez bide du onartzen:

“Berriz ere, Marxenera gatozkizu. Lanari ekin aurretik gizona gizarteko harremanaz josita dago. Harremanok ekonomiaren aurretikozkoak dira. Ez ondorio bakarrak. Eta harreman hitzari esan nahirik zabalena ematen diot. Gizon izatea harremanak izatea da, produkzio harremanak baino ‘lehenagoko’ harremanak” (Azurmendi, 11, 1975, 39).

Odriozolak erantzuten dio esanez gizakien gizarteko harremanak, nahitaez, produkzio-molde jakin baten barruan ematen direla, hots, “osotasun egiturala” duen gizarte jakin baten baitan, zeinaren izaera gizarteko elementu desberdinak konbinatu eta artikulatzean baitatza:

“Osotasun egitural hau, beraz, gizarteko elementu ororen konbinazio bat da, artikulazio bat nahiago bada. Konbinazio honetan finkaturik dago ere, egitura ekonomikoa (...) Ohar gaitezen bada, ekonomia ez dela base *isolatu bat*. Noiznahi eta beti osotasun egituralari, hots, gizarteari funtsezko zaionez, eta, aldiz, bere eragipena ez mekanikoki eta ez subjektibismoaren ildotik ez doanez gero. Bere eragipena aipatzen dugu, baina horratik, ez da hemen sekula ahazten aldi era bide batez, ekonomia bera ere beste egitura eta maila ororen, hau da, osotasun egituralaren baitan determinatua edo mugatua aurkitzen dela” (Odriozola, 12, 1975, 35).

Azken batean, J. M. Odriozolak planteatzen duena da, hauxe da: batetik, giza-harremanak ezinezkoak direla gizarterik gabe; bestetik, produkzio oro, noiznahi eta beti, praktikaren emaria dela; azkenik, praktikak, izan, mota askotakoak –ekonomikoak, teknikoak, teorikoak eta abar–, direla⁶⁰.

Bigarrenik, dialektikaz da eztabaida, oinarritzat berriro Joxe Azurmendiren (11, 1975, 39) aipu hau dakarrelarik:

“Dialektika ahantzi ez duanarentzat horiek denak begien bistako gauzak dira, apika. Baina, dialektika aspaldi ahaztu zen. Subjektua aspaldi ahaztu zen. Eta egunotako marxismoaren, neomarxis-

moaren, ahaleginak, hain zuzen, bai dialektika eta bai subjektua berrirabazteko dira. Nazio arazoazkoan ere subjektu aldean aipatzeak asmo horrixe obeditzen dio”.

J. M. Odriozolak erantzuten dio gauza bat dela norberak bere burua dialektikazaletzat hartzea eta beste bat dialektikaren bideetik ibiltzea. Joxe Azurmendik –antza, dialektikaren izenean–, kultura leku guztietan hedaturik dagoela dioenean, espekulazio hutsa egiten ari da, zeren Hegel-en ildotik arituz pentsamendua eta erreallitatea nahastean, hau hartan urtzen baitu. Ekonomia pentsamendua dela baieztatzean gauzatzen da, hain zuzen, murriztapen hori:

“Azurmendik ekonomiaren eta pentsamenduaren (sic) datzan desberdintasuna, pentsamenduaren barne kokaturik legokeen desberdintasun bat balitz bezalaxe, pentsatzen du. Ez al dago garbi, honez gero, auzi guzti hauen atzean dagoen filosofia nolakoa den: filosofia idealista bat, ez bairik gabe” (Odriozola, 12, 1975, 36).

5. Marxismoa eta alderdia

Joxemartin Apalategik, “D2T5” ezizenez, “Marxismo eta alderdi” izenarekin bi artikuluko⁶¹ osatzen ditu eta berorietan autore marxista klasikoek alderdiaz teorizatu zutena aztertzen du. Vincennes-ko unibertsitatean, Michel Lovy eta Nicos Poulantzas irakasleek “Sociologie des partis politiques” gaiak emandako ikastaroaren barruan, berak gai horretaz aurkeztutako lana dugu hemen dakarguna. Hemen, maila akademikoan marxismo klasikoak alderdiaren egitekoa nola aztertzen duen ikusiko da. Bost erreferentzia eta bost esperientzia dakartza: Marx eta Engels-en langile-antolakuntza internazionala, Lenin-ena Errusian, Rosa Luxemburg-ena Alemanian, Gramsci-rena Italian eta Mao-rena Txinan.

Lehenik, Marx eta Engels bikotearen aipamena egiten du, esanez hauek, esplizituki bederen, oso gutxi idatzi zutela alderdiari buruz. Beren praktika politikoa, batik bat, garai hartako langile-mugimenduaren egoera aztertu eta antolatzen zentratu zuten, artean, industrigintza hasieran zegoen une hartan, proletargoak ez baitzuen bere erakunde propiorik. Ingalaterran, kartismoarekin,

sozialismo utopikoa zen nagusi; beste hainbeste Frantzian ere, Fourier, Owen eta Cabet-ekin. Utopista hauek uste zuten klasearteko arazoak elkarren artean era baketsu batez konponduko zirela.

Marx eta Engels-ek, 1846az geroztik, gizarte-askagintzaren bidean subjektu historikotzat proletalgora ezarri baitzuten, gidaritza eman behar duen klase hori borrokarako tresna egokiz hornitu nahiko dute eta, horretan pentsaturik, beharrezkoa irudituko zaie langileria antolakuntza espezifiko batez hornitzea. Horrela sortzen dute Bruselan, 1846an, lehen erakunde politikoa –Komunisten Komitea, hurrengo urtean Komunisten Liga–, zeinarentzat idatzi baitzuten Alderdi Komunistaren Manifestu famatua, eta Lehen Internazionala (1864), zeinetan langile-joera desberdinak elkartzen baitziren (proudhonistak, bakuninistak, marxistak, etab.). Nolanahi ere, esan behar da Marx-ek eta Engels-ek ez zutela benetan inoiz pentsatu Internazionala alderdi bat zenik.

Bigarrenik, esan behar da Lenin izan zela langile-alderdiaz teorizatzen lehena, baina beren burua leninismotik ezkerreko kokatzen duten batzuek –hauen artean anarkistek, bereziki–, hura burokrata eta diktadoretzat daukate. Haren alderdiari buruzko ikuspegiari bi aro bereizi behar dira: bata 1905. urtea baino lehenagoa, 1903an Errusiako Sozial Demokratata Langileen Alderdia sortuz, klandestinitatean iraultzarako ari zena, zentralista eta diziplina gogorrekoa, eta bestea ondorengoa, zeinetan, “ezkerkeria” eta sektarismoaren kontra, Alderdi Komunistari masak dauden tokian egotea tokatzen baitzaio, iraultza sozialista masen zeregina dela uste duelako. Harentzat alderdia da masak langile-ideologiaz janzten dituen.

Hirugarrenik, Rosa Luxemburg poloniarren ideiak aztertzen ditu. Hau Alemaniako Alderdi Sozial-Demokratikoa izan zen 1903-1904 epealdian. Honek pentsatzen zuen, langile-klasea praxi iraultzailearen bidez iristen zela kontzientzia sozialista izatera eta ez dagoela alderdiaren beharrik. Alderdia izan, erakunde kontserbadore eta burokratiko bat besterik ez da harentzat. Murruntza bat, serbilismo hutsa. Iraultzaren egitekoa masen ekimenean uzten du, ez alderdiaren zuzendaritzan. Ikuspegi espontaneista agertzen du, hasieran bederen; baina gerora, 1919an ikusten duenean Alemaniako langile-mugimenduak porrot egiten duela, espontaneismoa utzi eta masen zuzendaritza onetsiko du. Hasieran gogor kritikatzeko baditu ere Lenin-en alderdiari buruzko iritziak, honen eta azken aldiko Rosaren aburuak ez dira asko urruntzen elkarrengandik. Dena dela, ikusi da Mikel Urteagak espresuki gaitzesten duela Rosaren jarrera.

Laugarrenik, Gramsci-ren irudia daukagu. Honek, Lenini jarraituz eta dogmakeria estalinista ezetsiz, lehen Karmelo Arroiaberen artikuluan esan bezala, tradizio marxistak ahantzirik zeukan gainegituraren baitan, ideologiaren garrantzia azpimarratzen du. Honentzat, alderdia izan, langileriaren alderdia izan zen. Alderdi politikoari loturik, alderdi ideologikoaz ere mintzatzen da, zeina osatzen baitute lehen aipaturiko erakundeek, hauen artean, intelektualen erakundeek, hemen sartuz eskola, eliza, komunikabideak, aldizkariak etab. Gramsci zentralismo demokratikoaren alde dago eta alderdiaren antolakuntza hiru maila bereizten ditu: beheko militantek, erdikoak eta zuzendaritzakoak. Hauengan ezartzen du ardurarik gehien.

Bosgarrenik, eta azkenik, Mao Tse-Tung dakar, zeinaren teoria leninismoaren jarraitzailetzat hartzen baita. Errusiako esperientziak erakutsi bezala, alderdiak burokratiko bihurtzeko arriskua baitakar berekin, hau ekiditearren, Mao-k proposatzen duen aterabidea da, Lenin-ek eta Stalin-ek egin zuten bezala, barne-garbiketak egiten ibili ordez, pertsonen gain, alderdia bera barrutik berrantolatu eta garbitzea. Stalin-entzat, alderdi-arazoan jatorria beti politika burgesean zetzan. Horregatik zetorren garbiketa. Mao-rentzat, politika burgesetik harago, populuaren baitan zeuden eztabaidetatik ere etor zitekeen arazoa, eta orduan, herrian bertan egositako eztabaiden isla zenean, zentralismo demokratikoaren bidez, eztabaidatuz eta arrazoituz, kritika eta autokritikaren bidez, hartu behar ziren erabakiak. Horregatik demokrazia beharrezkoa da populuaren baitan.

6. Orduko eztabaidaren haritik

Orduko eztabaidak ziren haiek, baina aurrera jarraitzen dute. Zorionez. Eta ordukoak berrirakurri behar honek, askotan ezinbestez, noizbait eztabaidatuak birpentsatzera garamatza, zertan genbiltzan zuzen ustean eta zertan ez galdetzera. Nazio-arazoaren sailean, subjektibismoarena zela kausa, Meakaberri askotan baitator aipatua, berrogei urteren buruan ordukoa zerbait argitu nahi luke. Hasteko, bego aitortua, ez zuela aski zuhurtasunez jokatu Altzürüküren nazio arazoaren ikuspegi subjektibista sentimentalismoarekin nahastean. Baina eztabaidak bide eman zuen gogoeta sakonagoak egiteko.

Egun ere, nazionalismo etniko eta politikoaren arteko bereizketak alde batera utzita, badirudi borondatearen alderdia nabarmentzen dela gehienbat errebindikazio nazionalak egiteko orduan. Nazioaren elementu objektiboei esentzialisismoaren usaina hartzen bide zaio. Hala ote?

6.1. Nazioaren elementu objektiboak eta subjektiboak

Egia bada ere subjektibotasunetik subjektibismora eta sentimentalismora jauzi handia dagoela, lexiko filosofikoan zein soziologikoan ez daude argi mugatuak, lehenik, nazioaren kontzeptua objektiboa den ala ez, eta bigarrenik, eta emanez gero objektiboa dela, zein elementu sartzan diren esparru subjektiboan eta zein objektiboan. Puntu honetan ez dut uste batasunik ematen denik. Arazoa, funtsezkoa, hauxe zen, ez besterik, *Zabalen* Altzürüküri Meakaberrik planteatzen ziona.

Nazioaren definizioan batzuek kontzeptu horren edukia sentimentalismoaren mundu ilunera murrizten badute ere, elementu objektiboak eta subjektiboak bereizi ezinik ez dagoela iruditzen zaigu. Honela, kontzientzia nazionala –elkarrekin bizitzeko borondate komuna, alegia–, elementu subjektiboen artean sartuko litzatekeen bezala, iraultzari zutik eusten dion herri zapaldu bati dagozkion faktore etnikoak –irakur lurraldea, hizkuntza, kultura, ekonomia, instituzioak, ohiturak, eta abar–, hauek estatu edo botere subirano baten bidez aktibatua egon ala ez, elementu objektiboak izango lirateke. Esan dezagun marxismoak eta tradizio alemanak nazioaren definizio objektiboa –etnikoa–, lehenetsi izan dutela; frantziar tradizioak, aldiz, subjektiboa –hiritarren borondatearena–.

Politikaren soziologia, komunitate politiko baten gizarte-antolakuntza deskribatzeko orduan, hiru nazio-mota aipatu ohi dira: nazio *politikoa*, zeina, kasurik gehienetan, estatuak berak eraikitakoa baita, askotan batere erro historikorik gabe; b) nazio *kulturala*, zeinak, estatua izan ala ez, bere ezaugarri etnikoak baitaizka; *sustrai nazionalako estatuak*, halakotzat hartzen direlarik lehendik –hots, 1795. urtea baino lehen bederen–, beren estatu-boterea zutenak, baina beren lurraldepeko beste nazio etnikoak bertan txertatu gabe zeuzkatenak (García Cotarelo; Paniagua Soto, 1955). Horrelako estatu-nazio zahar gehienak, izan multinazionalak dira Mendebaldeko zein Ekialdeko European, zehazki Espainia-

koa, Frantziakoa eta Erresuma Batukoa (Nielson, 1989, 197-200). Estatu-nazio hauetan horretxegatik ematen da nazio-gatazka hain modu gordinean, Euskal Herrian bezala, Irlandan edo Erresuma Batuan. Herri hauetan, funtsean sustrai historikoak dituen arazo politikoa denari modu bateko zein besteko estatu-zapalkuntza sistematiakoarekin erantzuten baitzaio, hemendik dator nazionalismo independentista –bereziki, hau–, satanizatzea eta bertako unionista eta autonomistekin aliantzak egitea.

Gatozen berriro nazioaren izaerari buruzkoa areago zehaztera, horren mugaketan dauden inplikazio politikoean apriorismo ideologikorik ezkutatzen baita. Estatu-nazio zahar zein berriek beren nazioa hutsetik eraiki behar izan baitute, horrelakoetan intelligentsia organikoak, bereziki hezkuntza-sistemaren bidez, horien naziotasuna elementu psikikoen baitan oinarritu izan du. *La Patrie* famatua, asmakizun hutsa da, mitifikatuz gero, bizitza soziala hartzera iristen dena. Ez da kasualitate hutsa frantziar tradizioak, alemanaren aurkez, nazioaren definizio subjektiboa –arras erromantikoa, gainera–, eskaini izan badu eta egungo estatu multinazionalan berori nagusitu izan bada, nazio politikoen kasuan, etniaren erreferentziarik ez izatean, elementu objektiboak ezin baitira inbokatu.

Estatu-boterean oinarritzen diren nazionalistek, bada, hauenztzat errebindikazio nazionalistak desiren munduan bakarrik existitzen direnez gero, maila horretan mugitzen diren heinean bakarrik existitzen da nazioa. Zentzu honetan, A. Pérez-Agotek (1981, 23-32) dakarren bezala, estatua bakarrik da eduki objektiboa duena; nazioak subjektiboa baizik ez du. Bien artean, bada, boterearen kontzeptua tartekatzen du eta horrek finkatzen digu, errealitate soziologikoaren zelaian, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren arteko mugarrria.

Horrek ez du esan nahi, halere, talde etniko baten agerbide jakin batzuk nagusiki subjektiboak izan ez daitezkeenik, partaide bakoitzak bizi duen testuinguru eta egoeraren arabera, edo, komunitate etniko baten barruan, bertako kultur egoera anitzaren ondorioz, identifikazio-aniztasunik eman ez daitekeenik. Hau guztia subjektibitateak neurtzen dituen inkestek egizta dezaketen zerbait da, non galdetuek esango baitute zer sentitzen diren: euskalduna soilik, ala euskalduna eta espainola edo frantsesa, ala garbiki espainola eta frantsesa. Edozein kasutan ere, identifikazio-adskripzioak modu batekoak zein bestekoak izan, Euskal Herriak, sustrai zaharreko he-

rri etniko gisa, ez Espainia ez Frantzia ez den zerbait izanez segituko du, harik eta haren elementu bereizgarriak –objektiboak, alegia–, zutik dirauten bitartean. Nazio etnikoari dagokionez, hortxe datza subjektibitatearen eta objektibitatearen arteko muga. Norberak egin ditzakeen kultur hautuez gain, badira bere historia propioa duten gizarte-elementu objektibo batzuk, nahi ala ez, aurrean aurkitzen ditugunak eta nola edo hala –zentzu batean edo bestean–, eragiten digutenak. Joera bateko zein besteko nazionalistek, Euskal Herriaren izaera mugatu behar izan dutenean –Estatutu Autonomietan⁶², adibidez–, bereizketa horri eutsi izan diote.

Zenbaitek nazionalismoaren kontua sentimentalismoarekin nahasten dute. Nire orduko zalantza hartan mamu hori salatu nahi izan nuen –desegoki, noski–, testuak berak bere orokortasunean interpretazio horretarako biderik ematen ez zuelako. Baina testuak, nazioaren edukia bere osotasunean subjektibitatearen mailan jartzean, nire ustez, murrizketa nabaria egiten zuen, zeinari orduan bezala gaur ere desegokia deritzodana, eta, testuinguru horretan, haren nazio-ikuspegi alderdi subjektibora lerratuegia nekusanez gero, ez zait iruditzen hain desbideratua nembilenik haren ikuspegi subjektibista juzgatzeko orduan, nahiz beste behin aitortzen dudana “sentimentalismoarena” aipatzean ez nuela terminorik egokiena hautatu.

Nolanahi ere, arazoa maila zabalago batean planteatuta, gogoan hartu beharrekoa da, objektiboaren eta subjektiboaren erabilerak bere zentzu osoa izan duena, eta izanez segitzen duela soziologiaren sailean bederen. Esan ere esango nuke, pentsamendu soziologikoa eraikitzeke orduan, kontzeptu horiek guztiz oinarritzakoak direla bai Durkheim eta bai Weber-en paradigmatan, baina bakoitzaren abiapuntua desberdina da. Izan ere, hauek gizarte-ekintza definitzen dutenean, hark ikuspegi objektiboa erabiltzen duen bitartean, honek subjektiboa erabiltzen du. Ikuspegi makroari ala mikroari, segun eta zeini ematen zaion lehentasuna, horretan datza gakoa. Kategoria kontzeptualen mailan oro baita abstrakzio hutsaren emaitza konbentzionala –deitu tipo ideala edo ideia unibertuala, berdina da–, kontua ez da, subjektibismoaz edo objektibismoaz dihardugunean, subjektibotasunaren alderdi objektiboa edota, alderantziz, objektibotasunaren alderdi subjektiboa ukatu, baieztatu edo zalantzan jartzen dela, baizik eta jakitea, paradigma gisa, zeini, subjektuari ala objektuari, ematen zaion lehentasuna ikerketarako ere-

du teorikoa eraikitzeko orduan. Zentzu honetan, egun, soziologia kuantitatiboan paradigma makrosoziologikoa –irakur objektiboa–, nagusitzen den bezala, soziologia kualitatiboan mikrosoziologikoak hartzen du lekurik gehien, zeinetan subjektuen arteko elkarrekin-tzak aztertzen baitira. Paradigma hauek itxura batean kontrajarriak diruditen arren, ikerketa batean bateragarriak izan daitezke; areago oraindik, ikergaiak berak hala eskatzen duenean, hala izan behar dute. Gertatzen dena da, ordea, askotan ez doazela batera, ez direla elkarren osagarri; orduan, alderdi bat besteari nabarmenki nagusitzen zaionean, hots, gizabanakoaren jarduera edota mikroerakunde baten funtzionamendua bera baino zabalagoko gizarte-testuinguritik sobera isolatzen denean, edota, alderantziz, makroegituren mailan gauzatzen diren gizarte-egitateen prozesuan giza jarduera indibidual edo kolektiboen parte hartzea gutxiesten denean, kasu bietan joera subjektibistaz eta objektibistaz mintzatzen gara. Zentzu honetan, subjektibismoari boluntarismoa egotzen zaion bezala, objektibismoari determinismoa deitu ohi zaio. Biak ere erabat kontentzionalak. Mintzatzeko moduak dira, paradigma-mailan zertaz ari garen jakiteko balio dutenak. Gaur boluntarismoa eta horrelako kontzeptuak erabiltzen diren lekuan, Meakaberrik “sentimentalismoa” aipatu zuen –eztabaidaren beroan modu desegokian, noski–, gure inguruko giro intelektualean internazionalismoaren kanpai durunda besterik entzuten ez zen garai ilun hartan, nazionalismo etnikoaren estatu-errebindikazioa gutxiengo baten sentimentalismo atzerakoi eta erromantiko bat besterik ez zelako.

Historiaren trena galdu zuen herri baten desira dela, esango da. Baliteke. Baina historiaren joanean geltoki asko daude, haren bilakaeran prozesu batzuk ibilbide luzekoak izaten dira eta ez beti –edo inoiz ez–, linealak. Prozesu horietako bat nazio-arazoarena da, herri baten bizitzari dagokiona. Azken mende hauetan gertatu dena da Europako estatu moderno gehienen izaera, ez etniko-kulturala, baizik soilki politikoa dela eta estatu multinazional horietako batzuetan oraindik ere nazio-arazoa erabakitze dagoela. Arazoa ez da estaturik gabeko nazioek historiaren trena galdu zutela eta haien izateko arrazoa irrealtasunean oinarritzen dela, behin eta berriz errepikatzen den bezala; oso alderantziz baizik, eta da lehenik iraultza burgesak eta gero komunistak geltokiz nahastu zirela historiaren bilakaeran eta orain haiek dabiltzala abian den trena ezin hartuz, hots, handituz doan eta eskubide demokratikoen eskabidean oina-

rritutako nazio-mugimenduari ezin erantzunez. Horren ukaezinezko froga da, harez gero Mendebaldeko zein Ekialdeko Europa multinazionalean hainbat estatu berri eraiki direla eta berriak bidean datozela. Nazio-askatasuna, beste edozein askatasun-mota bezala, ez da emana izaten, lortua baizik. Izerdiz eta ez gutxitan, zoritxarrez, odolez. Egungo estatu-zentralismoak defizit demokratiko horixe du bere aurka. Egiatzko arazoa ez da bortxarena –hala bada ere–, demokraziarena baizik.

6.2. Gizabanakoa eta gizarte-egiturak

Beste arazo bat da, nazio-arazoaz dihardugula, gizarte-egiturei zenbateko garrantzia ematen zaien, eta zenbatekoa gizabanakoen ekintzei. Oraindik orain, 1996an, W. von Humbolt-i buruz argitaratutako lanean (1996, 305-333), Joxe Azurmendik esaten zuen, autore horrentzat ere gizabanakoa izan zela “bere gogoeta osoaren abiaburu eta helburu”. Gizakiari buruzko jakintza oro, izan dadila antropologikoa, historikoa eta filosofikoa, gizabanakoan oinarrituta egin zuela. Erdigunea, beraz, gizakia da beti, gizaki soil. Mundua, berdin nazioa, gizabanakoaren gainean eraikitzen dira, zeren, esango denez, gizakiari “sozialtasuna, taldetarra izatea bere naturaz” baitatorkio, “den banako berezi eta bakarra izateari utzi gabe, beste maila batean indibiduo berri baten formazioan parte hartzen duela, nazioan” (Azurmendi, 1996, 324). Eta gizabanakoa izan, ez izaki natural biribil bat, erabat burutua, Ilustrazioak uste izan zuen bezala, baizik kultur fenomeno bat da, arrazoimenaren emaitza, aldioro eraikiz gatozena. Gizakiarentzat erreala, berak eraikitzen duena bakarrik da, eta izan, berak eraikitzen duen neurrian bakarrik. Norberaren indibidualtasunean inplikaturik dago nazioa. Eta honen izatera, aiurria, edo arima, hizkuntzak osatzen du.

Egia da, oso egia ere, kolektibitatea osatzen duen oro –herria nahiz nazioa nahiz estatua–, gizabanakoen gainean eraikitzen dela. Gauza jakina da –Weber-*ez geroztik, bereziki–*, interakzionalismo sinbolikoan eta horren inguruko eskoletan, gizarte-ekintzaren abiapuntua subjektuarterekotasunean ezartzen dela. Era berean, gizartealdaketaren fenomenoaz azaldu ahal izateko, soziologia dinamikoak erakusten du gizarteko faktore eta baldintza desberdinek –ekonomikoek, kulturalak, ideologikoek, demografikoek, teknikoek, etab–, zein egile eta mugimendu antolatuek –iraultzaileek, berritzaileek

eta bestelakoek-, parte hartzen dutela. Besterik da –paradigma-kontua, alegia-, gizarte-aldaketa hori nola garatzen den eta faktore eta protagonista horiek nola parte hartzen duten azaltzea. Indibidualismoaren teoretara joan gabe ere, Marx-ek bazekien gizarte-egiturak ezingo zirela eraldatu subjektu historikoen ekintzarik gabe. Are gehiago oraindik: gizarte kapitalistaren kasuan, hura errotik iraultzeko protagonismo historiko nagusia langileria bakarrik izan zitekeela usteko du. Zentzu honetan, bada, Joxe Azurmendik arrazoi osoarekin errebindikatzen zuen Marx-ek subjektuari ematen zion garrantzia, berak marxismo klasikoan faltan botatzen zuena. Hau guztia hain da bistakoa, ezin baita ukatu.

Baina hori esan-eta, ez da arazoa erabakita geratzen. Subjektua-
ren alderdia garbi baieztatu zuen Marx-ek berak, langileria –zeina zapaldu-
tako gizabanakoez osatutako multzoa besterik ez baita-, iraultza so-
zialistaren protagonista historikotzat izendatu zuenean. Arazoa beti-
koa da: erresistentziaren –iraultzaren, borrokaren, gatazka-
ren-, gunea gehienbat non kokatu behar da, kolektibitatearen ala in-
dibidualtasunaren mailan? Batzuek nazio-arazoari buruzkoan, oro har,
gizabanakoari zor zaion alderdia nabarmentzen dute, hura gizarte-
eraldatzaile gisa hartuta; beste batzuek, aldiz, gizarte-egiturei ematen
die garrantzia, horiek gizarteko harremanak erreproduzitzeko duten
gaitasuna kontuan hartuta. Bi alderdiak, indibiduala eta soziala, daude
hor jokoan eta jardunean, baina ez inola ere era berdinean. Zeren
gizarte-egituren joera, funtsean izan, jadanik ezarrita dagoena
erreproduzitzeko bada, subjektuen gizarte-egitekoa bitarikoa izan
daiteke: gizartea eraldatzeko elementuak sor ditzakeena eta, kasu
honetan, produzitzailea izango litzateke, ala bere ekintza ezarritako
gizarte-egiturari eusteko erabiltzen duena eta, kasu honetan, zeregin
erreproduzitzailerik beteko luke. Subjektu historikoak, beraz, bere
gizarteko bizitzan, gizarte-egiturak erreproduzitzen nahiz beroriek
aldatzeko elementuak eta baldintzak produzitzen parte har dezake.
Bi zeregin horiek betetzeko gaitasuna berekin du. Subjektua zein
neurritan gertatzen den gizarte-eraldatzailea –produzitzailerik,
alegia-, eta zein neurritan gizarte-egiturek determinatua –errepro-
duzitzailerik, alegia-, ikerketa zehatzek mugatu beharreko arazoa da
zientzia aplikatuetan. Oraingoan, ikerketa etnografikoez hezkuntza-
renean erakutsi digutenez, subjektuen konkistak aski murrizak izan
dira. Izan ere, ikasleak eskolan erreboltatzen direnean, oharkabean,
elementu askatzaileak produzitu ordez, elementu atzerakoi eta zapal-
tzaileak erreproduzitzen baitituzte (Willis, 1988, 137-197).

6.3. *Kultura eta ekonomia*

Kultura eta ekonomia, hauek biak subjektuaren emaitza direla onartzeko inolako zailtasunik ikusten ez dudan arren, iruditzen zait era berean, gizarte-funtzionamenduari dagokionez, ez direla maila berean jarri beharreko errealitateak. Dena dela, egungo neomarxisten artean badira kulturari gero eta sarrera gehiago ematen diotenak bizitza sozial eta materialen produkzioan. Norabide horretan xenda interesgarria ireki berria da Hezkuntzaren Soziologian metodo etnografikoaren bidetik. Neomarxismoak ere hortik jo du azkenaldion. Bedi argigarri Paul Willis-en (5, 1985, 11-12) pasarte hau:

“En el nivel más amplio, veo el proyecto de los estudios culturales como un tipo particular de interés en un ‘momento’ particular de los procesos sociales más generales. Son éstos los procesos sociales a través de los cuales la gente colectivamente, en su producción de la vida social y material, se produce a sí misma. Esta producción está en relación siempre con un Modo de Producción estructurado y dominante particular, y se realiza mediante relaciones antagonistas y estructuradas, lo mismo sucede a la clase obrera mediante una relación antagonista, aunque reproductiva, con las culturas dominantes y las prácticas ideológicas dominantes”.

Tankera honetako neomarxismoak jada etenik du marxismo klasikoarekiko lotura ortodoxoa, aspaldiko kontuak dira gainegitura eta azpiegiturari buruzko bereizketak, aspaldikoak, orobat, monokausalismo ekonomikoari buruzko espekulazioak. Baina horrelako paradigma-aldaketak, ez marxismoan bakarrik, marxistak ez direnetan ere eman dira. Baina horregatik ez dute beren gaurkotasuna galdu ez klase-arazoen ezta nazio-arazoen ere. Eta hau kontuan izatea da garrantzizkoena.

Zabalen sortzen diren eztabaidak, funtsean, lagunartekoak dira. Baina honek ez du esan nahi, lankide gehienok geure buruak abertzale edo sozialistatzat bageneuzkan ere, guztietan irizkide ginenik, edo klasetasuna eta naziotasuna modu berean ulertzen ginenik, edo jarduera zientifikorako paradigma-hautaketan adostasuna ematen zenik, edo autore bakar baten miresle itsu ginenik. Izan zitezkeen sandia bestea baino eklektikoagoa –korronte jakin bati ez ez hain atxikia, alegia–, baina bakoitzak zeuzkan bere irizpideak. Liburu bakarreko dogmatikorik ere apenas ematen zen inon. Ez ginela guztietan irizkide, hori da atal honen bukaeran atera dezake-

gun lehen eta azken lezioa. Ordukoak, halere, kasu deigarri batzuk salbu, lehengo bide zaharberitutik segitzen dugu. Eta lezio hau honez gero ez zaigu ahaztuko. Bidea eginez bakarrik berritzen baita. Hauxe da, ez besterik, historiaren geltokian trena garaiz hartzeko aukera.

BIGARREN ZATIA

*Koloni eta demokrazi arazoak
nazioarteko politikan*

“Sin embargo, a pesar de esta tendencia, la lucha de ETA, y en similar medida la del IRA, partía de unos esquemas diferentes que en nada se asemejaban a los planteados por otras organizaciones europeas o urbanas americanas. ETA ejercía la violencia revolucionaria a través de una constatación histórica: el pueblo vasco estaba sojuzgado por una administración (la española) ajena a su identidad (...)

Esta vez ETA, el Movimiento de Liberación Palestino FATH y el Partido Democrático del Kurdistán manifestaban su apoyo a todas las organizaciones progresistas⁶³ y su derecho a la autodeterminación. En su comunicado final, tras tres organizaciones firmantes proponían un Frente Mundial de los Pueblos Oprimidos (...)

Al año siguiente, ETA asistiría de nuevo al XVI Congreso de los Estudiantes Kurdos y ahí recibiría una invitación para asistir a la Asamblea General del FLN bengalí, a celebrar en Dacca. Pero la organización armada no pudo acudir (...). La coincidencia de ETA con IRA se vería plasmada en diversos contactos que se producirían en los años siguientes (...). Otra organización que contaría con el favor de ETA y provocaría, en consecuencia, una influencia importante entre la militancia de la organización armada vasca sería el MLN uruguayo, los Tupamaros” (*Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la Libertad*, Txalaparta, III, 105-107).

III

Koloni arazoak Afrikako Itsaso Gorrian

Hemen Itsaso Gorrian ematen diren koloni arazoak dauzkagu aurrean. Gatazkan sartuta daudenak, Etiopiaren menpeko Eritrea eta Somalia ditugu eta frantsesen menpeko Jibuti, banan-banan azalduko ditugunak, *Zabalen* argitaratutako artikuluen haritik.

1. Etiopia

Etiopia izan da Afrikako Ekialdean estatu zahar bakarra. Egun, datu ofizialen arabera, guztira 8.300.000 biztanle ditu, hizkuntza ofiziala amharera da, erlijio ofizialik ez dago, baina daudenak etio-piar ortodoxoak eta musulmanak dira, eta talde etniko nagusirik ez da ezagutzen. Beste herrialde gehienetan bezala, lurralde honen historian zehar dinastien arteko gerrak, erlijioen artekoak, sozialak, kolonialak eta etniko-nazionalak ematen dira⁶⁴.

Etiopiako estatu multinazionalan gatazka kolonialak zein nazionalak –kasu, ez dira berdintzekoak–, gordintasunez piz zitezten, baldintza objektibo asko ematen ziren. Etiopia une honetan, 1970eko hamarkada-hasieran, hizkuntza eta etnia anitzez osatutako museo bat da. Kristaututako komunitateen artean, batik bat, arras zaila da etnia eta hizkuntza bakarrekoak bereiztea. Bertako gizatalde desberdinak identifikatzeko orduan, hizkuntza geratzen da erreferentzi elementurik garbien eta ziurrena. Baina erabiltzen diren hizkuntzak, izan, asko dira. *Gueza*, jada hila dena aparte utzita, hauek aipatzen dira: a) semitikoaren artean, *hamharera*, gero hizkuntza ofiziala izango dena; *tigrina*, Eritrean bai musulmanek bai kristauek egiten dutena; *harari*, arabiar dialektoa; kuxitikoaren artean, berriz, besteok: *agao*

dialektoa; *galla*; *afarera*, *baria* eta *kunana* Eritrean egiten direnak; *kaffa*, Hegoaldean egiten dena.

Baina arazo nazionala sortu, Etiopiako estatuak menpean hartuak dauzkan Eritrearekin eta Somaliarekin sortzen da.

2. Eritrea

Eritreako eskualdeak Sudan eta Etiopiako estatuak eta Jibuti frantses-kolonia ditu mugakide barrualdetik eta kostaldetik, berriz, Itsaso Gorria. Honen historia ere XIX. mendetik aurrera, italiarren kolonialismoak, iparramerikar inperialismoak eta etiopiar estatu-nazionalismoak ezarritako menderatzeari dagokion horietakoa da. *Zabale*koen artean, hain zuzen, nazio-arazoaz ardura handia zegoen non zer gertatzen den jakiteko eta, gertakarien harian, artikulatu bat baino gehiago datoz borroka honen gainean: lehena Jokin Apalategi “Begiko” rena⁶⁵, gero “Beltzuntze” rena⁶⁶, Jean-Louis Davant “Johañe Aizager” ena⁶⁷ eta, azkenik, Mikel Urteaga “Huarte” rena⁶⁸. Herrialde honi dagozkion datu historiko zehatzagoak, batez ere, “Beltzuntze” izenordez ezkututzen den egilearen eta J. L. Davanten artikuluetan irakurtzen dira⁶⁹.

Kontua da, kolonialismoak eraginda, Eritreako ekonomia azkartu egin zela eta hazkunde horren ondorioz bi hiri sortu zirela: Asmara eta Mitsiwa. Kostaldeko hiri hauetan, beste Etiopia guttia arras atzeraturik geratzen zen bitartean, sortuz eta indartuz joan zen burgesia eta horren ondoan, langileriaren antolakuntzarekin batera, baita alderdi politiko-sindikalak ere. Baina Etiopiako Haile Selassie enperadoreak 1962an debekatu egiten ditu eskubide demokratikoak, asoziatibokoak zein komunikatibokoak, eta, areago oraindik, bide guztiak –“napalm” bonbaren erabilera tarteko–, gutxi irudituko zaizkio herri-eskabideak zanpatzeko. Esan behar da, Eritrea azpian edukitzeko, menperatzaile bakoitzak dauzkala bere interesak. Batetik, iparramerikarrek Itsaso Gorrian geratzen zaien base militar bakarra Eritreako hiriburuan –Asmaran–, kausitzen da eta, petrolioaren zonaldea kontrolpean eduki ahal izateko, estrategia militarretarako gune geografiko egokiegia da hura galtzen utz dezaten. Bestetik, Etiopiak ongi baitaki Eritreako lurralderik gabe itsasorako sarbiderik ez duela, bere estrategia politikorako eta,

bereziki, merkataritzako itsas ertzaren jabetzari eustea komeni zaio. Hain zuzen ere –eta komeni da datu ekonomiko hau ere eskaintzea nazio-gatazkaren zergatikoz hobeto jabetzeko–, Eritreak du Etiopiaren barruan bizimolderik onena, arestian esan bezala, bera baita herrialderik garatuena eta, gainera, merkatal harreman asko baititu aspalditik auzo-herrialdeekin Itsaso Gorriaren bitartez.

Esan bezala, erlijio aldetik, gehienak kristauak eta musulmanak dira Eritrean; oldartuak, ordea, musulmanak bakarrik dira, ez kristauak, hauek Etiopiako gobernuarekin ados segitzen baitute. Eritrean iraultzaile hauek mota guztietako zapalkuntzatik askatzeko xedearekin gerrilla-borrokari ekiten diote 1961ean, Idriss Mohamed Adam-en gidaritzapean EAF (Eritrearen Askatasunerako Frontea) sortuz. Fronte hau 1865-68 epealdian zehar zinez sartzen da ipar eta sortaldeko nekazal guneeetan, musulmanak nagusi diren tokietan, hain zuzen. Borroka-bide gisa, bortxa –mehatxua, zigorra, diru-zerga, eta abar–, erabiltzen dute eta horrelako egitateak, antza, gazte-sektore batek, hauen artean kristauak, ez bide dute ontzat hartzen.

Horrela, 1969ko III. Batzarrean etena sortzen da mugimendu horren barruan, musulman gazte aurrerakoien eta aitzindari zahar atzerakoien artean lehen tirabirak hasten direlarik. Elkartearen IV. Batzarrekoan Idriss Mohamed Adam bi joerak elkartzen saiatuko da, baina alferrik (Davant, 12, 1975, 30-31). Honela, Eritreako Iraultzaileen Frontea, 1970eko V. Batzarretik aurrera, bi taldetan zatituta aurkitzen da. Bata fronte komunista zaharrari dagokiona da, hasierako buruzagi jada aipatuak gidatzen duena EAF (Eritrearen Askatasunerako Frontea), eta honi sostengua Eritreako burgesia nazionalak eta arabiar estatu askok ematen diote, bereziki Irakek, Siriak eta Sudanek, eta baita SESBk eta Errusiak ere, dirua, armak eta kontseilari teknikoak bertara igorritik. Hauek Sudanekin muga egiten duen lurraldea kontrolatzen dute. Etiopiako enperadoreak, ordea, fronte komunista honi diruz eta armaz laguntzen dioten atzerriko estatu aliatuen babesa neutralizatzea erdiesten du 1971n lortutako akordio baten ondorioz. Beste fronte –Askatasunerako Herri-Frontea (AHF) deitua–, joera marxista-leninistako iraultzaile gaztegoek osatzen dute eta hauek bere babesa hiri-burgesia txikiko intelektual, ikasle eta sindikalistengandik jasotzen dute eta, kanpora begira, beste talde iraultzaileago batzuekin izango dituzte harremanak, hasieran Palestinako El Fhat-ekin (OLP) eta geroago, 1973an, Libiako Gadafi-rekin, Somaliarekin eta Jemenekin. Hauek

dira gerrilla-borroka daramatenak eta nekazari pobreak berengana-tzen dituztenak.

Baina EAFren V. Batzarrean, AHFen zatiketa gisa, hirugarren joera agertzen da 1971n, kristau aurrerakoiena, Saleh Saheb-ek gidatzen duena, eta hauek Askatasunerako Herri-Indarrak (AHI) deitua eratzen dute 1971n, sionismoaren, amerikar inperialismoaren eta etiopiar feudalismoaren aurka jokatzeko asmoz. Beraz, 1971n, hiru mugimendu badira iraultzari emanak daudenak: 1) Idriss Mohammed Adam-en EAF tradizionalista, arabista, marxismoaren etsaia; 2) Eritreako Indar Askatzaileak (EIA), iraultzaile gazte marxista-leninistek zuzendua; 3) Askatasunerako Indar Herrikoiak (AIH), hau kristau sozialistek gidatua. Une batez elkartzen dira azken bi mugimendu horiek, baina EAFk gerra gogorra egiten baitiote 1972an, azkenean, apirilean, EAF zaharrak eta EIA gazteak bat egiten dute, elkarrekin fronte musulmana osatuz.

Ezkerreko talde iraultzaile hauek Eritrea herrialde aske eta sozialista bihurtzea dute helburu, horretarako zuzenean Etiopiako talde hegemoniko kolonialistaren kontra jotuz. Ez bide dituzte, beraz, etiopiarrok oro zaku berean sartzen, zeren haren baitan klase herritarra eta klase feudalista argi bereizten baitituzte. Alabaina –eta jokabide hau ohargarri da benetan–, eritrearren fronte nazionalaren baitan ez dute klasearteko desberdintasunik egiten. Hemen, jakina, nazio-borroka klase-borrokaren aurretik doa. Eta herri-subiranotasunaren helburu nagusia lortzeko bideei dagokienez, berriz, borroka armatuarena hautatzen dute. “Eritreako esperientzia izan dadila guretzat erakaspen” idatziz bukatzen du “Beltzuntze”k (7, 1974,36) bere artikulua.

Ezaguna zaigu hango geroztiko gertakarien kronika⁷⁰. *Zabaleko* “Beltzuntze” artikulugileak, orduko hango gertakarien abiada ikusita, pentsatzen zuen eritrearrek askatasuna lortzear zutela. Era berean, J. L. Davantek bazuen esperantza Etiopia eta Eritreako indar sozialistak, hots, AIE eta EAF elkarrekin konponduko zirela, AIE fronte aurrerakoia hasierako federalismotik askatasun osoaren aldeko izatera pasatu omen zela-eta. Horretan oinarriturik, agian, “noizko Eritrearen independentzia?” galdetzen zuen optimismo-aire batekin.

Baina Eritreari independentziaren ordua, ez hurrengo egunean, baizik justu handik hogeit urtera iritsi zitzaion, 1993an, bide aski luzea eta oztopoz betea egin eta gero. Eta lortu zuen, batetik,

borroka armatua erabiliz eta, bestetik, SESB eta Kubako estatu sozialisten eta hauen esaneko Etiopiakoaren kontra borrokatuz. Etiopiako gobernu militarrek, boterea hartu eta 1976. urtea bitartean, Eritrean egindako genozidioa ez zen txantxetako izan: 150 herri sarraskituak, 20.000 hildakoak, 30.000 kontzentrazio-barrutietan barneratuak eta 500.000 atzerriratuak.

Egun, Eritrea Afrikako Ekialdeko estatua da, 3.320.000 biztanlerekin subirano dena, Itsaso Gorriaren mugan. Biztanlez ez da Euskal Herria baino askoz handiagoa, baina hortxe dago. Egun ez da inor aztoratzen hura beste estatuen koroan ikusita.

Eritreako kasua eta Euskal Herrikoa, bistan da, ez dira erabat berdintzekoak, hangoa funtsean borroka antkolonialistan oinarritzen baita. Baina, beste hein handi batean, badu antzik ere, zeren, batetik, Etiopiaren aldean lurralde aberatsagoa baita Eritreako, Euskal Herrikoa halaxe den bezala Espainiaren barruan; bestetik, berriz, Eritreak, ez bakarrik atzerriko etsai inperialisten eta sozialisten kontra, Etiopiako bertako aitzindari sozialisten kontra aritu behar izan zuen. Eta azken bi puntu hauetan kolonietako borrokek badute kideetasunik Europako nazio zapalduak daramatenekin.

Horregatik, Eritrearen kasuan, iraultza nazionalak berak erakusten du zein diren askatasunerako bide egoki eta eraginkorrenak eta, halaber, zein diren laguntzaileak eta zein etsaiak. Eritreako borroka nazionalaren historiak oso garbi utzi du sozialismoak ez duela nazionalismoarekin ezer jakin nahi. Eritrean, ikusi da, iparramerikarrek zein errusiarrek Itsaso Gorria kontrolatzea zuten xede nagusi. Etiopiako sozialistek iparramerikar inperialismoari eskatu zioten laguntza. Frantzia eta Espainiako sozialistek ederki asko erakutsia dute gauza bera.

Geroztik, 1998ko maiatzean, Eritrea eta Etiopiaren artean muga-arazoak sortu dira Etiopiako iparraldean dagoen “Yirga-ko triangelua” izeneko eskualde etiopiarrean eta egoeraren larria gerra pizteraino iritsiko da, alde bateko zein besteko bonbardaketek heriotzak eragin baitituzte. Arazoa da, 1993an bi estatutan zatitu zirenez geroztik, nahiz eta harez gero hogeit hamar urte igaro, bi gobernuak ez dutela oraindik eskualde horretan mugari buruzko hitzarmena zertu. Kolonizazio-garaian zehaztu ziren mugak aipatzen ditu Eritreak eta Yirga-k “benetako eskubide historikoak” dituela aldarrikatzen du. Horregatik, eraso hasi ere Eritreak hasi zuen, horko tropa militarrek Badme eta Shiraro-ko etiopiar herriak inbaditu zituenean. Ger-

tatzen dena da, Eritrea Etiopiatik banandu zenean, itsasorako bere bidea galdu zuela. Horregatik, Yirga-ko eskualdeak balio handia du Eritrearentzat, hortik itsasorako irteera bailuke⁷¹.

3. Somalia

Somalia ere, Eritrearen antzera, Etiopiak menpean harturik daukan beste nazio bat da. Protohistorian artzain nomadak bizi izan ziren lurralde honetan, baina Erdi Aroan, XI-XVI. mende-bitarte horretan, merkataritza musulmanek birpopulatuta zeuzkaten kostaldeko hiriak⁷². XIX. mendean hasten dira Somalia kolonizatzeke lehen ahaleginak, elkarren lehian arituz Frantzia, Britainia Haundia eta Italiako estatuak. Azkenean, hango lurraldean hiru koloni eskualde eratu ziren: Britainiar Somalia (1887), Somaliako Kostalde Frantsesa (1896) eta Italiar Somalia (1905). Italiarrek, 1934an, muga-arazo txiki bat aitzakiatzat hartuta, Etiopiari eraso eta Eritrea, Ogaden eta beste eskualde batzuk eskuratu zituzten; areago oraindik, 1940an Bigarren Mundu-Gerra hasi zenean, Britainiar Somalia ere okupatu zuten. Ez luzaroko, zeren britainiarrek, kontraerasoan, Italiar Somalia eta Ogaden bereganatu baitzituzten. Baina azken lurralde hori Etiopiari itzuli zioten. Honela, 1960ko uztailaren 1ean, bi eskualdeak bat eginda, Somaliako Errepublikak bere estatu independentea eskuratu zuen. Frantziaren menpeko lurraldeak “Communauté” delakoaren barruan txertatuta segitu zuen. Gero ikusiko dugun bezala, lurralde honetatik Jibuti-ko estatua sortuko da.

Gertatzen dena da, geroztik, Ogaden-go eskualdeak Etiopiaren morrontzatik askatu nahi duela eta asmo horrekin borrokan segitzen duela. Somaliako Errepublika sozialista berriak, ordea, Errusia eta Txina laguntzaile dituela, nazionalizazioak egiteko eta nekazal analfabetismoa gainditzeko kanpainak egiten ditu, baina, bestalde, Etiopiarekin elkartzen da Ogaden-go iraultzaileen kontra jotzeko orduan. Jokin Apalategik (7, 1974, 31) dioenez, borrokalari hauek ez bide dira marxistak, baina badirudi benetan klasearteko borroka batean sartuta daudela. Horien erresistentziak ondorenik izan zuen, zeren, azkenean, Somaliako eskualde independentea, Ogaden-go lurraldea eskuratzeko asmoz, Etiopiarekin gerran sartzen

baita 1975ean. Arrazoi honengatik ordura arte laguntzaile izandako Errusiaren eta arabiar nazioen babesaren galtzen du eta, ondorioz, bazarrik geratzen da. Etiopiarekin 1988an bake-ituna izenpetuko du.

Egun Somalia, 7.555.000 inguruko biztanlerekin, Afrikako Ipar-ekialdeko estatu bat gehiago dugu, Ekialdean Indiar Ozeanoarekin mugakide dena. Hizkuntza ofizialak somaliera eta arabiera dira eta erlijio ofiziala, berriz, islama. Osaketa etnikoaren aldetik, gehienak (% 98,3) somaliarrak dira, eta gainontzekoak, berriz, % 1,2 arabiarrek, % 0,4 bantuak eta % 0,1 besteak. Beraz, etni arazorik ez da.

4. Jibuti

Arestian esan bezala, Jibuti-ko lurraldea, Eritrearen eta Somaliaren artean, Itsaso Gorriara begira etzana dago. Dagoen lekuan egonda, itsasoz Jemen-dik hain hurbil, arras kokagune estrategikoan kausitzen da merkataritzako zein militar gintzarako. Zernahitarako. Hortik dator kolonizatzaileentzat lurralde gutiziatua izatea. Hemen, frantsesek koloni lurralde bihurtu aurretik, bi etnia bizi ziren, *afar* eta *issa* deituak. Kolonizatzaileak bertan sartzen direnean, ordea, bertako etnia horiek azpian hartzen dituzte eta diktadore-erregimena ezartzen dute. Ezein askatasunik ez da, ezta bozkatzeko ere. Kolonizatzaileek legionarioak ezartzen dituzte zaindari.

Jibuti-ko eskualde hau 1896an sortu zen Somaliako Kostalde Frantsesa izenarekin eta Frantziako itsasosteko lurralde bilakatuko da 1946an. Hurrengo hamarkadan, 1946an, autonomia lortuko du; hurrengoan, 1967ko erreferendumaren ondorioz, Frantziaren barruan segitzea erabakitzen duelarik, *afar* eta *issa* izenez ezagutuko da. Oraingo izena –Jibuti-rena, alegia–, independentzia 1977an lortzean hartuko du.

Jibuti-ko Errepublikak honek 530.000 biztanle baizik ez ditu. Populazioa jatorriz hamitikoa da, baina egun islamizatuta dago, gehiengoa (% 94) musulman *sunni* delarik. Orokorrean hitz eginda, ordea, esan dezakegu bertan bi etnia bizi direla, *afar* eta *issa*, eta demografiaren aldetik ere, beroriek osatzen dutela gehiengoa. Hizkuntza ofizialak, ordea, arabiera eta frantsesa dira⁷³.

Oro har, etni nahasketa izugarria da Afrikako Itsaso Gorrian eta zaila da lurralde-batasunaz hitz egitea.

IV

Koloni arazoak Ekialde Ertain eta Hurbilean

Afrikako Itsaso Gorritik Ekialde Ertain eta Hurbilera etorrira, bizi-bizirik daude arazo etniko eta nazionalak hainbat eskualdetan, bereziki, Jemen, Oman, Dubai, Iran, Palestina, Israel eta Zipre-n. Horien guztien berri dator *Zabaleko* orrietan. Ematen zaien garrantziarengatik, banan-banan aztertuko ditugu atal honetan.

1. Jemen

Jemen Arabiako Hegoaldekoan, Adengo golkoaren ertzean aurkitzen den lurraldea da, Saudi Arabiarekin, Oman-ekin eta Itsaso Gorriarekin muga egiten duena.

Bertan K. a. I. milurtekoan lehenik etiopiarren eta gero perstiar sasandarren erresumak eraikiak izan ondoren, VII. mendean musulmanen probintzia bilakatu zen eta XVI. mendean, berriz, otomandarrek kostaldea eta Adengo eskualdea eta geroago, 1872n, Sana konkistatu zituzten, Iparraldean Jemen-go balierria antolatuz. Britainiarrak 1618az geroztik zeuden Moka finkatuta eta 1839an Aden konkistatu eta Jemen-go Hegoaldean beren protektoratua ezarri zuten, handik Indietarako bidea kontrolatzen zutelarik. Dena dela, bertan txandaka kokatzen ziren atzerriko okupatzaileekin batera, IX. mendetik XIX. mendera arte iman zaidien dinastiak gobernatu zuen, xiismo moderatua erabiliz.

XX. mendean hasi ziren askatasunerako lehen urratsak ematen. Honela, otomandarren inperioa desagiten denean, iman zaidiak Iparraldeko muga ziurtatu zuen 1920an. Geroago, 1962an, estatu-

kolpe baten ondoren, Ipar Jemen-go Arabiar Errepublika aldarrikatu zen, Adenek eta britainiar protektoratuko gehienek 1959-63 epealdian Hego Arabiako Federazioa osatzen zuten bitartean. Azken honek bere independentzia 1967an lortuko du, Konstituzio marxista-leninista baten ondotik, 1969an Herri-Erepublika Demokratikoa ezarriz. Geroztik arazoak sortu, 1972. urtetik aurrera sortzen dira bi Jemen-en arteko mugetan.

Testuinguru historiko horretan kokatzen da, bada, Jokin Apatategiren 1974ko artikuluan Jemen-ez datorrena⁷⁴. Berak dioen bezala, Ipar Jemen-go Arabiar Errepublika zeharo da atzerakoa; Hego Jemen-go Herri-Erepublika Demokratikoa, aldiz, aurrerakoa. Hegoaldeko hau ezkerreko iraultzatik sortutako gobernua baita, hurbileko iraultzaile guztien kabi gertatzen da. Are gehiago oraindik: munduan zehar iraultzan ari direnentzat ere laguntzak luzatzen ditu.

Ipar Jemen-en, batez ere 1977an gerra zibila piztu zenez geroztik, aldaketa politiko asko ezagutu ziren. Egun, Ipar eta Hego Jemen-en arteko batasun-akordioa 1990ean izenpetu zenez geroztik, biek Jemen-go estatu bakarra osatzen dute, 11.546.000 biztanlerekin, hizkuntza eta erlijio ofizialak arabiera eta islama direlarik. Osaketa etnikoaren aldetik, gehienak arabiarrek dira.

2. Oman

Arabiaren penintsulako Ekialdean finkatua dagoen herrialde hau, antzinatean, merkatal gune garrantzitsua izan zen. Portugesek 1508an Maskat eta Suhar bereganatu zituzten. Oman-ek Monbaram Zantzibar eta Pembar bereganatu zituen eta britainiarrek 1800ean Maskaten protektoratua ezarri zuten. Baina 1915ean Oman-ek independentzia aldarrikatu zuen eta 1920an haren independentzia onartu egin zen. Geroztik, petrolio-ustiapena dela-eta, britainiarrekin borroka eta liskarrak izan ziren. Qabus ibn Said sultanak 1970ean boterea eskuratu zuenean, Estatu Batuekin lankidetzak ekonomiko eta militarra izenpetuz, estatua modernatzeari ekin zion, baina bertako milaka eta milaka esklabotzan edukiz. Ankerkeria handieneko peko bizi baitziren, horietako batzuek handik alde egiteko suertea izan zuten eta, herri xehea egoera jasanezin hartatik ateratzeko asmoz, borroka armatua egiteko prestatu ziren. Honela,

1972an gerrillak eratu zituzten, beren indarrak Oman-en Askatasunerako Herri-Frontean bilduz. Eta borroka, Jokin Apalategiren artikulua aipatuan (7, 1974, 33) esaten den bezala, “arras aurreratua dager”.

Egun, Oman Asiako estatu bat gehiago da. Hemen ere, Jemen-en bezala, hizkuntza eta erlijio ofiziala arabiera eta islama dira. Azaleraz Euskal Herriaren aldean askoz hedatuagoa izan arren, biztanlez txikia dugu, 1.468.000 baizik ez baititu. Gainera, basamortua da hango lurralde gehiena. Baditu, halere, ondasunak: petrolio, nekazaritza eta abelazkuntza.

3. Dubai

Pertsiar golkoan kokatutako herri honen aipamena ere badator J. Apalategiren (7, 1974, 33) *Zabaleko* artikulua berean. Paragrafo bat baino ez da Dubai-z dakarrena. Britainiarren menpeko emireria zen orduan eta han ere, 1970eko hamarkada-hasieran, indarrean zegoen herriak zeraman borroka armatua. Artikulu horretan jakinarazten zaigunez, horko ekintzaile gazteek beren prestakuntza militarra Kurdistanen hartzen zuten.

Egun, Arabiar Penintsulako zazpi Arabiar Emirerri Batuek osatzen dute estatua eta horietako bat da, hain zuzen, Dubai herria. Honek ere badu petrolio.

4. Iran

Antzinatean zibilizazio eta dinastia askok okupatu zuten Asia-ko Mendebaldean, Kaspiar Itsasoarekin, Oman-go golkoarekin eta Ormuz-eko itsasartearekin muga eginez, kausitzen den lurralde hori⁷⁵. Baina, batez ere, lehen Pertsia izenarekin ezagutzen zena da egungo Irango estatua.

Pertsiairen behin-behineko nagusigoa 1797an gertatu zen eta harrezkero errusiarren zein britainiarren menpe egongo da, hauek Irango lurraldea bi eragin-esparrutan banatzen dutelarik. Geroago, 1941ean, SESBk eta Britainia Haundiak Iranen zati bat hartu zuten alemaniarren eragina gutxiagotzeko eta SESBren petrolio-hornidura

ziurtatzeko helburuarekin; 1951n Mosadeg lehen ministroak petrolioa nazionalizatu egin zuen, baina 1953an Shah-ak Mosadeg alboratu eta gero espetxeratu zuelarik, herria matxinatu egin zen. Hone-la, 1963an, *Iraultza zuria* izeneko modernizazio-programa bultzatu zuen Shah aberatsak, baina herri xehea pobreziarik beltzenean utziz. Jokin Apalategik (7, 1974, 32) honela deskribatzen du hango jendearen egoera:

“Izan ere, Shah Jauntxoa arras aberatsa da. Ez hala, ordea, bere Herria. Iran-go bizilagun anitz da Koweit-en lanera etorria. Eze-ren paperik gabe, iheska etorri ohi dira. Bestalde, Kuwait-en edozein bizilagun boteredun da Iran-go ilegal bat denuntziatze-ko. Eta denuntzia hori aski da berriro Iran-era itzularazteko. Hori horrela, Iran-go jende anitz edozein Kuwait-ekori saltzen da legalitatea estaltzearen truke. Bestalde, Iran-go Herriaren txirotasunak ez jakintasun handienaren jabe bilakatzen ditu Iran-go bizilagunak. Eta hori da Shah jauntxoaren boterea gordetzen duen bitarteko ziurrena”.

Shah gobernaria jauntxo bat da, arras aberatsa, baina, azken batean, inoren esanera dagoen zakur fidela. Irango estatua, petrolio-putzuetan eta lehen gaitan biziki aberatsa izaki, iparramerikar Yankeen esku-mutila da. Eta hauekin batera, aipatuz gatozen iturri berean (J. Apalategi, 7, 1974, 32-33) espresuki izendatuak datozen bezala, auzoko arabiar emirerriak eta britainiarrak aurkitzen dira:

“Gainera, Iran, Arabeen itsas-kolkoan yankien Israel izanik, ondo lagundua dago erregimenaren jokabidea iraunarazteko entseguan. Iran-go petrolioa eta lehen materiak mundura zabaltzeko Arabiarren itsas-kolkotik itsas irekira igarotzekoan bere melar uneagatik estrategiazko den toki bat dago. Sabotaje baten beldurraz leporaino gordea eta kontrolatua aurkitzen da. Iran-en interes horiek aurrera ateratzen bere parean itsas-kolkoaren beste aldean dituen emirerriek ontsa lagundu izan diote. Kuwait eta beste bederatzirri emirerri daude. Horietako nagusi politikoak britainiarrek manipulatzen dituzte”.

Herri xeheak bizi duen pobrezia, ezjakintasun eta ezinean oinarritua, hain da handia, ezen 1969an barne-oposizioa indartzen hasten baita liberalen, ezkerrekoen eta erlijiosoen artean. *Zabaleko* artikuluak herri-iraultza honen une historikoa jasotzen du, hain

zuzen. Jadanik 1973an borroka armatua bere bidea egiten hasia da atzerriko inperialismoaren eta barruko gobernu lekaioaren kontra.

Irango estatu handi honetan, non egun 56.293.000 biztanle bizi baitira, talde etniko bat baino gehiago aurkitzen dira bertan: hots, pertsiarrak (% 45,6), azeri edo turkiarrak, kurduak, gilakiak eta beste batzuk. Hauen arteko gatazkarik ez da ezagutzen. Hori bai, erlijioaren aldetik, gehien-gehienak musulmanak dira, eta haue-tatik % 91 *xii* adarrekoak, eta hauek ditugu, 1978. urtetik aurrera, Khomeini aiatolaharen aldeko mugimendua bideratuko dutenak. Ondasunen aldetik, nekazaritzak garrantzirik badu ere, ekonomia-ren oinarriak, batez ere, petrolio eta gas naturala dira. Dena dela, 1980ko hamarkadan, *xii*en iraultzarekin (1978-79) eta Irakekiko gerrarekin (1980-88), hango egoera ekonomikoa biziki kaltetu zen, baina 1990ean bake-akordioa izenpetuz gero, neutral mantendu zen Golkoko gerran (1991).

5. Palestina eta Israel

Azpitatal berean dakargu Palestina eta Israelen arteko gatazka, lau zatitan banatuta. *Zabaleko* artikulua jorrazetik hasiko gara, hori baita gure egitekoa, baina bidenabar, hurrenez hurren, Israelen diaspora historikoaz eta honen egungo estatuaz eta, azkenik, Palestinarren erresistentziaz jardungo gara.

5.1. *Zabaletik nola ikusten zen*

Mattin Larzabalek⁷⁶, “Iraila beltza” izeneko artikuluan, izen bereko palestinarren talde armatuaz dihardu, honi buruzko informazioa arabiar ikasle baten eskutik jasotzen duelarik. Jordaniako Hussein erregeak urte horretako hilabete horretan El Fatah eta Nayet Hawatemy taldeetako 15 miloi palestinarrak sarraskitu baitzitu- en, hauen oroitzapenez sortua da talde hori 1971n. Yasser Arafat eta George Habache ziren orduan talde horietako buruzagi ezagu- nenak, Libia eta Sirian ezkutatuta zeudenak. Talde honek, bada, 1973an ekintza deigarriak egin zituen, komunikabide guztiek oso goitik airatu zituztenak: Munich-eko hilketak –1973ko “Iraila Bel- tza” deitua–, Bangkok-eko bahiketa, Sudan-go Kartun hirian eman- dako kolpea.

Palestinan juduei lekua egiteko musulmanak handik bota egin baitzituzten, talde honen helburua da palestinarrak berriro bere lurrera itzuli eta bertan elkarrekin bizi ahal izatea kristauak, musulmanak eta juduak Palestina laiko batean. Iraken bezala. Hauen ustez, Palestinako lurra sainduak dira judu eta kristautentzat bezala musulmantzat.

Talde horren borroka-metodoa indar armatuan oinarritzen da. Hautu horren zergatiak galdetzean, arabiar ikasleak argudio hau eman bide zion Mattini (1, 1973, 41bis): “Ezen gizon gisa bermatzen ez direnen aurka, ez daiteke gizon gisa joka, baina abere moduan”.

Talde armatu hori gaizki ikusten dute arabiar gobernu gehienek, bereziki Israelgo estatua onartzen dutenek. Siria, Irak eta Aljeriako gobernuak dira izpi bat sostengatzen dutenak. Libiaren kasua berezia da, zeren Han Kadafi koronela, nahiz eta honek diruz eta armez laguntzen dion, ez da batere fidatzekoa. Ohore-gose da, Nasser estatuburuaren lekua bereganatu nahi luke eta, bere boterea arriskuan sentituko balu, beste Hussein bat izanen litzateke. Arabiar herrietako jende xehe gehienak, ordea, osoki haren aldekoak dira, bereziki Aljeria, Libano, Siria, Aden eta Iraken.

Jean-Louis Davantek bi artikulu idazten ditu Israeli buruz. Lehenengoa, “Israel eta Ismael” izenekoa⁷⁷, orrialde bakarrekoa, baina bere laburrean israeldarren eta palestinarren arteko gatazka nola ikusten duen jakiteko balio lezake. Horretarako, Bibliako pasarte batez baliatzen da, non kontatzen baita Abrahamek bi seme izan zituela, bata Ismael Hagar emazte esklaboarengandik izana, bestea Isaak Sara emazte libroarengandik. Abrahamek, lehenengoa basamortura haizatu-eta, bigarrena egin zuen bere ondorengo. J. L. Davantek, pasarte bibliko horretan, arabiarrek ikusten ditu Ismaelen irudian. Gero esango dugun bezala, kontakizuna asmatua izan ala ez, berak ateratzen duen ondorioa da –beti ere zalantza betetakoa–, biek, israeldarrek eta palestinarrak, dutela arrazoi, mende luzez lur berari atxikiak egon direlako. Haren pasarte honetan garbi azaltzen da bere burua ez duela kokatzen ez bataren ez bestearen alde; alde-rantziz, bientzat aski leku izan eta egin dadin nahiko luke:

“Alde batetik zer ikusten dut: Estatu txiki bat, Israel, herri edo populu ukatu baten ihes leku zaindari; bestetik Palestinarrak, herri ukatu eta barreiatu bat hauek ere; eta hauen gerizatu nahiz, Arabiaren nazio zabal eta banakatua, zatikatua, mespretxatua.

Gerla horren beltzaren beltza: denek arrazoi dutela, denak lur beraren haurrak baitira” (Davant, 4, 1973, 28).

“Israel eta Ismael eta gu?” izeneko haren bigarren artikulua⁷⁸ lehenengoan presaka esandakoa osatzera dator. Zeraz ohartzen da: alegia, Mendebaldeko Europa demokratikoan komunikabideen zaparrada izugarria dela Palestinan ekintzaren bat burutzen den bakoitzean, baina Euskal Herrian hildakoak eta atxilotuak dauden arren, ez dela fitsik gertatzen hemengo komunikabideentzat. Egia da, Euskal Herriaren kasua eta Palestinarena ez da osoki berdintzekoa, beste arrazoiaren artean, Euskal Herriak beti eutsi izan diolako bere lurraldeari. Halere, beste zenbait puntu oinarritzokotan, badute kidetasunik: lehenik, palestinarren beren lekutik haizatuak izan diren bezala, euskaldunen lurraldea Frantziak eta Espainiak okupaturik daukate, eta, bigarrenik, israeldarren antzera, guk ere eremu eta jendetza bertsua daukagu, historia luzea eta hizkuntza zaharra, eta hirugarrenik, palestinarren erresistentziak adina balio du euskaldunenak ere. Hala baldin bada, zergatik orduan hango gertakariak munduaren aurrean goraiatuak eta hemengoak, berriz, isilduak izatea? Hemen politika handiaren esanera dauden berri-emaileak salatzen ditu, hauek herri bakoitzari zor zaizkion eskubideak aldarrikatzen ez dituztelako. Eta une honetan, J.L.Davant “Johane Aizager” (5, 1974, 28) Hegoaldera begira ari da idazten. Hemengo erresistentziari “miragarria” deritzo, ikusiz “gazte batzuek nola bizia ematen duten”. Garai hartan, noski, borroka armatua aiputan du.

“Estalbi”k zenbaki bereko “Aitzin gibel begiratuz” artikuluan⁷⁹, palestinarren aldeko jarrera garbia agertzen du. Hiru arrazoi-mota ematen ditu: lehenik, Israelgo estatua haiei kendutako lurraldez osatua dela; bigarrenik, Israelgo estatua arrazista dela, bere Konstituzioan arabiarrenganako bereizkeria finkatzen delako; hirugarrenik, Israelgo estatua iparramerikar inperialismoak emandako diruaz eraikia izan delako eta ez bere indarrez. Ateratzen duen azken ondorioa da, Ekialde Hurbileko politika orokorrean hartuta, Israel inperialismoaren arma bat den bezala, hango arabiar estatu gehienak ere burgesiaren eskuetan daudela. Beraz, nor den ez dakigun autore honentzat, palestinarren ditugu Ekialde Hurbilean inperialismoaren kontra borrokatzen diren iraultzaile gusiak.

Ikusten den bezala, *Zabalekoak* arras adi daude Israel eta Palestinan gertatzen denari. Artikulu oso txikiak badira ere, hiru lankide

bederen izan dira hortaz aritu direnak eta beren iritziak eman dituztenak. Mattin Lartzabal ikasleak palestinarren iraultza barrutik ezagutu eta bizi duen arabiar ikaskide baten ikuspegia agertzen digu; J. L. Davanten jarrera nahasia da, zalantzazkoa, bidegurutzan nondik jo ez dakiela geratzen den horietakoa, baina han gertatzen dena irakasgarri iruditzen zaio euskaldunontzat; “Estalbi”k, honek bai, ez du zalantzarik palestinarren aldeko jokabidean. Dena dela, hemen aldizkari honetako iritziak bakarrik agertzeri mugatzen baikara, interesgarria izango litzateke ezker abertzaleak palestinarren iraultza nola baloratzen zuen jakitea, euskal prentsa berriemailean aldekoak bezala kontrako iritziak ere agertu izan baitira. Bada oraindik zer ikerturik.

Egun, ezaguna zaigunez, Israelgo estatu barruan autonomia duten palestinar lurraldeak, hauek dira: Mediterraneoko itsas-kontran Gazako zerrenda, eta gero hortik erabat aparte, Zisjordania izeneko beste lurralde-zatia, non Netania, Nabulus, Jeriko, Belen, Hebron eta Jerusalem hiriburuko zati bat sartzen baitira. Israeldar okupazioak aurrera egiten duen heinean, beren lurraldea murriztuz doa. Horrezaz gain, palestinarrek duten oztoporik larrienetako bat da, autonomi esparru horietan lurralde-batasunik ere ez dutela. Hemen ageri zaigu beste inon baino garbiago estatu baten eraikuntzan lurraldeak duen oinarrizko garrantzia.

5.2. Israel, herri zigortua

Palestinarren eta israeldarren arteko arazoak erro historiko izugarri sakon, konplexu eta luzeak ditu. Eta komeni da jakitea, ez baita azken orduko kontua hor eztabaidatzen dena.


Israel eta Palestina deituek lurralde berbera dute jatorrian, jadanik Brontze-arotik (1550-1200) aurrera ezaguna den Kanaango lurraldea, hain zuzen. Ez bata ez bestea dira, beraz, bertakoak, hara emigratuak baizik⁸⁰. Duten desberdintasuna da testuinguru sozio-historiko eta denbora desberdinetan finkatu zirela bertan. Zehaztasun hau egin beharra dago haste-hastetik, Israel edo Palestinaz jardutean lurralde berberaz ari baikara, baina ez populazio berberaz, azken hau zentzu etnikoan ulertuta.

“Israel” hitza lehen aldiz Mernefta faraoiaren (K.a. 1213-1203) hilarri batean aurkitzen da, orokorrean Kanaan bezala ezagutzen den lurraldean kokatua dagoena, Ekialdean, Askalon, Geser

eta Nenoam-ekin batera. Basamortu bihurtuta zegoela esaten da. Hiru hiri-estatu horiek lehendik Kanaango lurraldean finkatuta zeudenak ziren –bertako kanaandarrak, alegia–; “Israel” deiturak, aldiz, Kanaan barruan geografikoki mugatutako lurralde batean ez dagoen giza talde bat adierazten du, bertakoa ez dena, alegia⁸¹, eta hiri-estatu horien populaziotik garbiki bereizten da. Badirudi israeldar populazio hau hasiera hartan hiri-estatu horietatik at bizi zela. Zein neurritan zen nekazari, edo erdinomada, ez dago garbi⁸². Garbiago dagoena da, “Israel” deituriko populazio-egitura ahaide-tasunean oinarritzen dela. Familia da, tribua, gizarte-mota honen oinarritzko batasuna. Genealogian aurkitzen da hebraitarren identitate etnikoaren oinarri nagusia. Israelez kanpoko iturrietan “apiru” eta “shasu” izeneko giza taldeak ere aipatzen dira eta hauek ere garrantzia handia izan bide zuten Israelen eraikuntzan⁸³. Kanaanek aniztasun etniko bat erakusten du eta une horretan sortzen den Israelek aniztasun horren zati bat osatzen du, baina, aldi berean, Kanaanetik bereiziz eta bere izaera independentea gordez⁸⁴. Jadantik IX. mendetik aurrera “Israel”en lekukotasun epigrafikoak aurkitzen dira. Israelgo populazioa eboluzio-prozesu baten ondorioz eratua da eta ez, uste izan den bezala, konkista bidez⁸⁵.

Kanaandarrak historian zehar grekozko “filisteo” izenez eza-gunagoak izan dira eta arameraz mintzatzen ziren, hebreerarekin ahaidetasun handia duen hizkuntzan, hain zuzen.

Israeldarrak Kanaango Iparraldean kokatzen diren bezala, Hegoaldeko kostaldean, Ramses III.a faraoiaren garaian (K.a. 1183-1151), itsas herrietatik –Kreta, Egeo eta Asia Txikitik– etorritako giza talde batzuk finkatzen dira, “filisteoak” deituko zaienak, eta hor, Kanaango ereduari jarraiki, hiri-estatuak eraikiko dituzte⁸⁶. Hauek ez ziren, Iparraldeko israeldarrak bezala, semitikoak. Hauen lurraldea geroago Palestina deituko da, “Pelheshet” adjektibotik eratorria “inbaditzaile” esanahiarekin. Baliteke populazio horien lehen kokalekua Gaza izatea. Erromatarrek Judeako lurralde hori noiz hasi ziren Palestina deitzen ez dago garbi. Historialari batzuen ustez Kristo ondoko 132. urtean; beste batzuek mende bat atzeratzen dute data hori, Konstantinoren garaira arte.



Kanaango kokalekuak eta herriak patriarken historian
 (Finkelstein eta Silberman: *La Bible dévoilée*, 2002, 46)

Erromatarren garaitik Palestinarekin berdintzen den Ekialde Hurbileko eskualde hau –Israel hau–, Asia eta Afrika elkartzen dituen lurrezko zubi bakarra da. Hortik datorkio merkataritzaren zein militargintzaren aldetik hain leku estrategiko garrantzitsua izatea antzinateko inperio handientzat: Egipto, Asiria, Babilonia, Pertsia, Grezia eta Erromarentzat. Egiptotik Mesopotamiarako bidea, eta alderantziz, Palestinatik pasatzen zen nahitaez, Arabiako basamortuak ezinezkoa egiten baitzuen Egiptotik zuzenean Babiloniako lautadara joatea. Horregatik, kurba handi bat eginez, Iparraldera jo beharra zegoen pasako bazen. Ulertzekoa da, bada, Palestina historian zehar potentzia handien guda-leku izatea eta, bidenabar, txandan txandako inperioek okupatuta egotea. Ekialde Hurbileko antzinateko zibilizazioan, batez ere, Asiria eta Egipto gailenduko dira.

Horregatik, lurraren okupazioa funtsezko elementua baita Israel zein Palestinako arazoan, taula-pare bat eskainiko dugu. Batean Israelgo estatua sortu aurreko urrats historiko nagusiak zein izan diren zehaztuko da; bestean, palestinar erresistentziaren bidea azalduko da.

Israelen historia laburra		
1850-1300 K.a.	Patriarkak: Abraham, Jakob, Isaak (?)	Kanaango lurraldean sartzea Judaismoaren sorrera.
1250-1025 K.a.	Legegile eta juezak: Moises, Josue (?)	Israelen askatasuna.
1025-931 K.a.	Erregeak: Saul (1025-1005); Dabid (1005-970); Salomon (970-931).	Monarkia bateratua. Jerusalengo tenpluaren eraikuntza.
931-586 K.a.	Judako erregeak: Roboan (931-914...); Sedezias (596-586). Hiriburua: Jerusalem.	Israelgo erregeak: Jeroboan I.a (931-909)...; Oseas (732-724). Israelen hiriburua, Siken.
539-424 K.a.	Pertsia: Ziro II.ak Babilonia konkistatzen du.	Juda eta Israelgo erresumak Pertsia probintzia bihurtzen dira. Erbesteratutako lehen taldearen itzulera. Bigarren tenpluaren eraikuntza (520-515).
332-197 K.a.	Greziako Alexandro Handiak pertsiar erresuma gairatzen du.	Ekialde Hurbilaren eta Israelen konkista. Greziar arkitektura, hizkuntza eta erlijioaren ezarpen-prozesu azkarra. Jerusalemen konkista.
167-63 K.a.	Makabeo eta asmoneoen errebolta: Matatias, Makabeo.	Arrazoi erlijioso, ekonomiko eta politikoengatik, Ekialdeko helenizazioaren kontra sortutako erresistentzi mugimendua.


63 K.a.- 388 K.o.	Enperadoreak: Ponpeio, Adriano, Konstantino, Teodosio.	Israelen konkista Jesus: Kristautasunaren sorrera.
395-628 K.o.	Bizantziarra: Arcadio, Honorio.	Erromatar inperioaren zatiketa: Ekialdekoa Bizantzion eta Mendebaldekoa Ravenan.
570-1009 K.o.	Musulmana: Omar	Palestinaren konkista Mahoma: Islamismoaren sorrera
1095- 1229 K.o.	Gurutzadak: Urbano II. aita santua	Frantziskotarren sarrera
1260- 1516 K.o.	Mamelukoen dinastia	
1517- 1902 K.o.	Turkia: Soliman	Jerusalengo oraingo harresiak
1914- 1947 K.o.	Britainia Haundiaren kolonialdia.	
1932- 1945 K.o.	Nazismoaren judu- etnozidioa.	Hildakoak: 5.100.000.
1944 K.o.	Juduen "Irgoun" erakunde armatua.	Leherketa batek King David hotelaren alderdi bat desegiten du.
1948 K.o.	Israel.	Estatu independentearen aldarrikapena.
1967 K.o.	Israelen Sei Eguneko Gerra.	Lurralde okupatuak: Egiptoko Sinai eta Siriako Golan 1956an, Zisjordania eta Gaza.
1990 K.o.	Ultraeskuindarren agerpena Israelen.	
1994 K.o.	B. Goldstein: Kolono ultraeskuindarra	Atentatua Hebrongo meskitan.
1995 K.o.	Y. Amir: Judu ultraeskuindarra.	Isaak Rabin ministroaren hilketa.

Taulako kronologia aurrean dugula, erraza zaigu okupazio-aldiak handizka gogoratzea eta xehetasun batzuk gehitzea.

Hasteko, esan dezagun orokorrean Europako lehen biztanleen gainean ez dagoela azken hitza emana, nahiz eta esparru horretan arkeologo, linguista eta genetisten ikerketek ekarpen gero eta handiagoak egiten ari diren. Azkenaldiotan, Lituaniako Marija Gimbutas arkeologoak Errusiako Hegoaldeko estepetan ezartzen du zibilizazio indoeuroparraren sehaska K. a. V. milurtekoan, *kurganen* kultura-rekin, eta, haren ustez, handik abiatutako populazio-mugimendua Palestinara III. milurtekoan hedatu bide zen hirugarren migrazio-aldian⁸⁷. Baina, bestalde, Jerikoko gotorlekuak, han Jordan ibairen ondoan, duela bederatzita mila urte eraikitakoak direla esan izan da. Iluntasunik bada, beraz, oraindik ere.

Patriarka zaharren aipamena egiten den taulako lehen eta bigarren lerroetan datorrenari buruz, ohikoa bada ere horrela ematea, bada zalantzan bederen jarri beharrekorik, eta da Biblian datozen horiei buruzko kontakizunak ez duela ziurtasun historikorik. Aurkintza arkeologikoez egiaztatutzat ematen dute Kristo aurreko VII. mende-inguruan idatzitako epopeia nazionala dela, lehenagoko historietan oinarrituta burutua⁸⁸. Hor sartzen dira, besteak beste, Bibliako *Hasiera*, *Irteera* eta *Deutoronomioan* kontatzen direnak.

Bestalde, Biblian datozen Israel eta Judako errege-zerrendari dagokionez, hogeita sei erregetatik hamar baino ez dira Bilblias kanpoko asiriarrak iturrietan eta aurkikuntza arkeologikoetan egiaztatzen direnak: Israelgo erresuman, honako hauek: Jehu (842-814), Joas (800-784), Jeroboan II.a, Menahen (747-737), Peqah (735-732) eta Oseas (732-724); Judakoan, besteak: Roboam (931-914), Abiyyam (914-911), Joram (815-843), Ozias (785-733), Akaz (743-727), Ezekias ((727-698), Manases (698-642), Amon (641-640) eta Josias (639-609). Azken errege hau da Judako guztietan bertutetsuena, erdiak baino gehiago gaiztoak edo krudelak izan baitziren, botere menperatzailearekin kolaboratu zutenak, edo atzerriko jainkoen aurrean idolatrian jautsi zirenak, alegia. Hala salatzen zuten bere garaian Amos eta Oseas profetek⁸⁹.



Israel eta Judako erresumak Kristo aurreko XIV. mendean
(Finkelstein eta Silberman, 2002, 186)

Monarkia bateratuaren ondoren, Israel eta Judako erresumak banatzen direnean, bakoitzak bere erregeak izango ditu: Judak 23 eta Israel 20. Erresuma hauek VIII. eta VI. mendeak arte irauten dute elkarrekiko lehia eta borroka etengabe, lurralderik garatuena Israelgoa izango delarik, batez ere Omri-ren dinastiak Kristo aurreko 880 urte-inguruan Iparraldeko erresumari hiriburu independente bat eman zionez geroztik. Samaria izango da hori.

Esan bezala, Palestinako lurraldea K. a. 3000. urtean agertzen da historian Kanaango lurraldean. Garai honetan Egiptoren mende egongo da lurralde hau mende dezentez; K. a. XII. mendean, Anatoliako hititen eta egiptiar inperioen arteko gerra pizten delarik, bien ahulezi koiunturaz baliatuz, kanaandarrek bere independentzia lortzen dute eta israeldarrak lehen aldiz agertzen dira historian, Moises liberatzailearekin hasten den garaian. Geroko okupazio-historia eza-guna da: erromatarrek K. a. 64an okupatu zuten eskualdea, eta Jesu-

sen garaian Palestina Judea, Samaria, Galilea eta Perea eskualdeetan zatitua aurkitzen zen eta, batzuen ustez, Idumea ere bai; IV. mendean, Konstantinorekin, Palestina kristauen lurralde bihurtu zen; gero, ordea, musulmanek hartu zuten 634-640 epealdian; gerora, 1099an, gurutzatuek Jerusalemgo erresuma latindarra sortu zuten; Egiptoko mamelukoek, 1291n, gurutzatuak ohilduta, lurralde osoa menperatu zuten; 1516an, Siria eta Egiptorekin batera, Palestina otomandar inperioaren menpe geratzen da lau mendez; baina 1916an, arabiarrek, Britainia Haundiak aginduta, otomandarren kontra matxinatu ziren.



Palestina Itun Berriaren garaian (Elizen arteko Biblia, 1994)

5.3. *Israelgo estatua*

NBEk, 1947ko azaroaren 29an, britainiarren menpean zegoen Palestina bi estatutan zatitzeko plangintza egiten du, Jerusalem nazioarteko zonaldetzat hartuz. Zatiketa honen arabera, juduei lurraldearen % 54a esleitzen zitzaien; arabiarrei, berriz, % 46a. Geroztik Jerusalem hiriak nazioarteko estatus juridikoa izanez segituko du eta azkenean, 1948an, NBEk Palestinan juduen estatua aldarrikatuko du. Baina arabiarrek ez baitzuten onartu, israeldarren eta palestinarren arteko borroka piztuko da eta, gerra bukatzean, honela banatua geratuko da lurraldea: Egiptorentzat Gaza, Jordaniarentzat Zisjordania eta Israelentzat Negev-eko basamortua Akabako golkoan eta Galileako zati bat.

Baina judutarrek zergatik eta nola lortzen dute beren estatua? NBEk zergatik ematen die beren estatua eraikitzekeo lurraldea? Zeren truke?

Horra hor galdera-sorta, nahitaez erantzun beharrekoa baldin egungo egoera politikoa zerbait ulertu nahi bada. Hasteko, arazoaren erroetara joateko, juduen genozidioaz hitz egin beharra dago. Juduen diasporan hiru aro handi bereiz daitezke.

Antzinatean, Babiloniako erbestaldiarekin hasten da diaspora, Kristo ondoko VI. mendean geroztik. Erdi Aroan, kristandadeak, lehenik Gurutzaden eta gero Inkisizioaren bidez, haien ehizari ekin zioten, hilez edo ohilduz, eta historia honek Europa osoa zeharkatzen du. Kristauen antisemitismoaren atzean dagoen arrazoia da juduak izan zirela Kristo gurutzean hil zutenak eta, jainko-hiltzaile diren aldetik, beren erruduntasuna ordaindu beharrean daudela. Jainkoak berak zigortu zituen bere garaian. Honen froga historikoa da Jerusalem hiria erabat desegin izana Kristo ondoko 70. urtean. Juduak, beraz, kristauen mundu moraletik at lekutuak geratzen dira eta ikuspegi erlijioso hau, aldi berean, eskusiozko proiektu politiko batean gauzatzen da Europako estatuetan. Alemanian bertan, Luterok, 1543an, juduen sinagogak eta eskolak erretzeko eskatzen zuen, haiei urrea eta zilarra kentzeko, haien etxeak eta liburuak desegiteko, haiek garbitzeko “zakur amorratuak” garbitzen diren bezala. Honela, munduan zehar barreiatuak geratu ziren eta estatu desberdinetan judu-komunitateak finkatu ziren, erlijioa izanik beren arteko loturarik indartsuena. Judaismoaren errua, funtsean, erlijioso zen. Jainkoaren hiltzaile dira juduak.

Kristau jatorriko antisemitismo horretatik ez dabil urruti naziena ere –lurrean berean ematen dena, gainera–, baina hura ez da honen kausa, zeren azken hau paganoa baita eta, zehazki, ideologia arrazistan oinarritzen dena. Ikuspegi hau Gobineau eta Darwin-enganetik hartutako bi postulatu hauen gainean eraikitzen da: bata da giza arrazen desberdintasuna, eta bestea izadi-bizitzako hautaketa. Printzipio hauek suposatzen dute, batetik, arraza batzuk besteak baino garaiagoak direla –nazismoan, ariar arraza da garaiena– eta, bestetik, izadiko bizidunen artean gaituenak bakarrik egiten duela aurrera. Ikuspegi biologiko honetan oinarritzen da, bada, aurreiritzi antisemita, 1870 eta 1910 urte-bitartean hainbeste indartzen dena Europan⁹⁰.

Azkenik, bada, nazismoak juduen sarraski sistematikoa bidertatu zuen. Daturik garrantzitsuenak, agian, azken hauxe da. Kalkulatu denez⁹¹, 1941-1945 epealdian, 5.100.000 judu hil zituen estatu naziak. Baina lehenago ere, estatua sortu ondoko lehen epealdian (1933-1940), naziek bazituzten beste 100.000 hilik. Judu-geozidioaren erdigunea, Polonia izan zen, hortxe 1942-43 urtetan. Historiagileak bat datoz baieztatzean juduen geozidioa bakarra izan dela mundu guztian, harekin berdintzekorik ez dela ez inon eta ez inoiz eman. Gertakari honen berezitasuna adierazteko, juduen komunitateak, 1950eko hamarkadatik aurrera, grekozko *holokausto* hitz biblikoa erabiltzen du, zeina ebraierazko *olah*-etik hartua baita, “eskainia dena” esan nahi duena.

Ezingo da esan juduek beren diaspora luze bezain krudelean bereak eta bost ikusita ez daudenik. Astoa makilara bezala, denetarik jasan behar izan dute: deserriratzeak, ohiltzeak, zigortzeak, hiltzeak, eta abar. Horregatik, NBERen erabaki politikoaren bidez berriro beren lurralde-zatia eskuratzen dutenean –ez borrokarik egin gabe–, beren patriarken garai haiek gogoratuko dituzte⁹². Baina egoerak ez dira berdinak. Hango lurraldean –aspaldidanik, gainera–, beste batzuk ere bizi ziren, eta dira, Palestinako arabiarrrak, alegia, eta hauek ere bertakoak –judutarrak bezain bertakoak–, izatearen sentipena dute. Hemendik sortuko dira bi komunitateen arteko konponezinak.

Geozidiorik historikoena pairatu duen juduen komunitate honek, beren arbasoen lurraldera etorri-eta, zer-nolako politika eramango ote du bertako bizilagunekin? Hau da galdera.

Israelgo estatua, nolabait esateko, modu aski artifizial batez eraikia izan da. Bigarren Mundu-Gerran irabazle atera ziren potentziek egindako botere-banaketaren ondorio zuzena izan zen Israelgo estatuarena. Noski, aurrean zegoen estatuen antisemitismoak eragindako sarraskia. Juduei egindako kalteak ordaintzeko modu bat zen, ordura arte munduan zehar barreiatuta zeudenak estatu-lurralde batean bildu eta beren historia politikoa berregiten hastea.

Israelek, bere estatua eraikiz geroztik, hango ondorengo bizi-tza politikoa erabat baldintzatzen duten estrategia bikoitza jartzen du martxan. Bere nazio-eraikuntza honetan, gauza jakina denez, EEBBren laguntza handia izango du. Eta etengabekoa.

Lehenik, Egipto, Jordania eta Siriaren kontra egindako Sei Eguneko Gerraren ondotik, 1967ko ekainean, Israelek Sinaiko penintsula, Zisjordania, Jerusalem osoa, Golan eta Gaza bereganatzen ditu. NBEko Segurtasun-Kontseiluan hartutako 242. erabakiaren arabera, Israelgo armadari konkista bidez okupatutako lurralde horietatik ateratzeko eskatzen dio 1967ko azaroaren 22an. Sinaikoa bakarrik itzultzen dio Egiptori 1949an; beste guztiak, modu militarrez edo politikoz, bere estatu-kontrolpean dauzka.

Bigarrenik, demografi mugimendu garrantzitsuak gertatzen dira, bereziki konkista militarren bidez okupatutako lurraldeetan egindako sarraskien ondotik, zapalkuntzak trumilka eragiten baitu palestinarren ihesa. Kalkulatzen denez, 1948ko maiatzean Israelgo estatua aldarrikatu eta gero, 400 herri sarraskituak izan ziren eta, izuaren izuz, 700.000tik 900.000 palestinar inguru erbesteratu beharrean aurkitu ziren. Geroztik bide berbera hartu behar izan dute beste milaka eta milaka gazte borrokalarik eta, egun, hiru milioi inguru dira erbestean bizi direnak, herrialde desberdinetan barreiatuta⁹³.

Palestinarren ihesaldi masiboarekin batera, judu kolonoen etorrera ematen da, jadanik XIX. mendean hasi zena. Errusiatik ihes eginda, 1918an Palestinako juduen kopurua 24.000 biztanlekoa da; 1933tik aurrera, oraingoan nazismotik ihesi, judu asko iritsiko da Palestinara. Jadanik 1946an 500.000 lagunekoa zen juduen populazioa. Baina juduen immigrazioa hazi, Israelgo estatua sortuz geroztik hazten da: hots, 1948. urtean bertan, 42 herrialde desberdinetatik etorritako 203.000 judu sartzen dira. Gero, 1952an, diasporatik itzultzen den jendeari Israelgo hiritartasuna emango dion legea aldarrikatzen da eta immigrazio-mugimenduak aurrera segitzen du.

Ekialdetik, sortzez arabiar herrialdeetakoak diren 700.000 judu itzultzen dira: 127.000 Iraketik, 45.000 Jemendik, 300.000 Marrokotik, 35.000 Libiatik, 15.000 Aljeriatik, 4.500 Afganistandik eta 60.000 Irandik. Europako herrialde aurreratuetatik ere dezente dira itzultzea erabakitzen dutenak: 30.000 lagun 1968an, 40.000 hurrengo urtean, eta beste 40.000 1970ean. Immigraziorik handiena, halere, SESBtik etorritakoa da. Hemen emigraziorako atearak 1965ean irekitzen dira, baina Israelerako joana hasi, 1989an hasten da, eta handik bi urtera milioi bat judu baino gehiago izango dira Errusia utziko dutenak Israelera etortzeko. Etiopiatik ere 52.000 judu-inguru bota zituzten 1985-1991 urte-bitartean⁹⁴.

Batzuentzat erbesteratzea eta besteentzat itzulera suposatu duen migrazio-mugimendu honek kalkulazinezko ondorio soziologikoak ekarriko ditu, zeren, azken batean, gertatu dena egiazko populazio-aldaketa bat gertatu baita. Palestinarrak erbestera uxatuz gero, juduek haien lurraldea okupatzen baitute, hitzaren zentzurik hertsienean. Lehen gutxiengoa zirenek, egun, 50 urte pasa eta gero, gehiago erabatekoa osatzen dute. Egun, Israelgo estatuan, bost milioi juduren artean, milioi bat palestinarren populazioa itsasoan ur tanta bat bezala galduta aurkitzen da. Israeldarrek hor eraman dute politika zehurra, lur eremu berriak eskuratuz joatean, alegia. Palestinarrak lurrik eta jenderik gabe utzi dituzte. Asimilatuak izateko aukera historikorik ez dute izan. Populazio-ordezkatze garbia eman da.

5.4. Palestinarren erresistentzia

Juduek galdua zuten lurralde-zati batean beren estatuaz jabetzen direnez gero, palestinarrek beren iraultza nazionala biziki gogortzen dute, erresistentziarako erakundeak antolatuz. Taula honetan datoz erasorako sortutako erakundeak eta askatasun-bidean lortutako emaitzak.

Palestinarren erresistentzia estatuaren bila		
1964	PAEren sorrera: Al Fatah. Buzuzagi: Jasser Arafat.	
1970	PAHF.	Hegazkin-bahiketak.
1973	Iraila Beltza.	Munich-eko atentatuak.
1974-11-22	BNEk Palestinaren autodeterminazioko eskubidea onartzen du.	
1985	Israelgo armadaren eraso.	–Palestinako bi buruzagi hilak Beirut eta Tunezen. –PAEren kuartela bonbardatua Tunezen.
1987-12-9	Intifadaren hasiera.	Kale-borrokak harrika eginez.
1988-11-15	–Palestinako estatu independentearen aldarrikapena Arjelen. –NBEren 242. erabaki- onarpena.	
1993-09-13	Washingtongo Palestinaren eta Israelen arteko akordioa.	–Palestinako autonomi lurraldea: Gaza, Jeriko. –Israelek okupatutako lurraldea: Zisjordania.
1994-07-1	Arafat erbestetik etxeratzen da 27 urte egin ondoren.	
1996	Palestina autonomia Taba- ko akordioaren arabera.	–Palestinako autonomi lurraldea: Gaza. –Israelek okupatutako lurraldea: Zisjordania.

Palestinarrak erresistentziari 1964an ekin zioten, PAE (Palestinarren Askapenerako Erakundea) sortuz, eta harrezkero, 1980ko hamarkada-bukaera arte, gogor arituko dira borrokan eraso armatuak burutuz.

1989az geroztik, Jasser Arafat da Palestinako lurralde independente horretako buruzagi eta Jordaniak ordezkari legezko eta bakartzat dauka bera. Bestalde, Israelek eta PEK Gazarako autonomia osoa eta Jerikorako mugatua biltzen duen akordioa onartu eta PAEk eta Israelek elkar ezagutzea sinatu zuten 1993ko irailean. Egun, 1995eko Taba-ko akordioaren ondoren, Israelgo estatuan hiru zonalde bereizten dira: israeldar armadak zaindutako lurraldea Libanoko hegoaldean; Palestinako autonomi zonaldea Gazan; Israelek okupatutako lurraldeak, non sartzen baitira Zisjordaniako hiru zonalde hauek:

A zonaldea: Erabat autonomia dena, Zisjordaniako lurraldearen % 3a hartzen duena. Hemen kokatzen dira Jenin, Tulkaren, Noblus, Kalkiya, Ramallah, Jeriko, Belen eta Hebron. Hauek Palestinako poliziaren kontrolpean daude.

B zonaldea: Populazioaren bi herenak bizi dira hemen eta hauek lurraldearen % 27a okupatzen dute. Polizi kontrola, biena da, baina segurtasuna israeldar agintaritzak du. Jerusalem hemen sartzen da.

C zonaldea: Hau juduen koloniek eta inor bizi ez den lurrek osatzen dute, eta hauek lurraldearen % 70a dira. Israeldarren kontrolpean dago.

Palestinarren arazoak, izan, benetan larriak dira eta, nahiz eta urrats batzuk eman diren, konponbiderako martxan oraindik ere pauso asko daude emateke. Daramaten borrokaren ezaugarri batzuk azpimarratuko ditugu.

Hasteko, borroka armatuak aurrera jarraitzen du. Eta bortxaren erabileran, Israelen historia hurbila gogoratzen bada, esan behar da juduak ez direla palestinarrak baino atzerago ibili mota guztietako ekintza militarretan. Armen bidez izutu eta uxatu zituzten britainiarrak, armen bidez erbesteratu palestinarrak eta, orobat, armen bidez eusten diote konkistatutako lurraldeari. Palestinarrei dagokienez, 1980ko hamarkada arte erresistentziaren arma nagusia, eraso militarra izan zen; geroztik, Arafati Palestinako lurralde autonomoen gidaritza legez onartu zitzaionez geroztik, haien erresistentziak aurpegi bikoitza agertzen du: Arafaten autonomista, politikagintza instituzionalera mugatzen dena, eta independentista, borroka armatuari uko egiten ez diona.

Bigarrenik, palestinarrei aitortzen zaien autonomiak begien bistako mugak ditu. Batetik, Zisjordaniako lurralde okupatuan, erabat autonomia dena oso murrizta da eta, gainera, horietan ere is-

raeldar okupazioak aurrera egiten du, Belenen bezala. Bestetik, inolako lurralde-batasunik ez da ematen. Ikusi besterik ez dago Gazatik Zisjordaniara nolako lurralde-tarte handia dagoen.

Hirugarrenik, Gaza eta Zisjordanian gehiengoa palestinarra da, bi milioi biztanlerekin, baina lurralde okupatu horietan bizi diren 160.000 judu kolonoak zaintzeko, han dago israeldar armada.

Gertatzen dena da, autonomi egoera hori 1993an martxan jarri bazen ere, palestinarrak ez daudela ados aterabide horrekin eta herri-erresistentziak aurrera segitzen duela. Beraz, ez da erdietsi han bakearen eguna.

6. Zipre

Mediterraneoko irla bat dugu hau, Anatoliako kostaldean kokatua dagoena. Greziatik urrun, Turkiatik hurbil, Siria eta Libanoko basamortura begira. Azalera txikia da, Euskal Herriaren erdia ere ez 9.251 kilometro karraturekin; biztanlez are txikiagoa, orduan 600.000 lagunekin, egun 740.000ekin.

Galdera, hau da: zergatik hain ezdeusa izanda, horrelako tirriak? Mediterraneoko itsasoan daukan leku estrategikoak ematen dio irla honi garrantzi guztia, zeren Ekialde Hurbileko atea berak baitu irekitzen eta ixten. Hau da J.-L. Davant “Johañe Aizager”ek⁹⁵ eskaintzen duen giltza “Chypre-ko gertakariak” artikuluan. Horregatik, irla hori, inguru horretako beste eskualde gehienen antzera, K.a. VII. milurtekoetik hasita, inperio handiak izatera iritsi ziren zibilizazio askok okupatuko dute, Mediterranea leku estrategiko gutiziatua baita merkataritzarako eta itsasontzi militarren hornikuntzarako⁹⁶. Azken mendeetan, Erdi Arotik hona, Otomandar Inperioaren (1571-1875) eta, azkenik, Britainiar Inperioaren (1878-1960) menpeko kolonia izango da. Otomandarren garaian, irlak bi eragin indartsu izango ditu aldamenen: batetik, turkiarren mundu indartsua, mundu musulmana, XVI-XIX. mendeetan zehar Ekialde Hurbiletik Balkanetara eta, zenbait unetan, Europa Ertainera ere zabaltzen dena, eta, bestetik, greziar mundua, hau kristau ortodoxoa, bere nortasun-zeinuak gorde nahi dituen, baita irla honek ere. Hemengo greziar buruzagiek XIX. mende-hasieran eskatu zuten, lehen aldiz, helenar munduaren batasuna, “Enosis” deitua. Batasun honek Zipre Greziaren menerapenean ikusten zuen. Beraz,

Otomandar Inperioa ahultzen zihoan heinean, indartuz zetorren greziarren bizitza politiko eta soziala Zipre-ko irlan. Krisi-egoera sakon honetan, otomandar sultanak Britainia Handiari eman zion Zipre-ren subiranotasuna 1878an, urteko 92.799 libra ordaintzearen truke eta errusiar tropei Balkanetan sartzen ez ziela utziko aginduz. Zertarako nahi zuten britainiarrek irla hura? Afrika zein Asiarako –bereziki, Indiarako–, merkatal bide berriak ireki zituen Suezko kanala kontrolatzeko puntu estrategiko egoki-egokian zegoelako. Horra!

Nolanahi ere, 1974ko testuingurura hurbildu ahal izateko, gogoratu beharra dago, 1878ko Zipre-ko Konbentzioaren arabera, Otomandar Inperioak Zipre utzita zeukala Britainia Haundiari, honek administra zezan, baina ez emanda. Horregatik, Zipre izan, harena zen. Horregatik, Lehen Mundu-Gerran Turkia Alemaniaren alde jarri eta gerra galdu eta gero, 1923ko Lausana-ko hitzarmenaren ondotik, Zipre-ko lurralde-eskubideei uko egiten die eta Britainia Haundiak orduan beretzen du irla, 1925ean bere kolonia bihurtuz. Britainiarrek beren agintaldian “Enosis”aren aldeko mugimendu nazionalista zapaltzeari ekin zioten. Halere, Lehen Mundu-Gerrakoan, zipretarrek Britainiako Indar armatuekin parte hartu zuten. Eta gerra hau bukatzean, pentsatzen zuten, beste herrialdeetan martxan zegoen deskolonizazioaren politika han ere aplikatuko zela, nahiz horretarako batere asmorik ez zuten sumatzen. Horregatik, 1955ean, Zipre Greziarekin bat egitearen aldekoak, Georgios Grivas jeneralak⁹⁷ gidatuta, britainiarren aurka borrokatu ziren eta, 1960an, irlaren beraren independentzia ere lortu zuten⁹⁸. Baina Grezia, Turkia eta Britainia Haundiko estatuek bazituzten beren interesak han ezarriak, eta handik begiak kendu gabe segituko dute. Bestalde, Zipre-ko greziarrak gehiengo baziren ere % 76,5ekin eta hauen esku bazegoen ere Errepublikako lehendakaritza, Makarios artzapezpiku ortodoxoarekin, esan behar da turkiarren gutxiengo ere han zegoela bere % 22,6rekin. Eta hauek, irizpide etnikoak erabiliz, irlakoak bi komunitatetan zatitzea eskatuko dute: batetik, zipregreziarrak eta, bestetik, zipreturkiarrak. Eta borrokarako ere, EOKA zipregreziarraren metodo bera aplikatuko dute: hots, borroka armatua, TMT (Turkish Resistance Organization) deitua. Beraz, nazio-gatazkarako hazia ereina zegoen.

Turkiarrek irlaren hirutik bat okupatzen zuten eta 47 eskualde zeuzkaten beraientzat esleitura. Legearen arabera, greziarrek ezin

zuten horietan sartu, baina alderantziz, bai, turkiarrak handik atera zitezkeen. Egoera berezi horri esker, turkiarrek beren armada eta administrazioa eraiki ahal izan zituzten eta honek, gertatzez, irla bitan zatitzea ekarri zuen. Davant “J. Aizager”ek⁹⁹ dioen bezala, Zipre-ko estatu bakoitza “aberri-amaren esnari esker bizi zen parte handiena: hots, bata Greziako gobernuaren emaitzei esker, bestea Turkiakoaren dohainei esker”.

Independentziaren lorpenak, bada, ez zuen lortu komunitate greziarraren eta turkiarren arteko gatazkak gainditzea eta, 1960ko hamarkadan zehar, egoera larrituz joan zen, hainbestearaino ezen NBEk bere tropak bidali behar izan baitzituen gerra zibila piz ez zedin. Han egon zen Unficyp izeneko unitate militarra, 6.000 lagunek osatua, bi komunitateen arteko mugak zaintzen.

Baina militar “bakezale” horien presentzia gorabehera, egoera biziki mintzen da 1967an. Greziaren buruzagitzan koronelak jartzten dira eta hauek, Zipre-ko irla osoa bereganatu nahirik, Grivas-ek zuzentzen duen “Enosis” mugimenduari laguntzen diote eta ekintza bidez Makarios-en gobernu uzkaileta izango dute helburu. Era berean, Greziako Elizaren aldetik ere badatorkio eraso. Independentziaren aldekoa den lehendakariak, ordea, eutsi egiten dio oldeari, batetik, hauteskundeetan nagusitzen delako hirugarren aldiz, bertako Alderdi Komunistaren % 35eko botorekin ere kontatuz, eta, bestetik, atzerriko politikan, Tito eta Nasser adiskide dituelako. Greziako militar eskuindarren eta Zipre-ko indar aurrelarien arteko interesak tartekatzen dira hor.

Baina azkenean, 1974an, Guardia nazionaleko ofizial greziarrek jotako estatu-kolpeak Makarios boteretik kendu zuen eta, ondorioz, Greziarekin bat egiten saiatu ziren. Langintza honetan, Atenasko greziar militarrek iparramerikar militarren eta CIAren laguntzarekin kontaktu zuten, baimena Kissinger-ek emanda. Izan ere, gogoratu behar da bai Grezia bai Turkia, biak, OTANgo partzuerrak direla, biak amerikarren armaz hortzeraino josiak, eta Mendebaleko politika-munduari oso lotuak eta teorikoki hari atxikiak.

Bitartean, Turkiako armadak, hau armaz Grezia baino gotorrago baita eta Zipre-tik askoz hurbilago baitago, irlaren iparraldea inbaditu zuen, haien ekintzaren xedea hango turkiar komunitatea defendatzea zela esanez. Honela, inbasioaren ondorioz, hango komunitate grekoak irten beharra izan zuen. Errusiak, “irri-far” egiten du, Makarios-en itzulera eskatuz. Alferrik.

Geroztik, gertatzez, Zipre bitan banatua geratzen da: bata Ipar Zipre-ko Errepublika Turkiarra, 1983an eraikia, 162.000 biztanle dituen, eta bestea Grekoa. Dagoen diferentzia da, NBEk ez duela Errepublika Turkiarra onartzen, baina hango arazoa konpondu ere ez duela konpontzen. Eta konponbiderako atak zabaltzeko tarte handirik ere ez da ikusten. Eta ez da ikusten, Zipre dela-eta, honen atzean potentzia handien interes handiagoak begiztatzeko direlako. Zipre, azken batean, Atenas eta Turkiaren manupeko lurralde soil bat besterik ez da. Grezia eta Turkiako estatuak OTANgo estatu partaideak dira eta hauek, aldi berean, harreman oso estuak dituzte Estatu Batuekin, honen Europako arma-eroslerik onenak haiek direlako. Beraz, aita ponteko ona dute aldamenean. Alemania, bere aldetik, Turkiaren betiko aliatua da eta Ankarako armada berak hornitzen du gehienbat. Erresuma Batuak gutxi-gorabehera Washingtonen interesen antzekoak dauzka. Hain irla txikia izanda, jauntxo gehiegi dabilta haren inguruan, bertan politika bateratua eraman dadin.

Egun, Zipre-ko irla orotara hartuta¹⁰⁰, bertako populazioaren % 81,7a grekozipretarra da, besteak zipretarrak. Gehiengo den greziar komunitateak okupatzen du irlako lurralde-azaleraren % 62a. Eskualde honetan badira beste bi komunitate txiki ere, bata maronita eta bestea armeniarra, biek batera zentsuaren % 2a besterik osatzen ez dutena. Turkiarren eskualdean 170.000 lagun bizi dira, eta horietatik erdiak baino zerbait gutxiago Anatoliatik Ankarako agintariek bidalita etorritakoak dira. Bestalde, Zipre-ko lurraldearen % 2a britainiarrek 1960an ezarritako bi base militarrek okupatzen dute, zeinak Dhekelia eta Akrotiri-n aurkitzen baitira.

Bi komunitate horien eraikuntza zeren truke eman den? Odol-isurketa handi baten truke. *Zabaleko* artikulua argitaratzen den garai horretan, 1974ko uztaile eta abendua bitartean, 200.000 grekozipretar –irla guztiko % 30–, ihesi joan ziren 40.000 turkiar soldaduk okupatutako lurretatik; era berean, nazioarteko legeriak onartutako Zipre-ko lurraldean zeuden beste 50.000 turkozipretar ere handik joan beharrean izan ziren. Beste 1.700 grekozipretar desagertu egin ziren turkiarren okupazio militarren ondotik. Praktikan, aldaketa etnikoa oso azkarra izan zen. Irlako bi komunitateak argi eta garbi oinarri etnikoetan banatuta geratu ziren¹⁰¹.

Garbiketa etnikoa azken puntaraino eramaten da, bada, Zipre-ko kasu honetan. Honek erakusten digu gizarteko harremanetan zein errotua dagoen, zein sakon sartua, etnien arteko gatazka.

V

Koloni arazoak Asian

Aral honetan, Ekialde Ertain eta Hurbiletik, Asian barneratuko gara eta hemen, *Zabaleko* artikuluei jarraiki, bi herrialde izango ditugu aipagai, Kurdistan eta Bangladesh, segidan azaltzera goazenak.

1. Kurdistan

Mikel Urteaga “Huarte”ren artikuluxkan¹⁰² dator herri honi buruzko aipamena, soilki 1975eko egoerara mugatzen dena. Kurduen arazoa bere osotasun eta konplexutasunean ulertu ahal izateko, ordea, hor oinarritzko informazio asko falta da, hasteko historikoa eta, batez ere, soziopolitikoa. Gaiaz arras ongi jabetua egonda ere, edozeinentzat da zaila orri eta erdiko azalpenean –kasu honetan bezala–, arazoaren muina egoki formulatu ahal izatea eta zailago oraindik, jakina, bere iritzia aurreratzeko moduan egotea. Berak hemen eskaintzen dizkigun iritziak prentsatik hartutakoak dira. Beraz, edukiaren aldetik hainbesteko baliorik ez badu ere, eskertzekoa da 1970eko hamarkadaren erdialdera Kurdistan-en inguruan zabaltzen den nazio-arazoa *Zabaleko* aurkibidera ekartzea. Honetan badu bere meritua.

Kurdistan-go arazoak egun ere garrantzitsua izanez segitzen baitu, *Zabaleko* erreferentzia honek bide ematen digu gai honi sakon samarretik hel diezaiogun.

Kurduak jatorriz iranerazko tribuetatik datozenak dira. Ehiztari eta artzainen herria izan zen eta VII. eta XVI. mendeak bitartean islamiartu ziren. Hauek, nahiz lurralde desberdinetan zatiturik egon,

beren tribu-egiturari XX. mendera arte eutsi diote. Baina ez arazorik gabe. Errolda fidagarririk ez bada ere, Kurdistan-en 22 milioi kurdu inguru bizi dela kalkulatzen da. Guztira, haren lurraldeak 530.000 kilometro karratu ditu eta egun Turkia, Iran, Irak, Armenia eta Siriako estatuetan banatua aurkitzen da. Eta hauetako bakoitzarekin ditu bere arazo espezifikoak, gaian sartu ahal izateko zerbait zehaztea komeni denak.

Asiako lurralde honetan, XVI. mendetik aurrera, otomandar eta pertsiar inperioen garaian emirerrian antolatuta zeuden kurdu-tribuek autonomia ezagutu zuten, baina bi inperio horiek, XIX. mendean, ordura arteko emirerri-sistema deuseztatu eta Kurdistan-en gobernu zuzena ezarri zuten. Mende-hasieran, Lehen Mundu-Gerrakoan otomandar inperioa desegin zenean, kurdu gehienak bertan bizi baitziren, hauek Turkia, Ziprekuwait eta Siriako estatuetan zatituta geratu ziren eta ordudanik estatu bakoitzak harreman desberdinak izango ditu kurduekin.

1.1. Kurduak Turkian

Turkiako estatuan dago antolatuenik kurduen askapen-mugimendua. Sèvres-ko hitzarmenak (1920) aurreikusia zeukan kurduen estatu independentea sortzea, baina ez zen berretsia izan, zeren Lausana-ko hitzarmenak kemalismoaren garaipena onartu baitzuen. Turkiaren laiotzeak eta kurduera debekatzeak dakarte kurduak 1925ean erreboltatzea eta, ondorioz, gogorki zapalduak izatea. Turkiako kurduak 1927an “Hoybun” alderdia sortu zuten, militarki antolatuta zegoena, baina turkiar armadak azpian hartzen du. Kurduen mugimendua hogeita hamar urtez desagertu egiten da.

Turkiako gobernuak kurduen arazoa, hauen nortasuna ukatuz erabakitzen du. Kemalismoaren funtsa, hain zuzen ere, Turkiaren homogeneotasun etnikoa defendatzean datza. Honen arabera, beraz, Anatoliako biztanle guztiek turkiarrak izan behar dute. Honela, gobernu kemalistak 1932an aldarrikatzen duenez, kurduak, izan, turkiar feudalek kurdifikatutakoak dira.

Legez erabakitzen den etnozidio-kasu bakarra da hangoa, berehalako ondorio politikoak dakartzana. Legez aldarrikatutako kurduen nortasuna praktikan ezabatu ahal izateko, Turkiako gobernuak haien populazioa lekuz aldatzeko sistema eraikitzen du, deportatu gehienak bidean hiltzen direlarik. Anatoliaren erdian kokatua dagoen Dersim izeneko eskualdea, zeinaren orografia aproposa baita

gerrilla egiteko, erabat husteko erabakia hartzen du. Horretaz gain, kurduen erresistentzia militarra kontrolatzeko, 1937an, Irak, Iran eta Afganistanekin akordio bat izenpetzen du, estatu-muga horietan banda armatuen kontrako borroka koordinatua eramatea aurreikusten baita. Honela, estatu horietako bakoitzak bere lurraldean isolatuta mantentzen du kurdu-populazioa (Ternon, 1995, 379).

Turkiako gobernuak, 1997an, nazioarteko mailan harreman estuak dauzka Israelen Benjamin Netanyahu-ren eskuineko gobernuarekin –bereziki, maila militarrean–, baita Iran-go gobernu fundamentalista islamikoarekin ere, honekin maila ekonomikoan. Bestalde, EEBB eta Europar Batasunarekin ere harreman politiko-ekonomiko pribilegiatuak ditu. Nazioartean horrelako aliatu botere-tsua izanda, bere auzokoekin –Zipre-kin eta–, eta, batez ere, bertako zapalduekin gogor jokatzeko moduan aurkitzen da. Europako hainbat estatuk –hauen artean Belgikak, Frantziak, Portugalek eta Poloniak–, satellite bidez Londondik ematen den kurduen Med-TV (Medoen Telebista), ixteko kanpaina parte hartzea lortu du. Beraz, nazioarteko politikan daukan hain kokapen estrategiko ona ikusita, barruko nazio-arazoari aurre egiteko ere indarrezko egoeran aurkitzen da une honetan, nahiz eta bere lurraldeko heren bat okupatzen duen 15 milioi inguruko populazioa arras kontra daukan armetan jaikia eta defentsa militarrean urtean batez beste 10.000 dolar gastatzen dituen.

Kanpo-laguntza honi esker, gauza da kurduen erresistentziari aurre egiteko, zapalkuntza edozein preziotan bideratzen bada ere. Zentzu honetan, 1996ko urte-bukaeran Sukurluk-en (Balikesir) gertatutako trafiko-istripu bat zela bide, jakin zen turkiar gobernuko jendea bera ere inplikaturik zegoela ustelkeriaz betetako gerra zikinean, zeinetan nahastuta agertu baitziren droga-interesak eta estatu-terrorismoa¹⁰³. Iritzi publikoaren aurrean sortutako eskandalua hain handia izan zen, ezen datuak estaltzen ahalegindu zen Mehmet Agar barne-ministroa bere kargua utzi beharrean aurkitu baitzen. Arazo zikin honek estatu mafiosoaren kontrako herri-mobilizazioak sortarazi zituen eta, bidenabar, agerian utzi zuen drogen mafia benetan sartuta zegoela hango politikan, ez turkiar polizia zioen bezala kurduen gerrillan, baita, azken gertakariak egiaztatu bezala, gerrilla antiturkuduen finantzaketan ere.

Turkiako estatua kurduekin egiazko genozidio-politika ari da praktikatzen. Herri-suntsiketa hiru modutara bideratzen da. Lehe-

nik, herriak deseginez. Kurduen kontrako gerra honetan badira jadanik 3.000 herri suntsituak, 3.000.000 bizilagun erbesteratuak eta 4.000 asasinatuak. Bigarrenik, jendea harrapatu eta “desagerraraziz”, Argentinan gertatu zenaren antzera. Hemen bezala, berdin Turkian ere, “Larunbatetako Amak” izeneko erakundea sortu zen eta larunbatero elkartzen dira desagertuen amak Galatasary Lizeoaren aurrean. Hirugarrenik, lehen esan bezala, kurduen alderdi eta mugimendu nazionalistak debekatuz. Legez onartutako bakarra HADEP (Herri-Demokraziaren Alderdia) da, eta horren zuzendaritzako 40 kide prozesatuak izan ziren eta espetxeratuak. Turkian giza esku-bideek –are gutxiago herri-eskubideek–, ez dute arnasa demokratikoa non harturik.

Nolanahi ere, bitxia gertatzen da irakurtzea, non eta eskan-dalu horien berri ematen den leku berean, nola jarria den martxan “Bakearen aldeko milioi sinadura” izena daraman nazioarteko kanpaina, beste erakunderen artean Adierazpen-Askatasunerako Plataformak sustatzen duena –honen ordezkariarik ezagunena Sanar Yurdapan turkiarra da–, eta nola ekimen horren aldeko jardunaldiak burutu diren Italia, Alemania, Espainia eta Frantzia (Belmonte de Rueda, E.; Marorell, M., 1996, 256). Non eta azken bi hauetan, GALek estragoak egiten dituen lekuetan. Onak gaude. Horrelako kontraesanak gaindiezinak dira. Baina ulertzen da, zeren artikulua honen egilea bera, Manuel Marorell, *El Mundoko* kazetaria baita. Baliteke, halere, han ez bezala, Frantzia eta Espainian, alderdi guztiak, armatuak salbu, onartuta daudenez gero, giza eskubideak formalki zainduagoak izatea. Praktikan, ordea, Espainian ezker abertzaleak zailtasun handiak izan ditu hauteskundera aurkezteko eta bere alderdia legeztatzeko. “Sortu” jaioberriak debeku eta gidari espetxeratu askoren historiaurre luzea du.

1.2. Kurduak Iran-en

Iran-go estatua, bere 56.293.000 bizilagunekin, multinazionala da bere barne-konposizioz, talde etniko nagusia pertsiarra delarik % 46,6rekin. Azeri, gilaki eta beste batzuekin batera, kurduak ere hortxe daude % 9,1eko portzentajearekin. Guztira, 9 milioi kurdu inguru. Gutxiengo bat da, bai, baina kontuan hartzeko kopurua. Iran-go gobernuak ez du sekula autonomi eskabiderik onartu izan, eta printzipioz gainera, bazekielako jakin, bati eman ezker, besteak

ere eske izango zituela. Baina 1946ko urtarrilean, Reza Khan-en erregimen autoritarioa erori zenean, sobietarrek okupatutako hango lurraldean Mahabad-eko Errepublika aldarrikatu zen. Bera da inoiz eraiki izan den kurduen estatu bakarra¹⁰⁴. Baina independentzia hile horretan bertan bukatu zen, zeren irandar armadak errepublika txiki hori inbaditu baitzuen sobietarren tropak handik alde egin bezain laster. Honela, nahiz hemengo kurdu nazionalistek beren erakunde politikoak badituzten, Teheran-dik ez bide dute inoiz lortu ahal izan autonomi estatuturik. Nazionalisten erreboltak, Turkian bezala, haien zuzendariak asasinatuz eta hiriak zein herriak deseginez, hots, estatu-terrorismoa erabiliz itzali izan ditu gobernu zentralak (Ter-non, 1995, 379-380).

Egun, zer? Turkian bezalatsuko egoera dago Iran-en ere. Erabat kurduen kontrakoa. Iparramerikarren politika Teheran-go gobernu fundamentalistaren kontra baldin badago ere, gobernu islamiko honek harreman diplomatiko onak ditu Errusiarekin eta honen eraginpeko Asia Ertaineko lehengo sobietar errepublikekin eta baita Europako zenbait estaturekin ere, hauen artean Espainia eta Alemania aurkitzen direlarik. Iran-ez hitz egiten denean Europako erregimen demokratikoetan, Khomeinik 1979an indarrean jarritako sistema fundamentalista bakarrik aipatu ohi da, berarena demokraziaren antitesirik puntakoena bailitzan agertuz. Baina fundamentalismo honek ez ditu Mendebaldeko Europatik datozen kultur ideiak bakarrik zigortzen, baita mugimendu nazionalistak ere –hauek, bereziki–, geroago ikusiko den bezala.

Iran-en sistematikoa da kurduen kontrako zapalkuntza. Hots handia atera zuen Berlingo “Mykonos” izeneko greziar jatetxean egindako atentatuak, zeinetan IKADeko (Iran-go Kurdisntan-go Alderdi Demokratikoko) idazkari nagusia, Sharafkandi jauna, eta honen Europako ordezkariak metrailetaz ebakiak izan baitziren. Kalkulatzen denez, Iran-go Kurdistan-en indartsuena den alderdi honek, 1988. urtetik hona, 44 zuzendari galdu ditu. Areago oraindik: Iran-go armadak bi aldiz bederen inbaditu du Irak-eko Kurdistan, hementxe, bero-beroan, IKADeko gerrillariak xehatu ahal izateko. NBERen babespean zeuden kurdu erbesteratuen bizilekuak ere bonbardatu zituen 1996ko uztailean. Jende nazionalistaren eskarmentu publikorako, garai batean Inkisizioarekin bezala, neurri drastikoak hartzen dira. Honela, Iran-go Kurdistan-en aurkitzen diren Urmie eta Kermansha herrietan, ekintzaile kurduen gorpuak

plazetan kokatutako garabietatik zintzilika jarri zituzten. Azken herri horretan bertan, 1996ko urte-bukaeran, kale-errebolta batean 53 lagun hil zituzten eta ehunka atxilotu (Belmonte de Rueda, E.; Marorell, M., 1996, 256). Izua eragiteko sistema bat da, estatuak berak praktikatzen duena.

1.3. Kurduak Irak-en

Irak-eko estatu multinazionalean, % 19 dira kurduak, Iran-en aldean askoz gehiago.

Bigarren Mundu-Gerra ondoren, kurduen arazoa Irak-era pasatzen da. Irak-eko botere zentralaren eta kurduen arteko gatazka, azken hamarkada hauetan, bien arteko indar-korrelazioaren balantzan datza: gobernu zentrala ahul dagoenean, negoziatu egiten du; ez dagoenean, aldiz, erasora pasatzen da. Honek esan nahi du, batetik, Bagdadeko gobernuak ez dela kurduen errebolta azpiratzeko gauza eta, bestetik, kurduak ez dutela bere lurraldearen autonomia lortzeko aski indar. Kassem jeneralak 1958ko uztaillean estatu-kolpea jo eta errege-familia hil eta gero, Irak-en egoera berria sortzen da. Honela, 1960ko hamarkada-hasieratik aurrera mota desberdinetako gertakariak pilatuz datoz. Bertako kurduak posible ikusten dute ezarria izan den Irak-eko Errepublika berrian beren autonomia lortzea. Irak-eko kurduen buruzagi karismatikoa, Mustafá Al-Barzani, erbestetik etorri eta Irak-eko gobernuarekin hizketatzen da eta, elkarrizketa honen ondorioz. Irak-eko Kurduen Alderdi Demokratikoa legeztatzen da 1960an. Errepublikak petrolioa nazionalizatu egin zuen 1961ean eta, urte honetan bertan, Kuwait bere lurraldean sartzeko ahaleginak egin zituen. Aldi berean, kurduak matxinatu egin ziren Al-Bazarni-ren gidaritzapean eta gobernu zentrala alderdi horretako buruzagiak atxilotzen eta gerrillariak harrapatzen hasi zen.

Esan dezagun 1970eko hamarkadako testuinguruan kokatzen dela Mikel Urteaga “Uharte”ren *Zabaleko* artikulua, “Kurdistan eta Eritrea” izenekoa¹⁰⁵, guk iruzkintzeko hemen hartu duguna. Mikel Urteaga “Huarte” artikulugileak dioenez, Irak-eko gobernuak 1963an kolokan egon zenean, hango turkoek independentzia lortzeko aukera izan omen zuten, baina ez ez omen zuten egoeraz baliatzen jakin. Irak-eko buruzagiak, une honetan, sozialistak dira, aurrerapenaren alde daudenak eta, gainera, SESBren laguntza dutenak. Hauentzat guztientzat, jakina, kurdu nazionalistak indar erreazionarioak dira

eta, erreakzionario guztiak bezala, kondenagarriak. SESBren kasuan, gainera, han ere badira kurdu batzuk eta biharko egunean ez lukete haiekin arazorik izan nahi. Beraz, laburtuz, Huarterentzat klasearteko kategorietan planteatzen da hango nazio-arazoa: bate-tik, kurdu nazionalistak atzerakoiak dira, iparramerikarren eta iran-darren laguntza dutenak, eta, bestetik, gobernu berriko irakiar so-zialistak daude, hauek aurrerakoiak, sobietarren laguntza dutenak. Barzani-ren nazionalismoa, hain zuzen ere, klasista da eta, gainera, autonomista. Bestalde, komunistengandik onespelik hartzen ez duenez, estatu kapitalistetara jotzen du laguntza bila. Luzetxoa bada ere, garai hartako euskal marxista batzuek nazio-arazoa zein gako teorikoren argitan planteatzen zuten jakiteko adierazgarria izan dai-teke Urteaga “Uharte” ren (13, 1975, 34) pasarte hau:

“Barzani lehen erran bezala, ez da ezkertiarra, eta honek egin nahi duena da, Kurdistan-go estatu kapitalista bat sortu, eta ez ge-hiago. Gure artean zenbaitek bezalatsu. Bestalde, URSSek ez du interes gehiegirik laguntza emateko, batez ere Israel-en 6 eguneko gerla ondoren; orduan hautatu baitzuen arabiarren alde jartzea. Baditu, beraz, beste interes handiagoak. Gainera, URSS barruan ere bada Kurdistan zatitxo bat, eta biharko egun batean ez du gerlarik nahi bere mugetan. Orduan (Bazarni) estatu kapitaliste-tara joaten da laguntza bila: USARA, eta orain batez ere Iran-era. Iran-go ‘shah’ak ordea, ez du inongo interesik kurduei laguntzeko zeren eta, bere mugen barruan han du Kurdistan, 5 milioi bi-zilagunekin. Barzani-ri laguntzen badio, Irak-eko agintarienak izorratzearen da. Hara zein kolokan den laguntza hau (...) Alde batetik, Irak-eko agintariek ‘sozialismoaren’ jantziak hartu di-tuzte, eta progresoarean alde borrokatzen omen dira. Horretarako URSSen babesa dute. Eta bistan da, honen arabera, kurduak in-dar erreakzionarioak bezala gelditzen direla (...) eta erreakzionario guztiak bezala, kondenagarriak, aitzinamenduaren banderapean”.

Bego hor artikulugilearen interpretazio hori, sinplista samara dirudiena, zeren eta alderdi komunistentzat arazo nazionalak ez baitu lekurik ez bada maila taktikoan. Bestalde, Barzani “deabrua-reakin” ere ezkonduko litzatekeela baieztatzen bada ere, testu horre-tan ematen diren baino datu gehiago beharko liratekeela iruditzen zaigu haren orduko jokabideaz zerbait esan ahal izateko.

Gobernuak ezin baitu kurduen erresistentzia itzali, Saddam Hussein-ek eta Barzani-k akordio bat izenpetzen dute 1970eko

martxoaren 11n, zeinetan kurduen nazioa eta beronen kultur esku-bideak aldarrikatzen baitira eta kurduentzako erregio autonomo baten estatutua definitzen baita. Behin-behineko lau urteko epealdian zehar funtzionatu zuen erregio-autonomia horrek. Hau izan zen kurduak inoiz lortu izan duten gehiena. Baina, aldi berean, autonomia honek ekar zezakeenaz beldurtuta-edo, jokabide genozida agertzen hasi zen gobernua. Urte horietan, hain zuzen, Kirkük-eko eskualdetik kurduak indarrez lekuz aldatzen hasten da estatua. Kurduen erdia baino gutxiago, milioi eta erdi inguru, bizi ziren eskualde honetan. Zergatik lekuz aldatzen dituzten? Kurduen autonomiak aurrera eginez gero, gobernua horien lurraldean dauden petrolio-putzuen kontrola galtzeko beldur delako. Horregatik, kurduen lurraldea, 74.000 kilometro karratukoa zena, 42.000kora murrizten du eta, ondorioz, kurduen autonomiari buruzko legea edukirik gabe geratzen da. Egoera honek, batetik, kurduen gerrillaren indartzea dakar, Iran-ek 1969az geroztik eskaintzen dien laguntzarekin, Kurdistan-go hiri handiak banan-banan hartzen dituelako eta, bestetik, Irak-eko armadaren zapalkuntzaren areagotzea dakar, kurduen kontrako ehiza martxan jartzen delarik. Gainera, Iran eta Irak-en arteko harremanak eten egiten dira. *Zabaleko* artikulua horretan bertan (Urteaga, 13, 1975, 34), honela planteatzen da 1975eko gerrakoa:

“Orain, 1975eko martxoan, Irak eta Iran-arteko muga problemak konpondu dituzte, eta hitzarmen hau dela eta, hurrengo egunean Irak-eko armada, Kurdistan azkarki bonbardeatzen hasi da, jende zibila hilez, eta napalmanarekin bazterak oro errez. Hemendik aitzina, kurduak ez dute Iran-dik laguntza gehiagorik ukanen”.

Egoera korapilatu honek 1975eko martxora arte irauten du. Urte honetan negoziatzen du Bagdad-ek Iran-go Shah-arekin eta biek akordio bat izenpetzen dute Arjelen, zeinaren arabera Iran-ek, mugetan abantaila batzuk lortzearen truke (Ira-ek Shat al-Arab eskualdean zituen erreklamazioak bazter utzi zituen Iran-en alde), sostengurik gabe utziko baititu kurduak. Honela, Irak-eko iparraldean bakea eta batasun nazionala ziurtatuak daudela irakurtzen da NBEren 1976ko txosten batean. Kurduak, beren aldetik, konstatatzen dute bi estatuen arteko aliantzetan oinarritutako politikak ez duela etorkizunik eta, aurrera egitekotan, beste estrategiaren bat bilatu beharrean daudela. Iran-en eta Irak-en arteko gerran (1980-88), Shat al-Arab

eta Khuzistan berreskuratzeko asmoz Irak-ek Iran-i eraso egin zion, pentsatuz Iran-en barne-arazoez garaipen erraza ekarriko zutela. Gerra honetan, Iran-go kurduak zatituta aurkitzen dira: Irak-eko Kurduen Alderdi Demokratikoa Teheran-ekin aliatzen da; Jalal Talabani-k 1975ean sortutako Kurdistan-go Batasun Politikoa, aldiz, Bagdad-ekin negoziatzen ahalegintzen da. Zapalkuntza hain da handia, kurduen erresistentzia berriro elkartu egiten da.

Esan behar da Arjeleko akordioaren ondotik (1975), Irak-eko gobernua politikoa genozida gauzatzen duela, kurduen populazioak lekuz aldatuz. Boterea 1979an eskuratzen duen Sadam Hussein-ek gauzatzen du politikoa hori, komunistak nahiz xiitak nahiz nazionalistak sakailatuz. Kurduen buruzagiak atxilotzetik hasten da, batik bat, Barzani-ren taldekoak. Gero hondeagailuak hartu eta herriak xehatzen ditu, hango kurduak eta asiriar-kaldearrak Irak-eko hegoaldera eramanez eta errefuxiatuak “hiri berrietan” taldekatuz, polizi komisalgoetatik hurbil. Geroago, muga-herrietan –hortxe luzean 120 eta zabalean 30 kilometro-edo dituen lurraldean zehar–, bizi diren kurduak ohildu egiten dituzte, guztira, 250.000 lagun 1978-79 urte-bitartetan. Lekuz aldatzea gerrateko lehen urteetan geratu egiten da, baina 1985ean berriro 500.000 aldatzen dira lekuz, hiriak eta herriak desegin eta horko biztanleak hiriburu handietako auzoetan edota Irak-eko hegoaldean –Jordania eta Arabia Saudi-rekin muga egiten duten basamortuetan–, kokatzen dituzte, horko kontzentrazio-zelaietan. Honela, lekuz aldatu ondoren, kurduen mendiak jenderik gabe geratzen baitira, kurdu gerrillariak –“peshmergas” deituak–, borrokarako azpiegiturarik gabe geratzen dira. Arrainak urik gabe bezala. Turkiak, bere aldetik, 1975az geroztik, bere mugak itxi zizkien erbesteratu kurduei. Areago oraindik: Irak-ekin akordio bat egin zuen, zeinaren ondorioz, 1983-87 urte-bitartean, turkiar armadak hiru aldiz erasotu baitzituen Irak-eko Kurduen Alderdi Demokratikoa eta 1977an sortutako Kurdistan-go Langile-Alderdia. Azken alderdi hau marxista-leninista da eta Turkiar Kurdistan-en independentzia eskatzen du. Sadam Hussein-ek daraman genozidio-plangintza kriminalaren berri ez du munduak ezagutuko, harik eta Irak-eko armadak Halabja herria (Kurdistan-en) 1988ko martxoaren 16an bonbardatzen duen arte, hiperitazko lehergailuak erabiliz, 5.000 hildakorekin eta 7.000 zauriturekin. Hussein-ek kurduen herriak bonbardatuz segituko du 1988. urtera arte. Erasoa bukatutzat ematen den urte honetan, orduan hasten da genozidioaz hitz egiten,

mundu guztiak badakienean Irak-ek, NBEren protestak gorabehera, kurduen suntsiketean sistemaz arma kimikoak erabili dituela. Baina jadanik baziren 13 urte Irak-ek politika hori bazeramala. Dena dela, gerra bukatu eta gerora ere, Irak-eko iparraldean zapalkuntza biziki gogortzen da eta milaka kurdu dira ihesi doazenak Iran eta Turkia-rako bidean. Orduan irekitzen dizkie beren mugak estatu horiek.

Sadan Hussein esan-eta, normalean, Kuwait etortzen da gogorra, 1990eko hamarkada-hasieran bertan piztu zen gerra fulminantea zela bide. Ezaguna den bezala, 2.143.000 biztanleko herri honek, 1914an britainiar protektoratu izan eta gero, 1919an lortu zuen independentzia eta Arabiar Ligako partaide izatera pasatu zen. Baina Irak-ek 1990eko abuztuan inbaditu eta anexionatu egin zuen. Berehala, EEBBk eta beronen 29 aliatuk, Golkon interes ekonomiko garrantzitsuak dauzkatelako, Irak-i eraso eta Kuwait lehengo egoera politikoa berrezartzen dute 1991ko otsailean. Honaino gertakariak, prentsak emanak. Tebistaren bidez, Irak-eko zerua sutan bezala ikusi ahal izan genuen. Zer dela eta? Bi bandoen arteko gerra bailitzan aztertu zen hangoa: batetik, irakiarrek, Kuwait berena zela ziotenak, eta, bestetik, iparramerikarrak eta beronen europar aliatuak, hauek atzerriko ustiatzaileak. Hauentzat egiazko arazoa, izan, Kuwait-eko petrolioa zen. Tartean zegoena, interes ekonomiko hutsa zen. Inperialismoak eragindako gerra tipiko bat, zinetan, ez bakarrik Estatu Batuek, Europakoek ere bere etekinak atera nahi baitituzte. Sadan-en Irak-ek ere, zentzu berean, bere interes partikularrak zituen, horien artean nagusia izanik Kuwait-eko petrolioa kontrolatzearena.

Kurduen arazoak, alderdi ekonomiko horiez gain, bazuen, esanez gatozen bezala, naziotasunari zegokion beste alderdi espezi-fikoa ere eta berau, gerra honetan, garbiki islatuko da. Kurduak, xiiten jokabideari jarraiki, matxinatu egiten dira, hiriak okupatzen dituzte eta Kirkük beretzen dute. Aliatuak Irak-eko lurraldea zatituta geratuko den beldur baitira, Saddam Hussein-i kurduen altxamenduak zapaltzeko baimena ematen diote. Kurduak konbentzitu daude irakiar armadak beren kontra gasak erabiliko dituela eta, ebentualtasun honen aurrean, milioi bat baino gehiagok erbeste-terako bidea hartzen dute eta Turkia eta Irak-eko muga zeharkatzen duten mendietatik barna abiatzen dira, Iran-erako norabidean. Nazioarteko iritzi publikoa kurduen alde ateratzen da eta NBE behartua sentitzen da haiei laguntzak ematera. Aliatuak, lehentxe-

go haiek zapaltzeko estrategian parte hartzen zuten berberak, orain ongile bihurtzen dira, kurduentzat nazioarteko babes-zonalde bat sortzea proposatuz eta “Provide Confort” egitarauaren¹⁰⁶ bidez erre-fuxiatuen itzulera zaindua bideratuz. Honela, atzerritik datorkien aldeko giro orokor honen barruan, negoziaketak mamitzen dira alderdi kurduen eta Saddam Hussein-en artean. Irakiar armada Arbil eta Sulaimaniya-ko hirietatik erretiratzen da 1991ko urrian eta, orobat, liberatutako zonaldea 1974an sortutako erregio autonomo-ra baino harago zabaltzen da. Hurrengo urtean, 1992ko maiatzean, kurduen Batzar Nagusia hautatzen da eta honek urrian Iparraldeko Irak-eko kurduen Estatu Federala aldarrikatzen du (Ternon, 1995, 380-384). Baina honen arrakasta biziki ahula izanen da. Ez du etorkizunik izanen.

Egun han gertatzen denaz asko ez badakigu ere, badirudi Akra, Kirkuk eta Kanaquin-en gobernu baasista garbiketa etnikoaren politika gauzatuz datorrela, 1998ko hamarkadatik gaurdaino.

1.4. Kurduen nazio-askapenerako zailtasunak

Hemen kurduak bere nazio-proiektua aurrera eramateko dituzten arazoak aztertuko dira. Orain artekoa maila deskriptiboan azaldua izan da. Orain, esandakoan oinarrituta, sintesi gisa, kurduen erresistentziak zergatik ez duen behar adinako arrakasta lortzen arazoitzeari emango zaio tartea.

Lehen zailtasuna egiturazkoa da, hots, kurduen herria estatu desberdinetan zatituta egoteari dagokiona. Hau da, zalantzarik gabe, sakonena.

Lurralde-barreiaketa honek kurduen nortasunean ondoriorik ekarriko du. Beren artean nahasketak handituz etorriko dira: bate-tik, kurduak hizkuntz talde hurbil baina desberdinetan (hauen artean, *kurmadj*, *soran* eta *zaza* izenekoetan) bananduta aurkitzen dira eta, bestetik, erlijioaren aldetik ere, gehienak *sunniak* baldin badira ere, tribuak *sufi* desberdinekoak, hots, “naqsbandi” eta “qadri” kofradiakoak dira. Horregatik, tribu desberdin hauek alderditan antolatuta badaude ere, tribalismoak, sufismoak eta klanen arteko odol-zergek indar handia dute. Honela, kurduen familiak bere kultur esparrua baldin badu ere, elkarren artean sarritan gatazkan dauden estatu desberdinetan barreiatuta baitago Kurdistan-go

herria, estatu hauek kurduak tresna gisa beren artean zatitzeko erabiltzen dituzte.

Beraz, oinarrizko datua da zatiketa hori gertatu zenean, kurduak ez zutela lortu beren estatua eta geroztik, estatu horietan gutxiengoa direnez gero, zapalkuntza sistematikoa jasanez datozela. Honek ondorioz ekarri duena izan da, sedentarismoak, hirigintzak eta populazio-aldaketek erabat hondoratuta utzi dutela kurduen garai bateko tribu-egitura. Kurduak oro nazio-proiektu komun batean elkartu dituen erakunde koherente eta azkarrik ez baita ematen, hortxe datza, hain zuzen, kurduen mugimenduari darion kontraesan nagusia. Nahiz eta badaramatzen 75 urte baino gehiago borroka armatua egiten, kurdu-nazionalismoak ez du oraindik arrakastarik izan (Ternon, 1995, 378).

Egun 22 milioi kurdu inguru dituen Asiako eskualde hau Turkia, Iran, Irak, Armenia eta Siria-ko estatuetan banatuta dago eta hauetan nazio-arazoak gordin-gordinik segitzen du. Alde honetatik begiratuta, aterabide zaila ikusten zaio. Euskal Herria egun hiru administrazioetan zatituta dago, baina bi estatutan. Bada alde! Nazio-askapena planteatzen den kasuetan, honelako konparaketak eginez hobeto azalarazten dira aldeko eta kontrako elementu estrukturalak.

Bigarrena, neurri batean arestian aipatutako lurralde-barreadura horretatik datorrena da, zeinaren ondorioz kurduen mugimendu eta alderdien artean ez baita politika-batasunik ematen ez estatuarteko erakundeetan ezta estatu-barrukoetan ere. Estrategia komun baten ezak asko zailtzen du kurduen kausa orokorrak arrakasta politikoa izan dezan. Eta estatuak ederki baliatzen dira kurduen deskoordinazioa horretaz haiek beren artean zatiturik edukitzeko. Irakeko kurduen eskualdean, adibidez, anaien arteko gerrak hautsirik dauka bertako nazio-proiektuaren alternatiba. Izan ere, horko bi alderdi nazionalista nagusiak, Kurdistan-go Alderdi Demokratikoa eta Kurdistan-go Batasun Patriotikoa, biak elkarren kontra jarriak daude jadanik 1994az geroztik, eta hainbesteraino daude etsaituak, horietako batek, zehazki lehenengoak, 1996ko abuztuan irakiar armadaren laguntza eskatu baitzuen. Sadam Husseini hau guztia ezin hobeto zetorkion, zeren, Kurdistan-go Batasun Patriotikoa ahultzeaz gain, maniobra horren bidez petrolioa esportatzeko egin da dagoen oliobidea pasatzen deneko lurraldea kontrolatzen duen kurduen talde batekin aliantza bat burutu baitzuen (Belmonte de Rueda, E.; Marorell, M., 1996, 262-263).

Hirugarrena, azkenik, beste hau da: Kurdistan azpian daukaten estatu multinazionalak ez daudela prest kurduen errebindikazio nazionalistei amore emateko. Estatu hauek moneta-truke gisa erabili izan dituzte kurduak estatuen arteko gatazketan.

Adibidez, lehen aipatutako Iran eta Irak-en arteko gerrakoan, Sadan Hussein-ek, Iran-en kontra laguntzarren truke, kurduak 1984an autonomia agindu zien, baina eman ez. Horregatik, 1991ko Pertsiar Golkoko gerra piztu zenean, Irak-eko kurduak altxatu egin ziren, Hussein kurduak autonomia emateko negoziatioak ematera behartuz eta, esan bezala, Kurduen Estatu Federala sortuz. Baina ez Turkiak eta ez Iran-ek ez dute nahi kurduak estatu independentea izan dezaten.

Kurdistan-go Langile-Alderdia gerrilla eginez dator 1984az geroztik. Baina turkiar armadak, “heriotzako eskoadroiak” izeneko milizien laguntzaz baliatuz, gogorki zapaltzen ditu kurdu nazionalistak, hauengan egiazko masakreak eginez. Sei hiri eta hirurehun herri baino gehiago mapatik ezabatuak izan dira. Paraleloan, desinformazio-kanpaina mediatikoaren bidez, gobernu zentralak Kurdistan-go Langile-Alderdia satanizatu egiten du eta turkiarrak horien kontra borrokatzeko batasun saindu batean elkartzen saiatzen dira.

Bestalde, Iran-go gobernuak ere ez du inolako interesik kurduak laguntza luzatzeko, bere mugen barruan baitu Kurdistan bere 5.000.000 biztanlerekin. Orain arte hemendik zetorkien laguntza apurra, baina jadanik ahitua da babes-iturri hori.

Ez dute nahi ez Siria-k eta ez nazioarteko komunitateak ere, guztiok beldur baitira, Kurdistan-ek bere subiranotasuna lortuz gero, Irak zatituta geratuko dela. Nazioarteko komunitatearentzat, zehazki, bai Turkia eta bai Irak fundamentalismo islamikoaren kontrako bi bastioi dira eta hark, honen atzaparretan erori baino nahiago du kurduen bizkar jausten den genozidioari bide eman.

Mundu guztiak ezagutzen du kurduen errealitatea benetan mingotsa dela. Europako Parlamentuak 1992ko irailaren 17an batzar bat egitea eskatzen du kurduen arazoaren gainean. Kurduen arazoa egiazkoa dela onarturik ere, nazioarteko komunitateak ez ditu hartzen gatazka-egoera hori gainditzeko bitarteko eraginkorrak. Esan dugu zergatik: kurduak ahulak dira, ez daude elkartuta eta, batez ere, ez dute guztiak batuko lituzkeen estaturik. Laburki esanda: estatuen gainean eraikitako nazioarteko komunitateak ez du onartzen estaturik gabeko nazioen nazio-proiektu subiranorik.

2. Bangladesh

Bengala-ko golkoan aurkitzen den Asiako estatu berri honen urrutiko eta hurbileko historia Pakistan-go lurraldeari hertsiki lotua baitago, hemendik abiatzeak asko argituko digu Mikel Urteaga “Baigura”ren “Bangladox” artikulua¹⁰⁷ eduki eskematizatua ulertzen. Ezaguna bada ere, esan dezagun azken lurralde hau, K. a. mendetan arioen, pertsiarren eta Indiako Magada erresumaren menpekoa izan zela, eta K. o. mendetan, berriz, Indiako Gupta dinastiako, hunoen, musulmanen eta, XVI. mendetik aurrera, Indiako mongolen inperiopekoa. XX. mendean bertan bizi ziren musulmanen eta Indiako hinduen arteko harremanak erabat gaiztotu egin baitziren, 1940an Ali Jinnah-ek britainiarren menpeko musulmanak elkartu egin zituen estatu musulman bat sortzeko asmoarekin eta, britainiar kolonialismoaren hedeak hautsiz, gehiengo islamdarreko lurraldeek osatutako Pakistan-go estatua eraiki zen 1947an, bertako lurralde bitan zatituta geratu zelarik: batetik, Mendebaleko Pakistan deitua eta, bestetik, Ekialdekoa edo Bengala-koa. Batetik bestera 2.000 kilometroko tartea dago. Erljioa dute batera: musulmana; beste gehiena, bakoitzak berea. Mendebaldeko Pakistan-ek, egun ehun milioitik gorako biztanleriarekin, *urduera* du hizkuntza ofiziala eta berak dauka botere politikoa eta berak kontrolatzen du ekonomia. Lurralde menditsua da eta hango klimak Arabiar Ekialde Ertainera hurbiltzeko joera du. Ekialdeko Pakistan-en, hau ere ehun milioitik gorako biztanlerekin, % 95eko batek erabiltzen duen *bengalera* da bertako hizkuntza ofiziala. Hango lurraldea, funtsean, nekazaritzari emana da, pobrea, jaiotzetan, haur-heriotzetan eta analfabetismoan munduko tasarik garaienetakoa bat duena (Ternon, 1995, 299).

Baina independentziarekin, Ekialdeko Pakistan-ek lortzen duen bakarra hauxe da: hots, kolonizatua eta ustiatua sentitzen dela. Horregatik, Awami Ligak, une hartan bizi zen krisi-atmosfera, demokraziara itzultzea eta Pakistan federatu baten barruan autonomia erregionala lortzea proposatzen du. Honela, bi Pakistan-en arteko zatiketa egin eta hurrengo hamarkadan, 1956ko Konstituzioak Islamdar Errepublikak ezarri zuen, Ekialdeko zein Mendebaldeko Pakistan biak federatuz. Federazio honek ez zuen iraun, zeren 1971n Ekialdeko Pakistan-ek, Indiaren laguntza armatuari esker, independentzia eskuratu baitzuen egungo Bangladesh izena hartuz. Baina hemen azpimarratu beharrekoa, batik bat, hau da: alegia, han

ere subiranotasuna lortu, ez onez, baizik odola isuriz lortzen dela. Zentzu honetan, nazio-askatasunaren lorpen honetan Ligak ere izan zuen bere partea. Izan ere, 1970eko hauteskundeetan berak irabazi zituen bertako ia aulki guztiak. Ligakoek, greba orokorra eginez eta kale-manifestazioak sustatuz, gobernua negoziatzera behartu nahiko dute, baina asmoak porrot egiten du, Pakistan-go armadak haren errebolta armatua zanpatuz eta jende zibila garbituz erantzuten baitu. Hemen ageri da botere zentralak nola erantzuten dien eskabide demokratikoei, nahiz hauek gehiengoari dagozkionak izan. Genozidio garbia praktikatzen du gobernua. Baina bere jokabidean biziki zuhurra agertzen da iritzi publikoaren aurrean. Egiten ari den bere hilketak neutralizatzeko, Awami Ligak egindako basakerien gainean *Liburu zuri* bat argitaratzen du eta hor botere zapaltzaile eta hiltzailea bera bihurtzen da zapalduen salatzaile. India-ra jotzen duten erbesteratuen uholdea hain da handia, India-ko armadak, 1971ko abenduko 2tik 15eko kolpe-aldian, Bengala-ko pakistandar armada errenditzera behartzen du. Baina Pakistan-en eta India-ren arteko gerrak 1971-77 epealdian zehar irauten du. Harez gero, hango politikan estatu-kolpeak eta buruzagi politikoen hilketak bata bestearen segidan etorriko dira.

M. Urteaga “Baigura”ren artikuluan (3, 1973, 25) Bangladesh-ek bere independentzia eskuratzen duen urtean bizi duen ekonomiazko zein hezkuntzako egoera larria honela nabarmentzen da:

“Garaipena erdietsi den arren, Bengalako lehen ministroak badu zenbat buruhauste; Ekonomia gerlak lurreratu du, eta egoera triste honetan segitzen du. Janariak urrin dira, nahiz bide batez zuzendariak aiserian bizi diren. Laborariak berriz, zorretan leporaino sartuak dira, haien kontura bizi dira laborantzako aberats espekuladoreak; bestalde, batez ere lur-zati baten jabe ez diren horiek, jauntxo horiengandik jasotzen dute bizitzeko dirua, eta gero, hartutako diru hori hiru aldiz handituta itzuli behar! Lanik gabe diren laborari horiek, lanerako adinean direnetarik % 30(ek) egiten dute. Edukazio sistemak, klasikoa baita Indiakoa bezala, ‘xomaxtar edukatuak’ sortzen ditu, eta ez du moldatzen laborantza aitzinatuko duen gazte presturik”.

Bangladesh-eko Herri-Errepublikak nola funtzionatzen duen dator segidan: a) klase politiko berria sortzen da, batez ere, hirietako burgesia eskolatutik eta laborari-herri handietatik etorritakoez osatua eta, hain zuzen ere, laborariak dira klase burges hori

boterean jarri dutenak; b) jainkotzat daukaten Mujibur Rahman lehendakariak erregimen feudalean bezalatsu gobernatzeko du herria; c) pakistandarren eskuetan zeuden fabrikak nazionalizatzeko neurriak hartzean, estatuaren kapitalismoa sortzen da; d) alderdi komunistakoak eta ezkerreko iraultzaileak ez dira konpontzen, eta hauen aldizkariak debekatzen dituzte; e) nazioarteko laguntza, Gurutze Gorriaren bidez datorkiena, bertako jauntxo usteldu batzuen esku dago; f) iparramerikarrek leku pribilegiatua dute bertan eta Lehendakariaren “demokrazia” laket zaio Washington-i. Hona hemen “islamdar sozialismo” izeneko politika honek barruan ezkutatzen duena. Hau da Urteaga “Baigura”^{k108} 1973ko Bangladesh-eko estatu sozialistari buruz eskaintzen digun irudia.

Egun, demografiari dagokionez, herrialde txit populatua da, 113.005.000 biztanle inguru dituena. Bere ekonomia nekazaritzan oinarritzen da, % 75,6 landan bizi delarik. Hizkuntza ofiziala, *bengalera* da eta erlijioa, berriz, *islama*. Era berean, talde etniko nagusia, % 97,7ko portzentajearekin, *bengaliarra* da.

Bangladesh independente honen barruan, ordea, ematen da nazio-zapalkuntzarik (Ternon, 1995, 299-302), kasu guztietan izaera berekoa ez dena. Horregatik, kasu bakoitzaren gibelean dauden arrazoiak zehaztu beharra dago.

Lehen kasua *bihariena* da. Bere independentzia inauguratzen duen unetik bertatik hasten da Bangladesh *bihariak* sistemaz zapaltzen. *Bihariak* India-ko ekialdean bizi ziren Bihar-ko estatuan¹⁰⁹. Horko Bihar izeneko hirian gutxiengo musulmana osatzen zuten eta beren hizkuntza egiten zuten.

Biharien komunitate hau Pakistan-en batasunaren aldekoa zen eta, zatiketa egin zen unean, batzuek Ekialdeko Pakistan-era emigratu zuten; bertan geratu ziren beste batzuk, ordea, sarraskituak izan ziren 1971ko martxoan.

Bihariak, pakistandar batasunaren aldekoak izanik, Bangladesh-en independentziarekin, birkolonizatuak sentitzen dira, hots, kolonia izandako baten kolonia. Bangladesh independenteak, bere aldeetik, pakistandar nazionalismoaren sinbolotzat hartzen ditu, horien aliatu armatutzat eta Bangladash-en Pakistan-go armadak egindako krimenen erantzuletzat. Salakuntza da biharitar gazteak pakistandar “razajars”en talde paramilitarrean sartuta daudela. Horregatik ekiten dio horien kontrako zapalkuntza sistematikoari, barruko etsaia bidetik kentzen ahaleginduz. India-ko armadak 1972an handik erre-

tiratu arte zaindu ditu. Baina geroztik milaka *bihari* atxilotuak, espetxeratuak edo desagertuak izango dira. Besteak hautatu beharreen aurkitzen dira, edo Bangladesh-en geratu eta bertan txertatu, edo India-ra edo Pakistan-era joan. Bietatik bat. Baina azken bi estatatu hauek ez baitituzte hartu nahi, 730.000 bihari inguru kanpamentutan aterpetuta geratzen dira.

Alderantzizko kasua da Birmania-ko mugan aurkitzen den Chittagong probintziako gutxiengo ez-musulmanen kasua. Hauek beren autonomia politiko eta kulturala eskatzen dutelako eta eska-bide hauetan sesesio-arriskua ikusten duelako militarki zapaltzen ditu Bangladesh-ek. Zapalkuntza militarraz gain, Kurdistan-go kasuan ikusi bezala, gutxiengo horiek beren eskualdetik atera eta haiek utzitako lekuetan bengaliarrak kokatzen dira.

Bi kasu hauek, biak Bangladesh independentearen baitan dauden gutxiengoei dagozkienak badira ere, beren izaera politikoaren aldetik begiratura, ez dira berdinak. Biek salatzen dute, bai, Bangladesh-ek lortutako estatu independentea, baina ez arrazoi beragatik: bihariak pakistandarren aldeko nazionalistak diren bitartean, gutxiengo ez-musulmanek beren askatasun nazionala eskatzen dute. Azken kasu honek luke antzik gehien euskal kasuarekin.

Dena dela, esanaz gain, ohar batzuk egin beharra dago hemen:

Bat: Historian konstatatzen den fenomeno da atzo zapalkuntzaren biktima izandakoak, iraultzaren hurrengo egunean, boterera iristen direnean, zapalkuntza berrien berdugo bihurtzen direla.

Bi: Nazio-zapalkuntzen zergatiak kasu bakoitzean desberdinak direla, aipatutako biharien kasuan bezala.

Hiru: Printzipio orokor gisa onartua da, beti ere teori mailan, zapalkuntza sistematikoa eragiten duten arrazoiak modu batekoak ala besteak izan, kausa zuzenari lotuak ala ez, hilketak ezin direla onartu. Baina zein hilketa-kasu sartzen den genozidioan eta zein ez zehazteko orduan, nazioarteko legerian ez dira beti irizpide berberak erabiltzen jokabide praktikoan. Adibidez, 1972an, Legerarien Nazioarteko Batzordeak erabaki zuen Pakistan-go armadak 1971n Awami Ligakoen kontra egindako mota guztietako sarraskiak “genozidioaren” kasu tipikoan sartzen zirela, sarraskia indar diziplinatu batek politika deliberatu batez eragindakoa zelako. Bengaliarren ez-bengaliarren kontra egindako sarraskiak, aldiz, ez dira genozidioren kategorian sartzen, esaten denez, bortxa-mota hau herritarrek berez eta ero-bultzaz egina delako.

Beti da arazo konplexua herri oso bat desegiteko plangintza politikoa zein kasutan ematen den garbiki zehaztea. Baina arazo honetan NBERen jokabidea interes kontraesankorrenez josia dago. Ez gara oso desbideratuak ibiliko baldin badiogu NBE baitan, gehiengotan, nazioarteko beste antzeko erakunde handietan ohi denez, bertan nagusi diren estatu indartsuenak gailentzen direla. Bangladesh-en kasuan, Txina-k eta Estatu Batuek Pakistan-i laguntzen diote, eta SESBk, berriz, India-ri. Giza Eskubideen Batzordean izandako eztabaida batean, Pakistan-go ordezkariak bere herrialdearen nazio-subiranotasuna libreki gauzatzeko zeukan eskubidea inbokatuz justifikatu zituen sarraskiak. Beraz, estatu subiranoak badu gutxiengo baten kontra asainatu kolektiboak egiteko eskubidea; autodeterminazioko eskubidea, ordea, ez zaie aplikatzen estatu partaideen menpean aurkitzen diren herri zapalduai.

Bangladesh-en kasuak oso agerian uzten du NBERen jokabide kontraesankor hau. Batetik, NBek oso berandu arte ez du parte hartzen Bangladesh-eko arazoan, zeren 1971. urtera arte, hari ez baitzaio autoteterminatzeko eskubidea aitortzen. Arrazoa? Esan da: potentzia handien arteko interes-gatazkak tartekatzen direla. Gero, Bangladesh-ek bere independentzia lortzen duenean, honek bere menpeko gutxiengoak zapaltzeko irizpide berbera erabiliko du, hots, estatu subiranoari dagokion eskubidearena, haiei autodeterminazioko eskubidea ukatuz. Eta berriro NBek, orain Bangladesh-en subiranotasuna lege-oinarritzat hartuta, hango gutxiengoaren eskubide demokratikoak –hauen artean autodeterminaziokoa–, ukatu egingo ditu. Badirudi azken batean, estatua dela eskubide horren subjektu bakarra.

VI

Nazio arazoak Mendebaldeko Europan

“Si bien ETA dejó constancia de solidaridad y apoyo hacia respuestas armadas en diversos punos (Kurdistan, Vietnam, Uruguay, Argelia, etc.), fue el Primero de Mayo en 1972 cuando se presentó públicamente con otras dos organizaciones, manifestando un acuerdo común con ellas. Ambas serían, como ETA, movimientos de liberación europeos: el FLB bretón, y el IRA” (*Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la Libertad*, III, Txalaparta, 105).

Europako Mendebalde aurreratuan asko dira estatu nazionalak edo, hobeto esan, multinazionalak eraiki zirenean estatu-botererik gabe geratu ziren nazio etnikoak. Europako mapa etnikoak hala erakusten du. XIX. mendeko ikertzaile argituek iragarri zuten herri hauek historiaren trena galdu zutela eta, inolako irizpide kritikorik gabe, XX. mendekoek –ez gutxiago argituek–, hitzez hitz errepikatu izan dute haiek esana. Kolonizazioaren prozesua azkartuz bazetorren ere 1940ko hamarkadatik aurrera, NBek ez zituen gutxiengo etnikoen eskubide indibidualak baizik onartzen bakoitzari zegokion estatuaren barruan. Autodeterminazioko eskubidearen printzipioa, Lenin-ek teorian 1914an aldarrikatu zuena, herrialde kolonizatuen kasuan bakarrik aplikatuko da NBEn (1960), eta hori SESBk bultzatuta. Honek garai hartan ez baitzeukan bere koloni lurralderik, egoera onean zegoen beste estatu kolonialisten aurrean eskubide horren errebindikazioa egiteko. Baina printzipio hori praktikan jartzeko orduan, SESBk ere ez du koherentziaz jokatu, batzuetan alde eta besteetan kontra, arazoa ematen zeneko gizarte-koiuntura jakinen arabera. Adibideak emanda daude aurreko ataletan azaldu ditugun kasuetan.

Mugimendua ibiliz frogatzen den bezala, beren subiranotasuna nahi duten nazioak badirela, praktikan, erresistentziaren bidez frogatu behar izan da. Eta Mendebaldeko Europa honetan, indar gutxiagorekin ala handiagorekin, badira mugimendu nazionalak, xedetzat independentzia aldarrikatzen dutenak eta, bitarteko gisa, bide instituzionalak zein ez-instituzionalak erabiltzen dituztenak. Maila honetan sartzen dira, besteak beste, Irlanda eta Euskal Herriko nazio-arazoak. Euskal nazionalismoaren arazoa etengabe presente baitago *Zabaleko* orrialde ia guztietan, hemen Erresuma Batuko nazio zapalduena bakarrik dakargu.

1. Erresuma Batua

Orain arte *Zabalen* bidez aztertu ditugun herri-arazoak, funtsean, deskolonizazioaren prozesuan sartzekoak dira, aski garbi Ekialde Ertaineko estatu berrien kasuetan. Palestinaren kasuaren izaera, gure ustez, bestelakoa da, koloniala baino gehiago nazionala. Koloni arazoen artean sartu badugu, gehienbat, irizpide geografikoengatik izan da. Europako Mendebaldean, orobat, Irlandak britainiar kolonizazioaren historia luzea du atzetik. Hangoa arazo nazionalen kasuan kokatu dugu, halere, pentsatuz –zer esanik ez 1970eko hamarkadako Ipar Irlandan–, ez direla Hirugarren Munduko herrialde atzeratuei dagozkien gizarte-egiturak ematen.

Irlandako nazionalisten iraultzak gurean eragin handia izan baitzuen, bere garaian Sinn Fein-ek bezala geroago IRAk, 1975ean Laicester-en nengoelarik, Erresuma Batuko herri zapalduen *Zabal*-erako lan monografiko bat prestatu nuen. Lehenengoan, Britainia Haundiko Gales eta Eskoziaren kasuak aztertzen dira, eta bigarren-goan Irlandarena¹¹⁰. Lan honetarako, egia esan, ordura arte esku-raezina izan zitzaidan iturri bibliografiko hornituago baten laguntzaz baliatu ahal izan nintzen.

Ez goaz orduan idatziak hemen transkribatzera, ezta aldatzera ere, zeren, funtsean, zenbait puntutan zer hobeturik balukeen arren, herrialde horietako nazio-arazoaren funtsa zertan datzan muinmuinean planteatua baitago. Halere, *Zabalen* argitaratutako artikulua gehienak koloni lurraldeetako arazoez ari baitira, egokitzen jotzen dugu Erresuma Batuan nazio zapalduen daramatzaten borroka nazionalen ezaugarri nagusiak bederen eskaintzea, Europako Mendebal-

dean nazionalismoak nolako izaera hartzen duen ikusi ahal izateko. Betiere kontuan izanda artikuluko horiek idatziak izan zireneko garaia.

Bidenabar, esan behar dut lehenago ere *Zabalen* bertan, 1974ko 9. zenbakiko 3. orrian, Jokin Apalategik egina zuela Irlandaren aipamena, esanez Irlandarena ez zela eredu bat Euskal Herriarentzat. Datu batzuk aurreratzen ziren, baina ez zen egiten azterketa zehatzik. ETArekin IRArekiko mimetismoa salatzeraz zetorren harena.

Has gaitezen britainiar estatuaren garapena azaltzen.

Herri zapalduak ez baita herri zapaltzaileak gabe, orduan ukitzeko utzitakoa osatzeko, puntu hau zerbait aipatu nahi genuke: egun Erresuma Batukoa den estatua noiz eta nola sortua den eta zein berezitasun dituen, alegia. Ezaguna den bezala, Erresuma Batuko estatu-erakundearen prozesua oso berezia izan zen, ia bederatzi mendetan zehar (XI-XIX) iraun zuena¹¹¹. Bera da Europako estaturik zaharrena, sorrena-datatzat 1066. urtea ezarri ohi dena, Normandiako Gilermo I.a Konkistatzailea (1028-1087) orduan jabetu baitzen irla hartaz, berarekin batera eramandako 600 normandiarren bidez bertan sistema feudala ezarriz. Hortik sortuko da ingeles noblezia. Geroztik, normandiar erregeek aurrerapen handiak egingo dituzte estatua zentralizatu eta sendotzen. Enrike I.ak (1100-1135) *Exchenger-a* edo departamentua sortu zuen, eta Enrike II.ak (1154-1189) administrazioa eta justizia garatu zituen. Garai haietan, erregeak kargu publikoetatik normandiar nobleak kentzen eta hauen lekuan klerikoak eta saxoniarrak juristak jartzen hasi ziren, noblezi boterea ahuldu eta errege-boterea handitzeko helburuarekin. Aldi berean, lurralde-batasunaren prozesua hasi zen, 1171n irlandar printzeen eta 1174an Eskoziako erregearen basailutza lortuz. Datu hauetan oinarrituta, batzuen ustez¹¹², ingeles estatuaren sorrera XII. mendean ezarri beharko litzateke.

Joan Lurgabearen erregealdian (1199-1216) prozesu zentralizatzailea geratu egin zen, besteak beste, beste aliatuekin batera, hauen artean Oton IV.a germaniar enperadorearekin, Frantziar gerrak egiten ibili zelako, porroten saldoarekin, gainera. Gertakari militar negatibo horiek Ingalaterrako nobleen altxamendua eragin zuten eta hauek, lehenik, erregea "Magna Carta" 1215ean izenpetzera eta geroago, 1254an, haren seme Enrike III.a (1216-72) Parlamentua sortzera behartu zituzten. Parlamentuak berehala hartu zuen indarra eta jadanik 1295ean sendotuta aurkitzen zen. Hurrengo mendean, 1330ean, urteroko bilerak egiten zituzten, 1343an bi Ganbarak ba-

karka batzartzen ziren eta 1377an lehen *speaker*-a edo lehendakaria hautatu zen.

Bi gertakari horiek izango dira, hain zuzen ere, ingeles konstituzionalismoaren zutabeak, geroztik estamentuen arteko demokraziaren adibide historiko gisa hain aipatuak izango direnak. Bi erakunde hauen ezaugarri nagusia da –batez ere, European absolutismoa nagusitu zen garaian–, haiek zutik iraun zutela. Ingalaterrako estatuak Europako beste estatu zaharrekin duen oinarrizko desberdintasuna, beraz, hauex da: han, absolutismoa ahulagoa izan zela eta estatu modernoaren sorrerak ez zituela desegin Erdi Aroko erakundeak. Aristokraziak eta burgesiak zuzendutako erakundeen bidez garatu zen hango estatua. Badira, bestalde, euskal foralismoaren eta ingeles konstituzionalismoaren arteko kideetasuna nabarmentzen dutenak ere. Baina honetaz mintzatu ahal izateko, azterketa konparatiboak egin beharko lirateke, juridiko soilak ez ezik, baita soziohistoriko eta politikoak ere.

Baina Ingalaterran estatu modernoa eraiki, Tudor dinastiakoen garaian (1485-1603) eraiki zen. Lau arrazoi hauek aipatu ohi dira¹¹³: a) Erdi Aroko erakundeak ezabatuz gero, antolakuntza politiko modernoa eratzen da; b) erregetza nagusitzen da Parlamentuaren eta nobleziaren gainetik, Kontseilu Pribatu baten bidez gobernatuz, zeinak, “Act of Proclamations” edo Aldarrikapen-Akta (1539) delako organoarekin, legegintzarako eskuduntzak hartuko baititu; c) Parlamentuaren krisia gertatzen da, zeinak, subiranotasunaren subjektua den arren, gertatzez ez baitu botererik; d) saxoniar jatorriko gizarte-klase berri bat sortzen da, Ehun Urteko (1337-1453) eta Bi Arrosen (1455-85) gerren kontura aberasten dena, bitartean nobleziaren boterea asko ahultzen delarik.

Goiko arrazoi horiez gaien, estatu moderno hori ezaugarritzen duen beste oinarrizko datu bat ere bada: hots, Tudor-en erregealdian bideratzen dela bere menpeko nazioen birkonkista. Enrike VII.ak (1485-1509) birkonkistatzen du Irlanda 1494an; haren seme Enrike VIII.ak (1509-47) aldarrikatzen du Batasun-Akta (Act of Union) 1536an eta, honen ondorioz, Gales –jadanik 1290ean konkistatua zena–, Ingalaterrari atxikirik geratzen baita.

XVII. mendean, 1603-1688 epealdian zehar, Ingalaterrak garai trumoitua ezagutzen du, zeinetan Tudor dinastikoek 1587an botere lokalak zentralizatu eta Parlamentua menpean hartzeko asmoarekin hasitako politikak porrot egiten baitu eta 1641ean parlamentu-erregimenari ematen baitzaio bide “Petition of Frights”en onar-

pena lortuz. Ondoko mendeetan, 1688-1832 epealdia parlamentu oligarkikoaren garaia da, botoa emateko eskubidea herritarren % 4ek bakarrik baitu. Halere, garai honetan eratzten dira oinarrizko erakundeak: hots, monarkia konstituzionala 1689an, botere judizialaren antolakuntza autonomoa 1701ean, eta gobernua Parlamentuaren baitan gorputzeratzea.

Azken epealdi horretan lortzen da, hain zuzen, Erresuma Batuen lurralde-batasuna. Gilermo III.a Orangeoak, Ingalaterrako Jakobo II.a uzkailei ondoren errege (1689-1702) bilakatuko denak¹¹⁴, menperatzen du Irlanda 1690ean. Eskozia eta Ingalaterra, erresuma desberdinekoak baziren ere, 1603az geroztik maila pertsonalean errege edo erreginari berari atxikirik zeuden; biak 1707an bat eginik, Britainia Haundia deituko zitzaion erresuma berekoak izatera pasatu ziren. Bi nazio hauen uztarketa, bada, neurri batean borondatezkoa izan zen, ez bortxazkoa Irlandaren kasuan bezala. Azkenean, 1800ean, sortzen da Britainia Haundiko eta Irlandako Erresuma Batua, zeinetan bi irlotako Parlamentuak elkartzen baitira, Lord-en Ganbaran hogeita bi irlandarrek eta Komunuen Ganbaran ehunek parte har zezaketelarik.

Erresuma Batuen historian, bertako herrialde menperatuen XVI. mendean hasten da gauzatzen. Gure artikuluetan politika konkistatzailea nola eramaten den eta herrialde horien egoera 1975ean zer-nolakoa den azaltzen da, datu soziologikoak emanez. Lan honetan abiapuntuko datua da Gales 1536an, Irlanda 1570ean eta Eskozia 1707an Britainia Haundiko estatu-administrazioan sartuta aurkitzen zirela eta ordudanik herrialde horien nortasun-ezaugarrietan aldaketa nabariak ematen direla, batez ere, hizkuntz ohituretan. Menerapen politikoak berarekin ekarri zuen estatu-nazio zentralistaren hizkuntz uniformetasunaren ezarpena. Zentzu honetan, erabakigarria gertatuko da 1870eko legeak ingelesa Erresuma Batuko hizkuntza bakartzat ezarri izana Gales, Eskozia eta Irlandan. *Zabaleko* testuari jarraiki, herrialde horietako bakoitzaren bilakabidea aztertuko da.

2. Eskozia

Herrialde hau, bere Parlamentua utzi eta Britainia Haundikoan zergatik sartzen den galdetzen bada, erantzuna da lekuko jauntxoek bazituztela beren interes ekonomikoak batasun honetan:

“Eskoziako goi-jauntxoek horretan interesaturik zeudelako, naski, zeren kolonia-herriekin zuten merkatalgo libroan ez bai zezaketen eskurik sar beraiekin kontatu gabe. Eta kontatzeko elkartu egin behar! Bistan da herri xeheak arras gaizki hartu zuela kolonizazioaren interesetan bakarrik egina izan zen batasun hori” (Iztueta, 13, 1975, 15-16).

Batasun horren aita, bada, bertako noblezia da. Industri iraultzan parte hartuz, azkenean Ingalaterrako burgesiarekin elkartuko da. Klase honen portaera jarreraz eta jokabidez ingelesa da, izan, eta ingeles nazionalismoarekin bat egingo du. Hauek beren haurrak ingeles eskolan heziko dituzte.

Nazionalismoa nahikoa berandu agertu zen Britainiar Irlan: Galesko “Plaid Cynru” 1925ean eta “Scottish National Party” 1928an. Gure artikuluan, Eskoziako legegintzarako hauteskunderen taula dator, 1929-1970 bitarteko epealdia besarkatzen duena. Eta hor ohargarriena, zera da: gobernuan txandaka agintzen duten alderdi estatalistak –kontserbadoreak eta laboralistak, alegia–, nagusitzen diren arren, Eskoziako Alderdi Nazionalistak (SNP) ere beti gora egin duela: 1929an botoen % 2.4a baizik ez zituen, 1970ean % 11,4 eta 1975ean, berriz, 30era igotzen da. Gorakada nabaria da. Nazionalismoaren kontzeptuaren eduki semantikoa asko zabaltzen denez, zehaztuko dugu esanez nazionalista horien artean, % 80 askatasun handiago baten aldekoak, hots, autonomistak direla, eta % 17 bakarrik independentziaren aldekoak. Egun independentzia aldarrikatzen du, estatu zentralaren onarpenarekin. Gertakari esanguratsua Europako egungo mapa politikoan.

Bestalde, iturriek diotenez, badirudi alderdi nazionalista horien sorreran Irlandan 1920an eman zen mugimendu nazionalistak eraginik izan zuela. Eta hau, batik bat, nazionalisten sektore batek herri-askapenerako estrategia militarra hautatzean islatzen da. Herrialde bietan bideratu ziren talde armatuak, Eskozian 1960an “Scottish Liberation Army” eta Galesen 1963an “Free Wales Army” eta 1967an “Byddin Rhyddid Cymru” izenekoak, IRAren eredura antolatua. Baina ez zuten arrakastarik izan. Zergatik? Beste arrazoien artean, bi hauek aipatzen dira: batetik, bi herrialde hauen egoera soziologikoa, orokorrean hartuta, eta Irlandakoa desberdinak direla, eta, bestetik, Britainia Haundiko sistema politikoan gorputzeratuta dauden alderdi nazionalistek gaitzetsi egiten dituztela. Isolatuta geratzen baitira, bizia laburra izango dute. Galesko borroka armatua,

zehazki, 1968an egindako atxiloketen ondorioz, hurrengo urtean desagertu zen.

Eskoziako Alderdi Nazionalistaren errebindikazioak, garai honetan, kulturalak eta, bereziki, ekonomikoak dira. Lehen aipatutako Alderdi honen gorakada, hain zuzen, Eskozia ekonomi krisiak astintzen duenean ematen da, 1950az geroztik, alegia, langabeziak orduan uzten baititu milaka jende kanpoan: 1951-61 hamarkadan 300.000 lagun, eta hortik aurrera, urtero, 35.000 inguru. Bestalde, langabezia honek bere arrastoa utziz doan une berean, Iparraldeko kostaldean petrolio-putzuak aurkitzen dira eta horien ustiakuntzak Eskoziako errenta bikoiztea eta enplegua handitzea ekartzen du. Alderdi nazionalistak diru-iturri hori bereganatu nahi izango du, bere ekonomia hobetzeko xedarekin. Zentzu honetan, independentziaren aldeko hotsak ere aterako ditu Alderdiko Gordon Wilson buruzagiak 1974ko apirilaren 29an Oslon egindako hitzaldi batean, baina nazionalismoaren arazoa Westminster-ko Parlamentuan eztabaidatu zenean 1975eko otsailean, alderdi estatalek garbi adierazi zuten Eskoziako ekonomia Londondik gidatuko zela.

Geroztik, SNPren xede estrategikoa, sistema burges baten barruan Eskoziarentzat independentzia lortzea dela, idatzita ikusi dugu¹⁵. Agian, bai. Bistan da, Ipar Itsasoko petrolioaren kudeaketa kontrolatuz gero, batik bat, SNP egoera hobean egongo litzateke herriari ekonomi aterabide egokiagoak eskaintzeko, honek, batetik, inbertsio berriak egin ahal izatea eta, bestetik, enpleguak ugaritzea ekarriko bailuke. Ageriko interes ekonomikoak baleuzkakeen arren, zein neurritan den independentziaren aldekoa galdetzen hastea, erantzun zaileko arazoa da. Kabalak at, kontua da Eskoziak egun independentzia aldarrikatzen duela eta hori hauteskunde-bidez lortzeko estatu zentralaren onarpenarekin kontatzen duela. Gertakari esanguratsua da Europako egungo mapa politikoa, egoera bertsuan dauden gurea bezalako nazio zapalduentzat ate bat irekitzen duena.

Hizkuntza-politikari dagokionez, lehen esan bezala, Britainia Haundiak ingelesa ezartzen du; eskoziera azpiratua dagoenez, gero eta murriztagoa da gaelikoa erabiltzen dutenen kopurua: 1951n 96.447 hitzun eta 1961ean, berriz, 76.587 bakarrik. Bost milioiko populazioaren barruan, % 1,53ko portzentajea deus ez da. Hiriburuetan jadanik galdua baita, Iparraldean, 175.856 bizilagun besterik ez dituen eta bertako kultur tradizioak ondoenik gordetzen diren Highland-eko eskualdean bakarrik mintzatzen da. Artikulu hau egin eta gero, gaelikoa ez dela bortxaz menperatutako hizkuntza

bat izan eta hango kultur erakundeak ez direla indarrez baztertu, irakurri dugu¹¹⁶. Baina hizkuntzak legez ezabatzea, zer da orduan? Legeak ez ote du bere materialtasun osoa, berarekin bortxa sinbolikoa daramana?

3. Gales

Zabalek herrialde honi buruz ezer gutxi dakar. Ez dakit zergatik, agian eskuartean aski daturik ez genuelako, oso gaintetik ukitu genuen hari buruzkoa. Geroztik, bai, agertu dira hainbat lan, horien artean Txillardegirena *Jakinen*¹¹⁷ eta *Euskararen liburu zurian*¹¹⁸. Geroago ikasi genuen gerrate aurrean ere, 1920ko hamarkadan, Eusko Ikaskuntzako pedagogoen bazutela Galesko kultur pizkundearen berri, aski zehatza, gainera. Izan ere, Britainia Haundiko Instrukzioko Ministerioak elebitasunaren politika ofizialdu zuen 1907an, gehienbat haren koloni herrialdeetan egiten ziren hizkuntzen kopuru ugariak ingelesaren erabilera praktikan ezintzen zuelako. Ez da ahaztu behar Indian orduan 147 hizkuntza mintzatzen zirela. Elebitasunaren politika hau, batez ere, India, Irlanda eta Galesko hezkuntza elebidunaren aplikatu zen, ama-hizkuntzari sarrera emanez. John Hugues-ek¹¹⁹, J. Saer-ek¹²⁰ eta Franck Smith-ek¹²¹ ikerketa interesgarriak burutu zituzten Galesen bideratuko esperientziari buruz eta beren emaitza psikologiko-pedagogikoak Luxenburgon 1928ko apirilean P. Bovet-en zuzendaritzapean egindako Nazioarteko Batzarrean eman ziren ezagutzera¹²². Hauen tesia zen, lehen irakaskuntza ama-hizkuntzan eman behar dela, eta ama-hizkuntza ongi menderatuz gero, hortxe 9 urte aldera-edo, irakasten has zitekeela, ikasgai gisa, bigarren hizkuntza.

Euskal Ikaskuntzak deituta, Gernikan 1923an egindako Batzarrean mintzatu zen Alfred T. Davies jauna¹²³, Ingalaterrako Instrukzio Publikoko Ministerioan Galesko Saileko idazkari izandakoa, han bideratuta zegoen hezkuntza elebidunaren filosofiaz eta berroren egitekoaz. Geroago, 1931ko abuztuan, oraingoan “Euskaltzaleak” elkarteak antolatuta, Donostian eta Bilbon elebitasunari buruzko Euskal Batzarra ospatu zen eta han, beste hizlarien artean, Anizeto Olano kaputxinoa mintzatu zen hezkuntza elebidunaren egoeraz European eta bere hitzaldian, hain zuzen, Galesko hezkuntza-sistemaren funtzionamendua aipatu zuen¹²⁴.

Hango hezkuntza elebidunaren oraingo daturik ez dugu. Txillardegik (2, 1977, 69) zekartzan 1964koak bakarrik dauzkagu eskura, eta hauek benetan jakingarriak dira: galeserazko eskolatan 3.364 haur zebiltzan orduan, hots, % 1, 1 baizik ez; beste zenbait eskolatan, berriz, astean hiru orduz irakasten zen *kumriera* ikasgai gisa. Lizeoen mailan, bost lizeo elebidun zeuden, zenbait ikasgai ingelesez azaltzen zirelarik. Egoera eskasa!

Gales Eskoziaren aldean txikia da biztanlez: 2.721.201 lagun baizik ez zituen 1971n. Euskal Herriaren antzekoa. Urte berean, kopuru horretatik 560.000 lagun baizik ez zen *kumriera* edo galeseraz mintzatzeko gauza: hots, % 20a. Azken portzentaje honen esanahia bere osotasun soziolinguistikoan jasotzeko, ordea, esan behar da 1891n % 54,4k bazekiela lekuko hizkuntza. Beraz, 80 urteren buruan 34,4 puntuko galera ezagutzen du. Asko da. Bestalde, galeseraren gain-beherakada hori ez da era berean ematen eskualde guztietan. Meatzetz eta etorkinez ongi hornitutako hiri industrializatuetan metatzen da jendea, Gales herriko populazio osoaren % 63a, eta eskualde horretan % 86,5ek ez dute galesera ezagutzen. Beste lurraldea, aldiz, lehen sektorean –nekazaritza eta arrantzan–, diharduena da eta hemen % 33k badakite. Beraz, bi eskualde daukagu jarduera ekonomikoaren zein hizkuntza-portaeraren aldetik garbiki bereizten direnak: batetik, hegoaldeko eskualde moderno eta hiritartua, ia osoki ingelestua aurkitzen dena, eta, bestetik, tradizionala, bertako kulturari askoz ere atxikiagoa dena. Arazoa da ea gizarte-mugikortasunetik at kausitzen den hizkuntzak –kasu honetan galeserak–, lortzen ahal duen gizarte modernoan txertatzea eta hor bere adierazpidea izatea (Txillardegi, 2, 1977, 66-67).

Playd Cymru alderdi nazionalista, bestalde, ez da nagusitzen eskualde industrializatuan; duen indarra, atzeraturik dagoen gizarte tradizionalan du. Industri guneetan artean sartzeko zegoen 1974an. Horregatik, *kumrieraren* egoera honek Eire-rena gogorarazten zion Txillardegiri 1977ko artikulua horretan. Galeseraren etorkizuna ilun ikusteko arrazoirik bada.

4. Irlanda

Britainia Haundiko Eskozia eta Galesekin egin bezala, *Zabale*-ko zenbaki berean Irlandari aparteko artikulua bat eskaini nion “Ir-

landa kolonizatua” izenburuarekin (13, 1975, 20-33). Bertan luze jarduten da Irlandaren kolonizatzear, nazionalismoaren sorreraz, irlandar nazioaren zatitzeaz eta horren ondorioez, komunitate katolikoan eta protestanteen arteko gatazkaz “Ulster” arazoaren inguruan, IRAren sorreraz eta Irlandaren bateratzeaz. “Irtenbiderik” ba ote zuen galdetuz bukatzen genuen, pasarte-pare batekin. Nolanahi ere, zalantza dezenterekin:

“Teorikoek, deskolonizatzear, demokratizatzear, integrazioaz-eta, gogoeta mordo bat egin ondoren, Ulster arazoa arras nahasia dela esanaz bukatzen dute beren lana. Hori bai, ohartu dira Britainiako politikoak ez duela irabaziko bortxakeria erabili. Baita ere badakite Ulster-eko auzia Irlandari dagokiona dela. Alabaina, integrazioaz hitz egiterakoan, *de facto kolonialismoak ezarritako asimilazionismoa onartzen da eta irlandes-nortasuna ez da aipatzen*, eta aipatzen denean erlijio kontzeptuarekin nahasirik egiten da. Herri-kultura eta Irlandara 7. mendean heldu zen kristautasuna ez dira gauza bera, naski! IRA iraultzan aurrera doa. Zer gertatuko den? Ez dakigu” (Iztueta, 13, 1975, 31).

Artikulu hori idatzi eta gero, beste bi eskaini genizkion gai horri berari, bata 1977an *Jakinen* (2, 72-79) eta bestea 1998an *Uztaron* (27, 19-32). Zergatik ote zirkulu beraren inguruan hainbeste tematu behar hori?, galdetuko da. Erantzuna erabatekoa ez bada ere, izan liteke ezker abertzaleak –bereziki, armatuak–, orduko bere eredu militarra gehienbat herrialde hartan finkatua zeukalako. Europako nazio-askapenerako talde armatuetan IRA-ETA bikotea borroka-lerro bertsuan kokatuak izan direla ez da honez gero inorentzat sekretu.

Zabaleko ekarpenaz baita oraingo gure jarduna, azken ordukoak utzita, goazen 1970eko hamarkadaren lehen aldia hango arazoa nola ikusten genuen azaltzera, baina gure soa soilik oinarrizko datuetan jarritz.

Lehen datua da Irlandaren kasua, zentsu hertsian, herri kolonizatu bati dagokiona dela. Salbuespen bezala hartu beharrekoa Mendebaldeko Europa barruan, non estatu multinazionalen peko nazio-arazoak ematen baitira. Irlanda irla bat izaki, jadanik XII. mendean geroztik ingelesak menpe egondakoa da, eskandinaviar, normandiar eta eskoziarren erasoak jasanez. Elisabet erreginaren denboran, 1570az gero, hasten dira ingelesak hango lurra bereganatzen eta, XVII. mendean, Stuarts-en erregealdian, kolonialismoa

areagotu egingo da. Iparraldeko eskualdean, Ulster delakoa osatzen duten herrialdeetan, eskoziar etorkinak finkatzen dira. Kapitalismoak Ulster-eko eskualdean botatzen ditu bere erroak, XVII. mende-bukaeran, ehunaren eta kotoiaren industriarekin, burgesia protestantea izango da horren monopolioa duena. Hegoaldeak alderantzizko prozesua ezagutuko du: industri iraultzarik ez da ematen, baina bai lurren desjabetze-politika azkarra, bereziki, 1801eko Batasun-Alktak (Act of Union) Irlandako Parlamentua desegin zenez geroztik. XVIII. mende-bukaeran, bada, lurren % 5a bakarrik zen irlandar katolikoena¹²⁵.

Kolonialismo basati horren kontrako erreakzioz sortuko dira, hain zuzen, irlandar askatasunaren aldeko mugimendu nazionalistak: zaharrena Fenian, 1866an sortua independentzia lortzeko xedearekin; gero Sinn Fein alderdia etorriko da 1902an eta, 1918ko hauteskundeak irabazten dituelarik Hegoaldean, 1919an Irlandako Gobernu Probisionala (Republican Dail Eireann) eta 1921ean, berriz, Irlandako Estatu Librea eraikitzen da Dublinen, Commonwealth-en barruan, lehendakari Eamon De Valera dela. Baina 1922-32 epealdian gerra zibila piztuko da. Izan ere, Iparraldean, batasun-zaleak nagusitzen dira 1920an eta hauek Erresuma Batuko gobernuari atxikitako Stormon-go Parlamentua eratu zuten, Craig gobernu-buru zela. Irlanda bitan zatitzen denean 1921ean, nazionalistak Hegoaldean eta unionistak Iparraldean, orduan hasten da itzulerarik gabeko bidaia politikoa. Izan ere, 1948an Irlandako Errepublika lortuko delarik, IRAk bi fronte izango ditu aurrez aurre: batetik, Dublingo gobernu-bertakoa-, eta, bestetik, Ulster-eko gobernu unionista -atzerrikoa, aspaldiko kolonialisten luzapena-. Eta hauxe da, hain zuzen, bigarren datu oinarrizkoa: herri-zatiketarena eta, bidenabar, etxeko nazionalisten arteko etsaigoarena. Kontuan har, Fianna Fail gobernuaz jabetu zenez geroztik 1925ean De Valera-rekin, legez kanpo utzia izan zela Sinn Fein alderdia. Testuinguru berezian, Fianna Fail klandestinitatera kondenatzen duten urte berean, sortuko da IRA, Irlanda bateratu eta independentearen suziarekin. Erakunde armatu honek, beraz, gerra zibilez bustitako herentzia hori jasotzen du eta xede horri irmo eutsiko dio harik eta 1998ko apirilean bake-prozesua izenpetuko duten arte Aste Santuko Apirilean. Hurrengo urratsa, desarmerako erabakiarena, 1999ko azaroaren 17an emango da, zeina Ipar Irlandan gobernu konpartitua sortuz gero gauzatuko baita.

Honaino helduta, gure galdera ezinbestekoa da: lortuko al da inoiz Irlandaren bateratzea? Gure erantzunean zalantzarik ez dugu: 1921ean hartutako erabakiak ate guztiak itxi zituen. Lurralde bakkarraren aldeko borroka galdua da. Eta hauxe da, gure ustez, Irlandako iraultzatik atera daitekeen ondorioz negatiboena. Badugu non zer ikusia eta aztertua geure euskal lurralde zatituan. Gu ere itzulerarik gabeko bidaian sartuak ote gaude?

Zabaleko gure artikuluan hutsune nabari bat agertzen da, eta da bertako hizkuntza nazionalaz, gaelikoaz (*gaeilge*), ez genuela daturik ematen. Dublingo Errepublikak 1922an hizkuntza ofiziala aldarrikatu zuen 1922an, ingelesarekin batera. Esaten denez, 4, 3 milioitik % 4 –hots, 43 mila biztanle inguru–, gauza omen da irlandez hitz egiteko. Estatu-boterea eskuetan izanda, berreskurapen ahalegin ezdeusa da hori. Lurralde-porrotaren ondoan, hizkuntzarena ere ez da askoz kaskarragoa. Hemen ere aurreko galdera bera doa: berreskuratuko al du inoiz bere hizkuntza nazionala?

Zeri begiratu gutxi geratzen zaigu irlandar ereduaren ispiluan. Ez bide dio ohore handirik ematen inoiz inork Europako Parlamentuan irlandera erabili izanak, gizarte-bizitasunak ematen baitio hizkuntza bati bere ezagutza eta erabileran bermea.

VII

Demokrazi arazoak

Aurreko atalean nazio-arazoak izan ditugu ikergai, nazioarteko politikan arazo espezifikokoak direnak, *Zabalek* jasotzen dituen bezala, oso bortitzak. Oraingo atal honetan, ez nazio-zapalkuntzarekin, baizik eta hertsiki eskubide demokratikoekin egiturazko arazoak dituzten zenbait estatu nazionalen erregimen politikoak aztertzen dira. Askotan, eskubide demokratikoen errebindikazioak direla eta, bi mailok –nazionala eta demokraziarena–, nahastu izan dira, lehenengoa bigarrenaren ondorio hutsa balitz bezala edota lehenengoa bigarrenaren inplikaturata balego bezala gogo emanaz. Zentzu honetan, autodeterminazioko eskubidea aipatu ohi da, zeina bailitza-teke eskubide kolektiboen zerrendan, bat gehiago, herri-eskubideen kategoriari dagokiona, hain zuzen. Eta izan, eskubide hori, gezurra badirudi ere, herri-konkista bat izan da, nazioarteko legeria positiboan, bereziki koloni gatazketan, odol asko isuri eta gero, onartua izan dena.

Egia da, nazionalitateen printzipioa estatu-nazioen errebindikazio historikoa izan zen, iraultza burgesarekin batera jaino zena Mendebaldeko Europan. Baina zuzenbide positiboan oinarrituta eraikitzen den konstituzio-sistema gehienetan estatu bera da nazioa sortzen duena eta, sortzen ez duen kasuetan, hegemonikoa den nazioa beretzen du estatuak. Nolanahi ere, kasu batean zein bestean, bieran, Mendebaldeko Europa garaikidean tipikoa den estatu multinazionalen kasuan aurkitzen gara, zeinetan, Erregimen Zaharreko ilundegitik irten eta gizarte berriko Argien Aro arrazionalan barneratzean, Europako estatu zahar zein berri gehienak, egituraz eta izatez, estatu multinazionalak baitira praktikan. Konstituzionalismo positibo honek jasotzen ditu, bai, hiritarren eskubide indibidualak,

baina hauek jasotzen dituen aldi berean, kontrakarrean, Erregimen Zaharrean askoz ere hobeto zainduak ziren eskubide kolektiboak –herriarenak edota herri-ekimenetik sortutako asoziazio-era desberdinak–, desagiten zituen. Hau guztia jusnaturalismotik zuzenbide positiborako jauzia ematen den aro historikoan gertatzen da, hots, lehenengo nazio etnikoen gainean, hauek suntsituz, nazionalitateen printzipioa aplikatzen denean, hain zuzen, zeinaren arabera, estatu bati nazio bat baitagokio, eta alderantziz. Honekin esan nahi duguna da, iraultza burgesarekin inauguratzen diren erregimen demokratikoetan, hauen konstituzioetan, estatu-nazio hegemonikoaren eskubideak bakarrik onartzen direla eta estatu hauek, XIX. mendetik aurrera, ordura arte bizitza politiko aski autonomoa izan zuten periferiako herrien nortasuna uniformatzeko neurri zentralistak hartuko dituztela, horretarako une bakoitzean eraginkorrenak ziren, eta diren, bitartekoak oro hartuz, bereziki, lege-mailakoak, eta garbiki zapalkuntzazkoak ere bai.

Orobat, Iraultza sozialistak Lenin-en lumatik aldarrikatutako autodeterminazioko eskubideak ere, herrialde sozialistan zeuden nazio etniko zapalduak, ez zituen aintzat hartu. Teorian printzipio hori onartu zuen, bai, baina ez beren estatu-lurraldeetan aplikatzeko xedearekin, horien baitan sortu izan ziren nazio-mugimenduak oro errotik suntsitu baitzituzten. Printzipio hori, ez etxean, baizik estatu burgesek beren menpe zeuzkaten kolonietan aplikatu beharrekoa zen eta xede horrekin sartu zen, sartu ere, NBEren egitarauan. Beraz, ezkerreko tradizio marxistan zein sozialistan, autodeterminazioko eskubide honek, eskubide demokratikotzat jotzen den arren, ez du aplikaziorik izango ez bada koloni herrietan. Estatuak, berau bakarrik, bilakatuko da eskubide demokratiko guztien subjektu bakar. Estatu-mailako gehiengoaren ordezkariak agintzen du demokrazia formaletan. Garai haietan bederen bai, nahiz azkenaldion alde bietako Europar estatu berriak sortu diren. Egun Erresuma Batuan herri-kontsultarako bideak irekita daude, lehenengo Kanadan bezala.

Orokorrean, ordea, eta ordukora itzuliz, laburpen gisa zera esan dezakegu: iraultza burgesaren zein sozialistaren ondotik erai-kiak izan diren estatuetan, hauek beren konstituzioetan aldarrikatu izan dituzten eskubide demokratikoetan, formaletan eta berdin herritarretan, demokraziaren izenean ukatzen direla eta zanpatzen nazio-mugimenduak oro, hainbestearino, ezen aurreko atalean ikusi ahal izan dugunez, gizarte-gatazkarik larrirenetako bat izatera iristen

dela. Boltxebikeek estatu-boterea lortu eta Konstituzio berria aldarrikatu zutenean 1917ko Iraultzaren ondotik, bertan artikulatua zertorren autodeterminazioko eskubidea praktikan jartzeko ordua heldu zelarik, errebindikazio hori egiten zuten herrialdeek zapalkuntza sistematikoaren erantzuna baino ez zuten jaso, Georgia-ren kasuan bezala. Eta zenbait naziok lortu bazuten beren independentzia, ez estatu komunista berriak emanda, baizik Brest Litowsk-eko tratatuari esker lortu zuten. NBEk geroago, 1970ean, onartuko du eskubide hori, baina printzipio horri buruzko lehen tirabirak Afrika eta Asiako koloni lurraldeetan aplikatzeko orduan hasiko dira, estatuen arteko botere hegemonikoen interes kontrajarriak talkan jarriko direnean, hain zuzen, Bangladesch-en gertatu bezala¹²⁶.

Nazio-arazoa alderdi historikotik eta, bereziki, praktika politikoaren aldetik begiratuta, bada, ezin da esan inolaz ere estatu demokratikoek –hala izendatuek–, nazio eta herri guztien askatasunerako eskubidea –autodeterminazioarena–, aplikatzeko bidea eman edo erraztu dutenik. Nazioarteko zuzenbide positiboan –eta orduan ere beti maila teorikoan–, oso berandu jaso izan da. Baina eskubide hau soilki printzipio-mailan jasotzeak praktikan ezer gutxi balio du, zeren, berorren aplikazioa estatu jakin baten barruan egin beharrekoa denez gero, azken batean, estatu-legeria izango baita haren bilakabidea baldintzatuko duena. Demokraziaren oinarria den eskubide hau lortzeak, kasurik gehienetan, gatazka eta sufrikarioa edo, hitz batean esanda, zapalkuntza sistematikoa inplikatu izan ditu, Guy Heraud-en¹²⁷ aipu honetan irakur daitekeen bezala:

“Nadie negará que la mayoría de los pueblos que han logrado la independencia, no sólo ya en su pasado lejano, sino en la época contemporánea, la han conseguido a costa de un sinnúmero de sufrimientos, recibiendo apoyo exterior sólo al final del combate. Es lamentable constatar que cada vez vuelve a repetirse la misma escena, como si tantas experiencias acumuladas de nada hubieran servido. Al principio, la sociedad interestatal se calla mientras el Estado enfrentado con los movimientos autonomistas o separatistas los reprime con dureza, sin titubear en saltarse su propia legalidad. Posteriormente, si el movimiento se fortalece, se producen cambios bruscos de opinión a su favor. Y por fin, cuando la secesión triunfa, el mundo entero reconoce, sin el más mínimo reconocimiento, que independencia es buena y justa. Así es cómo estamos presenciando actualmente el combate de los Vascos, los Irlandeses del Norte, los Kurdos”.

Duela 28 urte idatzia da testu hori. Bazirudien ezinaren arrazoia bortxarena zela. Berrikitan soilik bide demokratikoen jokorauak onartzetik abiatuak dira testu horretan aipatzen diren hiru herri horietako indar armatuak. Baina oraindik betikoan gaude ondo zangopilatuta. Badirudi, eginak lekuko, demokraziaren egiari estatu-arrazoia nagusitzen zaiola. Funtsean, bortxarena aitzakia bat gehiago da.

Horregatik, gure azterketa honetan praktika politikoa baita irizpide nagusia, nazio-askatasuna iraultza demokratikoan inplikaturik datorren ala ez eztabaidatzen hasi gabe –egiteko enpiriko batean eztabaida hau antzua delako–, arazo nazionalak eta demokratikoak banandurik dakartzagu, nahiz hertsiki harremanean daudela jakin. Sarrera hau gogoan izanda eta *Zabalera* itzulita, gobernu-sistema demokratiko baten aldeko gobernu-gatazka batzuk aipatuko dira, zeinetan ez baita auzitan jartzen estatu-batasuna, honen izaera demokratikoa baizik.

1. Txile: segidarik gabeko iraultza

Zabalek bi artikulua eskaintzen dizkio Txilek Salvador Allendekin sozialismoaren alde egindako saio historikoari. Historikoa deitzeko bada arrazoirik. Allende lehendakariak hauteskunde-bidez lortzen du Txilen sozialismoa ezartzea 1970eko irailaren 4an. Noiz ezarriko-eta, Hego Ameriketako gerrillen estrategia aski errotua zegoen garaian, hain zuzen. Joko demokratikoen bidez lortutako sozialisten garaipen honek esperantza berriak pizten ditu, hango beste estatuentzat ere jarraibide izan baitzitekeen. Halaxe ulertu zuen Pinochet jeneralak, erregimen sozialista bere lehen pausoak ematen hasi orduko, esperientzia hari hegoak moztu baitzizkion, buruzagia bera hil eta gobernuaren kabestruak bere esku hartuz.

Demokraziaren porrota da Txilen 1973an gertatzen dena. Jean-Louis Davantek¹²⁸, batez ere, kontraerasoaren ondoko zapalkuntza basatiaren ondorioak aipatzen ditu:

“Munduak negar bat ixuri du gizon horren hil hobian. Eta kitto... Baina kutxa lurrez estali ondoan, bakar-bakarrik gelditu da Txileko herria, umezurtz eta alargun. Eta ez gizon batez, baizik milaka eta milaka, zakur batzuk bezala garbitzen dituzten aita eta ama, anai eta arreba, senar eta emazte... alargun era umezurtz”.

Eta Txilen gertatua aipatzerakoan, horrelako estatu-kolpearen eta ondoko zapalkuntzaren aurrean zein bakar, zein abandonatua, geratzen den nabarmentzen du. Euskal Herriari Espainiarekin 1936an eta Txekoslovakiari Errusiarekin 1968an gertatua gogorazten du. Kasu bietan okupazio militarra ematen da. Nazioarteko politikan bi potentzia handi dira agintzen dutenak: errusiarrak eta iparramerikarrak. Elkarri ongi zaintzen diote. Txekoslovakian Ipar Amerika ez zen mugitu; Txilen ez Ipar Arnerikak ez Errusiak egin zuten ezer. Horregatik, autore honentzat biak dira inperialistak, beren praxia politikoan demokrazia eta sozialismoa bateratzen ez dituztelako:

“Santiago, Praga: niretzat berdin. Bi inperialismo, erdi etsai erdi anai, hor badabiltza, nor bere eskualdetik, beste herriak menperatu beharrez. Ez dute nahi sozialismoaren eta demokraziaren ezkontzarik: horretan bat daude. Zeren Errusiak ekonomian sozialismoa nahi du, baina politikako askatasunik gabe. Amerikak aldiz demokrazia nahi du politikan, haatik bizibidetan ez. Guk behar ditugu demokrazia eta sozialismoa: ez ditugu elkarretarik bereizten. Beraz bi inperialismen artetik bide berri bat bilatzen dugu. Horra behintzat nire ikuspegia” (Davant, 4, 1974, 25),

Bere burua marxista-leninistatzat ez daukan autore honek, Marx eta Leninen irakatsiak –bereziki, demokrazia eta sozialismoa ezkontzeari buruzkoak–, beretzen dituela aitortzen du.

Baina zergatik egiten du porrot Allenderen gobernuak Txilen? Jean-Louis Davanten ustez, Allendek bi aukera zeuzkan botereari eusteko: haste-hastetik klasearteko aliantza bat egin eta lehengoan segitu, ala herritar armada eraiki eta berrikuntzak egin. Seguruena lehen bidea zukeen, alderdi komunistak eta iparramerikarrek nahi bezala jokatuz. Baina berak sozialismoa demokrazia bidez gauzatu nahi izan zuen eta bere idealismoa segidarik gabe geratu zen. Garesti ordaindutako esperientzia berea.

Jokin Apalategik¹²⁹ azterketa sakona egiten du, Txileko politika nazioartekoaren testuinguruan kokatuz eta datu zehatzak emanez. Allenderen porrota esplikatzeke ematen duen oinarritzko datua da, hark gidatzen zuen Unidad Popular-ek (UPk) hauteskundeak irabazi arren % 32 aldeko botoekin, estatu-aparatua osatzen zuten armadak eta mass-mediak Confederación Democrática-ren eta militarren esku jarraitzen zutela eta hiru urteko tirabira gogorrean, azkenean, militarrek nagusitu zirela. Hori frogatzeko Allenderen

emazte Hortensiak, bere senarra hil eta gero, 1973ko urriaren 4an Mexikotik egindako gutuna aipatzen du, zeinetan, mundu guztiko emakumeei laguntza eskatuz zuzentzen zaielarik, esaten baitu nola gobernu sozialistak hiru urte gatazkatsuren buruan, honi barrutik eta kanpotik jarritako oztopo guztien gainerik, garaipen garrantzitsuak lortu zituela: a) maila sozio-ekonomikoan oinarritzko ondasunak nazionalizatu, Banka estatalizatu, nekazaritzan berrikuntzak eginez, hots, langileriari ondasunen gero eta kontrol zuzenagoa eman; b) nazioarteko politikan, gobernu sozialista eta demokratikoekin harreman kultural, komertzial eta diplomatikoak finkatu; c) hezkuntza eta kultura bultzatu. Lorpen hauek aipatzen dituen aldi berean, espresuki salatzen du Estatu Batuek zuzenean eta zeharka parte hartu zuela Txileren aurkako ekinaldian, batez ere, mota eta maila askotako blokeo ekonomikoak ezarriz. Artikulu honetan, aurrekoan ez bezala, zehazki aipatzen da Ipar Amerikak duen parte aktiboa Allenderen gobernu-uzkailtzean.

Egia da hiru urteren buruan hainbat gauza burutu zirela Txilen. Baina jarraipenik ez zuen izan. Zergatik ez? Jokin Apalategiren ustez, UP alderdiaren zuzendaritza politikoak muga handiegi zituelako bere politikagintza aurrera eramanez ahal izateko. Berak (5, 1973, 23) bost hauek aipatzen ditu:

- “1) U.P., bozen bidez, Txile’ko politikaren zuzendari bilakatzean, burgesiak bere interesetarako altxatuko Estaduan lekutzen da.
- 2) Une berean, burgesia bere interesetarako sortutako Estatu parte batean aurkako bihurtu zaiola jabetzen da. Izan ere, demokratiko-liberal burgesiaren Estatu legeek Gobernu aldakuntzak iragartzen badituzte ere, interesak oinarritzat hartzen dituztenak bakarrik dituzte kalkulatu eta onartzen. Eta honek denean, aldiko Gobernuak, politikaren zuzendaritza berengantzean, Estatuaren aparatua osoki bere zerbitzuan ohi du.
- 3) Orain, ordea, U. P. politikaren zuzendari denean, burgesiaren boterea desgiteko urrats izanik, Estatuaren aparatua burgesiak berekin gorde nahi du. Zeren, bozen bidez, U. P. ez da Estatuaren botereaz jabetu, politika zuzendaritzaz baizik.
- 4) U. P. politika zuzendaritzan eta burgesia Estatuaren aparatuan, hots, U. P. iraultzaile bidean aitzinera joan nahirik eta burgesia Estatuaren aparatuan gorderik erresistentzian da uneko egoera.
- 5) Burgesiaren lege pean sortu den gudu hau izan da Allende’k U. P.’ren bidez egindako desafioa”.

Allendek hasitako bideari jarraitu eta garaipena lortu ahal izateko, bi bide besterik ez zeuzkala uste du Jokin Apalategik: hots, “armada iraultzaile bat altxatu ala armada nazionala berenganatu”. Bigarren aukera egin zuen, Prats jenerala UPren gobernuan sartuz. Baina jokabide hau atzerapauso bat izan zen, zeren, jeneral hori gobernuratzearen truke, nazionalizatuak izandako hainbat lantegi berriro beren nagusiei itzuliak izan baitziren eta, honela, UP bera borrokalariena den langileri sektoretik urruntzen hasten baita. Azkenean gertatzen dena da, UPk armada nazionala bereganatu ordez, estatu-aparatua kontrolatzen duen burgesiak langileria zatitzea lortzen duela.

Txilen gertatutakoaren adibide honek frogatzen duena, zera da: burgesiari bere legeen arabera jokatzeko utziz gero, arras gaitza dela hari gain hartzea. Allendek, burgesiaren legalitatea osoki errespetatu eta haren arau-jokoan sartzean, konfiantza gehiegi jarri bide zuen, zeren estrategia honek, batetik, bere politikagintza burgesiaren kontrolpean eramatea eta, bestetik, masa-mugimendu batean oinarritzea den borroka armatua praktikan ahaztea suposatzen baitzuen. Horregatik gertatu bide zen gertatzekoa. Zentzu honetan, Bigarren, Hirugarren eta Laugarren Internazional komunistek uste zutenaren kontra, berak ez du uste masa-mugimenduak, besterik gabe, estatu-aparatua desegin dezakeenik, ezta burgesiaren legalitatean jokatzeko borroka aurrera egin daitekeenik ere. Hau da Jokinnek sostengatzen duen tesia. Garai hartan berria, egungo politikan ere, urrutira joan gabe Espainiako trantsizioaz geroztikoan, bere aplikazioa baduena. Juancarlistak ez zuen suposatu frankismoarekin etetea eta harez gero gobernuan txandatu ez torri diren alderdiak, eskuinekoak zein ezkerrekoak, frankismoak ezarritako estatu-egiturak oinarrietan ukitzeke funtzionatuz datoz.

2. Portugaleko egoera politikoa

Aztertu berria dugu Txileko iraultza sozialistaren porrota, Hego Amerikako testuinguruan. Oraingo honetan, une honetan Portugalen gertatzen ari diren aldaketak dira aztergai. Jokin Apalategik, bere artikuluan¹³⁰, Portugalen militarrek iraultzaile bihurtu ote diren galdetzen du. Txilen, burgesiaren interesak arriskuan zeudela uste izan zuenean, armada nazionalak ito zuen sozialismo demokra-

tikoa. Eta Antonio de Oliveira Salazar-en diktadurapean dagoen Portugalen¹³¹, nola izan daitezke militarrek iraultzaile? Antonio de Spínola jeneralak 1974ko otsailean argitaratzen duen *Portugal eta bere etorkizuna* izeneko liburua du hizpide. Jeneral honen biografia aski bitxia da: Espainiako gerrate zibilean frankistekin jarduna, Estalingraden alemanen laguntzaile izana, Salazar-en aurka jaikitako Humberto Delgado jenerala hil zutenean isilik egondakoa, Ginea-Bissauko kolonian, non sei urte egiten baititu gobernu-ordezkarigisa, Amílcar Cabral buruzagi iraultzailearen kontra aritutakoa da. Koloniatik etxeratzean, zer proposatuko-eta, “autodeterminazioa, federalismoa eta luso-afrikano commonwealth-a” proposatzen ditu. Zein arrazoik eragiten duen aldaketa hori haren baitan? Galdera honi erantzuteko orduan, Jokin Apalategik bi arrazoi-mota aipatu ditu, zehatzago oin-oharretan emanda datozenak¹³²: bata da Portugalen egoera sozioekonomikoa benetan miserablea dela, haurhilkortasunean, analfabetismoan eta emigrazioan indize garaiak –Europar garaienak–, dituen; bestea da, Afrikako koloni herriei azpian eusten segitzeak ez duela irtenbiderik, zeren alferrikako ahalegin horretan hainbat portugaldarrek beren bizia galdu baitute eta estatu-gastuetatik ia erdia defentsa militarrean xehatzen baita. Honela, barne-kapitalak huts egitean, atzerrikoari sarbidea ematen zaio.

Portugaleko herritarren bizi-egoera hain miserablea izanda, zeinek dauka egoera horri eutsiz segitzeko interesa? Eta daukanak zergatik dauka? Erantzuna da bai Portugaleko kapitalak bai atzerrikoak, biek dituztela beren interesak kolonietan. Portugaleko kapitalari dagokionez, gutxi batzuek monopolizatzen dute industri jarduera osoa. Berak bost enpresa hauek aipatzen ditu: 1) CUFa (Compagnia Uniao Fabril), olioaren azoka kontrolatzen duena; 2) Chamalineaud-a, indartsuena, Angola eta Mozambiken zementuzko harrobien monopolio osoa duena, Angolan siderurgia, meategiak eta elektrizitatea kontrolatzen dituena; 3) “Espírito Santo” multifirma, Afrikako kolonietan azukre-oroak dituena eta Angolan, berriz, petrolioaren kontrolatzen duena; 4) BNU taldea, Afrikako kolonietan banka-eragiketarik egiteko baimena duen bakarra; 5) “Borgês e Irmao” multifirma, arrantza kontrolatzen duena. Bigarrenak eta hirugarrenak badituzte beren banketxeak ere.

Atzerriko kapitalari dagokionez, dirutza handienak Estatu Batuetatik datoz, batzuetan Mozambiken inbertitzen direnak, baina gehienetan Angolan; Portugalen bertan, General Motors, Ford,

Westinghouse, Mobil Oil eta Exxon bezalako multinazionalak doaz amerikarren kapitalak. Alemaniak, Belgikak, Frantziak eta, bereziki, Erresuma Batuak ere badute beren parte han dauzkaten enpreetan, eta bertan egindako inbertsioetan. Orotara hartuta, atzerriko kapitala gehiago inbertitzen da Portugalen bertan honen kolonietan baino: 1971. urteari dagokionez, metropolian 1.621 milioi eskudo eta kolonietan, berriz, 646. Konprenitzekoa da atzerriko kapitalak metropolian inbertitu nahiago izatea, zeren koloni herri horietan gero eta indartsuagoak baitira independentziaren aldeko aldeak, hala nola: Ginea-Bissaun PAIGC (Cabo Verde uhar-teetako eta Ginea-Bissauko Independentziarako Alderdi Afrikarra) eta FLING (Ginearen Independentziarako Askatasun Frontea), Mozambikeren FRELIMO (Mozambikeren Askatasunerako Mugimendu Popularra), FLNA (Angolako Askatasun Nazionalerako Frontea) eta UNITA.

Zer gertatzen den Portugalen 1974an, Antonio Spinolak bere liburu hori argitaratzen duen urtean, hain zuzen? Gertatzen dena da, arestian esan bezala, Ginea, Mozambique eta Angolan gerrillek indar handia hartu dutela 1960ko hamarkada-bukaeran eta armada nazionalako ofizial militarren artean ezinegona sorrarazten duela kolonietako oposizio armatuak. Armada barruko krisiaren ondorioz, horko militar gazteek, Spinola jenerala buru delarik, estatu-kolpea jo, aristokrazia eta burgesia monopolista sostengatzen dituzten militarrek menpean hartu eta eskubide demokratikoak berrezartzen dira. Eskuina estatu-kolpea ematen ahalegindu zen, baina ez zuen lortu. Ezaguna da ondorengo historia, *Zabalek* jasotzen ez duena: Spinola jenerala Errepublikako lehendakari hautatu eta hurrengo urtean, 1975ean, programa sozialista bideratu zela eta Afrikako koloniek independentzia lortu zutela. Konstituzio berria 1976an aldarrikatu eta gero, handik laster, 1986an, Mario Soares bilakatzen da bertako lehen lehendakari sozialista.

Baina gatozen 1974. urtera, ordukoa baita Spinola jeneralaren estatu-kolpea eta honetaz baitihardu artikuluak. Azken galdera, hau da: zer dela-eta, militar gazte hauek eskatzen dituzte eskubide demokratikoak Portugalentzat eta askatasun nazionala koloni herrientzat? Galdera honek badu bere mamia, zeren, ezkerren ikuspuntutik begiratuta bederen, armada berez baita beti eskuindarra eta, gainera, izatez aparatu zapaltzailea. Portugalen kasuan, berriz, militar funtzionarioen sektore bat aurrerazale agertzen da. Nolatan?

Jokinen erantzuna da, lehenik, Portugalen urte horretan ematen dena ez dela iraultza sozialista bat, iraultza demokratiko bat baizik, zeren, nola Salazar-en erregimen-garaian (1933-68) hala Caetano-renean (1968-74), zapalkuntzak, langileri sektorea ez ezik, beste sektore zabalagoak ere ukitzen baitzituen. Herritarrak oro zeuzkan diktadurak azpian hartuak. Baina metropolian ematen den egoera horren ondoan –eta hemen dator erantzunaren bigarren zatia–, gertatzen dena da, Portugaleko estatua kolonialista izaki, kolonietan pizten den iraultza armatuak haietara joan behar duten militar funtzionarioen baitan sosegurik eza, arriskua eta sufrikarioa sortzen dituela eta honek armada nazionalaren barruan zatiketa dakarrela. Testuinguru honen argitan ulertu beharrekotzat jotzen du Jokin Apalategik Antonio Spinolaren errebolta, berak abangoardistatzen daukana, zeren hark langileria eta beste herri-kapak masa-ekintzetara eramaten baititu. Ikusi dugu nola hasierako estatu-kolpe honen ondorekin, ematen den jauzia iraultza demokratikotik sozialistara.

Historiak irakasten digunez, eta hauxe da ateratzen duen azken ondorioa, iraultzarako bidean ematen diren prozesuak anitzak dira: Errusiako iraultza sozialistan eta berdin Kubakoan, intelektuallak eta langile-abangoardiak izan ziren beste herritar kapak masa-ekintzetan parte hartzera bultzatu eta gidatu zituztenak, bieran borroka armatua erabiliz; Txilen herritar klaseen arteko fronteak bete zuen eginkizun horixe bera, baina hemen, besteetan ez bezala, hauteskunde-prozedura erabiliz, baina, lehen esan bezala, ezkerren garaipenak ez du estatu-aparatuen kontrola lortzen. Honek esan nahi du langileria eta herritar klaseak masa-ekintzetara bideratzeko era anitz dagoela. Dena dela, masa-ekintza horien arrakastak iraun dezan, indar militarren bermea ezinbestekoa da, zeina, egileak esatera, “militar iraultzaile bat jasoz, ala eta, militar funtzionarioen kontradikzioak profitatuaz” lor baitaiteke (Apalategi, 8, 1974, 25). Azken kasua, ordea, ez da nonahi eta noiznahi ematen. Lehen esan bezala, Txilen ez ziren horretarako baldintza bereziak eman eta horregatik egin zuen porrot.

Beraz, Jokin Apalategiren garai honetako ikuspuntuari erreparatzen badiogu, garbi ageri da militargintzak leku berezia duela, ezin baztertua, iraultzan. Baina ez horregatik absolutua, zeren espresuki esaten baitu, onargarri izan dadin, “militar prozesu horrek masa egintzara ailegatu behar duela”. Beste prozesuak oro –kulturalak, sozialak, etab.–, lotuko dituen katebegia izan behar du, aldi berean

prozesu horietako bakoitzari bere autonomia aitortuz. Batez ere, orduan zuen garrantziagatik, haren artikuluko azpen pasarte hau transkribatuko dut osoki:

“Kultur prozesua, sozial prozesua eta militar prozesua banakaturik eta bereziturik eraman beharko, gero, une batean, alternatiba politikoko batean koordinatu bitarte” (Apalategi, 8, 1974, 25).

Militargintza, bai, baina baldintza horrekin, masa-ekintzak koordinatu eta bideratzeko tresna izateko baldintzarekin. Muga hori esplizitua zen. Artean ETArean lau frontetako estrategia aski indarrean zegoen unean fronte bakoitzaren autonomia aldarrikatzea, noiz eta militargintzak espaziorik gehien betetzen zuen unean, zerbait berria zen eta, gainera, iraultzarekin sakonen konprometitutako sektore baten baitan, susmagarria ere bai, fronte militarrek, berau indartsuena izaki, ez baitzituen beste hiru fronteak bere lumapetik aske utzi nahi.

Hurrengo urtean, Mikel Urteaga “Baigura”¹³³ beste artikulua idatzi zuen, “Portugal” izenarekin. Prentsak 1974-75 urteetan argitaratutako pasarteak itzulita ematen ditu lehen zatian, nahiko luze. Ezkerrekoen iritziak hautatzen ditu gehienbat. Gero, sozialismorako bidea hartua duen Portugalen, “zer egin ez den, zer egin gabe dagoen” ikertzerara pasatzen da. Iraultza sozialistak egin gabe utzitakoen zerrenda luzea eskaintzen digu autoreak. Hutsuneak asko dira eta mota askotakoak: monopolioen kontrako politika garbirik eza, komunikabideek betiko faxisten eskuetan jarraitzea, lurjabeen presentzia, lehen sektorearen egitura arkaikoa, indar armatuen garbiketarik eza, koadro teknikoen ihesa, banketxe nazionalizatuen barne-berrikuntzarik eza, etab. Honen ustez, Txilen egindako berrikuntzen antzekoak egiten dira Portugalen ere. Funtsean –hala dio berak–, berrikuntzak eman dira, bai, baina, garai hartan askotan errepikatzen zen bezala, gizarte-egiturak aldatu gabe. Horregatik, han erreformismoa eta errebisionismoa nagusitzen dira. Harentzat, bada, Portugaleko alderdi sozialistaren jokabidea, kontrairaultzailea da eta politika hau gidatzen duen buruzagia, berriz, antikomunista eta, are gehiago, antisozialista:

“Soares-ek berriz, antikomunismoaren arma zerri hau beretu du, eta ‘liberatearen’ izenean, indar antikomunisten batasuna (gurutzada) muntatu. Horrelako ‘sozialistak’ antikapitalistak baino, antisozialistak dira. Esan beharrik ez dago, egun antikomunistek

badutela beren liderra, Soljenitsyne, alegia” (Urteaga, 16, 1975, 12).

Iraultza purua da errebindikatzen duena, tatxarik gabea, Lenin-en erara formulatua:

“Borroka iraultzaile guztiek, estatua apurtzea, botatzea dakarte, Guk ere ondoko Herrietako indar iraultzaileekin batera, hori egiten ari gara. Horrengatik, gu Euskadi diren Frantzia-ko Estatu burgesaren eta Espainia-ko Estatu faxistaren (bihar burgesaren) indar tzarrek apurtzera goaz, Euskadi Libro eta Gorria eraikiaz” (Urteaga, 16, 1975, 16).

Praktikan, Mendebaldeko Europako erregimen demokrati-koetan parte hartzen duten alderdi komunistak eta sozialistak, izan, erreformista hutsak dira, langileriaz hitz egin bai, baina praktikan gobernu faxistarekin lankidetzan ari direnak. Beste artikulua batean, ultra-ekzertiarak ere leku berean kokatzen ditu. Hauen praktika politikotik datorren emaitza, hauex da: herritarren “alienazioa”, “inkultura”, Portugalen gertatzen ari dena.

Baina zein dira egiazko iraultzaren oinarriak? Masen lidergoa, masen borrokatik sortutako alderdia eta borroka armatua. Hiru hauek dira indar iraultzailea osatzen dutenak. Praktika hau dararmatenak dira egiazko marxistak, egiazko iraultzaileak.

3. Errusiako sozialismoa auzitan

ETAren inguruko ezker abertzalean langile eta herritarren masa-ekintzetan oinarritutako iraultza garbia aldarrikatzen zen unean, na-saiki kritikatzten ziren Mendebaldeko Europako alderdi komunistak zein sozialistak. Ezker marxistarentzat, orokorrean, horiek guztiak erreformista eta errebisionistak ziren, Mike1 Urteagaren artikuluan datorrenez. Baina iraultza sozialista garaitu zen herrialdeetako ere-duak zalantzan jartzeak –batik bat, ezker marxista puristentzat–, edozeinen luma susmagarri bihurtzen zuen. Errusian, stalinismoa kondenagarri zatekeen, mila desbiderapen politikoren errudun zu-zeneko, baina, kasu horretan ere, beti zen salbatu beharrekoa Erru-siako erregimen komunista. Sistemaren funtzionamenduak huts egi-ten zuen, ez sistemak berak.

Testuinguru irristakor honen barruan kokatu behar da Soljenitsin-en kasua aitzakiatzat hartuta, Kaukasoko literato handiari –1970eko Literaturako Nobel sariaren irabazleari–, eskaini nion artikulua¹³⁴. Honen izenak tximistaren antzeko zitzuz korritu zuen alde alde eta argitu Sobietar Batasunaren ahuleziak nondik erasotuko zain zegoen mendebaldar intelektual organikoen zeru burgestua. Eta Mendebaldeko Europa honek abegi ezin hobe egin zion, Stalin 1953an hil eta gero, kartzelatik atera eta erbesterako bidea hartu zuen stalinismoaren gehiegikeriak ausardiaz salatzen zituen literato honi. Nobel saria ere ez zen debaldetan emana izan. Autore honek Frantzian egindako egonaldian kaleratutako salakuntzak eskura etorri zitzaizkigun Errusiako sozialismoa biluzik uzteko, garaia baitzen begiak ireki eta, aurreiritzirik gabe, gizarte-sistema bateko zein besteko praktika politikoarekin kritikoak izaten ikasteko. Eskuinak bere interesetarako erabili bazuen ere Soljenitsin-en ospea, –hau egia da–, aitortu behar dut berehala, beste askorentzat hango egoera barrutik ezagutzeko informazio-iturri ere izan zela.

Soljenitsin-en izena ezagutzera eman, batez ere, Parisen 1973an argitaratu zen haren *Goulag Artxipelagoa* liburuak eman zuen. “Goulag” izan, errusiar presoak lan bortxatueta atxikitze antolatua zegoen goi-erakunde baten izena zen. Leku hauetan presoek zeramaten bizimodua kontatzen da bertan: gizonak nola gauzak bailiran tratatuak diren, nola esku-lan merkea eta diziplinatua egiten duten, nola egunean hamar orduz lan egiten duten, gaizki janda eta okerrago bizita. Eta abar. Gertakari honek artikulugileari Franco-k gerrako presoei eginarazitako “Valle de los Caidos”eko monumentu gaitza dakarkio gogora, zeina suz eta odolez zutitua izan baitzen, bidean hilak utziz.

Liburu horretan, Vlassov jeneralaren armadaz ere hitz egiten da, berak alemanek preso hartutako 650 sobietar soldadurekin 1944an osatu zuena. Naziek boltxebismoari erasotzeko asmoarekin sortu zuten. Praktikan, ordea, armadaren jokabidea Errusia Handiaren batasuna zaintzea zen eta horretarako, noski, bertako nazio-mugimendua askatzaileak oro desegitea. Sobietarrek ez zuten hala ulertu, zeren, gerra bukatzean, amerikarrek haien esku utzi zituztelarik, bizirik ateratako denak, Vlassov eta honen lagunak urkatuak izan baitziren 1946an.

Gerra hasi ondoko urteetan Errusian gertatutako basakerien errudun bakar Stalin egiten zen, honek 1929az geroztik martxan

jarritako gobernu-sistema, alegia –gero, zentzu negatiboan, stalinismoa deitu izan zaiona–, zeinaren ezaugarriak baitziren, Soljenitsin-ekin esateko, kutunkeria alderdian, boltxebikeen hegemonia politikan, buruzagi militarren boterea, klasearteko borrokarik gabeko errusiar gizartearen mitoa, eta abar.

Kanpora begira hermetikoki itxiak baitzeuden atea, ezer gutxi genekien Errusian gertatzen zenaz. Ikasi genuen oposizioa bazela eta hau bi jarreratan banaturik zegoela. Alde batean, erregimena barrutik kritikatzeko zutenak zeuden. Hauek, batez ere, stalinismoaren funtzionamendu burokratikoaren kondenatzen zuten, sozialismoaren desbiderapen gisa hartuz, eta horren lekuan, egiazko leninismoa ezarri nahi izango da, hots, komunismo demokratikoa. Hemen leudeke alderdiko zenbait militante, hauen artean Roy Medvedev historiagilea. Bertako ekonomia azkartzea dute helburu, erabakiak goitik hartuz, ez behetik. Beste aldean, xede nagusia sistemarekin berarekin haustea dutenak daude eta, nahiz eta ekonomi hazkundera herriarentzat ontzat hartzen duten, ez zaie iruditzen hazkunde hori posible izango denik baldin eta gizarte-sistema bera demokratizatzen ez bada. Joera zabal honen barruan kokatzen dira hainbat talde: Errepublika desberdinetako nazionalistak, Eliza ortodoxoko fededunak, etab. Izenik ezagunena, Sakharov.

Pentsatzen zen, Krouchtchev-ek Alderdi Komunistaren XX. Batzar Nagusian (1956) egindako stalinismoaren desmitifikatzearekin arazoa konponduta zegoela. Hala uste zuten Mendebaldeko alderdi komunistek. Baina bai zera! Ez ziren konturatzen eri zegoena, ez soilki stalinismoa, baizik sobietar sistema bera zela. Demokraziarik gabeko gizartea, berez, dela eri. Eta sistema hau oposizio demokratikoa zigortzen hasi zen 1970eko hamarkada-hasieran: Boukouskiren auzia, Yakir-en atxilotzea, Sakharov eta Soljenitsin bezalako intelektualen zigortzea, eta abar.

Noski, Mendebaldeko komunista ortodoxoentzat –adibidez, Frantziakoentzat–, horien jokabidea errotik zen atzerakoia eta horregatik kondenatu beharrekoa. Ikusi berriak gara ezkerreko euskal marxista garbientzat ere, hasteko Soljenitsin bera, erreformista guztien kapitaina zela. Guk ordurako aztertuak genituen Errusiako nazio-arazoei buruzko jokabide taktiko eta estrategikoak eta bagenekien hanga eredutik euskal nazionalismoak ikastekorik gutxi zeukala puntu horretan bederen. Soljenitsin-ek, erreserba guztiarekin bada ere, beste gauza garrantzitsu bat erakutsi zigun:

ez Stalinek, baizik Lenin-ek aldarrikatutako zentralismo demokratikoa, praktikan, gezur hutsa zela.

Beraz, desmitifikatu beharrezkoa ez zen stalinismoa bakarrik, baita sobietar eredia bera ere, Stalin-ek, bere krudeltasunean handia izanda ere, oinarrizko eskubideak zanpatzen ez baitzitekeen hain handia izan. Ezta nahita ere! Guretzat bederen, errusiar komunismoak ez zuen etorkizunik. *Zabalkook* ere, orokorrean, horretaz ohartuak geunden.

4. Mendebaldeko Europa demokratikoan kapitalismoa krisian

Ekialdeko Europa sozialistan, ikusi dugunez, SESBko oposizioak demokraziaren defizita salatzen du. Jean-Louis Davantek¹³⁵, begirada Mendebaldera botata, Europa kapitalista sabeleko minez dagoela baieztatzen du bere artikuluan. Izan ere, 1980an Parisen egindako Batzar handi batean, bederatzi estatuk, merkatu bakar baten bila, Europaren batasun ekonomikoari ekitea erabakitzen dute, multinazionaleri aurre egiteko xedearekin. Baina lehen urratsak eman orduko hasten dira bistaraten kontraesanak proiektu horren inguruan. Bi motatakoak dira agertzen diren oztopoak: hots, ekonomikoak eta politikoak.

Maila ekonomikoan, energi indarraren eta lehen gaien gares-titzeak inflazioaren handitzea dakar, estatu batzuetan gehiago bes-teetan baino, Alemanian gutxiago (% 7-9) Britainia Handia eta Italian (% 20-25) baino, eta hemendik estatuen arteko desorekak sortzen dira. Bestalde, maila politikoan, Estatu Batuak izan ziren, Europako kapitalismoa gerra-errautsetatik ateratzen lagundu ondoren, Europa Batuaren asmoa bultzatu zutenak 1960ko hamarkada-hasieran, komunismoaren kontrako harresi bat eraikitzeko asmo garbiarekin. Baina Europa Batuaren oraingo proiektuan iparramerikar multinazionalak Europan dauzkaten monopolioen kontrako plangintza aurreikusten baita, Estatu Batuetako gobernuak, Kissinger-en atzerri-politikaren bidez, Europako estatu aurreratuenen ekonomia autonomoa galarazten ahaleginak egingo ditu. Ez du nahi Europako merkatu librean bere produktuek lehiakiderik izan dezaten. Artikulugileak espresuki salatzen du CIAk iparramerikar inperialismoaren

zerbitzurako egiten duen lana, ez bakarrik Hego Amerikan, Txilen bezala, baita Europan bertan ere.

Baina iparramerikarren kapitalak, batua nahiko litzatekeen Europa horretan, paradoxaren handiz, kristau-demokraten zein sozial-demokraten atxikimenduak lortzen ditu. Ezkerrean, zinez europazaleak, Italiako alderdi komunista eta Frantziako alderdi sozialista dira. Kontua da burgesia nazionala iparramerikar inperialismoaren magalean etzanda eroso aurkitzen dela. Burgesia honen ahulezia salatzen du, hain zuzen, J.-L. Davantek.

Bestalde, nekazaritzaren alorrean ere planteatzen da europar merkatua orekatu beharra, sortzen diren labore-soberakinak, merkatu nazional bakoitzaren arabera, nolabait banandu eta trukatuak izan daitezten. Frantzian da handien nekazarien kopurua (% 10); Alemania Federalean gutxiago; eta gutxien, Britainia Haundian (% 3). Frantziak bere merkatu nazionalerako behar baino labore gehiago sortzen baitu, bere soberakinak Alemanian saltzen ditu, bere lurraldean honen industri ekoizpenari ateak irekitzearen truke.

Azken batean, bederatzi estatuk osatzen duten Europa Batua-ren asmoari ez bide zaio epe luzerako xederik ikusten. Hala uste du bederen J-L. Davantek (10, 1974, 27):

“Multinazionalei uzten dute horrelako lan serio eta funtsezkoa. Jokaeran mugatzen da gobernuen arta guztia: egunean eguneko probetxua bilduz, karrikan ordena segurtatuz, bozkak ongi presatatu behar dira, tokian tokiko gisa. Ekonomiako sistema xutik atxik, politikako giderrak ez utz, hara nabari diren helburu bakarrak. Tresna horietaz baliatzea, burgeseria monopolistari dago, honek baitu egiazko boterea. Estatuak baino indartsuago eta zabalago dira multinazionalak. Denetan berdinak dira horien interesak. Hara gaurko internazionala”.

Artikuluaren azken zatian, Europako merkatu batuak Ipar Euskal Herriarentzat zer ondorio ekar lezakeen galdetzen du. Maila politikoan, haren ustez, funtsezko ondoriorik ez; maila ekonomikoan, nekazaritzari dagokionez, Donapaleuko “Lur Berri” kooperatibak haragi-produkzioa bultzatu zuen, baina, haragiaren prezioa laster erori baitzen, irabazpideak gutxitu egin ziren; industriari dagokionez, berriz, kapitalen kontzentrazioak multinazionalen eskuetan jarraitzen baitu, zentralismoa areagotzea eta, ondorioz, lantegi batzuk itxi eta, Atharratze eta Lekuinen bezala, langile batzuk kanpora botatzea besterik ez dezake ekar.

5. Zenbait gogoeta euskal iraultzaz

Zabalek belarriak erne izan ditu han eta hemen gertatzen diren gizarte-mugimenduak, sozialak nahiz politikoak, jaso, aztertu eta, ahal delarik, euskal kasuari aplikatzeko. Txile, Portugal, SESB, Europa Batua: mota askotako arazoak dira adibide horietan aztertzen direnak. Analisisetan asmatu ala ez, informazio-iturrien arabera gaien gutxi ala asko sakondu, kezka hori bederen ezin zaie ukatu aldizkari honetako lankideei.

5.1. Ikusi da, 1970eko hamarkadako lehen aldian, bi gizarte-eredu daudela kontrajarriak nazioarteko politikan, kapitalismoa eta sozialismoa, eta biak aurkitzen direla krisi bizian, biak barrutik jota. Mundu kapitalistak behatz akusatzailea mundu sozialistari zuzendua zeukan; baina eri zegoena, ez zen erregimen sozialista bakarrik, baita multinazionalen monopolioek dardaraz utzitako sistema kapitalista bera ere. Estatu nazionalak txiki geratu dira munstro multinazionalen ondoan. Neoliberalismoak 1929an halabeharrez eraikitako ongizatezko estatua, 1970eko hamarkadaz geroztik, petrolio-krisia dela-eta, lur jota aurkitzen da, norako garbirik gabe. Gaurko langabezi tasa garaiak, adibidez, han du bere jatorria. Neoliberalismoak egin du berea.

5.2. Estatu sozialisten bilakabidea auzitan jartzen bazen ere, demokraziak huts egin zuelako edota klasearteko mailek irauten zutelako, *Zabaleko* ezker abertzaleak, halere –orduan, duela 40 urte–, iraultza sozialistan egiazki sinesten zuen. Nazio-askatasuna sozialismoaren bidetik egin beharrekoa zen. Ipar eta Hegoko talde batek izenpeturik argitaratzen den artikulu batean¹³⁶, esplizituki esaten da “burgesia kapitalismoarekin, edo proletalgora sozialismoarekin, bietako bat hautatu behar” dela. Proletalgora ez da sozialismo-ira iritsiko burgesiarekin batuaz; aitzitik, proletalgora osoak burgesia osoaren kontra egin beharko du borroka, baldin sozialismoa lortu nahi bada. Klasearteko borroka da geratzen den bide bakarra. Bide hau, jakina, iraultza sozialistari dagokiona da. Zentzu honetan, grebak, boikotak, parlamentarismoak, manifestazioak eta beste hainbat ekintza-mota, hauek denak garrantzitsuak izanik ere, proletalgora prestatu eta antolatzeke borroka-mota batzuk besterik ez dira, bide taktiko hutsak, horiek, bakarka hartuta, ez baitira klasearteko des-

berdintasuna gainditzeko gauza. Langileriak boterea hartzea, hauxe da iraultza sozialistaren egitarauan nagusi den printzipioa. Azken xede honek markatzen du estrategia. Beraz, talde honen ustez, beharrezkoa da, iraultza sozialistaz jardutean, garbiki bereiztea taktikaren eta strategiaren eremu espezifikokoak, hots, soilki bitartekoak direnak eta hertsiki helburuei dagozkienak. Zentzu honetan, eta hemen diotena kontuan hartzekoa da, militargintzak badu bere egitekoea, baina masen borroka indartzera zuzendua dagoen heinean bakarrik¹³⁷:

“Bestalde, *indar militar* bat beharrezkoa da, baina, masen borroka laguntzaile izan behar du eta ez alderantziz. Bestela, *faxismora* joango ginateteke”.

Hona hemen iraultza sozialista garbiaren egitaraua formalki azalduta: herritar masek eta, bereziki, langileriak burutuko dute, inork burutzekotan, egiazko iraultza sozialista eta nazio-askatasuna. Halakoa da *Zabaleko* sektore baten iritzia.

5.3. Baina euskal kultura iraultzaileak ba ote ditu bere antzera pentsatzen duten intelektual laguntzaileak? Euskal kausa abertzaleak ba ote du sostengu intelektualik? Jokin Apalategik¹³⁸, 1970eko hamarkada-hasieran Frantzia eta Espainiako politikari eta intelektualek ezkerreko abertzale politizatuen kontra agertzen duten mesfidantza orokortuaren barruan, Jean Paul Sartre eta Alfonso Sastrearen ahots lagunak –bakanak baina–, entzuten ditu. Entzutetsua izan zen lehenengoak, Gisèle Halimi-ren liburuan¹³⁹, Burgosko prozesuan epaitutako ETakideen alde idatzitako hitzaurre mamitsua, zeinetan, hasieran bertan, auziperatuek Espainia eta Frantziako estatuen zentralizazioa salatzen zutela esaten baitzuen¹⁴⁰. Espainian, 1973an Ikastolen indarra murrizteko lege-neurriak hartzen direnean, eskola nazionaletan eredu alternatibo gisa elebitasuna ezarriz, edota, etxeko internazionalista proletarioen kasuan bezala, irakaskuntzan euskara ez bultzatzeko aitzakia ideologikoak bilatzen direnean, madrildar intelektual baten luma agertzen da Bartzelonako literatura aldizkari batean euskal kultura ohoratuz¹⁴¹, zeinetan sostengatzen baitu, tesi gisa, kultura burgesa baden bezala, proletalgoak ere beharko lukeela berea, nahiz eta oraindainokoan ez duen sortu ez herrialde sozialistetan ez kapitalistetan. Trotsky batek dakarrenez, gainera, proletalgoak ez omen du sekula sortuko, zeren klase bezala

desagertu bitarteko epealdian zehar ez baitu horretarako denborarik izango (Apalategi, 3, 1973, 22). Urte berean euskaraz argitaratutako Joxe Azurmendiren liburu batean¹⁴², justu alderantzizko joera salatzen zen, hots, 1917-1921 epealdian ezker hegaleko sobietar iraultzaileek sustatutako “rnugimendu proletkulturala”, zeinaren xedea baitzen “arte eta kultura burgesak zeharo likidatzea”. Bata proletal-
goak bere kultura sortu ezaz penatzen da; bestea, aldiz, mugimendu hori bultzatu izanaz. Eztabaida historikoan sartu gabe, kultura proletarioa eman den ala ez hika-mika, une honetan harrotzen den sakoneko arazoa, kultura klasistari buruzkoa da: hots, klasetasunak kulturgintzan eraginik baduenetz jakitea, eta baldin badu, berori zer-nolakoa den zehaztea. Puntu honetaz ez zen adostasunik ematen joera marxistako zein besteko euskaltzaleen artean. Itzuliko gara gai honetara beste nonbait.

HIRUGARREN ZATIA

*Ezker abertzalea independen-
tzia eta sozialismoaren xeka*

VIII

Hegoaldeko euskal politikaren nondik norakoa frankismoan

Atal honetan, Hegoaldeko euskal politikara hurbiltzeko orduan, hiru azpiatal bereiziko ditugu: lehenik, etapismoa, bigarrenik, oposizio espainolaren jokabide likidazionista eta, azkenik, honen kontrako ezker abertzalearen jarrera kritikoa.

Jokin Apalategi “Begiko”k, 1974ko hiru artikulutan¹⁴³, azterketa sakona eskaintzen du frankismo-garaiko egoera politikoaz. Beronen bilakabidea hiru arotan banatzen du: gerrate zibiletik Burgosko prozesua arterainokoa (1937-70), Burgosko prozesutik Carrero Blanco-ren heriotzara arterainokoa (1970-74) eta Carrero Blanco-ren heriotzatik Franco-ren heriotzara arterainokoa (1974-75). Euskal iraultzaren bilakabidea, berau Hegoaldean antifrankismoaren testuinguruan kokatzen denez gero, egileari iruditzen zaio baduela garrantzirik oposizio espainolak euskal iraultzarekin, zernolako politika daukan aztertzeak, batik bat xede sozialistak dituzten artean, zein interes duen batera eta zer ez jakin ahal izateko.

Guk ere, frankismoari buruzko geure azalpenean, sailkapen horri utsiko diogu.

1. Frankismoaren ezarpenetik Burgosko prozesua arterainokoa (1937-1970)

Lehen aro honi dagokionez, ez gara hasiko urratsez urrats xehetasun historikoak ematen, gutxi-asko ezagunak zaizkigunak, hala nola: frankismoak hastapenean, 1950. urtera arte, ONUren aldetik

ezagutzen duen isolamendu politikoa eta, oposizioaren aldetik, indar errepublikazale guztien –nazionalisten zein estatalen–, aliantza nazionala, frankismoa noiz desegingo zain. Orokorrean, pasibotasuna izan da oposizio errepublikanoaren jokabidea erbestaldian.

Agian interesgarriak dira Espainiako estatuan, nekazal gizarte izatetik gizarte industrializatua izatera pasatzean –hots, 1930-1960 epealdian–, gertatzen diren aldaketa soziologikoak, langileria gorpuztuz doan heinean baitoaz ugaltzen lantegietako borrokak: guttira, 777koa zen borroka kolektiboan kopurua 1963an eta 1970ean, orobat, antzekoa, 700ekoa. Bestalde, ekonomi hazkunde honetan parte hartzen duten diru-iturri nagusiak, besteak beste, hiru hauek dira: lehenik, atzerriko inbertsioa, zeina, dolarretan kontatuta, 1962an 107 milioitakoa zena 1968an 466 milioitakoa baita; bigarrenik, turismoak utzitako diru-sarrera, emankorrena proportzioan 1965ekoa izan zelarik, 13.272.124 bisitarik 1.104,90 milioi dolar gastatu baitzituzten, hots, turista bakoitzak 83,2 dolar; hirugarrenik, emigranteen diru-bidalketak, zeinaren kopurua, 1962koa orotara hartuta, adibidez, 1.740 milioi pezetakoa izan baitzen. Ekonomi hazkunde hau, paradoxikoa badirudi ere, oligarkiak bere interesetarako hartutako neurrien ondorio bat besterik ez da izan.

Espainiako gizarte frankistan horrelako aldaketa soziologikoak gertatzen ari diren bitartean, erbestean kokatuta dauden oposizio-koak, barruko borroka-dinamikan sartu ordez, izozturik bezala aurkitzen dira aliantza antzuen jokabidea sustatuz. Areago oraindik, ekonomi “mirari” horrek eragindako emaitza horiek propaganda frankistak atzerrian arrakastaz saltzen baititu, oposizio errepublikanoa liluraturik bezala uzten du eta, sistema bera auzitan jarri gabe, indar guztiak prest agertzen dira Parisen 1967ko abenduaren 9an eratutako “Frente democrático de la oposición” delakoaren izenean elkartzeko. Hortxe daude PSOE, Acción Republicana Democrática Española, CEDA eta, hauekin batera, baita euskal eta katalan nazionalista autonomistak ere.

Oposizioaren lehen aroko jokabidea baloratzean, Jokin Apalategik (10, 1974, 7) puntu hauek azpimarratzen ditu:

Lehenik, oposizioa II. Errepublikak sortutako “status quo” baitan mugitzen dela zeharo, ezertarako kontuan hartu gabe, bereziki, 1950eko hamarkadatik aurrera gertatzen diren aldaketak. Erbesteko oposizio errepublikanoak errealismo politiko izpik ez bide du erakusten.

Bigarrenik, euskal oposizioari dagokionez, nazio-errebindikazioak II. Errepublikan araututakoan oinarritzen dituen eta 1953az gero erakundetzen diren indar abertzaleekin kontatu gabe jokatzen duen Euskal Gobernuarekin aurkitzen gara.

Hortik ateratzen duen ondorioa da, oposizio frankistan, bi belaunaldi eta bi oposizio-fronte daudela: bata 1936ko Errepublikarekin sortutako egoera politikoa finkatuta segitzen duena, eta bestea, 1950ekoa, frankismoak ezarritako errealismo politikoari erantzunez jokatzen duena.

2. Burgosko prozesutik Carrero Blanco-ren atentua arterainokoa (1970-1974)

Bigarren aroari dagokionez, abiapuntua Burgosko prozesua da, ETÅren inguruan sortzen den fenomeno soziopolitiko berezia, frankismoaren oinarriak nazio-mailan zein nazioartekoan balantzaka jarriko dituen. Prozesu honen inguruan sortzen diren herri-mugimenduek eraginda, oposizio espainola behartua aurkitzen da ordura arteko aliantza-eskemak oro desegin eta beste berri batzuk bideratzera. Egileak bi aliantza-mota bereizten ditu (11, 1975, 15-21): Espainiako estatu osora zabaltzen direnak eta soilki Euskal Herrira mugatzen direnak.

Espainiako estatua bere osotasunean hartzen duten aliantza-proposamenen artean, hiru hauek aurkitzen dira, laburki bada ere, zehaztuko ditugunak:

Lehena, PCEk, Santiago Carrillo-ren gidaritzapean, bere VIII. Batzarrean proposatutako "Pacto de la libertad" da, 1970az geroztikoen artean garrantzitsuena gizarte espainolean lortzen duen oihartzunagatik. Koalizio zabaleko behin-behineko gobernua ezartzea proposatzen da, zeinaren egitekoa izango bailitzateke alternatiba demokratikoa gauzatzea, horretarako, besteak beste, amnistia aplikatuz eta, orokorrean, estatu-mailan zein estatuaren peko nazionalitate guztien mailan eskubide demokratikoak aldarrikatuz. Katalunia, Euskadi eta Galiziarentzat, hauek duten nazio-arazoa gainditzeko, II. Errepublikako Autonomi Estatutua indarrean jartzearen aldekoa agertzen da. Azken aterabide zehatz honetara mugatzen da komunistek teoriarik defendatzen duten autodeter-

minazioko eskubidea. Bestalde, borroka armatuari buruz, esaten da komunistek masen bortxa iraultzailea –sindikalismo iraultzailean oinarritzen dena, alegia–, hori bakarrik onartzen dutela, honekin aditzera emanez Euskal Herrian praktikatzen den bortxa ez dela masetan oinarritzen den horietakoa. Azkenik, klasearteko azterketa egiterakoan, baieztatzen da herritar indarrek, hauek lortu duten sendotasun-maila handiarengatik, gaituta daudela erdi- eta goi-mailako sektore burgesak bereganatzeko, adibidetzat Kataluniako goi-burgesiaren kasua aipatuz. Beraz, hitzarmen honetan, burgesiaren iraultza demokratikoari ematen zaio lehentasuna.

Azterketa horrek, ordea, Jokin egilearen ustez, ez du balio Euskal Herriko goi-burgesiaren portaera nazionala esplikatzeko, zeren hau, lehen bezala orain, ez baita sekula abertzalea izan. Horrela esplikatzen da Santiago Carrillo-ren aliantza-proposamenak oihartzuna Katalunian bakarrik izatea. Funtsera joanda, hitzarmen honen edukia II. Errepublikara-geraiko urak biltzera mugatzen da, bitartean gertatutako gizarte-fenomenoak aintzakotzat hartu gabe.

Bigarren, “Frente Revolucionario Antifascista y Patriota” da, FRAPek proposatzen duena, zeinetan sei puntu hauek jasotzen baitira: a) borroka iraultzailearen bidez, diktadura faxista eta yankien inperialismoa uzkailezea; b) herriarentzat askatasun demokratikoak eta gutxiengoentzat askatasun nazionalak bermatuko dituen Errepublika federatu bat ezartzea; c) atzerritarren ondasun monopolistikoak nazionalizatzea eta oligarkiaren ondasunak konfiskatzea; d) lurjabe handien konfiskazioan oinarrituz, lur-erreforma sakona egitea; e) Espainiako kolonialismoa desegitea; f) herriaren zerbitzura egongo den armada antolatzea.

Talde honen azterketak ere badu bere oin herrena. Egia da, bai, yankiek estatu espainoleko ekonomia biziki determinatzen dutela, baina, hori bezain egia da, orobat, haiek ez dutela sekula auzitan jarri izan frankismoaren subiranotasun politikoa. Bestalde, Errepublikak egitura federatua izango duela esaten den arren, ez da aipatzen estatu zentralista horretan botere autonomikoak zein leku beteko lukeen. Orokorrean esanda, proposamen honek ez bide du langile-riaren egoera konplexuaz azterketa zehatzik egiten, ezta gutxiengo nazionalentzat aterabide egokirik eskaintzen. Dena dela, praktikan, alternatiba honen eragina Espainian mugatua izango da eta Euskal Herrian, berriz, askoz ere mugatuagoa.

Hirugarrena, “Frente Único de Clase” da, EMK (Espainiako Mugimendu Komunista), ETA VI. Asambllea eta LCR (Liga Comu-

nista Revolucionaria) taldeek osatzen dutena. Batera hiru puntu hauek dituzte: a) Espainiako estatu osorako estrategia zentralista izango duen langileriaren erakunde politiko bat eratzea; b) burgesiarekin ezein akordiorik onartuko ez duen langile-erakunde askea eratzea; c) Euskadi, Katalunia eta Galiziarentzat autodeterminazioko eskubidea onartzea.

Azterketa honetan, burgesi mota oro langileriaren etsaitzat hartzean, ahaztu egiten da, frankismoak ezarritako diktatura-egoeran burgesiako zenbait sektore xehek langileekin elkartu ezinik ez duela. Bestalde, autodeterminazioko eskubidea formalki eta taktikoki aldarrikatzen duten arren, aurreko beste bi alternatiben antzera, estatua zentralismoa lehenesten dute eta, ondorioz, eskubide hori haren zerbitzura jartzen. Nolanahi ere, oso txikia da hauek euskal langilerian duten indarra.

Beren estrategia politikoa soilki euskal lurraldera mugatzen dutenen artean, *Brankakoek*, Burgosko prozesuak sortzen duen herri-mugimendua dela-eta, 1970ean kaleratzen duten Euskal Fronte Nazionalaren proposamena aipatzen da. Asmo hau jadanik 1966az geroztik landuz zetozen aldizkari horretako 2. eta 3-4. zenbakietan lantzen da. Burgosko prozesuak eskaintzen die plazaratzeko abagune egokia. Hain garrantzitsua da fronte honen planteamendua, ezen ETAk une honetan ezagutzen duen barne-zatiketa bainan puntu oinarritzkoenetako bat gertatzen baita. Euskal langileriaren interesak estatu-mailako estrategian txertatu ala Euskadi-mailako politika iraultzailea egin, hau zen ETA Sextakoekin harrotutako eztabaida. Euskal Fronte Nazionalaren antolakuntzak, jakina, euskal lurraldera mugatutako alderdi eta mugimendu nazionalista guztien batasuna inplikatzeko zuen eta, ikuspegi honen arabera, nazio-askapenerako bidean fronte nazionalista lehenesten zen klaseartekoaren gainera. Une historiko hartan, *Brankakoen* ustez, nazionalista izateak zemaion euskal kausari iraultzaile izatea¹⁴⁴; klasista izateak, aldiz, objektiboki espainol eta frantses inperialista direnekin elkartzea suposatzen du¹⁴⁵. Euskal Herrian, hain zuzen, euskal lurraldean finkatuta dauden alderdi estatalistak dira fronte nazionalaren kontra daudenak.

Jokin Apalategik, *Brankakoen* planteamendu frontistari buruz, zenbait ohar egiten ditu. Zehazki bost hauek dira, testutik hitzez hitz hartuta, bere osotasunean dakartzagunak:

“Lehenik, Fronte bat pertsona ezberdinekiko taldea baino erakunde ezberdinekiko talde gehiago izendatu behar dela. Biga-

rrenik, programa hau proposatzen dutenek sozialista izendatuz gero; Nazional Fronte horretan abertzale sozialisten batasunaz ez dutela hitzik ere egiten: Eta hori Euskadiko langilieriaren xede berezien zaintzaile izan nahi dutenek behin ere ezin dezakete ahantz. Hirugarrenik, Euskadiko langileri erakundearen baitan, batzuk euskaltzale eta beste batzuk euskal-aurkako direla aipatuz gero, langilieriaren onerako bi talde horien batasun-bide bat bilatzen ahalegindu beharrean, elkarrekiko gorrotoa indartzen dela sumatzen dugu. Laugarrenik, egungo borrokaren heinean nazional askatasuna Euskadirako erdiesteko, nola Espainiako hala Frantziako Estatuan, monopolioetako burgesiaren aurka joatea dela lehen helburu justuki seinalatuz gero, euskal herritar burgesiak eta proletalgoak azken funtsean duten kontradikzioa, oraingoz ahanzteko eskatzen da. Ahantzi ez baina, nahi eta nahiez eta gaur beretik, kontradikzio hori Nazional Frontearen programa minimo horretan garbiki adierazita etorri behar luke. Bosgarrenik, euskaldunoi Euskadiko askatasun nazionala trabatzen digun bi Estatuetakoa monopolioen politika salatuz gero, Estatu horietan iraultzaile direnetarik inor gure borroka honetan noizbait eta une taktiko baterako elkar liteken hipotesirik ere ez dela egiten” (11, 1975, 20-21).

Horixe dugu Jokini izaera horretako fronte nazionalak merezi dion aburua. Ez dirudi euskal fronte nazionalaren kontra dagoenik, baina, bai, hor proposatzen den eredu horren kontra, zeren bertan ez baitira sartzen, ezta maila taktikoan ere, euskal langilieriaren alde dauden baina euskaltzale sentitzen ez direnak. Nolabait esateko, euskal fronte nazionala osatzerakoan, espiritu zaluago eta irekiago batez jokatzeko eskatzen duela dirudi.

3. Carrero Blanco-ren atentatutik Franco-ren heriotza arterainokoa (1974-75)

Hirugarren aro honetan, data-mugarritzat Carrero Blanco-ren heriotza ezartzen da, zeren, Jokin Apalategi egilearen ustez, ezin baita ukatu gertakari hark, modu batera edo bestera interpretatu, gobernu frankistan krisia handia eragin zuela. Almirantearen heriotzatik 1975. urteraino zabalitzen den epealdi labur honetan gizarte-gatazka berriak agertzen dira edo lehengoak indartzen, hots: “lan-

gile borrokak, ikasleen borrokak, ekologisten borrokak (nuklear zentralen hurbilean bilakatu direnak batik bat) eta emakumezkoen borrokak...” (Apalategi, 12, 1975, 1).

Espainiako politikan, 1974. urtea kinka larriko urtea izan zen frankismoarentzat. Hala uste izan baitzuten *Zabalekoek*, aro honi hainbat artikulu eskainiko zaizkio bertan.

3.1. Anonimo batek, orrialde bakarreko artikulutxo batean, ETAkoek, Carrero Blanco Espainiako gobernu-lehendakaria atentatuz hiltzean, etsaia buruan jo dutela baieztatzen du¹⁴⁶. Ekintza militar hau, batzuentzat krimen bat izan zen bitartean, beste batzuek atseginez hartu zuten. ETAk, ekintza honen bidez, hiruzpatalau helburu lortzen dituela uste du, pasarte honetan zehazten den bezala¹⁴⁷:

“Ekintza militar honek ondorio anitz ekarriko du. Euskal-Herriatik kanpora, Espainiako hiriburura gudu eramanez, ETA-k Europako mailara altxatu du euskal problema... Bide berez, erakutsi du, Euskal-Herriatik kanpo ere berdin, nahi duena eta nahi duen orduan jotzen ahal duela. Honek etsaiaren buruminetan barna sartu duke halako segurtamen-eza bat, larderia bat. Bestalde, espainol olde anti-frankistei ere lezio bat ona ematen diete ETAkoek, haien ahulezia gainditu baitute eta haiek denek pentsatzen zutenean aitzindu baititu. Ez dugu ahantzi behar ere, kalapita bide bat ederra sartu duela Madrileko politik alderdietan, Carrero Blanco han zeno, egitera menturatzen ez zirenaren egitera ausartuko baitira beharbada orai”.

3.2. ETAREN ordura arteko historia aktibistan ekintza-mota nagusizat jo daitekeen atentatuaz, Jokin Apalategi “Begiko”k¹⁴⁸ azterketa sistematiko eta pentsatua aurkezten du, berorren ondorioak testuinguru espainolean eta atzerrikoan kokatuz. Zein testuinguruan gertatzen da Carrero Blanco-ren atentatua?

Azken orduko Espainia frankistan kontraesan nabariak ematen dira. Batetik, klase aristokratiko eta burgesa, milioika langile emigrazioa kondenatuz eta, Espainiako hainbat herri hustuz doazen aldi berean, turismoari atea irekiz, dibisen bidez ari da metatzen bere kapitala; bestetik, kapitalak herririk ez duenez gero, klase horren interesak Europako merkatu batuan bere pribilegioak lortzera zuzentzen dira. Bitartean, ordea, eskubide demokratikoak eta nazionalak debekatzen dira, herri-mugimenduak oro –nazionalistenak,

bereziki-, sistemaz eta basaki zapalduz. ETAk ordurako bazituen zortziren bat kide hilak erresistentziako bidean, hauen artean Txabi Etxebarrieta Tolosako Benta Handian 1968ko ekainean, Jon Goikoetxea Elizondon 1972ko apirilean, Mikel Murgia eta Benito Mujika Lekeitio urte bereko irailean, Eustakio Mendizabal Algortan 1973ko apirilean, Jose Luis Pagazautundua eta Jose Etxeberria Romon azaroan eta Jesus Artetxe Altzan abenduan.

Carrero Blanco da, hain zuzen ere, klase hegemoniko horren sinbolo eta jarraitzailea, 1972an gobernu-lehendakari izendatua izan zenez geroztik, egiteko hauek ematen zaizkiona:

“Franco konseilatu. Opus Dei gobernuratu. Erregetza birberritu. Eta guzti hori Estatuko aristokrazia eta burgesia bere interesetan aurrerabidean gordetzeko. Espainiako herria eta langileria zapalduaz. Euskadiko Herria eta langileria hankaperatuaz. Euskaldunak hankaperatze honetan ehunka presondegitan itzuli ditu. Beste ehunka atzerriratu ditu. Eta Burgosko prozesua eta ETAko militanteen hiltzeak agindu eta bilakarazi ditu” (Apalategi, 6, 1974, 19).

Azken batean, frankismoaren jarraipena ziurtatu nahi da, askatasun politikorik gabe, ekonomian liberalismo teknokratikoa ezarri. Horregatik jotzen du ETAk buru-buruan, uste baitu Carrero dela erregimen frankistaren giltzarri.

Erregimena ondorioak zein izan ziren?

Erregimena herritarrak nahasten ahaleginduko da, ETAko kideak kinki, terrorista eta diruzale gisa agerraraziz. Gera psikologiko honetan, Semprun-en jokabidea da aipagarriena. Gertakari politikoak hurbiletik segitzen dituen Euskal Herrian ez, baina Espainia desinformatuan, hemen bai, euskal kausari buruz irudirik ankerrena sortzea lortzen du. Espainiako klase politikoa, Alderdi Komunistak ere kondenatu egiten du ekintza hori, “haurkeria” gisa hartuz. Hala egiten du, frankismoak eragindako aurrerapen ekonomikoa eta elkarrizketarako agertzen omen zuen gogoia justifikatzeko prest agertzen delako. Helburu honekin bideratu nahi du “Pacto de la libertad” delakoa. Bestalde, Espainiako ezkerreko beste talde estatista batzuek (hemen sartuz MC, LCR-VI Asamblea, Comisiones Obreas, ORT, etab.), hauek ere ekintza horrek masa-mugimendua izoztuta utzi duela salatzen dute. Euskal politikara etorrira, Joseba Leizaola lehendakariak Carrero Blanco-ren heriotza ez zela ETAREN

obra izan aldarrikatuko du. Euskal Gobernuaren ere frankismoarekin hizketan has daitekeela sinesten duen horietakoa da.

Espainiako oposizioetik eta Euskal Gobernutik etorritako kritika horien aurrean, artikulugileak honela arrazoituz justifikatzen du Carrero Blanco-ren atentatua:

“Dudarik ez dago, popular masetan eta langilerian oinarritutako bortxa eratu baten bila dabilela ETA. Horretara ailegatzeko, ordea, baldintza batzuk sortzez hasi beharra dago.

1) Iraultzaileen taldexka bat sortzetik hasi behar da. Gutxitik igotzen bait da guztira. Hori lege orokorra da.

2) Diktadura garaituko duen ekintza mugimendura ailegatzeko, ekintza banako anitz eta erlatiboak egitetik igaro beharra dago. Carrero Blanco hiltzea erabaki denean, inork ez du pentsatu, horrekin Francoren diktadura, bat-batean bukatuko zela.

3) Finean, bortxa hori, popular masetan eta langilerian oinarritu eta eratu behar da. Eta orduan bertan ere, lehen kolpez ez da diktadura hiltzea asmatuko. Beti ez baita hilkor, une eta aldi batzuetan baizik.

Baina, guk proposatzen dugun prozesu hori eraman behar da. Masak eta langileria manipulatzeko ez da aski! Masa mugimendu armatura iristeko, noizbehinka bortxa eratuaz diskurtso egitea ez da aski! Masa mugimendua bi eratakoea eman liteke: armatua eta desarmatua. Masa mugimendu armatuak, aipatu berri dugun prozesua besterik ezin jarrai lezake” (Apalategi, 6, 1974, 21).

Laburtuz: ekintza armatua, masa-mugimenduaren jarraitzaile eta bermatzaile besterik ez da. Indar osatzailea, ez ordezkaitzailea.

Ez dakigu ETAk frankismoa egiazki buruan jo zuen ala ez, baina egilearen ustez, atentatuaz geroztik, egoera politiko berri baten aurrean aurkitzen gara.

Lehenik, Euskadi mailan, baldin atentatu honen ondoren gobernuak hartutako zapalkuntza-neurriak aztertzen badira, ageri da erdi-zauriturik dagoen basurdearen antzera erasotzen duela estatu-aparatuak, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hiritar guztiei pasaporteak kenduz eta, orobat, Frantziako gobernuari euskal erbesteratuen kontra jokatzeko eskatuz. Iparraldeko merkatariek erbesteratuen kontra egin dezaten lortu nahi da, hauek presio-bidez handik uxatzeko. Baina erabaki horrek kontrako aldea ere badu, zeren, Hegoaldekoentzat mugako pasabidea zailtzean, Iparraldeko merkatariaik galtzen ateratzen baitira. Eta oraindik garrantzitsuagoa

dena, horrelako neurriak hartzean, Espainiako estatuak, oharkabean baino inplizituki, Euskal Herri osoaren, Hego eta Iparraren, lurralde-batasuna eta nortasun nazionala onartu egiten ditu, teoriarik ukatzen datorrena. Beraz, kontraesan berriak bistaratzen dira.

Bigarrenik, Espainiako estatu-mailan, Franco-ren gobernuak, Hegoaldeko mugimendu iraultzailea dela bide, gaintutua ikusten da. Aurreko gobernuan “mugimendu nazionala” osatzen zuten korronte desberdinak –Falangea, Kristau-Demokrazia, Opus Dei eta Juan Carlos-en monarkia–, alde batera utzita, orain, Arias Navarroren gobernuan, frankismo huts-hutsa ezartzen baita, gerta liteke luzarora gabe beste hirugarren alternatibaren bat sortzea. Horrelako zerbait aurreikusten da.

Hirugarrenik, gobernu teknokratikoak frankismoa nazioarteko mailan onartua izatea bilatzen baitu, normala da, Carrero Blanco gobernuburua galtzean, Franco-k beste estatuen sostengua hartu nahi izatea. Internazionalista sozialistak –Kubak eta Txinak barne–, bere esku laguna luzatzen dio faxismo espainolari. “Non da langile-riaren internazionalismoa?”, galdetuko du Jokinek (6, 1974, 22), gero honekin bukatzeko: “Protokolozko hitzetan galdu da”.

Laguntza solidarioa etorri, hitzetatik harago joanez, estaturik gabeko nazio zapalduen aldetik datorkio ETAk daraman borrokarik. Flandestarrak, Okzitaniarrak, Bretoiak, Katalanak, Korsiarrek, Frisiarrak eta beste hainbat dira Baionako gose-greba, meeting eta manifestazioetan parte hartzen eta beren solidaritatea agertzen dutenak. Orduan praktikatzen da egiazki nazio zapalduen internazionalismoa, justu langile-internazionalismoak alde guztietatik huts egiten duen une kritikoan. Urrats izugarria da ematen dena.

3.3. Lehen aipatu da frankismoak, Opus Dei-ko teknokratekin, liberalizazio-aireak zabaldu zituela estatu-mugaz haraindi, bereziki maila ekonomikoan. Mikel Urteagak “Baigura”¹⁴⁹ liberalizazioarekin konformismoan erortzeko dagoen arriskua aipatzen du, kontsumismoari bidea libre utziz eta, ondorioz, sistemaren ajeak ahortziz. Alternatiba honen aldekoak dira Santiago Carrillo komunista eta Díez Alegría demokrata. Carrillo, atentatua gertatu ondoren, hiru aldiz mintzatu omen zen gobernu-gizonekin etorkizunaz eztabaidatzeko. Baina, berak dioenez, irtenbidea ez da gobernu liberalizatu eta herritarrek lehengo sistema zaharrean integratzearena, zeren orduan ere herritarrek oligarkiaren eta burgesiaren mendeko segituko bailukete. Jadanik politika-molde honen froga historikoa egina da Ipar

Euskal Herrian, zeina, Frantzia bezalako gobernu demokratiko eta liberal batean, “konformismoa, integrazioa, folklorekeria eta aber-txalekeriazko sozietate bat” bilakatu baita (Urteaga, 8, 1974, 16). Ez da horrelako triunfalismo batean erori behar eta, arrisku horretatik aldentzeko, borroka ideologiko gogorra egin behar da gizarte-fronte guztietan: herrian, auzoetan, lantegietan.

3.4. Paulo Iztueta “Meakaberri”k¹⁵⁰, 1975eko udan, frankismoa azkenetan ote zegoeneko susmoa zeukan. Euskal Elkargoak argitaturako txostena aurrean¹⁵¹, Euskal Herriari gainera etorri zaion zapalkuntza-jasa izugarria dakar argitara. Hilak, torturatuak, espetxeratuak, ihes eginak, ezkutuan daudenak eta abar kontatuta, kalkulatzen da, guztira, 3.300 lagun inguru direla bortxaz, defentsarik ezaz eta umiliazioz ziztatuak. Bizkaia eta Gipuzkoa dira ukituenak. Hain zuzen ere, 1975eko apirilaren 25eko legearen arabera, 1967az geroztik oraingoan seigarren aldiz, bi probintzia hauek oinarritzko zenbait eskubidez gabeturik geratzen dira hiru hilabetez. Euskal lurraldea, txindurriak antzo, polizia betetik dago: 20.000 inguru omen daude han-hemen barreiatuak. Eta salbuespeneko lege hori aldarrikatuz gero, berriz, 10.000 gehiago sartzekoak omen dira.

Zer gertatzen ote da Euskal Herria militarki okupatua egon dadin? Galdera honi erantzun nahi zaio. Aurreko artikuluetan esan bezala, etorkizunari begira nolabaiteko irekitasun-promesen zantzuak entzuten badira ere Arias Navarro-ren gobernuan, Franco-ren ehorzketa politikoa iragarria badago ere, haren itzal fisikoaren anparoan oraindik bizirik diraute zapalkuntzako estatu-aparatu guztiek. Frankismoaren zuztar sendoenak, egilearen ustez, bere interesak zaintzeko estatu-aparatu zapaltzaileaz baliatzen den klase hegemonikoan aurkitzen da eta burgesia militarizatu honek baldintzatuko du geroko politika:

“Indar horiek ez bide dute errepresentatzen mugimendu politiko baten herri-laguntza. Bai, hau egia da, baina ez da ahanzi behar errepresioko indarren kontrola dutenak, nahiz eta politikoki organizatu gabe egon, kapaz direla edozein astakeria egiteko, baita gobernu bera ere txantaje politiko baten bitartez desafiatzeko” (Iztueta, 14, 1975, 2).

Ez nuen pentsatzen profezia hori 1981eko otsailaren 23an beteko zenik, Tejero koronelak Madrilgo parlamentua okupatu zuenean. Militarrek orduan ziurtatu zuten ez zela aurrerantzean

frankismo-garaiko sistemarekin etenik eman ahal izango. Trantsi-ziokoa, geroztiko historiak frogatu duenez, klase militarra nagusitu zen eta, erresistentziara pasatuko den ezker abertzalea salbu, beste alderdi demokratikak oro, estatalak zein nazionalistak, haren esanera plegatuko dira.

Gaur bezala, orduan ere Euskadi zigortua zen. Baina zergatik? Bi arrazoi ematen nituen: bata da, euskal borrokaren funtsa, Katalunia eta beste herri zapalduetan ez bezala, abertzaletasunean datzala, eta bestea, euskal abertzaleak, independentziarako bidean, armen bidez ere borrokatzen direla: “Frankistek ongi dakite askatasunera heldu diren herriak borroka armatuaren bidez heldu direla. Horregatik doa zapalkuntza zuzen-zuzen borroka armatua daramatenen kontra. ETAren historia froga aski garbia da” (Iztueta, 14, 1975, 2).

Bi arrazoi horiengatik, hain zuzen ere, da hain zafratua Euskal Herria, bere eskualderik abertzaleenean. Zapalkuntza honek bi xede bete nahi ditu: herritarren artean izua sortzea tortura basati eta krudelen bidez eta ekintzaile armatuen azpiegitura desegitea, zuzenean hiltzera tiratuz. Estatu terroristaren esku zikinak 1975eko urte honetan agertzen hasiak dira. Jasotzekoa da pasarte hau:

“Zapalkuntzaren ausardia oraingo honetan urrutiago joan da. Gauza jakina da Espainiako poliza iparraldean zehar ikusmira ibili ohi zela aspaldiko denboretatik. Orain ordea, ekintzara pasatu da, *terrorista* bilakatzen da hitzaren zentzu hertsian. Terrorista bai, euskal-lekuak eta euskaldun zenbaiten gauza pribatuak deseginez eta, azken finean, Iparraldeko ekintzaile batzuk garbitu nahiz. Horrelako zapalkuntza motarik ez da orain arte ezagutu izan. Guzti honek esan nahi du zerbait berri gertatzen hasia dela Espainiako politikan” (Iztueta, 14, 1975, 3).

Estatua terrorismo-ekintzetara pasatu beharrak, itxura guztien arabera, “segurtasunik eza” suposatzen zuen. Iruditzen zitzaigun eskuindarrak frankismoaren ehorzketa prestatzen ari zirela, espantuz eta gorrotoz ari ere, abertzaleen artean –ETAren inguruan, alegia–, gerla psikologia ereinez. Zentzu honetan esaten zen frankismoa bere azken ostikadak ematen ari zela. Gure orduko ikuspegi hartan, geroak erakutsi digunez, bazen zer zuzendurik.

3.5. Arestian esan bezala, 1975eko udan, azkenetan zegoen frankismoa odol-gose zela iragartzen nuen eta asmo terroristak zebilzkiela salatzen. Urte bukaera-aldera, Jose Manuel Odriozola

“Izarreko”^{k152} Espainiako estatua egoera larrian aurkitzen dela esaten du. Izan ere, bost heriotza-zigorren epaia ematen dute epaimahaiko militarrek eta Franco-k, oraingoan, ez du bururik makurtuko ez ONUren ez Aita Santuaren izenean. Burgosko prozesuan lortu ahal izan ez zuena, bost heriotzekin konplutuko du, horien artean ETako Txiki eta Otaegiren exekuzioak zeudela. Eta diktadoreak haxe, bihotz gogor eta odol-bero, bukatuko du bere bizia.

Baina frankismoak zergatik betearazten ditu heriotza-kondena horiek? Aurreko artikuluan frankismoa bere azken ostikadak ematen ari zela eta, etorkizunari begira, militarrek nagusitzen ari zirela genioen. Hemen ere frankismoaren ezaugarri nagusia, “militar diktadura” dela baieztatzen da. J. M. Odriozolak dakarrenez, militarren diktadura batean, ideologia eratu eta hedaturik ematen den ala ez, hots, estatu-aparatu errepresibo hutsen logikaz jokatzeko den ala ez jakitea da kontua. Kontraesankorra iruditzen zaio militarren diktadura batean ideologiarik gabe funtziona daitekeela dioen tesia. Bost heriotza-zigorren kasura etorrita, haxe dio:

“Baina, halere, kontraesan handi baten aurrean dagoke jende hori: alde batetik heriotza-zigorren ezarpena erregimen frankistari ezinbesteko zaiola aitortzen du nolazpait iraungo badu, bestetik, ordea, ez da esaten hartu duen erabakiak iraupen hori luza dakiokenik. Eta badirudi, orduan, edozein sistema politikok erabaki bat hartzerakoan egin ohi duena, ahantzi edo egin zaigula. Hots: ez gaurko soilki, aitzitik, gaurgeroko iraupenaren arabera jokatzeko dela edozein sistema politiko (sic). Hona hemen kontraesana” (Odriozola, 15, 1975, 12-13).

Militarren diktadurak ez du onartzen zapalduen aparatu ideologikorik. Frankismoak lortu izan du menpeko klaseak eta hauen ideologiak azpian edukitzea. Baina aurrerantzean, zer? Egileak uste duenez, Espainiako estatuan, etorkizunean bereziki, demokrazia burgesak bere hegemonia ezarri nahi izango du, eta ez maila ekonomikoan bakarrik, baita politiko, ideologiko eta juridikoan ere. Horretarako, jakina, oposizioko alderdi politikoak legalizatu beste erremediorik ez du izango. Koiuntura honetan, bada, zeinetan Espainiako estatuan Mendebaldeko estatu modernoaren eredua aplikatu nahiko baita, politikoki eskuin muturrean ez dagoen espainiar burgesia, beti ere bere interesak arriskuan jarri gabe, alderdi politikoei lehentasuna eman beharrean aurkituko da. Horregatik, Espainiako estatua egoera larrian dagoela esatean, esan nahi da frankismoa,

berau diktadura militar bat den aldetik eta beronek goi-mailako burgesia monopolistaren eta lurjabeen interesak ordezkatzan dituen aldetik, bukatzeaz dagoen erregimena dela. Zentzu honetan, bada, bost heriotza-zigor horiek ezartzeak frankismoaren bizitza bera laburtzea besterik ez bide du suposatzen.

Iritzi hori, ordea, ez zen egiaztatua izan trantsiziokoan, zeren, alderdiak legalizatu baziren ere, diktadura militarretik demokraziarako urratsa ez baitzen eman. Lehen aipatutako “tejerazoa” da adibiderik garbiena.

Zentzu honetan, hala uste du egileak, Espainiako “demokrazia burgesak”, dituen interes ekonomiko eta politikoengatik, bere hegemonia ezarri nahiko du:

“Oposizioko indar politikoei ez die amorerik emango bere interesak arriskuan jar litzakeen neurrian, baina bestela bai. Bestela bai, diogu, zeren eta bloke dominatua legalizatu gabe ezin bai lezake Mendebal aldeko Estatu hori eraiki. Bistan da, orduan, ekonomia mailan ‘bunker’ delakoaren alde ez daudenak eta politikoki eskuin muturrean ez dauden indar sozialak ezin onets lezaketela diktadura militar bat” (Odrizola, 15, 1975, 14).

Egile honen ustez, erregimen frankistak, bost exekuzio politiko horiekin, oinarri soziala galdu eta bere biziaren iraupena laburtu baino ez du egin.

3.6. Frankismoaz zen hona arteko jarduna. Baina hortik harago, estatu espainolean bizi den gizarte-egoera nahasi eta konplikatuta horren aurrean, gobernu frankistak jarraipenik izango duen ala ez, eta frankismo ondoko koiuntura berrian Espainiako oposizioak nola jokatu duen, hori izango da *Zabalekoek* jorratzen duten beste gaietako bat.

Berriro, hemen ere aurreko artikuluan erabilitako banaketa-metodo berbera aplikatuz, Jean-Louis Davantek¹⁵³ ez bezala, oposizio estatalaren eta euskal nazionalisten alternatiba-proposamenak bereizita eskaintzen ditu Jokin Apalategi “Begiko”k (12, 1975, 1-9) hirugarren artikuluz zati aipatua:

a) Espainiako oposizioari dagokionez, talde hauek aipatzen dira: PCE, Alderdi Karlista eta PSOE historikoak eta, ezker berrikoen artean, FRAP, ORT, MCE, LRC-ETA Sexta eta Komunisten Batasuna. Beraz, zortzi talde guztira.

PCEk, 1974ko uztaiaz geroztik, “Junta Democrática de España” delako alternatiba aurkezten du, zeinaren arabera, lehengo errebindikazio errepublikanoak alde batera utziz, orain sistema frankistan parte hartu dutenekin elkartzea proposatzen baita. Calvo Serrer eta bere lankideekin izaera horretako aliantza paktatzen du PCEk. Alderdi karlista ere, frankismoarekin urte luzez harremanean egona, aliantza honetan sartzen da, askatasun demokratikoak aldarrikatuz.

Jokin Apalategik egiten duen galdera da ea parlamentu-sistema burges batek iraupenik izango ote duen Euskadi, Katalunia eta Galizia bezalako herrien gutxienezko eskabide nazionalak kontuan hartu gabe. Horrelako gobernu-sistema burges batean langile-interesak nola zainduko diren ere ez du batere garbi ikusten.

PSOEk gidatzen duen indar errepublikanoen multzoa bere bidea ezin aurkituz bezala ageri da, norako finkorik gabe. Une batean “Asociaciones políticas” delakoetan sartu ala ez, zalantzan egon ondoren, atzera-pausoa ematen du.

Ezker estatalista berrian ere, zenbait puntutan, berrikuntzarik nabari da. FRAPEk, une honetan, bere indar guztiak yanki-frankismoaren eta, bereziki, oligarkiarekin aliatuta dagoen “carlismo”aren kontra zuzentzen ditu, langileriaren interesak areago defendatzeko asmoarekin. Baina nazio menperatuen askatasunaz deus ez dakar. Nazio-arazorik planteatu ere ez du egiten.

ORT erakundeak, 1974ko maiatzean argitaratutako *El Militante* aldizkariko 6. zenbakian, etorkizunari begira, puntuok lantzea jartzen du eginbidetzat: a) haziz eta, aldi berean, hedatuz joatea; b) langileriari zuzendaritza ematea, PCEk praktikatzen duen errebisionismoaren kontrako borrokan, metodo gisa, marxismo-leninismoa erabiliz; c) masa-indarrak mugimendu antifaxistan bateratzea, hemen, langileriaren zuzendaritzapean, oligarkiaren zein inperialismoaren kontrako talde eta klaseak oro sartuz. Beraz, iraultza-bidean, lehen une batean, herritar mugimenduak bultzatu behar dira eta bigarrean, berriz, alderdi komunista desberdinen batasuna lortu behar da. Aldarrikatzen dituen oinarritzko eskubide demokratikoen artean, Euskadi, Katalunia eta Galiziarentzat autodeterminazioko eskubidea onartzea aipatzen da.

MCE, dirudienez, krisialdi batean aurkitzen da eta honen oraingo jarrera ORT eta PCEren artean kokatu beharrekoa izanen litzateke.

LCR-ETA Sextakoek, Frantziako Tolosan argitaratutako “Sur le problème national basque et la lutte armée” izeneko txostenean, Euskadin, autodeterminazioaren aldeko jarrera agertzen duten aldi berean, gizartearen bilakabidean nazioaren kontzeptu absolutu eta ahistorikoa daukaten nazionalista erradikalak salatzen dituzte, esanez horien ikuspegia atzerakoa dela. Nolanahi ere, hauentzat nazionalismoa, berau edozein motatakoa izanda ere, zerbait gauditua da, zeren iraultzaileen egitekoa, klasearteko aliantza guztiak baztertuz, Langile-Elkartearen Batasuna lortzea baita. Talde honen nazio-ikuspegi hau dela-eta, Jokinek gaineratzen du, abertzale batzuentzat, agian, nazioa ahistorikoa izanen dela, baina abertzale sozialista batentzat ez dela ez absolutua ez ahistorikoa, zeren, berak euskal langileriaz dioen bezala, hark “bere aberria garantizatu gabe duenean hori sartzen ahalegintzea langileri beraren defentsa ere bilatzea baita” (Apalategi, 12, 1975, 5).

“Komunisten Batasuna” taldeak, 1974ko urrian ateratako *Bat* delakoan dakarrenez, aurrerantzean egin beharreko aliantzak oro era guztiz objektibo batez aztertu behar dira, klase-ikuspegitik begiratuta, zein diren lagunak eta zein etsaiak ongi argituz. Azken batean, borrokan aliatu, herritar indar politiko guztiekin aliatu behar da, zehazki: nazionalki zapaldurik dagoen herriarekin, nekazariarekin, herri, auzo, eskola eta unibertsitateko erakundeekin. Horrela jokatzean, masa-erakundeak babesten dira. Hauxe da aliantza-politika zabaltzeko bide iraultzaile bakarra, buruzagitza proletalgoak eramango duelarik. Alderdiaren eta CCOOren artean, hortxe bideerdian bezala, ikusten dute hauek langileria-erakundearen batasun politikoa.

b) Euskadiko aposiziori dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren eta ETAREN proposamenak azaltzen ditu. Eusko Jaurlaritzak, 1974ko irailean argitaratutako “Euskalerrinari” txostenean esaten du laster urrats demokratiko biziki garrantzitsua eman beharko dela, zeinetan euskal lurraldean dauden joera guztietako talde politikoak elkartu beharko bailirateke. Batasunaren premia aitortzen da, baina hori demokrazia interklasista oinarrituta egin nahiko da. Bideabar, Espainiarako zein estatu-mota nahiko litzatekeen ere esaten du: hots, monarkikoa ala errepublikanoa izan, hauteskunde-bidez erabakiko da. Euskadin beste bitarteko gobernu bat hartu beharko da ontzat. Eta Nafarroaz, zer? Onartzen du azken urte horietan Nafarroa berez elkartu dela herri-borrokan beste euskal probintziekin, baina lorpen horiek instituzionalizatu beharrik ez du ikusten.

Ordurako zatiketa burutua baitzen milien eta poli-milien artean, ETAREN baitan bi talde bereizten ditu, Bat eta Bi ezaugarrien bidez, zeinak, hurrenez hurren, militarrek eta politiko-militarrek baitira.

Lehenengoa –bereziki, borroka armatuaz arduratzen dena, alegia–, 1974ko azaroan, antioligarrikoak diren talde abertzale guztiei zuzentzen zaie, alternatiba demokratikoaren aurrean, abertzale guztiek politika bateratua eraman dezaten. Langile-erakundeak sostengatuko ditu, batez ere, hauek, bere indar guziez, behar izanez gero, baita ekintza armatuen bidez ere.

Bigarrena –politiko-militarra–, bere jarduera politikoan pre-politiko eta pre-militar gisa jokatzeko duena da, bere liberatuak edozein lekutara, lantegira bezala eskolara, praktetan pistola dutela bidaltzen dituen. ETAko talde honek, 1974ko abenduaren 20an, agiri bat argitaratu zuen, indar abertzale eta demokratiko guztien arteko batasuna aldarrikatuz, zeinaren helburua oligarkiaren kontra borrokatzea izango baita. Baina demokrazia izan, ez da helburu bat izango, gerorako bide bat baizik.

ETAren zatiketa dela-eta, honen zergatikoa azaltzerakoan, alderdikeriak eta “pertsonalkeriak” aipatzen dira testuan. Jokinen ustez, ordea, arrazoi objektiborik egon zen “abangoardiako lanetan itotzen ginen erretagoardiako aparatuak deskuidatuz” (Apalategi, 12, 1975, 9). Horra!

3.7. Burgosko prozesuaren ondotik, batez ere, ETA historiokoaren eta hortik aldentutakoaren artean salaketa ugari gurutzatzen da. Hiru puntuok ditugu eztabaida-gune *Zabaleko* orrialdeetan: internazionalismoa eta likidazionismoa, abangoardia faltsua eta sozialismo abertzalea, banan-banan jaulkiko ditugunak.

3.7.1. Lehen gaia Mikel Urteagak “Huarte”^{k154} harrotzen du eta, beste ustez, likidazionistak dira MCE, ORT, ETA VI, PCE etab., nahiz eta hauetako batzuek beren burua ez duten halakotzat hartu nahi. Eta hala dira, hain zuzen ere, horien ideologia kosmopolitismoan oinarritzen delako eta ez abertzaletasunean. Kosmopolitismoaren tesirik maiteena, hauxe da: “produktzio indarrentzat, oztopo bat bilakatu dela nazioen soberania”, eta, beraz, nazio bakoitzak bere subiranotasunari uko eginez gero, haren ekonomia azkartuko litzakeela, populuaren bizi-maila igoko eta herrien arteko harremana handituko. Ondorioz, arrazoi horien egatik, euskaldunek

beren subiranotasunari uko egin behar diotela pentsatzen dute likidazionista hauek” (Urteaga, I, 15, 1975, 5).

“Soberania utzi behar da, hala demokrazia hobekiago zaintzeko, gerlak aldentzeko eta bakea azkartzeko. Herri kapitalistek eta organiazio likidazionisten pentsalariak diote, soberania, USA-n batzuek eta URSS-en eskuetan besteak (edo Espainiaren edo Frantziaren babesean besteak) utzi behar dela, horrela elkarrekin demokrazia eta etsaiak hobekiago defendatu ahal izateko”.

Mikel Urteagak (II, 16, 1975, 4) sostengatzen du marxismo-leninismoak “nazio guztien errespetua bilatzen duela, hau baita herrien elkarrekiko harremanetarako nahitaezko baldintza”, oinarritzat Engels-en aipuak hartuta. Noski, ezkerreko kosmopolita horiek, likidazionistak diren heinean, “ultra-marxistak” dira, zeren, haren ustez, Alderdi Komunistaren “langileek ez dute aberririk” edo Lenin-en “kapitalistek ez dute aberririk” esaldiak ez baitituzte egoki aplikatzen. Honentzat ere, ezin da izan internazionalista nazionalista izan gabe, eta alderantziz. Eredu garbiak zaizkio Txina, Korea, Vietnam, Kanbodia eta abarreko iraultza komunistak. Honek ere, garai hartako gehienek bezala, ezker likidazionisten kontra arrazoitzeke orduan, autore berdinak aipatzen dituzte, baina beste irakurketa bat eginez.

Gertatzen dena da “likidazionista” deitu horien irakurketa dela zuzena. Auzitan dagoena, beraz, marxismo klasikoak nazio-arazoak daukan ikuspegia bera da. Nolanahi ere, zehaztu beharrean gaude jadanik esana daukagula marxismo klasikoak ez duela aintzakotzat hartzen nazio-arazoa. Ezkerretik eta, zehazki, marxismoaren tradizio klasikotik nekez egingo da nazionalismoaren defentsa, batik bat, ezker abertzaletasunaren kasuan bezala, garbiki independentziaren aldekoa denean. Beraz, hemen, bi maila bereizi behar dira: a) marxismo klasikoak nazio-arazoak dioena, eta maila honetan, ETAtik banandutako marxistak zuzen zebiltzan, eta b) marxismoak dioen hori onartzen den ala ez, eta maila honetan, oharkabean edo ohartuta, beren buruak marxistatzat zeuzkaten ezker abertzaleek, Mikel Urteagaren kasuan bezala, marxismo klasikoak aldarrikatzen ez duen zerbait aldarrikatzen dute: hots, independentzia.

Akats larria zen orduan: ETA inguruko gehienek marxismo-leninismoaren printzipioetan osoki sinesten zuela, baita nazio-arazoari buruzkoetan ere. Komunistek koloni herrietan emandako iraultzak ere garbi zitzaizkien: Txinan, Vietnam, etab.

3.7.2. Bigarren puntuak ere –abangoardia faltsuarenak, alegia–, bazuen bere koska. Ikusi da euskal ezkerria alderdi askotan zatituta aurkitzen dela. Zatiketa horretan, Mikel Urteagak ETAtik aldentutako sektore batzuek “likidazionistak” zirela salatzen zuen, esanez horien ikuspegi internazionalista eta kosmopolita desbiderapen “ultra-marxista” garbiak zirela. “Azpikota”¹⁵⁵ ezizenekoak, berriz, euskal arazoa gaingidituztat ematen duten ezkerreko talde horiei, zeinetan sartzen baitira PCE, MCE eta horien kideak, “abangoardia faltsuak” deitzen die. Autore honek dioenez, ETAtik aldentutako taldeen salakuntza zen, euskal nazionalistak ez zirela “abangoardiako” talde politikoak. Kontua da Euskal Herrian abangoardia izateak zer suposatzen duen zehaztea. Honentzat, “bere askatasuna aurrera eramateko ahalak edo posibilitateak edukitzea” esan nahi du. Horretako, noski, herri batean zapalduarik dauden arlo guzti-guztiak askatu behar dira eta, bereziki, klase- eta nazio-mailakoak. Euskal Herrian abangoardia izateak, klase-mailari dagokionez, klase zapalduen borroka zuzentzea esan nahi du eta, nazio-mailari dagokionez, berriz, nazio-borroka zuzentzea. Klase-mailan, abangoardia dira PC, ORT, MCE, ETA, LAIA, EHAS eta abar, batzuk besteak baino ezkeriago, baina ez horrela nazio-mailan:

“Garbi utzi nahi duguna hauxe da: talde horiek ez direla abangoardia. Zapalketa ideologikoaren fruitu direla euren posturak. Ez dutela praktikarik, inposatutako kriterio espainol batzuetan mugitzen direla, nahiz eta tituluz edo zitaz beterik etorri (democracia, libertad, autodeterminación, voluntad popular) eta hitz demagogikoak esan. Sakonean, hauentzat Euskadi Espainiako bazter konfliktiboago bat besterik ez da. Ez dute serioski hartzen ‘nazio’ kontzeptua. Ez diote kontenidorik ematen. Ez dute ulertzen, ez dute aldatzen. Ez dute ezagutzen. Ez dute Espainiako estatuko oligarkiak sortu duen ideologia gaingiditu. Masa dira arlo honetan. Eta gainera, garaia heltzen zainean, heltzen bazaie, ideologia zapaltzaile honen birproduktore izango dira” (Azpikota, 18, 1976, 32)”.

Pasarte horretan aipatutako arrazoi horientatik, erakunde politiko hauek, beren buruak abangoardiakotzat jo arren, praktika politikoan abangoardia faltsuen eginkizuna betetzen dute.

3.7.3. Hirugarren puntua, sozialismo abertzaleari buruzkoa, Jokin Apalategi “Begiko”k¹⁵⁶ aztertzen du “Abertzale sozialisten era-

kundetzeaz” izeneko artikuluan. Honen tesia, hau da: nahiz eta egun hirugarren sektorea –zerbitzuetakoa–, indartzen doana izan eta, ondorioz, bigarrengoan esparrua txikiagotzen, proletalgoak bere baitan mantentzen duen kalitatea inoiz baino sakonago eta funtsezkoago bilakatu dela. Haren ustez, industri aroko gizarteak iraungo duen guztian proletalgoak gizarte berriaren “kriseilu eta neurri beharrezko” izaten jarraituko du edota, bestela esanda, ”sozialisten erakundea sekula ezin liteke oinarri (izan) zerbitzuetako jendetzan” (Apalategi, 13, 1975, 5).

Zergatik eta zertara datorren Jokinen artikulua? Badirudi abertzale “sozialista” izeneko batzuk dauzkala aurrean eta horien kontra ari dela. Zehazkiago esanda, sozialista horiek sostengatzen dituzten bi tesi hauek ditu kritika-gai a) “euskalduntasunaren berezitasunak eta batik bat hizkuntzarena hirugarren sektoreko jendetzan dagoela gehien errotuta”, eta b) “euskotar langileria, delako erakunde horretan, sartzen joango den une berean langile erakunde ere bilakatuko omen dela” (Apalategi, 13, 1975, 5). Egile honentzat “ez da zilegi baikortasun interklasista hori”, eta hara zergatik (Apalategi, 13, 1975, 7):

Lehen tesiari dagokionez, Siadeco-k Goierri bailarako industri egoeraz 1970ean argitaratutako datuak oinarritzat hartuta¹⁵⁷, ageri da horko proletalgo-kopurua askoz ere handiagoa dela zerbitzuetan dabilen jendetza osoarena baino. Baina Goierri ez da Bilboko ezkerrekoa. Objektzio honi erantzuten dio esanez “Bilboko edo beste eskualde batzuetako deseuskalduntzea ez dela berezia langilerientzat eta hirugarren sektoreko jendearentzat”, nahiz, agian, hirugarren sektoreko populazioan beste inon baino herri-min gehiago aurki daitekeen.

Bigarren tesiari dagokionez, ez da serioa abertzaleen erakunde sozialista erakundetzeko orduan, irizpidetzat jokabide interklasista hautatzea, zeren, printzipioz, “ikuspegi eta jokabide interklasista duen erakunde batetik ez baita sekula sozialista den erakunderik irten”. Areago oraindik, langileriak bere erakundeak hutsetik eratu beharko ditu.

Baina nola antolatu edo erakundetu beharko litzateke langileria, iraultzailea izan dadin? Labur erantzunda, langileria arazo klase-ikuspegitik begiratu. Izan ere, alderdi politikoak erakundetzeko orduan, ikuspegi bat baino gehiago erabiltzen dira. Berak hiru jarrera-mota aipatzen ditu: batzuek diote politikagintza klase-

arteko interes guztien gainera jarri behar dela, onartutzat emanek klaseak, besterik gabe, naturak ezarritakoak direla; beste batzuek, berriz, klasearteko interes desberdinak harremanean jarri eta beroriek era demokratiko batez zuzentzean datzala etorkizuna sostengatzen dute; beste joera batek, azkenik, klase bakoitzak bere politika eratu eta ezarri behar duela baieztatuko du. Lehen bi ikuspegiak interklasistak dira: lehenengoak oligarkiaren interesak bakarrik zaintzen ditu, eta bigarrenak, berriz, langile eta nagusien arteko kontraesanak neutraltzera jotzen du. Egilearentzat azken ikuspegia da sozialismoa eraikitzeko eredu egoki bakarra, zeren, gizarte-klase funtsezkoa langileriak osatutakoa denez gero, berari baitagokio politika kontrolatzea ere, horretarako bere erakundeak sortu eta landuz. “Langileria-
ren neurrietara behar da gizarte guztia modelatu”, diosku, nahiz onartzen duen, praxi politikoan, “historikoki arazorik sortu dela molde horretako erakundeak botere politikoa eskuratzean”. Bego.

4. Euskal ekonomiaz begirada zabal bat Euskal Herritik Europara

Ekonomiari buruzko artikulua bi baino ez dira, eta horiek aldirizariaren 1976ko azken bi zenbakietan datoz, Franco hil hurrengo urtean, hain zuzen.

Begirada Euskal Herritik Europara esan dugu. Eta alderantziz. Izan ere, Jesus Mari Larrazabalek¹⁵⁸ lehen artikuluan mundu-ekonomiak jasaten duen krisiaz hitz egiten baitu. Krisi orokorraz ari da, egiturazkoaz, alegia, eta ez partzialez, hauek guztien bistakoak baitziren: dolarraren krisia, petrolioarena, lehen-gaiei buruzko espekulazioa, inflazioa, etab.

Ideologia dominatzailea behin eta berriz errepikatuz badator ere krisitik ateratzen ari omen garena, okerrenak pasatu omen ditugula, azkenean, 1974ko azken hiru hilabeteetan eta 1975eko hasieran, oligarkia espainola eta frantsesa krisiaz mintzatu beharrean aurkitu dira. Baina honentzat, jakina, krisi hau izan, zerbait “akzidental” da, zeren sistema kapitalistak, noizbehinkako halako larrialdi edo erorialdi batzuk salbu, normalean ongi funtzionatzen baitu. Gauzak, ordea, besterik direla frogatzen saiatzen da egilea.

Lehenik, dio, “produktzio modu kapitalistaren funtzionamendu ‘normala’ mila kontraesanaz josirik dagoela eta hargatik harri-

garria ez zaigula krisia, krisirik eza baino”, eta, orobat, hazkunde kapitalistan zehar badirela une batzuk “zeinetan koiunturazko zein egiturazko arrazoiengatik, kontraesanen sareak norabide eta intentsitate bereziak” hartzen dituela (Larrazabal, 18, 1976, 52). Itxurazko krisi horren azpian datzana aztertzea da arazoa.

Bigarrenik, krisi ekonomikoa ez dela instantzia ekonomikora bakarrik mugatzen; alderantziz, krisi hori ekonomikoa bezain politikoa da. Arazoa da jakitea zein gizarte-faktorek eraginda sortzen den krisia.

Lehen kasuan bezala bigarrenean, funtsezko arazo horiei errotik heldu eta erantzun egoki bat eman ahal izateko, ez dago “formazio sozial bakoitzaren analisi konkretua” egin beste biderik (Larrazabal, 18, 1976, 52). Horrela eginez gero bakarrik lor daiteke langileria edo populu osoa iraultzaren ildotik bideratzea.

Baina nola jakiten da kapitalismoa krisian dagoela? Zein dira horren sintomak? J. M. Larrazabalek, oraingo egiturazko krisia ezaugarritzeko, sei adierazle hauek azaltzen ditu, guk hemen aipatu baizik egingo ez ditugunak: 1) hazkunde-tasa gainbehera doala abiada biziz, atzerapenaren lehen sintomak 1967an hasi zirelarik; 2) langabezia handia dela, Bigarren Mundu-Gerraz geroztik ezagutu den handiena, batez ere, funtsezko adarretan (automobil-industrian, aeronautikan, elektronikan, etxegintzan), zeinak gizarte-kaparik zanpatuenak (gazteak, emakumeak, beltzak eta chicanosak) ukitzen baititu, langabeziaren tasa % 8,5ekoa delarik 1975eko urte-hasieran; 3) inflazioa handitzen doala, zeinaren ondorioz, 1975eko hiru lehen hilabeteetan kontsumoko prezioa % 11,4 igotzen delarik, enplegatuen erosteko ahalmena biziki jaisten baita; 4) dolarraren krisia eta nazioarteko finantzaren beherakada nabarmentzen direla, 1974an EEBBko ekonomiak 2.700 mila milioiko zorra duelarik; 5) merkatal balantzak behera egiten duela; 6) EEBBko barne-kapitalaren metaketa 1967tik aurrera jaitsiz doan arren, nazioarteko metaketan kanpoko inbertsioak haziz doazela, bereziki firma multinazionalen irabaziei esker.

Krisi honek, bada, modu berezi batez eragiten du Frantzia eta Espainiako estatuetan.

Nola esplikatzen den krisi hori? Gai hau hurrengo artikuluan batean esplikatzeko uzten du, baina aldizkariaren azken zenbakian ez da argitaratzen. Aurreratzen ditu, halere, elementu argitzaile batzuk: a) egungo kapitalismoaren azterketa mundu-sistemaren

mailan egin beharra, bereziki firma multinazionalen pisua handia den une honetan; b) krisiaren azterketa gain-metaketan oinarritu beharra; c) lurralde erabakigarrietan –eta honen barruan, nazio zapalduetan–, inperialismoarekin haustea.

Aurreko zenbakian J. M. Larrazabalek mundu zabaleko ekonomi krisiaz bere azalpena ematen zuen bezala, Balere Bakaikoak¹⁵⁹, azken zenbakian, bere azterketa Euskal Herriko ekonomiara mugatzen du, hemen batera hartuta Hegoaldea eta Iparraldea. Biak, hasieran esaten duenez, egiten ari den Europako merkatu batuan iskin batean aurkitzen dira, zeren oraindik nekazaritza aski handia baita –Akitanian % 25,3a 1969an eta Hego Euskal Herrian % 15 ingurukoa–, eta hemengo nekazal produktuak Europako merkatura iristeko garraio-gastu handiak egin behar baitira, ez dira lehiakorrak gertatzen. Etorkizunari begira, ordea, Erregimen Zaharrean merkatal harremanetan Gaztelaren eta Europaren arteko “bisagra” izan zen bezala, orain ere hemengo mugatik pasatu beharko dute Espainiako zenbait produktu Europa aldera, berdin Europatik datozenak. Horretarako sortu beharko liratekeen azpiegiturak ere aurreikusten ditu, adibidez, euskal lurraldea josiko lukeen autobide-sarea.

Euskal ekonomiak sortutako produktuen merkatua nola egin, hau da ukitzen duen beste puntuetako bat, interesgarria. Ipar Euskal Herrian, non nekazaritza nagusitzen den eta, alderantziz, industria espezializatuak huts egiten duen, egoki ikusten du Akitania aldean mekanika bukatuaren enpresak haztea eta Hego Euskal Herrian altzairuan eta burdingintzan espezializatzea eta gai hauekin hangoak hornitzea. Eta alderantziz, handik, nola Akitaniatik hala Ipar Euskal Herritik, nekazal produktuak sartuko lirateke. Areago oraindik: nekazal produktuak, bertan industrializatuz, komertzializatzeke modua egongo litzateke.

Hego Euskal Herriko produktuen merkaturatzea dela-eta, arazoa da euskal produktuen esportazioak, 1959an atzerriko merkatuetan sartuz geroztik, lehiakorrak izateko bi baldintzok bete behar dituztela: a) produkzio-kostuak ahalik eta gehien murriztea eta horretarako kantitate handiak egitea, eta b) adar batean espezializatzea. Baina bidenabar, baldintza hauek bete daitezten, tartekatzen diren egiturazko beste traba batzuk ere gainditu behar dira: bate-tik, teknologiaren berrikuntzan inbertitzeko akumulazioa behar baita, ez da behar adinakoa ematen, hemen sortzen den gainbalioa Madrilera joaten delako, hain zuzen, eta hor arazo bat dago; beste-

tik, enpresen zatiketa handiegia ematen da, batik bat, Gipuzkoan, eta, ondorioz, horietan produkzio-serie txikiak ematen dira.

Nolanahi ere, hemengo ekonomiaren etorkizuna esportazioan dago, Europako merkatuan, bereziki, eta zenbat eta gehiago integratu Europako merkatu batuan, politikaren aldetik ere posibleago izanen da askatasun politikoa bideratzea ere. Izan ere, Espainiako merkatuari loturik segituko duen heinean, ekonomiazko lotura horrek modu erabakigarri batez baldintzatuko baitu askatasun politikoa ere. Eta Balere Bakaikoaren ustez, Hego Euskal Herriaren “per capita errenta” nolakoa den ikusita, Europako Merkatu Batuko partaide izan ezinik ez duela iruditzen zaio:

“Gure Herria Espainiako erresumapean integratuta egonik eta Europako eskualde bat izanik, integrazio ekonomiko baten beharrea aurkitzen gara, zeren, geure egintzaren ugaritzeak hori eskatzen baitigu. Jakin beharrea aurkitzen gara Euskal Herriko ‘bakoitzeko errenta’ 1970-gn 86.300 pezetakoa izan zela eta Italiakoa, Europako Merkatu Batuko erresuma izanik, 87.741 pezetakoa eta Australia 102.175 pezetakoa. Dakusagunez Europa barruan ba daude geure herriak daukan errenta baino txikiago dutenak, orduan ez genuke eduki behar inongo konplexurik Merkatu Batuan sartzeko unean; gure eta Europaren arteko diferentziak ez baitira handiak ekonomia mailan” (Bakaikoa, 19, 1976, 6).

Ongi dago Europako Merkatu Batua. Baina galdetu beharko da ezker abertzaleak noizko eta nola aldarrikatzen duen Euskadi sozialista eta independentea? Bakaikoak ez du uste Mendebaldeko Europa liberalean sozialismoaren eraikitzea posible izango denik. Sindikatuek sistema kapitalistari ez dizkiote kolpe batzuk baizik ematen eta ez dute erabiltzen langileriaren indarra palanka gisa beraien askatasunerako. Sindikatu hauek, estatuaren oreka arriskuan ikusten dutenean, hari laguntzera joaten dira arazoak konpondu nahiz. Inflazioarekin krisi-egoeran egonda, sindikatu batzuek, Frantziako CGTk bezala, krisi hori konpontzera jotzen dute. Europako sindikatuek horrela pentsatuz segituko duten bitartean, oso zaila izango da langile-iraultza aurrera eramatea, sindikatutako langile-indarrak sisteman integraturik aurkitzen baitira. Zentzu honetan, hala uste du B. Bakaikoak, testuinguru politiko honek horretan dirau, oso zaila izango da estatuen European Euskal Herri sozialista altxatzea.

IX

Iparaldeko olde armatu eta sozialista berri batzuen abiada

Hemengo politikagintzan, Enbata mugimendua krisian sartua dagoen garai honetan, hiru bide bezala ikusten dira:

Bata da HASek markatzen duena, Enbataren abertzaletasun federalistari eduki sozialista ematen saiatzen dena. Funtsean, aukera hau egiten dute lehengo Enbatakoek. Aldaketa, batik bat, ideologikoa da, zeinaren arabera, ordura arteko ikuspegi kulturalistak soineko sozialista hartzen baitu, azken hau koloreaniztetakoa izango delarik. Norabide hau hartzen du, adibidez, Jean-Louis Davanten sozialismoak.

Bestea da, ETAREN bideari jarraiki, Iparraldean borroka armatua-ren hautua egiten duen erakundearen bideratzea, hau Iparretarrak-en inguruan gauzatzen dena. Une honetan, artean ETAREN azpiegitura Iparraldean kokatua baitago, azken erakunde hauetakoez ez dute begi onez ikusten Iparretarrak-en jokabide hau, beste ezer baino gehiago arrazoi taktikoengatik, Iparraldeko kolpe armatuek Hegoaldekoen babesa arriskuan jartzen dutelako, edo dezaketelako, alegia. ETAK Iparraldean du bere babesa. Horregatik, lehen urteetan berderen, bi talde armatu hauek ez dira hain ongi konponduko elkarren artean.

Azkenik, euskal arazoaren aterabide politikoa iraultza ekonomikoan ikusten duen taldea dago, talde txiki batek –R. Kanblogeke- eta-, gidatzen dutena Arrasateko kooperatibismoaren eredura. Hautzat pentsaezina da bere azpiegitura ekonomikoa ziurtatu gabe daukan herri baten etorkizun askea irudikatzea.

Gutxi edo asko, eskema hirukoitz horretara laburbil daiteke garai honetako Iparraldeko euskal politika 1970eko hamarkadaren lehen erdian.

1. Hauteskundeak

Iparraldea estatu demokratiko batean kokatua baitago, ez Hegoaldea bezala frankismo totalitarioan, hango politikak hauteskunde-sistemaren arabera funtzionatzen du eta, ondorioz, *Zabale*koen ekarpenak ikuspegi horren arabera irakurri beharrekoak dira.

1.1. Artikulu gehienak “Johañe Aizager” ezizenez argitaratzen dituen Jean-Louis Davantek¹⁶⁰, “Bozkak” lehen artikuluan, hiru puntu aztertzen ditu: emaitzen historia, herriak zergatik bozkatzten duen Frantziako politikaren alde eta, azkenik, nola eraiki ahal litekeen Hegoa eta Iparra batuko litzuzkeen ezkerreko euskal politika bat, zeinaren antolaketa estrategi mailan bateratua eta taktika-mailan desberdindua izango bailitzateke. Davantek egiten duen lehen artikulua hau argigarri da zentzu horretan, hemen azaltzen baititu bere iritzia politikoak.

Lehenik, hauteskunde-emaitzetatik abiatuz, ageri da azken bi mende hauetan, 1789ko Iraultzaz geroztik, Ipar Euskal Herria Frantziako politikari lotua datorrela. Estatu-zentralismoa ezkertiarren agintaritzapean handituz joan baitzen, XIX. mende guztian zehar eskuin bozkatu zuten euskaldunek. Zuberoako Agustin Xaho ezkertiarren salbuespena egiten du, zeina, errepublikazalea izanik ere, abertzalea izan baitzen. *Ariel* egunkariaren sortzailea, 1848ko Baionako iraultzan parte hartu zuen; ber-denboran, Hegoaldeko karlisten alde aritu zen, Zumalakarregiren kausa defendatuz. Baina, bi urtez (1849-1851) kontseilari jeneral izan zen arren, ez bere bizian ez geroztik, ez zuen jarraitzailerik izan. Hirugarren Errepublikan (1870-1940), herri txikienetan ere, gogorrek izan ziren zurien eta gorrien arteko kalapitak. Zuriak ziren erregetiarrak, herriko jaun erretoreari jarraitzen ziotenak. Azken bi Mundu-Gerra handien artean (1914-1945) ere euskal apaizterian euskaldun asko –gehienak–, erregetiarrak ziren. Epealdi honetan 26 urtez (1914-40) diputatu izandako Jean Ibarregarai euskaldun faxistari lagundu zioten. Azkeneko Mundu-Gerrakoan, berriz, Petain marexalaren alderdia aldeztu zuten. Ezker bozkatu duten eskualde bakarrak, kostaldean Baiona eta Bokale izan dira, eta barnealdean Zuberoa gaineneko herri txikiak (Basaburua) eta Maule. Baina ezker hauek ere pentsaeraz frantsesak dira.

Gerraz geroztik, Joseph Garat sozialistak –euskaldun eta kristauak–, irabazi zuen kostaldeko diputatu-aulkia bi aldiz (1952-58).

Delay eta Grenet medikuak, biak erradikalak –ez horregatik ezker-tiarrak–, izan ziren Baionako alkate. Barnealdean, politika-gizonik boteretsuena Errekart jauna izan da, erdikoa, kristau-demokrata, Donapaleuko “Lur Berri” kooperatibaren lehendakari izatetik politikara pasatu zena. Davantek “eskuindar liberala eta hein bat soziala” izan zela, dio, laborarien interesak ongi zaindu zituelako, eraberritzeak faboratuz. Adin bateko euskaldunek –bereziki, apezek eta jauntxoek–, oso gaizki ikusten omen zuten, Ibarnegarairen bidea hautsi eta berriago bat ireki zuelako. Maulen, gerraz geroztik, sozialisten eskuetan egon zen Udala, Champo eskuindarrak eskuratu zuen arte. Zuberua behereko (pettareko) laborari gehienek, ordea, eskuin bozkatzen dute.

De Gaulle-ren gobernu-aldian (1958-69), honen alderdiari eman zioten beren boza euskaldun gehienek: 1958an UNRkoak nagusitu ziren, barnealdean Caminorekin eta kostaldean Thomazo koronelarekin. Mixel Labegeriek, *Enbata* aldizkariaren sortzaileetako bat izandakoak, Frantziako Asanblada Nazionaleko diputatu izateko (1962-67), Iparraldeko zentristen eta, bereziki, Errekarten laguntza izan zuen. Abertzaleak, Enbata mugimenduaren izenean, 1967ko hauteskundeetan agertu ziren lehen aldiz eta orduan % 5 boto bildu zituzten. Hain emaitza eskasak ikusita, batzuek utzi egin zuten Enbata. Kostaldean B. Marie (URP) eta barnealdean Intxauspe (UDR) eskuindarrak nagusitu ziren. Pompidou-ren agintaldian, 1973ko hauteskundeetan, orobat, aurreko emaitzak errepikatu ziren: B. Marie eta Intxauspe hautatuak. Enbata ez da aurkeztzen.

Bigarrenik, galdetu behar da euskaldunek zergatik ematen dioten beren botoa Frantziako eskuinari. J.-L. Davantek faktore hauek izendatzen ditu:

Urrutiko historiari abiatuta, errege egindako aspaldiko zentralizatzea aipatu behar da, jadanik XV. mendearen bigarren erditik aurrera hasten dena. Erregeak baitziren lurreko jainkoak, erran zaharrak dioten bezala, Frantzia berrogei errege mila urtez egina omen da. Hainbat eta hainbat izan dira Frantzia handia eraikitzen zerautik bidalitako erregeak, historiak haren salbatzaile gisa mitifikatuta agertzen baitira, hara nola Vertzingetorix, Klovis, Charles Martel, Karlomagno, Felipe Augusto, San Luis IX.a, Joana Ark-ekoa.

Hurbileko historian, erregetiarren eta errepublikanoen arteko gatazkan erabakitzen da Frantziako politika eta borroka horretan lurjabe handien eta hirietako burgesen interesak aurkitzen dira

jokoan. Bi klase hauen arteko gatazkan, Jules Méline Nekazaritzako ministroak (1883-85) eta gobernu-buruak (1896), koloni herrietatik zetozen ekoizpenei mugak ixtean, mende batez laborari txikiak faboratu zituen, bereziki, Britainia, Okzitania, Katalunia, Korsika, Alsazia eta Euskal Herria bezalako herri menperatuetaoak. Laborari hauek gobernuarentzat jende onak ziren, “soldado hautak”, barne-jazarkundeak zapaltzeko eta koloniak eskuratzeko. Baina Euskal Herriaren frantsestean, faktore erabakigarrienak, izan, azken hiru gerrak izan ziren: lehena Frantziaren eta Alemaniaren arteko gerra (1870-71), zeinetan Otto von Bismarck-ek Alsazia-Lorena anexionatu baitzuen eta Versailles-en Inperio alemana aldarrikatu, eta beste bi Mundu-Gerrak. I. Mundu-Gerrakoan (1914-18), ez da ahantzi behar, Frantzia osoa odol hustuta geratu zela eta oraindik are gehiago Britainia eta Euskal Herria. Hemengo herririk txikienetan hamarnaka ziren hildako gazteak, anitz zaurituta etxeratuak, edanari emanak eta leher eginak. Frantzia salbatzearen ohoretan egina zen sakrifizio handi hura eta Ibarnegarai bezalako politikariei erraz egin zitzaizen “gerlari ohien” izenean mintzatu eta Euskal Herria Frantzian txertatzea. II. Mundu-Gerrak, orobat, lehendik apala zen euskal gogoa areagotu besterik ez zuen egin, hainbestearino, ezen 1932an sortutako “Aintzina” izeneko mugimendu euskaltzalea ere Franco-ren aldekoa agertzen baita Espainiako gerrate zibilekoan (1936-39). De Gaulle jeneralarekin, frantses nazionalismoa indartzen da eta, ondorioz, euskaltzaletasuna frantsestuago bilakatzten. Garai honetako belaunaldiak uzten dio beren haurrei euskara irakasteari. Petain eta De Gaulle bezalakoak dira salbatzaileak, mende honetako errege berriak, Ipar Euskal Herria erabat Frantziarentzat irabazten dutenak. Hiru gerra hauek Iparraldeko euskaldunak Frantzian txertatzeko tresnak izan diren bitartean, Hegoaldeko gerra karlisten ondoko foru-ezabapena eta erregimen frankistaren ezarpena, aldiz, euskal nazionalismoa areagotzeko faktoreak izan dira.

Aipatutako hiru gerra horiekin batera, Euskal Herria frantsesent biziki saiatu direnak eskola eta eliza izan dira. Irakasle arrotzek eta apezpikuak, jadanik Klovis-en garaitik hasita, eragin handia izan dute Frantziaren batasuna lortzen. Hezkuntza-sistema zentralizatua- ren bidez sartu zaio buruan euskaldun xumeari, egiazko euskalduna izateko, “katolikoa, frantsesa eta eskuindarra” izan behar duela. Triptiko horixe da, hain zuzen, Hegoaldeko “euskaldun=fededun” sloga-

naren parekoa. Ipar Euskal Herrian, adineko apaiz gehienak zinez eskuindarrak dira eta, gainera, frantses amorratuak. Bestalde, eskola katolikoaren arazoak garrantzi handia izanez segitzen du oraindik ere, nahiz Frantzian lehengo gar hura aspalditxo itzalia den.

Faktore horiek guztiak bat eginda, lortu ahal izan da, denboraren poderioz, baina bereziki azken bi mende hauetan, Euskal Herria, “aberri ttipia, handiaren baitan”, hots, Frantzian txertatzea. Frantziaren estatu-batasuna eta, ondorioz, honen menpeko herrien frantsestea, batik bat, ezkerraren eskuetan egindako errepublika-garaian azkartu zen. Errepublikaren obra da.

Hirugarrenik, aurrerantzean euskal politikagintzan nola jokatu puntuari dagokionez, Jean-Louis Davantek Iparraldeko euskaldunek hauteskundeetan nola parte hartu izan duten aztertzen du, hauteskunde-datak urtez urte aipatuz. Lehen data, Frantziako Iraultzari dagokion 1789koa at utzita, 1945. urtetik 1973. urte-bitartean, 11 boto-emanaldi kontatzen ditu eta horietako bakoitzaren xehetasunak ematen. Lehen ikusi bezala, Frantziako Iraultza-garaian, euskal diputatuak ez ziren sartu Pariseko politikan. Eta Lapurdiren ize-nean Joseph Garat Uztaritzekoa aurkeztu zenean, Napoleoni Euskal Herri batua proposatu zion. Geroago Agustin Xahok, Parisen zelarik 1848ko gerran, herritar guztiek botoa emateko eskubidea izan zezaten eskatu zuen.

Eta gero, zein eskabide izan dituzte euskaldunek? Taula honetan agertuko ditugu laburturik hauteskunde-data bakoitzean egindako eskabideak, lortutako emaitzak eta hautatuak:

Hauteskunde-emaitzak (1945-1973)

Hauteskunde-datak	Eskabideak	Lorpenak	Hautagaiak
1945ean: Batzar Konstituzionalerako	Euskal departamentu baten eskea	Kasurik ez	Hautatua: Enbatako Jean Etxeberri Aintzart
1964an: Kontseilariak hautatzeko	Euskal departamentu baten eskea	Kasurik ez	Enbatako J. Etxeberri Aintzart eta Ximun Haran

1967an: Diputatuak hautatzeko	-Herri-gizonen biltzarra -Euskal departamentua -Zazpi probintzien arteko batasuna -Euskal estatua Europa batuan	Kasurik ez	
1967an: Kontseilariak hautatzeko	-Herri-gizonen biltzarra -Euskal departamentua	Kasurik ez	Enbatak % 5 boto
1968an: Bastidako kontseilari jenerala hautatzeko		Kasurik ez	Enbatak Manex Pagolak botoak eskas
1968an: Diputatuak hautatzeko	Autogestioa	Kasurik ez	Enbatak boto gutxiago. Geroztik ez da aurkeztuko
1969an: Lehendakaria hautatzeko	Federazioa	Kasurik ez	Enbatak Guy Héraud, estatuko herri zapaldu guztien ordezkari. Lehen itzulian % 3 boto; bigarren goan aurkeztu ez
1970ean: Kontseilariak hautatzeko			Enbatak ez du parterik hartzen
1972an: Ingalaterra Europan sartzeko			Enbatak parterik ez du hartzen edo zuri ematen
1973an			Enbatak tokian direnen aurka botoa ematen du

Lehen aroan, 1940ko hamarkadan, artean alderdi abertzalerik ez zenean, Frantziako politikan parte hartu ala ez, betiko arazo eztabaidatua izan zen Iparraldeko euskal abertzaleen artean, eta aurkeztekotan zeinen izenean aurkeztu, independente gisa, Jean Etxeberri Aintzarten kasuan bezala, ala alderdi estatalaren bati atxikita, Mixel Labegerieren kasuan bezala. Mark Legasse Zelaia Frantziako hauteskundeetan parte ez hartzearen aldekoa izan zen, orduko legeak zioenaren kontra, hain zuzen, eta frantses justiziak preso eman zuen. Geroztik, Enbatak –Iparraldean mugimendu abertzale gisa antolatuta aurkitzen den erakunde politiko bakarrak–, 1968ko hauteskundeak arte Frantziako politikan parte hartzeko borondatea agertu izan du, zehazki euskal departamendua eta zazpi probintzien arteko batasun ekonomikoa eskatuz. Baina hauteskunde-emaizak arras txikiak direnez, egindako eskabideak ere ez dira lortzen eta, azkenean, gehiago ez aurkeztea erabakitzen du Enbatak. Adibidez, 1967ko diputatuetarako hauteskundeetan, euskal departamentua lortzeko eskea egin nahi izan zen M. Labegerieren bidez, Parisen, baina honek ez zuen han gestiorik egin nahi izan, antza, xede hori obragaitza iruditu bide zitzaiolako. Baina badirudi ez zela hain obragaitza, zeren Parisko eskualdean bospasei departamentu berri egin baitzituzten hilabete zenbaiten buruan. Laburtuta, horixe da Iparraldeko abertzaleak II. Mundu-Gerraz geroztik egindako ibilbidea hauteskundearen inguruko politikan. Ordezkaritza demokratikoaren ildotik, abertzaletasunak ezer gutxi lortu ahal izan du, herriarren borondatea frantses politikan areago asimilatuta geratzea besterik. Eta hori bertako politikariaren bidez. Herriko politikariak, euskaldunak, izan dira herri-alienatzaileak handienak.

Ikusiak ikusi ondoren, Jean-Louis Davantek ateratzen duen ondorioa da, 1973ko urtean zehar, abertzaleek Iparraldean “bide hertsia” dutela, zeren hauteskunde-sistema “demokratiko” deituan abertzaletasuna den baino ere ahulago agertu baita. Honen arrazoia da, lehen aipatu diren faktore historiko guztien ondorioz, Iparraldeko gehienek –euskaltzale askok–, “erdirako” joera dutela. Zer egin emaitza hauen aurrean?

Jean-Louis Davantek berak, Enbatako buruzagi ezagunak, hauteskundeetan parte hartzearen kontrakoa izan dela beti aitortzen du. Baina, bestetik, Iparraldean gogortasunera jotzea ez du bide egokia atzematzen, hemengo gizartea, Hegoaldean ez bezala, gobernu liberalean bizi delako. Horra!

Testuinguru honetan, Enbata mugimendu politikoa krisi gogorrean sartzen da 1973an, desagertzeko zorian aurkitzeraino. Noiz-eta, abertzaletasuna bizkortzen hasten den unean –bereziki, gazte ikasleen artean–, kantu berriaren oldeak eta zenbait gertakari politikok (Burgosko prozesuak, Aberri Egunak, gose-grebak-eta) azkartuta. Gazteria berriak, ez gutxi Hegoaldeko euskal erbesteratuen eraginez, ETArek aldeko grina erakusten du eta honen xede eta bi-tartekoak hobesten ditu. Aldaketa honetaz garbiki ohartzten da J-L. Davant (1, 1073, 27) pasarte honetan dioenean:

“Ber denboran Enbataren alderat halako aiherkunde bat sentitzen da gazte horietarik batzuetan. Alde batetik aipatzen nuen sublimatze haren ondorioz. Bestetik, behar bada, Enbatak denbora batez agertu duen aurpegiagatik. Baikenekien abertzaletasunak adinetako jendea eskandalatzen zuela, puntu batzuetan ginen baino eztiago agertzera entseatu gara: bereziki sozial mailan. Baina gogortasuna maite dute gazte batzuek. Hori ETAn kausitzen dute. Guk ez dugu hilik eta ez gaituzte gehiegi preso ezarri nahi. Martirik gabeko eliza bat gara... Haatik ETA beste giro (aro) batean bizi eta lanean ari da, ez ahantz. Ez liteke ETArek mitoaz baliatu behar deus egin gabe gelditzeko, zerbaiten egitera entseatzaren direnak alde bat kitzikatuz. Abertzale alorrean bada denentzat lana”.

Bada denentzat lana, baina zein lan-mota? Eta galdera honen aurrean, berriro lehengora itzultzen da egilea, galdetuz ea aurrerantzean, abertzale sozialistak aurkeztu behar diren, ala hauek erabat bazter utzi (HASek Miterrand-entzako botoa eskatuko du gero). Orain arteko bidea ez zaio aski iruditzen. Zerbait berria asmatu behar da. Baina zer? Ez du programarik aurreratzen. Esaten duen bakarra da aurrerantzean, herri xehearen hurbileko interesak bilduz, Hegoaldeko zein Iparraldeko abertzale guztiak batera jokatu behar dutela politika, ekonomia, sozialgintza eta kulturen, Euskadi independente, batu, euskaldun eta herrikoia lortzeko xedearekin. Azken xede estrategiko hori bada ere, alde bietan baldintza soziologiko desberdinak ematen direnez gero, taktika desberdinak eramango dira, bakoitzari ondoen dagozkionak. Zentzu honetan, Davanten ustez, Iparraldeko abertzaleek lanik gehien egin dezaketen esparrua maila sozialekoa da, eginkizun horretan baitu jendeak hobekien konprenituko haien jokabidea:

“Lantegietan barnetik lan egin behar dugu Enbatakoek eta beste Abertzaleek” (Davant, 1, 1973, 28).

Eta maila sozialean jokatu, berriz, laborariak eta industri langileak bat eginda jokatu behar da. Izan ere, Iparraldea izan, funtsean, nekazal gizartea baita, sektore horretan pilatzen da euskaldun jenderik gehien. Bi langile-mota horien arteko batasuna lortzea da oinarrizko ideia J-L. Davanten buruan.

Noski, bera Enbatako kide gisa ari da idazten, erakunde horren barrutik. Oraindik sortzear dago HAS (Herriko Alderdi Sozialista), baina jadanik ageri da Enbatako multzo batek, ohiko abertzaletasuna sustatzeko, sozialismoaren alternatiba bultzatzea hautatzen duela. Bego hori esanda, J-L. Davanten lehen artikulua honetan aurreikusten baita, Iparraldean ETArekin bide taktikoa alde batera utziz gero, maila estrategikoan geratzen den aukera bakarra, beti ere bake-bidetik jokatuz, abertzaletasuna eta sozialismoa, biak batera, sustatzea dela.

1.2. Battita Larzabalek¹⁶¹, F.B.M siglapean, 1973ko kantona-menduetako bozken berri ematen du, datu aipagarri eta kezkarri gisa emanez Euskal Herri barnean orain arte zentrista erdikontserbadoreak nagusi ziren eskualdean, hain zuzen, UDR ari dela sartzen eta hautetsi hauek guztiak, kultura aipatu dutelarik, beti frantses kulturaz mintzatu direla, horientzat, egilearen ustez, euskalduntasuna “sentimendukeria huts bat” besterik ez baita. Jauntxo hauek gehienak zapaltzaileen alde dira. Hurrengo hauteskundeetan euskaldun abertzale sozialista bati bozkatzeko esperantza agertzen du.

1.3. Battita Larzabalek berak, geroagoko beste artikulua luze batean¹⁶², 1974ko Lehendakaritzarako hauteskunde-emaizak aztertzen jarraitzen du, eta oraingoan ere konstatatzen da, taulan ikus daitekeen bezala, euskaldunek eskuinaren alde bozkatu dutela kantona-mendu guztietan. Ipar Baionakoan bakarrik lortzen ditu Miterrand-ek Giscard-ek baino boto gehiago eta hori Bokaleri esker.

Kantonamenduak	Kopuru absolutua	Portzentaiak	
		<i>Giscard</i>	<i>Mitterrand</i>
Maule	6815	55	45
Donibane-Garazi	4471	70	30
Bidaxune	2659	60	40
Donapaleu	5583	73	27
Ezpeleta	5503	73	27
Hazparne	4476	75	25
Iholdi	2946	83	17
Atharratze	2916	48	52
Baigorri	3916	79	21
Bastida	2397	74	26
Hendaia	10752	53	47
Donibane-Lohizune	9600	66	34
Uztaritze	5216	72	28
Baiona	28249	52	48

Kontserbadoreak betiko ideiarri jarraiki ari badira ere, bera frogatzen ahalegintzen den tesia da euskaldunak eskualde guztietan ez direla mota bereko kontserbadoreak. Hiru hauteskunde-mapa bereizten ditu: Zuberoakoa, Barnealdekoa eta Kostaldekoa.

a) Zuberoari dagokionez, Bokale hiriaz kanpo, Atharratzeko kantonamendua da ezkerriari gehien botatzen diona, baina ez hango arrazoi soziologikoengatik, hemen ez baita industriarik, Atharratzeko kantonamendua Maulekoari josia delako baizik. Jendeharremarekin batera gurutzatzen dira ideiak ere. Frantses ezkerria nola sartua den Zuberoan? Hasteko, Ipar Euskal Herriaren barruan, eskualde hau zerbait berezia da hizkuntzaren zein ekonomiaren aldetik. Atharratzeko kantonamenduak mendiko ekonomia du, etxalde txikietan oinarritua, eta horko artzainek bortuetan herri-larreak dituzte, orenak direnak, eta hor ikusi bide du egileak zuberotar laborarien “egundainoko sozialismo hazi bat”, ezkerreko ideietara lerrarazten dituen, areago oraindik ikusten dutenean, kapitalismoak laborantzan ezarritako teknologia berriak direla bide, herriak gaztez husten ari direla. Maulen, aldiz, industriaren inguruan biltzen dira frantses ezkerreko alderdiak eta sindikatuak eta

hauek klase-kontzientzia duten heinean dute bozkatzeko ezker. Ezkerra Zuberoan sartzearen beste arrazoietako bat, protestantismoaren tradizioa izan daiteke, jadanik, Jean-Louis Davantek ere aipatua, eta, honekin batera, erriente bidez sartutako laizismoaren nagusitza hezkuntza-sisteman, esparru garrantzitsu honetan, beste eskualdeetan ez bezala, irakasle laikoak erlijiosoei nagusitu izan baitzaizkie.

b) Barnealdeko herriek badute beren berezitasuna. Donibane Garazi eta Baigorriko kantonamenduko herriek Atharratzeko mendi-ekonomia bera dute; bestalde, barneko herri askok kostaldearekin harremanak dituzte, Hazparneko eta Uztaritzeko kantonamenduetatik langile anitz ari baita lanean Baionan. Eta ohargarriena, eskualde horixe dela, hain zuzen, euskaldunena mintzairaren aldetik eta, aldi berean, bera dela ezkerreko ideiei buruz uzkurrena. Zergatik ote da? Egilearen ustez, erregetiarren eta errepublikanoen arteko gatazkak oraindik ere bizirik irauten dutelako bertan, azken bi mende hauetan, eskualde honetan zehazki, ez baita gauza handirik aldatu beste eskualdeen konparazioan:

“Industria ez da nehon laborantzari nagusitu eta sartu den tokietan, hala nola Hazparnen, ez du langileen pentsamoldea aldatu, langileak laborarien artean bizi baitira eta askotan bizi erdi laborari eta erdi langile” (B. Larzabal, 8, 1974, 4).

“Erdi laborari ta erdi langile” diren hauek, laborantzatik datozenak izaki, funtsean ohiko laborari-pentsamoldearekin segitzen dute, eskuindar izanez, “euskaldun baina abertzalismoari hetsia, euskaldun baina eskolaren eta telebistaren bidez gero eta gehiago frantsesua” (B. Larzabal, 8, 1974, 5). Barnealde hau ez bada industrializatzen eta herriak handitzen –hala uste du egileak–, ideien mailako aldaketarik ez da gertatuko hemen. Gaur egun, ordea, abertzaleak barnealdean dira sendoen.

c) Kostaldeko kantonamenduek Euskal Herri barnekoek baino ezkerreko bozkatu badute, zehazki Ipar Baionan, Bokale hor kokatzen delako eta hemen frantses ezkerra aspalditik nagusituz datorrelako da. Baina Bokalez kanpo, langileriak ez du klase-kontzientziarik. Miarritze eta Donibane Lohizunen turismoa nagusitzen da; Hendaian, alkate sozialistarekin, bulegoetako eta administrazioko enpleguak dira, seguru asko, ezker bozkatzeko dutenak.

Hara hor emanda hiru eskualde desberdin horien ezaugarriak. Baina oraindik ez zaio erantzun Iparraldeko euskaldunek zer-

gatik bozkutzen duten eskuin. Zeren, Mixel Labegerie “zentrista” eta Mixel Intxauspe “gaullista” badira ere, izenez lehena bigarrena baino ezkerago, izatez biak dira eskuindarrak, eta hala dira, hain zuzen, bertako euskal gizartea bera ekonomi egiturek eta historiak “frantses eskuindar” egin dutelako. Eta pentsamolde kontserbadore hori, gainera, gehienetan abertzaletasunaren kontrakoa da, nahiz eskuineko abertzale batzuk badiren.

Battita Larzabalek bazuen esperantza, frantses ezkerari boto-sostengua emanez gero, abertzaletasuna irabazten aterako zela. Ideia honekin, Iparraldeko euskaldun abertzaleak, Britainia, Korsika, Okzitania eta Flandesko nazionalistak Mitterrand-en ordezkariekin hizketan ari izan ziren azken bozketa honetan. Zer agindu zuen Mitterrand-ek? Hona hemen, hitzez hitz artikuluko-egilearen hitzak:

“Ez du ez Mitterrand-ek autonomiarik neheri hitzeman, baina Britainian eta Korsikan mintzatu da egundaino hein horretako politika gizon bat mintzatu ez den bezala, garbiki erranez nola ikusten zuen eskualdekatzea; ezagutuz badirela minoria batzuk beren nortasuna atxiki behar dutenak, bereziki mintzaira eskolatan ikasiz (B. Larzabal, 8, 1974, 7).

Berritasuna da, azken hauteskunde honetan, HASek botoa Mitterrand-i emateko erabakia hartu zuela, hots, Frantziako alderdi bati, baina zenbait abertzalek nahiago izan zutela Guy Héraud federalistaren alde bozkatu. Azkenean, azken honen alde agertu ziren zenbaitek Giscard-i eman zioten botoa.

Berriro, betikoa errepikatzen da: eskuineko, erdiko eta ezkerreko alderdi bati botoa ematen zaiolarik, frantses alderdi bati ematen zaiola. Desberdintasun honekin, ordea, azken honetan: hots, Iparraldeko abertzale sozialistek uste zutela frantses sozialistek, hauek ezkerrekoak zirelako, arrazoi honegatik, euskaldunen eskabideak aintzat hartuko zituztela. Geroak erakutsiko du Mitterrand-en gobernuak zer ekarriko duen: GAL, gerra zikina, eta herriarentzat fitsik ez. González sozialistaren gobernuak ekarriko duen gauza bera. HAS ez zen ohartu, nazio-arazoa tartekatzen den testuinguru soziologiko batean, lehen muga politikoak naziotik naziora artekoak direla eta ez ezkerretik eskuinera artekoak. Estatuarena da lehen muga politiko eta ideologikoa. Froga egin beharrekoa zen, antza errealismoaren esperantzarekin, baina lehengo egoera hobe zezakeen emaitza berririk ez zen jaso. Emaitzak baloratzeko orduan,

“bozkaldi horrek garbiki agertarazi du abertzaletan, bestetan bezala, eskuindarrak eta ezkertiarrek badirela”, esaten da. Baina hori jakiteko froga hori egin beharrik ez zegoen, lehendik ere gauza jakina baitzen.

Dena dela, Ipar Euskal Herriko politikagintzaren norabidea kinka larrian aurkitzen da. Enbata federalistaren errautsetatik ezker sozialistaren alternatiba gisa, HAS jalgitzen da, abertzaletasuna sozialismoarekin ezkondu nahirik. Aukera honek, ikusi den bezala, Guy Héraud nazionalista federalistarengatik Mitterrand sozialistarengana pasatzea suposatzen du. Baina, aldi berean, ezker abertzale honek ez du uste, zenbaitek pentsatzen duen bezala, “indarkeriak gauzak akulatuko dituenik”, eta hau esatean, jakina, Iparretarrak-en jokabidea jartzen da auzitan. Iparraldean, ezker abertzalea, une honetan, zatitua agertzen da bere aukeretan: batetik, HAS, herritarren politika parte-hartzailea bultzatuz eta, bestetik, Iparretarrak, borroka armatua eginez.

2. Ekonomia

Iparraldeko ekonomiaz beti egon da kezkaturik hango mundu abertzalea. Enbatak bere garaian liburutxo bat eskaini zion gai honi, oinarritzko hainbat datu bilduz. *Zabalek* ere gogoan izango du.

2.1. Laborantza

2.1.1. Era berean, berriro J-L. Davantengana itzuliz, langile-borrokan, Iparraldean bederen, laborariak kontuan hartzekoak direla, dio, “H.I.” inizialekin izenpetzen duen egile ezezagunak¹⁶³. Honek MRJC eliz mugimenduak daraman ekintzaren berri ematen du. Zazpi galdera zuzentzen dizkie mugimendukoei, zehazki, laborarien egoeraz, laborantzako sindikalismoaz, laborarien arteko diferentziaz, laborantzako kapitalismoaz, laborarien klasearteko borroka eta, azkenik, laborarien abertzaletasunaz erantzun dezaten. Erantzunak puntuz puntu emanak datoz artikuluko honetan, nahi duenak bertan irakur ditzan. Guk hemen, laburtu beharrez, azken puntua hautatzen dugu. Izan ere, gauza jakina baldin bada ere euskaldungoa gehienbat laborariak sostengatu dutela, ez da hain gauza bistakoa euskaldungo horretan abertzaletasuna inplikaturik doanik.

Belaunaldi zaharrekoen artean ez garbiki, hauteskondeek behin eta berriz erakutsi izan dutenez. Zentzu honetan, interesgarri gertatzen da, nola ez, belaunaldi berriko MRJCko gazteek horretaz zer pentsatzen duten jakitea. Pasarte honetan ageri da nola agertzen duten aberriaren eta laborarien arteko harremana:

“Euskal-Herrian bizi garenez geroz eta Euskal laborari izanik, ezin berexizkoak dira laborari izatea eta euskaldun izatea, gizon izatean. Orain arte abertzaleak okupatu dira Euskaldun izateaz laborari edo langile izatearekin loturarik egin gabe. Gure ustez, makur handia izan da. Pentsatzen dugu Euskal Herriaren alde izateak erran nahi duela, Euskaldunen problema guziez axolatzea, eta bakoitzak bere bizi lekutik munduaren hobetzea. Gure iduriko Euskaldunak zapaltzen dituen sistema gudukatuz baizik ez dezakegu konkretuki zerbait egin beste herrietan (Italian edo Japonian) zapalduak daudenentzat. Batasuna eginez baizik ez dezakegu iharduki. Euskaldunak zapalduak badira, laborariak, langileak eta besteak zapalduak badira, oro sistema bera dela medio da (HI, 1, 1973, 33).

Aipu horretan, ezer gehiegi konkretatu gabe, sistema zapaltzaileaz –kapitalismoaz, alegia–, era aski abstraktuan mintzatzen da erantzulea. Euskal laborarien klase-kontzientzia da, batik bat, kontuan hartzen dutena eta, maila honetan, hiru klase-mota bereizten dituzte: kapitalismoari atxikiak, gutxi-gorabehera % 5, sisteman sartuak direnak edo “modernixtak” eta, azkenik, sisteman oraindik sartuak ez direnak edo “tradizionalistak”. Baina, azken batean, kapitalistak dira sistemaz baliatzen direnak. Nolanahi ere, euskal laboraria eskuinari lotua egon bada ere, badirudi, teknologia berriaren sartzearekin, laborarien baldintza materialak aldatzen hasiak direla:

“Bai, egia da, Frantzian burgesak betidanik baliatu dira laborariez, langileriaren borrokaren zapaltzeko. Bestalde laboraria uzkur eta herabe egon da gauza berriei buruz (bozketan beti eskuinari lotuak eta edozein ideia berrien kontra. Orain ikusi dugun bezala, kapitalismoaren sartzearekin, laborarien situazioa edo egoera materiala aldatu da. Pentsamoldeak ere horregatik emeki emeki, biziki emeki aldatuz doaz. Gero eta gehiago laborarien situazioa langilearenari hurbiltzen ari delakoan, argi dago interes berak dituztela kapitalismoaren suntsitzeko. Horretarako gure ustez beharrezkoa da laborari ta langileen juntatzea eta batasuna” (HI, 1, 1973, 33).

Jean-Louis Davantek Donapaleuko “Lur Berri”ren esperientzia, Errekart kristau-demokratak bideratua, dauka aiputan, azpimarratuz bertan finkatutako kooperatiba-sistema horrek berrikuntza handiak ekarri zituela laborantzan. MRJCKoentzat, aldiz, nekazal kooperatibismoa gerraren ondoren sindikatuen faboretan hedatzen den sistema da, sindikalismoaren alaba, beraz, eta honen antzera, laborari txikiak azpiratzen dituen eta sistema kapitalista sostengatzen duena. Ez dira ados laborari txikiak zanpatzen dituen sindikalismoarekin eta, ondorioz, ezta honen alaba den kooperatibismoarekin ere.

2.2. Industrigintza

2.2.1. Baina Beñat Oihartzabalen¹⁶⁴ gaia, batik bat, Ipar Euskal Herriaren egoera ekonomikoa aztertzea da. XVIII. mende-bukaeran, Frantzian burgesia botereaz jabetu zenean, artzaintza eta laborantza genituen jarduera garrantzitsuenak euskal gizartean, nahiz eta baziren laborantzari zein meatzaritzari loturiko industria txiki batzuk, hots, larrugintza, oihalgintza, gatzaga eta burdingintzan ari zirenak. Bankako meategietan, adibidez, 264 langilek ziharduten lanean; Zuberoko Larrainen, berriz, 1.200. Baina esku-industria txiki hauek leher egin zuten mende honetan bertan, Frantziak beste estatueta-ko ekoizpenei bere mugak ireki zizkienean, bereziki Luis XVI.ak Ingalaterrarekin merkatal harremanak eginez geroztik. Frantziako Iraultza Handiaren ondoren, berriro industrigintza hori bultzatu nahi izan zen ustiapen-mota bera erabiliz, baina, beste lekuetan bezala, kapitalismoaren garapenak produkzio-moldeen alorrean ekarritako aurrerapen teknikoak zirela bide, XIX. eta XX. mendeen arteko pasabidean deseginda geratu zen, oraingoan erabat. Beraz, ohiko industrigintzaren lekuan, beste industria txiki batzuk sortu ziren beste zenbait produkzio-sektoretan, hala nola, zapatagintza Maule (1895) eta Hazparden (1905), eta siderurgia Baionako Bokalen (1882). Hiru hiri horien inguruan bildu ziren langile-multzoak. Datu batzuk ere aurreratzen dira: Maulen, 1914an, 1.350 langile zebiltzan eta 1930ean, 2.000; Hazparden, azken urte horretan, 600 langile ari ziren 7 lantegitan barreatuta elektrika-makinaz eta bizpahiru aldiz gehiago norbere etxeetan esku-makinaz; “Société des Forges de l’Adour” aroztegiak 1.700 langile enplegatzen zituen 1926an eta 6.000 1964an. Azken industrigune honetan bakarrik sortu zen, hain zuzen, langileen baitan taldean antolatzeko klase-

kontzientzia; Maulen ere mende-hasieran izan zen mugimendurik, baina ez zen langile-erakunderik sortu.

Mende honen hasieran eraikitako industrigintza hori, bere txikian, desegina izan zen 1960ko hamarkadan Europako gizarte kapitalistan gertatutako aldaketen ondorioz, enpresa handiek txikiagoak irentsi zituztenean. Honela, Bokaleko sutegiak hil egin ziren betiko 1965ean, berdin barnealdeko zapata-lantegiak, eta, ondorioz, hiri horiek langabetuz bete ziren. Zein lantegi geratzen diren 1970ean? Bi handi hauek bakarrik: hots, Tarnoseko “Turbomeca” 1.400 langilerekin eta Angeluko “Breguet” 1.800rekin; beste guztiak 500 langilez behetikoak dira. Lapurdi eta Nafarroa Beherean 11 lantegi bakarrik ziren 200 langilez goitik zituztenak. Kostaldean, 1970ean adibidez, 6.800 industri langile –guztizko industri langileen % 10 edo 11 inguru besterik ez–, ari ziren gutxi-gorabehera 90 langilez gorako lantegietan.

Zein den Lapurdiko egoera 1973an? Beñat Oihartzabalek, Baionako Merkatal Ganbarak argitaratutako datuetan oinarrituz, zifra hauek dakartza. Ipar kostaldeko populazioa, 1969an, 166.632 biztanlekoa zen, eta horietan modu batera edo bestera aktiboan zeudenak, 64.576, hots, % 39, lan-mota hauetan honela banatuta: laborariak (jornalariak barne) % 7,1, industri eta merkatal jabeak % 14,1, ofizio liberalak eta goi-mailako enpleguak % 9,1, behe-mailakoak % 14,7, langileak % 36, zerbitzuetan eta beste lanetan dabiltzanak % 13,5.

Egilearen asmoa ez da Iparraldeko ekonomiaz azterketa bat egitea, baizik eta eskualde honetan ekonomiak azken mende hauetan izan duen bilakabidea ikusita, bertako langileen borroka-ezari oinarri soziologikoak bilatzea. Ibilbide hori egin eta gero, artikuluegileak nabarmendu nahi izan dituen ondorioak, hauek izan dira:

Lehenik, Bokaleko burdin lantegietan izan ezik, Ipar Euskal Herri osoan ez dela sekula lantegi handirik izan eta, arrazoi honengatik, sindikalismoak zailtasun handiak izan dituela bertako langileria baitan txertatzeko. Izan ere, lan-eskasi larria dagoen eskualde batean, Iparraldean bezala, oso zaila da 100 langiletara iristen ez diren lantegietan erakunde sindikalak antolatzea, nagusiak lan-eskasiaren baliatzen direlako langile “nahaslariak” kanporatzeko. Honek esplikatzeko du zergatik lantegi handietan bakarrik antolatu diren langileak CGT eta CDTT bezalako sindikatuetan, Turbomeca, Breguet, Socadour, Satec-en-eta, bezala. Egile honen ustez, bada, bigarren

mailako arrazoiak dirateke aipatu ohi diren beste faktoreok: elizaren eragin atzerakoa, nazio-alienazioa, nekazal giroko espirituairen iraupena, sindikatuen jokabide desegokia, etab.

Bigarrenik, eta ondorio hau aintzakotzat hartzekoa da, sindikatuetan antolatutako langile hauek, lantegi txikietakoan aldean, abantaila handiagoak beretzen dituzte, besteak beste, lana ziurtatuz eta gehiago irabaziz, eta, oro har, langileriaren baitan gutxiengo pribilegiatu bat osatzen dute Ipar Euskal Herrian eta, zentzu honetan, bistan da, langileen interes komunen barruan desberdintasunak islatzen dira. Hemen langileria honen euskal izaeraz ez da aipamenik egiten, baina, euskal naziotasunaren kontzientzia izan ala ez, nazio-izaera ere kontuan hartzekoa izango litzateke, hain zuzen, estatu-sindikatu horiek “frantsesketa” soilki baitute oinarritzat.

Hirugarrenik, artikulua Maiatzaren lehenaz baitihardu, azpimarratzekoa da 1973an Baionan ospatzen dela, lehen aldiz seguru asko, langile-borrokarako egun hori, sindikatuak deituta. Baziren horretarako arrazoi objektiboak, nagusia hau: hots, kostaldean 3.000 langilez gora zeudela langabezia. Baina borroka-deialdiari erantzungo diotenak, kale-manifestazioan bilduta, 2.000 lagun besterik ez dira izango. Zuzenki ukituak direnek ez dute solidaritate-ekintzarako minberarik sentitzen. Abertzaleen jokabidea zein izan zen? Egilearen ustez, Enbatak hitzaldi batzuk egin zituen arren, orokorrean, euskal mugimenduak langile-mugimenduari arrotz izanez segitzen du eta honen frogatzat dakar, Maiatzaren leheneko manifestazioan abertzale-andana batek parte hartu bazuen ere, bertan ez zela ez oihu, ez ageri, ez afixa, ez euskarazko paperik agertu eta, era berean, mugaz bestaldeko langileen borroka ere ez zela hitz bat ere esan. Abertzaleen langile-mugimenduarekiko epelkeria hori, Beñaten ustez, gabezia hori Iparraldeko abertzaletasunak gizarte-oinarri eskasa izatetik dator, etorri.

Horra! Balantze negatiboa egiten du Iparraldeko langile-egoeraz eta honen inguruko mugimenduaz. Dena dela, Beñat kritikoa agertzen bada ere bere lanean, euskal langilearen antolakuntza autonomoaz, honen beharraz edo egokitasunaz, ez du ezer aurreratzen. Ezta Batitta Larzabalek ere. Ezta MRJCKoek ere. Bitxia gertatzen da bertako abertzaleen artean euskal sindikalismo baten plan-teamendurik egin ez izana.

2.2.2. Bortairu “Kalakari” euskal sindikalista¹⁶⁵, Iparraldeko langileriak dauzkan arazoez diharduen artikuluan, “lan eskasia” da

larriena. Betikoa da, baina une honetan areagotzen dena, zeren bi lantegi ixten baitira: “Société des Carbones” Angelun eta ‘Sciaky’ Bokaleko eskualdean, hurrenez hurren, 80 eta 107 langilerekin. Zergatik ixten diren? Bietan arrazoi bera aipatzen da: “kapitalismoarena”. Kapitalak, unean uneko etekin ekonomikoen arabera, enpresa-eraikinak lekuz aldatzen ditu eta langileak kalean uzten. Lantegiak itxi eta berriak irekitzen badira ere, ez dituzte hartzen lehengo langileak. Halaxe gertatzen da usu lan-eskasia den eskualde guztietan. Arrano beltzen antzekoak dira horrela jokatzten duten kapitalistak, hauek lantegiak noiz hilko zain baitaude, lantegi berri bat muntatzeko gobernuak edo lekuko erakunde publikoak emandako diruari esker. Diru publikoa inbertitu eta gero, ez bada errentagarria gertatzen, Arrangoitzeko arropa-lantegian bezala, itxi eta ez da ezer gertatzen. Diru publikoak horrela erabiltzea, lapurtzea da. Ongi dago laguntzak ematea, baina langileek ere jakin behar dute horren kudeaketa nola egiten den. Horregatik –eta hauxe da artikulugileak ateratzen duen ondorioa–, “lantegietan langileak arrunt partzuer izanen ez direno, langileak beti izanen dira guti edo aski handien eta sosdunen petzero” (Bortairu 2, 1973, 16).

2.2.3. Gexan Alfaro “Lantziri”^{k166}, Pariseko gobernuaren aspaldiko politika ekonomikoa Euskal Herria adin heldukoaren eta erien pausaleku izatea izan dela esan ondoren, Baionako Merkatal eta Industriako Ganbarak 1971ko martxoan argitaratutako datuetan oinarrituta –Beñat Oihartzabalek erabilitako iturri berean, alegia–, Iparraldean 2.503 langile dira, eta hauetatik gehienak emaztekiak.

Gexan Alfaro “Lantziri”ren tesia da, Ipar Euskal Herria, “herri kolonizatu eta ez-industrializatua izanik ere”, ez dela arras lantegirik gabea. Badira zenbait, hala nola, “Nehaus” Behobian, “Breguet-Dassault” Angelu-Miarritzen eta “Turbomeca” Tarnosen, teknologjaren aldetik guztiz aurreratuak. Baina ez da aski lantegi. Gainera, egoera kontraesankorra ematen da, zeren, lantegi berriak egiten ari diren bitartean, beste batzuk –ireki berriak, hain zuzen–, itxi egiten baitira.

Artikulu honetan, azken bi urteetan (1972-73), industrigin-tzan eginak izan diren ahaleginak aipatzen dira. Kostaldean, Baionako Merkatal eta Industriako Ganbararen 1971ko emaitzak ikusi eta gero, Baionako hiria izan da lantegi berriak irekitzeari ekiten dion bakarra. Honela, lantegi berriak ekarraraziko direla agintzen da: batzuk Baionako lurretan plantatzekoak, hala nola, “Monoplast”

eta “Forum”, besteak Mugerreko industrigunean, hala nola, “Neocarnis”, CIPA eta SAT. Lantegi hauek udal-laguntzak eta departamentukoak hartuz eraikitzeak dira. Diru publikoarekin. Pentsatzen da, industri langintza hau, 1972an hasi eta handik bi urterako (1974) bukatua izanen dela. Beraz, Baiona ingurua industrializatuazateko esperantza handiak irekitzen dira eta artikulugilea zentzu honetan mintzatzen da etortzearen den “ekonomialaro berri” batez, Baionari dagokionez. Muntatu diren lantegi hauek bi berezitasun dituzte: “bata lana garbia ekartzen dutela gure lurrera, eta bestea lanbiderik gehienak emaztekiez egin direla, mementoan beharrik haundiena hauek baitute” (Alfaro, 4, 1973, 23).

Iparaldearen industrializazioa, Enbatakoek bere garaian –1960. urte-inguruan–, esan zuten bezala, sektore horren bizkortzea Hegoaldetik etortzekoa zen, ez Paristik. “Egun –hala dio Gexanek–, gogobide hori guziz onartua da”. Mugaz bi aldeetako buruzagi eta industrialariak elkartzen hasiak dira xede hori aurrera eramateko asmoz.

2.2.4. Gexan Alfarak agintzen zuen hurrengo zenbakian, Iparaldeko eta Hegoaldeko harreman ekonomikoak zirela-eta, sortzen ari zen “aro berriaz” mintzatuko zela. Halaxe egiten du “Handik eta hemendik” izenekoan¹⁶⁷, non, zernahitaz ari baita, baina gu lehenengo gaiari bakarrik lotuko gatzazkio. Hemen esaten da, zortzi urteko epealdian (1966-1974) lau aldiz itxi izan dela Tarnoseko “Sciaky” lantegia, azkenekoan 1973ko azaroan, kanpoan 97 langile utziz. Baina, berriro langile-borrokari esker, 1974ko urtarrilean martxan jartzen da. Hazparneko industrigunean, lantegi berri bat, “Euromat” izenekoan, altxatu da, 26 langilerekin. Orotara, 920 langile ari dira lanean Hazparnen. Bestalde, Hazparneko Udaleko laborantza-sailak, orotara dituen 2.200 hektarea lurretik, 600 hektarea luberritzeko eta beste 400 oihaneztatzeko erabakia hartua du. Jadanik, gobernu-diruarekin, 200 hektarea luberrituak dira eta 80 oihaneztatzen ari. Luberri hauek Udalak banatzen ditu laborarien artean baldintza batzuen pean.

Ematen duen datua, ez dakigu zertan oinarrituta, hauxe da:

“Ipar Euskal Herriak eta Biarnoak Frantziako Estatuak duen baino harreman gehiago badu bestaldeko ekonomiarekin. Eta heldu diren urtetan harreman hauek emendatuko direla ez da dudarik” (Alfaro, 5, 1974, 18).

Hau egiaztatu beharra dago, ez baita daturik ematen.

2.2.5. Iparraldeko eta Hegoaldeko industri harremanez xehetasunez mintzaten dena, Ramontxo Kanblong da, “Ipar Euskal Herrian, MIACA” izeneko artikuluan¹⁶⁸, orduan Hazparneko Eskola Teknikoan irakasle zena. MIACA laburdurarekin datorrena, “Mission Interministérielle d’Aménagement de la Côte Aquitaine” izeneko erakundea da, Pariseko gobernuak sortua. Hasieran, Philippe Saint Marc jauna buruzagi ezarri zutelarik, Ipar Euskal Herria Akitaniatik kanpo utzi zuten eta UDRkoak eta Ipar Euskal Herriko turismo-sektoreak kexu agertu ziren. Handik laster, Saint Marc baztertu eta Émile Biasini jauna ezartzen dute eta ipar euskaldunentzat Louis Arretxe arkitektoa, jatorriz euskalduna.

MIACA erakunde honek, 1974ko urtarrilaren 11n Paueko Kontseilu Jeneralean egindako bileran, 1985erako etorkizuna prestatzeko plangintza antolatzen du, Pariseko ministro-kontseiluak martxoaren 13an onartzen duena. Dena isilpean egina da, euskaldunek nolakoa den ez dakitena, egiten ere parte hartzen ez dutena. *Sud-Ouest* egunkarian (1974-01-11 eta 12) bakarrik agertu izan dira haren berri solte batzuk, zeinetan, R. Kanblongek dioenez, turismoaz baizik ez dira mintzo artikulugileak. Egunkari horretan bertan, 1974-03-24koan, aipatzen da Ipar Euskal Herrirako plangintzari buruzkoa, “L’Horizon 1985 pour le Pays Basque” izenekoan, zeinetan esaten baita Iparraldeko industria egiturazko krisi-egoeran dagoela eta berrikuntzarako, etorkizunean, Hego Euskal Herriarekin harremanetan jarri beharko dela. Laburpena artikulugilearen esku uzten dut:

“Bidasoaz haraindian dagoen industri usutasun izugarria ikusi eta, aise pentsa omen diteke, mugak apaltzen ari diren garai hauetan (!), Hego euskal herriko industria horrek, ipar alderat pasatu nahiko duela, toki eskasagatik lehen lehenik omen. Baina halere ez omen da sobera amets egin behar alde horretarik. Ipar euskal herri honek lantegi heste parrasta bat ikusi baitu azken urte hauetan, lantoki gabezia eta ‘chomage’ delakoak beti iraun omen du gure artean denbora horretan. Bestalde Lacq-eko gas-a husten ari baita, esperantza guti alde horretatik ere (hemendik hamar urteetarat erdiratuko omen da horko produkzioa). Baionako itsas portuak beherakada bat ezagutuko omen du orduan, Lacq-eko sufrea baita itsas portu honen esportaziorik handiena (...) Hego aldeko industriaren indarra eta aldi honetan erresponstabilitate

gehixego agertuz, diote Ipar aldeak erakunde bat muntatu behar duela Hego aldearekin hartu eman ekonomiko horiek plan baten arabera eramateko (...) Produktzioaren saila amaitzeko dio lerro batez, zorionez euskal laborantzaren emaitzak atera bide handiak izanen dituela: aroak, belardi egiteak eta abere hazteak etorkizun handia omen dute ipar euskal herrian (Kanblong, 7, 1974, 20-21).

Industriari buruz hori badio ere, artikuluegileak azpimarratzen duenez, “hobekienik eta handizkienik ikertua eta izkiriaturia den kapitulua, turismoarena” da. Turismoa azkartzeko ematen diren arrazoiak, besteak beste, hauek dira: lehenik, Ipar eskualdeak duen aparteko graziari eutsi behar zaiola etxegintzaren zein paisaiaren aldetik; bigarrenik, azken 150 urte hauetan zehar odol-husten ari den barnealdea behar dela salbatu; hirugarrenik, itsas bazter zoragarrian laket-portuak muntatu behar direla. Hauek ote dira barnealdeko laborariak eta kostaldeko arrantzaleak dituzten lehentasunezko beharrak? Hau guztia ez ote da Euskal Herriaren izatea gorpuz eta arimez hobeki itotzeko asmatutako taktika? Galdera hauek dira R. Kanblongek egiten dituenak.

MIACArek arabera, sei zatitan antolatzen da euskal lurraldea:

Lehen eskualdea “itsas bazterreko lurralde hiritartuak” osatzen du, Aturritik hasi eta Bidasoaraino doanak. Hemen, etxegintzari dagokionez, turismorako 30.000 ohe berri muntatzea aurreikusten da. Bestalde, hiru laket-poru berri prestatu nahi dira: Hendaiaiko Txingudi badiak, Donibane-Lohizunen eta Ziburuko Untxineko ibaian, Urruña aldean, eta Miarritzeko “Côte des Basques” famatua.

Bigarren eskualdea, “barne hurbila” deitua da, non Kanbo, Ezpeleta eta Uztaritze sartzen baitira, hots, Lapurdiko barnealdea, Hazparne kanpo. Hemen beste 9.000 ohe berri prestatzea pentsatzen da, bereziki Kanboko “ur beroen” berpizkundeari esker.

Hirugarrena, “euskal mendia” deitzen zaiona da, Baigorrik, Donibane Garazik eta Atharratzek osatzen dutena, non populazio aktiboaren % 60a laborantzatik bizi baita. Hiru herri hauek salbu, beste herrixka gehienak gainbehera doaz. Beno, bada, eskualde honetan 7.000 ohe berri beharko dira eraiki turistentzat. Erakunde honek, halere, ez ditu hain gustukoak Iratiko egoitza turistikoak. Beraz, Dubosq-en planteamenduekin ez letorke bat.

Laugarren eskualdean “euskal mendixkak” sartzen dira, hots, Hazparne, Donapaleu eta Mauleko herriak, non industria berriak

plantatzea aurreikusten baita, horko lantegietan emazte langabeak eta laborari ahulenak enplega daitezzen. Baina hemen ere turistentzat 5.000 ohe berri egin beharko dira.

Bosgarren eskualdean kokatzen da “Aturri behereko harana”, Ahurtitik Peiroarera doana, zeina baitago laborantza eta abelazkuntza dinamiko bati atxikia. Hemen, 5.000 ohe berri beharko lirateke, kanpinak eta laket-portu zenbait.

Azkenik, “Akitzeko ur beroen inguruan”, beste 7.000 ohe apailatzeko modua legoke.

Erran bahi baita, barnealdean 34.000 eta kostaldean 30.000 ohe berri egitea aurreikusten dela 1985. urtera arteko epealdian. Dena turistentzat pentsatuak. Beraz, plangintza osoa turistentzat egina da.

Orain arte eta aspaldidanik, hauxe da R. Kanblongek ateratzen duen ondorio nagusia: hots, kanpotarrak ari izan direla euskal lurra eta euskal jendea “mia eta mia” eta “oraingoan MIACAK gaituela miatu, zulatu, zabaldu eta puskatu”. Ordu da, hala dio, euskaldunak, unibertsitarioak lehen-lehenik, ikasleak, langile eta laborariak seriooki herriaz arduratzen has daitezzen. Gurutz Ansolak Hegoaldean egin bezala. Baina oraintxe bertan. Kanpotarrek gure herria deseuskaldundu baino lehen.

2.2.6. R, Kanblongen artikulua horrek bere eragina izan zuen *Zabaleko* batzuen artean, zeren, hurrengo zenbakian, K. Mendibeherek, “Abertzaletsuna” izeneko artikuluan¹⁶⁹, baieztapen bortitza egiten baitu, esatean, Enbataren sorrerarekin euskal arazoa harrotzen denez geroztik, kultur sustapenaren aldeko ekintzak alde batera utzita, euskal politikagintzan ez dela deus sakonik egin:

“Deus sakonik ez dela aldatu hamabost urte hautan. Batzuek erranen dute, borrokak bere bidea segitu duela, oraindino gauza anitz egina izan dela... Baina guk, ihardetsiko diegu ez dutela ez politikazko ekintzek (edo hobeki erranik, holakoak iduri zutenek), ez kulturazko eginkideek egiazko *borroka politikorik* sortu herriarengandik. Deusik ez da oraino egin izan Ipar Euskal Herriak dauzkan problema funtsezkoen alde (problema ekonomikoari buruz. Zer moldez neur genezake orain arterainoko borrokak ekarri dituzken ‘puntu positiboak’? Erranez abertzaletasunaren ideia eta Euskadiren izena zabaldu direla pixka bat, gogo-bihotzezko adostasun bat finkatuz Euskadiren alde. Besterik gabe. Euskal Herria, biziastu husten ari zaigu. Minaren erroari ez bagatzaizkio

lotzen, orain den abertzaletasun abstraktua hutsetik hauts bihurtuko da” (Medibehere, 8, 1974, 10).

Euskal politika, egon, krisian dago. Honen froga da, Iparraldeko abertzale guztiek, salbu kultur taldexketan dabiltzanek, “deus baino guttiago dagite borrokaren azkartzeko”. Zergatik egoera hau? Egilearen ustez, bi arrazoiengatik; lehenik, euskal abertzaleen indarrak “taldekatuak” aurkitzen direlako, denak batuko lituzkeen erakunde baten premia gorrian; bigarrenik, abertzaletasuna paralsiak hartua daukalako, gizartean aldaketa ekar lezakeen ezer dinamikorik gabe. Borroka abertzaleari eduki ekonomikoa falta zaio. Horregatik, egile honen ustez, Ipar Euskal Herrian, egin beharreko politikagintzaren funtsa, premiazkoeen lehenatasunari dagokionez, kulturagintzan baino areago, ekonomian datza:

“Gure problema, lehen lehenik, ekonomikoa denez gero, horri behar gara orain lotu. Langabezia, lurraren saltzea eta galtzea, nekazaritzaren egoera, jauntxoaren zapalkuntza, fenomeno horietan dugu geure gaitzaren erro nagusia” (Mendibehere, 8, 1974, 10).

Hemen hartzen du egileak aurreko artikuluan Kanblogek luzatutako hari-punta. Iraultza, bada, maila ekonomikoan egin behar da, bertan dauden lan-arazoei erantzun egokiak etxetik bertatik ematen hasiz. Egiazko abertzaletasunak, herri-arazoak –hauen artean langabeziarenak–, oinarrizko arazotzat hartzea inplikatzan du. Herriari bizitzea, bertan lan egiteko bideak irekitzea edo lana sortzea: hauxe da zinez garrantzitsua:

“Gure Borrokaren interesek manatzen gaituzte orain egoera ekonomiko honen akuilatza, lana geuk sortuz eta horri buruz gauzak geuk antolatuz. Horrelaxe dugu dinamika berri bat sartuko abertzale giroan” (Mendibehere, 8, 1974, 11).

Gazteak dira, ziurki, dinamika bultzatuko dutenak. Ipar Euskal Herrian jada hasia da branka hori agertzen, mota berriko abertzalegiroa egiten.

2.3. Turismoa

Turismoarena da beste gai nagusia eta horren kontra oldartuko da bertako politika abertzalea.

2.3.1. Battita Larzabal “F.B. Munho”^{k170}, literatura metaforikora joz, Iparraldeko turismoa putakeriarekin berdintzen du, aditzera emanez, bere kantuak, dantzak eta ohiturak turistei saltzean, bere nortasuna saltzen duela, puta batek bere edertasuna saltzen duen moduan. Udako partean turismoari eskaintzen zaion sasi-folklorismoa salatzen du. Ostalari eta merkatarien sektorea da –egileak “ostatukrazia” deitzen diona–, folklore-festez baliatzen dena turistak erakartzeko.

Lehengo turismoa kostaldean finkatzen zen gehienbat. Orain, gero eta gehiago ari da sartzen barnealdean eta espektakulu folklorikoenak, hain zuzen, hortxe antolatzen dira, Ezpeletan, Hazparnen, Donibane Garazin, Baigorriin, Donapaleun, Maulen, eta abar. Udatiarrei aurkezten zaien euskaldunaren itxura, hauxe da: “pilotaria, kantaria, dantzaria, kontrabandista eta indartsua”. Euskaldunak indarrak neurtzen agertzen dira, edo soka-tiran, edo orgak edo lasto-bolak altxatzen, aizkoran edo segan –gorputz-jokoetan, alegia–, “animali arraza berezi bat balira bezala”. Lekuko jendearen ikusmolde eta ohiturak ezagutu nahi dituen turistarentzat ez da ez euskal kulturarik ez arazo politikorik.

Jendeaz gain, lurreko nahiz itsasoko animaliez ere baliatzen dira ostatukratak ikuskari folklorikoen eskaintza handitzeko. Hone-la, kostaldean, “atunaren gaua” ospatzen da, barnealdean “zikiro jateak”, “lukainaren gaua”, “xahakoaren gaua”-eta, egiten dira.

Baina turismo-mota honek Euskal Herriari zenbait ondorio kaltegarri badakarzkio. Besteak beste, hiru hauek: lehenik, euskal nortasunaren bestelakotzea ematen da, “indianotzea”, alegia, ez baita eskaintzen euskaldunaren egiazko irudia, interesatzen dena baizik; bigarrenik, ostatukratak, herriaz baliatzeaz gain, beren langileez ere baliatzen dira, leher eginaraziz lanik zailenetan eta, gainera, gutxi ordainduz; hirugarrenik, euskal paisaiaren edertasunaz baliatuz, atzerriar burgesek bertan lurak eta baserriak erosten dituzte eta, ondorioz, laborariak beren lehen tresna den lurraz desjabetzen dira:

“Ororen buru, ostatukraten interesengatik Euskal nortasuna folklorea, kultura ta lurak ari dira saltzen eta Euskaldunak beren aberrian atzerriar jartzen” (Larzabal, 2, 1973, 13).

Kontua da frantses politikak turismoari gehiago laguntzen diola laborantzari edo industriari baino eta euskal ostatukratek sasi-folklorismoan oinarritutako jarduera ekonomiko hori sustatzen du-

tela. Ikuspegi arras kritikoa agertzen du, bada, egileak turismoaren gainean.

2.3.2. K. Mendibehere laborariak¹⁷¹, bere aldetik, herriko feriek abelazkuntzan dihardutenentzat zenbateko garrantzia daukaten aipatzen du –garrantzi ekonomikoa, alegia–, zeren, berak dioen bezala, “kabalen saltzetik bizi da egungo Ipar Euskaldun baserri-tarra, kabalak salerosten baititu azoka eta feria egunetan”. Berak Garruzeko plaza dauka aurrean, hango feria, zaldiz, pottokaz, astoz, mandoz eta turistaz beteta dagoena, non tratuan ari baitira “bai euskaldunak, bai biarnesak, eta makinun frantses eta espainol asko”. Komatxoan artean ezarri dut azken esaldi hau, horko euskaldunen eta espainolen esanahia ez baita batere garbi agertzen. Iduri du, halere, esamolde horretan kontrajartzen direnak, batetik, biarnesak eta Iparraldeko euskaldunak direla eta, bestetik, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunak. Bitxia gertatzen da euskaldunon arteko mugak horrelako hizkuntzaz egitea. Non, eta *Zabalen*, nork eta euskaldun peto den laborari batek idatzita.

Arazoa da –artikulugilea hau salatzeraz dator–, feria horiek izan duten garrantzi ekonomikoa galtzen ari direla eta turistentzat folklore bihurtzen:

“Erraten duguna da, Pariseko kapitalismoak igorri digun turismoak, lokar arazten duela Euskal Herria. Feriek ez digute laborantza azkar baten itxura erakusten, baina laborantza eri eta ahul batena, turismoaren pozoia daukan laborantza” (Mendibehere, 3, 1973, 4).

Honek ere, Battita Larzabalen ildo bertsutik, ganadu-feriak sartzen ditu turisten zerbitzura ezarritako folklorekeriaren esparru gero eta zabalagoan.

2.3.3. Arño Heguiaphalek¹⁷² oraingo Zuberoako Sindikatuaren sorreraz eta funtzionamenduaz hitz egiten du. Sindikatu hau 1838an sortua da, lehengo askatasun zaharren ondar gisa, eta 15.393 hektarea lur ditu Bortuan, larre eta oihan. Hemen bazkatu izan dira zuberotarren kabalak, lurren herri-gozamenean ohiturazko arautegi bati jarraiki. Zer gertatzen ari den? Berrikitan, turismoaren adarrak, itsas-hegitik hasi, barnealdeko haranetatik pasa eta, azkenean, mende garaietaraino iristen dela turismoaren garapen-hegoa. Artikulu honetan, hain zuzen, Zuberoako Dubosq diputatuaren jokabidea salatzen da,

zeinak, Sindikatuan Anixet Iribarnek utzitako kargua hartuz geroztik, Iratik oihanean “complexe touristique” delakoa egitea erabakitzen baitu. Hemendik sortzen dira eztabaidak, zuberotarrek pentsatzen baitute proiektu hori ez dela beraien faboretan pentsatua, hots, bertako laborari eta langileen onetan, Frantziako aberatsentzat baizik. Antza, Mauleko burges eta merkatari erdi-biarnesak ziren horren sustatzaileak.

2.3.4. “Iparretik” izenpetzen duten batek¹⁷³, aurreko beste artikulugileen bidetik, turismoaren indartzea azpimarratzen du, zeina jainko izatera iritsi baita¹⁷⁴. Fenomeno honek, lantegiak eskas diren eskualdean, langile-kontzientziaren galtzea dakar. Baina harrotzen duen gaia da –eta bere tesia–, lantegietan sortzen diren gatazkak, funtsean, kapitalismoak berak sortutakoak direla, “sistema dea-bru” honek, alegia. Nagusiek, greba bat sortzen delarik, nahiago dute miliarrak eta miliarrak xahutu langileriaren eskabideak onartu baino, nahiago onez amore eman baino polizi indarrez langileak menpean hartu. Kapitalistek asteak eta hilabeteak emango dituzte tenka honetan, grebalariek eskatzen dutenaren aurrean amore eman nahi ezta. Artikulugileak Hegoalde eta Iparraldeko langile-greben adibideak ekartzen ditu, Beasaingo CAFen, Lasarteko “Michelin”en, Iruñeako “Motor Iberica”n, Biarnoko Nogueres herriko “Pechiney”n-eta, ematen direnak. Euskal langileriak oraindik ere borrokan segitzen duela esanez bukatzen du bere lana. Halakoa ote da Iparraldeko langile-egoera? Hasieran ez al du esaten, bada, turismoaren indartzea dela-eta, bertako langile-kontzientzia indar-getzen ari dela? Bestalde, Biarnon kokaturik dagoen Nogueres-ko adibideak balio al du kasu honetarako?

2.3.5. Leon Ximikok¹⁷⁵, pisu handirik gabeko artikulu batean, turismoa on ote den galdetzen du. Horren alde egoteko bi arrazoi eman ohi direla, dio: hots, bata da enplegua sortzen duela, eta bestea Euskal Herriari dirua dakarkiola. Ez bata eta ez bestea zaizkio arrazoi baliozko: lehenik, lan-baldintzak ez direlako onargarriak eta, bigarrenik, horrelako turismoak Euskal Herria salbatuko ez duelako.

3. Aberri-Egunak

3.1. Arestian esana da J-L. Davanten artikuluan, Iparraldean, Donibane-Lohizune eta Maulen ospatzen diren Aberri-Egunak

abertzaleetasunaren pizgarri bilakatzen direla. Manex Goienetxek¹⁷⁶ 1973an Donibane Lohizune eta Maulen ospatutako Aberri-Egunak aipatzen ditu. Zazpiak bat garela gogorarazi nahi zen, non jende xumearen eskubideak oro zainduko baitira: artzainenak, laborarrienak, arrantzaleenak eta beste langile guztienak. Salatzen du hango komunikabideek ospakizun horiek “gogorkeriatzat” jo zituztela. Bitxia gertatzen da salakuntza hori, zeren, lehen aipatutako hiru gerra horiek eman izan diren epealdi luze horretan zehar, euskaldunek “berrogei aldiz Aberri Eguna ospatu” izan baitute, baina frantsesena. Iparraldean euskaldunek beren Aberri-Eguna ospatzea, egileak dioen bezala, zerbait harrigarri gertatzen da bertako euskaltzaleentzat ere:

“Gure herrietan asko jende ezagutzen ditugu beren burua ‘euskaldun’ digutena, euskara dakitena, baina euskal kontzientzia gutxi dutenak. Euskaldunak direla diote, baina mendiz bestaldeko, Iruñako edo Bilboko anaiak espainol kokotero batzuk baizik ez dira (...) Frantziako bozka-denbora horietan, alde guzietarik euskaldungoa aipatu dute bai eta ere euskal mintzairari eta nortasunari zor zaizkien eskubideak, baina denak Frantses politikaren mutil geldituz; alta, badakigu mutilgo horrek dituela euskaldunak betidanik izorratu” (Goienetxe, 1, 1973, 29).

Hor dago, beraz, Aberri-Egunak lortzen duen arrakasta. Prentsak kontuan hartzen baitu, ikusten da ospakizun politiko horretan zerbait berezia, ongi asimilatzen ez duena.

3.2. Jean-Louis Davantek¹⁷⁷ dakarrenez 1976ko Aberri-Eguna “tragedia bat” izan da. Zergatik? Alderdi nazionalista bakoitzak bere deia egin duelako. Monzonek, *Enbata* aldizkaritik, Iruñerako deia egin zuen, karlistei zuzendua, esanez, Nafarroa gabe, Euskal Herririk ez dela, eta karlistek baiezkoarekin erantzuten dute. Euskadiko Gobernuak eta honen inguruko indarrek (EAJk, PSOEk), ordea, bazter uzten dute Aberri-Eguna. ELA, halere, Iruñera joaten da. PC isilik geratzen da. EHAS agertzen da, ezker abertzalean, batasunaren ardatz bezala. Davanten ustez, erakunde hau da indartu beharrekoa. Hara zergatik:

“EHAS ez badugu indartzen, euskal ezkerren batzarrik ez dago: gaurko egoerak bere hartan iraunen du: PNVk ezkerren monopolioa espainiar ezker erreformatzaileari utziko dio, eta honek PNVri abertzalegoarena. Batak ez besteak, ez dute aldakuntza

handirik nahi, ez gizarte mailan, ez aberri mailan. Bi eskualdeetarik izorra geldi gaitzke” (Davant, 18, 1976, 50).

4. Langile-Eguna: Maiatzaren lehena

4.1. Battita Larzabal “F.B. Munho”^{k178}, Langile-Egunaren ospakizuna dela-eta, halako azalpen historiko bat egiten du langile-mugimenduaren eta beronek eragindako borrokaren inguruan, XIX. mendetik hasi eta hona arte. Bere artikuluan jorratzen dituen gaiak, multzoka hartuta, hauek dira: industria garaiaren hastapenak orokorrean, baina bereziki Ingalaterra eta Frantzia; langile-mugimenduaren gainean sortutako doktrina sozialak, hala nola sozialismo utopikoa Frantzia eta marxismoa; langileriaren borroka, bereziki, sindikatuen bidez eramana izan dena; azkenik, euskal langileen egoera.

Datua da langileak, beren interesen zaintzeko, 1864. urteaz gero, elkartuta aurkitzen direla, Lehen Internazionalen eta 1870etik 1914ra bitartean sindikalismoa garatu izan dela, beronek joera desberdinak hartu izan dituelarik nola antolakuntzaren hala filosofiaren aldetik. Batzuk alderdi politikoekin uztartzen dira hobeki borrokatzeko, adibidez, Ingalaterra, Alemania, Suitza eta Italia; beste batzuek ez dute klasearteko borrokaren filosofia onartzen beren egitarauan, adibidez, sindikatu “hori” deituek. Gehienak “apolitikoak” agertuko dira eta hauek, bidenabar, iraultzaile eta erreformisten artean zatituko dira, egileak honela bereizten dituenak:

“Erreformistak nahi dituzte kapitalistekin antolamenduak egin langileen bizitzaren hobetzeko. Ez dira gogorkeriaren alde, ez dute grebarik onartzen azken puntan baizik. Legeen bidez nahi dute jokatu. Sindikatu horiek azkartzen dira Ingalaterran, Suedian, Holandan, Belgikan eta Alemanian. Iraultzaileak aldiz jarraitzen dira edo anarkismoa edo marxismoari. Ez dira gogorkeriaren kontra eta usu grebak egiten dituzte eta denek batean egin grebaren ondotik dabilta, erresuma osoaren geldiarazteko. Sindikatu horiek azkartuko dira bereziki Italia eta Espainian” (B. Larzabal, 1, 1973, 37).

Greba gogorak izaten dira Europa kapitalistan XIX. mendean bigarren erditik aurrera. Baita Frantzia ere, 1869. urtetik

aurrera, baina sindikatuak ezagutu, 1884ko legeak ezagutzen ditu. Lehen Mundu-Gerrakoan langileak elkarren kontra altxatzen baitira armatan, gertakari honek erakusten du “langileriaren bake gose ta internazionalismoa amets batzuk zirela” (B. Larzabal, 1, 1973, 37). Gerora, 1929an estatu liberaletan ekonomi krisi larria sortuko denean, Europan milaka langile geldituko dira lanik gabe eta faxismoak, hain zuzen, miseria honekin ongarritutako lurreen botako ditu bere erroak eta, ondorioz, herrialde horietan itzali egingo da sindikalismo librearen tradizioa. Espainian, adibidez, Mussolini-ren sistema beretzen du Franco-k 1938ko martxoaren 9an aldarrikatutako “Lanaren legea”, 1967ko urtarrilekoan berrituko dena, zeinaren arabera langileak eta nagusiak sindikatu berean elkartzen baitira eta sindikatu bakar horren bidez ematen baitizkio langileriari bere aginduak. Halere, egileak oroitarazten duen bezala, estatuak grebarako eskubidea ukatzen duen arren, Hegoaldeko euskal langileriak borroka-gogo bizia agertu izan du, jadanik 1940ko hamarkada-bukaeratik hasita, bereziki kostaldeko probintzietako zonalde industrializatuan. Baina euskal langileria abertzalearen historia lehenagotik datorrena da, 1911az geroztik, ELAren sorrerarekin. Iparraldean, aldiz, arras bestelakoa da industri langilearen egoera, aipu honetan deskribatzen zaigun bezala:

“Lantegi handi guti da Ipar Euskal-Herrian barnean. Direnak Maulen eta Hazparnen dira. Itsas aldean dira bizi langile gehienak, lantegi gehienak, lantegi larrienak, Bokale-Tarnosoren, Baionan, Angelun, Miarritzen, Donibane-Lohizunen eta Behobian aurkitzen baitira. Aspaldian Ipar Euskadin lan-eskas gorria da, baina nehor gutxi higitzen da. Izan dira lantegi hesteak Maulen, Hazparnen eta Angelun, eta orduan ere, jendea ez da biziki mugitu. Sindikatuek ere ez dituzte langileak harrotzen ahal: Euskaldun langilek ez dute langile kontzientzia izpirik Ipar aldean! Zendako? Euskal-Herria barnean langile gehienak, laborari ohiak edo laborari semeak baitira. Askotan bizi dira erdi-laborari eta erdi langile. Laborari gisa zuhurki bizitzen ikasiak, langiletuta ez dira biziki ausartak: nagusiak emanarekin egoten dira. Ez dira kapitalismoaren jukutriei biziki ohartzen. Erlisioeak ere ematen dio langileari nagusiaren errespetua, Elizak ordena eta obediencia gain-gainetik predikatzen baititu... Hazparneko nagusiek ez zuten begi onez ikusi CFTC sindikatua herrian sartzen. Gehiago dena, deabrukeria hori apez batek zuen herrian sartu! Beharrik apezpikutegiak lagundu zituen gaixo nagusiak delako apez hura

urrunduz, sobera langileria kutsatu gabe. Orogen buru ez da beraz harritzeko, nehor ez bada biziki mugitzen lantegiak hesten delarik! Itsas aldean, eta Maulen ere, bada langile kontzientzia gehixeago, baina ez espantu egitekorik. Alabaina, lantegi handietan ari direnak, besteak baino gehiago pagatuak dira eta langile 'aristokrazia' baten pentsamoldea dute. Ez dira usu karrikara jautsi Ipar Euskal Herrian lan eskasa delakoan" (B. Larzabal, 1, 1973, 38-39).

Apaiz hori, Piarres Larzabal zen, handik Zokoako parrokiara aldatu zutena. Bestalde, pasarte luze horretakoa ez dago iruzkinu beharrik, bertan aski garden emanak baitatoz Iparraldeko langileria-
ren egoera-ezaugarriak, itsasaldekoak zein barnealdekoak, orobat klasearteko borrokaren kontzientziarik ez izatearen zergatikoak. Baldintza hauetan, normala da, ulergarria, bere sindikatu autonomorik inoiz sortu ez izana funtsean nekazal egituren arabera funtzionatu izan duen euskal gizarte honetan.

4.2. Bere artikulu luzea izenpetzen ez duen batek¹⁷⁹, Maiatzaren lehenaz dakarren zatian, oroitarazten digu nola 1890ean, Chicagon hiltzera kondenatu zituzten 6 langile anarkisten oroitzapenetan, Bigarren Internazionalak aldarrikatu zuen Maiatzaren Lehena mundu guztiko langile-borrokaren sinbolo-egun gisa ospatzea. Praktikan, ordea, nazioartekotasuna eta borroka-funtsa, biak, aspaldidanik formalismo huts bihurtuak dira Frantzian eta beste hainbat estatutan. Langileen errebindikazio-egun bat baino gehiago opor-egun ordaindua bilakatu da, ospakizun folklorikoa.

5. Enbata mugimenduaren krisia

Enbata dela eta ez dela, *Zabaleko* lehen zenbakitik sortzen da eztabaidarako hipidea. Haren kontrako zeharkako salakuntzantzazuak ikusi uste dituenean, Jean-Louis Davanten luma da haren defentsan bizi-bizi ateratzen dena, gazteagoen oroimen-ganbarako hautsak kenduz edo ezjakinen begi aurrean datu zenbait jarriz.

Enbatari egiten zaizkion kritikak zerrendaturik emango ditugu, lehenik kritika bera jasoz eta ondoren erantzuna. Testuek bere biluztasunean emanda, indartsuagoak direlakoan, iruzkinik tartekatu gabe joango dira.

5.1. Jean-Louis Davantek, lehen zenbakian, MRJCKoek¹⁸⁰ egindako zenbait baieztapeni erantzuten die hirugarren zenbakian, “Aberri egunaz eta Maiatz lehenaz” izeneko artikuluan¹⁸¹. Hau zen MRJCKoek esaten zutena:

“Orain arte abertzaleak okupatu direla Euskaldun izateaz, laborari eta langile izatearekin loturarik egin gabe. Gure ustez, makur handia da” (H.I, 1, 1973, 33).

Jean-Louis Davantek¹⁸², baieztapen hori Enbatakoiei zuzendua dela pentsatzen du eta, hurrengo zenbakian, ez du onartzen inolaz ere MRJCKoek iritzi hori. Baieztapen horri gehiegizkoa deritzo, zentzu psikoanalitikoan ulertu beharrekoa, gazteek uste baitute berekin hasten dela mundua. Hortik dator “Aitaren hiltzea”. Baina egia besterik da. Enbataren inguruan sortu izan den abertzale-mugimendua, berak esatera, haste-hastetik laborariez eta langileez axo latu da eta “haste-hastetik elkarri lotu nahi izan ditu euskal izatea eta laborari (edo langile) izatea”, nahiz eta artean “sozialismoa hitza ez zen oraino modan” sartua. Halere, atzera begiraturaz, ohartzeko da “1961etik 1967ra haxean ezarri genituen asmoak eta xedeak iraultzaleak zirela, bereziki lurraren jabegoari buruz” (Davant, 2, 1973, 3).

Praktikan, bada, Enbatakoek ahal bezala lagundu izan dituzte laborariak. Berdin langileak, hauen arazoetan parte hartuz: Bokaleko aroztegi aldeko manifestazioetan (1963), Hazparneko greba handietan (1963), Miarritze-Shoes, Luhusoko harrobi, Scima eta beste lantegi-ixteetan (1971), Lur-Berriko grebetan (1972), Maiatz lehenetan (1971, 1972, 1973), eta abarretan. Lantegi berrien eskatzea orain modan bada ere, horien aldeko kanpaina Enbatak 1964an hasi zuen (Davant, 2, 1973, 4).

Maila ideologikoan, kapitalismotik sozialismorako aldaketan, “Enbatak jadanik 1968ko Maiatzean bere egitarauan sartua zuen “autogestioarena”, PSUK eta CFDTk baino zenbait urte lehenago.

Bide batez, Jean-Louis Davantek gogorazten du, 1963ko Aberri-Egunean, MRCJeko lau buruzagi han zirela, baina gero Michel Labegerie eta Errekarti jarraiki zirela. Orain, aldiz, mugimendu honetako gazteak “goxistak” dira, ezkerria baino ezkeriago daude. Baina, ezkerria ez da ezkerkeria, sozialismoa ez da “gauchismoa” (Davant, 2, 1973, 5).

Beñat Oihartzabalek (2, 1973, 18) Enbatan idatzitako pasarte hau ere ez zaio zuzena iruditzen: “Alabaina, bi gertakarik bortxatu

zuten Enbata bere funtsezko arrazoietara: Etxaluz gaztea faxistek presondegiratzea; erbesteratuen lehen botatzeak eta bereziki Irigarai eta Madariagaren epaitzea. Orduan, Enbatak –ez dezagun ahantz abertzale guztiak biltzen zituela ordu hartan Enbatak–, garbiki eta argiro erakutsi behar izan zuen Euskadiren askatasuna bide bortitz zenbaitetik pasatzen zela eta ez zetzala jaunxkila batzuen eskuetan”.

Ez luke denbora pasatu nahi Enbata zaintzen, baina berriro hari buruz mintzatu beharrean aurkitzen da. Baieztapen hori egia dela aitortzen duen aldi berean, zehaztapen hau egiten du: hots, gogortze horrek ehunka adiskide urrunarazi zituela Enbata mugimendutik eta, orobat, gertakari politiko horiek bertako gizarte-borrokak itzalarazi zituztela, bereziki 1963-65 epealdian zehar, orduan gertatutakoak baitziren laborarien arazoak, langabetuenak, Bokaleko lantegien ixteak, Hazparneko greba handia, eta abar. Geroztik ere, erbesteratuen arazoak harrotu izan direnean, Iparraldeko arazo soziopolitikoak aldika baztertuak edo itzaliak izan dira.

Bestalde, gogorarazten dio Beñati beste honako hau ere: alegia, ez direla beti hauteskundeetan botoen biltzera mugatu. Ekintza politikoan ere busti izan da Enbata, eguneroko lan isilean, herriz herrikoan eta, ordainez, zapalkuntza ere jasan izan du:

“Ez ditugu indar guztiak bozketan higitu: zenbait urtez beste lan franko egin dugu jende xehean, eta bereziki zenbat bilkura herriz herri, ostatuz ostatu, herriz herri... Adiskide asko egin eta atxiki dugu laborarietan, langiletan, ofiziale eta merkatari txipietan. Oin harririk ez dugula? Enbata-tiarrak nonahi ezagutzen ditut, kasik herri guzietan. Ene adinekoetan eta gazteagoetan, haiek dira gehienik mugitzen direnak. A, bistan da, ez gara hogeita bost urtetan gelditu. Ez ditugu, duela urte zenbait egiten genuen bezala, gauak zuritzen ahal, jo harat, jo honat, pareten apaintzen eta abar... Baina zuei ere gertatuko zaizue zahartzea. Halere ez gara hain ezinduak, eta oraino gure beharra izanen duzue. Mementoko, gur (sic) gara noiz nahi polizan eta auzitegian: zortzi urtez, hamaika auzi izan ditugu Enbatakook eta azken bi urte hautan bos! Besteek aldiz zenbat?” (Davant, 3, 1973, 40).

Enbatak 1963 eta 1964an egindako hauteskunde-egitarauan, beste punturen artean, “ipar euskal herriko herri-gizon hautatuen batasuna” proposatzen zuen, nahiz eta, Beñaten (2, 1973, 18) testuan datorrenez, jauntxo horiek abertzaleen kontrakoak ziren: “Hala ere Enbatak ez zion uko egin nahi bere hastapeneko notableen-

ganako jokabideari. Alta, zimardika gero eta funtsik gabeago, gero eta kanorerik gabeko, agertzen zitzaion abertzale askori. Ipar aldeko euskal jauneriak ipurdia ematen eta hari milika ari behar!”.

Davantek aipu hori du, antza, kritika-gai, dioenean jauntxo horiek ez direla gehiegi mesprezatu behar, horiek herriak bozketan hautatu dituelako. Demokrazia arrotz eta burges batean egonik ere, onartu beharrekoak dira:

“Halere herriak hartzen du gure errespetua. Herriak eta, hein batean, honengatik, herri gizonak ere, hobereenek behintzat. Batzuekin ditugun harremanak, ongi baliatu dituzue denek, gose oporraren behar bezala bukatzeko” (Davant, 3, 1973, 41).

Erregimen demokratiko batean, bada, ordezkari politikoak osoki errespetatu behar dira, herri-interesek kontra dauden ala ez kontuan hartu gabe. Azken arrazoiak da, herriak hautatuak direla. Demokrasiaren agindua. Diskurtso bera errepikatuko da Hego Euskal Herrian juancarismoarekin abiatzen den erregimen-garaian, ETaren aktibismoa kondenatzeko orduan.

Beste puntuetako bat, Enbata baitan, “Europa batuan, zazpi probintziek eskualde autonomo bat osatzea” rena da. Beñatentzat (2, 1973, 18), Enbatak haizatutako Europaren mitoak jadanik hankaz gora jauntsia da: “Bestalde, anitzen esperantzak gauzatu zituen eta Enbatak baliatu zuen mito bat ari zen erortzen = ‘Europa’ dei diezaioketuen mitoak. Ez da orain tenorea gauza horren barnetik (sic) ikertzeko. Derragun bakarrik 1959an moldatzen hasi zen Europak ez gintuela gehiago liluratzen ahal = Monopoloen Europak ez zituen Estatu handien mugak kenduko, haien barne preso zeuden herri zapaldu ttipien libratzeko. ‘Europa bat, Euskadi bat’ delako erranaldiak ez zuen ordutik deus erran nahi, baldin ez baziren Europako egitura kapitalistak auzitan jartzen”.

Honetaz ere, J-L. Davantek (3, 1973, 41), hasieran bezala orain ere, Euskadiren etorkizuna Europaren ikusten du, nahiz eta aitortzen duen “orai egiten ari dena ez dela guk nahi duguna”. Helburua, oraingo monopolioen Europaren ordezkari herrien Europa altxatzea da. Beste alternatiba posibleak, “Euskadi, Europako Kuba” amestearen antzekoak iruditzen zaizkio.

Egiten ari den Europa batu horretan, ordea, oraindik ere autonomistek beren azken esperantzak hor jartzen badituzte ere, estatuak dira agintzen dutenak eta horien barruan, gehienez ere, erre-

gionalismoaz hitz egiten da. Biharko Euskal Herri autonomo horrek zer izango luke gaurkoak ez lukeenik? Ez da ezer zehazten. Bistan da Euskal Herriaren etorkizuna, modu batekoa edo bestekoa irudikatu, Europan datzala, ez baitagokio beste inon egotea, nahita ere. Kontua da, hor kokatu beharrez gero, zein egoera politikotan egotea dagokion bere nortasuna zaindu dezan, Europa osoan beste herri bat gehiago berdintasunezko harremanetan, ala, orain arte bezala, jadanik eraikitako estatu-nazioen peko erregio gisa.

Gatazka ideologikoari buruz ere bada zer eztabaidaturik. Enbata marxismoari aihar zaiola, hara hor zer aurpegiratzen dion Beñat Oihartzabalek (2, 1973, 18): “1967an, jadanik, hasi ziren abertzaleen arteko mokokak eta gatazkak. Batzuek, aurki berri zuten Marxismoa Enbataren jokabidearekin ezin akomatuz, nahiago izan zuten oldea utzi eta harekin batean abertzaletasuna bera. Beste batzuei garbi zitzaien ez zela horrela segitzen ahal. Jauntxoenganako jokabidea alde bat bazterturik, abertzaletasuna mami herrikoi eta iraultzaile batez bete behar zela zioten azken zenbait horiek”.

Davantek (3, 1973, 41), bere erantzunean dakarrenez, ez du uste ezkerreko abertzale izateko marxista-leninista izan behar denik:

“Abertzale mugimendua baino gibelago gabela: zertan? Ideietan ote? ez dut uste. Gose grebako lehen hogoi egunetan atera dituzuen ageriak eskuindarrak ziren: euskal sentimenduaz kanpo, ez zen hor ideologia izpirik agertzen. Eta gorderik dagon ideologia, eskuindarra da, dudarik gabe. Aberri problema klaseen gain finkatzeko herabe gabela? Klaseen borrokak garrantzi handia duela, badakigu. Batzuek diote historiaren iturri bakarra dela. Beste batzuei iduri zaie besterik ere badaitekeela mintzaira, erlijioa... Ives Person-ek, azken FALZ agerkarian, mintzaira infrastrukturen ematen du. Marxista-leninista batzuek Euskadi bere gain ezarri nahi dute. Beste batzuek ez. Marxismo-leninismoari begira, zein dira zuzen mintzo (ortodoxian)? Gu ez baikara marxista-leninistak, zuhurki (eta ez herabeki) sartu gara teoriaran”.

Beñat Oihartzabalen (2, 1973,18) azken salakuntza da, Enbataren garaia bukatua dela, haren egitarauak porrot egin duela 1968ko hauteskundeen ondotik, orduan agertu baitzen ez zuela lortu herrian finkatzea: “Ipar aldeko abertzalegoaren bigarren epearen bukaera bozkatzan duten 1967 eta 1968ko bozaldiak izan ziren Enbataren lehen jokabide horren ehorzleak. Bozketako huts egite eta hondamenak Enbata oldearen iluntzea izan zuten ondorioa, hark

ez baitzuen herri-oinarririk finkatu, bere indar guziak herri-jaunen biltzeko alferretan xahutuz eta fundituz”.

Segidan hemen duzu J-L. Davanten (3, 1973, 41-42 erantzuna:

“Oinarririk ez dugula? Ez aski, zoritxarrez. Hein bat halere. Zuek esan ezazue deblauki jendeari zer nahi duzuen: ikusiko dugu zeinek izanen duen oin-harri gehienik, zuek ala guk. Ezen zuen artikulutik ageri da marxista-leninistak zaretela, erran nahi baita komunistak. Ez gaizki har, egia baita. Niretzat ez da laido bat. Herri guzietan badira komunistak. Zuzen da Euskadin ere izan daitezten. Gehiago dena, nik uste dut Abertzale komunisten beharra badugula Euskal Herrian. Baina gauzak diren bezala ikus ditzagun: Enbata sozialista da, oror har CERESA bezalaxe. Batzuentzat (ikasleentzat), eskuinegi gara. Besteentzat (burgese ttipientzat) ezkerregi. Horra zergatik ez garen orain Abertzale guzien miraila. Euskaldun eskuin bat antola baledi Enbataren saihetsean, denentzat on genuke. Horrela gu, Enbatakoak, alderdi sozialista bezala jokatzan ahal gintezke, osoki... Bestalde, elkarrekin lan egin behar dugu sozialistek eta komunistek. Euskal Herrian ere, bestela ez baitaiteke Aberri askatzerik, ez eta sozial askatzerik. Baina ez gaitzke alderdi beraren barnean ar. Guk dugu egia osorik badagunik asmatzen: horrela besteen egia poziari bidea zabalik uzten dugu. Zuek aldiz osoki zientifikoak zarete. Egia osoa zuekin daukazue”.

Euskal Herriko ezker abertzalean ere, beste herrialdeetan bezala, alderdi sozialista bat eta alderdi komunista bat, biak beharko lirakeela pentsatzen du. Gazteagoei, Enbatari kritikak zuzentzen dizkienei, dagokie beroriek antolatzea. “Marxista-leninista” direlakoek alderdi komunista bat antolatuko duten beldur da.

Dena dela, konstatatzen du 1967az geroztik mugimendu “goxista” bat antolatu asmoz datorrela Iparraldeko ezker abertzalea. Baina une honetan hiru zatitan banatua da: abertzale “herrikoi” batzuek, ezkertiar zenbait gidari izan arren, eskuinera jo zuten; “Amaya” taldea kultur mailan geratu zen, politikara pasa gabe; lehenagotik, 1965ean, kristau-demokrata erdirakoiek, Laberie eta Errekartekin, “Indar Berri” izeneko mugimendu bat eraiki nahi izan zuten, aldizkari bat agertu ere bai, baina hilabete batzuen buruan leher egin zuten. Lehenago gauza bera gertatu zen “Aintzina” taldearekin. *Hordago* agerkariak errorik ez du egin.

Enbatak herri-oinarririk izatea lortu ez badu, ezago bera aurretik eta ondotik sortu izan diren beste mugimendu guztiek, nola

kulturalek hala politikoeak. Hemendik doa Jean-Louis Davanten (3, 1973, 42) defentsa, gehienbat “ad hominem” arrazonatuz:

“Garrantzia hartu eta iraun duen bakarra da Enbata. Ikusi beharko litzateke zergatik. Ez dut uste besteak baino baliosagoak garenik Enbatako buruak. Beraz, funtsezko arrazoiak badituzkete gure iraupenak eta omenak”.

Iraupena, har hor azken arrazoa. Beste guztiak desagertu diren bitartean, Enbatak iraun egin du. Irauteko arrazoiak badituzkeela, dio. Baina une honetan, arazoa guztiz alderantzizkoa da: desager-tzeaz dagoela. Orduan egin beharreko galdera, beste hau litzateke: zergatik doan desagertzera.

5.2. Beñat Oihartzabalek¹⁸³, hurrengo zenbakiko bere arrapos-tuan, hamar zehaztapen egiten dizkio, laburrak baina mamitsuak, banan-banan zenbakituta ezarriko ditudanak, garai hartako ezta-baidaren lekuko historiko bakarrenetakoak baitira: 1) bera ez dela “talde baten militante gisa mintzatu, eta are gutxiago gazteen ize-nean”, baizik eta abertzaletasunari buruzko azterketa ahalik objektiboena egitera mugatu dela; 2) ez dela egia gazteek marxistak direla edo izan nahi dutela, zeren, zoritxarrez, gehienek ez baitute ezagu-tzen eta ezagutzen duten batek baino gehiagok ez baitute onartzen; 3) bera ez dela “aski zaharra” (Davant bera, alegia) bestei, gazteagoei, “gerlari-ohi” gisa mintza dakien; 4) Enbatari “medaila, ohore, txalo eta eskerrak”, horiek guztiak aitortu behar zaizkiola, baina baita haren “hutsak” ikusi ere, hots, kritika egiteko nortasuna agertu ere; 5) Enbatari buruz agertzen den ez-adostasuna ez dela ematen belau-naldi edo adinaren desberdintasunean, ikuspegi politikoen mailan baizik eta, ondorioz, arazoa despertsionalizatu beharra dagoela; 6) beren burua marxistatzat jotzen dutenek euskal alderdi komunista bat eraiki behar luketela esaten duena era arras abstraktuan min-tzaten dela eta, ondorioz, ez deritzola batere serioa proposamen horri, ez baitu kontuan hartzen 1973ko Ipar Euskal Herriaren egiaz-ko egoera; 7) “herriaren interesen kontra ari diren guziak” –hauen artean, jakina, herriko jauntxoak edo “notableak”–, etsaitzat hartu behar direla, are gehiago oraindik, Iparraldean bezala, goi- eta erdi-mailako burgesia abertzalerik ez denean; 8) “azken hiru urteotan (1970-73) Iparraldeko euskal mugimenduak politika-mailan anto-latzeko erakutsi duen ezina ez zaiola bota behar Enbatari, honen jokabidea onartzen ez duen ezker abertzaleen multzoari baizik; 9)

euskal ezkerraren etorkizunaz iragartzea ez dagokiola, baina, zerna-hikoa izango delarik ere, letorkeena ez dela Enbatatik sortua izanen; 10) ez zaiola iruditzen “Enbataren kontra bere gurasoek herra sublimatzen” ari denik.

Zehatz eta labur, hor daude esatekoak.

5.3. J-L. Davant “Johane Aizager”ek¹⁸⁴ zenbaki berean ematen dio bukaera eztabaidari bi orrialdeko artikuluxkan. Laburtuz, berriro, bere desadostasuna agertzen du zenbait punturi buruz: a) bera zehazki marxismo-leninismoaz mintzo dela, ez marxismoaz orokorrean; b) jauntxoek hitz egitean, orobat, ez dela edozein jauntxoaz ari, herri-bizitzatik hurbil daudenez baizik; c) bere ohorea, osoki berea dena, ukitu duela; d) bere adinak ez, baizik bere lanek ematen diotela gerlari-ohiaz mintzatzeko eskubidea. Bere militantismoaren lekukotza da bere azken hitza:

“Alde batetik gerla zer den, hik baino hurbilgotik ikusia diat (nahiz Algeriakoa ez omen zen egiazkoa). Bestetik badik aspaldi –hamahiru urteko bat– abertzale gudukan sartu nintzela, beste batzuekin. Geroztik ezagutu ditudan abertzaleetarik, gehienek urte gutxi barne utzi ditek lan hori, duda izpirik gabe zailegia zaiotelakoz (...) Ez pentsa, halere, hego aldeko anaiak baino zo-zoagoak edo beldurtiagoak garenik. Ez ditiagu heiek eta guk borrokako baldintza berak, ez etsai eta adiskide berak. Heiek etsai aski ageria ditek, eta herria berekin daukatek. Guk aldiz, eta zuek gutxiago: heronek aitortzen duk (...) Nik istant guziak eta indar guziak eman ditiat euskal borrokari. Gerra hori zein ‘krudela’, zein ‘gogorra’ izan den, nik barnetik badakiat; hik aldiz, ezin duk jakin (...) Nik, aspaldiko borrokari bat izanagatik, gudua segitzen eta segituko diat aitzina, ene heinean, naizen bezala onartzen nauten guziekin” (4, 1973, 53-54).

“Gerokoa zer izanen den, hori geroak erranen” duela esanez bukatzen baitu bere azken arrapostua, esan dezadan, egun, duela aspaldixotik, biak euskal kulturari emanak daudela, biak euskaltzain. Biek politikagintza utzia duten arren, biek agertzen dute ezker abertzalearen aurrean ikuspegi aski kritikoa. Davantek, zehazki, behin baino gehiagotan kritikatu izan du ETaren borroka armatua.

5.4. Bestalde, Sohütako A. H. laborariak¹⁸⁵ ere parte hartzen du “Aberri Egunaz eta Maiatz lehenaz” artikulua harrotutako eztabaida horretan gutun ireki baten bitartez. Dio bazela, Hegoaldeko

eta Iparraldeko abertzaleak eta sozialistak elkartuko dituen aldizkari baten beharra. *Zabal* aldizkaria irakurri-eta, etsaiek ezin esan ahal izango dute “euskara ez dela intelektual mintzaira bat”. Bere desadostasuna Enbatari buruzko bi puntu agertzen ditu egileak. Lehenik, ez da egia “Ipar aldeko jauneriak ipurdia ematen eta ari milaka ari behar” zuela. Izan ere, 1967ko hauteskundeetan, Etxeberri-Aintzart jauna zen, jaunarian, Enbataren alde agertu zen bakararra. Eta bildu, “bakarrik, jende xeheen bozak” bildu zituen. Enbata haste-hastetik izan omen zen “klaserik gabe Euskadi” baten aldekoa eta honen frogatzat esaldi hau ematen du: “Duela hamar urte, abertzalegoan lehen urratsak egin ditudalarik, lehentze ezagutu dut ‘klaserik gabeko Euskadi’, Enbatan. Mediku, irakasle, ikasle, laborari ttipi ala langile, denak berdin ginen, gure oldean, eta berdin behaturik. Batzuk sortzez burgesak baitziren, ez ziren gogoz eta arimaz”. Aldiz, jarraituko du esaten, “‘marxista-burges’ gogoa edireten dela, frantses ezker-alderdian abertzale alderdian baino gehiago” (AH, 5, 1973, 49). Bigarrenik, sozialismoaz mintzatzean, atzerriko beste herrialdeetan garatutako sozialismo-mota desberdinak alde batera utzita, Euskadin euskal sozialismoa eraiki behar dela, dio, afrikarrek eta arabiarrek beren sozialismoa eraiki duten bezala, edota txinatarrek eta kubatarrek berea. Gainera, Alemanian marxismoaren oinarriak jarri aurretik, euskaldunek bazituzten beren demokrazia eta beren sozialismoa.

Haizu bekigu ohar batzuk egitea.

Enbata erakundearen giza konposizioa –militantziarena–, iruditzen zaigunez, anitza da, funtsean klaseartekoa, bere barruan langileak bezala profesionalak aurkitzen baitira. Ez da, zentzu hertsian, langileriaren baitan oinarritutako mugimendua, ezkerreko alderdi klasikoetan ohi den bezala. Bestalde, Euskal Herriak jadanik bere foru-instituzioetan demokrazia zein sozialismoaren erroak finkatuta zeuzkala esateak ere, gehiegikeria bat izateaz gain, ez du euskal lurralde osora heda daitekeen funts historikorik. Gainera, langileriaren sorrerarekin abiatzen den mugimendu marxisten fenomeno historikoa ezin da berdindu, inolaz ere, Erregimen Zaharreko erakundeekin, nahiz eta, maila batean, euskal foruek badituzten beren berezitasunak Erregimen Zaharreko estamentuekin konparatuta.

Beraz, eztabaidan zuzen jokatzeko, mailak eta aroak bereizi behar dira. Bestela, ezer argitu gabe lekuz kanpo aritzeko arriskua dago.

5.5. Krisi latzean sartua zegoen Enbata, azkenean, frantses gobernuak debekatu egiten du 1974ko urte-hasieran. Jean-Louis Davant “Johane Aizager”ek¹⁸⁶, “Enbata debekaturik” artikuluan, hiru arrazoi ikusten ditu debeku horretan: “Enbatak gogorkeriara deitzen duela jendea, Frantziako Estatuaren batasuna desegin nahi duela, ETArekin eskuz-esku dabilala”.

Lehen arrazoiak ez bide du izateko arrazoi izpirik, zeren gogorkeriaren kontu hori inork ez baitu aintzakotzat hartzen, ez Euskadin, eta ez Frantzian. Izan ere, debekatua izan bezperako azken zenbakian, hauxe zioen *Enbata* aldizkariak (4, 1973, 49): “Bortizkeriarik gabe, gogorkeriarik gabe, biolentziarik gabe jokatu da beti ipar aldean, Enbata mugimendua”. Enbatak, printzipio-mailan, frantses legalitatearen barruan egiten du bere politika. Horregatik, bortxakeriaren arrazoiak ez du balio.

Bigarren arrazoiak aldiz, bai, Enbataren xedetarik bat baita euskal nazioa eraikitzea eta, beraz, Frantziaren batasuna auzitan jarzea. Horretarako, indarrez ezarritako Frantziako estatua desegiteko, demokraziari maila teorikoan dagozkion eskubideez baliatzen da eta maila praktikoan –praxi politikoan–, erregimen demokratikoak dauzkan kontraesanak borroka ideologikoaren bidez agerian jartzen ditu. Adierazpen-askatasuna eta herri bakoitzak bere bidea hautatzeko duen eskubidea, biok bete-betean sartzen dira demokraziaren funtsezko diskurtsoan. Bestalde, frantses tradizioaren arabera, herriaren nahia da nazioa egiten duena. Gertatzen dena, ordea, arras kontrakoa da: frantses gobernuak, mugimendu etnikoak ukatuz, zentralismoa ezartzen duela. Zentzu honetan, J-L. Davanten ustez, beren xede ideologikoengatik debekatzen dute Enbata mugimendu politikoa.

Hirugarren arrazoiak –ETArekin harremanak izatea alegia–, ezin jasana zaio frantses gobernuari. Jadanik 1974ko urtarrilean polizia izenik gabeko paperetan hedatzen hasia zen “Enbatako separatistak, ETAren mutilak” zirela. Debekua orduan hartua zatekeen.

Pariseko gobernuak eman arrazoi horietatik at, egiazkoak beste bi hauek dirudite: bata da Frantziako gobernuak, etekin ekonomikoen truke, Espainiakoari laguntza politikoa eskaintzen diola, bereziki ETAko erbesteratuen kasuan; bestea da, “eskualdatze” edo deszentralizazioan aurreraegi joatearen beldur direla Frantziako eta Espainiako estatuak eta, zentzu honetan, ETAren zein Enbataren borrokak, hauek horien estatu-batasuna auzitan jartzen duten heinean, “guztiz lanjerosak” izan daitezkeela.

Nolanahi ere, Enbata desegina da, “ohorezki erori da”, eta ares-tian aipatu ditugun mugimendu politiko horri buruzko eztabaidak jadanik bukatuak dira. Gazteek ez dute orain estakururik beren bidea egin dezaten. Hor doakie J-L. Davanten enbidoa (6, 1974, 23): “Bestalde, Enbatak leku gehiegi hartzen zuela eta beren urratsetan oztopo egiten ziela baitzioten gazte batzuek, bidea libro dute orain. Gobernuak ematen dioten pardaz baliatzeko epe bat badute”.

6. Euskal ezkerria: Iparraldeko mugimendu aber-tzaleak

6.1. Jean-Louis Davantek ere badakar artikulua bat “Euskal ezkeriaz” izenekoa¹⁸⁷, eta hor Ipar eta Hegoaldeko politikaz dihardu. Hegoaldekoari buruz ekarpen berezirik ez baitakar, guk hemen Iparraldekoari buruzkoa ekarriko dugu. Esan dezagun, egile honek argitaratu berria zuela euskaraz liburu bat, *Aberri borroka eta klase borroka* izenekoa, eta frantsesez lan berttua, zerbait laburtua, *Les Temps Modernes*-en. *Zabaleko* artikuluan dakartzanak, bada, arras eskematikoak dira.

Iparraldeko euskal politikak Hegoaldearekiko baditu bere berezitasunak:

Lehenik, Iparraldean mugimendu politiko gutxiago dira, ezkerrean bederen, Hegoaldekoen konparazioan.

Bigarrenik, Iparraldean frantses eskuina euskaldungoaz baliatu izan da, aldez bederen, erlijioa, lurraren jabegoa eta euskara zainduz, frantses ezkerria gauza horiei aihar agertu den bitartean. Errepublikak, aldiz, beti izan da zentralista, elizaren aurkakoa eta euskara eskoletan sartzearen aurkakoa. (Hemen Davantek esaten ez badu ere, gogora dezagun Frantziako Iraultza-garaian, Iparraldeko euskaldunak oldartu egin zirela eta “frantsesgoa” sortu, 1918ko gerrarekin eta ondorengoekin sortu zela).

Hirugarrenik, hemengo euskal nazionalismoaren bilakaeran aro hauek ematen dira:

a) Lehen abertzale ageria Agustin Xaho izan zen, errepublikazalea, baina honen ideiek ez zuten arrakastarik izan. Era berean, 1936ko gerra aurretik sortu zen ezkerreko beste indar abertzale bat ere, “Eusko Ekintza” izenekoa, EAJren ondoan, baina gerrarekin bukatu zen.

b) Mugimendu antolatu gisa, abertzaletasuna Enbatarekin hasi zen, zeina 1974an debekatu baitzuen gobernuak, “Conseil d’Etat”ren erabakiz. Izen bereko aldizkaria beste lege baten azpian dagoenez, Enbatako multzo batek ateratzen segitzen du. Enbatak, ETAk bezala, Euskal Herri osoaren batasuna nahi du, baina Europa federal batean ikusten du batasun hori, ez independentzia hutsean.

c) Bestalde, berrikitan HAS (Herriko Alderdi Sozialista) sortu da, *Euskaldunak* izeneko hilabetekaria argitaratzen duena. Honek, nazio-arazoari begira, Enbataren ikuspegi bertsua du, baina, gizarte-arazoari begira, hura baino ezkerago da.

Iparaldean, bada, J-L. Davantek dakarrenez, ez dago alderdi abertzale bat besterik, HAS alegia, eta politikaz idazten duen *Enbata* aldizkaria.

Laugarrenik, badira kultur mailan mugitzen diren taldeak, HAS eta Enbatatik, talde hauetatik bazter daudenak: “67-68an Enbatatik atera ziren batzuekin hasi zen ‘Amaia’ izeneko mugimendua. Kultura lanean mugatu zen hau, baina abertzale ikuspegi azkar batekin. Amaia-tik atera zen batzueri esker sortu zen ‘Mende-Berri’ taldea: kultura lanean ari da hau ere. Desegina da iduriz Amaia. Gero Mende-Berri horretarik atera zen ‘Euskal-Gogoa’ izeneko taldea. Hau ere kultura agertzen da. Donibane-Lohitzunen ekonomian mugatzen da ‘Jazar’ taldea. Bestalde Basa-Nafarroan ba daude abertzale batzuk, mugimendu bati loturik ez daudenak. Bizpahiruka taldekaturik daude, ofizialtasunik ez erakunderik gabe. Arpegia politikaren alorrean nehorik ez du agertzen, HASetik eta Enbatatik kanpo”¹⁸⁸.

Bosgarrenik, euskal politika orokorrean hartuta, hirutan banakaturik, ikusten du abertzaletasuna: eskuinean PNV zaharra, erdian ELA sindikatua eta Enbata, eta ezkerrean bi ETAk, LAIA, Langile Komizioak eta laster, agian, EAS eta Iparaldean HAS. Ezkerra oso banakaturik ikusten baitu, fronte gisa ikusten du batasuna, eratzen ari den KASen (Komite Abertzale Sozialista) inguruan (Davant, 15, 1975, 2).

6.2. Emanu dugu HASen berri, J-L. Davantek dakarren bertsioaren arabera. *Zabaleko* zuzendaritzak, bere aldetik, 1974ko botaldian, HASen bi lan argitaratzen ditu. Lehenengoan¹⁸⁹, alderdi sozialista honen oinarriak agertzen dira, honen helburuak eta printzipioak bertan transkribatuz. Nahi duenak bertan ikus dezake

Euskal Herriaren naziotasuna eta sozialismoa nola ulertzen diren bertan. Bigarrengean¹⁹⁰, HASEk Donapaleun 1974ko abuztuaren 3an egindako aurkezpena argitaratzen da, zeinetan, esan ondoren PNV nazionalistak, PC espainolak eta PS frantsesak huts egiten dutela oinarrizko nazio- eta klase-planteamenduetan Iparraldean bezala Hegoaldearen ere, bere eginkizun nagusizat helburu hauek aipatzen ditu: hots, sozialismoa eraikitzea, euskaldunak nazio bezala bizitzea, jendea alde eta sostengu politiko indartsua duen borroka armatuari eustea eta, azkenik, nortasun-aniztasunean oinarritutako internazionalismoa aldarrikatzea. Bukaeran, inperialismoaren kontrako borrokan herritarren indarrak oro (langileak, artzainak, nekazariak, arrantzaleak, enplegatuak, artisauak, merkatari txikiak, intelektualak, etab.) ildo berean lerrokatzeko deia egiten da. Iraultza Euskadin klase horien guztien batasunetik etorriko da.

6.3. Ez bakarrik HASEkoek dute lekua *Zabalen*, baita Iparretarrak taldekoek ere. Hauei egindako elkarrizketa luze bat dator hurrengo urteko udan¹⁹¹. Ordurako erakunde armatu hau ezagutua zen, baina gehienbat barnealdean, Baigorriko nagusi handi eta gogor baten kontra egindako ekintzaren ondorioz eta 1974ko urrian jalgitako “Hildo” ageriari esker. Azken idazki honetan agerrarazten dituzte beren pentsamolde politikoak. Talde honek “politika mailan erradikalisazioa behar-beharrezkoa dela” sostengatzen du. Bestalde, Euskal Herriaren etsaiak zein diren jakiteko, bertako klase-azterketa sakona egin beharra dagoela esango du. Askotan pentsatu izan da, Iparretarrak taldeak, funtsean talde armatua delako, ez duela egin izan hausnarketa politikorik, ez duela landu bere ideologia. *Zabaleko* elkarrizketa hau irakurritz, ordea, ohartzen zara, baietz, beren jokabidean asmatu ala ez, ideiak oso argi finkatuak dauzkatela.

Taldeko ordezkariaren ustez, Euskal Herriak bi zapalkuntza-mota jasaten ditu: “Pariseko burgesiarena eta hemengoarena”. Pariseko burgesiaren nahia, DATAREk prestatutako MIACAre eta Arretxeren plangintzan zehaztua datorren bezala, turismoaren plangintza aurrera eramatea da. Hemendik dabilta Arretxe, Soulié jauna eta. Turismoan inbertitutako kapitala ez da hemengoa, frantsesa eta multinazionala baizik. Esango denez, Miarritzeko “Victoria-Surf” famatua Rotschild-ek eta “Grands Ports de France”k beren diruz eraikia da. Lekukoen artean, berriz, bi burges-mota ematen dira: bata ostalari, merkatari, lurjabe handi, espekulatuzaile handi eta zen-

bait jauntxoren sektoreak osatzen duena, burgesia turistikoa dei geniezaiokeena, eta bestea industri burgesia. Hau monopolio handien morroi baita, ez du ikusten ez gerorik ez salbamenik frantses estatuan eta, ondorioz, Hego Euskal Herriarekin –bereziki, Gipuzkoa eta Bizkaiko industriarekin–, harremanetan jarri nahiko luke. Baina maila honetan lekuko burgesia honek kontra dauka Bordeleko burgesia, Ipar Euskal Herria Akitaniako administrazioan kokatua baita, ez Hego Euskal Herrian. Klasearteko interesak honela gurutzatuak aurkitzen dira, bada, Ipar Euskal Herrian. Bakoitzak, beraz, bere interesak ditu. Burgesia turistikoak ahal bezainbat lurren jabe egin nahi du, turismoak bere errentagarritasuna lurren salerostetik ateratzen baitu. Industri burgesiak industriaren hazkundera bilatzen du eta, arestian esan bezala, Frantziatik ez baitatorkio laguntzarik, Euskal Herriko harreman ekonomikoak azkartzea eskatzen du. Hau izanen litzateke Jacques Saint-Martin-en ikusmoldea, Izarra etxearen nagusia eta Baionako Merkatal Ganbarako lehendakariarena. Baina, lekuko industri burgesia honetatik at, sor litezke eta sortu dira lantegi berriak, monopolioen ondorioz, hala nola: Mousserolles, Breguet, Turmomeca, Sat-eta.

Burgesia horiek, euskal arazoaren aurrean, badute beren jokatibidea. Industri burgesiak, helburutzat Hego Euskal Herriarekin harreman ekonomikoak azkartzea duen aldetik, onartuko du euskal kultura, baina horretaz baliatzeko. Eta euskaltzale agertuz, Enbatakoen eta abarren laguntza ere jasotzen du, horiek bakarrik borrokatzen baitziren kulturaren alorrean. Beraz, burgesia ez da “kultura autonomia baten kontra, kultura horrek bere nahiak zerbitzatzen baditu” (14, 1975, 10). Era berean, burgesia turistikoari ere komeni zaio kultur mailan sartzea, hots, kultura folkloristaz baliatzea, horrela, zerbait exotiko gisa eskainiz, jendea erakartzen baita. Baina burgesia honi ez zaio batere axola euskara. Nolanahi ere, burgesia bakoitzak bere interes jakinak badituen arren, azken batean, biak ados datoz halako oreka bat bilatzeko orduan.

Bortizkeriaz ere bere iritzia agertzen du erakundearen ordezkariak, zertarako balio duen azalduz: batetik, legezko baliabide guztiak ahituz gero, arazo jakin bati arrapostu egokia emateko bide gisa, eta bestetik, erradikalizazioaren bidean herri-gogoa tinkatzeko bide gisa.

Iparretarrak taldeak, bereziki, gazteak bildu nahi ditu borrokara, hauek baitira zapalkuntza gehien jasaten dutenak, lanik gabe

herritik kanpora joan beharrean aurkitzen direnak. Eskuindarrek gazte aski politizatu horiek beregana ez ditzaten, burgesiak asimila ez dezakeen borroka-mota eramatea erabakitzen dute, armatua funtsean, bai burgesia turistikoaren zein frantses burgesiaren kontra jokatzeko.

6.4. Jokin Apalategiren “Ipar Euskal Herriko mugimenduak sozialismoari buruz” artikulua¹⁹² jantzia da, zalantzarik gabe, hamarkada horretako urte hauetan sortzen diren erakunde politiko berrien sorrerak ondoenik kokatzen dituen beren testuinguru soziologikoan.

Artikuluaren lehen partean, burgesia dominatzailearen ekonomia usteltzen ari dela, dio. Ez da berria datu hau *Zabaleko* orrialdeetan. Lehen aipatuz gain, lantegietako datu berri gehiago ematen du. Bokale-Tarnos-eko Aturriko Sutegiak ixten dira 1964an. Langile-kopuruaren hazkundera Turbomeca-k bakarrik egiten du aurrera: 1965ean 550 langile baziren, 1973an 1.440; baina beste hiru lantegi handienek ez dute beren pertsonala gehitzen. Lantegi txikien egoera, berriz, aldakorra da.

Ekonomiazko azpiegituraren beherakada hau larriagotuz doa. Datua da, 1974az geroztik, 100en bat lantegik itxi dituztela beren atatak. Eta lantegi horietatik, 6 Sozietate Anonimoak dira, 34 SARL edo Erresponsabilitate mugatuko Sozietateak, 56 kapital pertsonalekoak. Azken hauetatik ukituenak, garraiotakoak, etxegintza-koak, artisauak, jantzien dendak, janariak eta mekanika dira. Eta egoera txartuz doa oraindik: 1975eko irailaren bukaeran Baionako eskualdeak 1.273 langabeturi laguntza ematen zien, baina aurreko urtean eta data berean, 832ri bakarrik. Gainera, 1973az geroztik, ETA mugimenduak sortzen dituen arazoak direla-eta, gobernu espainolak mugako pasabidea oztopatzen baitu, merkatariek bortizki jasaten dute horren eragina. Tokiko burgesiak euskaldunen kontra jarduteko erabiliko du gertakari hori. Turismoari dagokionez, arazorik larriena “euskal kostaren hertsitasunetik” dator, ez baita aski lur. Horregatik, leku-urritasunak lurren goititzea dakar, hau da, espekulazioa.

Ekonomi krisi honi erantzunez, Jokin Apalategik dioen bezala, “herritarren akuilamendua” dator. Erran bahi baita, burgesia dominatzaileak ezarritako plangintzari erantzuteko xedearekin sortzen dela 1972an, Donibane-Lohizunen, JAZAR izeneko batasuna.

Hauek beren helburuak eta ideiak *Hitz* aldizkarian argitaratzen dituzte (18, 1976, 39). Batik bat, udaldian turismoaren kontrako ekinaldia erakusten dute urte guztiz.

Halere, burgesia horren kontrako erantzunik sakonena eta esperantzagarriena etorri, laborari langileengandik dator. Egileak Zuberoa, lholdi, Lasa, Bankako laborarien borrokak aipatzen ditu, horien gorabeherak xehetasunez esplikatzen dituelarik. Laborarien borroka-giro honetan erne eta burutua da “Aita seme laborari” izeneko GUK taldearen emankizuna, Iparraldeko herri gehienetan emana izan zena.

Halere, borrokak borroka, burgesiak beti berean segitzen du: hots, turismoaren plangintza aurrera eramaten, alegia. Gobernuak 1970eko apirilean, Philippe Saint Mac jaunaren lekuan, Emile Biasini izendatu zuen Merkatal Ganbarako buruzagi. Egun, 1976an, Arretxe jauna da buruzagi. Hauen asmoa da, kostaldean lekurik ez eta, arintzearen, turismoa barnealdean sustatzea, horko oihanak, mendiak eta haranak turismoari irekiz. Lehen esan bezala, frantses gobernuak, 1974ko martxoaren 13an, Ramontxo Kanblogen artikuluan ere ikusi bezala, 1975-1985 epealdirako plangintza onartu zuen, Arretxeren agerian garbiki agertzen dena, zeina baita kostaldearen eta barnealdearen desoreka gainditzea (18, 1976, 41).

“Iparretarrak” taldeak zioen bezala, Jokin Apalategik ere, burgesia “dominatzailearen” alboan, honi kontrajarriz bezala, burgesia “liberala” aipatzen du, zeinak, Ipar Euskal Herria kapitalizatu ahal izateko, Enbataren tesiak onartzen baititu. Hauetako ordezkarien artean, Jacques Saint-Martin aurkitzen da, “Izarra” fabrikako zuzendaria eta Baionako Industria eta Merkatal Ganbarako lehendakaria. Honela dio: “delako Ganbarak ‘franko-hispanoen’ arteko harreman politikoa hobeagotu eta eraberritu nahi luke. Euskadiko gobernuko lehen Lehendakari zenaren seme den Agirre jauna Hego Euskal Herriko burgesiaren aurrean Baionako Komertzio Ganbararen ordezkari izendatua izan da 1974ko urtean. Ipar Euskal Herriko Ekonomia Ganbarak ere bide beretik jo du. Orobat, GETIS edo Atur Herrien Zerbitzuko Iniziatiba eta Ikaskintza Taldea ados da franko-hispanoen arteko harremanak sendotzeko. Baina azken talde hau teknokratikoa baita, Añamendi-Atlantikoetako, Añamendi-Sortaldeko eta Landetako industria sustatzen ari da, aldi berean.

Baina Jokinek, aipatutako bi burgesi mota horiekin, hots, dominatzailearekin eta liberalarekin batera, beste hirugarren bur-

gesia bat aipatzen du Ipar Euskal Herrian, honela mugatzen duena: “Euskal nazional burgesia da bera. Bere ekonomiazko politika Ipar Euskal Herriaren kapitalizatzeraz zuzendua doa batik bat. Azkenaldian, bere eginahalak bitan sailkatzen dira: Batetik, talde bat eta bere gisa, Hego Euskal Herriko lantegi klasikoen bidetik tailer tipiak sortzen doa lan postuak ugarituaz: Hendaia Irati edo Biarritzeko Aurri lekuko. Bestalde, politika bera komertzial arloan ere ageri da: Baionako Collectivité Service delakoa adibide. Bada, ordea, burgesia horretan beste talde bat aurpegi modernoago batez datorrena eta Hego Euskal Herriko kooperatiba industriarekin harremanean bilakutzen dena. Baionako Coopelec-en kasua aipagarrien” (18, 1976, 42). Hau 1975eko martxoan eratu da, zeinaren zuzendari R. Kanblong baita. Honek Ipar Euskal Herrian Hegoaldeko kooperatiben antzeko zerbait sortu nahi bailuke.

Pitinka-pitinka, bereziki 1974ko Lehendakarietzarako hauteskunde ondotik, garbi agertzen da ezkerren dinamika sentituz doala, nahiz eta, arrazoi askorengatik –ekonomia, gizarte-egitura eta erlijioarengatik–, hemengo jendea hurbilago den eskuinetik ezkerretik baino. Orduan egindako inkestek ziotenez, lekuko laborariak eta merkatari txikiak sostengu sendo bat ziren eskuineko erregimenarentzat; baina gazte gehienak ezkerreko mugimendua sostengatzen dute. Giro honetan sortzen da HAS, bere sorreraren zergatikoak *Euskaldunakeko* 1. zenbakian agertzen dituelarik. Bistakoak dira Enbatarekin dituen desberdintasunak. Bere ibilbide laburrean bilakabiderik ere izan zuen: 1975eko apirilaren 5ean, lehen Batzarrean, alderdiaren ideologiaz eztabaidatu zen: sozialismoaz, zentralismo demokratikoaz, frantses ezkerren aurrean hartu beharreko jokabideaz, etab. Geroago, 1975eko azaroan, EAS eta HAS batu egingo dira. Honela, Ipar eta Hego Euskal Herriak, lehen aldiz, alderdi sozialista bateratu bat osatzen du, EHAS izenekoa.

7. Euskal departamentua

Jean-Louis Davantek¹⁹³ euskal departamentu baten eskabidea berritzen du *Zabalen*. Izan ere, Baionako Merkatal Ganbarak hileroko argitaratzen duen *Activités en Pays Basque* aldizkarian, 1974ko urriko zenbakian, Saint-Martin lehendakariak Baionan prefektura

baten beharra planteatzen baitu, honek bide ematen dio euskal departamenduaz mintzatzeko. Historia apur bat egin eta gero, euskal departamentu baten erdiesteak ekarriko lituzkeen onuraz mintzatzzen da bere artikulua luzean.

Izan ere, Iparraldeko euskaldunen amets zaharra da departamentuarena, jadanik Frantziako Iraultza-garaitik datorrena, diputatuek 1790ean Frantziako lurraldea departamentuen arabera zatitu zutenean, euskaldunak eta biarnesak Pirinio Atlantikoko departamentu bakarrean sartu baitzituzten, Uztaritzeko Garat anaiek erabaki horren kontra agertu ziren, argudio linguistiko eta ekonomikoak aurkeztuz. Baina alperrik. Harez gero, Doueil prefektuak 1965eko urtarrilean, Madariaga, Irigarai eta Txillardegi Iparraldetik ohildu ondoan, Piarres Xarritoni esan bezala, “Le Pays Basque, Monsieur, ça n'existe pas!”. Eta gertatzez, halaxe izan da praxi politikoan. Geroago, 1836an, Baiona, Maule eta Akitzeko jaun askok izenpeturik, prefektura Baionan izango zuen “Aturri” izeneko departamentua eraikitzeko eskea zuzendu zioten Luis Felipe I.a errege liberalari. Geroztik, mende luze batez, isiltasuna hedatzen da euskal lurralde osoan zehar eta euskaldunak, frantsesetako prozesuan azkarri sartuak, Frantziarentzat bizia ematen ikusten ditugu hiru gerra bortitzetan. Mark Legassek, beste hiru lagunekin batera, 1945eko irailean Konstituzioa aldatzeko xedearekin egindako bozketan, autonomiaren aldeko lege-proiektu bat aurkezten du, zeinetan hiru probintziek osatuko luketen departamentu bat aurreikusten baita. Propagandarako bakarrik balio izan zuen, ez baitzen aurkeztua izan Pariseko parlamentuan. Enbatak, Itsasun 1963ko apirilaren 15ean egindako Biltzar Nagusian, eskatzen den lehen gauza euskal departamentua da. Geroztik behin baino gehiagotan egina du eske bera Enbatak. Urte bereko udaberrian, Mixel Labegeriek –honek udan mugimendua utzi aurretik, hain zuzen–, lehendabiziko epe batean euskal departamentua eta bigarren batean Euskadi European izatea eskatu zuen; 1964ko udaberrian, xede horixe bera aipatu zen Kontseilu Jeneraleko bozketan, Donibane-Lohizuneko kantonamenduan Ximun Haranekin eta Baigorrikoan Etxeberri-Aintzartekin. Azkenik, 1967ko udaberriko diputatuen bozketan eta udazkeneko Kontseilu Jeneralekoetan euskal departamentu baten aldeko propaganda egin zuten, horren onurak arrazoituz. Esaten zuten euskal departamentuaren eskuratzea tresna eragingarria izan zitekeela alde guztietatik begiratuta, zeren orain artean euskaldunak gutxiengo-

egoeran aurkitzen baitira. Beren departamendua lortuz gero, euskaldunek “kulturako erakunde bat” izango luketela, autogestionatzeko “euskal podore bat”, euskaldunen eta Frantziako estatuaren arteko “arartekari bat” eta euskaldun guztien batasunerako “atea”. Baina 1968. urtetik aurrera, xede hori ez da aipatuko, gazteek gutxiesten dutelako.

Orain zergatik berritzen duen J-L. Davantek euskal departamentuaren arazoa? Bi arrazoi hauengatik: lehenik, Baiona eta Paue elkarrengandik urrun daudelako, eta bigarrenik, Baiona Europarako ate zabala den Espainiatik hurbil aurkitzen delako. Iparraldeko politikariak, arrazoi desberdinengatik bada ere, orokorrean, haren iritzikoak agertzen dira politikari-andana bat: Grenet, Baionako alkatea, Victor Mendiburu, Angeluko alkatea, Bernard Marie, kostaldeko diputatu gaullista, Atchoarena, Bidarteko alkatea, lthurralde, Donibane-Lohizuneko alkate gaullista, Errekart, Hendaiako alkate sozialista, eta besterik. Guy Petit jaunak, Miarritzeko alkate eta Pirinio-Atlantikoko senatariak, ez du arazo honetan busti nahi. Oso gutxi dira, bada, Iparraldeko politikari eta alderdien artean euskal departamentu baten kontra agertzen direnak.

Berriro, bere garaian Enbatak bezala, HAS da horren eske hasten dena, baina berrikuntza honekin: hots, “Enbataren departamenduxedea eta frantses ezkerren eskualdekatze herrikoia elkarri uztartu” egiten dituela. Lehendakaritzako hauteskundeetan, beste eskabide batzuen artean, departamentuarena kontuan hartzeko eskatu zieten HASekoek frantses sozialista buruzagiei eta printzipioz onartu omen zuten, “c’est logique” esanez.

Aipatutako politikari horiek ez baitute Zuberoa aipatzen, J-L. Davantek non sartu nahi duten galdetzen du, Biarnokoan ala Euskal Herrikoan. Abertzaleentzat zalantzarik ez da Euskal Herriko departamentuan sartu behar dela Zuberoa. Eta Davantek dakarrenez, euskal departamentua egitekotan, suprefektura ez Donibane-Garazin, J. L. Lizundiak proposatu bezala, baizik eta Maulen egin beharko litzateke, lehendik ere, duela 50 urte, suprefektura bat bazelako bertan.

Berrikitan, *Zabalez* geroztik, Erramun Baxokek plazaratuko du euskal departamentuarena *Jakineko* zenbaki batean, Ipar Euskal Herriak oinarritzkoa falta duela esanez: hots, bere lurraldea izatea. Azkeneko urratsen berri ematen du bere lanean. Bizirik dagoen gaia da, beraz, hau.

8. Gose-greba Baionan

Beñat Oihartzabalek¹⁹⁴ dioen bezala, 1973ko euskal egutegi politikoan gertatutako gauza garrantzitsuen artean, zalantzarik gabe, aipatzekoak dira 1972ko urrian eta azaroan Baionako katedralean egindako gose-grebak, orduan eman baitzen euskal mugimenduaren aldeko mobilizaziorik handiena. Gose-greba, jakina denez, Indietako nazionalistek duela 50 urte asmatutako borroka-bide bat da, arma politiko bat, sorreran bi ezaugarri hauek dituena: hots, erlijio bati atxikia dela eta bortxa ezezten dutenek erabiltzen dutela. Geroztiko Europako tradizioan, gose-greba indibiduala eta kolektiboa bereizi izan dira. Ipar Euskal Herrian, J.J. Etxaberekin maila indibidualean hasi zena, azkenean taldeko ekintza izatera pasatzen da.

Beñatek azterketa kritikoa egiten du azken gose-grebaz. Arrazoiak? Ekintzaren bidez berehala lortzeko xede demokratikoak eta urrutikoagoak ez zirela behar adina ez zehaztu ez berezi. Eskariaren artean, besteak beste, hauek zeuden: a) urriaren 6tik eta geroztik administrazioak hartutako *botatzeko* erabakia kenaraztea; b) administrazioak hartutako erbesteratuen kontrako erabakiak oro (ohiltzeak eta besteak) ezeztatuak izatea; c) euskal erbesteratuek estatutu berezi bat izatea.

Berak zapi puntutara biltzen ditu bere ohar kritikoak.

Lehenik, eske hauetan ez da zehazten hartutako erabaki horiek administrazioa bakarrik mugatzen diren, ala justiziak hartutakoetara ere zabaltzen diren. Ez dago garbi.

Bigarrenik, ez da zehazten urruntzeko erabaki horiek mugatzen diren soilki 1972ko urriaren 6tik aurrera hartutakoetara, ala baita lehenago hartutakoetara ere. Hala dio: “Grebaren denboran puntu hauk ez ziren arras garbi finkatuak izan, nahiz praktikan ekintzaren berehalako-xedeak honela mugatuak izan: Urriaren 6tik eta geroztik euskal errefugiatuen kontrako botatzeko erabakien ken-araztea” (Oihartzabal, 1, 1973, 5).

Hirugarrenik, euskal errefuxiatuentzako estatutu bereziari buruzko eskea, “agian, ez zatekeen segidan lortzeko galdatua izan”. Baina frantses legearen arabera, “ezin erdiestekoa zen delako estatutu berezi hori” eta, gainera, Frantziako “indar demokratiko askok ez zezaketen onar puntu hori” (Oihartzabal, 1, 1973, 5).

Laugarrenik, gose-greba egoki eta zuzen bideratu ahal izateko, euskal grebalariek hiru arrisku baztertu behar zituzten, zehazki

hauek: hots, talde eskuindar baten, frantses alderdi politiko batzuen eta seigarrenen aldetik zetozenak. Lehen mehatxua zen arrisku-tsuen, zeren, Iparraldeko lau lagunek gose-greba hasi zutelarik, hauek bertako jende ez-abertzalea ukitzera iritsi ziren eta, zentzu horretan, arazoa “desespainoltzea” lortu zuten. Baina hasierako herritar izaera hura galdu egin zen: a) “errefugiatuak greban sar zitezten eginahalak eginetz”; b) “gose-grebaren aitzinarazteko, mugimendua notable edo herriko-jaun sasi-euskaltzaleen eskuetan utziz”; c) “informazioan, traktetan, triunfalismo eta abertzalekeria hutsenez mintzatuz”. Bigarren mehatxuari dagokionez, alderdi sozialista eta komunista, batez ere, hauek izan ziren gehien hurbildu zirenak, euskaldunen bozak berenganatzeko xedearekin. Hirugarren mehatxuari dagokionez, ETA seigarrenen parte ez hartzea erabaki bazen ere, hauek ere saiatu ziren mugimendua bereganatzen, baina bakarrik geratu ziren. Beñat Oihartzabalen argudioa da gose-greba hori Iparraldeko gazte batzuek –zehazki Beñat Oihartzabal, Mattin Larzabal, Jacques Salaberri eta Arnaud Haritxelarrek–, hasi zutela 1972ko urriaren 11n, Hegoaldeko errefuxiatuen egoeraz bertako herritarrak kontzientziarazteko helburuarekin, baina ekintza hori, aipatutako hiru mehatxu horiek tartekatu zirelako, zapuztuta geratu zela.

Bosgarrenik, azken gose-greban, “errefugiatuen botatzea” eta “ipar euskaldunen urruntzea” bateratu nahi izan ziren, urruntze horiek “euskaldunen kontra” eginak zirela argudiatuz. Horrela egitean, ekonomi arrazoien eta politikoengatik egindako eta gertatutako botatzeak eta urruntzeak nahasten ziren. Izan ere, berak dioenez, “deus esplikatuz gabe, ipar euskaldunen lekutzeak ‘euskaldunen kontra’ gertatzen direla erratea gezur bat besterik ez da” (Oihartzabal, 1, 1973, 8).

Seigarrenik, gose-grebaren antolakuntzari dagokionez, orobat, badu zer kritikaturik, eta da “notabilismoarengan gehiegi fidatzea; traktak jenderi ez egokitzea”, etab.

Zazpigarrenik, gose-greba honek erakusten duen akatsik handiena, beste hau da: euskal mugimenduko mobilizazio handiena erbesteratuen aldeko ekintza batean, Iparraldeko abertzaleen hutsunea agerian geratzen dela. Bestela esanda, “hego aldeko giro politikoan errotua izatea eta mugaz honaindiko sozial-errealitateak at egotea”, hori du ekintza honek bere hutsunerik handiena. Zeren, Iparraldeko euskaldunak dituzten arazoaren artean, Hegoaldeko iheslariena ez baita urrundik ere lehena. Azken hau da berak ematen duen oinarritzeko mezua.

X

ETAren antolaketa-arazoak

Ez dago hona ekarri beharrik ETAren antolaketaren jarduera-organigrama. Lau adarretan banatuak zeuden haren egiteko estrategikoak. Hauek, hurrenez hurren, kulturala, politikoa, sozioekonomikoa (langile-ekintza) eta militarra ziren. Horietako bakoitzaren zereginak 1967ko V. Biltzarrak geroztik zehazturik zeuden eta, zuzendaritza-mailan, horietako bakoitzak zeukan bere ardurduna¹⁹⁵. Praktikan, ordea, ez ziren maila berean garatu izan adar horiek. Hasieratik ETA aktibismora gehiago lerratu zen eta, nahiz eta beste adarrak ez baztertu, haren militantzia –ez gutxi bere izaera klandestinoarengatik–, gehienbat ekintzek ezaugarritu zuten. Goiz edo berandu, ETA militargintzaren arazoa planteatu beharrean zegoen.

ETAren antolaketa barrutik berrikusteko garaia, hain zuzen, 1974ko urtean etorriko da, Carrero Blanco-ren atentatua 1973ko abenduaren 20an burutu eta gero, erakunde armatua agian indartsuenik aurkitzen den unean. Aparatua sobera militarra dagoelako, ETAko zuzendaritza ez bide da ohartzeko, frankismo ondoko egoera politiko berrira moldatu ahal izateko, oraintxe bertatik hasi beharra dagoela adar horietako bakoitzari dagozkion azpiegitura egokiak eraikitzen. Noski, berrantolaketa hau ezin egin zitekeen barne-triskantzen mindura ordaindu gabe, askotan, zoritxarrez gehiegitan ohi denez, arazoak pertsonalizatuz, horiek, izan, hertsiki egiturazkoak direnean.

Izan ere, ETAren historian zehar militargintzaren gaia, masa-ekintzetarako traba dela eta ez dela, luze bezain gordinki eztabaidatua izango da, hainbestera, ezen, 2. atalean xehetasunez azalduta datorren bezala, lehenik 1967an¹⁹⁶ eta gero 1970ean¹⁹⁷, ETak sa-

koneko barne-zatiketak ezagutu izan baitzituen zio horrengatik. Haien antzera, 1973ko abuztuan egindako ETAREN VI. Biltzar Nagusia ere guztiz erabakigarria gertatuko da, oraingoan ez orduan bezala arrazoi ideologikoengatik, funtsean antolaketa-mailakoengatik baizik. *Zabaleko* testuak bere testuinguruan ulertu ahal izateko, guztiz beharrezkoa da han gertatutakoa jakitea, jadanik inorentzat sekretua ez dena, zeren Hazparneko Biltzar hartan gertatzen baitira Adar Militarraren eta Langile-Adarraren arteko desadostasunak, zeharka Kultur Adarrean ere bere eragina izango dutenak.

Esana daukagu, 1970eko zatiketen ondoren, aktibismoarekin eta EGI-Batasunakoen sarrerarekin, erakunde armatua biziki sendotu zela eta kopuruz handitu, batez ere 1972. urteaz gerotzik. Sendotze honek, ondorioz, Erakundearen militartzea ekarri zuen eta, bidenabar, hermetismoan jaustea eta beste Adarren garapena irentzea. Normala ere bazen hau gertatu izana. Izan ere, orduan, internazionalismo eta obrerismoaren izenean, lehen Del Río eta Iturriz, eta gero Mikel Azurmendi eta Patxo Unzueta bezalako ideologo likidazionistak izan baitziren desbiderapen ideologikoa gidatu zutenak, eta, erreazioz, “ideologoen” kontrako jarrera-moduko bat sortu zen ETA militarreko zuzendaritzakoen artean, eta hau bi zentzutan: batetik, arriskutsuak izan zitezkeelako eta, bestetik, borroka armatuarekin aktiboki konprometitzen ez zirelako. Eta egiazko iraultzaile izateko, noski, odolaren bataioa behar-beharrezkoa zen. Horrengatik, militarrek bereganatu zuten osoki Erakundearen kontrola, inolako desbideratzerik gerta ez zedin.

Baina militarren hermetismo horrek, bidenabar, beste adarren garapena beste bi zentzuotan irendu zuen: batetik, praktikan, Erakundearen ahalegin gehienak aktibismoan urtuta egotean, bere adar horiek beren kabuz aritzeko eta lan egiteko esparrurik aski ez zutelako, eta bestetik, zapalkuntzak zuzenean jotzen zituelako, militarren pare jo ere, kultur adarrekoak zein langilekoak ere. Erakundea militarki antolatua zegoenez, zapalkuntzak erasotzen zuen bakoitzean, adar bakoitzeko jendea ukitzen zuen modu batera edo bestera. Bestalde, Erakundearen egoera militarizatu horretan oso zaila baitzen langileak antolatzea, Langile-Adarrak langile-mailan uzten zuen hutsunea, praktikan bete, ETA erakundetik zatitutako taldeak ari ziren betetzen. Nafarroan, Euskadiko Langile Komisiokoek (CCOO) eraman zuten protagonismoa 1973ko langile-borrokan. Hauekin batera ari ziren Sexta-LCR, MCE eta ORTkoak. Bizkaian,

Maiatzaren 1ean, batera elkartu ziren, orobat, UGT, Sexta-LCR, USO, MCE, ORT eta CCOO. Gipuzkoan berdin: Sexta-LCR, PCE, ORT eta MCE. Hauek zeramaten hainbat lekutan gidaritza. ETAK, langile-mailan indarririk ez izatean, aktibismoaren bidez gaintu ahal izan zuen hutsune hori, batez ere, lantegi-gatazken erdi-erdian zeuden enpresaburu batzuen bahiketak eginez. Baina taktika hau langile-erakundeek zorrozki kritikatzten baitzuten, ez zen bideragarria ikusten ez epe ertainera ez luzera. Behin-behineko aterabidea zen, larrialdikoa.

Aurrerantzean erakunde-egiturazko akats horiek errepika ez zitezen, beharrezkoa zen Erakundearen antolaketa osoki berrikustea, lau adarretan zatitutako lehengo sistema zaharrak ez baitzuen funtzionatzen.

ETAren barruan garai honetan krisian dagoena ez da izango ideologi mailako ezer, hertsiki antolaketakoa baizik. ETA barrutik berrantolatu beharrak sortaraziko du VI. Biltzar Nagusirako deialdia egitea. Arazo horiek onartu eta gaintitzen saiatu, horretan dago gakoa. Orduan planteatutako arazoak egiazkoak zirela geroko historiak ederki asko frogatu du, hortik etorriko baitira zatiketarik handienak ezker abertzalearen baitan: poli-mili eta militarren eta, kate bertsutik, Euskadiko Ezkerra eta HBren artekoak. Erremediorik gabeko ondorioekin, gainera.

Erakundeko Adar Militarrak bazekien, jakin, ondorio negatiiboak zekartzala zapalkuntzak bai kulturagintzan bai langile-mailan eta pentsatu zen horiek gaintitzeko bidea, Adar horietako bakoitzari dinamika propioa aitortzea izango zela. Proposamen honek, ordea, ez zituen konbentzitu Langile-Adarrekoak eta ondoko gertakariak desadostasunaren zuloa areagotu egin zuten.

Hazparneko Biltzar Nagusia egin baino lehenago, 1973ko maiatzean, han polizia zelatarien jagoletzatik babestuagoak egongo zirela-eta, Getafe-n elkartu ziren Biltzar Txikikoak. Helburua aurreakordio batzuetara iristea zen. Langile-Adarrekoek Adar Militarrekoen ekintzak gehiago kontrolatzea eskatzen zuten. Orduan jakin zuten "Txikia" komandoak zer egitea pentsatzen zuen: han Biltzar Nagusia abuztuan egitea eta Adar bakoitzari –kasu honetan Militarri eta Langileari–, bi milioi ematea. Handik bi hilabetera, uztailen –Biltzar Nagusia egin baino hiru aste lehenago, beraz–, Langile-Adarrekoek gutun bat bidali zieten Adar Militarrekoiei, esanez, eztabaidarako aski bermerik ez zutela ikusten eta, Biltzarrera ez

zirela joango. Baina, azkenean, joan egin ziren, baitzekiten, haiek joan ala ez, Biltzarra egin, egingo zela.

Biltzar Nagusikoan gai bat baino gehiago ukitu ziren, baina guk batzuk bakarrik –modu zuzenago batez dagozkigunak–, aipatuko ditugu.

Lehen gai bat, punta zorrotzekoa, euskarari buruzkoa izan zen. Adar Militarrekoek, Erakundeko zuzendari izateko, euskara jakin beharrekoa zela defendatzen zuten. Langile-Adarreko batzuek ez baitzuten betetzen baldintza hori, haien proposamen hori ez zuten onartzen, horrek beren taldeko gidari kualifikatuenetakoa batzuk zuzendaritzakoak izatea ezintzen zuelako. Horregatik, zuzendari-karguak hautatzeko eta, orobat, diru-banaketa egiteko garaia etorri zenean, eztabaidak areagotuz joan ziren.

Militantziaren eta zuzendaritza-organoen arteko harremanak arautzeari buruzko gaia ere eztabaidatu zen. Puntu honetan, zentralismo demokratikoaren ereduaz ezarri baitzen, erabaki honek erbesteko kide batzuek –bereziki, libertarioek–, Erakundea erabat uztea ekarri zuen. Emilio Lopez Adanek, adibidez, orduan utzi zuen¹⁹⁸. Biltzar honetatik indartua ateratzen den Adarra, militarrena da. Borroka armatuaren estrategia defendatzen da, arrazoituz, Euskal Herria nazio gisa Espainia eta Frantziaren menpean dagoenez gero, hura beharrezkoa dela Euskal Estatu Sozialista lortu ahal izateko¹⁹⁹.

VI. Biltzar Nagusia egin eta berehala antolatu zen Biltzar Ttipia. Baina honek ez zuen lortu Nagusian eztabaidatutakoak gainditzea. Biltzar Ttipira Langile-Adarreko hiru kide eta Adar Militarreko bi joan ziren. Langile-Adarrekoek bi izen proposatu zituzten idazketa-lanetarako eta nazioarteko harremanetarako eta Adar Militarrekoek bat Kulturarako. Hiru hauek onartuak izan ziren eztabaidarik gabe. Sustaketa-lanetarako zuzendaritza bakarrik geratu zen hutsik, izendatu gabe. Zailtasunak, ordea, Biltzar Ttipia izendatzerakoan gertatu ziren, zeren Langile-Adarrekoek aurkeztutakoek ez baitzuten aldeko botorik lortu. Horrela, Biltzar Ttipiko bigarren bileran hankaz gora joan ziren ordura arteko batasun-asmoak oro. Bilera horretarako deialdia urriaren 12rako egitea aurreikusia zegoen, baina, deialdia ez baitzen garaiz iritsi, batzuk 12an agertu ziren eta besteak 19an. Hemendik hasiko da elkarren arteko lehen susmo txarren areagotzea. Gero, presoen arazoa dela-eta –funtsean kontrol-arazoa dena–, Adar Militarrekoek hartzen baitute horien ardura, bi Adarrak oraindik gehiago urrunduko dira. Baina zatiketa

etorri, Langile-Adarrekoak Adar Militarrekoek egindako komunikatu baten zabalkundea egitera ukatu zirenean etorri zen, txosten horretan salatzen baitzen haiek planteamendu espainolistak egiten zituztela eta sistemaz Adar Militarrekoen eta borroka armatuaren kontra zeudela²⁰⁰.

Azkenean, bada, VI. Biltzar Nagusitik ateratako Biltzar Ttipiak 1974ko ekainean egindako hirugarren bileran, ETAk erakundetik bota egingo ditu Langile-Adarrekoak, aldeko zazpi eta kontrako boto batekin. COAren (Comisiones Obreras Abertzales) proiektua martxan jarria baitzegoen jadanik urte-hasieratik, Langile-Adarraren desagerpena, azken finean, erakunde paralelo horren sorrerak ekarri zuen²⁰¹. Esan behar da ezadostasunerako egiazko arrazoiak zeudela. Oinarrizkoa, hauxe zen: alegia, ETAk, bere klandestinitate-egoeratik eta bere egitura militarragatik, ezin zuela bideratu bere langile-egitura propioa. Nahiz eta teorian Langile-Adarra autonomia dela aitortzen den sorreratik beretik, praktikan konstatatzen da, izan, Adar Militarren esanekoa dela. Hau zen betiko eztabaiden gunea. Hortik datoz besteak. Gertatzen dena da, dagoen hutsune horri aterabiderik egokiena emateko orduan, aldi berean, bi proiektu eta, beraz, bi joera agertu zirela ETA erakundearen baitan.

Batetik, 1974ko uztaillean, COA izeneko erakundea zegoen, bere funtzionamendua erakunde armatutik erabat aparte ikusten zuena. Langile-Adarrekoek Militarrekoekin arazoak zituztelako –eta *viceversa*–, etena hurbil ikusten baitzen, erakunde barrutik, zuzendaritzakoa zen Jose Migel Goiburuk gidatuta, CCOOren eredura antolatzea pentsatuta zegoen COA delakoa bultzatzeko ahaleginak egin ziren. Langile-erakunde hau izango da, gerora, LAB (Langile Abertzale Batzordea) izango dena, ETako Langile-Adarreko kide batzuek Gipuzkoako Deba arroan eta Urola aldean abiarazten dutena²⁰². Erakunde berri hau bideratua zegoen jadanik 1974ko irailean Bizkaian eta Gipuzkoan.

Bestetik, LAIAren (Langile Abertzale Iraultzaileen) proiektua zegoen. Honek bere sortze-biltzarra 1974ko abuztuan egin zuen Domintxinen, Zuberoan²⁰³. Biltzar honetara joan ziren gehienak Gipuzkoako Langile-Adarrekoak izan ziren, baita ETA 1970ean utzi zuten batzuk eta erakunde armatutik hurbil ibilitako liberario batzuk ere. Hauen artean, ideologiaren aldetik, ikuspegi desberdinetakoak zeuden: troskistak, anarkistak, marxista-leninistak eta humanistak. ETAren borroka armatuari buruz, berriz, bi joera

ematen ziren bertan. Gehiengo batek, 1974ko koiuntura hartan, beharrezkoa ikusten zuen militargintzarekin segitzea, baina beti ere hura masa-ekintzen laguntzaile gisa gogo emanez. Hemendik joango da, geroago ikusiko dugunez, *Zabaleko* LAIAkoen ikusmoldea. Gutxiengo batek, aldiz, autore klasiko marxistek ziotenari jarraituz, uste zuen langileriak boterea hartzeko aroan, orduan bakarrik, zela beharrezkoa militargintza.

Beraz, langile-munduan bi erakunde paralelo agertzeak tirabira areagotu besterik ez zuen egin eta honen ondorioak berehala nabaritu ziren Hegoaldean. Barruko kideek zuzendaritzako norekin izan harremanak, horrela zabalduko da erakunde horietako bakoitzaren sare-antolaketa Gipuzkoan. Langile-Adarreko sektore batek ETAkide izaten segitu zuen bitartean, beste batek, Gipuzkoan eta Bizkaian, ez.

Dena dela, bi proiektu horien arteko desberdintasunak, antolaketari buruzkoak ez ezik, neurri batean politikoak ere baziren. Orain arte Langile-Adarraren eta Militarren arteko harremanetara bakarrik mugatu gara. Eta Kultur Adarra, zer? Hau ez zebilen hobeto. Nahikoa da esatea hau 1973az geroztik Langile-Adarrean txertaturik zegoela eta, aipatutako zatiketa gertatzean, ETAk IASE (Ikasle Abertzale Sozialista Erakundea) bideratu zuela ikasle-mugimenduak bereganatzeko asmoarekin²⁰⁴.

Funtsean antolaketa-mailako tirabira horien lekuko historiko aparta eta, bertako lankidetakoz batzuk arazo horietan bustita egon ziren neurrian, bakarrenetako bat izan genuen *Zabal* kultur aldizkaria. Jakina, ezkerreko talde politiko bakoitzak sortutako aldizkariak aparte utzita. Baina pentsamendu politikoa, aldizkari organiko horietan ez ezik, hurbileko beste batzuetan ere landu zen eta, agian, beste inon baino sakonago. Lehen aipatua dugu *Brankaren* kasua. Gure hau, berriz, *Zabalena* da, Erakundearen barne-krisiak bete-bete harrapatu zuena, baina ordukoa historiatu eta aztertze inork gutxi aipatzen duena. Horregatik, iturri hau gabe, ezin da ETArengatik garai honetako bilakabidea hurbiletik eta zehaztasunez historiatu, ezago aztertu, behar bezala ezagutzen ez delako. Erdarazko historiografietan agertzen da, bai, adar-zatiketak eman zirela, baina kontakizunak Langile-Adarraren eta Militarren arteko mugatzen dira gehienbat. Kultur Adarrean gertaturik ezer ez da ez aipatzen ez ezagutzen. Horren inguruko prozesua hurbiletik, batzuetan zuzenean besteetan zeharka, bizi izan zutenentzat, genuenentzat, errazago zaigu *Zabalen*, han eta hemen, barreiatu da-

tozen artikuluen bidez gertakari historikoen diskurtso-haria osatzea eta arazoaren funtsa mailakatu eta zehaztea. *Zabaleko* testu-aipuak osatzeko, jakina, miatu beharreko iturriak Erakunde bakoitzari dagozkionak, ETArri dagokionez, bereziki *Hautsi*, 4. zenbakia, eta LAIArri dagokionez, berriz, *Sugarra* dira.

Izan ere, ETArren antolaketa-krisiaz jardutean, pentsatzen da denak garai berean eta arrazoi beragatik sortu zirela. Eta hau ez da zuzena. Horregatik, geure azalpenean, banan-banan, Adar bakoitzari buruzko gorabeherak aipatuko ditugu –oraingoan *Zabaletik* arituz–, horietako bakoitzak baitu bere testuinguru berezia, bakoitzak bere protagonistak, bakoitzak bere arrazoiak. Horiek guztiak sailkatuz ematea izango da gure lana. Segidan esango direnak sarrera honetan deskribatutako testuinguruan kokatu behar dira, bestela behar bezala ez ulertzeko arriskua baitago.

1. Adar Militarra

Jokin Apalategi “Begiko”²⁰⁵, 1974ko udazkeneko zenbakian –beraz, erakunde-barruan zatiketak gertatu eta gero–, idazten du militargintza euskal iraultzan hartzen ari den lekuaz eta garrantziaz. ETArren historian, berak dioenez, beti eztabaidatu izan da militargintzak masa-ekintzetan bete beharko lukeen lekuaz. Militargintza eta masa-ekintzak elkar zitezkeela ziotenak, orokorrean, euskal politika egitura eta estrategiaren aldetik era independente batez eramatearen aldekoak agertu izan dira; baina, aldi berean, ez zuten ezintasunik ikusten estatuko oposiziokoekin zenbait gune taktikotan elkartzeko. Iraultzan bi elementu horiek bateraezinak zirela ziotenak, aldiz, euskal politika estatu-mailara plegatzearen aldekoak ziren eta, azkenean, nazionalismoa utzi eta estatualistak izanez bukatzen dute. Hauek estatu-zentralismoan oinarritutako federalismoa proposatu izan dute.

ETA, 1970eko hamarkada-hasieran benetan kinka larrian egon eta gero, 1972an Egi-Batasunarekin²⁰⁶ elkartu eta 1973ko abuztuan bere VI. Biltzar Nagusiko lehen zatia²⁰⁷ ospatzen denean, haren adar militarrek jadanik 1973ko urte-hondarrean azpiegitura sendoa du, atzetik gizarte-sektore zabal baten babesa bereganatuta dauka eta ordurako ongi ahaztua zegoen ETA Sextakoen kontua. Carrero Blanco-ren 1973ko abenduaren 20ko atentatuak, berriz, oso agerian jarri

zuen ETAREN prestakuntza militarra, logistikoa zein teknikoa. Ez zuten sinesten ETA halako ekintza bat egiteko gai izan zitekeenik²⁰⁸.

Iraultzan militargintza beharrezko elementu bat dela onartzea gauza bat da. Eztabaida hori, bada, jadanik bukatua da, teoriaraino baino gehiago eta, agian, hobeto praktikaren bidez gainditua. Baina honek ez du esan nahi militargintzaren inguruko eztabaida erabat agortua dagoenik. Eztabaida bat bukatu eta beste bat irekitzen da. Galdera da, Jokinek egoki bezain argi formulatzen duena, ea zein leku bete behar duen militargintzak iraultzan, zehazki gurean eta une horretan. Badira militargintza gizarte-ekintza guztien habe eta gailurtzat daukatenak. Hauentzat, noski, mugimendu soziopolitiko eta kulturalak oro militargintzarako urrats bat besterik ez dira, oraindik beren baitan aski heldutasun ez duten gizarte-mugimenduak bizkortzeko urratsak, eta ekintza hauek ez dute inolako autonomiarik. Hauentzat militargintza da mugimendu iraultzaile bakarra, beste guztiak gidatu behar dituenak, heldutasun osora eraman behar dituenak.

Jokin Apalategik (9, 1974, 2) garrantzi handiko artikulua honetan zehazten duenez, “euskal mugimenduaren militartzea urrats txar bat” izanen litzateke. Susmoa du horrelako zerbait ez ote den gertatzen ari ETAREN barruan une honetan: hau da, teoriaraino ETAREN antolaketa osatzen duten Adar laukoitzeko bakoitzari bere autonomia aitortzen zaiola, baina praktikan ez dela betetzen. Haren pasarte honi usain hori hartzen zaio:

“Delako erakunde politiko horren irteera unean, bera osatzen zuten adarrei, emandako *autonomia* kontsiderazioa hitzetan ez da ukatuko. Praktikan, ordea, une bakoitzean hankaperatuta aurkituko da. Erakunde politikoaren zuzendaritzan adar bakoitzari hitzez emango zaion errepresentazioa, behin ere ez da indar berdineko izango. Militar adarrak aburua agertzeko ahotsa eta erabakia hartzeko boza dituen berean, gaineratiko adarrek aburua agertzeko ahotsa (nahiz eta zenbait bider aburua agertze bakarrak ondorioak ekarri) bakarrik dute. Honela, militar adarren aurkako aburua agertze bakarragatik, *purga jokabide faxistarenen* lotsarik ez duen jokabidea erabiliaz (gezurrezko testigutzak eta abar), norbait baztertuta gerta liteke. Guzti horrekin zer desiratzten den? Bistan da erakunde politikoaren militartzea erdietsi nahi dela. Kontzeptu honek bi sentidu ditu: bata, erakunde politiko militar hutsean bihurtu da; eta bestea, militargintzaren zerbitzuko zuzenean ez diren ekintza sozial guztiak, bortxatu eta arbiatu dira” (Apalategi, 9, 1974, 2-3).

Beste pasarte honetan zuzenean salatzen da aparatuaeren militartzea:

“Hau horrela, hamabi bat urtez gora-behera handiak izan ondoren, 1971-az gero, euskal iraultzan aparatua batean bilakatu den militar adarra, gaur egun hartzen ari den militartze joera, tamalgarrria da. Izan ere, delako aparatua horrek kontsiderazioa merezi duten hainbateko ekonomiazko medioak, logistika eta zuzendaritza autonomo bat eratu dituen bien bitartean, erakunde politiko bereko beste aparatua, hots, langile kultural eta sozial mugimenduko gaineratikoak ez dira paraleloki desarroilatu nola ekonomian, hala logistikian eta zuzendaritza autonomoetan. Are gehiago, adar militarraeren aparatua hori eratzekoan, gaineratiko adar guztiek beren sostengua eta laguntza eskaini badituzte ere, gaur egun militar adarrak gaineratikoak ez ditu bilakatzen utzi nahi. Itto egin nahi dira militargintzaeren menpean, hots, militartze bat inposatu nahi da. Hori horrela, militar adarraeren eta gaineratikoeren artean, menperatzaile-menperatu edo nagusi morroi harremanak sortu dira erakunde politiko berean” (Apalategi, 9, 1974, 4).

ETAren praktika politikoan militargintza nagusitzen dela esan ondoren, jarrera honek bi tesi suposatzen dituela gaineratuko du: a) Euskal Herriarentzat Irlandakoa eredu bat dela, eta b) Hego Euskal Herria militarki aska litekeela. Egilearentzat ez bata eta ez bestea dira onargarriak. Irlanda eta Euskal Herria ez dira berdinak ez geografiaeren ez egoera soziologikoaren aldetik begiratuta. Orobat, IRAren zein ETAren giza konposizioa, hots, militante-jatorria ere ez da berdina. Bestalde, Espainiako estatuak ETA eta Euskal Herria bide polizialez menderatuko dituela pentsatzea bezain astakeria handia edo handiagoa da pentsatzea Euskal Herria bide militarrez aska daitekeela. Gaur hainbeste bider errepikatzen diren iritzi hauek aspaldi formulatuak zeuden, beraz, *Zabalen*. Norbaitek pentsa lezake, hori esanda, militargintza arbuia egiten dela. Ez horrelakorik. Militargintza beharrezko borroka-tresnatzat dauka, baina beti baldintza batzuen pean kokatuta. Hona hemen beraren hitzez zehatzago formulatuta:

“Militargintza Hego Euskal-Herriko iraultzaeren bilakaeran funtsezko izan da eta izango da ere. Baina, militargintza hori gaineratiko sozial ekintzekin koordinatu eta programatu behar da. Bestela izaten jarraitzen badu, egun batez, eta beharbada, hain

urrun ez dagoen egun batez, gaineratiko sozial egintzetatik, behin betikoz, eten egingo da. Eta hori gertatuko balitza, militargintza herritar mugimenduaren barrenean minoria baten eginkizun bilakatuko litzateke” (Apalategi, 9, 1974, 3).

Aipu horretan, bi maila bederen bereziki behar dira: militargintza beharrezkotzat jotzen dela, baina, aldi berean, haren beharrezkotasuna baldintzatua dela. Beraz, militargintzak egiazki bere egiteko iraultzailea bete dezan, beste baldintzen artean, hauek izan behar ditu kontuan: lehenik, erakunde bera barrutik demokratizatu behar dela, leudekeen hierarkiak ezabatuz, eta, bigarrenik, herri-mugimendu desberdinek beren autonomiarekin jokatu behar dutela, hala nola, langileek, nekazariak, irakasleek, ikasleek, etab. Hauek beren auto-kontrola eta beren barne-demokrazia izan behar dute. Maila hone-tan, ETA baitan militargintza nagusitzen delako, hain zuzen, beste gizarte-mugimenduetan, bereziki langile-erakunde eta kulturaletan, demokrazia defizita ematen dela uste du. Aterabidea, beraz, erakunde hauek beren autonomia lortzea da:

“Gaur egun, delako erakunde politiko horren zuzendaritzan desekilibrio bat dago. Militar adarraren eta erakunde politikoaren zuzendaritzak praktikan bakarra eta berdina izatea dakar. Desekilibrio hori gaingitu nahi bada, langile, kultural eta sozial mugimenduko beste adarrek beren aparatuak eta zuzendaritza autonomoak sortu beharko dituzte. Eta hori erdiestean bakarrik erakunde politikoaren zuzendaritza praktikan adar guztiena bihur ahala izango da” (Apalategi, 9, 1974, 5).

Antolaketa-mailako eztabaida planteatzen da hemen, ETaren geroko bilakabidean guztiz garrantzitsua gertatuko dena, zeren, une honetatik aurrera hasiko baitira jalgitzen erakunde autonomo berriak, hauen artean aipagarrienak LAIA langile-mugimendua eta ZABAL-IRATI kultur proiektuaren antolaketa direlarik.

Gaur egun ezker abertzaleko sektore batek auzitan jarria dauka ETaren aktibismoa, bereziki haren zenbait ekintzaren desegokitasuna, herritar gehienen sentimenduen kontrakoak direla esanez. Hala balitz, honez gero aspalditxo hila zitekeela pentsatzen zen orduan, zeren, herri-masatik aparte geratzen den erakunde minorizatuak ez baitezake bizitza luzerik izan. Esan dezagun, *Zabalez* geroztik ere, hainbat urtez herri-sostengua jasoz etorri dela. Horregatik, orduan esandakoak haren gaurko desagerpen-prozesua justifikatzeko

erabiltzeak ez du balio, ez bederen besterik gabe, zeren, testuinguruak aldatzean, azalpenek ere bestelakoak izan behar baitute. Bego, beraz, aztergai hau bere zero puntuan, ez baita hau horretaz aritzeko gunea. Egoera bakoitza bere testuinguruan aztertu beharra dago, hortik kanpora zentzurik ez du-eta.

ETA baitan zergatik gailentzen den hainbeste militargintza 1974an? Jokinek ez du galdera horretaz azalpenik aurreratzen. Nire ustez, bazegoen horretarako baldintza objektibo bat aski nabaria, eta zen, batik bat, Carrero Blanco-ren hilketak –eta ez gutxi horren izaera ikusgarriak–, erdi-mitifikatu bezala egin zuela Erakundeko aparatu militarra eta arrakasta honek, praktikan, militarrek Erakundearen zuzendaritza monopolizatzea ekarri zuela. Irakurketa bat da, eta, seguru asko, partziala.

2. Kultur Adarra

Gaian sartzeko, derragun, hasteko, 1967ko V. Biltzar Nagusiko bigarren zatian esaten denez, ETAREN kultur adarrak indarrean dauden kultur mugimendu aurrerazaleetan –ikastoletan, folkloretaldeetan, antzerki-taldeetan eta–, parte hartzea eta beroriek kontrolatzea du helburu²⁰⁹. Hasieratik bertatik, bada, kultur erakunde propioa sortzea baino gehiago daudenak kontrolatzeko espiritua nagusitzen da Erakundearen barruan. Esandakoren beste froga bat da, 1972az geroztik, Kultur Adarra Langilearen sarean sartuta aurkitzen dela²¹⁰. Datu adierazgarria hau ere. Era berean, 1973ko VI. Biltzar Nagusikoan ere, kulturari buruzkoak ez bide zuen traeta autonomorik izan. Bestalde, FM eta FOren arteko zatiketa burutzen denean 1974ko ekainean, ETAKO kultur esparrua osatzen zuten gehienek ETA utzi egin zuten²¹¹. Hona arterainokoa ezaguna da ETAREN Kultur Adarraren kronikan. Baina bada hainbeste eza-gutuzen ez den barne-historiarik ere.

2.1. Kultur Adarrean, ezkutuko barne-tirabirak lehenago ematen badira ere, 1974ko azken partean agertzen dira kanpora. Hain zuzen ere, izenik gabe datorren baina itxura guztien arabera Jokin Apalategiren luma salatzen duen “Kultur mugimenduaz ikuspegi politiko bat” izeneko *Zabaleko* artikuluan²¹², euskal kulturak azken urte hauetan ezagutzen duen abiada azkarraz ari da, horren

adibidetzat Euskal Herri osoan zehar zabaldu diren kultur mugimenduak aipatuz: alfabetakuntzak, argitaletxeak, aldizkariak, gau-eskolak, gizarte-eskolak, etab. Hazkunde hau, ordea, nahasketa eta desordenu handi baten zurrunbiloan egina izan da, beti ere une bakoitzeko behar larriei erantzun puntualak ematen saiatuz. Horregatik, egilearen ustez, bada anabasa gainditu eta kultur produkzioaren plangintza bat egiteko garaia:

“Honetarako, kultur eta politikazko planteamendu eta programa-keta oso baten beharra dugu. Gaurkoz, nik dakidala, existentziarik ez duena. Esan nahi baita, abertzalego sozialistaren mailan. Zeren, jakina, gure herrian mugitu den eta mugitzen den beste hainbat indar politiko baitan horrelakorik ikusiak baikaude” (Apalategi, 10, 1974, 37).

Plangintza hori egiteko orduan, nondik, nola eta nora jo erabaki beharra dago. Artikulu honetan irizpide batzuk aurreratzen dira, orduan zer-nola pentsatzen zen jakiteko, ongi nabarmentzea komeni direnak.

Lehenik, euskal kulturagintza Hegoaldera mugatuz, ez dira onartzen “euskal ultraeskuineko” nazionalistek agertzen dituzten planteamenduak eta aitzina daramatzaten ekintzak, zeren, egileak dioenez, hauek askotan irekitzen baitizkiote bideak etsai nagusiaren jokoari. ELAkoen kultur praktika eta beste zenbait kultur taldetxo-ren ekintzak burgesia txikiaren interesetan doazela pentsatzen du, eta ez euskal langileriaren funtsezko interesen onetan.

Era berean, baina beste arrazoi batzuegatik, onartezinak iruditzen zaizkio, orobat, beren buruak ezkerreko espainoltzat dauzkate-nen kultur planteamenduak. Hemen kokatzen ditu komunista zein sozialista historikoak eta ETAren zatiketarik eratorritako ultraezkerreko taldetxoak, “LCR-VIa Asambleatik HCE-ra, Minoritarioetatik eta bestetik pasatuz”, zabaltzen direnak. Hauek denak, objektiboki, Espainiako burgesia txikiari joko lotsagabea egiten diote, baina alderdi historikoen aldean arriskutsuagoak dira ultraezkerrekoak, datozen lekutik etorrira, errotuagoak daudelako euskal kulturaren.

Bigarrenik, beraz, emanaz gero eskuineko euskal nazionalismoan zein ezkerreko espainolismoan oinarritutako kultur plangintzak ez direla baliagarriak ezker abertzalearentzat, kontua da, euskal kultura egituratu eta antolatzeke orduan, zein irizpide erabili behar diren zehaztea. Teori mailan, euskal kultura honen norabidea sozialismoan ikusten du egileak:

“Gaur, euskal kultur mugimendu sozialista baten beharra garbi ikustera heldu gara. Esan nahi baita, esku artean erdi espontaneo edo aski indibidualista ditugun lanen koordinaketara, sareetara. Euskal kultur mugimendu sozialista diot, eta ez euskal kultura sozialistaren aldeko mugimendua, azken hau nola teorian hala praktikan ultraezkerreko (azken finean, eskuineko) desbiderazioa baita, ene iduriko. Euskal kultura indartzeko, behar dituen erakunde eta aparatuetan debelopatzeko, egun ez da beste alternatiba efektiborik sozialismo-bidean doana baino. Mugimenduaren norantza dateke sozialista eta ez kultura bera, halatan euskal proletalgoaren eta populu klaseen nazio eta klase interesak eraman baititzakegu aitzina” (Apalategi, 10, 1974, 38).

Euskal kulturaren ezaugarri nagusia, bada, sozialista izatea da, euskal langileriaren aldeko politika abertzalean finkatua legokeena, alegia, zeinak gaudituko baititu, batetik, eskuineko euskal nazionalismoaren kultur jokabide burgesa eta, bestetik, ezkerreko sozialismo espainolaren kultura arrotza.

Hirugarrenik, ez da nahikoa xede teorikoak markatzea, beharrezkoa da praktikan kulturgintzan zein esparru landuko diren zehaztea ere. Egilearen ustez, euskal kulturaren ardatzik garrantzitsuenak, une hartan, ikastolen, alfabetatzearen, aldizkarien eta argitaletxeen inguruan finkatzen dira. Kultur plataforma hauek lirarteke landu beharrekoak, sare hauek koordinatu beharrekoak. Baina, bitxia badirudi ere, gertatzen dena da, sozialista autoizendatzen den ETA erakundea ez dela inoiz serio samar kezkatu izan euskal kulturgintzaz. Jarraiko testu honetan esaten denez, militargintzak oztopatzen du Kultur Adarraren garapena, honi autonomiaz jokatzeko ez diolako, hain zuzen:

“Badakigu denok 1970ean zer-nolako zatidura gertatu zen ETAn. Handik gerorako bilakaera ezaguna dugu. 1971-tik 1973-ra ETA izenarekin abertzale sozialista mugimendu baten indartzea dakusagu. Azpimarratzekoa hau da: delako hiru urte hauetako prozesuan abertzalegoaren eta espainolismoaren arteko borroka biziki markatu duela organizazio osoa, bai bere egituren mailan, bai sortu duen militantearen tipo-motan. Gehiago, borroka hori batez ere Militar Frentearen inguruan soluzionatzen denez (izan ere, jokabide likidazionistak militargintzaren aurka azaltzen baitira), ez da harritzekoa organizazioaren egituretan Militar Frentea gelditzen bada nagusi. Frente honen nagusigoaren pean asmo eta borondate onik ez da falta izan. Gaineratiko Frentek indartuak

izanen zirelako esperantza zabaldu nahi zen. Organizazioaren pisua, ordea, –bidenabar zuzendaritza pisua–, Militar Freteak darama. Hartan, kultur eremuari gagozkiolarik ia dena, dena, dago egiteko (...) Ez da batere harrigarri gertatzen, orduan, gaur Militar Freteak zeharoko hegemonia posizioa erakusten badu organizazioaren egituretan, oker honen errua militante konkre- tuak ezik, zuzendaritza berak ere baduelarik. Gauzak horrela, militartzea eta paramilitartzea ukaezinezko errealitate bat bilaka- tzen da eguneroko praktikan. Bistan gelditzen da, beraz, Kultur Fretearen autonomiarik eza, Frente honetaz mintzatzerik dagoen heinean behinik behin. Egun horrelaxe gabiltza 1973ko VI. Ba- tzar Nagusiaren Lehen Parteak esperantza berriak sortarazi nahi bazizkigun ere –tamaina batez lortu zena–, gaur lehengo bideetara itzuli garela ohartu gara. Iazko udako hitz leunak eta promesa go- zoak ez ditugu lanean errespetatuak ikusi, arras alderantziz baizik. Kultur Fretearen autonomia pikutara bota nahi izan da, kasik la- nean hasi orduko. Hori, gainera kultur mugimendu honen lehen plangintza ia kanpotik eskainia ematen zitzaiola organizazioari” (Apalategi, 10, 1974, 39-41).

Iruditzen zaidanez, pasarte hori ere historikoa da ETAREN garai honetako historian. Baina bere neurrian ulertua izan dadin, ezin- bestekoa da barru-barrutik azaltzea. Hor, pasartearen azken partean, Erakundeari plangintza ia osoa kanpotik emana datorkiola esaten da. Hori esan eta hurrengo paragrafoko oin-oharrean, Irati sailaren kasua aipatzen du, gaur orduan bezain baliagarri den azalpen argi- garri hau ematen duelarik:

“Euskal idazle talde batek Hego aldeko zentsurari ihes egin be- harrezko liburuak argitaratzeko ideiatua. Diru arazoa zuelarik euskal erakundeei laguntza eskatu zitzaien. Laster, hemen orain, aipu den erakundea ordaintzeko eskaini zen. Idazleek beren lanak ezeren baldintzarik gabe eskaintzen zituzten. Irabaziak ala gale- rak, delako erakundearen kargu joango ziren. Idazleei beren lanak argitara ematea zitzaien axola. Guztia martxan jarritik zegoela eta lehen liburua inprimaturik, delako erakunde horretako jaun bat ondoko baldintza hauek jarriaz agertzen da: 1) Lanen autoreek ez dute beren egiazko izen eta abizenekin izenpetuko; 2) Bigarren lanetik hasita aterako diren liburuen aukera eta zentsura delako erakundeko batzorde batek egingo du. Hau horrela gertatuz gero- ko istorio guztiok ezagutzen dugu. *Irati* saileko autoreek, beren autonomia gorde nahirik, diru arazoa berek soluzionatzea era- bakitzen dute” (Apalategi, 10, 1974,40-41).

Baina hemen artikulugilea esanez datorrena bere testuinguru-
an ulertu izan dadin, eztabaidaren hurbileko iturrira joan beharra
dago. Horretarako, goiko aipu horretan, arrastoa emana utzi digu,
bertan esaten baita “jaun” baten inguruan pertsonalizatzen dela
konpenezinezko katramila. Jaun hori, antza, Iñaki Mujika Arregi
da, orduan “Ezkerra” ezizenez ezagunagoa zena. Honek, “ETAko
Komite eratzaila”ren izenean, 1974ko apirilaren 16an, *Irati*ko ba-
tzordeari egiten dion gutunean²¹³, esaten du nola ETAko militante
bati, orduan “Irati-komiteko arduradun bati” –ziur dakigunez, Jokin
Apalategiri–, enkargatu zitzaizola Iparraldean argitaletxe bat sortzea,
horretarako Erakundeak bere baliabide materialak –berorren finan-
tzaketa barne–, jarriko zituela aginduz. Baina ez hutsaren truke;
aitzitik, argitaletxeak nolakoa izan behar zuen ere zehatz-mehatz
emana zetorkion, pasarte honetan zehazten den bezala:

“Kulturazko gauzetan (olerkitza, antzekitza, nobelatza, hizkun-
tzari buruzko lanetan, etab...) oso irekia. Aldiz, politikazko edo
ideologiazko saioetan, nahiko itxia; hots, ETAREN ideologiaren
aurka zihonan lanik ez zela argitaratu behar.

Dirua emanez, militante bat izendatuz, editorialaren nolokotasu-
na itxuratuz, ETA-k zuen sortarazten editoriala. Baina, ez sorta-
razten eta diruz atxikitzen bakarrik, garbi zegoen ETAK, haurtxoa
nola hazi eta heziko zela begiztatuko zuela ere.

Horretarako, hein bateraino behintzat, eta ideologiari zegokionez
bereziki, Erakundeak editorialaren ibilera zuzendu behar zuenez
gero, ETAko arduradun batek izendatutako militante delakoari,
zenbait kontrola-bide ezarri behar zela esan zion. Arduradun ho-
rrek hona nola ikusten zituen gauzak:

– Bi urtetako epe baterako, BT-ak aipatzeko eta sakontzeko in-
teresgarriak ziren gaiak ematea, Editorialak besteak beste gai haie-
tara jo zezan ahalik eta gehien;

– Argitaratzeko ziren liburuak, Erakunde osoa ordezkatuko zuen
komite batek ideologia aldetik aurretik onartuak izatea.

– Militantek egindako ideologiazko liburuak, izen goiti batez
izenpeturik argitaratzea, eta ez egiazko izen-abizenez. Hori, Era-
kundearengan, nortasun-kulturik sor ez zedin eta ez eta ‘dirigis-
morik’. Erakundearengandik kanpoko jendeak egindako ideolo-
giazko saioei zegokienez ez zen ezer esana izan” (Aipatu gutunetik
hartua).

Normala iruditzen zaio ETAko arduradun horri Erakundearen
izenean horrelako kontrol-neurriak ezar ditzan. Honen arrazoia da,

berak ordaintzen duenez gero, baldintzak ezartzeko aginpidea ere baduela. Bestalde, liburuak beren egiazko izen-abizenek ez izenpetzeari dagokionez, hau esanez arrazoitzen du:

“Zabaldu eta ezagutarazi behar diren gauzak dira ideiak, eta ematen diren ideiek zerbait baldin badute orduan hartzen da fama. Izena pentsa-moldearen sinboloa besterik ez da: obraren balioa du izenak, ez gehiago” (Aipatu gutunetik hartua)..

Azken batean, finantzaketaren erosotasuna ala autonomiaren izerdia hautatzeko orduan, Irati argitaletxeak intelektual batek beharrezkoen duen pentsamendu-askatasunaren aldeko apustua egin zuen. Jokin Apalategik eta Paulo Iztuetak ikur horrekin kaleratu zuten beren lehen liburua, *Marxisma eta nazional arazoa Euskal Herrian* deitua, izen-abizenekin, 1974ko hirugarren hilabetekoan. Orduan ezarri genuen, *Zabal* aldizkaria bidean jarri eta gero, euskal pentsamendua lantzeko plataformaren lehen harria, argitaletxearena, alegia, gero jadanik bideratua zegoen Iparraldeko Elkarrekin bat egingo zuena, bertan urtuz. Arazoa orduan piztu zen, sutu ere bai, baita garaiz itzali ere, guztion onerako.

Nolanahi ere, *Irati*-ren proiektu autonomoaz nahasketarik egon ez dadin, orduko arazo hartan bi abiapuntu desberdinetatik egingdako jarrerak bereizi behar dira, nahiz eta emaitzetan helburu berera heldu izan. Izenik gabeko egilea –ETAko arduradunaren aginduak jasotzen zituen Jokin, alegia–, Erakundearen barrutik mintzatzen da, gertakariak barrutik ezagututa, eta berak kultur plataformaren antolaketa eta, kasu honetan zehazki argitaletxearena, nola ikusten zuen aztertzen du. Badirudi bera prest agertzen dela Erakundetik at dagoen ZABAL-IRATI-ren proiektua Erakunde barruan txertatzeko, baina autonomia osoarekin jokatzeko baldintzarekin. Baina zuzendaritzan militarrek agintzen dutenez, proiektua finantzatzekotan, kontrola ere beren esku nahi dute. Finantzaketa ala autonomia, azken batean maila honetan planteatzen baita arazoa, horren kariaz gertatzen da etena. Erakundeak, bere aldetik, Hendaian daukan Mugalde inprimategiarekin segituko du, J. L. Navarro eta J. Ereño (Pelos) arduradun direla, eta handik aurrera, *Zabalen* paraleloan, *Hitz* aldizkaria bultzatuko dute. Plataforma hauek, bai, organikoak izango dira Erakundearen barruan. Testuinguru horretan kokatu behar dira artikulu horretan datozenak.

Niri dagokidanez, 3. atalean aurreratua daukadana osatzeko, esan dezadan, Erakundeko jendearekin zuzeneko harremanak banituen arren, ez neukala loturarik eta, beraz, libreago egiten zitzaidala neure ikuspuntu pertsonalen arabera jokatzeko. Horregatik, ezker abertzalearen ildotik kultur plataforma –bereziki, pentsamenduaren lanketarena, aldizkari eta liburuen bidez sortu eta bideratzearena–, erabat Erakundetik at egin beharrekoa zela garbi ikusi nuen nik haste-hastetik. *Zabalek* sortze-egunetik beretik hasita, beti gorde izan du bere autonomia propioa. Erakunde-barruan sortutako eztabaidak izan, geroztikoak dira, jadanik *Zabalek* urtebeteko emanaldiak kaleratuz geroztikoak.

Dena dela, euskal kultura euskal abertzaletasunaren ikuspegitik begiratuta bultzatu nahirik genbiltzan une hartan, argitaletxe berri baten plangintza sortu genuenean, nahiz eta maila pertsonalean Erakundearekiko egoera desberdinean egon, biok, hark barrutik eta nik kanpotik, zerbait garbi geneukana haxe zen: kulturgintzak, beronen esparru guztietan, autonomia osoa behar zuela eta intelektualek, halaber, erakunde politikoen aurrean askatasun osoz jokatu behar zutela. Kontua, beraz, ez zen alderdi edo erakunde politiko batek, kasu honetan ETAK, bere kultur plataforma propioa izatearena ala ez izatearena, ezta, finantzatzearren truke, berori kontrolatzearena ere. Hau arazoaren alderdi bat besterik ez da, artikulua horretan planteatzen dena, hain zuzen. Hortik aparte, eta maila sakonago batean –eta hemen nire baitarik ari natzaizue–, ezein alderdi edo erakunderekiko lotura organikorik ez zuen kultur plataformaren antolaketa zegoen jokoan, zeinetan idazleek, plataforma horretako aldizkari edo argitaletxe baten norabide orokorrekin ados zetozen heinean, edozein gai modu kritiko, hotz, ireki eta aske batez harrotu eta aztertzeo parada baitzuten. Pentsamenduaren lanketa horrela diseinatzean, bistan da, espiritu kritikoa lantzea lehenesten da, zeren edozein erakunderekiko lotura organikoak, epe laburrera ez bada luzera, azkenean mirabekeriaren saria baitakar.

3. Langile-Adarra

Adarren arabera egituratutako ETaren ohiko antolaketa pixkanaka deseginez nola etorri zela ikusi da sarreran. *Zabalen* prozesu

horren zati bat bakarrik agertzen da, LAIAri dagokiona, hain zuzen. Kultur Adarrean aipatutako tirabirak eman eta gero, 1975eko urtehasieran kaleratzen da lehen aldiz aldizkarian Langile-Adarrean lehertzen den izaera bereko krisiaren albisteak. Gertakariak katean datoz bata bestearen segidan.

1. Joxe Manuel Odriozola “Izarreko”²¹⁴ pozik sentitzen da ETak antolaketa frontistaren inguruan egiten duen autokritikaz, zeren, ETak 1974ko azaroan ateratako Agirian, espresuki aitortzen baitu Erakundea “organizazioari buruzko nahasmenduaren etsenplu garbiena” izan dela. Egile hau ere erabat bat dator lehen Jokinek esandakoarekin: “militar ideologia nagusitzen zela organizazio honetan, beste ooren gaitetik” (Odriozola, 11, 1975, 24), alegia.

Autokritikak ongi daude, baina ez da nahikoa. Hutsik dauden adarrak fruituz bete behar dira. Haren ustez, kultur mailan, EAJren eragina geroz eta nabarmenagoa da; langile-mailan, beste horrenbeste. ORT Nafarroan, MCE Gipuzkoan eta LCR-VI Asamblean ikasleen artean, ETari lurra janez datozkio. Erakundea jabetu da, bai, Adar bakoitzean zereginik aski baduela; asmoak obratzea da eskas.

Baina nola obratu? Indarrean daukan antolaketa frontistak, zeinetan militarrek nagusitzen baitira, ahalbidetzen ote du euskal langileria ikuspegi abertzale batetik begiratuta antolatzea? Borroka armatua ote da euskal iraultzaren azken bermea, burgesiak irents ez dezakeen arma bakarra?

Egileak militarren iritziak aztertzen ditu, diotenak demokraziak ezin dituela euskal langileen helburuak bete eta, beraz, euskal iraultzaren azken xedeak betetzeko geratzen den bide bakarra –burgesiak asimila ez dezakeen bakarra, alegia–, borroka armatua dela. Harenztzat, ordea, politika sozialista batean, zeinetan kontrajarriak daudenak langileria eta burgesia baitira, borroka armatuaren egitekoa ez da oinarritzakoa. Ez dela horrela frogatzeko, honela arrazoitzen du pasarte honetan:

“Jakina ba, euskal langileriaren helburuak ezin direla bete bide horretatik. Bide hori ez baita edozein demokraziaren bidea, burges demokraziarena baizik. Baina, geroxeago dioenarekin ezin gaitzke ados egon. Zeren eta burgesgoak bere klase interesak zaintzeko, aurrez aurre daukan etsaia ez baita azken finean borroka armatua, politika sozialista bat baino, populuaren interesak oro har eta proletario-interesak bereziki zainduko dituen politika

sozialista bat hain zuzen. Izan ere, ezin daiteke esan besterik gabe, burgesgoak borroka armatua hein batean irents ez dezakeenik bere politikagintzarako. Irents ez dezakeena hauxe da, batere ez-bairik gabe: proletario-politika bat, hau berez, burges politikaren etsairik nagusia denez gero. Ez da zilegi alegia, Euskal Estatu Sozialista bat lortzeko azken garantia, borroka armatua dela esatea. Azken garantia hau, borroka armatua ez baino borroka armatua bere barne duen politika sozialista bat da eta. Azken finean, politika da militar arloari nagusitzen zaiona eta hau ahan-tzi ezina da. Militar arloa politik helburu batzuk lortzeko izan daiteke ezinbesteko, baina honek ez dio militar arloari iraultzaren bilakabidean azken funts eta mugatzaile nagusi izateko nagusigo-rik ematen. Gerla mota bat politika mota baten ondorio eta fruitu da, ez alderantziz” (Odriozola, 11, 1975, 25).

Aipu horretan, bada, zorrotz kritikatzan da ETAk borroka armatuaz egiten duen irakurketa. Egile honentzat, ohar gaitzen, euskal iraultzaren baitan, zeinetan auzitan baitago independen-tziaren aldeko kausa determinatzailea, kontraesan nagusia politika sozialista eta burgesaren artean erabakitzen dela. ETAREN akatsik na-barmenena, Kultur Adarrean bezala, Langile-Adarrean ere zabarkeriarena izan da, hots: “masa-ekintzetan ez dutela sobera sinetsi eta, horri horrela, egiazko ideologia sozialista baten aurka doan beste batean murgildurik zebiltzala” (Odriozola, 11, 1975, 27). Aurreko historia halakoxea izan bada ere, espero du aurrerantzean izenez ez baino izanaz politiko gisa ageri diren ETako militarrek urrats handi bat emango dutela euskal langileria autonomiaz antolatzeko bidetik barna; ez horrela politiko-militarrekin, nahiz eta hauek izenez poli-tikoak autoizendatzen diren.

2. Joxe Manuel Odriozola “Izarreko”^{k215}, urte bereko hurrengo zenbakian, pozik ospatzen du LAIA (Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia) erakunde berriaren jaiotza, euskal langileriaren interesak defendatzeko sortua, bere burua honela definitzen duena:

“Gure nahia proletalgoaren abangoardia bilaka dadin da. Baina kanpora horrela azaltzea, ezker ‘intelektualkerian’ erortzea izanen delarik, proletalgoaren interesak defendatuko dituen eta bere Al-derdi bezala bilakatzen doan klase organizazio bat bezala defini-tzen gara” (Odriozola, 11, 1975, 14).

Eta pasarte honetan are zehatzago:

“Euskal proletalgoaren interesen alde burrukatuko den Alderdi bat sortu nahi genuke. Klase honen ordezkari politiko bat. Ez ordea, zenbait ‘profesional’ hartu eta haiekin osaturiko bat, proletalgoaren sail zabaletan oinarriturik txauturiko bat baizik” (Odriozola, 11, 1975, 15).

LAIAREN hasierako asmo zintzoak beude hor, berdin lorpenak, norbaitek aztertu nahi baditu. Guk hemen egingo dugun lehen oharra da, azkenean, berriro ETAREN alboan, ez barruan, antolatzen dela langile-mailako erakunde hau. Jadanik Langile-Adarra erabat zartatuta ageri da.

J. M. Odriozolak, bere aldetik, LAIAREN sorburuaz eta bilakabideaz gogoeta batzuk aurreratzen ditu eta horiek jasoko ditugu, beren garrantzia badutelakoan. Lau puntuok harrotzen ditu:

Lehenik, euskal proletalgoaren orduko egoera zein den deskribatzen du. Baina hori egin, LAIARI hitza emanez egiten du, bera bertako taldekidea baita. Euskal langileriaren interesak defendatzeko erakunderik ez dagoelako sortzen da eta, ideologia gisa, Burgosko auzipetuek egindako eskutitzean inspiratzen da, hor esaten baita Langile-Adarra Euskal Langileen Alderdia izatera deitua dagoela. Zoritxarrez bost urte itxaron behar izan da Burgoskoen ametsa bete zedin. Azkenean, LAIA, hemen esaten denez, ETAREN Langile-Adarra izandakotik sortua da, handik dator, baina, sortzeko, ETAREKIN eten egin behar izan du. Hau da daturik garrantzitsuen, LAIAREN sortze-agirian irakurtzen dena.

Bigarrenik, langile-erakunde berrian militantziak eta teoriak duten garrantzia aipatzen ditu. Errealitatea ezagutzeko metodo zientifiko gisa, marxismoa onartzen da, berori ETAK V. Biltzarrean (1967) mugatuko zentzuan ulertuta. LAIAKO militantziak teori mailan ongi prestatua egon behar du, baldin langileriaren borroka bide onetik eramango bada, eta horretarako, marxismoa ezagutzeaz gain, euskal nortasunaren ezaugarri historikoak ere ezagutu eta aintzat hartu behar dira. J. M. Odriozolak berak, marxismoari dagokionez, ontzat dauka L. Althusser-en ikuspegia, espresuki aipatzen duena.

Klasearteko borroka Euskal Herrian naziotasunaren ezaugarria hartzen du eta alderdi hori du bereizgarri. Klasetasuna eta herritasuna nola elkartzen diren, ordea, ez da esaten. Badirudi herritasuna klasetasunean barneratuta dagoela.

Hirugarrenik, euskal iraultzaren norakoa klasearteko borroka zertzen duenez gero, masa-ekintzen ikuspegi “aglutinatzailea” alde

batera utzi-eta, horren lekuan “herri frentez” hitz egingo da. Honekin aditzera eman nahi da, euskal gizartearen testuinguru berezian, nazio-interesek eta klase-interesek bat egiten dutela eta, maila batean bederen, nazionalista iraultzaileak, proletarioak izan ez arren, interes monopolisten kontrako herri-fronte horretan kokatzen direla. Azken batean, mugarría, izan, klasetasuna da: hots, “euskal proletalgoa”.

Laugarrenik, LAIAk borroka armatuaz duen ikuspegia azaltzen du. Erakunde berriarentzat, gaindituak daude gutxiengo batek burututako ekintza armatuak. Honek subjektibismoan jaustea lekarke, ez herri-armada eraikitzen jardutea. LAIAk ez du bazterten borroka armatua, ezta onartzen ere, besterik gabe eta nolanañi. Onartzen du, bai, baina baldintza batzuen koordinadetan. Zehatzago esanda, borroka armatuak masa-ekintzara zuzendua eta honek gidatua izan behar du. Masa-ekintzen laguntzaile den neurrian bakarrik onartuko da, bada, haren egitekoa.

J. M. Odriozolaren artikulu hauxe da LAIAz *Zabalen* egiten den lehen aurkezpena, lehen gogoeta, nire ustez garrantzi handikoa, izenpetzailea bera izan baita erakunde honetako militante historikoetako, 1980ko hamarkadan Gipuzkoako Biltzar Nagusietako ahdun hautatua.

3. Arestian, LAIA zergatik eta zertarako sortzen den azaldu dugu. Baina kritikaren euria luzaro gabe, hurrengo zenbakian bertan, jausi zen naro-naro *Zabaleko* orrialdeetara. “Mikel” (Urteaga)²¹⁶, alde, LAIAren zenbait punturekin ados dator, baieztatzean borroka armatua plangintza politiko baten barruan kokatu behar dela eta politika horrek, bidenabar, langileriaren interesetan oinarritua egon behar duela. *Sugarra* aldizkariari egiten dizkion kritiken artean bat, oinarritzkoena, hauxe da: hots, euskal proletalgoarena sobera idealizatzen dela, honen esku utziz iraultzaren egiteko guztia eta, alderantziz, ez dela behar adina kontuan hartzen euskal burgesia ez-monopolistaren zeregina nazio-arazoan. Mikelen ustez, ordea, biek dute beren eginkizun espezifikoa baina berezitua, zeren, bere hitzekin esateko (Urteaga, 13, 1975, 12), “proletario-programa gizarte sozialistaren arauz egina den bitartean, burgesia ttipiarena interes antimonopolist (liberalak) eta demokrazia formalarena den hartara murrizturik eta mugaturik datza”. Horregatik, burgesia monopolistari aurre egin ahal izateko, burgesiarekin aliatuta jokatu be-

harra dauka proletalgoak. Herritar klaseen arteko aliantza horixe da, hain zuzen, *Sugarra* hain garbi finkatzen ez dena.

4. Hurrengo zenbakian, “Iparreko zenbait”ek²¹⁷ izenpeturik, *Sugarra* lehen zenbaki horretan bertan datorren lehen pasarte hau kritikatzeko da:

“Alabaina, Ipar Euskadin agertzen zaigun kontraesanik bereziena zera dugu: hemengo euskal taldea ‘komunitatea frantziar burgesiari kontrajarria dugula. Eta gaur-gaurkoz honek zera eskatzen du: Ipar Euskadi Frantziako erresuma barnean dauden herrien kontestu iraultzailean sartu beharra, bere ibilbide berezia ukatu gabe. Ipar eta Hegoak, elkar lagundurik joan behar dugu helburu bat beraren (klaserik gabeko Euskadiren) atzetik. Eta horretarako derrigorrezkoa zaigu bi bioi Erresuma sozialista bat bertan elkartzea, bat egitea” (Iparreko zenbait, 14, 1975, 4).

Aipu horretan datozenak puntuz puntu kritikatzeko saiatzen dira Iparraldeko abertzaleak.

Lehenik, talde honetakoei Ipar Euskal Herriaren egoera historikoa ez dutela hain ongi ezagutzen esan ondoren, eta J. Stalin-ek nazioak eskaintzen duen definizioan oinarrituta, baieztatuko dute “Iparra, Hegoa bezain Euskadi dela”, nahiz eta zehazten duten, hori bai, horietako bakoitzak, estatu-asimilazioari dagokionez, bilakabide historiko berezia izan duela: hots, Frantziako estatuak leunki eta gozoki alienatu duela Iparra; Espainiak, aldiz, zakarki eta basaki Hegoa. Beraz, bat-bera den euskal komunitatearen barruan, Iparra eta Hegoaren artean legokeen diferentzia bakarra, bilakabide historikoari buruzkoa izanen litzateke, estatuak bakoitzari ezarritakoa, alegia.

Bigarrenik, galgarri eta likidazionistatzat jotzen dute, *Sugarra*-koek dioten bezala, “gaur-gaurkoz (...) Ipar Euskadi, Frantziako erresuma barnean dauden herrien kontestu iraultzailean sartu beharra”, zeren Frantziako ezkerreko alderdiek, nahiz horien artean zenbait –adibidez, PSU–, euskal arazoa ulertzen dutenak badiren arren, Iparraldean euskaldunak ez balego bezala jokatzeko baitute, hala nola komunistek eta sozialistek. Hauen politikan sartzeak, beraz, Ipar Euskadi frantsesestea suposatuko luke.

Hirugarrenik, Ipar Euskadiren “ibilbide berezia” ukatu gabe Frantziako politika iraultzailean sartu izan diren taldeen jokabide praktikoa zer-nolakoa izan den ikusita, konstatatzen dute, azke-

nean, horiek denek, internazionalismoaren izenean, euskal kultura eta euskararen sustapenerako sortutako erakundeak –hala nola Ikas-tolak–, gutxietsiz bukatu dutela. Arrazoa? Kultur jarduera horiek burgesak omen.

Ipar Euskal Herriko talde kritikatzailer honen jarrera politikoa, beste hau da: ez Hegoak ez Iparrak, bakoitzak bere aldetik, estatuaz jabetzeko gaitasunik ez dutenez gero, nahitaezkoa da maila taktikoan akordioak izatea estatuko beste herrietako indar aurrera-koiekin; maila estrategikoan, ordea, Iparrak eta Hegoak, kontuan hartuta komunitate bat-bera osatzen dutela, elkartuta jokatu behar dute, euskal estatu sozialista bati buruz biek batera euskal politika eginez eta elkarri lagunduz. Hori bai, beti ere politika komunaren barruan jokatuz, testuinguru bakoitzean taktika berezia eramango da.

Gure aldetik bihoa azken ohar bat oraindik: esan bezala, LAIA Langile-Adarreko zati batek sortzen du Erakundea utziz; LAB, aldiz, Erakundeak berak bultzatua da barrutik eta, beraz, etenik gabe. Bakoitzaren sortze-mota desberdindu honek asko baldintzatuko du berorien ondoko historia, zeren hura desagertu zen bitartean, hau, gaur egun, osasun betean aurkitzen baita. Argi dago identifikazio-arazoak –kasu honetan etenarenak–, bere ondorioak dakartzala. Zorte bera izan zuen arrazoi beragatik Erakundea utzi zuen EKMS (Euskal Kultur Mugimendu Sozialista) delakoak ere²¹⁸.

4. Adar Politikoa

Langile-Adarraren zatiketa gauzatu zen 1974ko III. Biltzar Ttipi hartan bertan, antza, Eduardo Moreno Bergaretxe (Pertur) izan zen korrante ideologiko politiko-militarraren bultzagileetako bat. Beraz, elkarri nahikoa josiak doaz Langile-Adarra, Kultur Adarra eta eta Adar Politikoa arteko arazoak. Azken honek militarren eta poli-milien arteko zatiketa ekarriko du. Zentzu honetan, bada, dakartzan ondorioengatik, erabakigarria gertatzen da III. Biltzar Ttipi hau zentzu askotan. Poli-milien *Hitz* aldizkarian esaten denez, “Pertur” poli-milien ordezkari gisa mintzatzen da bertan.

Beraz, lehen hiru adarretan etenak eta zatiketak gertatuz datozen aldi bertsuan, azkenean, Erakundearen zuzendaritzan bertan,

zeinetan militarrek nagusitzen baitira, ondorioetan erabakigarriena gertatzen den militarren eta politiko-militarren arteko zatiketa burutzen da 1974ko urrian egindako Biltzar Nagusian. Hemen ez goaz zatiketa honen inguruko arrazoiak historiatzera, lehenik, ez datorrelako horri buruzko daturik *Zabalen*, eta, bigarrenik, gertakari honi buruzkoak beste lan batean aztertzeakoak direlako.

Dena dela, *Zabalera* etorriz, badakar aipamenik Joxe Manuel Odriozola “Izarreko”k ETA militar eta politiko-militarren arteko eztabaidaz²¹⁹. Erakundearen antolaketari buruz talde horietako bakoitzak dituen ikuspegi eta arrazoiak azaltzen ditu, guk, hobeto kontrastatzeko, proposamen eta kontraproposamen gisa, zutabe banatan jarriko ditugunak:

Politiko-militarrak	Militarrak
<p>“– Herrialdeen heienean, adar guztientzat, zuzendaritza bat baizik behar ez dela; zuzendaritzan arduradun bat izanik, edo gehiago nahi bada, baina orduan elkarrekin aski lotuak, egoera aztertzeko eta itxuratzeke orduan, ikusmolde bat eduki dezaten.</p> <p>– Langile-adarreko militanteek, adar guztien burua den arduradunaren zuzendaritza pean egonez, Erakundearen eginbide guztietaz (militarretaz ere) jabetuko direla eta berdin, noski, militarrek beste adarretaz”.</p>	<p>“– Orain arte, arduradunek adar bat bakarrik ez bazuten ondo organizatzen ahal, nola, bada dituzte organizatuko adar guztiak, denak batera?</p> <p>– Zapalkuntzak hain gogorki jo bagaitu orain arte, adarren autonomia eskasagatik izan denez gero, zer gertatuko litzake arduradun bat edo zuzendaritza bat baizik baldin balego”.</p> <p>– Egitura politiko-militarra elitista da guztiz, eta gaur egun, ETA-k zer-nolakoa den ikusirik, halako egitura bat onartuz, ez lezake parterik har legalitate demokratikoan. Baina orduan, zergatik ez ondorio guztiak atera, Erakunde osoa militar-adarrean bilduz?”</p>

Egileari, orokorrean, zuzenak iruditzen zaizkio ETako militarrek politiko-militarrei zuzentzen dizkieten argudioak, ez baitu inolaz ere ulertzen nola arduradun batek hiru alor batera landu ditzakeen. Baina, aldi berean, ETako militarrekin ere jarrera kritikoa agertzen du, batik bat, dioenean ez duela egin izan euskal errealtateari buruzko azterketa politikorik. Bere ustez, ildo estrategikoak zuzen finkatu ahal izateko, beharrezkoa da alde aurretik analisi teorikoa egin eta praktika politikoa horren gainean egitea. Alderdi hauxe luke ahulenik ETak.

Honaino heldu dira *Zabaleko* orrialdeetan agertutako ETaren antolaketari buruzko gogoetak. Gu horiek ahalik eta fidelen jasotzera mugatu gara. Noski, *Zabalena* ez da iturri bakarra, baina bai, alde edo kontra egon, ezinbestez ustiatu beharrekoa.

LAUGARREN ZATIA

*Kultura, hezkuntza,
gai berriak*

XI

Euskal kulturaren soziologiaz

Zabalen hitzaurrean datozen asmoak azaltzerakoan, azaldu genuen aldizkaria bideratzera eramán gintuen sakoneko arrazoia kultur kezka izan zela, ezker abertzalearen baranoan euskal pentsamendua lantzea eta horren inguruan kultur mugimendu ahalik eta zabalena antolatzea. Egiteko hauen bidean gauzatuko dira *Zabal* eta Irati-ren asmoak, biak hasiera-hasieran zeudenak.

Lehendik ere erabilia zen euskal kulturaren gaia. Hurbileko tradiziora joanda, Federiko Krutwigek, 1960ko belaunaldiko hainbaten gogo-eskemak pitzarazi zituen *Vasconia* liburuan²²⁰, euskal pentsaera eta kulturaz luze ihardun zuen, horien ardatz gisa euskara ezarriz. *Jakin* aldizkari-liburuak²²¹, 1968ko 29. zenbakian, utopia orrazten ibili gabe, “errealismoz begiraturik europar kulturaren inguruan ta barrutian euskal kultura bat gauzatzen saiatuko” zela agintzen zuen bere editorialean. Euskal kulturaz gogoetak egin-eta, aldi berean, euskal kultura landu nahi zuen. Urte berean, euskalduntasunaren kontzeptua hizkuntzatik harago zabalduz, *Euskal Herriko hiru hereje* izenpean, Pio Baroja, Miguel Unamuno eta Jose María Salaberria erdal idazleak euskal kulturán sartzen dira. Editorialean esaten denez, “98’garren belaunaldiko euskaldun” intelektual hauen idazlanak, “nahiz ta erderaz egiñak izan, euskal-pentsakera daramate eta euskal-gaiak ikuitzen dituztenean, euskal-giroak eragiñak dira dudarik gabe”. Euskararen alde nahiz kontra egin, Euskal Herrikoak dira eta euskal munduan parte hartzen dute. Horien euskalduntasuna onartzen da, nahiz azkenean aitortzen den, oraingoan Koldo Mitxelena-rena jasoz, “erdaraz egingo luken Herria ez litzake(ela) Euskal-erria izango”²²². Euskararik gabeko euskalduntasuna ulertzea zaila baita, beharbada errotzat “euskal” atzizkia daramaten kontzeptuen inguruan nahasketa handiegia dagoelako,

—edo zuzendaritza puntu horretaz jabetu zelako, agian—, hurrengo urteko 34. zenbakian, saio monografiko bat eskaintzen zion euskal kulturari, zeinetan uhin berriko egile batzuek²²³ kultura orokorrean eta bereziki euskal kultura zer den mugatzen saiatzen baitira. Azken testu kolektibo honetan lehen eztabaida baterako gogoeta solte eta probetxagarri batzuk aurki daitezkeen arren, esan behar da zehaztapen kontzeptualak behar adina argitzeke geratzen direla.

Bestalde, euskal produkzioaren gaia erabili izan denetan, gehienbat literaturaren eta linguistikaren aldetik erabilia izan da. Ikuspegi horretatik begiratuta eginak izan dira bai Koldo Mitxelenaen bai Luis Villasanteren ekarpenak eta, gainera, gehienetan gaztelaniaz; ikuspegi berarekin eginak, halaber, *Euzko-Gogoan* zein *Eginen* argitaratutakoak, baina hauek euskaraz. Hor badago alderik. Beraz, euskal kulturaren soziologiarik ez da ezagutzen. Zentzu honetan, lehen ekarpenak *Zabalen* datozenak dira, beharbada oraindik heldugabeak, baina norabidea markatzeko adina balio dutenak, zantzarik gabe. Geroago etorriko diren saioetarako oinarri teoriko eta metodologikoak finkatzen dira, beren iturria Europan eta, bereziki, Frantzia garai honetan lantzen den soziologia kritikoa dutenak.

1. Euskal kultura erbestetuaren aurpegia

Zabalen sorrera-zergatikoez jabetzeko, Paulo Iztueta “Meakaberri”ren bi artikulua dira oinarritzkoak, “Aintzin-Solas”a baino lehen idatziak, zeinak, bi zenbakitan argitaratuak badatoz ere, jatorriz testu bakarra zen bi emanaldi baizik ez baitira, luzapenaren arrazoiarengatik banatuta emanak lehen bi zenbakietan. Bertan *Zabal* aldizkaria sortzeko zeuden arrazoiak formulatzen dira, garai hartako ataritik azken urte haietako euskal kulturaren bilakabidea nola ikusten genuen aztertuz, beti ere ezker abertzalearen ikuspegitik begiratuta. Hori da horien muina. Dena dela, esanak ez errepikatzearren, diogun lehen bi ataletan agertutako euskal testuinguru soziopolitiko eta ideologikoaren barruan kokatu behar dela hemen espezifikoki euskal kulturaz dakarguna.

Lehen artikuluan, “Egungo kulturaren hildotik” izenekoan²²⁴, euskal kulturaren gainean diagnosi moduko bat egiten da. Goazen puntuz puntu.

1. 1. Gerrate ondoko euskal kulturaren bilakabide historikoan, alde batera utzita gerrate aurreko belaunaldikoak, hiru aro gisa bereizten dira.

Honela, lehenik, 1936ko gerratearekin zuzenean zerikusirik ez duen belaunaldi berriaren abiapuntua ematen da, honi data bat ezarri behar-eta, 1955-1960 urte-bitarte horretan finkatzen dena. Lehen aro hau, ETA erakundea sortzen den eta komentu-aldizkariak –bereziki, *Jakin*–, argitaratzen hasten direnekoa da. Belaunaldi honi komentuala deitzen diogu, zeren une honetan bideratzen den kultur mugimenduak, funtsean, bere epizentroa komentu eta seminarioetan baitu:

“Matxinada hau batik bat ekintza politikoan itzultzen da, baina, une berean, politikagintza hura hertsiki loturik zetorren kulturaren kezkarekin. Alderdi kultural honen oihartzunak, berriz, fraidetegietan eta seminarioetan jasotzen dira kutsu berezi batez. Zentzu honetan esan dezakegu lehen mugimendu honen hastapenak, idazten hasten den gazteria multzoari gagozkiola bederen, komentualak direla. Ikusi besterik ez dago nun argitaratzen diren aldizkari berriak, bata bestearen segidan, hor 1959-1960 aldera” (Iztueta, I, 1973, 53).

Produkzio hori, jakina, klerikala zen. Ezin zitekeen bestelakoa izan, zeren euskal gizartea bera ere, artean, frankismoari zerion nazional-katolizismoan eta eliz hierarkiak ezarritako integrismoan oinarritua baitzegoen.

Horregatik, kultur mugimendu horren espiritua funtsean klerikala zelako, hain zuzen, –ez horregatik herririk gabekoa–, bigarren epealdian, espiritu laikoan hezitako belaunaldi berriko gazte hiritarrek –produkzio klerikal horren berri zutenek–, hura garbiki gaitzesten ez bazuten ere, garrantzirik ez zioten ematen. Honela, komentuetako kultur mugimendu orokortu horren alboan –eta, agian zehatzago esanda kontrakarrean–, beste kultur mugimendu bat eratzen da, hortxe 1960ko hamarkada-hasieran, gizarte-giro hiritartu eta laikotik datorren gazte-andana batek gidatzen duena. Talde honen berri jasotzen da pasarte honetan:

“1960-1965 aldera, beste kultur mugida bat sortzen da. Uhin gazteago honen bultzada estrakomentuala da, edota hein handi batean seminarioak husten hasten direnekoa. Herri-arazoez gehiago politizatuago agertzen da, han-hemengo ideologiez jantziago. Multzo honek, euskal kulturgintza gehienbat literatura erlijiosoan

ematen dela ikusirik, bere gain hartu nahiko du epe honetako kultur gintzaren gidaritzaren ideologikoa. Kultur teokratikoaren kontra bozak entzuten dira. Euskal kultura, halaber, deuseztatu eta klerikoen eskuetan geldituko dira oraino” (Iztueta, I, 1973, 53).

Azkenik, erdiko mugarriztat Burgosko auzia duela, 1969tik 1973ra doan hirugarren epealdi horretan, lehen bi mugimenduak gaintzen dituen beste kultur giro berri bat egituratzen da, zeinetan, hertsiki pentsamendu laikoaren eta erlijiosoaren artean leudekeen kontraesanen gainetik eta barrutik, erakunde eta mugimendu politikoen inguruan kultur talde ideologizatuak aurkitzen baitira. Politikak hartzen du, bada, lehen ideologiak zeukan kontraesan nagusiaren lekua:

“Egun 1973an, eta bereziki 1969. urteaz gero, mugimendu bizkorra bezain ausarta nabari da euskal pizkundearen alde. Epe honetan talde kulturalak sortuko dira. Kultur giro bakoitzak bere aparatutxoak ukanen du. Erabiliko den bibliografia batik bat atzerrikoa da. Talde berezien joerak gero eta zehatzago definituko dira. Euskal arazoa, oraingoa, nazioartekotu egiten da. Herritasunaren elementu determinatzaileak pentsaera mota nagusienaren kredoetara mugatzen dira. Egun ere honetan gara” (Iztueta, I, 1973, 53-54).

Zabalen sorrera, hain zuzen, azken epealdiko kultur giro politizatu bezain polarizatu honek eragiten du, zeinetan ETÅren inguruko ezker abertzaleak ez baitu bere plataforma autonomorik.

1.2. Baina zein da 1970eko hamarkada-hasieran euskal kulturaren egoera? Segun eta nondik egiten den egoeraren azterketa hori, barrutik ala erbestetik, ezkerretik ala eskuinetik, bistan da, balorazio desberdinak egingo dira. Guk erbestetik begiratuta, testuan datorrenaren arabera, garai hartako euskal kulturaren egoerari buruz ikuspegi aski zehatza agertzen genuen. Hiru puntu nabarmen-tzen genituen orduan.

Lehenik, estatu-zentralismoak eragin eta gauzatutako kultur asimilazioa kondentzen genuen eta, zentzu honetan, euskaraz egindako produkzio osoa fermuki goresten, izan zedila ideologia batekoa zein bestekoa:

“Gure Herriaren aurpegia, oro har, deuseztatua eta ukatua delako hain zuzen ere, maila orotako zapalkuntza honen ildo beretik

berreraiki nahi dugu Euskadiren jabegoa. Beraz, frantses hala espainol asimilazionismoaren kontra ari diren euskal kultur ahalegin guztiak ontzat hartzen ditugu, gure Herriaren egoera honetan. Areago: beharrezkotzat” (Iztueta, I, 1973, 54).

Planteamendu honetan, bada, bigarren maila batean geratzen dira euskal kultur talde desberdinen arteko kontraesanak, tirabirak, edozein motatakoak. Euskaraz sortzea da kontua.

Bigarrenik, euskal kulturaren beharrak legalitatearen esparrura mugatu nahi izatea salatzen da. Oraindik zehatzago esanda: legalitatearen ontasunean babestuta, euskal kulturaren profesionaltasuna aldarrikatzen zutenen jarrera kondenatzen da, eta kondenatzen da ez xede hori, berez, desiratzekoa ez delako²²⁵, baizik eta, inplizituki, koiuntura hartan, jokabide horrek euskal kulturgintzaren dinamika serioски murriztea inplikatzeko zuelako. Eta horrela pentsatu eta juzgatu ahal izateko, bi datu ematen dira: bata euskal produkzioa ia osoa Hego Euskal Herrian kokatzen dela, eta bestea harpidedunen sisteman oinarritutako politika editorialak, legalitateak ezartzen dituen muga hertsien barruan, ezin dituela behar bezala ez ukitu eta ezago aztertu herriak egiazki bizi dituen arazoak. Hauek dira legalitatean aritzeak berekin dituen muga larriak, betiere garai hartako testuinguruan. Luzea da esaldia, baina biziki argigarria ordutik honako politika editorialen norabidea aztertzeko:

“Bestalde, berriz, soilki ofizial aparatuan muntatzen den kulturgintzak ez duela etorkizunik uste dugu. Zeren, mementozko egoera soziologikoa gogoan hartuaz gero, uste dugu objektiboki baldintzatua ageri dela espiritu ikertzaileen askatasun kritikoa, eta hau ez da propaganda politikoa delakoaren mailan bakarrik gertatzen, baita saiakera eta bilaketa jardunetan ere. Zentzu honetan zer pentsatua ematen digu euskal produkzioa ia osoaren lekua Hego Euskal Herrian kausitzen dela konstatatzeak (...) Hemen ez dugu nehor akusatzen euskararen edo euskal kulturaren profesionalismotik aberastu delako. Euskara ez da oraino komertziala bilakatu, nahiz-eta batzuek komertzializatu nahi izan badute ere. Gu, beste profesionalismo mota batez mintzo gara. Nolabait esateko hau adierazi nahi dugu hitz horrekin: alegia egungo kultur aparatu gehienak, ia denak, harpidedunen iturri ekonomikoetatik bizi direla (...) Maila horretan bakarrik gelditzen den profesionalismo hori ukatzen dugu hemen, kontsiderazio legal eta ekonomikoak saltatzen ez dituen kulturgintzaren hegi estatiko hori, hain zuzen ere.

Zeren bitartean, beste kultur ahalegin batzuek nun zer esanik ez dute. Hau ere egia da. Horregatik, zentzu honetan, gure eskabidea eta kultur ikuspegia aitzinago doaz. Hara nola: baldin Frantziako eta Espainiako estatu ankerrek gure kultur iraultzaileari sostengu ekonomikoaren orde z menderakuntzaren prezioa eskaintzen badiote, baldin, bestalde, egungo pizkunde kulturalak Euskadiren etorkizun askean badu hasperen eta sinismen, bidezkoa dirudi, ondorio bezala, legalitateak uxatuek leku kultural bat izan dezaten, hauen boza ere Herriak entzun dezan” (Iztueta, I, 1973, 55).

Pasarte horretan zerbait garbi adierazia baldin badago, hauxe da: euskal abertzalearen sektorean, honen pentsamendua indartzeko unean, militantismo-espirituan oinarritutako kultur gintzan murgildu beharra dagoela. Edo bestela esanda: legalitateaz harago, oraindik esparru luze-zabala geratzen dela lantzeke eta ezker abertzaleak berak sortzen ez baditu bere plataformak, beste inondik ez zaiola etorriko ez mailegaturik ez bestela.

Hirugarrenik, konstatatzen da euskal kultur gintzaren zeruan ez zaiola ia inori izar izateko eskubiderik edo pribilejiorik ematen, intelektualen arteko hierarkiarik ez dela onartzen, autoritatearen hitzak ez duela indarririk. “Izarrik gabeko ideologoen” garaia da, kazetariak aldizkaritik aldizkarira zapoak botatzen hasten direnekoa, idazle hasiberriek jakintsu sakratuen itzala arbuiatzen dutenekoa. Ideia berriak hasi dira bide ematen, korronte desberdinak kontrajartzen. Kultur giro erabat nahasi, itsu eta haserrekorra nagusitzen da orokorrean. Idatziak izan diren zenbait esaldi transkribatu ondoren, ondorio hau ateratzen da pasarte honetan:

“Ikusi eta irakurri besterik ez dago liburuetako eta aldizkarietako literatura poxin bat: marxismoa, etnia, estrukturalismoa, sexua, pedagogia askatzailea, eta beste. Polemika giroa da nagusi (...) Luma gehienetan satiraren pozoiz gaitzoz kargatzen da, gutitan seriozki arrazoituz, sarriagotan eztabaida pertsonalizatuz” (Iztueta, I, 1973, 56).

Euskal kulturaren inguruan, dagoena, horixe da: kritika negatibo pila bat, baina ekarpen positibo eta eraikitzaile gutxi euskal arazoaren inguruan. Pentsamendu landua falta da. Irainetan bukatzen den hitz-jario merkea informazio-aldizkarietan. Azaleko eztabaida-prosa ahul eta pobre hori da salatzen azken puntu honetan.

1.3. Orain arte euskal kulturaren egoera zein den deskribatuz etorri gara, esanez, batetik, euskal kultura kultura asimilatua dela, gehienbat legalitatera murriztua eta, bestetik, planteamenduetan zein jokabideetan ideologizatuta eta politizatuta aurkitzen dela. Amorratioak ezaugarritzen du kulturagintzan nabari den giro desgirotu eta errezeloz betetako hori. Egoeraren deskribapen hau egin eta gero, lehenengoaren jarraipen den “Amorratioa... Joerak eta zentsurak” izeneko bigarren artikuluan²²⁶, giro pozoitu horren zergatikoak aztertzen ditugu. Amorratioaren arrazoiak bat baino gehiago dira.

Lehena, funtsezkoa, hauxe da: euskal kulturaren dabiltzan egi-leak, inguruko gizarte-giroa politizatuz eta talde politikokoak erakunde edo mugimendu jakinen arabera mugatuz eta antolatuz doazen heinean, kultur joera desberdinak gero eta gehiago itxuratuz doazela, horietako batzuk beren plataformak eraikiz datozela eta joera horien atzean –batzuetan argi eta besteetan ez hain argi–, pentsamolde-korrante jakinak begiztatu ezinik ez dagoela. Arazoa ez da soilki belaunaldikoen artekoa –gerrate aurreko eta ondokoaren artekoa, alegia–, ezta hizkuntza-eredura edo *h* famatura soilki mugatzen dena ere, nagusiki pentsamendu-krisiak eragindakoa baizik. Ideien mailako iraultza kalean dabil, komunikabideetan baino indartsuago, agian, talde antolatuetan: hots, ikastoletan, alfabetatze-kanpainetan, gizarte-eskoletan, oinarrizko eliz mugimenduetan. Marxismoa, independentismoa, sexu-askatasuna, feminismoa, laizismoa, ateismoa, paganismoa, hauek guztiak ez dira jadanik gai tabuak. Beraz, euskal kulturaren une honetan sartzen ari diren korronte ideologikoen eragina hain da bortitza, esan dezakegu, neurri handi batean, erabakigarria ere gertatzen dela orduko kulturagintza-aren garapenean. Kultura burgesaz eta proletarioaz eztabaidatzen da barra-barra, kultura ideologikoz eta zientifikoz, kultura matxistaz eta feministaz, nazionalismo autonomistaz eta independentistaz, sozialismo humanistaz eta marxismo-leninismoaz, etab. Arazoa da marxismoa batek via Garaudy eta besteak via Althusser irakurtzen duela. Hizkuntzarenean, halaber, batek estrukturalismoaren eredu aplikatzen duen bitartean, beste batek marxismoarena lehenesten du, eta beste haragoko batek, berriz, Noam Chomskyrena. Irakurketa-mota hauek guztiak presente daude orduko prosa akademikoan. Eta ez arrazoirik gabe, horietako bakoitzak baitu bere tradizio akademikoa. Gertatzen dena da, kulturagintza politizatzearen ondorioz sortzen den paradigma desberdinen arteko borroka ideologiko honetan, zeine-

tan askotan erudizioak baino gehiago berritasunak agintzen baitu, bestearen iritzia, ia sistemaz, “ideologikeriatzat” jotzen dela eta, ondorioz, elkarren arteko salaketa horietan ideologiakeria eta zientzia kontrajartzen direla. Behin honetara ezkerro, berriz, jarrera intelektual biziki arriskutsuan sartzen gara, zeren onartutzat ematen baita badela hor nonbait –ez dakigu zein erresumatan–, zientzia neutro eta objektibo bat, zeinetan ideologiak ez bailuke lekurik, zeinetan batzuen iritzia, datozen lumatik datozelako, sakratuak bailirateke. Ezagutza-mota horren paradisu-lekua da pasarte honetan zalantzan jartzen dena:

“Ondo dago: halere, nik hor hutsunetxo bat aurkitu dut eta da beste izen batzuk isiltzen direla, beste horiengan ideologiakeriarik ez balego bezala, zeren isiltasuna ere nolabaiteko afirmazio bilakatzen baita. Badirudi, (ez da zuzenki erraten), batzuek zientziarki jokatzeko dutela eta beste batzuek ez. Eta puntu honetan ez nago hain segur, ez bide dut hain garbiki ikusten nortzuek duten zientziaren jabegoa” (Iztueta, 2, 1973, 48).

Fomulazioak eta tonuak gorabehera, gaur ere aldaketa handirik gabe geuretuko genuke esaldi horren edukia, kulturgingintza bera baita, hau prozesu gisa hartuta, gehien azpimarratzen den alderdia. Honekin adierazi nahi dena da, zientzia egiterakoan, abiapuntuan beti eredu teorikoak daudela –paradigmak, alegia–, eta, segun zein hautatzen den, aterako diren ondorioak ere halakoak izango direla. Esaten denean garai horretan “joera desberdinak” daudela euskal kulturaren, horixe esan nahi zen: Europako mundu akademikoan indarrean dauden pentsamendu-korronte desberdinak ezagutzen direla eta sustraitzen hasiak daudela belaunaldi berrikoen artean. Ez da ahaztu behar ikasle-multzo handiskoa dagoela Europako unibertsitateetan barreiatuta.

Amorratioak badu oraindik beste bigarren zergatik ere, orduko euskal kulturgingintza barrutik ezaugarritzen duena, eta da “zentsurak” daudela, hots, ezarritako axioma politiko eta ideologikoaren arabera erabakitzen dela zer den zuzen eta zer oker, zer on eta zer ez, zer komeni den eta zer ez. Eta zentsura hauek, testuan datorren bezala, kanpotik bezala datoz barrutik, bietatik:

“Zentsura ofizialez aparte, indar ordenatzailearen kontra dihardugun kulturgingileon artean, bada beste zentsura motarik ere. Gure arteko zentsurak manifestu edo agiri gisa idazten dira: *nik, guk...*”

Euskal liburu-etxe eta aldizkari bakoitzak, berdin mugimendu politikoei, badute beren 'zentsura'. Guztiz normala iruditzen zait, zeren, funtsean, plangintza desberdinetik abiatzeak baitakar zentsuraren beharra. Eta zenbat eta kontrajarriagoa izan plangintza jakin baten kontenidua, orduan eta hertsiaagoa izanen da elkarren arteko zentsura-neurria" (Iztueta, I, 1973, 49).

Estatu-botereak ezarritako zentsura ofizialaz aparte, arestian aipatu ditugun joera desberdin horien euskarri fisiko gisa, euskal kulturak barrura begira dauzkan zentzura-neurriak kultur plataformetan islatzen dira, argitaletxe eta aldizkarietan nagusiki. Epealdi honetan, 1969. urtetik aurrera hain zuzen, hasten dira ugaltzen argitaletxe berriak. Eta horietako bakoitzak bere aukera ideologikoa egina dauka. Zentsurak bitan banatzen ditu *Etor* eta *Gero* argitaletxeak, zentsurak ezartzen ditu *Anaitasuna* eta *Zeruko Argiaren* arteko mugak, zentsurak ezinarazten du kantarien arteko elkarrizketa, zentsurak dakartza lehen tirabirak AEK baitan. Eta abar.

Euskal kulturgileen artean amorrazioaren sua sorrarazten duen beste faktoretako bat –funtsean erabakigarriena–, ezarritako erdal kulturaren menpeko izatetik datorrena da:

“Ordena zapaltzaileak inposatzen diguna da hau, erdaraz inposatzen diguna noski. Biziki astuna da, zentsura mota hau errotik baita euskaldungoaren kontrakoa, hotzean eta sistematikoki eramana” (Iztueta, I, 1973, 49).

Erabakigarriena ez ezik, arriskutsuena ere bada, zeren euskaltzaleak, euskararen egoera tristea dela-eta, batzuetan autoinkulpatu egiten baitira, esanez legeriak irakaskuntza elebitasunaren esparruan irekitzen dituen zirikituez ez dakigula baliatzen. Legeak baimendutakoa erabiltzen ez bada, eskola-arduradunen edo gurasoen errua da. Horrela, estatu-botereak beti garbi dauzka eskuak. Autoerrudun sentitze hori, azken batean, menerapen psikikoa besterik ez da webiar hizkuntzan.

1.4. Euskal munduko kultur gatazken zergatikoak aipatu eta gero, saioaren azken zatian bi kultur praxiren esparruan bi talde desberdinu bezala bereizten dira, bata kultura kuantitatiboan (A taldean) kokatzen dena eta bestea, berriz, kualitatiboan (B taldean). Zatiketa hau egitean, aurretik euskal kulturaren inguruan izandako eztabaidak eta ikuspuntuak kontuan hartuta, haren mugaketan

irizpide zehatzagoak ezartzeko saio berri bat egin nahi da. Euskal kultura definitzeko orduan, bi irizpide erabiliko dira nagusiki: bata *etnikoa*, zeina bereziki euskarari oinarritzen baita euskal tradizio antropologiko eta linguistikoan, eta bestea, zentzu zabalean –klasistatik zein bestelakoan–, esanda, *gatazkarena*, zeinaren arabera gizarteko harremanak –hemen sartuz, ez bakarrik klaseartekoak, baita hizkuntzartekoak zein kulturartekoak ere–, estatu-boterearen erreferentzian erabakitzen baitira. Aurre-ohar hau eginda, gatozen testura.

Lehen talde etnikoan, bidenabar, beste bi joera bereizten dira: batetik, euskaraz produzitzen dutenak eta, bestetik, batzuetan euskaraz eta besteetan erdaraz idazten ari direnak. Lehenengoentzat, oinarritzakoa euskaraz egitea da, zer eta nola idazten den bigarren mailan utziz; azkenengoentzat, aldiz, euskal gaiak jardutea da garrantzizkoena, zein hizkuntzan idazten den hainbeste kontuan hartu gabe, eta horrela jokatzuk uste dute euskal kultura ekoizten ari direla. Bi joera hauetakoen kultur praxia honela baloratzen da esaldi honetan:

“Euskaraz ari den joerak duen alderdi ona euskaraz produzitzean datza, nahiz-eta horren nolakotasunak ez gaituen konbentzitzen sobera. Erdal euskaltzaleek, erdaraz ari diren bakoitzean, erdal kultura egiten dute. Sarritan joera honen ikurrin pean sona handiko izenak koadratzen dira” (Iztueta, I, 1973, 52).

Joera honetakoak, hala esango da beste pasarte batean, ideologia ordenatzaileak nahiko erraz bereganatuko du bere sare asimilazionistara, ez baitira batere kritikoak ezarritako gizarte-egituren aurrean.

Bigarren talde klasistatik kokatzen direnek, aldiz, jarrera aurrerakoa irakusten dute eta hauentzat benetan garrantzitsua da, ez bakarrik *zer* idazten den, baita *nork* idazten duen ere. Edukiak eta egileak, biak daude murgilduta kultur prozesuan. Halaber, gizarte-egitura zapaltzaileak desagitea dute xede. Talde honetan aurkitzen dira ezkertiarak, aurrerakoiak, oposiziokoak. Baina eskuinekoen artean ematen diren bezala euskaltzale abertzaleak eta euskaltzale espainolizatu eta frantsestuak, ezkertiarren artean ere sailkapen bertsua egin liteke ezkerreko euskaltzale abertzaleen eta euskaltzale marxista zentralisten artean. Beraz, batean klase-girokoak eta erdirakoiak daude eta bestean, berriz, abertzale-girokoak eta berrizaleak. Batzuetan praktikan gertatzen dena da, diskurtso biziki aurrerakoi

eta berrizale batek, zein iturritatik edaten duen ez dakielarik, txundituta uzten duela irakurlea. Horrelakoetan, eduki horren egilea nor den, zein testuingurutan idatzi den jakitea komeni izaten da:

“*Zeinek* honek ohar inportante batetara garamatza. Hara: joera honetako talderik handiena kasik erabat legalitatean ari da (...) Edota, baita ere, ekintza politikorik nagusiena legalitate pean eginiko kultur ahalegina da: aldizkariak, liburu-etxeak, diskoe-txeak, kanta-etxeak, eta abar. Horregatik, horien saiakerak, aber-tzale eta sozialista deklaratzeko direlarik ere, Herriaren problema biziei buruzko erantzunaren aurrez aurre ahulegiak bezala agertzen dira, eta askorengan, gainera, erreformismo kutsu sobera nabari da. Honelakoetan zentsurak ez du haginik zorrozten, ezker erdira-koiairen paretzu ozta-ozta. Azken batean, eta hau aski garbi dago, politikagintza iraultzaileak mugatzen du hobekien zentsuraren norakoa. Espetxeratuek eta desterratuek badakite zertxobait honen berri. Horregatik genion: egungo euskal kulturagintzaren ildotik abiatu ginelarik, Espainiako estatuaren legalitate pean kokatzen den produkzioak ez duela kultur irtenbiderik herri-erantzun oso eta zabal bati begira. Zentzu honetan, eta doluz, joera iraultzaileko euskal literaturarik eta saiakerarik ez da argitaratzen, salbu bat edo bertzé” (Iztueta, I, 1973, 54).

Goiko pasarte horretan laburbiltzen da saiakera honen muina. Euskal kulturagileak bitan banatzen dira: hots, batetik, barrukoak, beren kultur plataformak legalitatearen babesean eraiki eta anto-latu dituztenak, eta, bestetik, erbestetuak, beren kultur platafor-mak bideratzeko mila modutako zailtasunak dituztenak. Barruan zapalkuntzak ukitu ez dituenak aurkitzen dira; erbestean, aldiz, es-petxeari ihes egin diotenak, legezko babesaren ordezt, dauden lekuan zigorraren mehatxua edota errefuxiatu-egoera administratiboaren zama bere gain daramatenak. Ezker abertzalea da, bera bereziki, az-ken egoera soziologikoan aurkitzen dena. Honek ez baitu barruko legalitatean bere ahotsa non aditzera emanik, horrentzat ez baita organo egokirik hor, horregatik planteatzen da hemen kultur plata-forma berri bat eraiki beharra, jada bigarren atalean luzaz aipatu du-guna. Hemen planteatzen da, ez bakarrik *Zabal* bezalako aldizkari baten premia, baita Irati bezalako argitaletxe batena ere.

Kultur planteamendu hori, bada, militantismo-ikuspegi gar-biak gidatzen du, hain garbiak, ezen, hala izan ez balitz Hazparneko paisaia berdearen xarmak, paregabea izanik ere, ez baikintuen lekuz aldaraziko. Hori ziur.

2. Euskal kultura ulertzeko giltza teorikoak eta arazo praktikoak

Jokin Apalategiren artikuluak ere –unibertsitateko talde-lan batzuk eta beste zenbait saio batera eginak genituelako, beharbada–, euskal kulturaren gainean harilduz etorri garen gaiari zuzenean eta hertsiki lotuta datoz eta, zenbait puntutan, diskurtso bereko zati osagarriak gertatzen dira. Egile honek berak, beste nonbait esana dugunez, lehendik ere bazuen beste lan bat argitaratua, 1969an hain zuzen, “Euskal kultura nora eta nola zuzendu behar dugu?” izenekoa, *Jakinek* euskal kulturari eskainitako monografikoan²²⁷. Hemen, ordea, *Zabalen* argitara emandako hiru artikuluok bakarrik, hots, “Orixeren kulturgintza konprenitzeko” izenekoa²²⁸, “Euskal Herri zaharreko pentsa-moldeak konprenitzeko bideetan”²²⁹ eta “Euskaldun kulturaren bilakaeraz eta etorkizunaz”²³⁰ deituak aztertuko ditugu. Azken hau baldin bada ere aldizkarian argitaratzen lehena 8. zenbakian, beste biak zaharragoak dira, Parisen idatzita, apaletako hautsetan zeuzkanak, seguru asko. Horregatik, idatzidatzen irizpide kronologikoari eutsiz, azken argitaratutako hauekin hasiko gara.

2.1. Beraz, “Orixeren kulturgintza konprenitzeko” izenekoan, lana lau zatitan banatuz, Orixeren obra bere testuinguruan kokatzen ahalegintzen da. Esango du, Orixeren pentsamendua “zeharo mugatua eta arkaikua” bada, arkaikotasun horren erroak gizartean bertan aurkitu behar direla. Haren kasuan, garbiki, nekazal gizartean, garai hartan gizarte horrek funtzionatzen zuen eran ulertuta. Haren bizitzan hiru aro bereizten ditu: hots, artzain, jesuita ikasle eta idazle izan zenekoan. Haren tesia da Orixek, jesuiten bizitza erlijioso utziz gero, bere hirugarren fasean “euskal kulturaren zanzapazioa bakarrik eta bakarka gaingitu nahi izan zuela”. Zergatik? Berak gaztetan, Uitzin, eguneroko bizitzan “errealitate bakartzat bizi eta praktikatu izan zuen euskara eta euskal kultura (nahiz erreusa izan) orain erroetatik galtzea eta xehatzea eskatzen zitziailako, alegia” (Apalategi, 15, 1975, 28). Horregatik, ekonomi eta politika mailako zapalkuntzek, hauek benetan egiazkoak izan arren, ez dute horrelako eraginik izango harengan, “ekonomia eta politika eskualdeak betidanik eta erreflexuaren erreflexuz zanpatuak ezagutu izan zituelako” (Apalategi, 15, 1975, 28).

Orixeren pentsamolde-egitura ulertzeko, bada beste puntu bat oraindik –hau Heidegger-i egiten dioten elkarrizketa batetik hartzen duena–, eta da aurrerapen teknologikoak –eta hemen sartzekoa da industrigintzarena–, norberaganatzeko, asimilatze, alde aurretik epealdi bat pasatzen dela, zeinaren ondorioz, teknologia horiek hedatuz doazen heinean, senetzko praktika bat lortuz joaten baita. Eta Orixek industrigintzaren fenomenoarekin oso hasieran egin zuen topo. Hemendik dator gizarte-fenomeno hori ez beretu izana.

Orixeren pentsaera klasikoa ulertzeko eskema teoriko interesgarria eskaintzen da, osoki soziologikoa, artean hari buruz –1965ean argitaratutako *Orixen Omenaldi* talde-lana salbu–, azterketa-lan sistemakorik ez zegoen garaian egina. Ohargarri da bere bibliografian ez duela aipatzen euskal iturrikorik batto ere.

2.2. “Euskal Herri zaharreko pentsa-moldeak konprenitzeko bideetan” izeneko artikuluan²³¹, euskal pentsamenduaren nondik norakoa ulertzeko eredu teoriko antzeko zerbait lantzen ahalegintzen da, ausardia handiarekin eta ez irudimen-saio txikiagoarekin. Eraikuntza horretarako oinarriak jakintza-sail zein jatorri epistemologiko desberdinetako autoreengan aurkitzen ditu. Nahas-mahas aipatuak datoz Axular zaharra, Bibliako pasarteak, Karl Marx, Louis Althusser, Nicos Poulantzaz, Marcuse, Sigmund Freud, Karen Horney, Alain Touraine, Theilard de Chardin, Kierkegaard, Nietzsche eta beste hainbaten izenak, baina interpretazioak beti ere logika kurioso batean arazoituz. Legamia ogi-masan bezala bateratuta aurkitzen dira, elkarri ondo itsatsita, kaiola epistemologiko berean sartzekoak ez diren paradigmatik: kristautasuna, marxismoa, freudismoa, existentzialismoa, nihilismoa... Tesi moduan emanak datoz artikululu luze horretako azpiatalak.

Lehena: Dialektikaren gorpuzkinak aro guztietako gizakiek halakotzat hartu izan dituztela, nahiz dialektika-mailak eta dialektika-jokabidea halakotzat ez agertu (Apalategi, 15, 1975, 26). Hemen sartzen ditu Bibliako pasarteak eta Axularrena.

Bigarrena: Munduko sistemako estrukturak hiru dialektika-maila dituela: hots, izadiaren dialektika, gizakiarena eta gizartearena (Apalategi, 16, 1975, 28-31). Tesi hau, Engels, Marx eta Freud-en esanetan funtsatzen du.

Hirugarrena: Gizaki zein gizartearen eritasuna betidanik halakotzat ezagutu izan dela eta egun ere halakoxe izaera izanez jarrai-

tzen dutela bai batak bai besteak. Hala erakusten bide dute mitoek eta erlijio-praktikek.

Laugarrena: Gizaki zein gizartearen eritasunari eman zaizkion erantzunak, halaber, hiru motatakoak izan direla. Beraz, hiru mundu-teoria daude, bakoitza bere adar funtsezkoekin, eta hauek dira: a) *erlijiosoa*, zeinaren arabera “gizon-gizarte eritasunek beste mundu batean baitute beren osasuna” (Apalategi, 15, 1975, 34); b) *marxista*, zeinaren arabera “gizon-gizartearen eritasunek mundu honetan bere osasuna osoki iritsi dezaketela” baitiote (Apalategi, 15, 1975, 35); c) *freudista* edo kulturalista, zeinaren arabera “gizon-gizartearen eritasunak mundu honetan behintzat osasunik ez baitu” (Apalategi, 15, 1975, 37).

Bosgarrena: Mundu-sistema dialektikazko estrukturan finkatuturik dagoela (Apalategi, 15, 1975, (Apalategi, 15, 1975, 37). Dialektika-egitura horrek bere mailak ditu; hots, izadiak, gizarteak eta gizakiak osatzen dituzte maila horiek. Maila horiek elkaruztartuta daude, baina, aldi berean, horietako bakoitzak autonomiaz jokatzeko du. Izadiaren esparrua osatzen dutenak atomoen joko nahasi eta mailakatuak dira; gizakiaren esparrua mugatzen dutenak, erlijioa, gizabanakoaren ideologia, sexu-beharra edo, hitz bakar batez esateko, zoriona; gizartearena, ekonomia eta politika. Eta dialektikazko maila guzti hauek batera hartuta, azkenik, herri-sistema osatzen dute.

Hara hor, bada, Jokin Apalategik bere kabuz eraikitzen duen paradigma, aski berea dena, eta, alde horretatik, estimatzekoa, nahiz eta ondoko urteetan ikuspegi berriak irekiko dituen.

2.3. Jokin Apalategik “Euskaldun kulturaren bilakaeraz eta etorkizunaz” izeneko azken artikulua hau 1974ko apirilean idatzia zeukan, nahiz udan –uztaila-abuztuko zenbakian, alegia–, argitaratuko den. Badu beste laugarren artikulua bat ere, urte bereko azaroa-abenduko 10. zenbakian izenik gabe argitaratzen dena, zeinetan Irati argitaletxearen inguruan harrotzen den polemika plazaratzen baita. Azken artikulua honetakoa, ordea, duen garrantzia handiarengatik, ETaren antolaketaz diharduen atalean ekarri dugu, berari dagokion testuinguruaren barruan. Nolanahi ere, hirugarren artikulua honetan ere usmatzen da jadanik ETaren barruan, Irati-n argitaratzekoa zen *Marxismoa eta nazional arazoa* liburuaren argitalpena zela-eta, kultur autonomiaren arazoa pil-pilean zegoela.

Egileak lau zatitan banantzen du bere diskurtsoa. Lehen zatian, kultura eta teoriaren arteko harremanak aztertzen ditu, azalpenean autoritate handiko hainbat autoreren teoriak azalduz. Hor agertzen dira, besteak beste, Levi-Strauss, Alain Touraine, Serge Moscovici, etab.

Bigarren zatia kultura praktikoari buruzkoa da, Euskal Herrian 1959tik 1974ra bitarteko epealdia hartzen duena, eta hemen euskal kultura zein egoera soziologikotan aurkitzen den aztertzen du. Bi dinamika daude, harreman dialektikoan dihardutenak. Batetik, indar menperatzaileak dauzkagu, ekonomi iturriak beren eskuetan dauzkatenak, eta hauek auzitegiak, ikastetxeak eta komunikabideak beretuak dituzte eta informazio osoaren jabe dira. Elizak ere bote-redunen jokoa egiten du bere barruko erakundeetan. Horregatik, euskal kultura, 1959tik aurrera, erabat umezurtz aurkitzen da. Bestetik, indar eragileak dauzkagu, berak “dezisio-indarrak” deitzen dienak, eta hauek, herri-mugimenduei esker, kultur plataforma berriak sortzen dituzte eta bideratzen: bertsolaritzaren oldea, Ikastolen hedakuntza, euskal aldizkarien indartzea, alfabetatze-mugimendua, etab. Une honetan euskal kultura lehen aldiz ekintza politikoari lotzen zaio. Hemen, hain zuzen, kultur aldizkarien garrantzia nabarmentzen du, *Zabalena* hor sartuz:

“Aipagarria da ere *Euzko Gogoak* hasi zuen tradizioa eta gero *Jakinek* eta gaur egun *Zabalek* jarraitzen dutena. Ikerketa eta liburu mailak, erdi bideak eta urratsak agertzeko agerkari bat behar zutela euskaraz ikusi baitzuten delako agerkari horien fundatzaileek. Lan hauek minoria batzuetara doaz, baina minoria horiek Herri xehearekin duten lokia bereziagatik arras herriratuak gertatzen dira” (Apalategi, 8, 1974, 36).

Hirugarren zatian, euskal kulturagintzaren bilakabidean harrotu diren arazo batzuk aztertzen ditu, lehen aipatu diren ETako Kultur Frontearekin zerikusi zuzena dutenak. Pentsatu izan da, kultur emaitzak, berez, neutroak direla eta hau esatean, sarrienik, ekarpen teknologiko-zientifikoak aipatzen dira. Gizarte-bizitza praktikoan, ordea, kulturagintza –hau sorkuntzaren esparrua den aldetik begiratuta–, badu bere espezifikotasuna, badu bere autonomia, badu gizartearen eragiteko bere modua. Kulturagileak, zentzu honetan, nahia-go du bere gogoetak isilean eta noiz-nongoen koordenada mugatu bati lotu gabe egin:

“Kulturpileak bere obrarekin influentzia nahi badu ere, hurbilekoa baino geroagokoa eta noizbaitekoa nahiago du. Ageriko lana bezain axolago zaio anonimoa eta isilekoa. Jarraipen erakundetua bezain garrantziko zaio nonahi eta noiznahi, denbora eta espazio fijo gabe sortuko dena” (Apalategi, 8, 1974, 38).

Hori da, arazoa hotzean hartuta, kulturari emana dagoenaren bokazioa, egitekoa. Baina, aldi berean, sorkuntza gizarteko harremanen sarean gauzatzen denez, kulturgintzak harremanik badu kultur kontrolarekin, iraultzarekin, politikarekin, erakunde politikoekin, erakunde politikoetako kideekin eta, maila honetan, inguratzuten duten gizarte-faktoreekiko erlazioan bilakatzen da kultur produktua. Honela, kulturak, segun hau zertarako erabiltzen den, halako izaera hartuko du. Merkatal xede batzuk lortzeko bideratzen bada, ekonomiari egingo dio erreferentzia; aldiz, ezarritako egoera aldatzeko denean, iraultzari. Orobat, politikariek eta erakunde politikoek, beren helburuak lortzeko, kulturaz baliatzen dira eta dagozkien kultur plataformak eraikitzen dituzte: zapaltzaileen kasuan, bere menpekoak zapaltzeko erabiltzen baita, horien kultura zapalkuntzako aparatu ideologikoen baranoan sartzen da; zapalduen kasuan, aldiz, ezarritako zapalkuntzatik ateratzeko erabiltzen baita, hauek dagiten kultura, iraultzailea da, askatzailea, hots, sortzailea.

Nolanahi ere, zapalkuntzako egoera batean, espezifikotasunez kulturgintzan dihardutenen eta erakunde politikoaren barruan ari direnen jokabideak ez dira berdinak, aipu honetan zehazten den bezala:

“Erakunde politikoek errepresiozko aparatuen aurka borrokatzean beti isileko eta ilegal izan behar dira. Ez hala, ordea, kulturgintza sorkaritzan ari denean. Kulturgintzak, batzuetan ageriko eta ilegal jokabidea du eta beste batzuetan isilekoa, baina legala. Ilegal diren erakunde politikoek girotutako kultura alorrean ere berdin izan liteke. Kulturgintzak printzipio bat du: ahal den hainbatean agerian eta legalitatean jardun. Hori ezinezko bihurtzean bakarrik beste jokabide molde batzuk onartuko ditu” (Apalategi, 8, 1974, 39).

Beraz, irekita gertatzen dira legaltasunean zein ilegaltasunean jokatzeko bideak, bakoitza bere aldetik, elkarren kontra joan gabe.

Baldin nazio-askapenaren testuinguruan, kultur mugimenduaren esparrua handitzen doan heinean, hau legalago bilakatzen

bada, eta, alderantziz, mugimendu politikoaren legalitate-esparruan gutxitzen doan eran, hau ilegalago, orduan galdera da ea nola kontrolatuko duten erakunde politikoek kulturaren esparru hori. Azken puntu hau, delikatuagoa da. Erantzuna da, erakunde politikoek beren kontrola lor dezaten, hauek “kideko erakundeak” sortu behar dituztela. Ez da zehazten zer-nolakoak izango diren horiek: beren kultur plataformak, edo zer.

Sorkuntzaz eta kultur kontrolaz ari garenean, betiko arazoa sortzen da, kultura eta politika, kultura eta ekonomia nahasten direla, bereizten badira ere, ezin direla “guztiz” bereizi. Ataka bihurri hone-tatik ateratzeko, Salomonen sententzia bailitzan, ia beti, Weber-ek zientziaren eta politikaren artean egindako bereizketa hura ekarri ohi da. Teorian, agian, tipo ideal gisa ongi dago, baina errealitate praktikoan ez du aplikazio erraza.

Azkenik, laugarren zatian, euskal kulturgintzari dagokionez, hiru ondorio hauek ateratzen ditu Jokin Apalategik: a) kulturgintzak erakunde politiko guztietatik at egon behar duela, bere autonomia osoa behar duela, baina ez horregatik jokabide politikorik gabea; b) edozein sistematik at egon behar duela, hots, sortzailea izan behar duela, irekia eta kritikoa, eta ez ezarritako sistemaren araber funtzionatzen duena, lotua eta interes jakin batzuen zerbitzura legokeena; c) herri menperatu bat garen aldetik, gizatiar, herritar eta klaserik gabeko euskal gizarte baten aldekoa izan behar duela.

Irizpide horien bidez zedarritzen ditu egileak kulturaren eta politikaren arteko harremanak, bakoitzaren egitekoak eta berezitasunak.

3. Kontzeptugintzaren zimentarria: kultur praxia

Gizarte-egitateen prozesu-hegia lehen baino gehiago nabarmentzen den garai hauetan, ia berez bere ateratzen zaigu, jokatibiderik normalena bailitzan, kultur azturez edota kultur praxiez hitz egitea. Kultura gauzatu, beste edozein gizarte-fenomenoren antzera, gizartean gauzatzen da eta, zentzu honetan, errealitatea atzitzen ez duen kontzeptuak, bere formulazio teorikoan biribilena izanda ere, ez du baliorik. Hutsala da haren edukia.

“P. L.” siglaz izenpetzen duen egile ezezagunak, “Konzeptukrazia eta kulturgintza” artikuluan²³², kontzeptugintzak teoriaren eta

praxiaren artean egin beharreko zubi-lanetan, sarritan leize sakonak tartekatzen direla baieztatzen du. Hitz handiak aise airatzen baitira, euskal kulturaren gainean erabiltzen diren zenbait kontzeptu –burgesa, internazionalismoa, demokrazia, eta horrelakoak–, mugatu nahi ditu, horien edukia praxiaren erreferentzian argitu-asmoz. Euskal kulturarena, kultur mugimenduen barrutik, –eguneroko praktika iraultzailetik–, ala kanpotik –eguneroko borrokan sartu gabe–, begiratuta formulatu, hortxe datza arazoaren gakoa, teoriatik praktikara edota, beste modu batera esanda, kontzeptutik errealitatera dagoen aldea.

Lehenik, kontzeptuaren eta errealitatearen arteko harremana aztertzen du, arrazoituz gizakiak bere mundua praktikaren bidez eta, aldatuz doan praxi horren barruan, era berean aldatuz doan kontzeptuen bidez ezagutzen duela. Bigarrenik, “kontzeptukraziaren” falazia salatzen du, zeina baita errealitatearen ordezkatat ematea egiazki hala ez dena. Izan ere, mundu honetan kontzeptuak mitifikatuta daude eta haiek ez errealitatea, baizik sasi-konkrezioa islatzen dute. Hemen datza, hain zuzen, iruzurra. Kontzeptukrazian jausten dira mitifikatutako kontzeptu batzuk, hala nola, internazionalismoarena, burgesiarena, demokraziarena. Hirugarrenik, mundua eta historia kontzeptuez egin daudela uste dutenek –kontzeptukraziaren zerbitzariak, alegia–, eguneroko borrokan, praxiaren zelaian, buru-belarri murgilduta dabilzanen kulturgintza arbuatzen dute. Baina egileak dioskunez, horrelakoek ahaztu egiten dute politikagintza edo kulturgintza praktikatzen dituztenek eraikitzen dituztela teoriarik onenak eta ekintzaileak, oker eginak zuzenduz, horrela egiten dutela aurrera. Euskal Herrian kontzeptukraziaren arriskua egiazkoa da, arlo askotan (kulturan, politikan-eta), hitzez norabidea markatzen dutenak ikasleak baitira. Laugarrenik, kultur praxiak Euskal Herrian duen garrantziaz ari da, esanez hemen kontzeptuen mundu itxi batean sartuta bizi dela jendea –pentsatzen dugu jende iraultzaileaz ari dela–, hainbestearino sartuta, ezen praxian dabilena buruz nahasten dute eta praktikatik aldentzeko zorian uzten. Egilea bera nazkatuta dago nazio-arazoari buruzko mintegiez. Sinesten du teorietan, baita kontzeptuetan ere, baina praktikatik eta praktikarako diren kontzeptuetan bakarrik, ez besteetan, zeren eta, azken batean, praxia bera baita kontzeptuen neurria.

4. Kultur elkarte eta plataformen errepassoa

Baina kultur praxia gauzatu, erakunde eta plataforma antolatuetan gauzatzen da. Horiek dira bitartekoak. Hegoaldean zein Iparraldean indarrean dauden zenbait kultur plataformaren gainean ere badatoz *Zabalen* zenbait artikulu, bakoitzaren berezitasunak ematen dituztenak. Horiek jasotzea ere meritagarri da aldizkari honentzat, hau azter-iturri gertatzen baita beroriek zehaztasunez ikeritu nahiko lituzkeenarentzat. Lurralde-irizpideari jarraituz sailkatuko ditugu artikuluak, hauen edukia halaxe emana datorrelako.

4. 1. *Iparraldeko kultur bideak*

Iparraldeari dagokionez, antolakuntzaren aldetik, bi motatako kultur ekintzak dauzkagu: beren eginbidea elkarteetan finkatzen dutenak eta argitalpen-lanetan dihardutenak. Lehen sailean sartzen dira Eskualzaleen Biltzarra eta Ikas; azkenekoan, aldiz, argitaletxeak eta aldizkariak.

Kultur elkarten sailean, Iparraldeko euskaltzaleak sakabana-turik bezala dabilta, batzuk Eskualzaleen Biltzarra zaharraren inguruan eta beste batzuk, berriz, Ikas sorberriari atxikiak. Bien artean, belaunaldien arteko etena baino harago, politikoa eta ideologikoa ere ematen da eta hori kultur praxian islatzen da garbiki. Galdera da ea Eskualzaleen Biltzarra bezalako elkarte zaharkituak, eginkizun berrietarako moldatuz, baliagarriak izan al daitezkeenetz. Belaunaldi berrikoen artean ere adostasuna ez da erabatekoa, *Zabaleko* artikulu hauetan ikus daitekeenez.

4.1.1. Eskualzaleen Biltzarra-rekin zer egin behar da, elkarte horretan parte hartu ala ez? Galdera hau planteatzen da. Gertatzen dena da, batzuek, hura jauntxoan batasuna dela esanez, bazter utzia izan zuten bitartean, gazte batzuek azken urte hauetan hor barruan sartuta daudela, horien artean, dirudienez, Mattin Lartzabal “Uztarpeko” lankidea²³³. Honek, aitzakiatzat elkarte horrek 1973ko irailaren 16an egindako batzarra hartuz, haren historia laburra egiten du eta, bidenabar, haren egungo arazoak azaltzen ditu. Batasun hori 1918an sortu zen euskara sustatzeko xedearekin, orduan ohartu baitziren euskaltzale batzuk “euskarak atzerakada handia zuela”. Bestalde, batasun horretan daudenak Ipar Euskal Herrian

arras ezagunak dira eta, batzuek diotenez, “notabilizmari lotuak”. Dena dela, jauntxoak izan ala ez horko sustatzaileak, egilearen ustez, badu zerbait eginik. *Gure Herria* aldizkaria, adibidez, haren emaitza da. Ikas batasuna ere, eskoletan euskara sartzeaz arduratzen dena, hor barne da.

4.1.2. Antzeko planteamendua egingo du Gexan Alfaro “Lantziri”k bertako aldizkarietaz diharduen hurrengo zenbakiko artikuluan ere²³⁴, zeinetan, berorien izaera eta egoera deskribatzeko orduan, hiru puntu azpimarratzen baititu, banaka azalduko ditugunak.

Lehenik, aldizkarien artean aniztasuna ematen da, mota askotakoa. Hasteko euskara pixka bat sartzen duten frantsesak dakartza, gehienak, neurri handiagoan ala txikiagoan elebidunak direnak, hala nola: *Le Miroir de la Soule* hamaboskaria, *Le Journal de St-Palais* hilabetekaria, Pariseko euskaldunen *Elgar* hilabetekaria, *Berriak* agerkaria, Pariseko euskaldunen batasunak Baionan argitaratzen duen *Biga*, Mende Berriko-en *Gernika*, Iparraldeko ikasleen arteko hilabetekaria, Iparraldeko apaizen *Mezulari* eta *Denak Argian*, *Gure Herria* bihilabetekaria; aldizkari politikoaren artean, *Enbata* eta EHASen *Euskaldunak*, ETAREN *Zutik* eta *Hautsi*, PNVren *Alderdi*, LAIAREN *Sugarra* eta ELAREN *Lan Deya*. Laburtuz, 7. taulan ikus daitekeen bezala, euskara hutsean argitaratzen direnak hiru bakarrak dira, *Othoizlari*, *Zabal* eta *Hitz*; sei, frantsesez eta euskaraz; bost, espainolez eta euskaraz; bi, frantsesez, espainolez eta euskaraz.

7. taula: Iparraldeko aldizkariak (1976)

Euskara hutsean	Frantsesez eta euskaraz	Frantsesez, espainolez, euskaraz	Espainolez eta euskaraz
<i>Othoizlari</i> <i>Zabal</i> <i>Hitz</i>	<i>Herria</i> <i>Elgar</i> <i>Gure Herria</i> <i>Gernika</i> <i>Denak Argian</i> <i>Mezulari</i>	<i>Enbata</i> <i>Euskaldunak</i>	<i>Zutik</i> <i>Hautsi</i> <i>Sugarra</i> <i>Alderdi</i> <i>Lan Dey</i>

Bigarrenik, aldizkari-aniztasunaren aurrean, kultur taldeen arteko elkartasuna lortzea izanen litzateke errentagarriena. Taula horretan agertzen den bezala, aldizkarietan hizkuntz aniztasuna da nagusi, eta lehia horretan, berriz, galtzailerik handiena euskara du. Zer egin? Ez litzateke on izanen, Gexanen ustez, aldizkari horiekin guztiekin bat egitea, aldizkari bakoitzak bere sorrera eta izaera berezia baitu eta, orobat, bere lankide-taldea. Ez du egingarri ikusten oraingoz astekari berri bat kaleratzea; askoz urrunago legoke, noski, egunkari baten ametsa. Bestalde, ongi kausitzen du aldizkari politikoetan hizkuntz aniztasuna erabiltzea. Eredugarri deritzo, adibidez, *Euskaldunaken* biderei.

Dena dela, oraingoz gaindiezinezkotzat jotzen dituen muga guzti horien gaindi, egingarri, desiragarri eta aberasgarri izanen litzateke kultur talde anitz horien artean elkartasun zabal bat antolatzea. Hemendik doa, hain zuzen, bere proposamena, aurreko artikuluan esandakoaren bidetik doana:

“Horrela, elkartasunak izan lezake bizitasun, indar eta iraupen, talde bakoitza zinez partzuer bai liteke besteekin hasi duen elkarlanean. Dударик ez da, horrelako elkartasun batek nortasun gehiago, erran nahi baita kontzientzia eta erresponsabilitate gehiago galdatzen duela, talde bakoitzari, presuna edo pertsona bakoitzari bezala. Gisa honetako Elkartasun bat sortzen ari bezala ari da, egia erran, ipar aldean aurkitzen diren hamazazpi kultur batasunen artean, frantses gobernu ta administrazioari buruz kultur eskarien ageri oinarritzko baten moldatzeko eta haiengandik erantzun serio baten erdiesteko” (Alfaro, 18, 1976, 4-5).

Arestian Ikas batasunaz esandakoa gogoan hartzea aski da, pasarte horretan ere ideia bera darabilela jabetzeko.

Hirugarrenik, Iparraldeko idazleak bertakoentzat idazten jarri behar dira, zeren idazle sobera baita Hegoaldekoentzat idazten ari dena, adibidez, *Zabal*, *Hitz* eta *Euskaldunak* aldizkarietan. Hara hemen bere iritzia:

“Zeren ipar aldeko idazle engaiatu baten egiteko lehena, beste edozein borrokarirena bezala, ipar aldean ipar aldekoentzat lan egitea baita. Beharbada, oraindik behar lukete ipar aldeko idazleek elkarrekin puntu honen ikertzen hasi, ikusteko elkarrekin zer egiten ahal duten, kazetaritza mailan gero eta bazterrerago utzia ikusten dudana ipar aldeko irakurlearen abantailetan” (Alfaro, 18, 1976, 6).

Zabalen hasierako asmoa ez al zen, bada, Iparraldeko idazleak kontuan hartzea? Egiazki, halaxe zen eta, neurri handi batean, hasieran ezarritako xedeak bete zirela esan behar da, zeren, *Erbesteko euskal pentsamendua* liburuan *Zabaleko* lankideez jardutean (Iztue-
ta, 2001, 212-214) genekarrenez, oreka aski handia gorde izan baita Hegoaldeko eta Iparraldeko idazleen artean. Orokorrean bederen, bai, aldizkariaren 4 urtealdiak batera hartuta. Eboluzioan gertatu da aldaketa. Honela, lehen urteetan Iparraldeko idazleak ugariago izan ziren eta hauek beren artikuluetan gehienbat bertako gaiak landu zituzten. Baina azkenaldian –bereziki, hondar urtean–, aldizkariak Hegoaldeko isuri nabarmenagoa hartu zuen eta, zentzu honetan, desoreka ematen da. *Zabalen* kasuan, bederen, ezin da egin baieztapen hori. Horren eboluzioaren kurban begiak azken aroan bakarrik finkatzen badira, bai; bestela ez. Gexan Alfaroren artikulua hau, hain zuzen, azken urtekoa da.

4.1.3. Iparraldeko kultur elkarte edo batasunez jardutean, argitaletxeen izenik ematen ez bada ere, Irati-ren berri, bai, ematen da *Zabalen*, honen 1974eko 5. zenbakian. Zergatik sortzen den arrazoitzen da pasarte honetan²³⁵:

“Jadanik errana dugu *Zabale*tan mugaz bi aldetako idazleak gairela eta gure multzoa zabalduz doala. Hori hola izanez, gertatzen zaiguna da, anitzez idazki edo izkribu gehiegi etortzen zaigula eta aldi oro lan batzuk hurrengo zenbakirako baztertu behar ditugula. Beraz idazlanen ugaritasuna edo aniztasuna alde batetik. Eta bestetik, gero eta argiago ikusten dugu gai berezi batzuk barnago edo sakonkiago ikertzea merezi dutela. Gauzak horrela izanik, gogoetaturik ibili gara ea ez genuenez liburu-sail berri bat ireki behar. *Zabal* aldizkaria bere bidetik aitzina joan araziz. Orai, erabakia edo deliberoa hartua dugu. ‘Irati’ izendatu dugun liburu sailari laster emanen diogu abiada”.

Pasarte hori dakarren orrialdea nork idatzia den alde batera utzita, gatozen bertan zer esaten den hurbilagotik zehaztera, honek garrantzi handiagoa du-eta.

Egiak dira ematen diren arrazoi biak. Lehenengoa da, *Zabalek* arrakasta zuela irakurle eta lankideen artean, hutsune serioa betetzera etorri zela, euskal abertzalearen baitan bazegoela horrelako aldizkari baten beharra eta, hain zuzen ere, denak zenbaki berean argitaratu ezin ahala artikulua jasotzen zirela zuzendaritzan. Bi-

garrena da, gai jakin batzuk sakonkiago aztertzea eskatzen zutela eta, ondorioz, saioretara pasatzeko ordua zela. Horregatik, aldizkaria jadanik bideratua zegoenez gero, honen alboan, paraleloan doazen bi lerroen antzera, hurrengo urrats garrantzitsu gisa argialetxe bat muntatzea zen gure xede nagusi eta irmoa.

Kronologiaren zerrendan lehenik *Zabal* aldizkaria eta gero Irati argialetxea badatoz ere, sortzaileon hasierako asmoetan zeuden egitasmo biak. Eta honen arrazoia da ordurako prest geneuzkela liburu batzuk eta argitara non emanik ez geneukala. Horregatik, bi arrazoi horiek, bakarka hartuta, baliozkoak dira, baina ez daude bata besteari loturik, aldizkariaren garapenak argialetxearena ekarri izan balu bezala. Kultur proiektu bat-beraren bi adar bezala ziren, biak batean bezala pentsatuak, nahiz eta berorien garapena kronologiaren aldetik mailakatua izan.

Programatutako liburuan artean, 12 agertzen ziren. Lehenengo lauak egile eta lanen izenekin, besteak izenik gabe:

1. Iztueta/Apalategi: *Marxismo eta nazional arazoa Euskal Herrian*
2. Davant: *Aberrri borroka eta klase borroka euskal mugimenduan*
3. J. Apalategi: *Nazionalismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*
4. J. Apalategi: *Euskal mugimendu politikoaren historia laburra*
5. Nekazari euskalduna
6. Euskal ekonomiaz
7. Ipar eta hego Euskal-Herriko harremanak
8. Ikastolen inguruan
9. Euskal kulturaz
10. Herri teoria
11. Euskal kanta berria
12. Euskal poeten belaunaldia

Agindu hamabi argitalpen agintzen ziren, baina lehen biak bakarrik argitaratu ziren Irati-n, Hendaiaiko Mugalden inprimatuta, baina Baionako Zabal elkartearen babesean. Horregatik darimate “Irati-Zabal” en zigilua, Irati-k ez baitzezakeen argitara Zabal elkartearen lege-babesean baizik.

Nolanahi ere, argitaratzeko zerrendan, euskal kulturaz, irakaskuntzaz, kantuaz, literaturaz-eta, lan batzuk iragartzen baitira hor, egia esateko, gai horien inguruan bagenuen zenbait testu pres-

tatuta, artean apunte gisa bazen ere; baina, une hartako argitalpen-estrategiak hala aginduta, material horretatik zati bat itzalean geratu zen –eta oraindik ere halaxe jarraitzen du–, eta beste saio bat, aldiz, Jakin-en argitaratu zen, zehazki *Sei idazle plazara* (I-II), Begiarmen ezizenez. Biak urte berean: 1974an.

Zergatik lehen liburua Irati-n eta besteak, izenordea erabiliz, Jakin-en? Bistan da, klandestinitatearengatik. Ahal zirenak, Hegoaldean, gure argitalpen-politikaren xedeetako bat irakurlearen esparrua ahalik eta gehien zabaltzea zelako. Xede hau frankismo-zentsuraren garaian, errazago lor zitekeen kultur gaietan zuzenki politikoetan baino. Irati sortzearen oinarritzko arrazoia, bada, ezker abertzalearen pentsamendua modu autonomo batez lantzea zen, ez bakarrik artikuluen bidez, baita saiakerak argitaratuz ere. Eta nola hau ezinezkoa zen Espainia frankistan, honen bukaera noiz etorriko zain egon gabe, *Zabalekin* egin bezala, ordutik bertatik Irati argialetxearekin hastea erabaki genuen. Geroagoko beste pasarte batean, 1974eko 10. zenbakian, horrelako argialetxe bat sortu beharraz hitz egiten da, hemen, besteak beste, lege-arazoak aipatuz²³⁶.

Ez dagokigu orain azaltzea hasieran Irati baino ez zena nola bilakatzen den gero Elkar. Hemen soilki *Zabaleko* testura mugatzen gara.

4.1.4. Komunikabideen mailan, gutxi bada ere, euskarak badu bere presentzia, oso txikia bada ere, Frantziako irrati eta telebistan. Baionako irratitik egunero bost minutu eskaintzen dira eta lan honetan dihardutenak, Maite Barnetxe, Ramontxo Kanblong, Gexan Alfaro, Jakes Etxeberri, Damattitt Dirazar eta Narbaitz kalonjea dira. Telebistako ikuskizunak, berriz, hamabostero ematen dira hamabost bat minutuz, Maite Barnetxek zuzenduta. Hauek ditugu Gexan Alfaroren 1976ko artikuluan²³⁷ aurkitzen ditugun datuak. Sail honetan ere kritikarik ez da falta: euskal ezkertiar zenbaiten ustez, Frantziako irrati eta telebistan ematen diren euskarazko emankizun horietan parte hartzen dutenak frantses kolaboratzaile omen direla. Gexanen aburua da, kritikak kritika, frantses sistemako erakundeen barruan ere euskal kulturaren aldeko borroka egin behar dela.

4.1.5. Kantuaren sailean, Jokin Apalategik²³⁸ Ortziken kantari-taldeak 1975eko azaroan Donibane Lohizuneko Rex aretoan emandako kantaldia aztertzen du. Bertan parte hartu zutenak, hauek

izan ziren: Iñaki Urtizberea, Iker Robles, Manex Pagola, Pantxika Erramuspe, Maite Idirin, Eneko Labegerie, Peio Ospital, Pantxoa Carrere eta Maribel Etxezaharreta.

Ortziken Iparraldean sortzen da eta ez Hegoaldean, hemen horrelako emankizun bat eskaintzeko askatasunik ez dagoelako. Berrito zentsuraren arazoa aipatzen da. Obraren mamiaz ari dela, iraultza egiten ari den herri baten irudia eskaintzen da bertan. Sei puntu hauetara laburbiltzen du egileak obraren mezua, testuan bertan tesi gisa honela formulatuta dakartzanak: 1) herri bat gara; 2) historia luze batean galduaz erroten gara; 3) kapitalismoa eta bere erakunde laguntzaileak kondentzen dira; 4) gure herri langilearen bizitza eta buruhaustea azaltzen dira; 5) Euskal Herriaren hegi espeziako jarduten da, hots, etniari buruz; 6) aterabidetzat abertzale gisa diharduten guztien batasuna proposatzen da.

Alderdi teknikoari dagokionez, Ortziken-en berezitasuna, egileak dioenez, “aldi berean, abesti banakoa eta taldekoa, instrumentu laguntzaileen aniztasuna, antzerkia (komikoa gehienbat), didaktika (kronistaren pertsonaia), dantza, bertsolaritza eta ikus-entzunezko tresnak (iruzkindutako diapositibak) elkarrekin nahastean eta erabiltzean datza” (Apalategi, 17, 1976, 16). Egilearen ustez, “urrats galanta baten aitzinean” gaude eta aurrerantzean kontuan hartu beharreko eredu bat izanen da.

4.2. Hegoaldeko kultur bideak

Iparraldeko kultur plataformak aztertzen dituzten artikuluak badauden bezala, Hegoaldeko kultur mugimenduak eta argitalpenak azaltzera mugatzen direnak ere aurkitzen dira. Honela, bi aldetakoak elkartuz, ikuspegi aski osoa ematera iristen da *Zabal* aldizkaria epealdi honetako euskal kulturaren inguruan, honen garapena, batez ere, kultur erakunde eta gizarte-mugimenduen aldetik hartuta.

4.2.1. Hemen Eneko izeneko batek²³⁹, garai honetako kultur mugimenduaz ari delarik, kultur sail bakoitzeko orduko egoera zertan den azaltzen du. Sail hauek banan-banan eta zehatz aztertzen ditu: 1) Ikastolak, 2) Alfabetatzea, 3) Aldizkari eta argitaldaria, eta 4) Neologismoak. Artikulu interesgarria bezain jakinagarria da, horietako bakoitzaren egoera deskribatzearekin batera, bere balorazioak eskaintzen baititu.

Ez beste sailak interesatzen ez zaizkigulako, Ikastolen eta Alfabetatzearen gainean beste leku batean arituko garelako baizik, gatozen aldizkari eta liburuen sailera. Aldizkarien sailean, *Agur* eta *Goiz* ezin atzerakoiagoak iruditzen zaizkio ideologiaren zein euskara batuaren aldetik. *Zeruko Argia*, nahiz eta hau euskal kristau demokraten aldizkaria den –elizaren itzalpean dabilena, alegia–, badiu honek bere alde bi ezaugarri: euskara batuaren alde agertzen dela eta bertako idazle batzuek sozialistatzat dauzkatela beren buruak. *Anaitasuna*, “oraintsu arte gure artean izan dugun aldizkaririk aurrerakoiena” izanda –borroka ideologikoari eusten ziolako, hain zuzen–, orain –dirudienez, berrikuntzaren ondotik–, “kristau kutsuko gertakari eta jokabideen informatzaile bihurtu da funtsean” (Eneko, 10, 1974, 50). *Zabal* da, bere ustez, lehen aldizkari sozialista:

“Zuzendari eta bertako idazleek diotenez aldizkari sozialista bat izan nahi omen luke. Orduan, beraz, *Zabal* litzateke bere ahoz baieztatu duen lehen euskal aldizkari sozialista. Halere ez da garbi ikusten sozialismoa horretaz duten zentzukidea eta irizpidea. Dena dela, aldizkari honi esker Ipar Euskal Herria sakonagotik ezagutzeko aukera bat dugu, han bizi dituzten arazo nagusien lekuko da eta. Bestalde, artikulu jakingarririk azaldu da bertan. Eta gaur gaurkoz euskal sozialistok nahitaezkoa dugun aldizkari bihurtu zaigu, borroka politikoa, teoria eta ideologia mailan ere nonbait adierazi beharko baita noski. Gorago jakinarazi dugu nola hegoaldeko aldizkarietan egin behar hori ezin den bete, burutu. Euskara batuaren aldeko da halabeharrez, eta oraingo eredu bat aurkitu ez badu ere horretarantz doala ematen du” (Eneko, 10, 1974, 51).

Argitaletxeen sailean, berriz, Jakin-ek hiztegitzatik joko omen du; Lur-ek, itzulpen eta literaturatik –eta hau genuke elizaren eraginari ihes egiten dion ezkerreko bakarra–; azken honen kontrarrean, Etor eta Gero agertzen dira, hau euskara batuaren aldekoa eta hura kontrakoa, baina ideologiaren aldetik biak familia bertsu-koak. Derragun Gero (Bilbo), 1973. urtera arte, Etor (Donostia) izenez ezagutzen zela.

4.2.2. Hegoaldeko aldizkariekin jarraituz, esan berriak gara nola Enekok adierazten zuen *Anaitasunaren* oraingo kristau-joerako ikusmoldea baino laketago zitzaiola lehengo ezker joerakoa, irekikoa-

goa. Aurreko 9. zenbakian, aldiz, Paulo Iztuetak²⁴⁰ *Anaitasuna* berri-rituaz iritzi positiboak ematen zuen; lehengoa, “mitoak, mitologiak, ideologiak eta horrelakoak ezagutu dituen horietakoa” iruditzen zitzaion. Justu Enekok pentsatzen duenaren alderantzizkoa. Kontrako iritziak ere agertzen zirela adierazteko adibide bat hor dago.

Anaitasunak azalez eta mamiz aldatzen du 1974an. Eta aldaketa honekin, aurreko aldia eta ondorengoa garbiki bereiziko dira.

Gaiari lotzeko, esan dezagun frantziskotarren aldizkari honek, 1960an sortua izan zenez geroztik 1982an desagertu arte, sei aro bederen ezagutu zituela. Bosgarren aroan (1969-73), zeinetan ematen baitira euskal kultura eta politikan gatazka ideologikorik bortitzenak, Anjel Zelaieta izan zen zuzendari eta Josu Torre idazkari. “Ideologiakeria” sobera eskaintzearen salaketa egiten zaio aro honetako hamabostekoari P. Iztuetaren (1974, 9, 38) pasarte honetan datorrenez:

“Ideologiako eritasunez egiazki eri ageri zen 1972 inguruko *Anaitasuna* hura. Zer kalapitak! Batetik ‘Mitxelenaren tristura’ zela eta ez zela, bestetik Joseba Arregiren ‘erbiak eta katuak’, harago Amatiñoren kontrako ‘lau kaleak’, eta nik ahal dakit zer gehiago, euskal kulturari buruzko aho kritikoa hitz alferrez eta sarritan polemika maltzurrez puntaraino beterik zegoen. Saltsa guzti horrek zenbaitzuen aurpegiak ezagutzeko balio izan badu ere, ez dut uste izpiritu kritikoa gehiegi zorrotzu duenik. Kritika lana akusatuz baino gehiago arrazoituz egiten da”.

Garai honetako *Anaitasunan* ideia ausartak bezain kategori-koak agertzen ziren heziketa askatzaileaz, edo euskal kantuaz, edo determinismo ekonomikoaz, edo familia patriarkalaz. *Nork zer* idazten zuen ere biziki garrantzitsua zen une hartan, kultur planteamenduen atzetik jarrera politiko garbiak baitzeuden sarri askotan. Luis Haranburu lankidearen kasuan, adibidez, honen “carriillismoa” ezaguna zen Pariseko denboretatik. Egia da, askotan eskema marxista sinplistenak erabili ziren, aranismoa zela-ta, etxeko nazionalismo-adierazpenak oro errotik kritikatzeko, ez horrela edo neurri berean ezker espainolekoak. Beste batzuetan, ordea, kritika zorrotzen barruan, ekarpen positiboak ere egin ziren, bereziki pentsamendu pedagogikoan. Zentzu honetan, Eusebio Osa zenaren artikuluak, berdin liburuak, gehienetan ongi arrazoituak iruditzen zitzaizkidan eta gogokoak nituen –eta gaur, *a posteriori* begiratura,

berriz, areago oraindik-, kritika krudelegia jaso izan zuen inpresio triste antzekoa daukat. Justizia egin ez zaion autore handi bat da, zalantzarik gabe. Espantu gutxikoa, pantailarik gabekoa, baina beti aurrean daukazuna.

Anaitasunan Alemaniatik sarritan idazten zuten lankide batzuek, batik bat, gogor kritikatu zituzten hor agertu ziren iritzi batzuk. Joseba Arregirentzat, adibidez, adoleszentiari datzekion jarrerara narzisista baten adierazgarri ziren eztabaida haiek, heldutasun- ezarenak, norberak bere burua nabarmendu nahiarenak. Baina orduan ez baitzen ezagutzen gaur bezala ezkerreko euskaltzale eta abertzaleen kontra erakusten duen orojakile puztuaren inkisidore- ezpala, bere anaia mitikoaren ohorearekin eta urruntasun geogra- fikoaren abantailarekin jokatu zuen epailari kritikoaren haizea bere alde izan zezan, eta askok sinetsi egin zioten, genion.

Nolanahi ere, giro nahastu eta gaiztotu hark zuzendaritza berri- ro frantziskotarrek hartzea ekarriko du: “*Anaitasunaren* ingurumari tarteka-marteka ageri ohi zen gaztaroko giroa krisi lazgarri baten aitzinean aurkituko da 1973 aldera. Salakuntzarako joera desmiti- fikatu egiten da, salakuntza horien gibeletik beste intentziorik ere ikusten hasia baitzen jende zuhurra. Gauzak horrela, *Anaitasuna* zuzendaritzaz aldatu dela ohartzen gara, eta hein handi batean, idaz- lez ere” (Iztueta, 1974, 9, 39).

Honela, seigarren aroan (1973-78), Joseba Intxaustik hartu zituen zuzendari-lanak 1973an, ekonomi saneamenduak eginez, eta hurrengoan (1974), berriz, J. M. Torrealdaik, eta honek erabe- rritzen du aldizkaria formatuz, egituraz eta ikuspegiz. Ideologiaren aldetik, hemendik aurrera, euskal humanismoaren ildoan markatzen da eta, aurreko aroko esperientzia izanda, ondoko ibilbidean pen- tsamolde horri eutsiko zaio: “Nik hortik ikusten dut bidea. Beraz, marxismoak duen ona ez dago zertan zapuzturik eta duen okerra ezta ere zertan ezkutaturik” (Iztueta, 1974, 9, 40).

Geroago, 1976an, hainbat euskal aldizkarik ere berritu zuten beren itxura, baina ez horietan edukiaren aldetik aldaketaren bat edo eten ideologikoren bat eman zelako, urte hori euskal ka- zetagintzaren urtea izatea erabaki zelako baizik. Horregatik agertu ziren berrituta *Zeruko Argia*, *Hitz*, *Elbuiyar*, *Gernika* eta *Zabal*. Az- keneko hau orain agertzen da lehen aldiz moldiztegi apaindua. Gexan Alfarok²⁴¹ *Herria* ere azalez era mamiz eraberritua nahi luke, apaizen eskuetan dagoen astekari horretan gazteei sarrera emanaz.

4.2.3. Liburuen sailean, Gexan Alfarok²⁴², 1972an argitaratutako 56 edo 58 liburuak direla-eta, iruzkin batzuk egiten ditu. Iparraldean, han-hemen entzuten diren kritikak jasotzen ditu: irakurle gutxi dituztela, hori ez dela euskara, “espainol euskara baizik”, jende xeheari ez zaizkiola aski hurbilak, etab. Egileak ez ditu ontzat ematen kritika ezkor horiek, ez bederen ñabardura batzuk egin gabe. Liburu horiek, gehienak, saiakerak dira, baina horien bidez “euskal literatura indarberritzen eta aberasten ari da” eta, batzuen iritziz gainera, “euskaraz erdaraz baino liburu interesgarriagoak argitaratzen omen dira”. Honen arrazoia da, beti ere egilearen ustez, euskal idazleengan “ofiziodun jakinak eta espezializatuak” aurkitzen direla. Argitaratu berriak diren bi liburu garrantzitsu aipatzen ditu azkenik: Jakin-ek elkar-lanean kaleratutako *Kooperatibak* lan monografikoa eta Gurutz Ansolaren *USA-ren agintaritzza eta dolarraren krisia*, hau Gero-k argitaratua.

Atal honen hondarrera heldu-eta, esan dezakeguna da, *Zabalek*, bere ekarpen sotilean, euskal kulturak garai hartan landutako gai nagusien kronika landua eskaintzen duela, mendi-gailurretik bis-tatzen den haranaren antzekoa.

XII

Hezkuntza-sistema euskaldun baten bila

Euskal hezkuntzaz ezer gutxi aztertu eta argitaratua zegoen garaian hasten da *Zabal* aldizkaria bere labetik gogoeta beroak ateratzen hartaz eta horretaz, beti ere egunerokotasunak sortzen dituen herri-arazoei lotuta doazenak. Gogoeta hauek, kasurik gehienetan, kultur praxiak eragindakoak dira. Eguneroko gizarte-bizitzatik jalgiak izatetik datorkie duten berotasuna.

Zabalen badira, gaiak aztertu eta hizkuntza erabiltzeko modu-agatik, hezkuntzaren soziologian sar daitezkeen artikulu batzuk: hezkuntza formalean irakaskuntzari buruzkoak eta informalean, berriz, sexu-heziketaz eta alfabetatzeaz dihardutenak. Lan hauek, zein zainduago zein apalago, sail honetan euskaraz egiten diren lehenengoetako saioak dira –ez bakarrak, noski–, eta zentzu zabal honetan diogu, hain zuzen, hasikinak direla. Unibertsitate-mailan, oraindik argitaratzeko dago euskarazko prosa akademikoa hezkuntzaren soziologiaren sailean.

1. Irakaskuntzaren saila

Irakaskuntzaren sailean, arretarik gehien Ikastolek jasotzen badute ere, badira irakaskuntzaz orokorrean diharduten artikuluak ere. Bestalde, beste gaitetan bezala, idazleak mugaz bi aldetakoak izatean, alde bietako hezkuntza-egitateak aztertzen dira. Horregatik, argitasunagatik, banaturik doazkizu.

1.1. Gatazka ideologikoa Hegoaldeko Ikastoletan

Ikastolek jadanik indar handia hartua zuten Hegoaldeko irakaskuntzan 1970eko hamarkada-hasieran eta lehia bizia ema-

ten zen indar politikoen artean, bereziki ideologi mailan. Herri-mugimenduak gidatutako kultur fenomeno hura nork kontrolatuko, honetan zetzan arazoaren funtsa. Ikastola gehienak, 1973-74 ikasturtean, Hegoaldean kokatuak zeuden, 22.518 ikaslerekin; Iparraldean, 175 bakarrik²⁴³. Halere, 1969-70 ikasturteetik aurrera, Euskal Herri osoan, Hegoan bezala Iparreran, alde bietan finkatuak daude Ikastolak. Datu hau da garrantzitsua.

Gai asko eztabaidatu ziren orduan batera, Hegoaldean zehazki: erlijioarena, euskara batuarena, Ikastolen izaera burgesa, demokratikoa, apolitikoa, etab. Eztabaida hauen orduko lekuko dira, egunkari eta aldizkarietan argitaratutako artikuluez gain, J. Lasa Apalategiren *Euskal erria eta ikastola (Una polémica en torno a la ikastola)*²⁴⁴, 1971n argitaratua, zeinetan EAJko sektorerik atzerakoien ideologia azaltzen baita, eta hurrengo urtean Jakin sortak elkarlanean argitaratutako *Gure Ikastolak* (1972) artikulua²⁴⁵, zeinetan joera desberdinetako iritzi gehientsuenak agertzen baitira. Berrikitan, Ikastolen historiak Idoia Fernandezek (1994, 234-260) egindako doktore-tesian, egoki jaso aurkitzen da orduko gatazka ideologikoaren luze-zabala²⁴⁶.

1.1.1. Koldo Aristegi “Errezabal”ek²⁴⁷ *Zabalen* argitaratzen duen “Ikastolak Hego aldean” artikulua ere giro gatazkatsu hartan kokatu beharra dago. Euskal abertzaleak zeukan pentsamendua islatzen da bertan eta, zentzu honetan, garrantzi handikoak dira hor formulatzen diren tesiak, nolabait esateko, nahasketa hartan sortutako sasi-belarrak garbitzera datorrena²⁴⁸. Batzuek talde politikoen eragina eta azpi-jokoa ez bide dute hain garbi ikusten eta, hainbeste eztabaida eta istilurekin nazkatuta, politikatik erabat apartatu egiten dira. Jarrera honi arriskugarria deritzo, zeren, “politikaren ukatzearekin batera, joera politiko guztiak maila berdinean epaitzen baitira eta denak batera ukatzen, hots, joera abertzaleak eta ez direnak, Ikastolak aurrera atera nahi dituztenak eta beren joko politikoa egiten bakarrik dabiltzanak, edo beren lineako ikastolarik lortzen ez badute, hau desegiteko prest daudenak” (Aristegi, 5, 1974, I).

Zehazkiago esanda, Ikastoletan nabari diren joeren artean, bereziki, bi hauek kritikatzeko dira lan honetan: bata eskuinekoa, bestea ezkerrekoa edo, zuzenago esateko, ezkerrearen barruan “ezker-tikerizkoa” deitzen zaiona.

Eskuinekoan euskaldun burges txiki eta erdikoien interesak aurkitzen dira eta, teoriarik atzerakoiak badira ere, praktikan haien

politika nagusitzen da. Sektore honek, batetik, ikastoletan dabilen jende arruntak baino diru gehiago baitu eta, bestetik, elizaren babesarekin kontatzen baitu, Ikastola askotako zuzendaritza bere eskuetan dauka.

Ezkerrekoan –nolabait deitu behar-eta–, garai hartan modan zegoen “ezkertikeriaren” etiketarekin kategorizatzen direnak datoz. Hauen bi tesi nagusi aztertzen dira hemen, lehenik haiena formulatuz eta gero errefusatuz.

Beti ere ETA Sextakoen iturriak aipatuz²⁴⁹, tesi horietako bat da, lehen abertzale aurrerakoi eta sozialisten eskuetan zeuden Ikastolak orain burges eta kontserbadoreen eskuetan erortzen ari omen direla. Baieztapen honek, ordea, esango zaigunez, ez zuen inolako balio objektiborik Ikastolen errealitate historikoan. Bi arrazoi ematen dira horren froga gisa.

Ikastolen lehen ezaugarria, hain zuzen, jatorriz eta funtzionamenduz herritarrak izatearena dela eta, herri-mugimenduan oinarrituta daudenez, haien bilakabidea ere herri-borrokaaren arabera izan dela, gero eta errotikoagoa, gero eta aurrerakoiagoa, alegia²⁵⁰; eta hemendik eratortzen den bigarrena da, berriz, haien bilakabidean herri-mugimendu hori osatzen duten klase desberdinek, burgesek barne, parte hartzen dutela²⁵¹.

Argitasun horiek ematea, gaur ipuin-kontua badirudi ere, garai hartan garrantzi handiko egiteko historikoa zen, zeren, ETArekin baitan V.a eta VI.aren arteko zatiketa gertatuz geroztik, azken sektorekoen eragina, propaganda-mailan bederen, ikastola-munduan uste baino sakonagoa baitzen eta honek, inolako bereizketarik egin gabe, ezker abertzalearen kontrako eraso ekarri baitzuen eskuinekoen aldetik, teorikoki ahula baina ederki orkestatua eta abilki gidatua, ezkertiarrok oro esparru politiko eta ideologiko berean kokatuz, hots, marxismoan, ateismoan eta antzekoetan. Hala jasotzen da pasarte honetan:

“Bilakaera horren eragina ikastoletan ere biziki nabaritzen da. Gero eta erakusle gehiagok du joera berri horien influentzia. Honela, bada, ordura arte erabat dominantea zen ideologia bere nagusitasuna galtzen eta kolokatzen hasten da. Baina oso konprenigarri denez, euskal burgesia abertzalea abiada hortaz ohartzen delarik, ez da besoak gurutzatuta gelditzen. Hain garrantzizko erakunde bat bere menpetasunetik ihes egiteko bidean ikusirik, bere posizioak gogortzen ditu eta klase honetako elementurik

atzerakoienak *gurutzada* antzeko zer bait muntatu nahian hasten dira, alde guztietan *marxista*, *maoista*, *ateo*, eta abar, ikusiaz eta salatuaz, honela herriko guraso eta jende xehea bereganatu nahirik. Eta uste dugu gaur-egun oraindik egoera honetan aurkitzen garela” (Aristegi 1974, 5, III).

Iturri berean²⁵² datorren beste tesi bat da, lehenengoaren ondorioa baizik ez dena, Ikastolak burgesak direnez, horiek kontserbadoreentzat utzi-eta, ezker aurrerakoiak irakaskuntza publikoan hezkuntza elebitasunaren alde jokatu beharko lukeela.

Proposamen horretako lehen zatian egiten den baieztapenari –Ikastolen izaera burges eta kontserbadoreari buruzkoari, alegia–, ohar hauek egiten zaizkio: a) herriak bere askatasunaren aldeko borrokan sortutako Ikastolak eta estatu espainolak ezarritako eskola publikoak ezin direla biak parean jarri; b) Ikastolak eta eskola ofizialak ez direla irizpide-neurri berberetzat epaitzen, zeren ikastola batzuetako zuzendaritza atzerakoa bakarrik salatzen den bitartean –horietako irakasle eta guraso aurrerakoiak ahaztuz, jakina–, eskola ofizialetako irakasle aurrerakoiak goraiatzat baitira, kontuan hartu gabe, jakina, horien jabe eta kudeatzaileak espainiar estatua eta honen sostengu den goi-burgesia direla; c) eskola ofizialen izaera eta eginkizun zapaltzailea ez dela batere aldatzen eskola horietara langileen seme asko doalako, zeren eskola horiek ez baitira langileriarenak; e) ateratzen duten ondorioari buruz, berriz, esaten da elementu interesgarritzat jotzen dela elebitasuna irakaskuntza publikoan zein pribatuan sartzea, baina, hori lortuko balitz ere, ez litzatekeela horregatik Ikastolen beharra inolaz ere amaituko.

Elebitasunaren arazoa, hain zuzen, 1974ko udan Hazparneko Eskola Teknikoan Ikastoletako irakasleentzat egindako ikastaroan planteatu eta aztertu zen. Orduan han enplegatzen nintzen eta oroitzen naiz parte-hartzaileen artean Luis Haranburu Altuna ere han ikusi izanaz. Aurkeztutako materialen artean, landuena Eusebio Osaren txostena izan zen. Honen zenbait gogoeta aintzakotzat hartu beharrekoak baziren ere, bere diskurtsoak bazuen oinarritzako akats bat, abiapuntuan bertan zetzana eta ondoko guztia baldintzatzen zuena, eta zen hizkuntz arazoaren muina klase-terminoetara mugatzen zuela eta, ondorioz, hizkuntzen arteko gatazka –kasu honetan erdaren eta euskararen artekoa–, erabat baztertu egiten zuela. Harentzat garrantzizkoena, bada, hizkuntzaren edukian zetzan, hots, hizkuntzaren bidez “zer” esaten den eta esaten dena “noren”

zerbitzuan dagoen. Jarrera honi egiten zaion kritika, zera da: hizkuntzak, klase-ikuspegiak gain, baduela herri-nortasunaren alderdia ere eta honek baduela zerikusia nazio-arazoarekin. Pasarte honetan garbi formulatzen da ideia hau, orain ere mamitsua atzematen duguna:

“Bizi dugun eguneroko errealitateari begiratu ezker, edonor jabetzen da, egun, hizkuntza mailako kontraesan nagusia ez dagoela burgesiaren euskararen eta langileriaren euskararen artean; Espainiako eta Frantziako Estatu zapaltzaileen gaztelera eta frantsesa batetik eta herriaren euskara bestetik, hor dago lehen kontraesan nagusia. Eta errealitate hau ez da batere aldatzen han edo hemen nagusi euskaldun batek langile erdalduna zapaltzen duela aitortzeagatik. Estatuaren aparatua guztia eta goi mailako klaseen hizkuntza *erdarazkoa* da; nahiz eta burges handi hauek batzuetan jatorriz euskaldunak izan, erdaraz betetzen dute beren eginkizun zapaltzailea. Horregatik, hizkuntzari buruzko azterketa batean alderdi guzti hau alde batera uztea ezin onar dezakegu inolaz ere. Aitzitik, uste dugu, hizkuntza atzerritarren menpean zapaldu-ta galbidean aurkitzen den une honetan, iraultzaile batentzat lehenengo eginkizuna nazio hizkuntzaren alde borrokatzea dela zapaltzaile guztien aurka, eta ez gure artean batzuekin gertatzen ari den bezala, euskara mintzatuz ere zapaltzaile izan litekeela *deskubritzen* jardutea batez ere” (Aristegi, 5, 1974, VI-VII).

Argitasun horiek eman eta gero, gaur elebitasun erreala eta testuan “bilinguismo efektiboa” deitzen zaion hori, Euskal Herria euskalduntzeko “taktika mailako urrats bat bezala” ikusten da, bide horretatik igaro beharreko zerbait gisa, ez gehiago (Aristegi, 5, 1974, VII).

Ezkerrekoen artean, ordea, bada beste joera bat “ezkerkeria” horri aihar zaiona, beste bide batzuk proposatzen dituen eta orokorrean ETArekin inguruko eta ez hain inguruko ezker abertzaleak bere egiten duena. Hemen planteatzen denaren funtsa jadanik ikusia dugu, alde eta zeharka, artikulua honetan ezkerkeriari egin zaizkion kritiketan eta emandako erantzunetan. Zentzu positiboan, ondorioen azken zatian datoz oinarrizko puntuen formulazioak, sei hauetara mugatzen direnak: a) Ikastolek beharrezkoak izanez segitzen dute, eta segituko, inoiz irakaskuntza ofizialean hala-moduzko elebitasuna ezarriko balitz ere; b) ez edozein ikastola-eredu, baizik eta gero eta hobea, hots, aurrerakoiagoa eta herritarragoa nahi da; c)

Ikastolek egon, herritar klase guztientzako irekiak egon behar dute, baina klase bakoitzak bere interesak dauzkanez gero, ezker abertzale sozialistak langile-interesak defendituko ditu bertan; d) klasearteko kontraesanak arras egiazkoak izanik ere, Euskal Herrian etsai nagusia ez da burgesia, Espainiako eta Frantziako estatu erdirakoiak eta horko oligarkia eta goi-burgesia baizik; e) Ikastolek, apolitikotasunean babestu gabe, ezinbestekoa dute beren norabide politikoa markatzea, baina, aldi berean, autonomia osoz jokatzuz, alderdi jakin baten “jostailu” gerta ez daitezten; f) Ikastolen norakoa, Ikastoletako praktikak berak erakutsiko du eta eguneroko errealitatearen gainean eraikiko dira gogoeta teorikoak (Aristegi, 5, 1974, VII-VIII).

Eskuineko joerarekin ez bezala, ezkerrekoekin alderantziz gertatzen da, hauen teoriak, “paperean batez ere, aurrerakoiak bezala agertzen” badira ere, praktikan ez dutela oraingoz eragin handirik (Aristegi, 5, 1974, II). Ezker honetan kokatzen dira herri-mugimenduan murgildurik dabilzan Ikastoletako hainbat guraso eta ikasle, kopuru aldetik gehiengoa osatu arren, bitarteko ekonomikorik ez dutenak eta, beraz, kudeaketa praktikotik at geratzen direnak. Ezker abertzale honen jokabidea hortik doa, bere bide autonomoa egin nahirik, aldi berean eskuin atzerakoiaren eta ezkerkeriaren kontra arituz.

1.1.2. Nor den ez dakigun “Hegitar” delakoak, *Zabalera* igorritako “Errezabali gutun irekia” izeneko erantzunean, haren analisia ez dela errealitatean oinarritua leporatzen dio, zeren, hitzez hitz esanda, “euskal burgesiak ikastoletan duen nagusitasun ideologikoa nork ere baitaki” (11, 1975, 58). Haren ustez, Ikastoletan parte hartzen duten indarren artean, “eskuina dominantea da”, ez bakarrik maila praktikoan, baita teorikoan edo ideologikoan ere, eta klase horrek zuzentzen du Ikastolen mugimendua. Bestalde, elebitasunari dagokionez, “arrunta eta funtsagabea” iruditzen zaio ezkerreko espainolisten kontra erabiltzen duen arrazonamendua, esaten baitzuen elebitasuna predikatzen dutenek, gehienetan, ez dutela praktikatzeko. Baieztapen honi ez bide dio kausitzen “zientzia oinarririk”. Orri-pare bateko erantzunean, zirt-zart batean, “Errezabal”en azterketari “zientzitasunik eza” leporatu-eta, elebitasunaren gainean arrazoi berriak eman ditzan eskatzen dio.

Berriro diogu, abizen horren egiazko izena ez dakigula. Baina une batean, elebitasunaz ari delarik, “behartuta ikusten dudala ene

burua zerbait esateko hortaz” esaten baitu, baliteke Eusebio Osa izatea, zeren Aristegiren artikuluan haren izena espresuki aipatzen baita, elebitasunari buruzko txostenaren egile gisa aipatzen ere. Gainera, une horretan, Eusebio Osa, Luis Haranburu Altuna eta beste hainbat –irakasle-munduan zebiltzanak, gehienbat–, Aristegik “ezkerkerian” kokatzen zituen joera horren baranoan mugitzen ziren.

Bego hor orduko polemika sukartsu hura. Egunen batean, Ikastolen historia askoz ere barruagotik lantzean –erakunde bereko artxiboak eta beste hainbat pribaturenak ireki eta aztertuko direnean, alegia–, ziur gaude argibide berriak agertuko direla, garrantzitsuak, eta orduan askoz ere hobeto kokatuak egongo garela garai ilun haietako gatazka politiko eta ideologikoak objektibotasun handiago batez aztertu ahal izateko. Oraingoz, bada, utz dezagun hain maite zen, eta den, zorieko “zientifikotasunaren” inbokazioa.

1.2. Euskarazko irakaskuntza finkatzeko lehen saioak Iparraldean

Iparraldeko irakaskuntzari dagokionez, bada artikulua bat gai horretaz gogoeta-maila orokorrean ari dena, beste bat soziohistorikoa, baina lekuko eskolari lotua, eta, azkenik, beste batzuek oraingo eskola-egoera zuzenean aztertzen dutenak. Hiru maila horiek elkartzen saiatuko gara.

1.2.1. Irakaskuntzarena maila teorikoan hartuta, Battita Larzabal “F.B. Munho”k “Eskolako bestelaketaz” artikuluan (3, 1973, 34-37) dakarrenez, zapalduen kontzientzia besterentzeko burgesiak erabiltzen dituen tresnen artean, polizialak baino oraindik ere eragingarriagoak, komunikabideak eta eskolak dira. “Armarik hobere-na, eskola” da, esango digu, zeren “eskolari esker, demokraziaren itzalean, zapalkuntza ederki finkatzen baita” (B. Lartzabal, 3, 1974, 34). Eskolak, batere neutro izan gabe, modu batera edo bestera markatua uzten du eskolatua. Nola? Modu askotara.

Lehenik, eskolak, bertan sartu aurretik berdin barruan, ikasleak diskriminatu egiten ditu. Pentsatu izan da, hauteskunde demokratikoetan norberak libreki bozkatzen duen bezala, eskola ere denentzat era berean irekita dagoen erakundea dela eta han diplomak norberaren merituen arabera banatzen direla. Baina, gertatzez, “burgesiaren eskolak demokraziaren itxura baizik ez du” (B. Larzabal, 3, 1974, 34).

Bigarrenik, eskolan mundu-ikuskeraz berezia txertatzen da, zeina izango baita gizartearen nagusi den ideologiaren arabera. Frantzia eta Espainia, munduko estatu onenak, azkarrenak, zibilizatuenak bailiran agertzen dira. Geografiaren aldetik ere, nazio puruak bailiran datozkigu emanak, muga naturalez osatuak eta zainduak baileuden. Bretoiak, euskaldunak, katalanak eta beste herri zapalduak, aldiz, aipatu ere ez dira aipatzen.

Hirugarrenik, eskolan gizarte-klaseak garbiki islatzen dira: alde batean burges familiako seme-alabak aurkitzen dira eta bestean, berriz, langile- edo laborari-familiakoak. Eskolak egiten duena da familiaratik dakarten kultura desberdinki hierarkizatu, horri iraurarazteko hauspoa eman.

Laugarrenik, euskaldunentzat bezala beste herri zapalduentzat, eskola alienatzailea gertatzen da, horien hizkuntza eta kultura mesprezatuak baitira.

Bosgarrenik, Ipar Euskal Herrian badira eskola “libroak” (edo “gixtinoak”) eta besteak (edo “publikoak”). Libroak, aldi berean, bi erakunderi, hots, frantses estatuari eta elizari estekatuak aurkitzen dira. Elizak ez du deus egiten euskalduntasunaren alde bere eskoletan. Baina badirudi, azkeneko urte hauetan eskola libroetako zenbait irakasle elizari baino gehiago ebanjelioari jarraitzen hasiak direla. Hezkuntza formalean sartzen ez diren beste gune informal horiek –aldizkariak, irratia, telebista-eta–, gobernuaren eskuetan dira bai Frantzian bai Espainian, eta hauek ere eskola bera bezain besterentzaileak ditugu. Dioenaren frogatzat, honako adibide hau dakar: Ipar Euskal Herrian egunero bost minutuko emanaldia baizik ez dela eskaintzen euskaraz, eta hori folkloreak eta kirolaz, sekula ez euskal politikaz.

1.2.2. Maila historikoan, Gexan Alfarok itzulirik, Pierre Biddart baigorriarrak frantsesez egindako lan akademikoa dator, “Lehen mailako irakaskintza Frantzian 1833-ko inkestaren arabera” (9, 1974, 45-50) deitua, zeinetan, frantses gobernuaren aginduz 1833an egindako inkestaren berri ematen baita. Ipar Euskal Herrian garai hartan lehen mailako irakaskuntza zein egoeratan aurkitzen zen azaltzen da. Artikulu mamitsua da, benetan jakingarria. Egileak gero bere jatorrizkoa *Gure Herrian* argitaratzen baitu, irakurle ikertzaileak bietan irakurtzeko aukera du. Dena dela, euskarazko itzulpen honek ederki bete zuen bere eginkizuna, jatorriz-

koa argitaratzeke egon zen bitartean, eta egun ere bete dezake, euskal irakaskuntzaren historian zehar gure begirada XIX. mende-hasiera arte nolakoa izan zen jakiteko bide ematen digulako.

1.2.3. Historian parentesi luze bat eginda, “Gogo xume” delakoaren²⁵³ “Euskararen erakaskintza Ipar Euskadin” artikulua (12, 1975, 39-42) XX. mendeko testuinguru historiko hurbilean jarzen gaitu. Berak dioenez, euskararen aldeko oldeak batasun asko sortarazi ditu Iparraldean: Haize Garbia, Ikas, Kanboko Ikasleak, Eskualzaleen Biltzarra, Seaska, Mende Berri, etab. Horietatik, Haize Garbia, Ikas eta Kanboko Ikasleak –hauek, batez ere–, izan dira euskara irakaskuntza publikoan sarrarazteko gehien borrokatu direnak. Egun lortua, horiei esker lortua da.

Jadanik 1951ko Deixonne-ren legeak baimentzen zuen lekuko mintzairak irakaskuntzan erabiltzea. Beraz, lege horren arabera, batxilergoan eta bigarren mailako irakaskuntzan euskara ezar zitekeen, baina praktikan kasik inon ez zen gauzatu²⁵⁴. Elkarre horiek eskatuta, 1971n, Guichard ministroak²⁵⁵ legeria berri bat aldarrikatu zuen bigarren mailako irakaskuntzari begira, eta hor, hamabost urtetik gorakoentzat, astero eta gela bakoitzean, lekuko mintzairan hiru ordu ematea ahalbidetzen da. Legea ematen da, bai, baina berori betetzeko finantz bitartekoak faltako dira: hots, dirua irakasleei ordaintzeko.

Baina diru publikoa ez da berez etortzen, behin eta berriz eskatuta eta borroka eginda baizik. Artikulu honetan azpimarratu nahi den ideia nagusia da, legeak lege, aldarrikatuko lege-apur horiek betearazteko zailtasunez betetako harrizko mendiak aurkitzen direla aurrean. Lorpenen historia, militantzia isilarena da. Lortzen dena, borrokatuz eta behar den tokian ateak joz lortzen da. Erresistentziaren historia eman dela jakinarazteko, adibideak ematen dira bertan. Honela, 1971tik aurrera, aipatutako euskal batasun edo talde horiek Bordeleko akademiara deika hasten dira. Lizeo eta ikastetxeetan, ikasleek ikasturte-hasieran eskaturik, zuzendariak onartzen du euskarazko irakaslearen irudia, baina honek eskola ordaindu gabe eta, gainera, ikas-ordurik zailenetan eman behar du, hots, beste ikasleak libro edo oporretan direnean. Zailtasun horiek zirela-eta, estrategiarik zuhurrenak erabili behar izaten ziren, lehenik, euskara ikastetxean sartzeko, eta gero, eskolak baldintza egokietan emateko. Halere, zernahi aitzakia asmatzen zuen lizeo-

zuzendariak Guichard-en agindua ez betearazteko: “akademiak ez zuela dirurik, euskararen erakasteko, izena eman zuten ikasleak ez zirela zintzoak, gainera erabaki gaitz horiek ez zirela haren gomen-dio: hark personalki erran bezain gogotik emanen zituela” (Gogo xume, 12, 1975, 40). Estakuruak nonahitik: 1973an Baionako lizeoan, 80 ikasle ziren euskara egiten zutenak, eta horientzat guz-tientzat irakasle bat baizik ez zen astean hiru orduz aritzeko.

Hori eskola publikoetan. Kristau-eskoletan, lehen mailako ikastetxe askotan antolatzen da euskararen irakaskuntza emateko ordu bat astero, adibidez, Aiherra eta Kanbon; bigarren mailakoe-tan, batezbeste, hiruzpalau ordu astero ingelesa eta espainola ira-kasteko, eta ordu bat besterik ez euskararentzat, eta irakaslerik ez bada, hori ere ez. Villa Pia Baionako kristau-ikastetxean, adibidez 1974an, 80 ikaslek euskara ematea eskatu zutelarik, apaiz batek bi ordu baizik ez zizkien ematen, latina astean hiru orduz irakasten zen bitartean.

Labur esanda: euskara diskriminatua da ikastetxe publikoetan zein pribatuetan. Ikas eta Haize Garbia batasunek, 1974ko uda-berrian, Hezkuntzako ministro jaunari igorritako gutun bat izen-petzea eskatzen diete lekuko buruzagi politiko eta eliz-gizon gehie-nei, zeinetan galdatzen baitzaio ministroari euskara sartua izan da-dila irakaskuntzan, Guichard-ek agindu bezala²⁵⁶. Gutun hau kasik 400 lagunek izenpetuta bidali zitzaion. Ministroak Bruch izeneko ordezkari bat izendatu zuen taldekoekin mintzatzeko, baina honek, deus hitzeman gabe, hitzak bakarrik saldu zizkien.

Zein diren Iparraldean euskararen aldeko erresistentzian sar-tuak? Hauek garbiki: euskal irakurle eta idazle guztiak, hauek sor-tuak baitira dantza-, kanta- eta haur-talde gehienak, bertsolariak eta Ikastolen sustatzaileak. Eta klase politikoa, zer? “Jauneria hau, bozen ondotik dabila”, erantzungo da. Okerrena da, euskaldun jen-dea ez dela anitz arduratzen euskararen zortezaz.

1.3. Irakaskuntzako elkarteen bilakabidea

*Zabal*en sarritan agertzen dira euskarazko irakaskuntza sus-tatzeko xedearekin bi elkarte hauek: Seaska eta Ikas. Izan ere, ezin izan zitekeen bestela, aldizkari honetako lankideak baitira horietan sartuta dabiltzanak. Banaka emango ditugu horien berriak.

1.3.1. Seaska

Eta Seaska aipatzean, noski, Ikastolen izena datorkigu. Batak besteari egiten dio dei. Manex Goihenetxek aztertzen du zuzenean iparraldeko Ikastolen egoera “Ikastolak Ipar aldean” artikuluan (5, 1974, X-XIV). Gauza jakina da euskara galtzen ari dela, baina ez da hala ari –haren ustez ez beti–, euskaldunen axolagabekeriaz eta gurasoen ardura-ezaz. Etxekoak errudun izanik ere, errudun nagusiak, izan, frantses sistema bera eta horren zerbitzura dauden tresnak dira. Eskolak, hain zuzen, euskaldunak frantsesteko pentsatuak daude egingo hezkuntza-sisteman:

“Diozue gure haurrek zerbait ikasi behar dutela, eta eskola horretarako egina dela; bai segur. Baina Euskal Herrian, frantses eskolaren lehen xedea da frantses sisteman euskal haurren moldatzea, gero frantses bilakatzeko. Gure haurrek eskolan zerbait ikasten dute, baina euskara galduz, beren euskal nortasuna galduz. Horra euskara nola galdu den lehenik, Euskal Herrian, eskolaren bidez ez eta familiaren bidez” (Goihenetxe, 5, 1974, X).

Eritasuna hor da. Nola sendatu? Ikastolak sortuz. Hegoaldean bezala, halaxe egingo da Iparraldean ere, lehen ikastola xumea Baiona-Arrangoitzen 1969an sortu eta gero, euskarazko irakaskuntzaren antolaketaz eta garapenez arduratuko den Seaska elkartearekin batera. Segidan etorriko dira besteak. Manex Goihenetxek gauza jakingarri eta interesgarri gisa gogorarazten duena da, lehenik, Enbata elkarte politikoa izan zela lehen Ikastolarentzat tokia prestatu zuena bere Baionako egoitzan, abertzaleek sortua dela, alegia; bigarrenik, Ikastolak herri-kontzientziaren aurreratzaile izan direla, guraso asko Ikastolek bultzatutako ekintzen bidez sartu baitira euskal kulturari.

Baina abertzaleek sortutako Ikastola horiek, aurreko artikuluan zehaztasunez ikusi bezala, “haste-hastetik ukan dituzte etsaikeria, eragozpen eta traba” (Goihenetxe, 5, 1974, XII), mota askotakoak. Gurasoek, beren aldetik, dirua biltzeko izango dituzte buruhausterik handienak. Dirua nondik eta nola lortzen den? Modu askotara eta ahal den bezala: 1974ko ikasturtean, artikulua hau egiten duen urtean, familia bakoitzak 20 libera ordaintzen du, eta hori ahal badi; departamenduko Kontseilu Jeneralak laguntza pixka bat ematen du, urtean 3 milioi zahar (Goihenetxe, 5, 1974, 43), baita 20ren bat Udalek ere. Nolanahi ere, Departamentutik eta Udaletatik jasotzen

den diru publikoak, orotara hartuta, Seaska-ko gastuen hamarretatik bat besterik ez du betetzen. Arras gutxi.

Baina eragozpenak ez dira ekonomikoak bakarrik. Tokiko ikas-texetako irakasle batzuek sortarazten dituztenak, askotan korapilatsuagoak izaten dira. Aurrekoan ikusi dugu zuzendarien jokabidea nolakoa den. Hemen, Manex Goihenetxek hainbat datu ematen ditu aditzera ematen dutenak Ikastolen kontrako kanpaina oso bat muntatua dela, esanez Ikastoletakoak komunistak direla, gorriak, herriaren higuigarri, eskolaren suntsitzailer eta bazter-nahastaile batzuk. Irainez eta pozoiez betetako eraso-kanpaina honetan sarturik ibili dira kristau-ikas-texetako irakasle batzuk, SNIA (Syndicat National des Instituteurs), apaiz eta erretore batzuk, jauntxo batzuk-eta, Ikastolak kokatu diren herrietan: Zuberoa, Arrangoitze, Donibane Lohizune, Hendaia, Hazparne, Senpere, Ezpeleta-n eta. Ikastolak, bada, ikastetxe publikoetatik zein pribatuetatik etorritako hamaika eragozpenen gainetik zutitu behar izan du bere burua, emeki-emeki, urratsez urrats, Seaska batasunaren babesean.

Manex Goihenetxeren (5, 1974, XIII) ustea da, geroari buruz, “Euskal Herrian beharrezkoak direla ikastolak zeren eta ez baita beste biderik gure haurretan gal ez dadin euskara”. Baina Ikastolak zabalduz joan daitezten, beharrezkoa da, bidenabar, Ikastolek eta Seaska-k, biek lanean jarrai dezaten. Oraingoz –1974koa da lan hau–, legez, 6. urtera arteko irakaskuntza bakarrik eman dezake Ikastolak. Epe hori arras mugatua denez, ezin da ziurtatu euskarazko irakaskuntzaren jarraipena. Hori du muga handia. Bestalde, Seaska-n biltzen dira irakasleak eta gurasoak. Arazoa da nola kudeatu behar den. Azken puntu honetaz Manexek galderak baizik ez ditu egiten. Eran-tzunik ez da.

1.3.2. Ikas-en bizkorraldia

Eskualzaleen Biltzarra-ko kide batzuek 1959-60 urte-inguruan sortutako elkarte honen xedea, euskara frantses ikastetxeetan sartzeko arrangura duten irakasleekin lan egitea da. Elkartea legeztatu bezain laster, honek dirua eskatu zion “Pyrénées Atlantiques” departamentuko Kontseilu Jeneralari eta honek urtero lehen aipatutako kopurua emanez segitu du: 3 milioi zahar.

1.3.2.1. Delako “Uztarpeko”k²⁵⁷, Ikas elkarteak 1973ko abuztuaren 29an Donibane Lohizunen egindako Biltzar Nagusian izan

ondoren, haren eginak eta eginbeharrak aztertzen ditu “Zein da *Ikasen* arloa?” artikuluan (4, 1973, 43-44). Bidenabar, Frantziako gobernuak 1971n aldarrikatzen duen lege berri bat aipatzen du, zeinak euskara lizeoetan irakasteko erraztasun gehiago ematen baitu. Euskararen irakaskuntzak garrantzi handiagoa har dezake, beraz, batxilergoan. Baina arazoa, zera da: legea aplikatu ahal izateko ez dagoela “ez irakasle ez liburutik”. Hori horrela, testugintzako hutsune tekniko hori gainditzeko, Ikas-ek eskolarako liburu berri batzuk argitaratzea erabakitzen du.

Plangintza hori bideratu zen egunetik beretik sortu ziren arazoak Ikas elkartearen barruan, baina areagotu, batez ere, zuzendaritza berritzea tokatu zen garaian areagotu zen, 1973ko Biltzarrekoan, antza, pasarte honetan datorrenez:

“Aukeraz baliatu ziren gazte batzuk *Ikasetan* sartzeko, urrats berean erabaki zuten idazkari baten aukeratzea batasunaren lana egiteko. Aurtengo bilkuran, idazkariak berak egin lanaren kontu eman digu: esan beharrezkoa da alabaina anitz gauza egin duela: *Ikas* batasuneko zerrendak bildu ditu; buru mailetako euskararen irakasleak bildu ditu” (M. Lartzabal 4, 1973, 43).

Ez da esaten nor diren hautatu berriak. Zeharbidez ordea, prentsak emandako kronikak irakurrita, badakigu zuzendaritzan nor zeuden: lehendakari Jean Haritxelar, idazkari Manex Goihene-txe eta diruzain Battita Larzabal.

Elkartearen xedea da zalantzan dagoena. Haren eginbeharra frantses eskoletan al dagoen, argialetxe bat al den, eta zein den haren etorkizuna, hiru galdera hauek egiten ditu. Hauxe da euskarak duen egoera frantses eskoletan. Pasarte hau osorik jasotzen dugu, ordukoaren informazio-iturri gisa:

“*Ikas* frantses eskoletan ari da lanean: lehen mailan ikastolen segida nahi luke hartu: baina eragozpen handiak dauzka: maisu batzuek ordu bat astero klase egiten dute: ume zenbaitek euskara ikasten dute asteazken arratsaldetan: egia esan, hori oso guti da. Alta, neri deritzat, hemen datzala problema fundamental bat umeek, sei urtetatik 12ra dute jeinurik hoberena mintzaira ikasteko; hain zuzen, garai honetan baldin klase guziak erdaraz badituzte, ordu arte zeukaten euskal espiritua oso azkar gal dezakete. Hemen derrigorrezkoa liteke euskaraz egitea klaseak, gero erdara erakatsiz (...) Orai frantses legeak onartzen du 3 oren klase

astero lizeoetan, bigarren mailako irakaskintzan: hamar ordu klase ematen dira aurten Ipar Euskal Herrian; irri egingarri ere da zein guti den! Beharrezkoa da hemen Ikas-ek egin dezakeen lana! Nolaz ofizialki ezagutua baita batasun hori eskubidea badu lizeo guztietan ibiltzeko, lege frantses horren berri ematen; nire ustez lan hori behin ere ez du Ikas-ek egin” (M. Lartzabal, 4, 1973, 43-44).

Ikas kritikatu, lan gehiago egiten ez duelako kritikatzan da. Eta egileak ematen duen erantzuna da, ez duela gehiago egiten dirurik ez duelako, eta bi, ukitzen dituen diru-apur horiek datozen lekutik datozelako, Kontseilu Jeneraletik, alegia. Izan ere, Ikas frantses legearen barruan *contestataire* bezala borrokatzen hasiko balitz, hots, “hola egingo balu, diru iturria gal lezake” (Mattin Uztarpeko, 4, 1973, 44). Horregatik, gertatzez, Ikas liburu-argitaletxe bat bilakatu da. Honela, Euskal Alorretik-ek Hiriart-Urrutyren testuak atera ditu eta beste zenbait idazlan labur, eginkizun horretan diru publiko hori xahutuz. Baina egilearen ustez, ez luke hori izan behar Ikas-en egitekoa, horretan dihardutenak jadanik asko baitira, Iparraldean bertan Elkar ere bai; alderantziz, beste honako hau litzateke haren egitekoa:

“Hona, nire ustez Ikas-en egiazko lana: bi aldetara zabal daiteke: alde batetik, frantses lege barnean borroka egin, euskal irakaspenak egin ahala biltzeko; hori jadanik aipatua dugu gorago; beste lan batek gero ta gehiago garrantzi eduki behar luke: geuk euskaldunok geure irakaskuntza planteatu behar dugu, frantses sistemari bisian bis, bestela ez dut ikusten euskararentzat atera biderik. Frantses legeek, beti bezala, begietako bistakoa emango digute, ezer ez gehiago; horregatik ikastaroak eta alfabetatzeko kanpainak behar dira eratu ipar Euskal Herrian; inor ez da lan horrentzat, Ikas baino leku hobean dagoenik (...) Nire ustez ikastaroek eta alfabetatzeko kanpainen ez badute gero eta gehiago garrantzirik hartzen, bukatu da euskara Ipar Euskal Herrian” (M. Lartzabal, 4, 1973, 44) .

Beraz, Ikas-en egitekoak, laburtuz, bi hauek lirarteke: a) euskarazko irakaskuntza 6-12 urte-bitarteko ikasleentzat ematea, urte horiek direlako erabakigarrienak; b) argitaletxe-lanetan jardun ordez, ikastaroak eta alfabetatzea bultzatzea. Honek, jakina, laguntza publikoa alde batera uztea suposatuko luke edo, bederen, laguntza hori galtzeko arriskua hartzea.

1.3.2.2. *Zabalek* hurbiletik segitzen ditu Ikas-en urratsak. Harritzekoa ere ez da, hango lankideak baitira hemengo bi lankide: Manex Goihenetxe eta Battita Larzabal. Bietan presente. Arestian esan bezala, Ikas batasunaren zuzendaritza eraberritua izan baitzen 1973ko Biltzarrean, talde berriak irakaskuntza euskalduntzeari buruzko plangintza berri bat egiten da, edukiz politizatua, eta berori gizarteratu ahal izateko, ezagutzera ematen ditu bere xedeak eta norabideak. *Zabalek* 1974ko 7. zenbakian dakar “Ikas-en ageria”, lekuko politikariengan eragina izateko asmoarekin idatzia²⁵⁸. Lapurdiko alkateak 1974ko martxoaren 9an Azkainen biltzekoak zirela-eta, eskura eman zitzairen. Biltzarrean izan zen Paueko Akademiako Inspektorea ere, baina beti aurreragokoak izaten baitira, ez omen zuten Agiriaz jarduteko astirik izan.

Lehen kolpe horrek huts egin bazuen ere, hor geratu zen testua, beste jarduera berrietako tresna gisa baliagarri zedin. Agirian bi zati bereizten dira: edukien alderdia eta xedeena.

Edukiarenean, irakaskuntzan euskararen egoera zein den azaltzen da mailaz maila. Askotan ez baita ezagutzen begien aurrean daukagun errealitatea, ez da gaizki etortzen noizbehinka datu batzuk bere gordintasunean ematea. Hemen, bada, hutsune eta beharren azalpena egiten da, politikariak egoeraren larriaz jabetu daitezten. Egoera zein den? Horra hemen: Bigarren mailako irakaskuntzan, indarrean dagoen legeria 1971ko irailaren 7koa da, zeinek onartzen baitu euskara irakastea asteen hiru orduz bakarrik, eskola bakoitzeko eta maila bakoitzeko ikasgeletan; bigarrenean, lehenean eta terminalean. Hara testua euskaraz emanda:

“Ondorioz, 1971-1972ko eskola-urtetik hasirik, eskualdetako mintzairak irakatsiko dira, gorago idatzi lerroek adierazten dutenaren arabera: gutxienez hamar ikasle bilduko diren bezain laster, bigarren, lehen eta terminal eskoletan, eta hori asteen hiru orduz bakarrik, irakasleen orenetan barne sartuko diren ikas-aldietan, eta beharrez, oren soberakinak pagatuak izan litezke, Irakaskintzako urte-orenen arabera” (*Zabal*, 7, 1974, 47).

Lehen esan bezala, erabaki ofizial hori ez da aplikatzen Ipar Euskal Herriko lizeo eta kolegio bakar batean ere, ez 1972ko ikas-turtean ez 1973koan, nahiz eta euskararen irakaskuntzaren eskea ehunka ikaslek egiten duten. Ez da irakasle bat ere lizeoetan izendatu izan lan horren giteko.

Erantzukizunak, Agirian datorrenez, sail desberdinetan aurkitzen dira. Batetik, Frantziako Hezkuntzako Administrazioan. Bordeleko Errektoretzak, 1972-11-10ean egindako gutunean zioenez, Euskal Herrian 9 ikastordu ordainduko zituela agintzen zuen, ordaindu beharrekoak 90 izango zirelarik. Gainera, 9 ordu horiek ere ziurtatuak izango ziren leku guztietan, Donibane Lohizunen-eta. Gertatzen dena da, agindu bai baina bitartean, Paueko Akademiako Inspektore-anderearen eta Bordeleko Errektorearen arteko arazo burokratikoak direla medio, denbora alferrik galtzen dela eta erabakiak ez direla betetzen. Bestetik, ikastetxeetako buruzagiak ere errudun garbiak dira, hauek ez baitira arduratzen euskararen irakaskuntzaz: “Honela, Donibane Lohitzuneko Lizeoan, 1973-an ba ziren hiru ordu euskarazko ikas-aldientzat. Aurten, bat bakarrik! Baionako Largenté ikastetxean, 73-an, bi ordu. Aurten aldiz, ordu soil bat baizik ez! Baionako Villa Pian, 73-an sei ordu, aurten lau. Biarritzeko lizeoan, IKAS-ek anitz aldiz galdatua izanagatik, eta irakasle bat ere bere nahitara presentatuagatik, ikas-aldi bakar bat ere ez da oraino apailatu!” (*Zabal*, 7, 1974, 48).

Lehen mailako irakaskuntzan, berriz, hau da lege-egoera. Une honetan ez du legezko erabaki bakar batek ere euskararen irakaskintza eskola horietan onartzen, nahiz eta, 1958az geroztik, hamazazpi legegai aldarrikatu izan diren. Bada, halere, legezko tolerantzia bat, Atlantiar Pirinioetako Akademiaren Inspektzioaren aldetik, astean ordu batez nahi dutenei euskara irakastea baimentzen duena “ernalan edo activités d’éveil” delako sailean.

Saiatu dira lege hori aplikatzen Kanbon eta Mugerren. Hemen, Udalak ordaintzen ditu euskarazko ikastaldiak. Baina zailtasunak ematen dira, zeren Ikas-ek aurkeztutako irakasleak, tituludunak izan arren, ez baititu halakotzat ezagutzen Baionako inspektoreak. Horregatik, Ikas batasunaren laguntzarekin kontatuz, eskola publiko eta pribatuetakoa irakasleak izan dira beren baitatik lanean aritu izan direnak.

Irakasle ibiltarien kasua ere hor dago. Hiru irakasle ibiltari dira Euskal Herri guztirako. Deus ez, esateko. Baina hortik aparte, hauek ere mota askotako zailtasunak dituzte: a) garraioak eta lanorduk (bidea, orduak); b) pedagogikoak, materialik eza.

Irakasle-Eskolan, hots, Leskar-eko Eskola Normalean, 20 ikasle aurkitzen dira ikasten eta Hezkuntza Nazionalak ez du euskarazko ikastaldi bat ere muntatu horientzat.

Aurreko artikuluan ikusi bezala, Ikas-en xedeak zalantzan jarri baitziren, zuzendaritzak Ageri horri egiten dion aitzin-solasean zehazten denez, “Baionako Ikas batasunaren lana ipar Euskal-Herrian, euskararen irakaskintzaz arta hartzea da”. Argi dago, beraz, zein den haren egitekoa.

1.3.2.3. Geroztik, 1973tik 1976ra bitartean gauzak aldatuz baitatoz, Gexan Alfarok “Iparraldean kultur olde berri bati buruz” lanean (17, 1976, 17-20) Ikas-en 1976ko jokabide berria zein den azaltzen du. Lehen HASekin politikagintza berri bati hasiera eman zitzaion bezala, orain Ikas batasunaren inguruan “kultur olde berri bat” gorpuzten hasi dela, diosku, zeina irakaskuntzaren esparruan arituko baita. Elkarre honetaz bultzaturik, Baionako Euskal Erakustokian bizpahiru bilkura egiten dira, kultur eskabideen plangintza burutu eta gero, mailaka ahal bezain indartsu plazaratu eta frantses administrazioari onartarazteko helburuarekin.

Goian aipatutako leku berean egin zen bigarren bilkura 1976ko otsailaren 13an eta hor batzorde bat izendatu zen, Kultur Agiri baten lehen saioa moldatu eta kultur batasun guztiei bidaltzeko asmoz, hemen sartuz, besteak beste, Eskualzaleen Biltzarra, Antzerkilarien Biltzarra, Auñamendi, Lauburu, Kantariak, Fededunak, *Hitz, Zabal*, Mende Berri, Pilotarien Biltzarra, Dantzarien Biltzarra eta Euskal Idazleen Elkartea²⁵⁹. “Kultur Ageri Oinarrizkoeneko” horretan, “egungo kultur eskari edo errebindikazio guztien bilduma” egin eta Iparraldeko politikariei aurkeztea izango da asmoa, hauek beren hauteskunde-kanpaina hasiko dutenerako. Bidenabar, batasuna ezagutzera emateko, “karrika-kurridak” egitea pentsatzen da herri desberdinetan: Maule, Donapaleu, Donibane Garazi, Hazparne, Kanbo, Baiona, Donibane Lohizune eta Hendaian. Eta, orobat, ekintza gogorragoak aldika muntatzea ere pentsatzen da, adibidez: irriak isilduz, kantariak, dantzariak, eskolek greba eginez-eta. Zeren egiteko? Honetarako: “Frantsesek gure Herrian eman duten kultur sistema behar dugu mailka-mailka indargabetu eta hautsi. Eta ordainez, gure herriak nahi duen kultur sistema, urraska urraska zutik eman” (Alfaro, 17, 1976, 20). Gertatzen dena da, frantsesek beren kultur sistema frantses euskaltzaleen laguntzarekin ezarritik aplikatzen dutela. Ildo horretatik doaz, bada, kultur olde berri horren oihartzunak.

Helburu hori aurrera eramateak bere zailtasunak izango ditu, zeren euskal kulturgintza kudeatzen duten gehienak, politikaren aldetik, alderdi estatalekoak baitira. Adierazgarria da pasarte hau:

“Bistan den gauza da, alde batetik lehen aldia delako eta bestetik elkarrekin lan egitea sekulan egiteko erraza izan ez delako, bistan den gauza da beraz, kultur olde berri horren bultzatzeak nahiko lan emanen duela xede horren kudeatzaileei. Nahiko lan emanen du ere, zeren kultur batasunen kudeatzaileetarik guztiz gehienak politika mailan engaiatuak baitira. Eta ez denak euskal politikan! Kultur batasunetan ere aurkitzen ditugu, frantses politikan ari direnak, frantses ezkertiarrekin bezala. Eta gai hau ere hunkitzen dudana geroz, frantses ezkerreko alderdietan sarturik dauden euskaltzaileei hauxe erran nahi diet: haien lekua, egun, euskal ezkerrean dela (...) Zer erran frantses alderdi eskuindarretan aurkitzen direnei? Fitsik ez! Ondoriorik gabea dela baiteritzat hauekin hitz egitea. Euskal eskuin baten egiteko ere ez baitira gai” (Alfaro, 17, 1976, 19).

Goiko pasarte horretan nabarmentzekoa den datu txit garrantzitsua da, Iparraldeko ohiko kulturgintzaren esparruan badirela hainbat politikari frantses alderdietan sartuta daudenak, batzuk eskuinekoetan eta beste batzuk ezkerrekoetan. Politikari emanak dauden euskaltzale frantsestu hauek dira, hain zuzen, frantses kultur sistemaren babesleak. Honetan datza arazoa. Egoera hau aldatzeko, Iparraldeko kultur batasun guztiak elkartu eta oinarrizko eskabideetan batera jokatzera beste aterabiderik ez da ikusten. Bestalde, frantses eskuinean lerrokatutakoekin inolako esperantzarik ez baita ikusten, ezkerrekoen luzatzen zaie eskua. HASek frantses sozialistengandik sostengu zerbait espero zuen aldia da hauxe. Ikas-ek ere horitik jotzen du laguntza bila. Aldaketa historikoa da hau, ordura arte, jakina denez, Iparraldean euskaltzaletasuna hertsiki eskuinari lotua etorri izan baita.

1.4. Kultur Asteak

Kultur Asteak arrakasta handiarekin ospatu ziren bi urtez (1971-72) Baionako Erakustokian. Euskaltzale dezente bildu zen horietara eta prentsak ere lagundu zuen horren zabalkundea egiten. Gexan Alfaro (G.L.) “UEU Euskal Kulturaren Aintzindari” artikuluan dakarrenez²⁶⁰, Ikas izan bide zen Baionako Kultur Aste (KA)

horien bultzagile eta antolatzailea, baita horren segida gisa sortutako UEUrena ere. Piarres Xarritoni egiten zaion elkarrizketan, erakundearen izenik gabe, izan propioak aipatzen ditu kasu bakoitzean. Kultur Asteen antolatzaileak, Jean Haritxelar eta bera izan omen ziren eta UEUrena, berriz, lehen bi aipatuak eta Manex Goienetxe, baina ideiarene asmatzailea Karlos Santamaria²⁶¹.

Geroztik, 1973. urtetik aurrera, Ikas-ek bi urtez segidan bi kultur ekintzok –KA eta UEUrena–, antolatuz segitzen du, bakoitza bere bidetik, harik eta 1975ean Euskal Astea egiteko asmoa airean geratzen den arte. Egileari, ordea, KAREN kultur jarduera UEUrena bezain beharrezkoa deritzo. Biek dute beren egiteko berezia, Kultur Aстера eta UEUra doan jendea ez baita berbera: honek jende ikasia ukitzen duen bitartean, hura herri xehera iristen da, mintzaldi, mahai-inguru, filma, kantaldi, antzerki eta horrelako agerraldien bidez. Beraz, KAREN antolaketari dagokionez, bi proposamen egiten ditu: bata, baldin Ikas-ek antola ez badezake, egiteko hori utz dezala aurrerantzean *Zabal* edo Euskaltzaleen Biltzarra-ren eskuetan; bestea, Baionan bakarrik egin ordez, beste hiri eta herri-buruetara ere –Donibane Lohizune, Hazparne, Donapaleu, Maule, Donibane Garazi, Baigorri eta–, zabaldua izan dadila esperientzia hori.

Idea horretan oinarrituta, *Zabalek* Baionan Kultur Astea antolatzen du 1975eko martxoaren 18tik 21era, Iparraldeko zein Hegoaldekoentzat irekia dena, zeinetan une honetan Iparraldeko euskal gizarteak bizi dituen arazo ekonomiko, politiko eta kulturalak lantzen baitira²⁶². Ekonomiaren sailean, “Euskal Herrian bizi nahi dugu” gaia ukitzen da, gazteriak kalean gogotik aldarrikatzen duena; politikan, alderdi eta talde berrien sorrera da aztergai; kulturaren, Ikastola, euskarazko irakaskuntza eta euskal kantuaren inguruan egiten dira gogoetak. Euskal historiari eta kulturari buruzko beste topaketa baten egitaraua ere agertzen da *Enbata* astekarian²⁶³, hau urte bereko maiatzean eta ekainean egingo dena Baionan, Ikas eta Akelarre-k antolatuta. Euskal kulturaren inguruan bada mugimendurik Iparraldean.

1.5. Udako Euskal Unibertsitatea

Esana daukagu UEUK bere sorrera Baionako Kultur Astea izan zuela. Geratzen zaigu jakitea nolakoa izan den EUEren Iparraldeko aldiaren garapena.

1.5.1. Hamar egunez, 1973ko abuztuaren 29tik irailaren 8ra bitartean, lehen aldiz ospatzen da UEU Donibane Lohizuneko Maurice Ravel lizeoan, Ikas-en lege-babespean. Elkarrekin honen bidez lortzen da, eskaria Haritxelar lehendakariak eginda, Pariseko Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak eta Bordeleko Akademiako Errektoretzak beren baimena ematea, UEU estatu-ikastetxe batean (lizeoan) egina izan zedin. Zein helbururekin egin zen? Besteak beste, hiru hauek bederen aipatzen dira: euskal ikasle eta intelektualen arteko elkar-egutzak egitea, euskal arazoez ikerketa-lanak bultzatzea eta etorkizuneko euskarazko unibertsitate batek nolakoa izan beharko lukeen sinbolikoki bederen aurrez irudikatzea²⁶⁴.

Zenbat jende bildu zen bertara? Ez da aise erantzutea, ez bederen zehaztasunez. Pettan Idiartek²⁶⁵ *Zabalen* ematen dituen zifren arabera, 25 irakasle²⁶⁶ izan ziren eta 150 ikasle²⁶⁷. Lehen hiru antolatzaille nagusiak Haritxelar, Xarriton eta Manex Goihenetxe izan zirela esan bada, azken honi *Zeruko Argian* egiten dioten elkarrizketa horretan Joseba Intxausti eta Ramuntxo Kanblogen izenak ere aipatzen ditu. Horiertako bakoitzaren egitekoa zein izan zen badakigu: Manexek idazkaritza eraman zuen, *Jakin* taldeko Joseba Intxaustik sustaketa-lanak egin zituen Hegoaldeko ikasleen artean, Haritxelar, Xarriton eta Karlos Santamaria hirukoteak, berriz, zuzendari-lanak zituzten. Hiru hauek izan genituen irakasleak bildu eta gaiak hautatu zituztenak. “Errialde” delakoak, bere erreportaje horretan, lau argazki ematen ditu, bikoteak honela osatuta: Mikel Atxaga eta Txillardegi, Hiriart-Urruty eta Monzon, Jesus Mari Mujika eta Jose Azurmendi, M. Erdozaintzi eta J. M. Satrustegi. Datu horiek guztiak, noski, arras sinbolikoak dira, arras plastikoak, hor ageri baita euskal kulturaren kontrola zeinen eskuetan zegoen, euskal jakintsu eta intelektualen Olinpon nor sartzen diren, euskal kulturgintzako zein sektore dauden ordezkatuak, etab. Pelikula egina dago. Geroztik ere, ondorengo urteetan, aldaketa handirik gabe pelikula horixe ikusiz etorriko gara. Weber-en eskolakoek ederki azaltzen dute nola erreproduzitzen diren kultur eliteak nola erakunde-mailan hala talde-mailan.

Euskal kulturaren historian, zalantzarik gabe, gertakari handia da. Bistakoa zen bezala, *Zabaleko* kideak han baitziren, aldizkari honek hurbiletik egiten du erakunde sortu berri honen segizioa. UEUko jardunaldiak bukatzean, balantze moduko bat egiteko kritika-bilera bat egin zen Donibane Lohizunen bertan eta *Zabalen*

datozen artikulu batzuek –Pierre Bidarten kasuan adibidez, ziurki bai–, hango giroa jasotzen dute; beste gehienek, ez.

Pierre Bidartek “Udako Euskal Unibertsitateaz” artikuluan (4, 1973, 7-9) dakarrenez, *Eclair-Pyrénées* (1973-09-10) eta *Sud-Ouest* (1973-09-12) egunkarietan UEUri lau kritika-mota egiten zizkion: hots, a) intelektualista izatea, “goregia”, Espainia eta Frantziako unibertsitateak baino klasikoagoa, praktika sozialean oinarritzen ez dena; b) elitista izatea, “multzo ikasi batena” bakarrik; c) gaien aldetik, mundu zabaleko arazoetara zabaldu ordez, euskal kulturaren esparrura mugatua izatea; d) “buruzagiek” ahal bezain apolitikoki antolatua izatea, ekintza bera, berez, gizarte-egitate politiko bat ez balitz bezala.

Zabalen, lau kritika-gai horien laburpena eskaintzeaz gain, beste bi gehiago ere egiten ditu. Lehenik, eta hauxe dela uste dugu guztietan aipagarriena, UEUn nagusitzen den klerikalismoa du kritika-gai, lehen ere aipatua duguna, esanez “hiru irakasletarik bat apeza” dela eta euskal kultura, argitaletxe eta idazleen aldetik, kleroaren eskuetan dagoela. Marxismoa euskal gizartean bere erroak botatzen ari den une honetan, elizak bere esku eduki nahi duela kulturaren kontrola. Bide horretatik ari dela ikusten du, besteak beste, *Jakin* taldea, zehazki hauxe diolarik:

“*Jakinen* estrategia, honetaz mintzatzeko bakarrik, iduri zait arrunt bide horretatik badoala. Argibide bat atzematen dut hipotesi bezala: marxismoak, gero eta gehiago, bere erroak azkartzen ari dituelakoz, Euskal Herriko politika sailean, elizaren estrategia da eta izan da, honi gogor egitea, kultura sailean, lehen lekua hartuz eta zainduz” (Bidart, 4, 1973, 7).

UEUk klerikalismo-usain sobera zuelako, antza, bere lagun franko ez omen ziren bertara joan. Kuriositateak ziztatuta, begiratu dugu 25eko zerrenda hura eta han 9 kleriko agertzen dira: lau apaiz, hiru frantziskotar eta bi jesuita. Baina argazkietan agertzen direnak, ospearen ispilu, zortzitik sei anartean klerikoak zirenak dira. Pierre Bidarten kritika horietan arrazoi gutxi-asko objektibo horiek adina edo gehiago pertsonalak nagusitzen zirelakoan gaude, zeren berak Baigorriko gazteriaren jarrera-aldaketen eta horren barruan sexu-harremanen gainean emandako hitzaldian, metodo marxista erabiltzen baitzuen, sektore klasiko batek zorrozki epaitu zuen haren ikuspegia eta ez zion barkatu. Vincenes-eko unibertsitatean ikaskide

izanak ginen zenbait urtez eta bagenekien baigorriar gazte honen pentsamoldea frantses sozialismora lerratua zela, beste zenbait euskaldunen antzera poxin bat *à la mode française* moldatua, baina ez zitzaigun iruditzen –orain gutxiago–, marxismoaren jarraitzaile izatea aski arrazoi zenik haren azalpena horrela baliogabetzeko. Ez zebilen hain desbideratua garai hartan hegemonikotzat jotzen zen euskal kultura –hasiera hartan nagusitzen zena, alegia–, funtsean, klerikala zela. Doluz, baigorriarrak ez zuen euskaraz idatzi. Ez zen *Zabalen* proiektura bildu, nahiz geroztik ere harreman onak izanez jarraitu genuen.

Bigarren kritika antolatzaileen itxurazko apolistimoari lotua dagoena da. Aurtengo UEUa –Donibanen 1973an egindakoaz ari da–, bi edo hiru lagunek antolatua izan den bezala, hurrengo talde batek antolatzea proposatzen du. Bazekien, antza, nor ibili ziren antolatzen eta horien hasierako “taldetxokeriarekin” bukatzea nahi luke. Nolabait esateko, Iparraldeko kultur mugimendu eta euskal intelektualen ordezkari ofizialak jartzen ditu auzitan. Oker interpretatzen ez badugu, haren buruan bueltaka zebiltzan bi izen Maritxelar eta Xarrittonena izan bide zitezkeen eta, agian, *Jakinekoren* bat edo beste ere bai, testuan aipatua baitator.

Pettan Idiarrek²⁶⁸, “Euskal Unibertsitatea” artikuluan (4, 1973, 10-11), UEUn izandako esperientziatik ondorio kritiko hauek ateratzen ditu: a) EHUKo lehen saio honetan gai tekniko-zientifikoak (ekonomia, historia eta geografia, teologia eta filosofia, matematika eta fisika, linguistika eta informatika, edergintza, antropologia, etab.) adierazteko euskarak baduela gaitasuna. Alabaina, nahiz eta hitzaldietan erabilitako euskalkiak –lapurtera eta gipuzkera–, ulerzteko zailtasunik ez izan, hizkuntza nazionala normalizatu beharra dagoela; b) euskal historia eta ohiturak ez zirela irakatsi, ez nahi izan ez zelako, inork ezagutzen ez zituelako baizik, eta, zentzu horretan, sail horretan oraindik lan handia dagoela egiteke; c) UEUK titulu akademikoak emateko ahalmen juridikorik ez badu ere, pentsatzekoa dela, zenbait urteren buruan, barrura begira –”gutartean”, alegia–, balia litezkeen diplomak luzatzea; d) azkenik, hurrengo ekinaldiari buruz, proposatzen du, batetik, gaiak, nahas-mahas antolatatu ordez, egokiago izanen litzatekeela sailka banatzea, zientzia zehatzak, literatura, historia, etab., bereiz emanez, eta, UEU ekinaldi intelektualetan hutsa gerta ez dadin, edergintza eta pedagogian praktika batzuk antolatzea. Ikuspegi hau, orokorrean, Pierre Bidartek eskainitakoa baino positiboagoa da.

Gauza ezaguna da UEUren sorreran bere eragina izan zuela sail berean katalanek aurrera zeramaten esperientziak. Donibane Lo-hizunen ospatzen zen urtean, 1973an, katalanek Ipar Kataluniako Prades-en egin zuten beren 5. unibertsitate-urtea. Ezezaguna egiten zaigun Jauregik (4, 1973, 12-15), “Katalanen eta euskaldunen Unibertsitatea” artikuluan, hango berri dakar, esanez 70 irakasle eta 500 ikasle baino gehiago bildu zirela bertan. Egiten duen balorazioa, egia esateko, ez da oso-oso positiboa ere. Zioen gaiak ez zutela loturarik beren artean, antolatzaileek jardunaldiei politikakutsua kendu nahi izan zirela, irakasle batzuek “*vedette* edo *figurin*” batzuk izan zirela, ikasgaien maila elitistegia zela, etab. Ikusi dugu elitismoa eta apolitismoa, bi elementu hauek Pierre Bidartek EUUri egiten zizkion kritikan ere agertzen zirela. Baina, UEUren aldean, bazituen bere abantailak: katalanez erraztasun handiz hitz egiten zutela, irakasleak saiatzen zirela irakaskuntza tradizionalako metodo antipedagogikoak gainditzen, nahi ziren ikasgaiak segitzeko aukera gehiago zegoela, edo ikasgelaz aldatzeko, edo gai jakin baten jarraipena egiteko. Eta abar. Noski, UEUren ondoan, UKUa kualifikatua da, esperimentatuagoa, hizkuntzaren aldetik trebatuagoa, eta kantitatez hornituagoa.

Esan bezala, UEU lehen aldiz ospatzen baitzen Donibane Lo-hizunen, *Zabal* aldizkarian hiru artikuluko agertzen dira, arestian aipatu ditugunak, batzuk besteak baino kritikoagoak, baina denak aski kritikoak. *Zabal* aldizkariak²⁶⁹, “Unibertsitateaz *Zabal*-en ohar-
rrak” (4, 1973, 5-6) artikuluan, bere iritzia agertzen du. Hasteko, UEUren alderdi onak nabarmentzen ditu, esanez: lehenik, hura martxan jartzearekin, euskal kulturaren faboretan garrantzi handiko urratsa eman zela; bigarrenik, jende anitz bildu zela eta ez edozein jende, “euskal kulturagintzan biziki interesatua den jendea baino, nolabait erraiteko jende ‘bustia’, engaiatua” baizik; hirugarrenik, herri-arazoak ideien eta jokabideen mailan zertan diren jakiteko “okasio aproposa” izan zela Donibanekoa eta mintegiek bizitasun handikoak izan zirela (*Zabal*, 4, 1973, 5). Azken puntu hau halaxe izan zela egiaztatu beharrean nago. Pierre Bidarten azalpenean eztabaida bizia sortu bazen, kasu honetan zenbait entzuleren aldetik, beste kasu batzuetan hizlariak berek zitzadak bota zituzten beren maisu-taulatik. J. M. Barandiaranek ez zuen ahoan bilorik izan Otazuren *El igualitarismo vasco* liburua kritikatzeko. Aldamenean neukan, han atzeko partean, Koldo Mitxelena eta honek, bere on-

dokoak ederki aditzeko moduan, “Barandiaran jauna ere haserretu da”, esan zuen.

Han emandako hitzaldiak ere baloratzen dira. Eta hemen hasten da kritikaren mailua kolpeka.

Lehenik, hitzaldien edukiari dagokionez, horietan eman ziren zifrak eta datuak interesgarri eta probetxugarriak izan arren, ez omen ziren guztiz konbentzitzeko modukoak izan. Bestalde, batzuek beren gaia euskal gizartean kokatu gabe eman zuten; beste batzuek, berriz, euskal arazoak –euskararen egoera larria, adibidez–, zuzenean aipatu zituzten, baina aterabideak proposatzeko orduan, argitasunik ez zuten ematen. Euskal kulturaren alderdi soziopolitikoa ere, zeinaren ezagutza oinarrizkoa baita edozein kulturgintzan, ez zen landu, “partxe gisa zuritua” izan zen “Gaurko ideologiak” izeneko hitzaldi eztabaidatuan²⁷⁰. Gehien-gehienik, metodologiak huts egin zuen, ikerbidean hiru elementu hauek beharrezkoak baitira: a) datuak eskaintzea, b) horiek interpretatzea, eta c) gizartea aldatzeko norakoak markatzea. Puntu hauek ziren, antza, eztabaidagarrienak hitzaldi horietan.

Bigarrenik, antolaketari dagokionez, legeak ezarritako ezinbesteko mugez aparte, eratzailleek beren hautu pertsonalez ezarritako beste batzuk ere bazirela, baieztatzen da. Hona hemen datuak: lagun banaka batzuek erabaki zuten nola izanzen zen Kultur Taldea, kulturgintzan ari zirenekin batere kontsultatu gabe, eta egin zena, jakina, “hertsia, partziala” izan zen; zer gai eman, irakasleak nor izan, Unibertsitateari zein eginkizun eman, etab., hori guztia gutxiengo batek erabaki zuen; ikastaldien antolaketari aire klasiko-klasikoa zerion, eta hitzaldi-aretoa, irakaslea goian eta ikasleak behean, “izen kontsakratu batzuen sona edo omenaren konfirmatzeko leku egokia bilakatu zen”. Labur esanda: “zer esaten zen baino area-go zeinek esaten zuen, puntu honek bazuen garrantzirik” (*Zabal*, 4, 1973, 6).

Hirugarrenik, ez baitago ados UEUren ez hitzaldiak emateko metodoarekin ez antolatzeko moduarekin, *Zabalek* zera eskatzen du: a) UEU izan dadila “ahalik eta zabalena bere antolamenduan, legeak onartzen duen maila horretan behintzat”, eta b) parte har dezatela kulturgintzan dihardutenek, hots, Ikastoletakoek, alfabetatze-kanpainakoek, argitaletxeek, kultur erakundeek, etab. Ikastaro hauetan hitzaldiek izan baitzuten garrantzi guztia, ikasleen parte-hartze aktiboa eskatzen da. Horrela bakarrik helduko da UEU izaera demokratikoa izatera.

Berriro hurrengo zenbakian, “Euskal unibertsitatean hartua” artikuluan (5, 1974, 43-44), *Zabalek* Donibane Lohizuneko UEUn hartutako erabakien txostena transkribatzen du garbiki aditzera emanaz horko hitz batzuek esanahi iluna dutela. Testua ez zen, beraz, guztien gustukoa izan nonbait eta *Zabalera* beste bat iristen da, argitara dezaten. Hitzaldiak argitaratzea ere planteatu zen, antza. *Jakin* prestatu zen, antza, horretarako.

1.5.2. Aurreko artikuluetan ikusi da biziki kritikatu izan zela, besteak beste, banaka batzuek antolatu zutelako. Hurrengo urteko II. UEUa herri eta leku berean egin zen, irailaren 2tik 13ra. Oraingo honetan, Ikas-eko zuzendariek eratzten dute, lanik handiena Manex Goihenetxe idazkariak egiten duelarik. Baina beste elkarte batzuek ere parte hartzen dute, hala nola, Mendeberrri, *Zabal*, EKT (Elhuyar), Euskalduntzen, Siadeco, *Jakin*, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak, “Euskal Kultur Mintegia”, eta abarrek. Hamar sailetan banatzen dira emanaldiak: Linguistika eta Literatura, Historia, Antropologia eta Soziologia, Filosofia eta Politika, Ekonomia, Zientzia, Pedagogia, Edergintza, Antzerkia eta Zinema, eta Kazetagitza. Eta sail bakoitzeko arduradunak, hurrenez hurren, hauek ziren: J. Haritxelar, R. Saint-Esteben, Pierre Bidart, A. Artamendi, G. Ansola, C. Arlouxet, X. Mendiguren, Joan San Martin, X. Irigaray eta Martin Ugalde²⁷¹. Pierre Bidartek²⁷², gaien sailkapen hori aurrean zuela ziurrenik, gogorarazten zuen Soziologia eta Antropologia ez direla gauza bera, desberdinak baizik, eta horietako bakoitzak dituela bere metodologia eta ikergai espezifikoak. Bestalde, iragarritako gaiak hamar izan baziren ere, egiazki funtzionatu zutenak bost bakarrik izan ziren: hizkuntzalaritza, zientzia, ekonomia, gizarte-zientziak eta antzerki-saila²⁷³. Zenbat ikasle izan ziren? Izena emandakoak, 100en bat ikasle: Gipuzkoatik 44, Bizkaitik 20, eta gainerakoak Iparraldetik eta beste leku batzuetatik²⁷⁴. Gehienak 22-28 urte artekoak²⁷⁵. *Herria* kazetariak²⁷⁶ aipatzen dituen irakasleak, hauek dira: C. Harlouxet, Txillardedi, Koldo Mitxelena, Jean Haritxelar eta Alfontso Irigoien. Hemen bukatzen da UEUko J. E. berri-emailearen kronika.

Zabaleko 7. zenbakian datorren “Udako bigarren euskal unibertsitatea” egitarauan (*Zabal*, 7, 1974, 43), azken egunean kritika bat egiteko elkartutako unibertsitario-multzo eder batek hartutako erabakiak datoz, honela laburturik:

- “1. Ikasgaiak ez litezke entzute hutsezkoak izan behar UEUn.
2. Ikerketarako lan sail batzuk, landuz eraman behar litezke.
3. Diru aldetik, Hego aldeko ikasleentzat Unibertsitatea garestiegi da”.

Kritika hori oinarritzat hartuta, inkesta pare bat bidali zitzaien irakasle eta ikasle gehienei, baita kultur talde batzuei ere, hauen artean Mende Berri, *Zabal*, Euskalduntzen, EKT (Elhuyar), Siadeco, *Jakin*, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, Euskal Kultur Mintegia, etab. zeudela. Hortik aparte, geroztik bi bilera egin ziren, bata Baionan eta bestea Donostian, eta horietan hurrengo UEUko toki-a, egunak, laneko moldea, egunaren antolaketa eta finantzaketa erabaki ziren.

Zabalek dakartzan hiru erabaki horiez landa, *Zeruko Argiak*²⁷⁷ jasotzen ditu besteok ere: a) idazkaritza berri bat hautatzea, zeinaren arabera, ordura arte antolaketa-lanetan bakarrik ibilitako “Ikas”ekin batera, arituko baitira Euskal Kultur Mintegia (EKT), (Elhuyar), *Jakin*, Euskalduntzen, Siadeco eta Euskaltzaindia; b) euskal ikasleen lanekin aldizkari bat argitaratzea, zeinetan urte guztian zehar unibertsitateetan ikasleek euskal gaiez egindako azterketa-lan guztien berri emango bailitzateke. *Herrian* irakurtzen dugunez²⁷⁸, aldizkariarena Ikas-en gain utzi zen, baina honek dirurik ez zuenez, *Jakin* taldea arduratuko da lan horiek argitaratzeaz. Esan bezala, azken asmo hauen eraginez, *Jakin* argitaletxeak *Ekonomiaz-Ekologiaz* liburua argitaratu zuen hurrengo urtean, zeinetan Joxemartin Apalategi, S. Larrea, R. Gorostidi eta J. R. Etxebarriak aurkeztutako txostenak biltzen baitira²⁷⁹.

Zabalen lehen egindako aipamenaz aparte, Gexan Alfarok (G.L.), “UEU kulturaren aitzindari” lantxoan (10, 1974, 44), zortzi lerrotan ematen du 1974ko II. UEUren berri, esanez ikasle gehienak “mugaz haraindikoak” zirela eta erakunde hau “aitzindari, pentsalari eta akulari” ageri dela.

Joxemartin Apalategi “Hans Yolsmilc”ek, “Euskal Unibertsitatea eta Guk taldea” artikuluan (10, 1974, 42-44) Iparraldeko eta Hegoaldeko kultur egoerak konparatzen ditu. Bere ustez, nahiz eta Euskal Herriko bi aldeetan ekintza nagusia berbera den, ez da izaera berdinekoa. Honekin esan nahi duena da, egoera politikoa dela-eta, “euskal kulturaren zenbait ekintza Estatu batean bestean baino posibleago dela” (Yolsmilc, 10, 1974, 42). Horretxegatik, hain zuzen, kokatzen da Iparraldean UEU, gisa horretako kultur agerpen bat

hemen bakarrik baita ahalezko. Gogoratzen du, bidenabar, Guk musikari-taldeak “Aita Semeak Laborari kantari” lana jokatu zuela Donibane Lohizuneko Casino etxean, gauez, ehunen bat lagunuen aurrean. Talde honen xede nagusia da, laborariak beren egoeraren kontzientzia hartzea eta horretarako beren arte-lanen agerpena berriak bizi diren lekuetan, laborari-herritxoetan, egitea.

1.5.3. III. UEU Uztaritzeko Landagoien etxean egin zen 1975eko abuztuaren 19tik 29ra arte, oraingoan, Ikas-ekin batera, Euskal Kultur Mintegia, EKT (Elhuyar), Jakin eta Euskaltzaindiak antolatuta. Koordinatze-lana, ordea, Ikas-ek eramango du, berak ordezkatzeko baitu ofizialtasuna. Idazkaritza honen egitekoak, hauek dira: a) euskal ikasleen fitxategi bat egitea; b) propaganda egitea; c) irakaskuntzako sail bakoitzaren berri ematea; d) diru-arazoa bideratzea; e) Oñatiko Unibertsitatearekin harremanetan jartzea; f) irakaskuntzaren arazoak arduratzea; j) tokia eta egunak finkatzea. III. UEU honek, irakaskuntzaren mailan, bi helburu ezartzen ditu: bat, ikerketa-lanak bideratzea, eta bi, unibertsitateetako irakasleen jakintzaz baliatuz, hauekin harremanetan jartzea²⁸⁰. Bertan hirurehun bat ikasle izatea espero da, gehienak Hegoaldetik etortze-koak²⁸¹, baina ez dugu horren datu zehatzik.

III. UEU honen ezaugarrietako bat da, hasierako maisu-hitzaldiak utzita, jardunaldiak era demokratikoago batez antolatzen direla, irakasleriaren parte-hartzeari leku gehiago emanez. Bederatzi sailetan banatu ziren gaiak: hizkuntzalaritza, zientzia, gizarte zientziak, antzerki-edergintza, ekonomia, zuzenbidea, filosofia eta teologia, kazetaritza eta pedagogia²⁸². Baina egiazki funtzionatu zuten sailak, hizkuntzalaritza eta zientzia bakarrik izan ziren; beste zenbait erdipurdika bakarrik eman ziren eta beste batzuk, berriz, larri gorritan geratu. Kronikak dakarrenez²⁸³, benetan penagarria izan zen hutsune hori, bere ustez, programaketaren berrikuntzan urrunegi joan izanaren ondorio naturala. Programaketaren berritasunak erakarritako lehengo ospakizunetan baino ikasle-kopuru handiagoa bertaratu zen oraingoan, guztira berrehun lagunetik gora –eta horietatik laurogeiren bat-edo, ikastaldi osoa jarraitu zutenak–; kontrakarrean, ordea, gertatzen da unibertsitate-eredu zaharretik berrira –herritarrago eta askatzaileago batera–, ematen den jauzi honetan kanpoan sentitzen direla eskola zaharreko irakasleak zein ikasleak eta, ondorioz, III. UEU honi boikota egiten diotela²⁸⁴. Horregatik geratzen dira hutsik hainbat eta hainbat sail.

Zabal aldizkariak (15, 1975, 16-18), arestian aipatuko ditugun xehetasun horietan sartu gabe, “UEUren agerpena” argitaratzen du, zeinetan, puntu hauek azpimarratzen baitira:

Hasteko, sarreran, esaten da Euskal Unibertsitate nazionala, inoiz baino gehiago, gaur egun ari dela beharrian gogor bilakatzen gure herrian eta, gainera, euskal unibertsitatea eskatzen duen gizarte berria abian dagoela gure artean.

Bigarrenik, Euskal Unibertsitatearen gainean azalpen historiko laburra egiten da, Oñatikotik (1954) hasi, 1936ko Eusko Irakastola Nagusia aipatzetik pasa eta oraingo egoera deskribatzen bukatuz. Segidan UEUren oinarriak eta berezitasunak, agiriaren puntu oinarrikoak datoz.

Hirugarrenik, nahiko litzatekeen unibertsitate-eredu bati buruzko printzipio edo oinarrien mailan, haren antolaketa orokorrean hartuta, lehen baino askoz gehiago zehazten dira hainbat puntu, hala nola: ikasketek zein ikerketek eguneroko gizarte-arazoetara zuzenduak egon beharko lukete, “nor-gehiagokeria” lortzen duten oinarriak hautsi beharko lirateke, “burulana eta eskulana” biak batera eraman beharko lirateke, lanaren zatiketa soziala kondentatuz, demokrazia eta autonomia garatu beharko lirateke, etab.

Laugarrenik, Euskal Unibertsitateak eduki beharko lituzkeen berezitasunen atalean, haren egituran funtsezkoak izan beharko luketen ezaugarri hauek aipatzen dira: a) Euskal Herria bere osotasunean hartzea, hemen sartuz osotasun geografikoa, politiko-administratiboa, kulturala eta ekonomikoa, eta b) euskalduna izatea, “Euskal Herria jasaten eta pairatzen ari den egoera diglosikoa, berreuskalduntzea dugu geure xede” eta, azken helburu horri begira, elebitasunaren kontzeptua, izan, “egoera sozial bati ez baino egoera pertsonalari dagokiona” dela baieztatzen da.

J. M. Larrazabalek, bi emanaldiko “Uztaritzeko agerpena dela eta” lanean (16, 1975, 42-44; 17, 1976, 1-4), Agiri horren inguruan bere iritziak eman zituen. Agiri horren zati nagusia, sarreran esaten duenez, jadanik Bilboko partean landuta etorri zen eta, horren azterketa Uztaritzen bertan presaka egina izan zenez gero, nabari zaio balukeela zer landurik. Halere, hutsuneak hutsune, testuaren edukari guztiz garrantzizko deritzo, baina badu zer kritikatu. Euskal popularen kontzeptua, demokraziarena eta plangintzarena ditu kritika-gai. Goazen zatika:

Lehen kontzeptuari dagokionez, egiten duen baieztapena da Euskal Herria ez dela euskal populua edo, bestela esanda, “Euskal

Herriko oro berez ez dela euskal populuko". Populua eta herria kontzeptuak garbiki bereizten ditu, beraz, pasarte honetan:

“Arestian esan dudanez, euskal ezker abertzale eta sozialistak bere praktika politikoan eta bere praktikarako elementu teorikoetan ‘herri’ kontzeptua totalitate (*ethnos*) nazionala adierazteko du erabiltzen, eta ‘populu’ kontzeptua, berriz, egun klase gatazka-ren prozesuari dagokion beste zerau adierazteko, kontraesanen sisteman, kontraesan nagusia izan, oligarkiaren eta klase antioligarkikoen antagonismoa izanik, klase antioligarkiko hauen totalitate dialektikoa adierazteko, bada” (Larrazabal, 16, 1975, 43).

Kontzeptu horietako bakoitzak bere eremu semantikoa du, arras hertsia: gauza bat da herria, etniari lotua, beste bat populua, hau klasetasunari lotua. Gertatzen dena da, bi maila horiek ez bereiztean, “herri” hitzaren eduki polisemikoan jausten dela Uztaritzeko Agerpena eta, ondorioz, populuari dagokion klase-marka ezkatututa geratzen dela haren baitan. Demagun, adibidez, klase oligarkikoaz ari garela eta kontzeptu hori Euskal Herriko egoera soziopolitikoan aplikatu nahi dugula. Orduan oligarkia espainola eta frantsesarekin batera, euskal oligarkiaz ere hitz beharko litzateke. Honek inplikatzan du, euskal populua barruan klase-kontraesanak ere badaudenez gero, egungo memento historikoan bigarren mailakoak diren kontraesan hauek aipatu eta aztertu egin behar direla eta ez gorderik utzi (16, 1975, 44).

Bigarrenik, badu zer esanik demokraziaren gainean ere, betiko faxistak azken orduko demokratak bihurtuta ikusten baititu. Bego hor zamarrak aldatzearen kontua, praktika politikoak sarritan erakusten duena. Maila formalean, eta honetara dator J. M. Larrazabalen kritika, gogorarazten du, arras ezaguna den arren, burgesiak asmatu zuela, liberalismoaren printzipio unibertsal gisa aldarrikatuz. Geroztik, burges demokrazia eta populua-demokrazia bereizi izan diren arren, askotan, Uztaritzeko Agiriaren kasuan bezala, ez da garbi geratzen zer ulertu behar den “demokrazia” hitza datorrenean. J. M. Larrazabalen ustez, kontzeptu horri, hango testuinguruan, humanismo-kutsua dario eta ez sozialismoarena. Eta hau esatean, proletalgoaren diktadura du gogoan, zeinak haxe inplikatzan baitu.

“Demokrazia osoa egungo euskal populua baitan, gatazka eta bortxa oligarkiaren aurka. Populu demokraziak ez lioke Euskal Unibertsitatean inolako sarbiderik utziko oligarkiaren inongo or-

deko nahiz miraberi. (Ez naiz hipotesi aingerutar bat aipatzen ari, susmo franko izan baita Oñatiko bidetik sartu nahi zuen haize estrainio batez! Eta horrelako saiorik berririo ez ote da errazago gertatuko oraingo Españaiko Estatuko kinka guti edo gehiago berritua dela medio?). Populu demokraziak sozialist demokraziarako bidea iriki behar du. Eta hauxe da inportantea”. (Larrazabal, 17, 1976, 3).

Eta Unibertsitatearen barruan, esango digunez, intelektualen egitekoa, batik bat, zientziaz eta kontzientziaz kritikoa izatea da, “hiperkritikoa” ere bai. Intelektualei, hauek beren autonomia erlatiboa baduten arren, edozein motatako zapalkuntzak agertzen diren tokietan, “populuarekin ala beraren kontra” egotea tokatzen zaie.

Hirugarrenik, plangintzaren arloan, “egiazki motz” kausitzen du Agerpena. Oinarri teorikoak hutsean galtzen dira eguneroko ekintzak bideratuko dituen plangintzarik gabe:

“Plangintzaren lehen neurriak (neurri posibleak) zertxobait finkatu beharko lituzke testuak. Eta ez dugu horrelakorik deus” (Larrazabal, 17, 1975, 3).

Plangintzak, jakina, jendea eskatzen du. Zentzu honetan, IV. UEUa prestatzeko lehen bilera orokorra Donostian egin zelarik, idazkaritzaren koordinatzaile liberatu bat jartzea erabaki zen. Horrelako neurriak hartzetik letorke, zalantzarik gabe, UEUren egiazgarapena eta indartzea.

Zabalek (19, 1976, 1-2), “Udako Euskal Unibertsitatea” izeneko editorialean, Ikas antolatzailearen asmoari jarraiki, 1976ko abuztuaren 16tik 28ra ospatuko den IV. UEUren aldeko haren deia berresten du. Donibane Lohizuneko “lehen aldiko maisu (zenbaitetan maisukeriazko ere) mintzaldietatik Uztaritzeko talde-lan eta mintegietara bide luzea egin dela eta etorkizunean “Euskal Herri osoaren bilakaera kultur-politikoan egitekorik funtsezkoenetako bat” jokatu duela uste da. IV. UEU honetan, “irakaskuntzari eta hiztegi gintzari behar bezalako lekua ematen zaielarik, ikerketazko lanak ezin ditzakegula ahantz” esaten da eta, 1973an bezala, “*Zabalek* UEUren barne izan garelarik” (19, 1976, 2), 1976ko honetan ere han izango direla.

Editorial horretan bertan, badator, baita ere, Uztaritzeko III. UEUko saioaz ohar garrantzitsu bat ere, eta da han orduan parte hartutako irakasleen adina, batez beste, 35ekoa zela. Gaztea, beraz.

Galdetzen da non ziren irakasle zaharragoak, “non hainbeste maisu sonatu”. Antza, ordudanik hasi ziren aldentzen Koldo Mitxelena eta besteak.

Mikel Urteaga “Uharte”k²⁸⁵, ez UEUz, baizik unibertsitarioez orokorrean ari da. Dioena da, egun, Unibertsitatean dabiltzan gehienak aberatsen semeak badira ere, langileenak ere gero eta gehiago direla, Euskadin ere bai. Bestalde, unibertsitario horiek beren buruak marxistatzat badauzkate ere, ez dute ulertzen marxismoaren muina, “dialektika iraultzailea alegia”. Iraultza gehientsuenetan ikasleak izan badira ere oldartu direnak, gero ez omen dira gauza izan berori aurrera eramateko. Zergatik-eta, burges txikien pentsaera dutelako. Unibertsitate-ereduaz ari dela, Txinakoa proposatzen du, zeinaren eredura, a) kulturak proletalgoaren zerbitzura egon behar baitu eta, halaber, goi-irakaskuntzak produkzio-munduan txertatua, ikasleek fabriketan eta kanpainetan parte hartuz. Albaniako eredia ere gogotan dauka, zeinetan, berak gogorazten duenez, gizarte kapitalistan ez bezala, lan fisikoa buru-lana bezain garrantzitsua baita.

2. Hezkuntza sexuala

“Izarreko”k Reich-en sexuari buruzko ikuspegi iraultzailea dibulgatzen du “Sexual bizitza Wilhem Reich-en ustez” artikuluan (16, 1975, 23-25). Haren tesia da, egungo gizarte kapitalistak ez diola sexu-bizitzari benetako erantzunik ematen, gizarte-mota horretan sexu-senak aldeztu aurretik ukatuak daudelako, moral arautzaile baten bidez. Izan ere, historian zehar mendez mende nagusituz etorri den moral tradizionala, sexu-sen biologikoari kontrajartzen zaion aldeetik, giza izatearen aurkakoa da eta ateak ixten dizkio haren garapen askeari. Moralaren iturburua, beraz, errepresioan datza. Familia da moral-mota horri eusten diona. Hortik askatzeko, naturazko moralera jo beharra dago. Honek esan nahi du biologiazko natur beharrei –sexu-beharrei, alegia–, autoerregulazio baten bidez erantzun behar zaiola. Autoerregulazio honetan oinarritzen da, hain zuzen, sexu-ekonomia, zeinaren helburua “moral-portaera” bat lortzea baita. Eta hau sexu-iraultza eginez burutzen da, aldi berean gizarte kapitalista eta honen sostengatzaile den famili egitura irauliz. “Izarreko”k, azken pasarteetan, Euskal Herrian ere sexu-iraultza bideratu beharra da-

goela uste du. Dioenez, sexu-arazoan, “axolakabetasun ezarik nabarmenena” mugimendu abertzalean ematen da. Hala ote?

3. Alfabetakuntza

K. Mendibeherek “Ikastaldia 73” artikuluan (4, 1973, 39-42) jakinarazten digunez, 1972n abiatzen da euskalduntze-jarduera, Iparraldean, jadanik Hegoaldean eginez zetozen euskalduntze-saioen ereduari jarraiki hasi eta garatzen da. Baina nekezka, lahardian jausten den haziaren antzera, lur aski idorrean. Bigarrena, 1973ko abuztuan egiten da, ikasle eta irakasle, guztira, 40ren bat lagun izan zirelarik²⁸⁶. K. Mendibehere bera izan zen antolatzaileetako bat. Xedea, esan bezala, euskara irakastea zen.

Ikastaldi hori Tarnos-en egin zen, Afrikako misiolarien ikastetxe handian. Leku askotatik bertaratu ziren: gehienak Euskal Herritik, bizpalau Parisetik, Frantzia eta Okzitaniako hiri batzuetatik ere bai beste zenbait. Gehienak, gazteak, hortxe hoge eta hogeita bost urte bitartekoak. Orobat, bizpahiru salbu, beste guztiak maisuak edo unibertsitate-irakasleak eta ikasleak. Bestalde, 9 irakasletatik, lau Hegoaldekoak ziren.

Artikuluan xehetasunak ematen dira irakastaldian zer-nolako metodoa erabiltzen zen, ikasleak zenbat taldetan eta mailetan banatu ziren, etab. Horrelako datuak beude gai hau ikertu nahi duenarentzat erreferentzi iturri gisa. Baina benetan ohargarria da, egileak doluz dioen hau: hots, euskaltzaleen artean ere ez dela batasunik ematen euskararen aldeko ekimenetan, ezta, kasu honetan bezala, euskalduntze-jardueran ere. Hurrengo urteko ikastaldiari begira, Iparraldeko kultur erakunde desberdinek –Euskaltzaindia, Ikas, Eskualzaleen Biltzarra, Seaska, Mendi Berri-k eta–, elkarren artean Bulego Antolatzaile bat finkatzea proposatzen du. Hori lehenik, eta bigarrenik, kostuak merkatzea, apaizen ikastetxe batean egin ordez, –kontrolpean eta zerbitzu onik gabe, gainera²⁸⁷–, ikastetxe publiko batean eginez. Eta, azkenik, ez dezala talde batek har ikastaldiaren monopolioa, baizik eta antolaketan parte hartu nahi duten guztiek izan dezatela beren lekua elkar-lan horretan.

Z. (*Zabal?*) inisialez emandako “Uda honetako euskarazko ikastaldia” artikuluan (15, 1975, 31-32), laugarren urtez egiten den 1975eko ikastaldiaren berri dator, abuztuan egina. Lehen biak Baio-

nan eginak izan ziren; 1974koa Zuberoan, Mendikotan; 1975ekoa, Nafarroa Behereko Donaixtin. Mugimendua goraka doa: lau asteko iraupena du eta elkartuak 75 ikasle dira 7 irakaslerentzat. Ikasleen jatorriari dagokionez, 30 Hegoaldekoak, beste talde bat Paristik etorria, eta beste gehienak ipar kostaldekoak. Hemen, berriro, mintza-praktikan oinarritutako irakas-metodo aktiboaz eta arratsaldeko mintzaldiez hitz egiten da. Hizlarien izenak ere badatoz: Donaixtiko sindikalari bat, Donaixtiko alkatea, ASAMeko buruzagi bat, Flandesko Walter Luyten, Monzon, Txillardegi, J. L. Davant. Kantariak eta bertsolariak ere izan ziren. Egun haietan ETAKo Garmendia eta Otaegiren auzia gertatu baitzen, ikastaldiko giroa zerbait aldatu egin zen: Hegoaldeko gehienak beren etxeetara itzuli ziren greba orokorrean parte hartzera, Iparraldekoak ibilaldi eta erakustaldietan parte hartzea deliberatu zuten bitartean.

Dena dela, irakastaldiekin aurrera egiteak merezi zuela aitortzen bada ere, arazoak badirela esaten da: tokiarena, prezioarena, irakasleena, etab. Lehen biak konponduak omen; hirugarrenak, ordea, badakar buruhausterik, Iparraldean ez omen da irakasle-talderik-eta.

Orain arterainokoa Iparraldean. Eta Hegoaldean nola ote doa?

Nor den ez dakigun “Eziketa”^{k288} jorratzen digu azken gai hau emanaldi bikoitzean argitara emandako “Alfabetatzeaz” artikuluan (16, 1975, 39-41; 18, 1976, 7-11). Ez du egiten alfabetatzearen historia bat, baina bideak irekitzen ditu. Gehienbat alfabetatzea zer den eta beronen helburuak zein diren zehazten ahalegintzen da. Izan ere, eztabaida luze eta gatazkatsuak eman izan ziren 1970eko hamarkada-hasieran alfabetatzeak bete beharko lituzkeen xede nagusien inguruan. Alfabetatzeak soilki euskara irakastea mugatu behar du, ala, zapalkuntzazko egoera abiapuntutzat hartuta, pedagogikoagoa da hizkuntza edukiz hornituta irakastea? Puntu horretan zetzan arazoa. Jakinda alfabetatzearena hizkuntz zapalkuntzaren ondorioz euskaldun izatearen nahiak sortutako herri-mugimendu bat dela, egilearentzat (16, 1975, 40) garbi dago euskara herri-borrokari murgiltzeko tresna bat gehiago dela, hizkuntza ikastea arma berri bat eskuratzea dela:

“Honek, noski, lan egitera dakar berarekin; eta lan horren bidez herriaren borrokari gero eta parte handiago eta azkarrago bat izatera iristea. Alfabetatzearen konzeptualizazio honek, klase-lan batean, langile klasearen lan bihurtzen du euskara ikastea bera

ere, hizkuntzari lotzen dizkiogularik gure bizitzako arazo oro: hizkuntza baten izatea ez baita definitzen eta mugatzen besteren-gandik desberdina izatean bakarrik. Hizkuntzak, gure kasuan euskarak, berarekin baitarama munduaren eta gizarte arazoan analizatze nota bat, nortasun bat. Beraz, alfabetatze lanak gizarte berri bat egitearen lana darama eta gizarte berri horretan atxikitzen gaitu, gure pentsaera, ohiturak eta interesak eraberrituz, gure burua azkenik euskal gizartean osoro integratuz. Eta guzti hau, hain zuzen, inork kendu ezin digun arma batez: hizkuntza”.

Alfabetatzea herri-mugimendu bat baita, herritik sortua eta, beraz, zabala, egilearen ustez, mugimendu horrek aurrera egin dezan, guztientzat irekia egon beharko litzatekeen plataforma zabala izan beharko luke, ideologia jakin baten menpeko izan gabe, baina ez, hasieran esan bezala, horregatik ideologiarik gabekoa. Kontrako jokabidea absolutismoan jaustea izango litzateke:

“Besterik egitea absolutismo bidetatik abiatzea dela uste dugu. Ideologia bat, joera mota bat ezarri nahi izatea, besteren eskubideak ukatu nahi izatea, beraz, azkenean ideologia ezberdinak ukatu nahi izatea. Honek ez du esan nahi, holako edo halako ideologia bat ezin agertuko denik alfabetatze saioretan; bai, noski, eta ager bitez. Baina, alfabetatze lana ez dugu ikusten jarraitzaile berriak ernarazteko lur egoki bat bezala, edo dotrina konkretu bat erakusteko ere. Hori da esan nahi duguna” (Eziketa, I, 16, 1975, 41).

Larresororena beretuz, egia den bezala hizkuntzak eta pentsaerak elkarren artean lotura estuak dituztela, egia da, halaber, hizkuntza berekoen artean ideologi desberdintasunik ere ematen dela. Honekin esan nahi du, azken batean, hizkuntza, pentsaera eta ideologiaren artean loturarik badela. Bestela esanda, euskaldunak izanda ere, izan gaitetzke klase batekoak bezala besteakoak:

“Ez garateke beraz, ez burges, ez proletario, ez aurrerakoi, ez atzerakoi euskaraz mintzo garelako, berdin defenditu baititzaiegu bataren edo bestearen interesak. Baina hori bai, euskaldun izanen gara” (Eziketa, II, 18, 1976, 8).

Hizkuntza batek klase-marka badarama ere, hizkuntza hori menderatua denean, batik bat, horren aldeko borroka iraultzaile bi-

lakatzen da. Horixe da, hain zuzen, euskararen kasua. Honen bizitza erabiltzaileen eskuetan dago:

“Eremu honetan dagoke beraz euskal komunitatearen zeregina. Euskara eta euskal kultura biziko badira, ez dugu aski etxean euskaraz hitz egiteaz, nonahi baizik; ez eta ere hitz egiteaz bakarrik; idazten eta irakurtzen ikasi beharra dugu eta trebeki; hona hemen ba, alfabetatzearen zereginetako bat” (Eziketa, 18, 1976, 8).

Eta horixe da, orain eta hemen, “euskaldungoaren zeregina”.

XIII

Sekularizazioaren zeinuak euskal gizartean

Euskal gizartea sekularizatzen hasten den unetik berebiziko astindua hartzen du Euskal Herriko elizak bere funtzionamendu orokorrean eta, batik bat, bere sistema klerikalean eta erlijio-krisi zorrotza zabaltzen da. Aldaketa hau, Hegoaldean batez ere, korronte ideologiko berriek, –hauen artean, bereziki, neoliberalismo laikoak eta marxismoak–, euskal ezkerrean bere sarrera indartsua egiten dutenean eta nazionalismo iraultzailea indartuz doanean gertatzen da.

Ohiko eliz erakundeak orokorrean eta –zer esanik ez frankistak–, salakuntza gogorrek jasotzen ditu alde askotatik, barrutik bezala kanpotik. Gero eta gehiago dira beren buruak agnostiko eta ateotzat dauzkaten gazteak –batez ere, ikasleak eta luma berriak–, edota ohiko elizkizunetara joateari uzten diotenak. Seminario Nagusietan, hurbileko arrazoi desberdinengatik baina gehienetan euskal arazoa tarteko dela, protesta-mugimenduak indartzen dira, zehazki Donostiakoan 1965eko maiatzean, Iruñea eta Baionakoan 1967-68ko ikasturtean. Kontua da, 1968. urtetik aurrera, seminario eta komentuetako kleriko-gaien kopurua nabarmenki jaisten hasten dela eta azkenean, 1973rako, klero erregularren eta sekularren ikastetxe nagusiak, lehen kukurreraino beteta ikusten zirenak, hutsik aurkitzen direla. Krisi honek kleroa ere harrapatzen du maila pertsonalean bezala kolektiboan. Bizkaian, Gogor taldearen inguruan, herri-eskabiderik sentituenak jasotzen dituen apaiz mugimendu garrantzitsua gorpuzten da, euskal lurraldetik harago ere entzute handia izaten duena. Bestalde, apaiz ohien sekularizazioak ez du atzerabiderik izango. Era berean, laikoen munduan, eliz mugimenduetan zebiltzan militante gehientsuenak ezkutuko erakunde edo mugimendu politiko-sindikaletara pasatzen dira. Denbora gutxian,

Hegoaldean bederen, gizarte teokratiko izatetik gizarte sekularizatu izatera pasatzen gara oso denbora gutxian. Hau da egoera *Zabalak* erlijio-gaiari bere orrialdeak irekitzen dizkionenean aurkitzen duena. Erlijioaren gaia ez da berria, baina bai erlijioaz egiten den begirada soziologikoa, ordura arteko ikuspegi pastoraletik urruntzen dena. Horregatik sartzen dugu gai hau ildo berrien atalean, erlijioaren soziologiaren sailean.

Eliz erakundearen inguruan gertatutako protesta-agerraldi kolektibo horiek hor zeuden, kale gorrian, bistan baino bistanago, belaunaldi zaharrekoen eskandalurako, horien oihartzun soziala nork hausnartuko zain. Belaunaldi berriak eskema zaharrak hautsi ditu, zerbaitek krak egin du ozenki, eta anartean azterketa soziologikorik ez da ageri²⁸⁹. Ez dakigu zergatik gertatu diren erlijio-fenomeno horiek, ezta horiek gurean espezifikotasunik badutenetz, ezta nora goazen ere. Dakigun bakarra da, orokorrean esaten dena, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, elizaren barruan iraultza antzeko bat gertatu dela eta horren ondorioak direla. Zalantzarik ez da eliza barruko faktore horiek beren eragina izan zutela mundu zabalean. Baina Euskal Herrian, faktore orokor horiez landa, eman ziren beste faktore partikularrago batzuk ere, bertako koiuntura soziopolitiko eta kulturalari zegozkionak, eta hauek, une berean, era desberdin batez eta data desberdinetan eragin zuten probintzia bakoitzean. Prozesua ez zen erabat uniformea izan.

Euskal kulturaren mundutik erlijioaren arazoari heldu ziona, beste gai askotan bezala, Jakin Sorta izango da, gai honen ingurune hainbat ale monografiko argitaratzen dituena: *Kultura eta fedea* (1971), *Erljioa hauzipean* (1971), *Fedearen dinamika* (1972) eta *Marx eta Jesus Europan* (1975). Lehen bi liburu horiek, argitalpen banatan badatoz ere, liburu bakarra osatzen dute. Zuzendaritzakoek geroztik idatzi duten bezala, “ausartzia pixka batekin” argitaratu zituzten, eta “lehenengo saio hartan eman zenaren seriotasuna eta lankide haien lan-kalitatea, hamar urte geroago, ez da oraindik euskaraz emandako erlijio-pentsamenduan haragotu”²⁹⁰. Bego. Baina lan hauetan, euskal elizari buruzko deus konkreturik ez da aipatzen, ez bada Joxe Azurmendiren orrialde-erdi bat “gaurko euskal erlijio kritikaren arbasoez”²⁹¹. Azkenean eranskin gisa datozen Larresoro, J. M. Torreal dai eta Piarres Xarritonen artikulua datozen, eta hauetatik lehengo biak *Zeruko Argian* argitaratutakoen erreproduktzioak dira²⁹². Liburukien funtsa, bada, teologia protestante berriak (Barth,

Bultmann, Bonhoeffer, Tillich.) eta sobietar filosofia ofizialak erlijioaz duten ikuspegia azaltzera mugatzen da. Izenburutzat *Marx eta Jesus European* daraman hirugarrenak, funtsean, European kristauen eta pentsalari marxisten artean sortzen den elkarrizketa-ariketa dialektikoaz ari da, gehienbat maila filosofiko-teologikoan. Garbi ageri da hor marximoak pentsamendu katolikoan duen eragina.

Baina lehenagotik ere bazen saiorik eginik 1960ko hamarkadan teologia dogmatikoaren sailean. Ikuspegi klasikoarekin egina bada-go ere, ezin da aipatu gabe utzi Luis Villasanteren trilogia, *Kristau fedearen sustraiak* izen komuna daramana eta hiru emanalditan argitaratua: *Jainkoa* (I) 1962an, *Jesukristo* (II) 1969an eta *Eliza* (III), azken hau askoz beranduago, 1984an.

Eta *Zabalen*, zer? Aldizkari honetan ere, artikulua ugari ez badira ere, badu bere lekua erlijioaren soziologiak. Orokorrean erlijioaz baino gehiago, zuzenean euskal elizaren egoera soziologikoa aztertzen da.

1. Piarres Xarritonek ematen dio hasiera erlijio-gaiari “Eliza eta fedea Euskal-Herrian” artikuluaekin (3, 1973, 5-13), Euskal Herrian elizaren eta fedearen arteko harremanak zertan diren aztertuz. Apaiztu baino urtebete lehenago, 1946an, 25 urterekin argitaratua zuen frantsesez 71 orrialdeko liburuxka bat, *Petite histoire religieuse du Pays Basque* deitua²⁹³, Jean Saint-Pierre gotzainaren hitzaurrearekin, bere garaian dibulgaziorako balio izan zuena. Bestalde, arestian aipatutako Jakin Sorta-n, 1971n, Larresorok “Zalantzan dagoen apaiz horri” artikuluan mundu laikoan sartuta zebiltzan apaiz berrien irudia kritikatzeko baitzuen, honi “Zalantzatan nindagon apaiz hunek” artikuluaekin erantzuten dio, esanez ez dela oraindik etorri “hilak eta biziak jujatzerat” etorri beharrekoa den Salbatzailea. Honekin aditzera ematen dio ez dela bidezkoa agnostiko batek fededunari zer egin behar duen erakustea. Berarekin zertan ez datorren ados ere zehazten du²⁹⁴:

“Bestalde, adiskidea, Eliza gizonen artean, zuretzat kanpotik *apaiz berri* horien txorakeria balin bada nabarmen, guretzat baretik *apaiz zahar* batzuen zuhurreri hertsu ta laburra dago nagusi”.

Piarres Xarritonek bere lehen artikulua egiten duelarik *Zabalen*²⁹⁵, aipatutako lan horiek eta Larresororekin izandako eztabai-datxoa goioan dauzka. Berak hemen erlijio katolikoa du aztergai,

Euskal Herrian ematen den bezala gogo emana. Bi mailok garbiki bereizten ditu artikuluaeren azpituulueta: hots, eliza, hau gizarte-erakunde gisa hartuta, eta fedea, hau pertsona bakoitzaren bizipen gisa.

Eliz erakundea, mundu zabalean eta berdin Euskal Herrian, inarrosia dela kausitzen du. Lehen apaiza jaun eta jabe zen herri guztietan eta harekin kontatu gabe ezin zitekeen deus egin, ez igandearekin belarretan ari, ez politikan autonomiarekin jokatu. Gizartean eraginik izan zezakeen guztietan, apaizaren hitzak zuen itzala. Oraindik ere badira, bai, beren eliztarrak sehi eta morroien antzera gobernatzan dituztenak, batez ere, Lapurdi eta Nafarroa Beherean. Bestalde, goikoen artean, ohituta zeuden eliz buruzagiak eta politikariak elkarrekin ibiltzen, Frantzia baino areago oraindik Espainian. Elizaren zuzendaritza ere adinekoen eta zaharren eskuetan egonez segitzen du. Eskola zaharrekoak dira, seminarioak beteta zeuden egun haiek amesten dituzten horietakoak, Vatikanoko II. Kontzilioa izan denik ere jakin nahi ez dutenak. Hauentzat aski eskandalagarria izan zen jadanik latina uztea, aldareak jendeari begira jartzea, apaiz jantziak aldatzea!

Baina azkenaldiotan asko aldatu dira gauzak. Eliz erakunde zaharkitu horren aurrean, tankera zaharreko katolikotasuna sakonki erroturik bazegoen ere euskal gizartean, mota desberdinetako erreakzioak sortu dira. Gizarte zibilean, elizari buruz haste-hastetik beren autonomia agertu zuten erakunde politiko eta kultural berriak dauzkagu: ETA, Enbata, Ikastolak, etab. Eliz erakundearen barruan, batzuek, askok, etsiturik, ez dute menturaz kristau fedea galdu, baina elizaren egituretatik bazter jartzen dira. Beste batzuek, barruan geratuz eta hortik ahaleginduz, nahiko lukete “Euskal Herriko Eliza Berri Euskalduna” sor dadin, baina laguntzarik ez dute. Erromako kuriak estatuak bakarrik ezagutzen ditu, hala nola, Frantzia eta Espainiakoa. Euskal Herririk ez da, maila diplomatikoan bederen ez, eta, ondorioz, haren herri-eskubideak ez dira errespetatzen, ezta eliz mailan ere, nahiz eta Joan XXIII.ak badioen “Populorum progressio” entziklikan gutxiengo etnikoek badituztela beren eskubideak eta horiek errespetatu egin behar direla.

Euskal Herrian hiru kultura bederen badira, guztiz desberdinak direnak: lehengo biak frantsesa eta espainola ditugu eta hauek dira kultura aberatsenak, gobernuaren indar guziak beren kontu dituztenak; hirugarrena euskal kultura da, eta hau dugu pobreena,

ofizialtasunik ez duena. Elizaren egitekoa, hain zuzen ere, baztertua denari laguntza ematea izanen litzateke²⁹⁶:

“Bere eraskaspenen arabera, Elizak zor lioke, baztertua eta lehertua dagoen kultura horri, hots euskarari, bere laguntza osoa. Kultura horren sustatzen, herri horren bere loeriatik iratzartzen, ari direnen alde behar luke agertu, eta mintzatu” (Xarriton, 3, 1973, 9)

Baina zoritxarrez askok ez dute horrelakorik entzun nahi ere, horrela egitea, “politika” egitea omen da-eta. Kristau-eskoletan ere euskal kultura bazter ezarria dute, berdin elizetan zenbait apaizek. Nolanahi ere, eliz erakundearen barruan gauzak aldatzen hasiak badira ere, oraindik argilun asko dago.

Maila pertsonalean, fedez zer esan? P. Xarritonon ustez, ez da erlijiorik gabeko federik. Baina, berez, erlijioa ez da fedea. Modu askotara erabil dezake gizakiak erlijioa, herriak azpian hartzeko bezala askatzeko ere. Joxe Azurmendik esana baitzuen euskal literaturan ez daukagula erlijioaren kritikarik ia baterere²⁹⁷, Piarres Xarritonek, bere aldetik, Mirande eta Arestiren “solas bortitzak” –harenak Nietzsche-ren oihartzun iduriak, honenak Marx-en ebanjelio age-riak–, eta Rikardo Arregi eta Txillardegiren artikulua gogorarazten ditu. Nolanahi ere, Nafarroako diozesiak argitaratutako *La vida cristiana ante el desafío de los tiempos nuevos* liburuan²⁹⁸ kristau-fedeari buruz datozen datu estatistikoak ikusita, ohartzen da, Nafarroako gizartearen –katolikoena zen hartantxe, hain zuzen–, hango belaunaldi berria errotik aldatzen hasia dela bai pentsamoldez bai jokabidez. Euskal gizartearen sekularizatuz doan seinalea da hau. Hala erakusten dute liburu horretatik jasotzen dituen datuek. Eta fedea gizarte sekularizatu honetan egin behar du bere bidea.

Bigarren artikulua egiteko parada, Jean Hiriart-Urruty apaizak *Herria* astekarian “Eliza berri” izenarekin aspalditxotik argitaratuz zetorren artikuluek ematen diote Piarres Xarritioni. Bere artikuluari “Eliza berri Baionan?” izenburua (9, 1974, 12-17) jartzen baitio, galdera horrek berak salatzen du baduela zer esatekorik gai horretaz. Orduko testuingurua ulertu ahal izateko, esan behar da, 1967-1973 epealdian zehar Baionako Saint-Amand parrokiaren arduraren zerman garaian, Fededunak izeneko kristau euskaldunen taldea sortzen parte hartu zuela, Manex Erdozaintzi, Jean Hiriart Urruty eta beste laiko batzuekin batera. Erakunde honetan biltzen ziren euskal eliza

berriaren hazia erein nahi zutenak. Izan ere, Baionako diozesian, aspaldian Euskal Herririk ez balitz bezala bizi ziren.

Halako batean, ordea, 1974ko uztailaren 24ko *Bulletin Diocésain* delakoak ofizialki jakinarazten du –hara berriaren berrial–, Baionako apaiz-kontseilua “euskal problemari” buruz lanean ari omen dela. Eta euskal arazoaz mintzatzeko deituak, antza, laikoak izan ziren, injineru eta sindikalistak, gizonezkoak eta emakumezkoak, adinekoak eta gazteak. Baina hara hemen kontraesanaren handia, euskal arazoaz lehendik ere axolarik bazuen apaizik ez. Bulletinak Seguin eta Cedarry andereen, Haritxelar, Aitzager eta Oihartzabalen “solaz larrienak” zekartzan²⁹. Piarres Xarritonek lekuko horien ahotik entzun nahi izan zituen iritziak eta, entzunak entzunda, ateratzen duen ondorioa da laikoek ez dutela esperantzarik apaiz jende horiengan, herri-arazoetatik urrun daudela, entzun bai baina ez dutela ulertzen esaten zaiena. Hazpandarrak ez bide du esperantzarik ezartzen diozesi-kontseilu horretan, pasarte honek adierazten duen bezala:

“Joanago eta esperantza txikiagotzen ari zait. Kontseilua jarraikiko omen da bere lanari. Ontsa hori. Baina. hor erranak eta galdeginak ez badira entzunak apezpikutegiko beste kontseiluetan, laster laiko horiek bazter jarriko dira eta ez da berriz behin bilkurarik izanen. Ikusi dugu hurbiletik, anitz estruktura pisu badela Euskal-Herriko Elizan, eraikidura arin batzu aski litazkelarik, problema prisatuenei erantzun bat emateko. Guk gaztek erranak ez dituzte anitzek sinetsi. Axaletikokoak omen ziren. Urrundik prestatuak genituen bada. Gure begiekin ikusiak genituen erraten eta ez gure buru gibelesko xoko batetik ateratakoak. Badakigu ‘Euskal Problema’ txapel handi horrek kezka eta grina anitz estaltzen dituela, asko gazten buru bihotzetan: familiako giro txarra, ekonomia problemak, lehertze eta zapaltze mota guziak eta ere euskal nortasunaren begiratzeko axola” (Xarriton, 9, 1974, 14).

Elizak egiazki katolikoa izan dadin, hots, oren eliza, “eliza zaharrak behar lioke lekua eman eliza berriari”. Hau da Piarresek eskatzen duena eta desiratzen Baionako diozesiarentzat. Beren lekua behar dute apaiz langileek edo ofizio bat ikasten ari direnek. Puntu honetan, artzaintzan hasia den Xarles Ouret apaizak Donibane Garazitik, Manex Lanatuak Baionako seminariotik eta Albert Barbier-ek Fonteney-tik bidalitako gutunak aipatzen ditu. Orobat, beren lekua dute zapalduak oro. Herri-arazoetatik hurbil egoteko,

fededunaren politikak eta are gehiago apaizarenak txiki, baztertu eta behartsuen alde egon behar du. Honek esan nahi du, zapaldu eta besterenduen artean, langile- eta nekazari-klaseak ez ezik, herrialdeak eta kultur taldeak ere aurkitzen direla. Era berean, Erromako elizak aldatu egin beharko luke apaizak ezkontzea debekatzen duen legea. Azken batean, “fededun bakoitzak senti du ez zaiola zilegi beste nehoen gain uztea bere kontzientziaren karga, berak behar du bere kontzientziaren arabera bere bidea hautatu eta hartu” (Xarriton, 9, 1974, 16).

Hasieran esan dugu Hegoaldean apaizen protesta gogorra eman zela, Bizkaia eta Gipuzkoatik Nafarroara zabaldu zena eta gizarte-oihartzun zabala izan zuena. Sonatuak izan ziren Gogor taldekoen ekintza desberdinak, bereziki, Derioko seminarioaren okupazioa, gose-grebak, Zamorako konkordatu-presondegia, apaiz zigortuak, etab. Iparraldean, aldiz, ez zen horrelako fenomenorik eman, ez gatazka-intentsitatearen ez kopuruaren aldetik. Lekukotza pertsonaleko kasu isolatuak bakarrik ezagutu ziren –aipatu berri ditugun horiek–, eta eliza berri euskaldunaren grina barne-barnetik bizi zutenak, Xarritonen kasuan bezala, bakarrik eta isolatuak sentitzen ziren. Halaxe aitortzen zuen geroago, urak mantsotu eta gero, *Jakinek* 1996an argitaratutako elkarrizketa batean³⁰⁰:

“Joan nintzen lehenengo aldian Hazparnetik Parisera ez nuen utzi apezgoa, ez asmatu ere horrelakorik. Han komentu batean izan nintzen mojekin kapilau. Handik itzuli nintzenez Baionara, erran dizut zer hiru solas erran nizkion apezpikuari³⁰¹. Saiatu nintzen horren bizitzen, leialki. Baina zorigaitzez ez nuen erantzunik izan. Nire ingurumenean, Baionan, beste apaizen artean, gero eta isolatuago sendi nuen nire burua. Erraiten nituen gauzetan eta izan ziren gose grebetan-eta bakarrik uzten ninduten, adiskide nituenek ere. Katedraleko parrokoak ere, Txomin Iturberen semea bataiatu behar zelarik, etortzen zen nire bila. Ez zen kontra, alde zen, laguna nuen, baina ni ekarrarazten ninduen Saint Amand-etik nik egin nezan lan zikina, erran nahi baita Txominen semearen bataiatzea, ‘Iraultza’ behar baikenuen bataiatu. Bataiatu nuen. Beste kasuetan ere”.

Azkeneko etsi egiten du. Quebec-era joan eta apezgoa uzten du.

Azterrian egonik ere, *Zabalekoekin* harremanetan segitzen du. Piarres Xarritonek³⁰², bere azken artikulua, Montrealetik egina du

José Luis Segundo jesuitaren askatasun-teologiaz. Bertan teologia berri honetaz dauden bi ikuspegiaz ari zaigu, bakoitzaren xehe-tasunak emanez. Haren *Teología de la liberación* liburuaren (Lima, 1971) laburpen bat agertzen da bertan, baina mamia benetan txukun eta argi emanda. Irakurleak plazer izanen luke lau orrialde eta erdi horiek zuzenean irakurriko balitu, besterik ez bada haren lapurteraren freskotasan bizi eta gozoa dastatzeko, Ehulateikoak parekorik gutxi baitu bere garaikoen artean, ekintza-mailan bezala hizketan eta idazten.

Piarres Xarritonek, “Gizonaren kultura eskubideen oinarri etikoak” artikuluan (6, 1974, 43-52), gero bere doktore-tesian landuko duen ikergaiaren muina lantzen du, zeinetan herriek beren nortasuna defendatzeko duten eskubideaz ari baita³⁰³. UEUn emandako hitzaldi-gaiaren izenburua da, bost ataletan zatituta garatzen duena: lehenengoan, “gizonaren kultura eskubideak” legearen aldetik zer diren aztertzen du; bigarrenengoan, Biblian zer-nolako irakaspén etikoak aurkitzen diren; hirugarrenengoan, elizaren historian zehar zer-nolako teoria eta praxia izan den; laugarrenengoan, teologia berria eraikitzeko orduan, antropologiak eta linguistikak zer laguntza eman dezaketen; bosgarrenean, teologia askatzaile baten erroak proposatzen ditu, Chenu, Congar, Gustavo Gutiérrez, Diez-Alegría, Molman eta Ruben-Aves teologoek markatutako irizpideen ildotik. Gaztea zela, 1949an-edo, euskal teologoén fitxa bat prestatu omen zuen, beste ametsen artean, Frantzisko Vitoriaren *De Indiis* hura “zeruetatik lurrerat” ekartzeko asmoz. Hara nola orain, hitzaldi honetarako gai hau prestatzean, konplutua ikusten duen amestua zuena. Gero euskaratuko duenean, berriz, pozak gaina joko zion. Haren itzulpena orrazteko ohorea izan nuen.

Hirugarren atalean, hiru nazionalismo-mota bereizten ditu: totalitarioa, defentsazkoa eta askatzailea. Elizak, hala dio, lehenengo kondnatu egiten du, maizenik baita nazionalismo askatzailea ere; bigarrena bakarrik defendatzen omen du, estatu-nazioarena, alegia. Baina gero, bosgarren zatian, gaurko eliza ofizialki kultur eskubideen alde dagoela esaten digu, nahiz, gaineratzen duenez, elizgizonek kultura zapaltzaileen alde jokutzen duten. Azken batean, zertan dira elizaren teoria eta praxia kultur eskubideen alorrean? Badirudi kontraesankorrek direla. Hegoaldeko irakaskuntzan, adibidez, elizarenak diren ikastetxeak dira erdaldunenak. Zergatik ote da horrela? Huts egiten dutenak pertsonak ote dira, ala mekanismoak daude erdaldunduta?

Piarres Xarritonen lehen artikulua bere arrastoak uzten ditu urrutiko misio-lurretan ere. Une honetan Bolikostan misiolari dagoen Xipri Arbelbide heletarrak, “Euskaldun eliza” artikuluan (4, 1973, 58-59), Xarritonen euskal elizari buruzkoa atseginez irakurri duela jakinarazten du gutun baten bidez. Bera dagoen lekuan –Côte d’Ivoire herrian, alegia–, kanpoko apaizak aise nagusitzen badira ere, bederatzi apezpikutatik zazpi bertako semeak omen dira, eta beste hiruak ere bai luza gabe. Buruzagiak bertakoak izatea, kanpoko guztiek arras zuzen atzematen omen dute, leku guztietan, salbu Euskal Herrian: “Iholdiar Olce apezpikuaz geroz badu hiru mende Baionan apezpiku euskaldunik ez dela izan; Aintzinean ere, bakar batzu salbu, denak arrotzak ziren”. Eta segidan, harriduraz beterik, zera galdetzen du: “Nolaz ez du Euskal Herrian euskaldun bat izendatzen? Nolaz ez du guri hemen galde egiten daukuna eta denek onartzen duguna, gure Herrian berean ere egiten?” (4, 1973, 58).

Bere gutuna gisa horretako galderak eginez bukatzen duen egilea bera, 1974ko udan herriratzen delarik, ohartzen da “Eskual-Herrian bereziki eskualtzale eta abertzaleetan elizaren kontrako aiherkunde bat azkartzen ari dela”. Esaldi honekin hasten du “Apezkeria, elizakeria eta euskara” izeneko bere hurrengo artikulua (7, 1974, 55-56). Arrazoa? Apaizak direla kultur mailan protagonismoa daramatenak. Hau esatean, *Zabaleko* 4. zenbakian datozen bi artikuluetatik ateratako pasarte batzuk aipatzen ditu, zeinetako batean K. Mendibeherek idazten baitu 1973ko alfabetatze-ikastaldiak itsuski garestiak izan direla “apaizen etxeetan eginak izan direlako”³⁰⁴, eta bestean Pierre Bidartek esaten baitu apaizek euskal kulturaren sailean protagonismoa agertu nahi dutela. Azken hau kexatu egiten da Donibane Lohizuneko UEU, hiru irakasletarik bat apeza omen zelako, *Jakinekoek* lehen lekua hartu nahi omen dutelako³⁰⁵.

Kritika horiek, ordea, ez zaizkio bidezkoak iruditzen. Apezkeria eta elizakeriaren kontra sobera denbora galdu gabe, “ideia ona ukan duena beltza edo gorria edo xuraila den so egin gabe”, euskararen alde elkarrekin lan egitea da beharrezkoen garai honetan misiolari-lanetan ari den Xiprirentzat. Honek ere, Xarritonek bezala, eliza barrutik kritikatzeko du, baina ez du onartzen besteek kanpotik eliza eta elizgizonak kritika ditzaten.

Artikuluen kronologiarekin segituz, euskal elizaz datorren azken artikulua Paulo Iztuetarena da, “Eleiz-gizonak” izenburua daramana (7, 1974, 3-12), erlijioaren soziologian erabili ohi den

azterbidea erabiliz egina. Hurbileko bizipenetik idatzia da. Erbestera Gogor taldean jasotako esperientzia nekarren eta geroztik apaiz solidarioen mugimendua aski hurbiletik segitu ahal izan nuen, lehenik Parisen Frantziako Échanges et Dialogues apaiz-taldekoekin eta geroago, 1969ko urrian, apaiz solidarioek Erroman egindako Batzar Nagusian parte hartuz, bertaratu ziren mundu zabaleko beste taldekide guztiekin batera. Eskuardean dokumentu beroak neuzkan, bada, *Zabalerako* lantxo hau prestatu nuenean. Hego Euskal Herriak hiru izan ginen han: Joseba Zamalloa, Andoni Lekuona eta hiruok. Iparraldean Échanges et Dialogues-ekoak bazirela uste dut, baina ez dakit Erromako Batzarrekoan inor izan zenetz. Euskaldunok osatzen genuen taldean bederen ez.

Artikuluaren muina lau zatitan banatua dator: eliz erakundearen egoera Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, Euskal Herriarena, euskal elizarena eta euskal eliza berri baten eskabidea.

Lehen zatian Erromako elizaren erakundea auzitan jartzen da, zehazki salatuz hark gizarte-egituren funtzionamenduan erakusten duen boterea ekonomia, politika eta ideologian. Hiru esparru hauetan indartsuak dira elizaren beso eragileak. Sistema kapitalistan zuzenean parte hartzen du, bere ondasunekin, politikan egiazko estatu politiko balitz bezala jokatzeko harreman diplomatikoen bidez, irakaskuntzan bere ikuspegi erlijiosoa ezartzen du. Laburtuz, “ezarritako ordena zapaltzailearen bortxakeria onartzen du herri menperatuaren gogortasun askatzailea kondenatzen duenean” (Iztueta, 7, 1974, 4). Eliz erakundearen alderdi soziologiko hau da, batez ere, Europan euskaldunek, espainolek, portugesez eta frantses-talde batek eta Hego Amerikakoek salatzen dutena.

Apaiz solidarioen beste talde batek, aldiz, elizaren erakundea baino gehiago haren funtzionamendu burokratikoa jartzen du kolokan eta, zentzu honetan, elizari demokrazia gehiago eskatzen dio, adibidez: gotzainak lekuko eliztarrek hautatuak izatea, apaizaren izaera klerikala desagitea, etab. Laburtuz, beste apaiz-eredu bat ezartzea eskatzen da: “apaiz ezkondua bere pastorgintza egiten bere apaizgintza utzi gabe, profesionalki lan egiten duen apaiza, politika arazoetan sarturik dagoen apaiza, eta abar” (Iztueta, 7, 1974, 4). Joera honetakoak dira Alemania, Holanda eta Belgikako apaiz konstatzaileak.

Eta azkenik, sozialismoaren aldeko aukera egiten dutenak ere badira. Hauen artean hierarkiako batzuk ere aurkitzen dira. Kezka

soziala agertzen dute, adibidez, Frantziako gotzainek Lourdes-en egindako Batzarrean, edota Hego Amerikakoek Medellin-en askapen-teologiaren inguruan egindakoan, Piarres Xarritonek jadanik aipatutako teologi joera horren barruan, hain zuzen.

Euskal Herriko egoera nola ikusten den? Galdera honi erantzuten zaio bigarren zatian, beharrezkoa baita euskal eliza zein tesuingurutan kokatzen den jakitea. Hiru ezaugarri nagusi aipatzen dira:

Bat: Euskal Herria aldatuz datorren herri bat dela ageri da, nekazal gizarte izatetik industri gizartea izatera pasatu dena, industrigintzak berarekin ekarritako ondorio guztiekin. Daturik garrantzitsuena, zera da: langile-klase berri bat sortu dela gurean eta berori bertakoek eta kanpotik etorritakoek osatzen dutela, bereziki, Bizkaia eta Gipuzkoan. Euskal langileriaz, hiru tesi ematen dira. Lehenengoak dio nekazal jatorriko langileria dela euskal langileria-aren interes bereziak eta xede komunak tratatzen dituenak; bigarrenak, berriz, kanpotik etorritako langileak direla Euskal Herriari oztoporik handienak ekartzen dizkietenak, batez ere, kulturaren aldetik, baina "integratu" egin behar direla euskal munduan; hirugarrenak, azkenik, euskal langileria-aren artean etsaigoa ezartzen duena, azken batean, Espainiako estatu zentralista eta asimilazionista dela. Gaur egun tesi hauek oraindik behar adina argitu gabe segitzen dute, euskal nortasunaren izaera hibridoa oso barneratua baitago.

Bi: Euskal Herria menperaturik dagoen herri bat da, nahiz dagozkion eskubide demokratikoen defentsan jadanik badituen Espainiako estatu zentralistaren kontra hiru gerra eginik. Euskal politikan, arazorik larrienak, biok ditugu: batetik, lurralde-batasunik eza, zatiturik segitzen baitu hiru administrazioetan, tartean estatu-muga ematen delarik, eta euskal kulturaren ofizialtasunik eza, bereziki irakaskuntzan. Egun, hezkuntza elebidunaren sailean zerbait egin bada ere, egiturazko arazoek lehengoan segitzen dute eta, lurralde-tasunari dagokionez, berriz, aldaketarik ez da eman.

Hiru: Euskal Herriak eginik du bere askatasunaren aldeko aukera. Ezker abertzalearen iraultza abiatua da bere ondorio guztiekin: erbesteratze masiboak, espetxeratzeak, hilak, kultur ekintza debekatuak, langile-greba debekatu eta zigortuak, etab. Bestalde, euskal iraultza honek tink finkatuak ditu bere azken xedeak: sozialismoa eta independentzia, biak batera eraman beharrekoak. Iraultza hori protagonizatzen duten gizarte-egileek arras barneraturik

daramate konbentzimendu sakon bat, eta da herriaren jabetasuna ez dela kanpotik inork emanda lortuko: “Euskal Herriaren arazoa gure arazoa da; ez gaituzte ez Madrilek, ez Parisek eta ez Erromak salbatuko” Eta berean, euskal elizari buruz ere, “guk behar ditugu antolatuta gure erakundeak, guk ikusi behar dugu nola zerbitza genezakeen hobekien eta zintzoen gure Herriko kristau elkarteak” (Iztueta, 7, 1974, 8).

Hirugarren zatian eliza Euskal Herrian zertan den deskribatzen da. Hemen ere badira bi puntu aipatzekoak.

Eliza hierarkikoaren eta botere politikoaren arteko batasunak oraindik ere indarrean segitzen duela, hori da lehena. Honen froga da, eliz erakundearen barruan gatazka espezifikoa sortu izan direnean, apaiz eta erlijioso espetxeratu eta desterratuek ez dutela izan esku laguntzailerik goi-agintarien aldetik. Bestalde, frankismo-garai osoan, euskal kultura ez da aintzakotzat hartua izan, ez seminarioetan eta komentuetan, ez eliz ikastetxeetan, ezta pastorgintzan ere. Nafarroan, herri askotan, apaizaren erruz galdu edo atzendu da euskara. Antzeko zerbait gertatu da Iparraldean ere. Halere, badirudi, euskal erlijiosoen Loiolan egiten duten Batzarrean agertzen denez, euskararen aldeko urrats batzuk hezurramitzen hasiak direla komunitate erlijiosoetan, kolakak herri-zerbitzuetarako presatuz, liturgian eta barne-argitalpenetan euskara sartuz, eta beste.

Kleroa sekularizatzen ari dela, dugu bigarren datu esanguratsua, agian gizarte-bizitza gehien baldintzatzen duena. Datuak? Bai, badira. Mikel Urkolak, Parisen zegoela, ahaztuegia den *Sekularrak apaiztu* liburua idazten du 1968an³⁰⁶. Urte berean, Derioko seminarioan hilabete batez barneratuta irauten duten Gogor-eko 60 apaizen protesta-ekintza ematen da. Euskal kleroaren barruan, ordea, jadanik 1960ko hamarkadatik hasita, bi jokabide garbiki nabarmentzen dira: bata 1936ko belaunaldikoek osatzen dutena da eta hauek izango dira, beste ekintzen artean, 1960ko gutuna kale-ratuko dutenak, 339 apaizek izenpetutako hura, zeinetan giza eskubideen aldeko eliza eskatzen baita, baina eliz erakundea bera auzitan jarri gabe; bestea horien ondoko belaunaldikoek –beren ekimen propioen bidez historia egiten 1960ko hamarkada-hasieran sartzen direnek, alegia–, osatzen dute eta hauek, nekazaritza zein industriako langile-munduan sartuta dabilzan gazte ekintzaileen konpromisodinamikaz gutxi-asko ukituak daudenez, elizaren arazoa printzipio teologikoetatik adina –edo gehiago–, ikuspuntu soziologikotik

aztertzen dute. Honela, Gogor-ekoek, beren planteamenduetan, euskal eliza berriari, lau ezaugarri hauek izatea eskatzen zioten: pobrea, libreza, eragilea eta bertakoa. Dena dela, protesta-ekintza kolektiboak gehienbat talde horren inguruan protagonizatu baziren ere, esan behar da giro horretako klero gaztearen esparrua dezente zabalagoa zela, batez ere, lehen aldian bederen, Bizkaia eta Gipuzkoan. Sekularizazioak, 1970az gero, apaizgintza uztea ekarriko du, garai honetatik aurrera ematen baitira gehienak, kasu pertsonalen arabera, arrazoi desberdinengatik.

Laugarren zatian, azkenik, nolako euskal eliza nahiko litzatekeen marrazten da. Noski, azken puntu hau aski pertsonala da, aski era eskematikoan egina, zeinetan ildo batzuk soilik markatzen baitira. Sei guztira, laburtuz gogoratzeak kalterik ez lekarkiguketena. Hona hemen nola irudikatzen genuen etorkizuneko euskal eliza berria: a) indar bizi eta aurreratzaileekin batera jokatu duena; b) zientzi ekarpenek argitua; c) erakunde politikoen lekua bete gabe, bere erakunde-barrutik kristau lekukotza emango duena; d) injustiziazko egoerak salatuko dituen, horien gainean karitatezko lanak egiten ibili gabe; e) bertakoa izango dena, lekuan lekukoa eta, gure kasuan, Euskal Herrikoa, ez Espainiakoa edo Frantziakoa; f) pobretasunean oinarritua, herri-kulturaren txertatua eta herrigintzan beste gizarte-indarrek batera parte hartuko duena.

Euskal kleroko sektore batek horrelaxe ikusten zuen, genuen, orduan euskal eliza berria. Horixe zen une hartan Euskal Herriko elizaz egiten genuen azterketa, une hartako datu eta gertakarien gerizpean. Ohar solte batzuk baizik ez ziren, noski, baina balio izan zidaten gero doktore-tesi baten inguruan birmamitu eta garatzeko. Ikerketa honen emaitza landuagoak *Sociologia del fenómeno contestatario del clero vasco: 1940-1975* itzulpenean argitaratu ziren, handik zazpi urtera³⁰⁷.

Gaurko Euskal Herriko elizara etorrita, ikustekoa izango litzateke ordutik hona zer-nolako eboluzioa eman den, parrokiak, komentuak, ikastetxe katolikoak, etab. barrutik aztertuz. Urrepushketa baten balioa luke horrelako azterketa soziologiko batek. Berrikitan Mathieu Elgoyenek ikerketa-lan bikain bat egina du Ipar Euskal Herriko elizaz *Le clergé du diocèse de Bayonne face à la question basque 1964-1998* liburuan³⁰⁸. Guk Hegoalderako eginda-koaren kontrapuntua da, hain zuzen. Bata bestearen erreferentzian irakurtzekoa.

Hor bukatzen dira *Zabaleko* euskal elizari buruzko lanak. Baina azken aurreko zenbakian “Euskaldunen apezten ageria” (18, 1976, 61-64) argitaratzen da, Gasteizko hilketak eta zaurituak direla-eta, Iruñea-Tutera, Donostia, Gasteiz eta Bilboko apaiz-talde ugari batek 1976ko martxoan izenpetzen duena. Dokumentu historiko garrantzitsua da, GALen hasikinak Fraga Iribarne-ren polizi ekintza basa haietan ernamuindu baitziren.

XIV

Emaztekien borroka

Azkenaldiotan oso sarturik badago ere generoari buruzko azterketa diskurtso akademikoan, duela 40 urte ez zen horrela. Frantzia, emaztekien lehen mugimenduak 1968ko Maiatzaren ondotik hasi ziren, bereziki unibertsitate-giroan. Orduan ikusi genituen, geure begiz ikusi, talde autonomo gisa antolatzen, beren zapalkuntza espezifikoz gogoetak formulatzen eta beren eskabideak aurrera eramateko plataforma egokiak asmatzen. Horrela eratzen dira emaztekien lehen taldeak han eta hemen, aniztasunaren marka nabariarekin. Parisen MLF (Mouvement de Libération Féminine) delakoa indartzen da gehien gizarte-mugimendu gisa. Emaztekiek beren arazo espezifikoez egindako lehen gogoetak *Partisans* aldizkarian agertu ziren 1970an³⁰⁹, gai monografiko gisa, eta handik bi urtera, 1972an, liburu gisa berrargitaratua izan zen *Liberation des femmes année zero* izenarekin³¹⁰.

Beren zapalkuntza espezifikoen kontra borrokatzeko taldeetan biltzen diren emazteki hauen jatorria eta egoera ez dira berdinak. Batzuk politikagintzatik datozenak dira, beste batzuk ez. Denetarik daude talde hauetan: ama ezkonduak, ama ezkongabeak, homosexualak, lesbianak, transexualak. Orobat, ez dituzte guztiak modu berean ikusten beren arazoak. Batzuk marxistak dira, besteak ez. Halere, esan beharra dago guztiak dutela beren zapalkuntza espezifikoari buruzko kontzientzia garbia eta, desberdintasunak desberdintasun, badituztela zenbait puntu batera: a) beren arazoaren ezpezifikotasunari eustea, beste batzuekin ez nahasteko; b) alderdi politikoen aurrean autonomia izatea; c) erakunderik ez sortzea, hortik hierarkiarik eta burokraziarik erator ez dadin; d) emaztekien borroka, zapalkuntza jakin baten kontrako borroka den aldetik, funtsean

politikoa dela baieztatzea, auzitan jartzen dena gizarte patriarkala baita, izan dadila berori kapitalista nahiz sozialista nahiz bestelakoa.

Frantziako testuinguru horretan kokatu behar da *Zabalek* lehen zenbakian bertan irekitzen duen atal berezia, ondoko zenbakietan segida emankorra izango duena. Guztira, generoari buruzko bederatziko artikulua argitaratzen dira euskal emaztekiek eginak.

Zabaleko generoari buruzko ekarpenak, gai- eta trataera-moten aldetik begiratuta, hiru sailotan multzokatuko genituzke: gogoetak, euskal emazte taldearen antolaketa eta zenbait emazteri egindako elkarrizketak.

1. Gogoeta-saioak

Bidea irekitzen duena eta ekarpenik dokumentatuenak egiten dituenak –diogunaz jabetzeko testuak irakurri besterik ez dago–, Kattalin Idiartek egindakoak dira, ikasketaz kimikaria eta bizibidez matematika-irakaslea Hazparneko Eskola Teknikoan.

Bere lehen artikuluan³¹¹ abortuaren gaia aztertzen du –nahita egindako abortuarena, alegia–, berak “hilortzea” deitzen diona. Zailtarik ez da garrantzi handiko egitate soziologikoa jartzen duela mahai gainean, zeren Frantzian urtean zehar, estatistikak bat ez badatoz ere, kasik jaiotzak adina abortu ematen baita. Egileak, batez bestekoa eginez, 700.000ko kopurua kalkulatzen du. Ezkutuko mundu hau legez kanpo mugitzen dela jakiteak, noski, egiazko arazoari, ez zuzenean aurpegi emanez, baizik ihes eginez erantzuten diola suposatzen du. Abortatzeko askatasunaren alde zein kontra dauden arazoiak azaltzen dira lan honetan, azkenekoen kasuan zein erakunde aurkitzen diren zehaztuz. Legeriak abortuaz dakarrena ere luze aztertzen da: lehenik, legeak zertan diren munduan; bigarrenik, Frantzian zertan diren legeak eta zein diren haren helburuak; hirugarrenik, legeak zer-nolakoa izan beharko lukeen. Dena dela, oraingo legeriak emaztea zapalduz segitzen badu ere, badirudi, abortuaren arazoa dela-eta, jendearen nahiak eta ikuspegiak aldatuz doazela.

Eta halaxe gertatuko da. Arazoaren larriak eta egoera gatazka-tsua berak beren eragina izango dute lege-aldaketan. Horregatik, abortuaren gai honek berak bere jarraipen erdi-behartua izango du

Zabaleko beste artikulu batean, zeina euskal emazteen talde batek izenpetzen baitu³¹². Artikulua maila kolektiboan egina bada ere, baliteke horren egilea, idazkerak berak eta gaiak salatzen dutenez, Kattalin Idiart bera izatea. Oraingo honetan, 1. zenbakian hasitako gaiarekin jarraituz, 1974ko legeak abortuari buruz dakarrena aztertzen du. Hauxe da, bere hitzekin esateko, gutxi-gorabehera onartua izan dena:

“– Hilortzea onartuko da, baldin emazteak eskatzen badu lehenbiziko 10 asteren barruan. Herri Segurantzak edo Sécurité Sociale delako erakundeak ez du ordainduko eta Diruzaindegiko ministerioak erabakiko du prezioa.

– Hamar astetarik goiti, hilortzea haizu izanen da amaren edo haurraren bizia arriskuan baldin bada. Bi medikuk eman beharko dute hortarako baimena: Ospitaleko batek eta ‘Cour d’Appel’ edo ‘Cour de Cassation’ deitu auzitegiko esperta batek. Kasu horretan sendagintzazko egiteko bat izanen da eta Herri Segurantzak ordainduko du” (11, 1975, 53).

Abortua mediku batek baizik ez dezake egin, klinika edo ospitalean. Bestalde, 18 urte ez dituzten neskek beren aita, ama edo horien ordezkoi baten baimena beharko dute. Atzerritarrek, Frantziako estatuan bizi ez badira, ezingo dute abortatzeko eskubiderik lortu. Abortuaren aldeko edozein propaganda bi hilabetetik bi urte arterainoko presondegiak zigortua izanen da. Hona hemen kolektibo honi zer iritzi merezi dion lege honek:

“Erran gabe doa, aitzinamendu edo aurrerapen bat dela lehenengo legearen ondoan. Dударik ez da, frantses agintariak horretara behartuak izan direla, emazte olde edo talde batzuk eraman duten borrokarengatik. Iruditzen zaigu ordea, trabarik gehienak ez dituela halere baztertu, bereziki klase zapalduentzat. Zeren Herri Segurantzak ez du hilortzerik ordaintzen, eta gisa horretan, hilotu nahi duen emazteak, ageri den bezala, urrats anitz ibili behar du, eta harat-hunat hauek ez dira beti errazak, giro kulturalaren edo psikologiarengatik” (11, 1975, 54).

Euskal emazteen talde honek zer pentsatzen duen eta zergatik elkartu diren dator, azkenik:

“Kapitalismoaren kontra eta euskal langileen zapalkuntzaren kontra borrokatu nahi dugun bezala, gizonak gizonentzat altxatu

nahi dituzten egituren kontra borrokatuko gara. Horretarako erabaki dugu emazteen artean lan egitea eta denok elkarrekin, ados gure emaztetasunaren edo feminismoaren lantzeko eta euskal gizarteari falta zaion emazte-ikuspegiaren emateko, ikusiz gizonak, atzerakoi ala iraultzaile, gutaz baliatzen direla. Holako lan bat, segur gara, aurrerapen bat dela burges hezkuntzaren kontra, kapitalismoa sostengatzen duen hezkundearen kontra” (11, 1975, 56).

Kolektibo hau ados dator MLAC (Mouvement pour la Libération de l'Avortement et de la Contraception) mugimenduak eskatzen dituen oinarritzko puntuekin: lehenik, abortua askatasunez eta dohainik eginga izan dadila, eta bigarrenik, ernalkuntza eragozteko bideak ongi ezagutaraziak izan daitezela.

Kattalin Idiartek, bere bigarren artikuluan³¹³, emakumearen lan-egoera aztertzen du, hemen ere soilki Frantziako datuetara mugatuz. Sostengatzen duen tesia da gure gizarteak ez duela onartzen emakumea ez Euskal Herrian eta ez mundu zabalean. Emakumeak oraindik XX. mendean neskame izanez segitzen du, lan-mundutik apartatuta bizi da, ama izatera eta bere etxean sartuta bizitzera kondenatua dago. Txiki-txikitatik hasita, mutikoari eta neskatoari ematen zaien hezkuntza ere desberdindua da: “neskentzat panpinak eta hauen artatzeko behar diren guziak, mutikoentzat tarrantak, burdin bideak, armak” (Idiart, 2, 1973, 34). Honek ondorioz dakarrena da emakumezkoak diskriminatuak izango direla gizarteko bizitzan, edo lan-munduan sarbiderik ez dutelako, edota dutenei gizonen pareko trataera ematen ez zaielako. Honela, azken hogeitau urte hauetan (1953-73) etxetik kanpora lanean ari diren emazteen kopurua handituz badoa ere Frantzian, INSEE³¹⁴ dakartzan 1969ko zifren arabera, lan-adinean dauden 15-64 urte-bitarteko 15.905.000 emakumetatik 7.566.100 dira lanean dihardutenak: hots, % 47,5. Erdiak baino gehiago dira, beraz, lan-munduan sarbiderik ez dutenak, eta duten gehienek, bestalde, behe-mailako lanetan dihardute. Baina diskriminazioa ez da hor bukatzen, zeren, lanean dihardutenean artean, lan-mota beragatik, desberdinki ordainduak baitira gizonezkoak eta emakumezkoak, hasi goi-mailako buruzagietatik eta beheeneko langileetaraino. Hileko soldaten batezbestekoa orotara hartuta, gizonezkoek 1.866 franko jasotzen dituzten bitartean, emakumezkoek 1.243 baizik ez, hots, 626 gutxiago. Soldata txiki gehienak emazteenak dira. SMIC delakoa ukitzen dutenen artean,

orobat, % 80 emazteak dira. Zifra horietatik ateratzen duen ondorioa da, emazteak, klase-alderditik begiratuta ere, zapalduak direla eta injustiziazko egoera hori Frantzian ez ezik, herrialde aurreratu guztietan ere ematen dela, kapitalistetan bezala sozialistetan. Zein diren egoera honen errudun? Hasteko, politika-gizonak eta nagusiak, hauek bereziki. Baina ez horiek bakarrik. Azken batean, gizon guztiak ere “hobendun” dira, zeren askok ez baitute onartzen “emazteen lana beharrezkoa ez bada diruaren aldetik”, eta hobendun dira emazteak ere, hauetako askok “gizonen pentsatzeko manera onartzen” baitute (Idiart, 2, 1973, 40). Egoera honi buelta emateko, ez da geratzen emazteek beraiek beren iraultza egitea besterik eta egitea, gainera, gizonen kontra borrokatuz:

“Horretarako gizonekin eztabaidak izango dira baina eztabaida eta borroka onartu behar du emazteak bere burua askatu nahi badu. Munduko aitzinamendu guztiak horrela egin dira. Lanaren dretxo eskatuz eta erdietsiz gizonekin dituzten harremanak osoki aldatuko dira eta gure gizartea askatuko” (Idiart, 2, 1973, 40).

Hemen garbi ageri da, emazteek beren askatasunerako dararmaten borroka honetan, beren egiteko hau zerbait espezifiko dela, klasetasunarekin eta herritasunarekin zerikusia baduela, baina ez dela ez bataren ez bestearen esanekoa. Euskal emazteen talde honek bere planteamenduetan ezin garbiago erakusten du beren kausak, zuzenean generoari dagokionak, izaera berezia duela eta, ondorioz, haren aldeko borrokan autonomia osoz jokatu behar dela. Aitzindariak ditugu euskal gizartean.

2. Euskal emaztekien talde-funtzionamendua

Zabal martxan jarri eta urtebetera, 1974an, Kattalin Idiartek³¹⁵ euskal emazte batzuek talde bat osatzen dutela jakinarazten du. Nolabaiteko emazte-antolaketa baten aurrean gaude, beraz. Urrats bat, zalantzarik gabe. *Zabaleko* orrialdeetan beren iritziak agertu ere, maila kolektiboan agertzen dituzte. Euskal emazteki hauek zergatik elkarretaratzen diren? Elkartasun baten beharrak eraginda:

“Ez da emazterik edo arras gutxi dira talde politikoetan edo kultura batasunetan, Seaska-tik kanpo. Batasun honetan, emazteak

dira gehienik, baina badakigu zertako. Seaska-ren helburua ikastolak dira eta badakigu gure 'naturelezak' arras ongi preparatzen gaituela haurren hezibideari. Holako batasunetan gizonek errazki uzten gaituzte, bederen pe-mailako karguetan, baina zenbat emazte dira zuzendaritzan? Ze galdera... Ez gara horretarako eginak... Beraz gaurko Euskal-Herriko erakunde edo taldearik ez dugu deus igurikatzerik ez dugulakoan ez lekurik ez leku hartzerik, memento honetan bederen ez dugu hemen erranen zertako (...) Multzo ttipi batek sentitzen zuen beharra hedatu da multzo handiago bati eta denak ados gara erraiteko, oso diferenteak izanik ere, elkarretaratu behar dugula, elkartasun iraunkor bat finkatu eta indar berri bat sortu” (Idiart, 8, 1974, 13).

Kolektibo honek, jasotako hezkuntzaren kontra altxatuz, beren nortasuna agertu nahi du, gizartean dagokion lekua hartu, behar izanez gero, gizonen kontra ere borrokatuz, botererik gehien beroriek baitute. Izan ere, nola lortuko dute herri-askatasuna, baldin herritar erdiek beren etorkizunaz deus esatekorik ez badute? Azkenik, taldearen egitekoak aipatzen dira modu eskematiko batez: biltzarrak egiten segitzea, elkarri laguntzea –bereziki, lana bilatuz besteentzat–, emazteen borrokari buruzko liburuak elkarren artean gurutzatzea, libururen bat edo beste euskaratzea, Euskal Herriko historian emaztearen lekua zein izan den ikertzea, artikulua taldean edo bakarka idaztea, Euskal unibertsitatean emazte-arazoaren gaia sartzea, Hegoaldeko emazteekin harremanetan jartzea. Eta abar.

Asmo luzeak benetan. Baina hau guztia egitarau bat osatzeko gai-zerrenda bat besterik ez da. Landugabea. Ez dakigu asmo horietatik zenbat bete ziren. Artikulu batzuk bederen idatzi zituzten *Zabal*en bertan. Lan hori hor geratu da euskal kulturaren oroitzapen-orrrian zizelatua. Orduan zerbait berria zena. Beraz, historikoa.

Baionako emazte-talde horretan elkartzen direnak nor diren, beste artikulua batean zerbait gehiago zehazten da. Talde horretan Iparraldeko eta Hegoaldeko emazteak kausitzen dira, talde politiko bateko militante direnak edo izandakoak. Berrero, sinadura kolektiboa erabiliz³¹⁶, talde horretako emazteki batzuen lekukotza pertsonalak eskaintzen dituzte, aditzera emanez, betiere Euskal Herriaren askatasunari buruz eta sozialismoaren barruan, nola elkarrekin lotzen diren herriaren askatasuna, klaseen eta emazteen borroka. Mutil “aterbetuen” neskekiko portaerak ez dira batere eredugarriak agertzen lekukoek egiten dituzten deskribapen horietan. Zinez!

Baionako taldea osatu eta gero, HASek³¹⁷ izenpetuta, 9. zenbakian Britainiako emazteen berri ematen da. Hara kantu-jaialdi batera kantatzera joan eta, ez dakigu nork³¹⁸ solasaldi bat izan omen zuen bretoi emakume batzuekin eta hauek esan zioten nola bertako emakume batzuk elkartzen hasiak ziren. Beren egoerari buruz prestatua zuten txosten bat eman zioten eta euskal kantari horrek, *Zabaleko* irakurleen informaziorako, euskaratuta argitaratzen du bertan. Txosten horretan, bretoi-emakumeen egoera deskribatzen duten erreferente hauek aurkitzen dira: zapalkuntza soziokulturala, konplexu psikologikoen sorrera eta ondorioak, gain-zapalkuntza ekonomikoa.

3. Emazteekin elkarrizketak

Sail honetan hiru elkarrizketa aurkitzen dira, horietako bi emazte-kolektiboak izenpetuta datozenak. Lehenengoan³¹⁹, Euskal Emazte Taldeko batek (EET) 25 urteko Marie-Thérèse Lannuzel margolaria elkarrizketatzen du. Arrazoa arras sinplea da. Emakume honek egin berria baitzuen bere pintura-erakustaldia Zabal liburutegian 1975eko otsailaren 8tik 15era bitartean, kontuan izanda musikan edo pinturan ari diren emakumeak gutxi direla, Taldekoei parada egokia iruditu zitzaien haren lana ezagutzera emateko. Ikasten dugu jatorriz bretoia dela, nahiz txiki-txikitatik Ipar Euskal Herrian bizi den, irakasleak Cazama (jadanik zendua) eta Paul Rambié izan zituela, haren koadroetan gehienik emazteak agertzen direla. Eta abar.

Ezagunak dira flandestarren eta euskaldunen arteko harremanak. Flandestarrek beti agertu izan dute ezker abertzaleen aldeko atxikimendua. ETAko erbesteratuak Ipar Euskal Herritik ohilduak izan zirenean, 1974an, batzuek gose-greba eginez agertu zuten beren solidaritatea; hurrengo urtean Gernikan Aberri-Eguna ospatu zenean, han izan ziren bi diputatu Euskal Herriaren askatasuna oihukatzen; Iparraldeko ikastola bati ere laguntza eman zioten. Beharbada guk, euskaldunok, ez dugu hainbeste egin flandestarren alde. Haien alde gutxi ala asko egin, kontua da, kasu honetan, Volksunie flandestar alderdi politikoak deituta, euskal kantari eta hizlari batzuek haien urteroko Batzarrean parte hartu eta hango jendearekin

harremanetan jartzeko aukera izan zutela. Bigarren elkarrizketatua, hau ere EETko batek eginda, Nelly Maes emazte diputatua da. Alderdi berean, bi emazteki omen dira diputatu-aulkiak betetzen dituztenak. Hemen ere gauza berriak ikasten ditugu: emakume diputatu-gaiak beren boto gehienak emakumeengandik jasotzen dituztela, han ere emazteen arteko batasuna sortzen ari dela, “Parti Féministe Unifié” delakoan flandestar emakume asko aurkitzen direla, oraindik flandestar emakumeen alderdirik ez dela, etab. Baina elkarrizketaren zatirik gehienak Flandriako egoera politiko eta kulturalaz dihardu.

Hirugarrengoan Eva Forest katalanaren aurkezpena egiten du izen-abizenik ematen ez duen emazte batek³²⁰. Emakume ezaguna da bera euskal politikan, bereziki ezkerrekoan: idazlea, psikiatra, Sastrearen emaztea, Carrero Blanco eta Madrilgo Puerta del Sol-eko atentatuengatik akusatu eta espetxeratua izan zena. Haren etxean zer-nolako giro intelektuala dagoen, seme-alabak nolako askatasunean hezi izan dituzten, bizitzan zehar zenbat esperientzi mota desberdin jaso izan duen, hainbat pasarte biografiko irakur daiteke hari buruzko lerro bitan.

4. Ondorioak

Euskal kultura landuan lehen aldiz sartzen dela uste dut emazteen askatasunaren gainean egindako gogoeta kolektiboa. Areago oraindik: aldizkariko partaideak dira zuzenean parte hartzen dutenak eginkizun honetan. Abagune historikoak hala nahi izanda, Jean-Louis Davantek³²¹ gogorarazten duen bezala, “emaztekoa da *Zabalen* zuzendari lehena”, Kattalin Idiart bere koinata, hain zuzen. Lankideen zerrendan aurkitzen da, halaber, Maite Idirin ere.

Zabalekoek nola ikusten duten euskal emazteki hauen jokabidea? Berririo Jean-Louis Davantek du hitza, gutxi-asko beste lankideek ere ontzat emango zutena:

“Emazteak bizi publiko guztitik bazter atxikitzen dituen Euskal-Herrian, zerbait erran nahi dute naski hautu horiek: lagun hauen idazkietan ere agertzen da ezaugarri hori.

Ezin da gehiago emazteekin jarraitu koloniekkin egin dena. Ezin dira gehiago sukalde xokoan edo lantegi zokoan gorde. Guztien

kaltetan litekeela, zentzu on izpi batek erakutsi behar liguke (...) Arren, gure alorretik hasteko, erran beharra dago: Euskaldunen erdiak baino gehiago Euskalduntsak direla eta horien beharra badutela gure kulturak, gure politikak, gur herriak. Askatasun ahula eta sozialismoa pobrea, Euskadiren parte handiena bazter utz lezakeena. Beraz garrantzia handia ikusten diogu, Euskadin, emazteen mugimenduari, guztiz abertzalea eta sozialista delarik. Gure iritziz, euskal ezkerrean, eta honen zuzendaritzan, beregain-tasun osoarekin parte hartzeko eskubidea zor zaio” (Davant, 13, 1974, 4).

Zalantzarik ez da *Zabalek* ikerketa-ildo berri bat irekitzen due-la feminismoaren gaiarekin eta hori bertako taldekideen giro seku-larizatuan bakarrik gertatu zela bideragarri.

XV

Kezka ekologikoa

Zabalek belarriak erne dauzka, sentipenak minberakor, ez bere ingurunean bakarrik, beste lekuetan sortzen ari diren gizartemugimendu berriak jaso, aztertu, hedatu eta, ahal den neurrian, horiekin guztiekin, besterik ezean maila intelektualean, solidaritatezko adostasun-zeinuak adierazteko. Generoaren arazoa osoki bereganatzen duen bezala, kar berarekin beretzen ditu errebindikazio ekologikoen aldeko oihartzunak oro, etxeokak bezala mundu zabalekoak, hauek arrazoituak diren kasu guztietan.

Azaletik ukitzen dela ekologiaren arazoa? Agian, bai, baina berdin da. Sail honetan euskaratuak jatorrizkoak baino gehiago direla? Bai. Garrantzitsuena, zera da: borroka ekologikoa lehertu zen une eta leku hartantxe, haren mezua jaso behar zen garai hartantxe, *Zabalek* bere lekukotasuna agertu zuela. Eskuaratean zeukanarekin. Gai honen inguruan, itzulpen-lanak barne, 9 artikulua eman zituen argitara.

1. Larzac

Gexan Alfarok³²² lerro batzuk eskaintzeko ditu Larzac-eko arazoaren funtsa ulertzeko. Lur-eremu hori Aveyron-en aurkitzen da. Okzitania 31 departamentuk osatzen dute eta horietako bat da, gehienak abelazkuntzatik bizi direnak.

Nahiz eta hemen lehertzen den arazoak, agian zerikusi zuzenagoa dukeen lan-arazoarekin ekologiarekin baino, azken batean lurrraren militaritza baita jokoan dagoena, ez bakarrik laborariei lurra kentzea, azken sail honetan kokatu dugu Larzac-eko arazoa.

Kontua da frantses armada han lekutua dela 1902az geroztik, soldaduek beren entrenamendu militarrek bertan egin ditzaten, eta horiez landa, aleman eta ingeles soldaduak handik gaindi ibiltzen direla. Hasieratik lau mila hektarea lur zituen beretuak. Geroztik, jadanik 1956. urtetik hasita, Armadako ministerioak beste hamazazpi mila gehiago lortu nahi zituen, lehengo kanpamenduaren azalera handitzeko xedearekin.

Baina 1902an ez bezala, oraingoan lekuko laborariak, artzainak eta Roquefort-eko gazta-enpresa borrokan jaikitzen dira gobernu-aginduaren aurka eta gobernuak zailtasunak ditu bere asmoak aurrera eramateko. Herri-mugimendu antolatutak bideratzen hasten dira 1971. urtetik aurrera, berorietan parte hartzen dutelarik, lekuko politikariak, elizgizonak, intelektualak, etab. Laborariek, beren traktoreak hartuta, Parisen azaltzen dira. Eta obrak mintzo, justu armadak beretu nahiko lituzkeen lurretan, 1.600 ardirentzako artegi bat eraikitzeko lehen harria finkatzen da.

Parisko kolonialismoaren kontra gudukatzeko asmoarekin, 1973ko abuztuan Millau hirian elkartzeko deia zabaldu zuten okzitaniarrek eta han izan ziren euskaldunak ere, haien antzera, hauek ere beren lurraren defentsan baitihardute borrokan. Honen lekukotza jasotzen da Gexanen artikulua honetan.

Jauregi delakoak³²³, bere aldetik, hurrengo urtean, 1974an, lurralde hartan bertan egindako ekitaldien kronika egiten du, bereziki Wostoko kantaldiaren arrakasta itzela goraiatuz. Mundu bat bertaratu omen zen, eta klase guztietakoa: “goxixtak, anarkistak, hipiak, ameslariak, pazifistak, ‘objecteurs de conscience’, utopistak, anti-militaristak”, etab. Han agertu omen ziren Mitterrand eta Rocard sozialistak ere, han Afrikako talde iraultzaileetako ordezkariak ere. Azken balorazio bat egiten du, esatean “laborarien borroka eta langileen borroka bat bera eta elkarrekin eramatekoa” eta “herri zapaldu bateko laborarien klase problema” zela.

Denak aritu omen ziren inperialismoaren kontra oihuka. Klasearteko borrokaren marka nahikoa garbi agertzen da hango ekinaldiez egiten den kronika honetan, baina okzitaniar naziotasunaren arazorik ez da planteatzen. Honi buruzko aipurik bederen ez da agertzen artikulua honetan. Eta Larzac-eko borrokak, nahiz eta euskal laborariak haiekin solidario agertu, ez zuen nazio-borroka markarik eraman indarrean egon zen ezein unetan. Irudipen hori daukagu. Ziur aski laborariek eta langileek bat egingo zuten, orobat

lurralde desberdinetako nazionalistarik ere izanen zen bertan, baina ez dugu uste azken maila honetako solidaritate-mezurik zabaldu zenik.

2. Iparraldeko ehiza-lekuak

Eta Okzitaniatik gatozen Zuberoako bortuetara, hemen ez frantses militarren arma-hotsak, baizik eta ehiztarien eskopeta-tiroak izango baitira estakuru. “Arno Heguiaphalek”³²⁴ bere artikuluan kontatzen duen bezala, kanpoko ihiztari aberatsak, Bordelekoak-eta, ari dira emeki-emeki Iratiko eta Basaburuko lurrez jabetzen, horko gunek zikintzen. Datu hau dakar zubereraz emana: “gizon batek errana dait berak ikusirik, ‘chalet’ baten pian, üda huntan kabana egiten ari zirelarik, 150 ‘Champagne’ botilla phürü: heiatarik, 30 gësürrik betiak ziren, batere hasteko”.

3. Hegoaldeko gune nuklearren asmoa

Euskal Herriko arazoak aztertzen diren sailean, *Zabaleko* 10. zenbakian, zentral nuklearrei buruzko Gexan Alfaroren artikulua³²⁵ irakurtzen da. Teknikari kualifikatuak zentral nuklearrek dituzten arriskuen gainean hitz egiten hasten diren unean, orduantxe, hain zuzen, Hego Euskal Herrian bost gune nuklear egiteko plangintzak kaleratzen dira. Non eraikitzea pentsatuko-eta, lekurik jendeztatue-
nean: Lemoizen, Deban, Ipazteren, Tuteran ondoan eta Arabako mu-
gan.

Herri aurreratuetan hazkunde ekonomikoa petrolioaren gainean eraikia baita, horren hornitzaile nagusiak arabiar herriak izaki, hauen atzaparretatik askatzeko, iparramerikarrek eta europar estatu batzuek zentral nuklearretan ikusten dute elektrika-indarra sortzeko sistema egokia. Eta euskal lurraldean gune nuklearrak ezartzearen aldeko arrazoiak bakarrik ematen dira: ekonomikoak (errentagarritasuna), ekologikoak (garbitasuna), politikoak (autohornikuntza), etab. Kontrako arrazoirik batere ez. Politikariek ezein arriskurik ez bide dute ez ikusten ez aipatzen, horiek oro azken orduko teknologia aurreikusiak baititu eta, beraz, alde aurretik ziurtatuak bai-

tauzka. Artikulugileak dakarrenez, ordea, gune nuklearren aldeko politikak baditu bi huts berekin:

“Lehena, oraingo arabe herrien aztaparra bezain gaixtoa izanen baita bihar ipar Amerikarren zama, alabaina nuklear sailean, hura baita nagusi. Bigarrena: oraingo nuklear zentralak elektrika indarraren sortzeko baliatzen duten teknika, fikziozko erreaktoreena, pozoï iturri bat baita, argindarrarekin batera sortzen dituen beste ekai batzuen erradioeragin, erradiobizi, irradiantza edo erradioaktibitatearengatik” (10, 1974, 9).

Bi huts horiez gain, zentral nuklear batek baditu beste arazo asko ere: beroriek aurkitzen diren eskualdeetan hilkortasuna ugaltzen dela, hondakin nuklearrak gordetzeko arazoak daudela. Bestalde, esaten da, indar-iturri berriak sortzeko badirela bide alternatiiboak, askoz merkeagoak, gainera. Hauek dira artikuluan datozenak: hots, “eguzkipilak”, “hidrogenoaren parabisua” eta “lurpeko urberoa”. Indar-iturri eskasirik ez da, beraz.

Euskal Herrian gune nuklearrak eraikitzeak dakartzan arriskuez mintzatu zirenen artean, Arantzadi eta AEROMA elkartekoen arrazoi kritikoak entzun ziren komunikabideetan. Arantzadi elkartekoen ahotsa jasotzen du Jokin Apalategik *Zabaleko* 14. zenbakian³²⁶, zeinetan J. eta J. egileei egindako elkarrizketa batean esandakoak euskaratuta ematen baitira. Debako nuleartegiaren aurka zergatik jaiki ziren arrazoitzen dute bertan.

Zentral nuklearren arazoa orokorrean hartuta, Jokin Apalategik euskaratutako bi artikuluko datoz *Zabaleko* 14. zenbakian: bata Robert Franc-ena³²⁷, honek 1975eko urtarrilaren 20ko *Le Point* astekearian argitaratu zuena, eta bestea Denis Jemnar frantses jakintsuari erredioaktibitateaz egindako elkarrizketa dakarrena³²⁸, hau ere data bereko astekearian argitaratua. Artikulu hauetan informazio biziki baliagarria biltzen da, zehatza, anitza eta puntuala, gai nuklearretan espezialista direnek azalduta. Zentzu honetan, batez ere arazo nuklearra etxeratua geneukan une larri hartan, horrelako informazio argigarria euskaraz emateak bazuen bere balioa. Informazio honetan oinarrituta zutitu ahal izan ziren ondoko herri-mugimendu ekologistak, garai hartan gehienbat zentral nuklearren kontra zuzenduta zeudenak.

XVI

Euskara landuaren jorrocketan batuaren bidetik

Zabalen 13 titulu dira euskararen inguruan egindakoak. Gehienek haren normalizazioa alderdi linguistikotik aztertzen dute eta hemen, bereziki, hiztegiaren aldetik. Batek bakarrik ukitzen du haren *status*-alderdia.

1. *Zabalen* kezka nagusia, idatzizko euskara batuaren bidetik abiatuz, hizkuntz normalizazioa *corpus*-aren alderditik lantzea da: hots, grafia eta hiztegia bateratzea. Zentzu honetan, ia guztiak dira xede praktikoko hutsa dutenak: hots, testuaren edukia ahalik eta ulergarriren egitea irakurle guztientzat, Hegoaldekoentzat bezala Iparraldekoentzat ere. Sorreratik halaxe nahi izanda, *Zabalek* idatzizko literatur tradizio desberdinetatik gentozen alde bietako idazleak eta irakurleak elkartzen zituen halako kultur eta hizkuntz topaketa edo *carrefour* bitxi bezain aberasgarri batean, euskal kulturaren historian lehen aldiz elkartzen ere, hain era organiko batean bederen. Ordura arteko aldizkari-argitalpenetan, alde bietako idazleen lankidetzak eman badira ere, gurutzaketa horiek oso noizbehinkakoak izan dira eta, gainera, oso urriak. Tradizio horietako bakoitza, bada, bere ibilbide berezia eginez etorri da mendez mendeko eta euskara batuaren arazoa planteatzen denean, guztiz nabarmen geratuko da bien arteko desberdintasunak ez direla soilki *h* kontura mugatzen. Denborarekin, Hegoaldean euskara batua gipuzkera soin-berrituan gorpuzten hasiko den bezala, Iparraldean nafar-lapurteraren ingurumari bilduko dira idazleak; han Koldo Mitxelena eta hemen Pierre Lafitteren eraginez³²⁹. Alde horretatik begiratuta, *Zabal* aldizkaria laborategi interesgarri bilakatzen da euskara batuaren zailtasunak praxian esperimentatu ahal izateko.

Euskara batuak jadanik bere bidea hasia duen ahalegin kolektibo horretan kokatu behar da *Zabalen* prosa akademikoa. Eta lite-

ratura zientifikoan agintzen duen irizpidea zehaztasunarena denez, egitekorik premiazkoena testua ahalik eta argien eta, aldi berean, ulergarrien egitera jotzea da. Xede hau zein neurritan lortzen den, honetan egongo da arrakastaren neurria. Zehaztasun eta ulergarritasunaren baldintzak betetzen dituen prosa burutzea ordea, batez ere euskararen kasuan bezala horrelako tradizio sendorik egon ez denean, ez da hain erraza. Baina erabat hutsetik ere ez da abiatzen, aurretik *Euzko-Gogoa* eta *Jakin* aldizkariak alor bertsuan goldaketan ibiliak dira-eta. Noski, bakoitza bere bidetik eta irizpide desberdinekin.

Jakin bagenekien euskara akademikoa egiten eta bateratzen saiatu behar genuela, erantzukizunik bagenuela horretan. Baina nola jokatu behar genuen ez geneukan batere argi. Eta egia osoa esateko, aldizkariaren baitan argitzeko ere ez zen talderik antolatu, edo lankide baten egitekoa zela pentsatu izan zelako, edo talde-lanerako inork bizkarrik arrimatu ez zuelako, agian. Ez dakigu zergatik. Nolanahi ere, ordurako, batik bat Hegoaldeko argitalpen-gune nagusienetan, aski zabaldua zegoen “re-writing” edo zuzentzailearenen irudia, zeinek testua orraztu eta uniformatzen baitzuen gramatika zein idazkeraren aldetik. Lan hori betetzen zuten orduan Imanol Berriatuak *Anaitasunan*, Salbador Garmendiak *Zeruko Argian*, Jose Antonio Adurizek *Jakinen*, J. I. Goikoetxea “Gaztelu”k *Auñamendin*, Jesus Gaztañagak *Etor-en*, Dionisio Amundarainek *Geron*, etab. Hegoaldeko eredu honi jarraiki, ardura hau Gexan Alfarok beretu zuen *Zabalen*. Egile honek berak hiruzpalau titulu ematen ditu euskal gramatikako hainbat gai ukituz: Adiztegia³³⁰, Euskara idatziaren batasunari buruzkoa³³¹ eta, bereziki, Hiztegia³³².

Zabalek batasunaren bidea, batez ere, lexikoaren aldetik egiten du. Honela, euskalki batean edo bestean egindako artikuluen bukaeran, hitz baliokideen zerrenda osatzen da edota, kasu gutxi bartzuetan, hitz baten azalpen laburra ematen, deiak artikulua barruan (*) izartxo baten bidez eginez. Hori lehen zenbakitik hasita. Urtebete baten buruan hiztegitxoa zertxobait osatzen denean, 9. zenbakian, 330en bat inguruko hitz-zerrenda argitaratzen da, *Zabalekoek* hitz berbera zein grafiaz idatzi behar duten esanez³³³. Grafia hobetsiaren ondoren dator, parentesi artean jarrita, ez-hobetsiarena, adibidez: *abendu* (abendo). Aditzaren aldetik, ordea, ez da oraindik ezelako erabakirik hartzen. Baina kasik gehienek erabiltzen dituzten deklinabideak erabiltzea erabakitzen da. Hauxe da zenbaki honetan

euskara idatziaren batasunari buruz *Zabalek* dakarrena. Dena dela, proposamen horiek jaso zuten bere kritika. Andolin Eguzkitzak³³⁴ *Zabaleko* 9. zenbakian zetorren hiztegi-bildumako zenbait hitzen inguruan ohar batzuk –funtsean ortografikoak–, egiten ditu hurrengo zenbakian. Hitz batzuk nola idatzi behar diren da kontua: *kondatu* ala *kontatu*, *ismu*, *isma* ala *ismo*; *iztudio*, *istudio* ala *estudio*; *metro* ala *metra*; *ongi*, *ontsa* ala *ondo*; *pertsona* ala *presuna*; *systema*, *sistima* ala *sistema*; *burjesia* ala *burgesia*; *elektrika* ala *eletrika*, eta horrelakoak.

2. Urrats bat areago eman nahirik, Gexan Alfarok³³⁵ “euskara idatziaren batasunzaleen arteko bilkura” egitea proposatzen du, zeinetan hiztegi-arazoak –grafiari zein euskara garbiari buruzkoak–, eta aditzarenak eztabaidatuko baitira. Hona hemen zer dakarren hitzez hitz emana³³⁶:

“Beste hitz anitz lerrokatzen ahalko dugu laster. Baina, zerrenda berri hori, ipar aldeko batasunzaleen artean eztabaidatzea, gero hego aldeko idazle batasunzaleen artean berdin eztabaidatua izateko, ondotik behin betikoz (?) haien idazkera finkatzeko, eta idazle guztiei, ikastola eta eskola guztiei, hitz zerrenda luze horren idazkera batuaren berri jakinarazteko, eta denak idazkera batu horren erabiltzera gomitatzeko. Hitz zerrenda horiekin batera, eztabaida litezke ere, denbora berean, aditz batuaren eta erdarazko hitz baztergarrienen arazoak. Orain beretik, eskatzen diegu, gomita hartuko duten idazle guztiei, gogo onez ikus dezaten *Zabaltiarren* urrats hori, eta deituak izanen diren bilkurara, ahalaz guztiak etor daitezen”.

Goiko aipu horretan bada zer iruzkindurik, puntuz puntu joanez burutuko duguna.

2.1. Pasarte horretan iragarritakoa gauzatu ahal izateko, *Zabalek* hiru bilera antolatu zituen 1975eko abenduan, Baionako Era-kustokian. Lehen bileran 30 lagun bildu ziren, bigarrenean 15 eta hirugarrenean 3 bakarrik. Hegoaldetik *Anaitasunakoak* eta *Zeruko Argiakoak* etortzekoak omen ziren, baina ez ziren agertu, ziur aski, Iparraldeko posta-greba zela zio, *Zabalek* bidalitako deialdi-gutuna garaiz jaso ez zutelako. Dena dela, parte-hartzaileen kopuruak behera egin eta Hegoaldekoek huts egin arren, positibotzat jotzen dira bilera horiek. Bilera honetan *Zabalek* prestatutako hiztegi berdindua eta *Anaitasunakoek* moldatutakoa –guztira 600en bat hitzeko

zerrenda-, aztertu zituzten. Bilera horietan, besteak beste, puntu hauek erabakitzen dira: a) *x* edo *ch*-ren doinua atxikitzea (*bixta*, *ixil*); b) *k* hizkiaren orde, *g* hobestea (*gartzela*, *gatu*), *t*-ren orde *d* (*pundu*, *senditu*); c) *y*, *th* eta azenturik ez onartzea; d) hitz elkartuetan *h*-rik ez tartekatzea (*onartu*, *oinarri*). Hiztegi hauetan hartutako erabakien arabera onartutako hiztegia 11. zenbakiko eranskinan dator³³⁷.

2.2. Erdarazko hitz baztergarrienen arazoa dela-eta, Hegoaldeko idazleak euskara garbiagoan idaztera gomitatzan ditu Gexan Alfarak. Hauentzat dira pasarte honetan esaten dituenak:

“Mugaz haraindiko idazleak batez ere, idazterako mementoan, euskarazko hitzak gogoan ez izanez edo ezagutzen ez dituztelako, edo erdaraz pentsatzen dutelako, (edo oraino erdaraz pentsatzen duen euskaldunentzat idazten dutelako), erdarazko hitzak burrustan lerrotatzen hasiak zaizkigu. Beren gisako arrazoiak ba dituzketela, ez dut dudatzen. Halere, sobera garbizale zentzugabeko izan gabe, iruditzen zait indar bat egin behar genukeela, euskarazko hitzak ba ditugularik, erdarazkoen baztertze. Zergatik? Bestenaz, euskara izateko orde, ‘baskoina’ deituko genukeen mintzaira arrotzu bat sortzen ariko baikintezke. Eta gisa guztiz, ipar aldeko jendeak *baskoin* berri horren ulertzeko, espainola beharko bailuke ikasi!” (Alfaro, 10, 1974, 45).

Berak ‘baskoin’ mintzairakoak deitzen dien hitz horietako batzuk –adibide gisa “irakurleak dasta ditzan” ekartzen dituen horiek–, honako hauek bezalakoak dira: “*suposatu*, *konstatatu*, *esijitu*, *esijentzia*, *esistitu*, *debelopatu*, *funkzioa*, *konfusioa*, *errejimena*, *solusionatu*, *orientazioa*, *ukazioa*, *zanpazioa*, *koherentea*, *inplantazioa*, *marjinatu*, *insistitu*, *interpretazioa*, *prozesoa*... eta abar” (Alfaro, 10, 1974, 45).

Orobat, Hegoaldeko idazleekin jardun aurretik, lehenagoko beste zenbaki batean³³⁸, Euskaltzaindiak moldatutako *Merkatalgo hiztegia* ere ongixko jorratua zuen egileak berak, bertan zetozen dozena bat hitzen lekuan beste batzuk proposatzen zituelarik. Taula honetan doazkizu adibide batzuk:

	<i>Euskaltzaindiarena</i>	<i>G. Alfarok proposatua</i>
Aéroport	Aireportu	<i>Airaportu</i>
Aliments	Janariak	<i>Jangaiak</i>
Boucherie	Harategia	<i>Haragindegia</i>
Communications	Komunikabideak	<i>Kurutzabideak</i>
Laiterie	Esnetegia	<i>Esnaola</i>
Transports	Garraioak	<i>Ekarreantza</i>

Proposamen horiek egin ondoren, Euskaltzaindiaren hiztegi horretan agertzen ez diren baina idazlanetan erabiltzen diren beste 70etik gorako hitzen zerrenda eskaintzen du, frantsesezko hitzari euskarazko baliokidea ezarriz.

Hiztegitzako beste ekinaldi batean, azkenaurreko zenbakian³³⁹ berriro, euskal idazle askok, “euskarazko hitz jator edo euskaldunduen orde, errazago delako edo euskarazko hitz horiek idazteko mementoan gogoan ez dituelako, erdarazkoak maiz baliatzen dituela” salatzen du eta, jarraian, “gaskoin” hitz horien ordaintzat erabil litezkeen euskarazko beste 80 hitzez osaturiko zerrendatxo bat osatzen du. Hitz hauek denak, egileak dioenez, *Zabaleko* artikuluetatik hustutakoak dira. Hona hemen, adibide gisa, zerrenda horretako hitz batzuk, zuzenketak nondik doazen irakurleak zuzeneko bidetik jakin dezan:

<i>Zabal</i>-ekoen “baskoin” hitzak	Proposatutako hitz jatorrak
Aktiboa	<i>Aria</i>
Asoziazio	<i>Batasun</i>
Deretxoa	<i>Eskubidea</i>
Eboluzio	<i>Bilakaera</i>
Erreakzio	<i>Ihardokimen</i>
Errebolta	<i>Jazarkunde</i>
Esentzial	<i>Izatezko</i>
Esplotazio	<i>Baliatze</i>
Estrategia	<i>Jokabide</i>
Estruktura	<i>Egitura</i>
Existentzia	<i>Izana</i>
Existitu	<i>Izan</i>
Funtzio	<i>Egiteko</i>
Instituzio	<i>Eraikidura</i>
Integratu	<i>Sartu, barne eman</i>
Krisisa	<i>Kinikatzar, atekatzar</i>
Materia	<i>Ekaia</i>
Organizazio	<i>Erakunde</i>
Sektore	<i>Sail, alde</i>
Textu	<i>Idazki</i>
Zirkulazio	<i>Kurrida</i>

Zabaleko azken zenbakian, Federiko Krutwigen “Egiak eta gezurrak sozialismuan eta sozial-asmuan” artikulua dator³⁴⁰. Artikuluaren hasieran, taulatxo batean sartuta datorren pasartean irakurtzen da aldizkariko zuzentzaileak zergatik ez duen eskurik sartzen haren idazlanean³⁴¹:

“*Zabal* 19 gn zenbaki honen irakurleek berehala ikusiko dute zer idazkera arraroan, ez errateko bitxian, datorren Krutwig-en idazlana. Eta, pentsa lezake, ‘zergatik aldatzen didatek eni idazkera,

eta ez horri?'. Hona arrazoia, xingle bezain garbi nahi genukeena. *Zabal* aldizkariak arduratzen direnek euskara batuaren bidetik jo dute orain arte eta jo gogo gero ere. Beti eta orotan gertatzen dira, ordea, ekzepzioak. Eta Krutwig-en artikulu luze hau, hala da. Eta gainera, hala da, berak, baldintza bezala, bere idazkera den bezala agertzea ezarri digulako. *Zabal*-ek, nonbait kasu berezi horren aurrean, gogo zabaleko izan nahiz, ez dio bere hostoetarako bide ukatu nahi izan, pentsatuz Krutwig bezalako pentsalari batek baduela, segur, gure irakurleei zerbait interesanterik adierazteko. Baina, jakina, mota horretako ekzepzio bakarra izanen da”.

Zabalek izenpetzen duen ohar horretan, bada, “ekzepzio” gisa, beste inori ez-eta, F. Krutwig jaunari barkatzen zaio. Euskaltzaindikoen lanak baldintza bera ezarriz etorri izan balira, adibidez, ez dakigu erabaki bera hartuko zutenetz “*Zabal* aldizkariak arduratzen” zirenek.

2.3. *Zabaleko* euskara-arduradunaren oharrak, proposamenak eta zuzenketak azaldu ondoren, hirugarren puntuan, geure aldetik, gogoeta xume batzuk aurreratuko ditugu, bereziki hiztegitzaren arloan planteatzen diren zenbait arazoren inguruan eta horiei buruz *Zabaleko* zuzentzaileak hartzen dituen erabakien aurrean.

Zuzentzailearen lana ez baita inoren gustukoa izaten, eskertze-koa da, meritagarria ere bai, Gexan Alfarok *Zabal* aldizkarian euskara batuaren erdua ezartzen egindako ahalegina. Zein neurritan izan den errentagarria, gaurko hiztegi espezializatuak ikusiz gero esan beharko litzateke, gure oraingo lana ez dena. Dena dela, hiztegitzaren dela-eta, aintzakotzat hartzen ez diren baina oinarrizkoak iruditzen zaizkigun gauza pare bat azpimarratu nahi genituzke.

Lehenengoa da, hiztegitzarenak talde-lan espezializatuak eskatzen duela, zeinetan parte hartu behar baitute ez bakarrik hizkuntzalariek, baita gai bakoitzean adituak direnek ere. Zientzi gaien azalpenean zehaztasuna baita guztien gaineratik zaindu beharrekoa, hiztegi espezializatuetan hitzen eduki semantikoa argi eta garbi mugatu beharra dago, polisemia alde batera utzita. Horregatik, diziplina bakoitzeko adituak dira, berez bederen, beren terminologia berezia ulertzen dutenak. Baina hizkuntzalari batek ez dauka, hizkuntzalari delako, fisika, kimika, filosofia edo beste edozein gaitan erabiltzen diren hitz teknikoak esanahia ulertu beharrik edo zientzi sail horietan aditua izan beharrik. Hizkuntzalari baten jakintza, handia izanda ere, bere arlora mugatzen da, areago oraindik jakintza-gaien

esparrua egunetik egunera atomizatuz doan une honetan. Lehen ere, euskara landuaren sorkuntza zela bide, bakarka-lan erraldoiak egin zituztenak baziren. Aita Olabideren antzera, Azkueren hiztegia ia buruz ezagutzen zuen Jokin Zaitetik edota euskal harrobiaren sekretuak inork gutxi bezala ezagutzen zituen Orixek, hauek bereziki, burumuinak lehertzerainoko lan temati bezain sortzailea egin zuten filosofia euskaraz ematen. Baina horien eta beste gehienen ahalegina, neurri handi batean, alfer-lana izan zen, zeren, euskal filosofiari buruzko bibliografia husterakoan egiaztatu ahal izan genuenez³⁴², bakoitzak bere kontura jardutean eta hitzen edukia mugatzeko orduan inolako adostasunik ez ematean, ondorioz hitz horien edukietan izurritzko anarkia ematen baitzen. Gaztelaniazko *pensamiento* adierazteko, adibidez, hitz hauek aurkitzen ziren, balio-kide bailiran: *burubide, bururakizun, burutapen; gogai, gogoeta, gogo; gogamen, gogabide, oldozpen; burutapen, gogo, oldozpen...* Hitz bati esanahi bakarra eman ahal izatea, inondik etortzekotan talde-lanean adostasunean hartutako erabakietatik etor daiteke, ez bakarkako lanetik. Adar desberdinen arteko lan koordinatu hori, bere muga guztiekin baina erabateko abileziaz, UZEIk hasi zuen lehen aldiz, gizarte-beharrak eraginda. Geroztik, berak egindako hiztegi espezializatueta oinarrituta kaleratuak izan dira *Elbuyar* eta *Harluxet* hiztegi entziklopedikoak. UZEIren ekarpena guztiz funtsezkoa izan da, zerbait historikoa, egungo prosa zientifiko normalizatuaren oinarritzat har daitekeena.

Baina hiztegi berezien arazoa ez da hor bukatzen. Hiztegi berezituak zenbat eta espezializatuagoak izan, orduan eta gehiago doaz urruntzen hiztegi orokor eta arruntetatik. Euskal kulturaren esparruan prosa akademikoaren historia oraindik aski berria baita, gehienbat 1960ko belaunaldiarekin hasten dena, gertatzen da diziplina zientifiko gehienen zutabeak, teologiarena kenduta, hutsik aurkitzen direla. Zentzu honetan, euskal klasikoek hiztegi-ekarpenetan hitz teknikoek urritasuna hain da nabaria, hiztegi historiko horiek, euskal harrobia ezagutzeko oinarritzko iturriak badira ere, ez dira praktikoak gertatzen zientzia modernoa euskaraz emateko, terminologia zientifikorik ez baita erabiltzen. Filosofiaz edo pentsamenduaz idatzitako euskal iturriak hustu eta gero, 9.000 fitxa inguru jaso genituen. Horko hitzak Filosofiako hiztegi berezituarekin alderatzean, ordea, ohartu ginen euskaraz emandako hitz zehazki filosofikoen zerrenda aski murrizta zela, euskarak oraindik

alor zabalak zeuzkala lantzeko terminologia filosofikoan. Filosofiaz dioguna esan daiteke beste edozein diziplinaz ere. Zentzu honetan, Ibon Sarasolak argitaratu dituen hiztegi desberdinak –hemen sartuz, bereziki, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia* (1984-95), berau Koldo Mitxelenak literatura tradizionala hustuz utzitako hiztegitxategitik abiatuta egindakoa, eta *Euskal Hiztegia* (1996)–, funtsean hiztegi historikoak diren aldetik, guztiz garrantzitsuak ditugu, harrobi tradizionala bere iturrietan ezagutzeko ezinbestekoak, baina gai akademikoak irakatsi edo ikertu behar dituenari ez zaizkio hain baliagarriak gertatuko, ez baititu berorietan aurkituko berak bere lanerako behar dituen hitz edo termino espezifikokoak.

Ez hiztegi berezituak ez historikoak daude sobera; biak zaizkigu beharrezkoak, biak osagarriak. Baina bakoitza bere mailan eta bere berezitasunarekin. Horregatik, hiztegitzintzan, hizkuntzalariari adinako begirunea zor zaio diziplina bakoitzean aditua denari, honi baitagokio kontzeptuak mugatzea. Orain ulertuko da euskarazko literatura zientifikoaren eraikuntzarako zergatik ez den batere on, haren *corpus*-normalizazioaren egitekoa bere osotasunean erakunde batek monopolizatzea, xedetzat euskararen modernizazioa duten erakundeak haren zerbitzura egotea, haren onarpena behar izatea. Unibertsitate-esparruan, linguistikaren saila, beste askoren artean, sail bat gehiago da eta, sail horretatik at ere, zorionez, euskara modernizatzen beste sailek ere parte hartzen dute.

Bigarrena da, *Zabaleko* esperientziara etorrita, arestian esandakoak baduela aplikazio zuzenik arazo honetan. Gure ustea da, azken batean, Iparraldeko populismoak ez duela onartzen jakintza unibertsalekoak diren zenbait hitz euskarazko prosa akademikoan txertatzen. Lehen esan da nola Gexan Alfarok salatzen zituen, batez ere, Hegoaldeko idazleak, esanez horien euskara ulertzeko espainola jakin behar zela. Izenik ez zuen ematen, baina kontuan hartzen bada testu hura 1974ko 10. zenbakian idatzia izan zela, idazle horiek Paulo Iztueta, Jokin Apalategi, Mikel Urteaga, Txillardegi eta Andolin Eguzkitza baizik ezin zitezkeen izan, hauek baikenituen ordura arteko lankidetzan parte hartzen zuten bakarrak. Sekula ez da jakiten, baina onena pentsatuta, pentsa genezake zerrenda horretan ez zituela sartuko izen sagaratuak –polemikaren zioz edo, noizbehinka bakarrik, parte hartu zuten horiek, alegia–, beste ohiko lankideok baizik. Nonbait, *Zabalen* orriak euskara gaiztoz orbanetzen genituen Hegoaldeko idazle traketsok ez geneukan frantsesa

jakin beharrik Iparraldeko beste lankideen euskara ulertzeko, hauen euskalkia txit garbia, txit zehatza, txit jantzia, txit naroa baitzen. Eta halaxe da. *Zabal* ez zenean ere, ohiturik geunden lapurtar klasikoak irakurtzen eta, ustez bederen, ulertzen; ohiturik, halaber, *Herrian* asteroko berriak irakurtzen.

Zabaleko euskara-zuzentzaile jakitunaren ironia horrek, ordea, aspaldiko hautsak harrotzen ditu. Baina batere beharrik gabe. Pierre Lafittek³⁴³ esana zuen nahiago zuela Sofokolen *Ebangeline* bere jatorrizko testuan irakurri –grekoz, alegia–, ez eta Jokin Zaitegiren itzulpenean baino. Honen euskara ulertezina zitzaion, antza. Orixe atera zen orduan Arrasatekoaren defentsan, Bidarraiko erreka zulo-tik Uztaritzera deiadarka atera ere, esanez gutxiengo batek nahiago zituela Zaitegiren euskarazko idazlanak Lafitteren erdarazkoak baino. Hobe zukeen bere gramatika euskaraz idatzi izan balu³⁴⁴. Esanez bezala, trebetasuna neurtu, kazetaritzan baino harago, jakintza-gaietan neurtzen dela. Elizen arteko Bibliaren itzulpen-lana Hegoaldeko eta Iparraldekoen artean banatu zenean, J. Hiriart-Urruty euskaltzainari Hazparnen harriduraz entzun nion Hegoaldeko itzultzaile baten euskara hura ez zela euskara. *Zabal* aldizkaria argitaratu berri hartan, orobat, Iparraldeko beste idazle batek “alemanizatua” zeritzon Hegoaldeko beste idazle baten euskarari. Harriak beti leku beretik teilatu berera zihoazen.

Badirudi, beraz, Hegoaldekoen prosa akademikoari Iparraldekotik egiten zaion kritika aski orokorra izan dela, azkenaldiotako historian agirian ez bada ahopeka errepikatuz etorri dena. Hegoaldekoen prosa akademiko traketsaren fama ez da zerbait berria, *Zabaleko* zuzentzaileak azken orduan aurkitzen duena, lehenagotik datorrena baizik. Baina komeni da jakitea kritika hori Iparraldean nagusitzen den tradizio populistatik, hots, gehienbat kazetaritzaren munduan mugitzen den esparru murriztetik egina dela. Mandio horretatik begiratuta, jakina, errazago da luma jakintza-gaietan bustitzera ausartzen dena kritikatzeari, norberak, erdaraz egiteari utzi-eta, besteena hobetzea baino. Kontua da, esanak esan, euskara populista horrek ez duela berezko prosa akademikorik sortu. Mugimendua ibiliz frogatzen omen denez, gauden desirak noiz obratuko beha.

Dena dela, eskubide osoa zeukan *Zabaleko* zuzentzaileak Hegoaldekoen euskara “espainolizatua” salatu eta kritikatzeko, ziarri guztien beharra genuen-eta. Baina, otoi, gure euskara traketsa izateak ez zuen esan nahi besteena ona –edo hobea–, zenik edo, hango

euskalkiaren oinordekoak izateagatik, haienak besterik gabe ona izan behar zuenik. Pasatuak dira jadanik 40 urte eta historia izango da, zalantzarik gabe, orduko euskara-ereduaren azertuak eta desazertuak juzgatzeko epailerik zuzenena. Aski da talde-lan gaitu eta koordinatuan egindako hiztegi berezituak kontsultatzea *Zabaleko* hiztegitik zenbait hitz geratu diren bizirik konstatatu ahal izateko, “espainoltzat” jo ziren hitz haiek izateko arrazoirik bazuten ala ez jakiteko. Eta hau esatean, jakina, ez gara sartzen ezertarako euskalki bakoitzak duen idazkeran eta horrelako kontuetan, soilki lexikografian baizik.

Berriro diogu, asmorik onenez esanda, *Zabalek* egindako aha-legina ez dela gutxiestekoa. Lexikoaren batasuna, egia esateko, behar larria zen eta jadanik *Jakin* hasia genuen ildo horretatik urrats batzuk ematen, berak argitaratutako liburuetan, orri solte batzuetan, bertan erabilitako hitz teknikoek zerrenda tartekatuz. *Zabalek* irekitzen duen asmoa, halaber, ona zen, beharrezkoa ere bai, are gehiago aldizkari berean alde bietako idazleak elkartzen zirenean. Zentzu honetan, Gexan Alfaroren lana, testuak husten eta hiztegitxoak prestatzen egindakoa, estimatzekoa da. Baina ez hainbeste berak eramandako metodoa. Zergatik? Horrelako lan batek, lehen esan bezala, bakarkako lana baino gehiago, taldekoko eskatzen zuelako eta, gainera, gaian adituen artean egin beharrezkoa, zeren, zehaztasuna denean azken irizpidea, hitzak berak baino areago hitz horren esanahiak edo kontzeptuak baitu lehentasuna. Eta lan hau ezin zitekeen egin bakarka, ezta kazetaritzako idazleak bilduz ere. Eta orduan, berriz, ezinago, hiztegi berezituak falta zireneko uneak baitziren.

Bestalde, aukera historiko aparta izan zen, *Zabaleko* lankideak alde bietakoak izanda, hurbilenekoek bederen parte har zezaten aldizkariaren kudeaketan bezala prosa akademikoaren sorkuntzan ere, elkarri lagunduz eta elkarrenetik ikasiz, inor ez baitzen, orain ere ez, orotan jakituna. Baina, zoritxarrez, ez zen horrelakorik gertatu. Hegoaldekoak han geunden, bai, baina hitzik gabe ez erabakietan, ez plangintzetan, ez antolamenduan. *Zabal* egina etortzen zitzaigun. Umeari ahia ahora ematen zaion bezala. Askotan, erbesteak badu bere barne-erbestea ere.

Gezurra badirudi ere, misterio bat da, egunen batean *Zabaleko* kudeaketa eramán zutenek berek argitu beharko dutena, aldian aldiko zuzendaritza ofizialak egiazko funtzionamenduan zein egiteko

jokatu zuen edota, *Zabalen* lau urteko bizitzan, zein taldek gidatu zuen. Izan ere, *Zabalek* bere kontura ematen baititu bere iritziak bai Ikas-i buruz, bai UEUri buruz, bai lexikoari buruz, bai beste hainbat gairi buruz. Eta agiri horietan, *Zabalen* anonimoa badator ere, izen propioak aurkitzen dira hor atzean, guri ezagunak ez zaizkigunak.

3. Xabier Kintanak³⁴⁵, azken zenbakian, “euskara” hitzaren etimologia aztertzen du, zeinetan esaten baitu hitz hori jatorriz adberbio bat izan zela, eta ez substantibo bat. “*Euskara mintzatu*, hortaz, ‘euskaldunki’ mintzatzea zen, latinezko *vasconice loqui* bezalaxe”, dio. Bestalde, hitz zahar horren zatiketari dagokionez –hemen Mitxelenaren eta beste autore batzuen iritziak bere eginez–, *heus* + *kara* dela pentsatzen du, eta ez *eusk*- mitikoa, lehena hitzaren gunea izaki eta bigarrena, berriz, forma adberbiala. Etimologia honek, uste duenez, autrigoi, karistiar, barduliar eta baskoi *gens* haien arteko hizkuntza izan zela erakutsi lezake. Geroztik, etimologia honen bidetik sortutako *euskara*, *euskaldun* eta *Euskal Herria* izenak, hauek bisigodoen kontra borrokatzeko orduan jende menditar haien herritasunaren ezaugarri eta mugak ezartzeko xede politikoarekin sortuak izan ziren aldetik, badirudi V. edo VI. mendekoak direla.

4. Euskararen arazoa, soziolinguistikaren mailan ere planteatzen da *Zabalen*. Andolin Eguzkitza “Altzürükü”k³⁴⁶, *corpus*aren esparrutik *status*arenerako urratsa emanez, hizkuntzen arteko gatazkaz dihardu saio mamitsu batean. Berak aitortzen duenez, Joan Lluís Ninyoles katalanaren *Idioma y poder social* (1971) liburua irakurri ondoren iristen da “gatazka linguistikoaren” kontzeptura. Baina kontzeptu horren ingurukoa aletzen hasi aurretik, ordea, bere familiarterako eta lagunarterako ingurumarian eta, oro har, Bizkaian eta Euskal Herri osoan zer-nolako egoera soziopolitiko eta linguistikoa dagoen deskribatzen du eta hortik ateratzen duen ondorio nagusia da, euskarak “ez duela sekula santan mende honetara arte ez ein euspen ofizialik eduki” eta “oraingo egoera hau ez dela, aurki, euskal hizkuntza ‘zaharra’ren mundu modernora ekartzeko ‘natur ezintasunak’ sortua, Etxepararen denboran jadanik zegoen gatazka linguistikoaren zorrozteak egina baizik” (Eguzkitza, 10, 1974, 32).

Hori esanda, euskararen egoera soziolinguistikoa aztertzeko, Ninyoles-en eskema aurkezten du, zeinaren ardatza elebitasun diglosikoan zehazten baita. Hauxe da euskarak XIX. mendearen erdi-

tik aurrera bizi duen egoera lazgarria: jadanik hizkuntz aldaketaren prozesuan sartuta dagoela, alegia. Beraz, egoera horri aurre egin ahal izateko, geratzen den egiazko aterabide bakarra, izan, arazoa makro-hizkuntzalaritzaren alderditik begiratuta, “Euskadiren berreuskalduntze osoa” da. Horrela bakarrik lortuko da etxe-esparrura mugatua den A hizkuntza, eskubide eta abantaila guztiak dauzkan B goiko klasearen menpekoa dena, normalizatzea.

Gaur badira, noizbait Koldo Mitxelena esana aintzakotzat hartuta, “berreuskalduntzearen” kontzeptu hori onartzen ez dutenak, argudiatuz egun Euskal Herritzat daukagun lurralde hau ez dela inoiz bere osotasunean euskalduna izan. Agian terminoa bera desegokia izanen da, zeren, arrazoi guztiarekin, inoiz euskalduna izan ez dena ezin baita berreuskaldundu. Baieztapen huts horretan geratzeak, ordea, egoera diglosikoari bide eman liezaiokeen jarrera tranpati batean jaustea ekar lezake, zeren horren kariaz, euskal lurraldea zonalde euskaldun eta ez-euskaldunetan zatituz gero, osoki euskaldunak edota elebidunak izandako lurraldeak –egun erdaldunduak–, ez berreuskalduntzeko neurri politikoak hartzen baitira. Eta jarrera hau, jakina, menpeko hizkuntzarekiko diskriminatzailea bederen bada, zapaltzailea ez esatearren.

Bestalde, aurrekoari lotuta, egun modan dago esatea, bereziki nazionalista espainolisten artean, berreuskalduntzearen kontzeptua, izan, atzerakoia dela, murriztailea omen delako, xede horrek, diotenez, monolingüismora eramango bailuke historikoki elebiduna den euskal gizartea. Gertatzen dena da, euskaltzaleen artean ez duela inork esan Euskal Herri berreuskaldunduak elebakar izan behar duenik, ez bederen hizkuntza normalizatzeko prozesuaren azken txanpan. Artikulu honetan ere garbi ageri da ideia hau, egileak ohar batean espresuki dioenean honek ez duela esan nahi “beste bigarren hizkuntza bat ikasi behar ez denik” (Eguzkitza, 10, 1974, 35). Besterik da, normalizaziorako bidean, eredurik eraginkorra zein den ebaztea: elebakartasunarena ala elebitasunera. Hau beste mota bateko arazoa da, hizkuntz politikaren praktikak erabaki beharrekoa.

XVII

Liburu-kritikak

Zabalek ez zuen ireki liburu-kritikak egiteko sail berezirik. Alderdi horri ez ziola erreparatu ikusteko, aski da jakitea orotara 10 libururen aipamena baizik ez dakarrela, hori kritika edo, gehienetan, aipamen gisa egina. Aipatzen diren liburuak, gainera, euskarazko hiru izan ezik, beste guztien izenburuak frantsesez emanak datoz. Kontuan hartzen bada hiru urte horietan (1973-76) euskaraz 360 liburu inguru argitaratu zirela, hiruko kopuru hori ezdeusa da.

1. Kritika-lanik bere gain hartzen ez badu ere, euskarazkoetan izan dira arreta berezia jaso izan dutenak: bi nobela, Xabier Amurizaren *Hil ala bizi* (Elkar, 1973) eta Daniel Landarten *Hil biziak* (Egile editore, 1973), bestea Andoni Iralaren *Bat bitan banatzen da* (Etor, 1976), hau politikari buruzko ikerketa-lana, euskaratua. *Zabaleko* zuzendaritzak 1974ko lehen emanaldiko 5. zenbakian, Irati liburu-sailean laster argitaratu beharrekoak zirenen zerrenda bat zetorren. Bideratzeaz zegoen argitaletxe berriaren propaganda gisa zekarren zerrenda hura. *Zabal* aldizkariaren bizitzan, izen bereko erakundearen legezko babesean Irati izenarekin argitaratutako liburu lehena eta bakarra P. Iztueta eta J. Apalategiren *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian* izan zen, 1974eko udan kaleratua. Urte-hasieran publizitate hori egiten jardun eta gero, argitalpen horren berririk ez da agertzen aldizkarian. Etxekoek ez dute ezagutzen beren lehen emaitza, ona ala txarra, baina etxekoa. Geroztik ere, gaztelaniazko itzulpenak, etxekoa izanda, bere argitalpen-ibilbidea ere, etxetik kanpora egingo du.

Artean Iparraldekoa bakarrik zen Elkar-ek "Larraun" ezizenez argitaratutako Xabier Amurizaren *Hil ala bizi* eleberriak ordea, zorronez patuak hala nahi izanda, *Zabalen* aldetik ongietorri beroa

jasotzen du, biziki gorai patuz haren “euskara gozoa, jakina, airoa eta beldurgabea”³⁴⁷. Hurrengo zenbakian liburu horretaz azterketa kritiko bat agertuko dela iragarritzat bukatzen du bere ohartxoak. Barrunbeak halaxe eskatuta, ez beste inork, orrialde batzuk eskaini nizekion neure erraiak asaldatzeko gauza izan zen eleberri hari, akuilu baten antzekoa gertatu baitzitzaidan³⁴⁸. Euskalkien ezagutza oparoa, hizkuntzaren erabilera naroa, gai tabuen eta ez hain tabuen trataera ausarta, dena zen niretzat deigarria. Artikulua egin eta gero jakin nuen egilea nor zen eta neure zorion-agurra hitz neurtuz egin bidali nion Zamorako presondegira, orduan ziur asko ez, baina noiz-bait iritsiko zitzaiolekian.

Jokin Apalategik³⁴⁹ Daniel Landarten *Hil biziak* antzerki-emanaldia laudatzen du, 1974ko apirilaren 28an Donibane Garaziko Le Vauban zinema-tokian jokatu zena, zeinetan Iparraldeko laborari-familia baten bizitza kontatzen baita, taularatzean egileak berak ere aktore gisa parte hartzen duelarik. Formaren aldetik akats batzuk egozten dizkion arren, orokorrean, dakarren mezuagatik, batik bat, zorientzeko moduko obra baten aurrean gaudelakoan dago. “Euskaldun kulturari, antzerki alorrean, faltatu izan zaion sozial obra eta autorea agertu zaigulakoan nago”, dio. Antzerki hau berak egile-editore gisa jadanik 1973an argitaratua zeukan 16 orrialdeko liburuxkan.

2. Erdarazkoetan –eta honek balio lezake *Zabalekoek* zein iturritatik edaten duten jakiteko–, frantsesezko titulua daramatenak bakarrik aipatzen dira.

2.1. Linguistikaren sailean, Beñat Oihartzabalek³⁵⁰ L.-J. Calveten *Linguistique et colonialisme* liburuan datozen ekarpenak aipatzen ditu. Baliagarritzat dauzka bereziki koloni egoeran dauden herrietako hizkuntzei buruz egindako gogoetak. Egilea frantsesa izanda, liburu honetan euskararen arazoa aipatzen ez bada ere, merezi du irakurtzeak, batik bat, “ematen dizkigun xehetasun eta argibideen multzutasunagatik”. Dena dela, hutsunerik ere aurkitzen dio, eta da “ez dela beti heltzen elkarri ongi lotzera hizkuntza-arazoa eta sozio-politikazko ingurunea” (Oihartzabal, 17, 1976, 47).

2.2. Soziologiaren sailean, J. R. E.-k³⁵¹ Carlo Beneditti autore marxistaren *Valeur et répartition* liburuaren aipamena dakar. Egile hau ekonomista gazte bat da, Grenoble eta Parisko unibertsitateetan irakasten duena. Balioaz eta banaketaz klasikoek eta neokla-

sikoe dituzten teoriak auzitan jartzen dira liburu honetan. Eta ez horienak bakarrik. Aldi berean –eta kritikariak dioenez, hementxe legoke liburu honek duen parterik inportanteena–, teoria marxistaren baitan dauden zenbait formulazio sinplista gaudituz beharra ere proposatzen da. Hurrengo zenbakian³⁵², lankide honek berak P. Boccara-ren *Etudes sur le capitalisme* liburuaren aipamena egiten du, labur-labur, zeinetan Frantziako Alderdi Komunistako ekonomista ezagunenetakoa den honek hiru aro bereizten baititu kapitalismoaren bilakabidean: “kapitalismo konkurrentziala, monopolista pribatua, eta Estatuko kapitalismo monopolista”. Aurkezleak ateratzen duen ondorioa da, bere hitzekin esateko, “Boccara-ren gainakumulazio-desbalorizazio teoriak, eta bere ‘irabazi tatsaren beherapen tendentzialaren legea’ interpretatzeko moduak oinarri zientifikoen kontra dihardutela” eta, beraz, “arbuizatzekoak” direla (J.R.E., 18, 1976, 60).

2.2. Jesus Mari Larrazabalek³⁵³ (J.M.L.), bere aldetik, François Châtelet filosofo eta historialariaren *Profil d'une oeuvre: Le Capital. Marx* liburua du hizpide eta kritikagarri. Châtelet-ek *Kapitalaren* irakurketa lehen liburuko lehen ataletik hasi eta gero zortzigarrenera pasatzera gomendatzen du, haren ustez, lehenak zibilizazioaren teoria baten hastapenak eskaintzen dituelako, eta azkenak, berriz, historiaren teoria bat agertzen duelako. J. M. Larrazabal ez dator ados ikuspegi honekin. Arrazoa? Hona hemen: “zibilizazioaren teoria eta historiaren teoria deitu bi adierazpen hauek beste funtsezko bi hauek saihesten eta izkututzen dizkigulelako: materialismo dialektikoa eta materialismo historikoa” (Larrazabal, 17, 1976, 48). Châtelet-ek, bada, alde batera uzten du materialismo dialektikoa, honen ordez zibilizazioaren teoria nabarmenduz. Zumaiako logikaria ez dago materialismo dialektikoari uko egiteko prest.

Kritikari horrek berak³⁵⁴ *Marxisme-Léninisme et révisionisme* liburuaren aurkezpena ere egiten du. Frantziako mugimendu maoistako militante batzuek elkar-lanean egindako liburu bat du kritika-gai, Maspero-k “Cahier Yanan” bilduman 1976an argitaratua. Argitalpen honetan garai hartan maoistek maila teoriko eta ideologikoan dauzkaten hiru xede hauek agertzen dira: a) marxismo-leninismoa lantzea, berori delako iraultza bideratu eta teorizatzeo arma bakarra; b) errebisionismoa eta beronen lagunak kritikatu eta salatzea; c) kontrairaultzaren ideologia oinarritzen duten idealismo berriak borrokatu eta gaintzea. Lan honetan badira zenbait puntu

kritikagarri atzematen dituenak. Egiten duten azterketa teorikoa orokorregia iruditzen zaio eta, bestalde, egungo sistema kapitalistaren kontraesanak ez dituzte behar adina bereizten eta zehazten.

2.3. Jon Ituarte Etxabe “Astigarribia”^{k355} orrialdetxo batean azaltzen du Michel Foucault-ek bere *Surveiller et punir. Naissance de la prison* liburu sonatuan lantzen duen gai nagusia zein den eta nolako trataera ematen dion. Presondegiaren sorrera da liburu honen muina, baina funtzionamenduaren aldetik harekin parekatzen ditu lantegiak, eskolak, kasernak eta ospitaleak. Modu berean ez bada ere, horiek denak dira zapalkuntza-gune egiazkoak diziplinazko egungo gizarte honen baitan.

2.4. Baina kritikarik gogorrena Andoni Iralaren *Bat bitan banatzen da* liburu euskaratuak jasotzen du, jatorrizkoa gaztelaniaz idatzia baita. Jose Manuel Odriozola “Izarreko”³⁵⁶ da obra eta autorearen inguruko joera politikoa luze aztertzen duena. Beren eragina batez ere Tolosako frantziskotarren *Goiz Argi* aldizkari eta Etor argitaletxe eskuindarretan Iralatarrek orduan talde antolatu bat osatzen zuten eta maoismoa barru-barrutik ezagutzeko liburu hori bezalakorik ez omen dela inoiz idatzi esaka aritzen ziren. Liburuaren ezkutuko asmoa, ordea, marxismo-mota oro errotik ezeztatzea zen. Horregatik, liburu hau inozo-inozo irakurtzera doakeenari, haste-hastetik ematen dio abisua, engainuan eror ez dadin:

“Etendura bat dago, beraz, obraren eta autorearen artean. Halaz ere, argi esan beharra dago, autoreak eginahal guztiak egiten dituela etendura politiko hori teoria mailako aitorten batzuen bide oso modu egokian estal erazteko. Are gehiago: *Etor*-erribide, *Goiz Argi* eta mugimendu atzerakoi eta burges horren berririk ez dakienez bat, Irala politikoki aurrerakoi eta agian maoistatzat hartzeko bidean dago” (Odriozola, 17, 1976, 51).

Kontua da, hala izan gabe, “Irala maoista purrkatua bailitzan moduan” agertzen dela, hala izan gabe, noski. Horregatik, egin behar den lehen gauza da, egilearen joera politikoa eta liburuan lantzen dituen tesi teorikoa garbiki bereizi. Maoismoaren azalpenean oso bere modura interpretatzen dituen ikuspuntuak ere baditu. Dena dela, euskal mugimenduaren norabidean oso kontuan hartu beharreko liburua iruditzen zaio eta haren ekarpenik handiena, besteak beste, “Maoren teoria *den bezala*”, bere hartan, hartzea izanen litza-

teke. Maok materialismo dialektikoaren alorrean egindako ekarpena ezagutzeko, aukerakoa da. Zer esanik ez euskal munduan ez dela gauza handirik egin materialismo dialektikoaren alor ezezagunean.

3. Hor daude liburu-kritikak gaingiroki azalduta. Hemendik aurrera, egindako azalpenen gain ohar batzuk egitea dagokigu. Pare bat edo.

Lehenik, nahiz eta lehen urtetik hasita argitaratzen badira ere liburu jakin batzuen gainean egindako aipamen-artikulu batzuk, lehen beste nonbait esanak gaude ez zela *Zabaleko* hasierako organigraman egon liburuen sail bat irekitzea. Aldizkariaren barne-egituran liburuen txokoa sortu, 1976an sortzen da lehen aldiz, 17. zenbakian, hain zuzen. Eta hori, iruditzen zaigunez, Parisko euskal ikasle batzuen eraginez gehienbat. Ikusi besterik ez dago zein liburu hautatzen diren eta, orobat, aipamen-egileak nor diren. Guztiak dira marxistak. Kritikarien espiritua, orobat, marxista da eta honen barruan aski ezkerrekoa, gainera, eskuindarren errebisionismoa salatzen den seta berarekin defendatzen baita materialismo dialektikoa. Azken bi urteetako *Zabaleko* talde intelektual honen joera garbiki nabarmentzen da, betiere *Zabalk*ideen baitan nagusitzen den jarrera eklektikoago baten barruan. Hauek izango dira, hain zuzen, Hegoaldean *Zehatz* aldizkariari sorrera emango diotenak.

Bigarrenik, liburu-kritiken sailean parte hartzen dutenen izenak ikusita, ateratzen den beste ondorio nabaria da, guztiak, salbu Beñat Oihartzabal, Hegoaldekoak direla: P. Iztueta, J. Apalategi, J. M. Larrazabal, J. R. Etxeberria, J. M. Odriozola eta Jon Ituarte. Salbuespen-pare bat eginda, beste guztiak Parisen eskolatuak, gainera. Talde honetakoak izango dira, familia politiko berean egon ala ez, gerora kultura akademikoa landuko dutenak ikerketa-lanetan zein irakaskuntzan.

Noski, zaila izango da orduko tesiak eta ikuspegiak bere osotasunean mantentzea, urteekin eta ekarpen berriekin batera ideia eta ikuspegiak ere aldatuz joaten baitira. Ez gara nor inoren bilakabide pertsonalean barneratzeko, ezago oraindik ezein motatako juzkurik egiteko, mota askotako ur nahasiak pasa baitira harrezkero. Halere, orduko ikuspegi intelektuala orokorrean baloratuta, emankorra, bizia, aberatsa eta ausarta izan zela esango genuke eta euskal kulturarentzat indizio pizgarri bat izan zela. *Zabalen* isuriak jarioka segitzen du oraindik ere, bereziki *Uztaro* eta *Gogo*a aldizkari akademikoetan. Poztasun horrekin ixten ditugu orrialdeok.

Oin-oharrak

Hitzaurrea

¹ *Zabal*, 7, 1974, 30-33.

Lehen zatia: Paradigma berriak

I. Eskolak marxismoan eta sozialismoan

² “Louis Althusseren autokritika gaiak” *Zabal*, 12, 1975, 48-52 ; 13, 1975, 40-45; 15, 1975, 19-24.

³ Gauza bera dakar geroko beste pasarte batean, dioenean “45 inguruan ‘ebakidura’ antzeko zerbait gertatzen dela Marx-en pentsaeraren eboluzioan. Berau ez dela asmazio huts bat, historian prezendeterik ez duen gertakari historiko eta teorikoa baizik. *Ebakidurak* marxismoaren eta burges ideologiaren haustura duela markatzen eta, ber denboran, zientzia berri baten jaiotza: Historiaren zientzia” (*Zabal*, 15, 1975, 19).

⁴ Beste pasarte batean dio matematikaren kontinentea, filosofiaren jaiotzarekin batera, Platonek aurkitzen duela; fisikarena, berriz, filosofiaren aldatzarekin batera, Descartes-ek dakar. Beraz, Galileo eta Descartes dira eraikitzaileak, hura fisikarena eta hau filosofia berriarena (*Zabal*, 13, 1975, 41).

⁵ Althusser-ek, bere autokritikan, horrelako zuzenketak egiten ditu: “Filosofian formulak eta tesiak ez dira behin betirako izaten. Desbideratzeak egon daitezke, tesi okerrak enuntzia daitezke. Kontua da haiek zuzentzea kritika/autokritika metodoa erabiliz. Konparazio baterako, itzul gaitzean ‘ebakidura’ dohatsura. Althusser beroni atxikitzen zaio, baina zuzenketa bat eginaz, ‘desplazamendu’ bat alegia” (*Zabal*, 13, 1975, 44).

- ⁶ Geroko beste pasarte batean gauza bera formulatzen du: “Teoria marxistaren baitan, zientzia bat (Materialismo Historikoa, MH) eta filosofia bat (Materialismo Dialektikoa, MD) direla bereizten, Filosofia, azken instantzian, klase borroka dela teorian, esaten genuen” (Sudupe, *Zabal*, 15, 1975, 19).
- ⁷ *Zabal*, 15, 1975, 19. Aurkikuntza honi buruzko Althusser-en pasarte bat transkribatzen digu: “Ene entsegu filosofikoetan defendatu nahi ukan dudan funtsezko tesia, hitz batzuetara laburtzeko eskatuko balitzait, zera esango nuke nik: Marx-ek Zientzia berri bat funtsatu du: Historiaren Zientzia. Eta erantsiko nuke: aurkipen zientifiko hau giza historiaren prezedenterik gabeko gertakari teoriko eta politikoa da. Eta are zehazkiago esanik: gertakari honek ez du bueltarik. Gertakari teoriko bat; Marx aurretik, ‘Historia-kontinentea’ dei genezakeena, bai erlijioso, bai moral, bai juridiko-politika inspiraziozko kontzeptio ideologikoez okupaturik zegoen, hots Historiaren filosofiaz. Historian eta gizarteetan gertatzen denaren errepresentazio bat eman nahi zuten beraiek. Baina, historia eta gizarteak gobernatzen dituzten mekanismoak nozio deformatzaile eta engainakorren pean estali besterik ez zuten egiten... Kontzeptio ideologiko hauekin apurtuz ‘ireki’ zuen Marx-ek ‘Historia-kontinentea’. Ireki, materialismo historikoaren printzipioak, kapitala, eta gainontzeko obrak direla medio” (*Éléments d'autocritique*, 1974, 105; Sudupe, J., *Zabal*, 15, 1975, 19).
- ⁸ “Kontinente honen teoria, zentzu bortitzean materialismo historikoa da. Beronek, kontzeptu formal-abstraktu baten bidez bateratzen ditu gertakari sozial eta historikoak: produkzio modu delakoaren bidez. Dialektika materialista da produkzio moduen artikulazioa esplikatzen duen analisi metodoa. Materialismo historikoak, produkzio moduen artikulazioak historian zehar lege bat jarraitzen duela erakutsiz, lege horren kontzeptio zientifikoa ematen digu: klase borroka. Hiru pieza horien artikulazioa gabe (produkzio modua, dialektika materialista, klase borroka) ez dago historiako errealitatez diskurtso zientifikorik egiterik” (*Zabal*, 15, 1975, 20).
- ⁹ “Euskal Herrian sozialismoa eraikitzeko, iraultza sozialista egin behar dugu, eta iraultza sozialista, Euskadiko proletalgoaren agintearekin abiatu behar du, zera: proletalgoak eskuratu behar du agintea, eta honen indarrez, burgesia zanpatzaileak ebatsitakoak ken, horrela klasetik gabeko sozietate bat eraiki ahal izateko Euskadi Libro eta Soberano batean” (*Zabal*, 7, 1974, 39).
- ¹⁰ *Zabal*, 15, 1975, 3-5; 16, 1975, 4-6.
- ¹¹ “Marxismo-leninismoak nazio guztien errespetua bilatzen du, hau baita herrien elkarrekiko harremanetarako nahitaezko baldintza” (*Zabal*, 16, 1975, 4).

- ¹² “*Zabalen* atzean, lan egiten du abertzale sozialista talde batek eta urte baten buruan talde horrek egin du bere lanaren kritika” (*Zabal*, 7, 1974, 1).
- ¹³ “Nolakoa den gure sozialismoa”, *Zabal*, 13, 1975, 1-4).
- ¹⁴ Hasieran sozialismoaren alde motibazio moralak aldarrikatzen zituzten joerari deitu zitzaion horrela, hemen sartuz sozialismo demokratikoa zein anarkosindikalismo boluntarista (Bernstein-en errebisio-nismoa, austro-marxismoa, Jaurès-en demokratismoa eta Sorel-en ezker-komunismoa, etb.). Gero, estalinismo-garaian, kontzeptu hori eskubide demokratikoen aldeko gizarte-mugimenduekin berdintzera pasatu zen, adibidez, Pragako udaberrian. Maila akademikoan, Althusser-ez jardutean ikusi bezala, sozialismo humanista eta zientifikoa bereziko dira, hemen ideologiari buruzkoa marxismoaren irakurketa humanistarekin berdintzen delarik (*Politika hiztegia*, I, UZEI, Donostia, 1980, 452).
- ¹⁵ *Zabal*, 19, 1976, 15-34.
- ¹⁶ F. Sarrailh ezizenarekin datorren azal gorriko liburu txiki honek argitalpen-datarik ez dakar, baina, gure ustez, 1970eko hamarkada-hasierakoa izan behar du, gai honen inguruko eztabaidak garai honetakoak baitira.
- ¹⁷ Irati, Baiona, 1974, 118-126.
- ¹⁸ *Branka*, I, Ediciones Vascas, Donostia, 1979.
- ¹⁹ Txillardegi, “Unas palabras de introducción”, *ibid.*
- ²⁰ “Sozialismoa beti danik bere teoriararien ikertzapenetan, munduan sortu diren, edo berez dauden, injustizietatik gizartea ateratzeko bidea bezala interpretatu izan da. Justiziaren aldeko dei hori, gizonak bere kromosometan finkaturik daramake... eta handik ez dezake ezaba ez Kapitalismoak, ez eta Marxismoaren bidez lurralde askotan etorritako injustizia berriek ere” (*Ibid.*, 16).
- ²¹ Krutwig, *op. cit.*, 17-18.
- ²² Hona hemen bere argumentua: “Biologian egindako ikertzapenek, landaretan, piztietan eta gizonetan, gorputzezko eta espiritzuko karakteristikak, kromosomen bidez, jaraunsten direla, erakutsi dituzte” (*Ibid.*, 23).
- ²³ Autore asko dira honetaz aritu direnak. Iturri bat aipatzearren, hona hemen Samuel Bowles eta Herbert Gintis amerikal marxisten liburu txiki hau: *La meritocracia y el “coeficiente de inteligencia”: una nueva falacia del capitalismo*, Cuadernos de Anagrama, Barcelona, 1972.
- ²⁴ Hala dio Krutwigek: “Dударik gabe, Marx-en aitzinean izan diren teoriararien aburuak berriro zintzoki aztertu eta ikertu behar genituzke, metodo hauek ez dakigu oraindano praktikan utopikoak izanen di-

renez, baina bai badakigu orain ongi, Marx-ek proposatu zituen metodoak praktikan beren utopikotasuna erakutsi digutela” (ibid., 24-25).

²⁵ Hona hemen aipua, gogoan hartzekoa: “Egun ere, herri guztien buruan, nazional-problema inportantzia handiagoa duela finkatuta dago, sozial asmoak baino. Naturak emana baita. Marxistek herri-asmoaren ordez, klasiken-asmoa ezarri nahi ukan dute Marx-ek inbentatu Dialektika objektiboaren bidez gauzak hankaz gora ezartzen. Baina marxisten afirmazione hauek, *desira pietotsua* baizik izan ez dela Historiak ere praktikan erakutsi digute” (Ibid., 26).

²⁶ Aldizkariaren zuzendaria François Maspero, eta erredakzio-burua, Emile Coffermann.

II. Eztabaida akademikoen plazan

²⁷ Bere “Proyecto de manifiesto vasco”n, hau dio korrante honi buruz: “Dicho de otro modo: el estructuralismo es uno de los métodos CIENTÍFICOS del análisis de la lengua” (*Branka.*, II, Ediciones Vascas, 1979, Donostia, 761).

²⁸ Estrukturalismoa zer den azaltzera mugatzen den aipu honetan, garbi baieztatzen da estrukturalismoaren hizkuntza-ekarpenak, izan, zientifikoak direla: “Está en primer lugar, en el plano científico, lo que se llama ESTRUCTURALISMO. Esta teoría de la lengua, fundada por Saussure a principios de siglo (y aplicada hoy en otras ciencias humanas) constituye UNO de los métodos de análisis de la lengua, considerando a ésta, para ese análisis, como un todo autónomo, hecho de oposiciones fonéticas y semánticas en ESTRUCTURAS específicas para cada lengua, y relativamente independientes del análisis racional. Quiere esto decir que, en cada lengua, la forma de analizar los fenómenos más diversos (los procesos en el tiempo, el parentesco, los colores, los niveles de intimidad de trato, lo histórico y lo psicológico, etc.) varía de una lengua a otra; constituyendo, para cada comunidad lingüística un SISTEMA ESTRUCTURADO, un conjunto de estructuras específico e inconsciente, que acaba pareciendo ‘lógico’ a los parlantes. Esto no quiere decir, y el primero que previó y rebatió la objeción fue el propio Saussure, que la lengua esté al margen de la Historia, al margen de la persona, al margen de la lucha de clases, etc. Sencillamente: el estructuralismo estudia la lengua EN CUANTO conjunto estructurado de oposiciones y relaciones, y descubre por este camino una serie de principios que parecen adquisiciones definitivas de la Ciencia. Estas

consisten, resumiendo mucho, en una reafirmación científica de que la forma de analizar los fenómenos más profundos, que queda plasmada en ESTRUCTURAS INCONSCIENTES de tipo mental, es más ETNICA que racional, más POETICA que científica; y que, en cierta medida, condiciona en las personas hablantes una cierta sensibilidad (o insensibilidad) para diversos aspectos sutiles de la realidad del mundo” (*Branka*, II, Ediciones Vascas, 1979, Donostia, 760). Aipu luze hone-tan maiuskulaz datozen hitzak bere horretan errespetatu ditugu.

- ²⁹ “Ya indiqué que las estructuras ‘carecen de sujeto’. La interacción se constituye en y por la conducta de los sujetos; la *estructuración*, como la reproducción de las prácticas, se refiere abstractamente al proceso dinámico mediante el cual las estructuras llegan a existir. Al referirme a la *dualidad de la estructura* entiendo que las estructuras sociales son constituidas por la actividad humana, y son aún, al mismo tiempo, el *medio* mismo de esta constitución” (*La nuevas reglas del método socio-lógico*, Amorrortu editores, Buenos Aires, 1987, 122).
- ³⁰ “Todos aspiran a un fin común: un orden social de justicia social, de bienestar elevado, de libertad y de paz mundial... La planeación socialista no presupone la apropiación de todos los medios de producción...” (Agirre, 1967, 44).
- ³¹ “Ahora bien, el Socialismo humanista no es un dogma filosófico-político universal, monolítico, de pretendido cientifismo como el materialismo dialéctico, como el determinismo económico de Karl Marx que, interpretado para su aplicación práctica por Vladimir I. Lenin, basa su incontestable fuerza de captación en su utopía cientifista (...) En política los dogmas son inoperantes, pues la colectividad humana es mucho más compleja y diversa que cualquier principio político-cientifista o incluso teológico. La filosofía política está condicionada por los resultados prácticos, por las aplicaciones” (Agirre, 1967, 45).
- ³² “Por ende la singularidad de las figuras de nuestro derecho comunitario (caserío, minas, pastos...), el sentido democrático y federalista de nuestras instituciones políticas, nuestra tradición cofraditaria, han de inspirar y concatenarse al Socialismo humanista Vasco que requiere hoy Euzkadi y en el que el trabajador industrial, el arrantzale, el nekazari, el intelectual, el funcionario y el técnico vascos han de encontrar solución a sus problemas” (Agirre, 1967, 52-53).
- ³³ “Hitzaurre”, *Branka*, 5, 1968, 3).
- ³⁴ “Esta es la predicción esencial del marxismo. Las barreras nacionales tenderán a desvanecerse de por sí; así como el Estado marxista al servicio del proletariado deberá disolverse progresivamente...” (Usako, 1967, 39).

- ³⁵ “El marxismo-leninismo, centrado en el materialismo dialéctico e histórico, considera el problema nacional como un problema secundario” (Usako, 1967, 36).
- ³⁶ Idazkerak berak Txillardegiren luma salatzen du.
- ³⁷ “Pluralismoa, ideologia, pentsaera eta egintza diferenteak herri konkretu batean ematen dira. Pluralismoaren pentsaeran, egia absolutu edo bakarririk ez da onartzen. Pertsona ideologiaren gaineratik dagoela baisten da. Pertsona ideologi-neurrian bakarrik ez dago neurtzerik. Zerbait gehiago da. Honekin ideologiak beharrezkoak ez direnik ez dugu esan nahi (...) Pluralismoak, jokaera garbi eta zuzena hartzeko, gizontasun heldu bat eskatzen du. Baina inoiz ez du dogmakeria esan nahi (...) Gizarteko estruktura pluralista dogmakerian eror ez dadin, baldintza bat nabarmentzen da: zentzu kritikoa” (Menara, 1970, 13-14).
- ³⁸ Pasarte hau adierazgarria da: “Como socialistas estamos ABSOLUTAMENTE DE ACUERDO con la CFDT definida en el Congreso de Nantes de 1973, y con su secretario Edmond Maire; cuyas declaraciones hacemos nuestras. Debemos proclamar sin ambages que no queremos saber NADA de ese pseudo-socialismo clerical; que repudiamos radicalmente el STALINISMO y el marxismo-leninismo dogmático que lo fundamenta; que sólo podemos admitir, dentro de la corriente marxista-leninista, aun sin compartir su ortodoxia, a los grupos en que el marxismo es CRITICO, VIVO Y RENOVADOR. Y que estimamos, análogamente, que solo los neo-marxistas, porque se niegan a hacer de Marx un ídolo y de su obra una teología laica fija, merecen a nuestros ojos el título honroso de socialistas. Pero, por otra parte, y fuera ya de la corriente marxista (en la medida en que esto es posible; ya que varias de las aportaciones de Marx son DEFINITIVAS para la teoría socialista e incluso para las ciencias sociales) estimamos que todos aquellos movimientos o grupos que, sin hacer referencia expresa a Marx o a otros autores, pretenden, y lo demuestran en su práctica política, instaurar la DEMOCRACIA ECONOMICA, dando al pueblo el control real de la vida económica, SON TAMBIEN SOCIALISTAS. No ligamos así el socialismo a ninguna teoría FILOSOFICA, ni lo consideramos opuesto *a priori* a ninguna concepción, religiosa u otras” (Harribizketa, 1979, 788-789). Maiuskulak jatorrizko testuan bezala emanak datoz.
- ³⁹ “Nuestro socialismo AUTO-GESTIONARIO. No queremos que el Estado controle la economía, como quieren los socialistas de derechas; sino que queremos que la economía, como todo el resto, se lleve de ABAJO ARRIBA. La auto-gestión exige el control y la gestión de las fábricas y de otras unidades de producción por el propio CONSEJO DE TRABAJADORES; que las Universidades se dirijan democráticamente, lo mismo que los Ayuntamientos, etc... Autogestión quiere

decir PARTICIPACION REAL DE LA BASE” (Harribizketa, 1979, 789). Hemen ere maiuskulak jatorrizko testuan bezala emanak datoz.

- ⁴⁰ Hau esateko, berak transkribatzen duen aipu honetan oinarritzen da: “Esta corriente (la marxista) es tanto más fuerte (Italia, Francia, Euskadi) cuanto más potente haya sido en el país la Iglesia Católica. El fenómeno tiene explicaciones flagrantes cuando se estudia el marxismo sin complejos, y no vale la pena de insistir” (J. M. Odriozolak aipatua, 1975, 34).
- ⁴¹ “Un cierto tipo de MARXISMO IDEOLOGICO (o de pseudo-marxismo) que ha venido a reemplazar, como nueva Fe, el hueco dejado en las estructuras mentales de tipo religioso de amplios sectores del pueblo vasco por la des cristianización. A las dicotomías cristianas más conocidas: Bien - Mal, Cielo - Infierno, Virtud - Pecado, Verdad - Error, etc., han venido a reemplazar otras dicotomías ‘marxistas’ no menos mesiánicas: Proletariado - Burguesía, Marxismo - Error, Objetivo - Subjetivo, Materialismo - Idealismo, Infraestructura - Superestructura, etc. Naturalmente: el primer término de la serie es el bueno, el segundo el malo” (Harribizketa, 1979, 780).
- ⁴² “EHAS no podrá contribuir de modo muy efectivo a la solución del problema de conjunto de la izquierda vasca; puesto que tiende a recuperar el terreno –ya bien ocupado, creíamos– que llamaremos, hasta encontrar un término más adecuado, terreno de la izquierda marxistoide, izquierdosa, ‘gauchista’, o como se quiera llamar; y que LAIA, incluso ETA-PM, y varios gropúsculos podían ocupar ampliamente” (J. M. Odriozolak aipatua, 1976, 35).
- ⁴³ *Enbata*-n argitaratutako “EHAS y el abanico político vasco” artikulutik (390, 1976) hartutako haren pasarte hau transkribatzen du hemen Odriozolak (1976, 36): “sigue en pie sin grandes cambios, incluso con EHAS, el problema de la izquierda vasca, NO MARXISTA: europea, pluralista, realista, consciente de la prioridad nacional en tanto su IDENTIDAD ETNICA esté en peligro”.
- ⁴⁴ “Lucha nacional y lucha de clases” azpiatalean, honela dakar: “Así en la perspectiva de una EUZKADI LIBRE Y SOCIALISTA, que es la de toda la izquierda vasca, EL PUEBLO VASCO (excepto los sectores monopolistas y fascistas de su alta burguesía; excepto el aparato político-administrativo de represión; y excepto, finalmente, los sectores más recalcitrantes de los medios vasquizados) aparece como un fuerte BLOQUE, y aparacerá como tal aún más en el futuro; y CONSTITUYE LA BASE OBJETIVA Y SUBJETIVA DE UN FRENTE VASCO PROGRESISTA. Por un lado así vemos un Frente Español en España; y por el otro, grosso modo, en período de formación hoy

por hoy, un FRENTE VASCO en Euskadi” (Harribizketa, 1979, 773-774). Maiuskulak jatorrizko testuan bezala.

- ⁴⁵ Mai-août, I, 1971, 59-60, 1-156; Septembre-octobre, III, 1971, 1-139.
- ⁴⁶ Erredakzio-batzordea osatzen dutenak, hauek dira: Gérard Chaliand, Georges Dupré, François Maspero, Maurice Maschino, Jean-Philippe Talbo, Pierre Vidal-Naquet eta Emile Copffermann. Azken hau da aldizkari-idazkaria.
- ⁴⁷ “Le prolétariat devant l’oppression nationale d’Euskadi”, II, 1971, 44-66.
- ⁴⁸ Bertan tortura jasan zuten lekuko bat baino gehiagoren lekukotzak jasotzen dira, ETAKoenak. Gehienak 1969koak dira. Testu hori guri, Jokin eta niri, Aberasturi arabarraren eskutik heldu zitzaigun –honi ustez Juan Maria Arregik emanda–, eta hiruok eraman genuen testua Maspero argialetxean argitaratzeko prozesu osoa, Emile Copffermann-en laguntzarekin. Geroago jakin dut, José Félix Azurmendiren *PNV ETA. Crónica oculta (1960-1979)* irakurrita (Ttartalo, 2012, 125 or.), testu hori Javier Zumaldek prestatua zela eta honek argitaratzeko EAJri eman ziola, baina hauei azkenean eskuetatik joan egin zitzaieela, nora jakin gabe. Itxura guztien arabera, Juan Marik Anaia Artetik hartuko zuen. Liburu honetako lehen hiru atalak, Euskal Herriaren egoera soziopolitiko eta kulturalaz dihardutenak, Jokin Apalategirenak dira; laugarrena, euskal kleroari buruzkoa, ez gaude ziur. Luis Maria Laybarrak, ala Juan Mari Arregik berak egin zuen?
- ⁴⁹ “Minorités nationales en France”, Août-Septembre, 324-325-326, Paris.
- ⁵⁰ “Beraz gure guduka hego aldeko anaiei loturik dago gehienik, eta hauekin dugu estrategia edo jokabide bakar bat antolatu behar nahiz jokaera edo taktika desberdinekin ari behar dugun helburu edo jomuga berari buruz” (Davant, 4, 1973, 30).
- ⁵¹ “Enbata da ipar aldeko abertzale alderdi bakarra. Mugimendua honetatik bat zabaldu du azken urte hautan, baina ez da beste erakunderik agertu. Enbata sozialismora igan da, federalismoaren bitartez. ETA-ren aldean ari nahi du, Abertzaleen Alkartasun edo Frente batean (Burgosko anaiek berek nahi duten F.N.B.L. batean)” (Davant, 4, 1973, 31).
- ⁵² “Gizadia kulturaz multzoka zatitzen duen zeraren bihotzean dago mintzaira” (Davant, 4, 1973, 31).
- ⁵³ “Klase-borrokak, azpi-egituretan ari baitira, zalantza izpirik gabe, aberri-borrokak baino lehen eman behar dira, hauek gain-egitura gelditzen baitira. Hori Marx-en ikusbidearen aurka doa osoki, zeren errotik dialektikorra da Marx-en ikusbidea: honen arabera, gain-egitura sortu orduko, bere gain jartzen da eta azpi-egitura eraberritzen da; beraz ez daiteke gibeletik utz” (Davant, 4, 1973, 31).

- ⁵⁴ “Beraz URSS-eko Estatuan, hein bateko lekua badute aberri guziek, kultura mailan behintzat, eta hori Lenin-i esker erdietsi zuten. Eta ge-roztik zer? Praktikan, etnien gain finkatua den federalismo hori, zinez zauritzen eta mendratzen dute alderdi bakarraren erdirakoitasun osoak eta Errusoen trumilka sartzek” (Davant, 4, 1973, 32).
- ⁵⁵ “Ezen-eta guk, alde batetik behintzat, gizonen eta herrien subjektuta-suna goratzen baitugu” (Azurmendi, 1971, 160).
- ⁵⁶ “Eta, azkenean, ez subjektutasuna aitortuaz eta ez hura saihestuaz (à la Al-thusser) har daitezke produkzio harremanak aldi berean kultur faktoreak ere eta aurren aurrenik hizkuntza hartzeke” (Azurmendi, 1971, 161).
- ⁵⁷ “Jabegoa kultura dela esan eta, ni neu behintzat, lehen bezalaxe aurki-tzen naiz” (Odriozola, 12, 1975, 33-34).
- ⁵⁸ “Esate baterako, langilego eta populuak jakin beharko luke, nolazpait jabegoa kultura baldin bada, egungo kultura, funtsean, klase dominan-teen kultura dela. Ez edozein kultura. Ez klase menperatuen kultura” (Odriozola, 12, 1975 34).
- ⁵⁹ “Ekonomiak bere prozesua du, prozesu erreal bat, bere arau eta baldin-tza berezien baitan. Aldiz, pentsamenduak ere bere prozesua ba du, prozesu objektibo bat, bere arau eta baldintza berezien baitan. Prozesu hauek ez dira erabat independenteak, autonomia erlatibo baten ildoan doaz eta” (Odriozola, 12, 1975, 34).
- ⁶⁰ “Ez dago, hortaz, praktikarik gabeko produkziarik eta produkziarik gabeko praktikarik inon. Praktika eta produkzio mota horik, gizartean ematen dira, gizartea gizarte deino” (Odriozola, 12, 1975 , 35).
- ⁶¹ *Zabal*, 16, 1975, 17-21; 17, 1976, 31-36.
- ⁶² *Kimu Berri* taldeak 1976an, 1. artikuluan Euskal Herriaren definizioa ematen duenean, elementu objektiboak eta subjektiboak argi eta garbi bereizten ditu, dioenean: “Nazional elkarte hau aurrerabide historiko berezi baten ondorioa da, batetik, duen lurralde, hizkuntza, kultura, ekonomia eta erakunde jatorrean nabaria, eta, bestetik, elkarrekin bi-zitzeko nahi iraunkorrean agerturiko nazional kontzientziaren adie-razpenenean ongi ageria” (*Euskal Autonomi Estatutu berrirako aurre-projektua*, Bilbo, 1977, orrialderik gabe).

Bigarren zatia: Koloni eta demokrazi arazoak nazioarteko politikan

- ⁶³ Herrialde hauetako iraultzak ditu aiputan Erakundeak: Vietnam, Laos, Kanboia, Eritrea, Pertsiar Golkoa, Angola, Mozambique, Ginea Bissau, Irlanda, Quebec eta Estatu Batuetako afroamerikar mugimendua.

III. Koloni arazoak Afrikako Itsaso Gorrian

- ⁶⁴ Ezagutzen den lehen etiopiar inperioak Sudanen zuen kokagunea eta Nubia izango zen gero. Histori une garrantzitsuenak, hauek dira: I-IX. mendeetan Aksum-go erresuma bilakatu zen, eta erregeari “negus” deitzen zitzaion –erregeen erregea, alegia–, eta hauek Egiptoko eliza kop-toak kristautu egin zituen; X. mendean, islamek eta kristautu gabeko populazioen matxinadek Aksum-go erresumaren amaiera ekarri zuten; XII-XVI. mendeetan, boterea dinastiaz aldatu zen: 1140-1270 epealdian, Zague dinastiak gobernatu zuen Tala lakutik, eta gero Jekuno Amla erregeak Shewan-en eta honek inguruko herri ez-kristauekin etengabeko borrokan jardun zuen; XVI-XVII. mendeetan, 1504-40 epealdian, Lebna Dengel-en agintaldian, Grañ imanak gidatutako musulmanek ia osorik konkistatu zuten; 1540-59 epealdian, ordea, portugesak Galaudeos negusari laguntzera joan ziren eta 1543an Grañ menpean hartu zuten eta, garaipen honen ondorioz, XVII. mendean, portugesekin etorritako misiolariak Etiopia kristautzeari ekin zioten. Honela, Susenios negusa kristautzen delarik, erlijioen arteko borroka ematen da; XVIII. mendean, erlijioen arteko borroka gain, borroka sozialak ematen dira, Ras izeneko jaun feudalen artean; XIX. mendea kolonizatzaileen aldia da, eta mendearen bigarren erditik aurrera, britainiarrak agertzen dira erreformak egiten eta herria modernizatzen (1855-68) eta italiarrak Mitsiwa-ko hirian kokatzen dira (1885-1896); XX. mendean, Europako estatu kolonizatzaileen arteko borroka segitzen du Etiopian, han nor nagusituko elkarren leian. Honela, italiarrek Etiopia konkistatuko dute 1935ean, Eritrea eta Somaliarekin batera, Ekialdeko Afrika Italiarra osatuz; baina 1941ean, tropa anglofrantsesek Etiopia askatu eta negusari koroa itzuliko diote.

- ⁶⁵ “Nazional borroka Itsas Gorrian eta arabeen Itsas-kolkloan”, *Zabal*, 7, 1974, 30-33.

- ⁶⁶ “Eritrea”, *Zabal*, 7, 34-36.

- ⁶⁷ “Eritreako borroka harmatuaz”, *Zabal*, 12, 1975, 30-31.

- ⁶⁸ “Kurdistan eta Eritrea”, *Zabal*, 13, 1975, 34-35.

⁶⁹ IX. mendera arte, Karlos I.a Handia arte, Etiopiari lotua egon zen. Baina jadanik ordurako erakusten hasia zen bere kontura bizi nahi zuela. Orduan kokatu ziren musulmanak hango lurraldean. X. mendeetan Aksum-go erresumaren menpe egon zen, eta ondorengoetan, berriz, Etiopiako erresuma nagusiak hura menperatzen saiatu ziren. XVI. mendean, turkiar inperioak bereganatu zituen Itsaso Gorrian kokatutako hiri-portuak eta Eritrea ordudunik hasi zen merkatal harremanetan kanpoko herrialde eta erresumekin. Baina XIX. mendean, Italia nagusitu zitzaion Turkiari eta italiarrek 1890ean beren kolonia egin zuten eta egoera honek aldatzeke segituko du harik eta britainiarrek II. Bigarren Mundu-Gerrakoan (1941) haiek handik botako dituzten arte. Eritrea, 1945-61 epealdian, ONU/NBERen babespean geratzen da. Etiopiari dagokionez, honek ingeles kolonialismoa uxatuz, 1941ean lortzen du bere independentzia eta hemengo negusak 1952an Eritreako eskualdeari izaera autonomoa aitortzen dio, Etiopiarekin egitura federala osatuz. Baina 1962an Haile Selassie-k federazio hori hautsi eta Eritrea Etiopiako probintzia bilakatzen denez gero, mugimendu nazionalistak sortzen dira eta Etiopiaren aurkako gerrilla-gerrari ekiten diote.

⁷⁰ Jadanik 1974an, Eritreako gerrillak ia probintzia erdia bereganatua zeukan eta Etiopiako armada Asmarako hiriburuan setiatuta eduki zuen 1977an, bertan behin-behineko gobernua finkatuz. Etiopiako armadako sektore batek, sistema ia feudalaren jarraipena eta administrazio-ustelkeria salatuz, estatu-kolpea jotzen du eta agintari berriek gobernu sozialista ezartzen dute 1974ko abenduaren 20an, nazionalizazioak eginez eta lurraren erreformak bideratuz, etab. Negusa, boteretik bota eta gero, hurrengo urtean, 1975ean, hiltzen da. Mengistu Haile Mariam izendatzen dute estatu-buru 1977an eta honek, SESB eta Kubaren laguntzarekin, erregimen sozialista bultzatuko du eta, aldi berean, Eritrearen eta Somaliaren aurka gerra erregularrari ekingo dio, azken herrialde honetako Ogaden eskualdea eta Eritreako lurraldea berreskuratuz. Jokabide honen justifikazioa? Erraza da asmatzen: batetik, Etiopia sozialista bilakatu dela orain eta Eritreak ezin duela borrokarik egin hango erreakzionarioen kontra; bestetik, arrazoi beregatik, Eritreakoek eskuindarrak izanez segitzen dutela eta hauen lurraldea gerra-bidez berreskuratzea ezinbestekoa dela, sozialista bilaka dadin, baina Etiopiaren barruan. Geroago, 1987ko Konstituzio berriak Etiopia alderdi bakarreko herri-errepublika demokratikoa aldarrikatu zuen, Eritrea eskualde autonomo bilakatuz, eta hurrengo urtean, 1988an, Etiopiak eta Somaliak bake-ituna izenpetu zuten. SESB eta Kubaren laguntza galdu zuenean, ordea, Mengistu-ren erregimena ahuldu egin zen, 1989-90 epealdian gerra zibilari hasiera emanaz. Azkenean, Etiopiako gerra zibila zela bide, Eritreako Askapenerako Herri-Fronte iraultzaileak Asmara

okupatu zuen 1991n eta Eritreako behin-behineko gobernua eratu zen, Mengistu atzeriratu beharrean aurkitu zelarik. Honela, erreferenduma 1993an eginez gero, Eritreak, Etiopiatik bereiziz, bere estatu independentea lortu zuen.

⁷¹ *Egin*, 1998-06-7.

⁷² Somaliako eskualde honetan, K. a. III. milurtekoan artzain nomadak bizi ziren bertan. Gero, XI-XII. mendeetan, merkataritza musulmanek kostaldean birpopulatu zuten eta XV-XVI. mendeetan kostaldeko hiriak garatuta zeuden.

⁷³ Jibuti talde etniko desberdinetan zatituta dago, nagusi (% 61,7) somaliarrak direlarik, eta hauetan % 33,4 *issa* taldekoak, % 15 gadaboursi taldekoak eta % 13,3 *issaq* taldekoak bereizten dira; % 20 *afar* edo *danakil* etnikoak, % 6 arabiarrek, gehienak jemendar taldekoak, % 4 europarrak eta 8 besteak, hauen artean errefuxiatuak. *Afar* etnikoak Hegoaldean bizi diren artzain nomadak dira eta kusita taldeko hizkuntzaz hitz egiten dute; *issa* etnikoak, aldiz, somaliarren ahaideak ditugu.

IV. Koloni arazoak Ekialde Ertain eta Hurbilean

⁷⁴ “Nazional borroka Itsas Gorrian eta arabeen Itsas-kolkoan”, *Zabal*, 7, 1974, 30-33.

⁷⁵ K. a. III. milurtekoaren bukaeran lehortekak hiri eta oasi asko kaltetu zituen eta Indusko zibilizazioaren hondamena ekarri zuen; II. milurtekoan arioak iritsi ziren; K. a. IX. mendean, arioen ondorengoak –pertsiarrek eta mediarrak–, Zagros mendien Mendebaldean iritsi ziren; K. a. 550ean, persiarrek bere inperioa ezarri zuten mediarrak garaituz; K. a. 480-479an greziarrek persiarrek garaitu zituzten bigarren mediar gerran; K. a. II. mendean, Mitridates I.a errege artsazestarrak Persia menderatu zuen; K. o. IV-VI. mendeetan Erroma eta Bizantzioren kontra borroka egin behar izan zuten. Arabiarren konkista, berriz, 642an hasi zen eta 661ean Iran omeiatarren inperioan sartu zen. Ondoren dinastia berriak hasten dira lurraldea okupatu eta gobernatzen: abbastarren dinastia (750), buiatarrena (932-1055), seljuktarrena (1055-1071), mongolena (1220-21), Tamerlanen konkista (1381-1404), safauien dinastia (1501, 1587-1629) xiismoa estatu-erlijio bilakatuz, afganoen konkista (1709-22), kajarren dinastia (1796-). Eta abar.

⁷⁶ *Zabal*, 1, 1973, 41-41 bis.

⁷⁷ *Zabal*, 4, 1973, 28.

⁷⁸ *Zabal*, 5, 1974, 27-28.

⁷⁹ *Zabal*, 5, 1974, 29.

⁸⁰ Bibliak elkarri loturiko historia bikoitza aurkezten du “Israel” herriaren jatorriari buruz. Batetik, Ekialdetik etorritako artzain nomadek osaturiko talde bat litzateke; bestetik, Egiptoko esklabotzatik ihes egindako “hebrearren” talde bat. Beraz, ezin da esan arbaso bakarretik etorritako herri bat denik (Kessler, Rainer: *Historia social del Antiguo Israel*, Ediciones Sígueme, Salamanca, 2013, 73-74. Manuel Olasagastik itzulia: *Sozialgeschichte des Alten Israel*, 2008, 81-82).

⁸¹ “...No es fácil desestimar la insistencia de los textos en un origen no autóctono. Al fin y al cabo, otros pueblos afirmaron con igual tenacidad que habían vivido siempre –desde la creación del mundo– en el lugar donde se encontraban. Sin duda es más fácil fundamentar así la reivindicación de determinado territorio que afirmando la emigración en un tiempo u otro” (Kessler, op. cit., 83-84).

⁸² *Ibid.*, 73-74.

⁸³ *Ibid.*, 82-83.

⁸⁴ *Ibid.*, 90-95.

⁸⁵ “Ahora está claro que no hubo conquista de las zonas altas de Palestina por invasores foráneos como cuenta la Biblia, ni infiltraciones de nómadas diferentes en las montañas de Palestina para formar una alianza de tribus...” (*Ibid.*, 85, 53 oharra).

⁸⁶ *Ibid.*, 76-77.

⁸⁷ Jakingarriak dira, besteak beste, L. F. Cavalli-Sforzren *Quiénes somos. Historia de la diversidad humana* (Crítica Grijalbo, Barcelona, 1994) eta, egungo ikerketa-egoeraren sintesi gisa, F. Villar-en *Los indoeuropeos y los orígenes de Europa. Lengua e Historia* (Gredos, Madrid, 1996). Ikus azken honen 40-41 orrialdeak, zeinetan, Lituaniako Marija Gimbutas arkeologoaren tesian oinarrituz, sostengatzen baita Errusiako Hegoaldeko estepak direla indoeuroparren lehen bizilekua. Hor sortu eta garatu bide zen *kurganen* kultura deitua K. a. V. milurtekoetik hasita. Hauek bizitza erdi-nomada eramaten zuten. Herriak ezagutzen zituzten eta gauza ziren muinoetan gotorlekuak egiteko. Hortik hedatu bide zen, arkeologiaren aldetik kontrastagarriak diren bere populazioaren migrazio-mugimenduen ondorioz, beste lekuetara. Hedapenezko mugimendu honetan, hiru aro bereizten ditu:

a) Lehen hedapena V. milurtekoan eman zen, 4.400-4.200 urte bitartean, eta epealdi honetan Danubio eta Balkanetara zabaldu zen. Ikertzaile askorentzat leku hau da Europaren sorlekua; tesi honen arabera, ordea, indoeuroparrek oso goiz okupatuko lurraldea da, baina ez Europaren sehaska.

b) IV. milurtekoan, norabide desberdinetan ematen dira hedapen-mugimendua: batetik, 3.500-3000 epealdian, kurgano batzuk Transkaukasia, Iran eta Anatoliako eskualde batean sartu ziren, eta bestetik, aldi bertsuan (3400-3200), Europa ertainean.

c) Azkenik, III. milurtekoan (3000-2800), hedapen-mugimendua Egeo eta Adriatiko aldera eman zen eta, agian, Egipto eta Palestina aldera, nahiz eta hedapen honek ez zuen suposatuz azken bi lurralde horien indoeuropartze iraunkorra.

Beraz, egile honen ustez, Europaren indoeuropartzea poliki-poliki egin zen, milaka urte iraun zuen prozesu baten ondorioz, zeinetan populazio-mugimendu oso korapilatsuak gurutzatzen baitira, hizkuntzek aurrera eta atzera egiten dutelarik. Europa, honela, arraza, hizkuntza eta kulturaren hibridazio eta mestizaia indartsu baten ondorioa da.

⁸⁸ “Tout le génie des auteurs du VIIème siècle, créateurs de cette épopée nationale, réside dans l’habileté avec laquelle il sont tissés les histoires antérieures. Abraham, Isaac et Jacob sont à la fois des êtres vivants, dotés d’une haute spiritualité, et métaphoriques ancêtres du peuple d’Israël. Les douze fils de Jacob ont été introduits dans la tradition comme des frères cadets qui viennent compléter la généalogie. Tout l’art du récit biblique est de nous présenter les fils d’Abraham, d’Isaac et de Jacob, comme les membres d’une seule et même famille” (Israel Finkelstein et Neil Asher Silberman: *La Bible dévoilée. Les nouvelles révélations de l’Archéologie*, Bayard, 2002, 2. arg., Paris, 62-63).

⁸⁹ “Outre cette condamnation du riche et du puissant, Amos et Osée expriment une dénonciation acerbe des injustices sociales, de l’idolâtrie et des tensions domestiques que provoquent le commerce international et la dépendance envers l’Assyrie (...) Ces condamnations prophétiques précieusement conservées par les disciples d’Amos et d’Osée, ont pris une dimension nouvelle après la chute du royaume d’Israël” (Finkelstein et Silberman, op. cit. 248).

⁹⁰ Ternon, Yves: *El Estado criminal. Los genocidios en el siglo XX*, Península, Barcelona, 1995, 138-140.

⁹¹ Hildakoen zifra hau Raul Hilberg-ek ematen du bere *La destruction des juifs d’Europe* lanean; Yves Ternon-ek aipatua, in op. cit., 129-130.

⁹² Irakurtzekoa da Werner Keller-en liburua: *Historia del Pueblo Judío. Desde la destrucción del Templo al nuevo estado de Israel*, Ediciones Omega, Barcelona, 1969.

⁹³ *Egin*, 1998-05-15.

⁹⁴ *Egin*, 1998-05-15.

⁹⁵ *Zabal*, 9, 1974, 27-29.

- ⁹⁶ Zipre-ra herri mizenikoak etorri ziren K. a. II. mendean; gero pertsiarrak eta egipziarrak; gero erromatarren Inperiokoa izan zen (K. a. 58-K. o. 395); gero bizantziar inperioaren menpekota (395-1191); gero veneziarrak, egipziarrak, frankoak eta beste batzuk ibiliko dira hura okupatzen (1192-1489); gero Veneziako Errepublikaren menpekota bilakatuko da (1489-1571); Otomandar Inperiokoa (1571-1878); azkenik, Britainiar Inperiokoa (1878-1960).
- ⁹⁷ Hau Grezian eskolatutako zipretar militarra zen, EOKA (Epanastatiki Organosis Kypriakou Agonos) sortu zuena, hots, Zipre-ko Borrokarako Erakunde Iraultzailea.
- ⁹⁸ Zipre-ko Errepublika 1959an aldarrikatu zen eta bere erabateko independentzia 1960ko abuztuaren 16an lortu zuen. Geroago, NBEko partaide bilakatu zen (Angoso, R., op. cit., 212).
- ⁹⁹ Ibid., 27.
- ¹⁰⁰ Angoso, Ricardo, “Chipre, un conflicto sin resolver en el mediterráneo oriental”, in Aguirre, M. (ed.): *Raíces de los conflictos armados. Anuario del CIP 1996*, Icaria, Barcelona, 1996, 205-225.
- ¹⁰¹ Ibid., 215-216.

V. Koloni arazoak Asian

- ¹⁰² “Kurdistan eta Eritrea”, *Zabal*, 13, 1975, 34-35.
- ¹⁰³ Estatuak finantzatutako erakunde paramilitar bat zuzentzen duen Bucak izan ezik, beste guztiak hil egin ziren istripu horretan. Baina zihozten kotxean aurkitu zituzten arma eta dokumentuak arakatuz, agertu da harremanak zeudela estatuaren, droga-mafien, eskuineko terrorismoaren eta Turkiar Kurdistan-en egindako asasinatu gehien erantzule diren heriotza-eskudroien artean. Espainiako CESIDen antzekoa den IEN (Inteligentziako Erakunde Nazionala) hor barruan sartuta zegoen: “Una de las novedades más importantes respecto a esta guerra es el escándalo para todo el país que se produjo el 3 de noviembre, cuando, debido a un accidente de tráfico en Susurluk (Balikesir), se descubrieron las estrechas conexiones entre un alto responsable policial –Husein Kocadag–, un diputado del partido de la ex primera ministra Tansu Çiller –Sedat Bicack–, un terrorista de la ultraderecha vinculado a las mafias de la droga –Abdula Catli– y una mujer –Gonca Uz– relacionada con la Organización Nacional de Inteligencia (MIT), semejante al Cesid español” (Belmonte de Rueda, Esperanza y Marorell, Manuel, op. cit., 1996, 257).

- ¹⁰⁴ Eagleton, Wiliam: *La République kurde de 1946*, Ed. Complexe, Bruxelles, 1991.
- ¹⁰⁵ *Zabal*, 13, 1975, 34-35.
- ¹⁰⁶ NBEk ezarritako egitaraua da, Golfoko gerra bukatu eta gero, kurduen populazioa irakiar errepresalietatik zaintzeko. Egitarau honek, 1996ko urte bukaera arte, lurrezko zein aireko eragiketa guztiak hartzen zituen; 1997tik aurrera, aireko jagoletza bakarrik egingo da.
- ¹⁰⁷ *Zabal*, 3, 1973, 25-27.
- ¹⁰⁸ Mikel Urteaga “Baigura”k ideia hauek *Le Monde*ko 19373-03-9ko editorialetik eta Maiatzeko 25/26/27/28tik jasota laburtuak ditu, berak bukaeran jakinarazten digunez.
- ¹⁰⁹ Bihar-ko estatua Indian Dekhan-dik Ipar-ekialdera eta Ganges-ko lautadatik Ekialdera aurkitzen da. Demografiaren aldetik, ez da batere txikia. Egun 69.825.000 biztanle ditu eta 174.000 kilometro karratuko lurraldea du. Biztanlez Espainia osoa halako ia bi da.

VI. Nazio arazoak Mendebaldeko Europan

- ¹¹⁰ Iztueta, P., “Bretania Haundiko herriak”, *Zabal*, 13, 1975, 14-19; “Irlanda kolonizatu”, *ibid.*, 20-32.
- ¹¹¹ Busquets, J.: *Introducción a la sociología de las nacionalidades*, Cuadernos para el Diálogo, Madrid, 1971, 46-48; 116-122.
- ¹¹² Crossman, R.H.S.: *Biografía del Estado moderno*, FCE, México, 1965, 57.
- ¹¹³ Jiménez de Parga, M.: *Los regímenes políticos contemporáneos*, Tecnos, Barcelona, 1965, 279-281.
- ¹¹⁴ Jakobo II.a katolikoa zen, herriaren gehiengoa protestantea zen bitartean. Haren seme Jakobo Estuardo jaio zenean 1668an, Ingalaterran dinastia katolikoa ezarriko zela ikusirik, zenbait “tory”k –(goi-burgesiakok) edo anglikanok–, Probintzia Batuetako edo Herbehereetako Gilermo Orangekoari, Jakobo II.aren suhiari, deitu zioten. Honek armaz hartu zuen Ingalaterra eta Jakobo II.a Frantziara joan beharrean aurkitu zen.
- ¹¹⁵ Balere Bakaikoak, Ray Burnette-ren artikuluan oinarrituz (“Socialists and the SNP”, *The Red paper, on Scotland*, Gordon Brown), iritzi hau aurreratzen du: “Eskoziaren arazo guztiak Westminster-ko zentralismoaren ondorio besterik ez dira, eta arazo hori konpontzeko bide bakarra, estatu independente bilakatzea litzateke” (“Alba/Eskozia”, *Jakin*, 2, 1977, 55).
- ¹¹⁶ Balere Bakaikoarena da esaldi hau: “Orain, gaelikoa ez da bortxaz menperatutako hizkuntza bat izan eta hango kultura eta erakunde kultu-

ralak ez dira indarrez baztertu; baizik, batzuk jarraitu egin dute eta beste batzuk ezkutatu egin dira” (“Alba/Eskozia”, *Jakin*, 2 zk., 1977, 49).

- ¹¹⁷ “Cymru/Gales”, 2, 1977, 66-71.
- ¹¹⁸ “Hizkuntz problemaren tratamendua beste erresumetan”, Siadeco/Euskaltzaindia, 1978; ikus Gales-i buruzkoa, 578-589.
- ¹¹⁹ “Los estudios sobre el bilingüismo en el País de Gales”, in Ries, N.; Hugues, J.; Saer, D. J., (arg.), op. cit., 1932, 43-48.
- ¹²⁰ “Estudio de los problemas psicológicos del bilingüismo”, in Ries, N.; Hugues, J.; Saer, D. J., (arg.), op. cit., 1932, 49-64.
- ¹²¹ “El bilingüismo y la educación a la luz de las investigaciones hechas en el País de Gales y en Bengala”, in Ries, N.; Hugues, J.; Saer, D. J., (arg.), op. cit., 1932, 65-79.
- ¹²² Ries, N.; Hugues, J.; Saer, D. J., (arg.): *El bilingüismo y la educación*, Oficina Internacional de la Educación, Espasa-Calpe, Madrid-Barcelona, 1932. Batzar honetara 9 hitzaldi eta 4 komunikazio aurkeztu ziren artean, horien artean Galesi buruzko hiru horiek.
- ¹²³ “El idioma galés. Su lugar en la educación en Gales”, *III Congreso de Estudios Vascos, Recopilación de los trabajos de dicha Asamblea, celebrada en Guernica del 10 al 17 de Septiembre de 1992*, San Sebastián, Imprenta de la Diputación, 1923, 126-132.
- ¹²⁴ Elkar lanean: “Bilingüismo”, *Lucha e idiomas en Euzkadi y Europa*, Euskaltzaleak, Donostia, 1935, 5-34.
- ¹²⁵ Rice, Pat: “El ejemplo irlandés”, *Egin*, 1997-11-16, 12.

VII. Demokrazi arazoak

- ¹²⁶ Iztueta, Paulo: “Autodeterminatzeko eskubidea”, in Paulo Iztueta (zuz.): *Politika!! Hiztegia*, UZEI, 1980, 60-62.
- ¹²⁷ “Democracia y autodeterminación”, in Talde-Lanean: *Autodeterminación de los Pueblos: Un reto para Euskadi y Europa*, I tomo, Colectivo Herria 2000 Eliza, 1985, Bilbao, 66.
- ¹²⁸ “Xile-ko itsuskeria”, *Zabal*, 4, 1973, 24.
- ¹²⁹ “Xile”, *Zabal*, 5, 1973, 21-25.
- ¹³⁰ “Portugal: militarrek iraultzaile?”, *Zabal*, 8, 1974, 21-25.
- ¹³¹ Portugaleko 1933ko Konstituzio berriak diktadura instituzionalizatu egin zuen eta Salazar-ek “estatu berria” ezarri zuen, alderdi politikoak eta sindikatuak debekatuz eta oposizioa zapalduz.

¹³² “Bata, Portugaleko herriaren sozio-ekonomiko egoera miserablea da. Honen adierazgarri bezala zenbait adibide aipatuko dugu. 1967-tik 1971ra Portugalen jaiotzen ziren mila haurretarik berrogei eta hemezortzi, hiltzen ziren. Europa guztian eta munduan zehar ere zifrarik handienetakoa da. Izan ere, gaur egun jakintzak eta aurrerapenak haurtzaroren ziurtasun bat erdietsi bai digute. Nazional heziketari ia ezeren laguntzarik ez zaio ematen. Gaineratiko Herrietan ematen zaionarekin gonbaratzen badugu, txiroenatarik da. Honela, Portugalen %-ko 35ek ez dakite irakurtzen eta idazten. Finean, 1961z gero Portugaletik, hots, 8,8 milioi jendetza duen Herritik, 1,6 milioi bizilagun atzerriratu dira: lan gabeziagatik eta gudura ez joateagatik. Bestea, Portugalak bere Afrikako kolonietan daraman gudua aterabide gabea da. Eta orain, batik bat, Spinola jenerala hurbil-hurbiletik akuilatu duen arrazoi bat aipatzen ari gara. Honela, azken hamahiru urtetan, 60.000 portugaldar hil dira guduan. Eta 1970eko urtean bakarrik Estatuko gastuetarik, %-ko 46 guduak jan zuen. Bistan da gastu hauen erritmoari eusteko atzerriko kapitalari atea irekitzen zaizkio. Portugaleko erregimen kolonialistak hau egitean barreneko kapital indargabeari egiten dion ‘kaltea’ erremediatzeko, 1965etik 1967ra ‘plano intercalar’ deituriko birrekilibrio ekonomiko bat praktikatzen da. Gainera, Portugal barreneko kapitalak kolonietan dituen interesak aurrerabidean ikusteko nahitaezkoa du atzerriko kapitalen laguntza hau. Era berean, atzerriko kapitalak Portugali ematen dion laguntza honen kolonietarako giltza da” (Ibid., 8, 1974, 21).

¹³³ *Zabal*, 16, 1975, 7-16.

¹³⁴ “Soljenitsyne”, *Zabal*, 6, 1974, 37-43.

¹³⁵ “Europaren sabeleko mina”, *Zabal*, 10, 1974, 23-29.

¹³⁶ “Iraultzaileak”, *Zabal*, 6, 1974, 33-36.

¹³⁷ Ibid., 35.

¹³⁸ “Atzerritarren artetik abots lagunak”, *Zabal*, 3, 1973, 21-23.

¹³⁹ “Préface de Jean-Paul Sartre”, in G. Halimi: *Le procès de Burgos*, Gallimard, Paris, 1971, VII-XXX.

¹⁴⁰ “A Burgos, enchaînés et, pour ainsi dire, baïllonnés, les accusés, au prix d’une bataille de tous les instants, sont parvenus à faire le procès de la centralisation” (Ibid., VII).

¹⁴¹ Sastre, A.: “Dialoguillo de uno y dps”, *Camp de l’arpa*, 6, Marzo-abril, Barcelona, 1973.

¹⁴² *Kultura proletarioaz*, EFA/Jakin, Arantzazu, 1973.

Hirugarren zatia: Esker abertzalea independentzia eta sozialismoaren xeka

VIII. Hegoaldeko euskal politikaren nondik norakoa frankismoan

- ¹⁴³ “Gerra ondoko politikazko akordioen urratsak”, *Zabal*, 10, 1974, 3-7; 11, 1975, 15-21; 12, 1975, 1-9.
- ¹⁴⁴ *Branka*, 2, 57.
- ¹⁴⁵ *Branka*, 3-4, 22.
- ¹⁴⁶ “ETAkoek etsaia buruan jo dute”, *Zabal*, 5, 1974, 10.
- ¹⁴⁷ *Ibid.*
- ¹⁴⁸ “Carrero Blanco”, *Zabal*, 6, 1974, 18-23.
- ¹⁴⁹ “Liberalizazioa”, *Zabal*, 8, 1974, 15-17.
- ¹⁵⁰ “Frankismoaren azken ostikoak?”, *Zabal*, 14, 1975, 1-3.
- ¹⁵¹ *Euskal Elkargoa*, 68, 1975, Donibane Lohizune
- ¹⁵² “Espainiako Estatuaren egoera larria. Bost Heriotz-Zigor”, *Zabal*, 15, 1975, 11-14.
- ¹⁵³ Jean-Louis Davantek, euskal ezkerrez jardutean, zaku berean sartzen ditu hauek: 1) ETA-tik 1966an irtendakoen artean, bi talde daude: a) gaur MCE izenarekin ezagutzen dena, Maozalea; b) *Branka* taldea, sozialista humanista. 2) ETA-tik 1970ean ateratakoen artean: a) ETA Sexta Asambla, gaur LRC edo Liga Komunista Revolucionaria izenarekin ezagutzen dena, Troskista; Saioak, PCEn sartu zirenak. 3) Maozaleak dira MCE, ORT eta FRAP. Autodeterminazioaren aldekoak dira bai Maozaleak bai Troskistazaleak. Baina praktikan bigarren mailan uzten dute. Euskal kulturaren alorrean ez dira hainbat ikusten. 4) Seigarreneko troskistak ikasleen artean ikusten dira gehienbat; ORT langile katolikoetatik dator eta Nafarroan ongi sartua dirudi; FRAPek ez duke errorik Euskal Herrian (“Euskal ezkerrez”, *Zabal*, 15, 1-3).
- ¹⁵⁴ “Likidazionistak eta gu”, *Zabal*, 15, I, 1975, 3-5; 16, II, 1975, 4-6.
- ¹⁵⁵ “Abangoardia faltsoak”, *Zabal*, 1976, 29-32.
- ¹⁵⁶ *Zabal*, 13, 1975, 5-8.
- ¹⁵⁷ *Goiherri bailara industria bidean*, 1970.
- ¹⁵⁸ “Krisis ekonomikoa”, *Zabal*, 18, 1976, 51-56.
- ¹⁵⁹ “Euskal Herriko ekonomiaz”, *Zabal*, 19, 1976, 3-9.

IX. Iparraldeko olde armatu eta sozialista berri batzuen abiada

- ¹⁶⁰ *Zabal*, 1., 1973, 10-28.
- ¹⁶¹ “Kantonamenduetako bozkak”, *Zabal*, 4, 1973, 19-20.
- ¹⁶² “Bozak Ipar Euskal Herrian”, *Zabal*, 8, 1974, 1-9.
- ¹⁶³ “Laborariak borrokan”, *Zabal*, 1, 1973, 31-33.
- ¹⁶⁴ “Aberri egunari eta Maiatzaren lehenari buruz”, *Zabal*, 2, 1973, 17-29.
- ¹⁶⁵ “Langilea”, *Zabal*, 2, 1973, 14-16.
- ¹⁶⁶ “Ekonomialaro berri bat”, *Zabal*, 4, 1973, 21-23.
- ¹⁶⁷ *Zabal*, 5, 1974, 17-19.
- ¹⁶⁸ *Zabal*, 7, 1974, 19-23.
- ¹⁶⁹ *Zabal*, 8, 1974, 9-12.
- ¹⁷⁰ “Turizma eta putakeria”, *Zabal*, 2, 1973, 9-13.
- ¹⁷¹ “Ipar Euskal Herriko feriak”, *Zabal*, 3, 1973, 3-4.
- ¹⁷² “Ziberoko zindikata”, *Zabal*, 4, 1973, 16-18.
- ¹⁷³ “Nondik heldu dira lantegietako kalapitak eta borrokak?”, *Zabal*, 3, 1973, 15-19.
- ¹⁷⁴ “Turismoa, emeki emeki, ipar alde honetako jainko bilakatu zaigu. Eta, egoiliar, langile eta nagusi, nahiz ez dituzten interes berdinak turismoan, denak berdin haren agurtzaile, adoratzaille ditugu” (Ibid., 15).
- ¹⁷⁵ “Turizmaren langile”, *Zabal*, 5, 1974, 11-12.
- ¹⁷⁶ “Aberri Eguneko adierazpena”, *Zabal*, 1, 1973, 29-30. “M.G.” inzialez izenpetzen duen hori Manetx Goihenetxe delakoan gaude.
- ¹⁷⁷ “Aberri eguna, xuri, gorri eta beltza”, *Zabal*, 18, 1976, 47-51.
- ¹⁷⁸ “Maiatzaren lehenaz”, *Zabal*, 1, 1973, 34-40.
- ¹⁷⁹ “Aberri egunari eta Maiatzaren lehenari buruz”, *Zabal*, 2, 1973, 17-29. Artikulu hau sinadurarik gabe badator ere, Beñat Oihartzabalena izateko traza guztiak dauzka.
- ¹⁸⁰ H.I., “Laborariak borrokan”, *Zabal*, 1, 1973, 31-33.
- ¹⁸¹ “Aberri Egunaz eta Maiatz Lehenaz”, *Zabal*, 3, 1973, 40-43.
- ¹⁸² “Abertzaleak haste-hastetik laborarien eta langileen alde arizan gara”, *Zabal*, 2, 1973, 2-5.
- ¹⁸³ “Johañe Aizager-i ihardespena”, *Zabal*, 4, 1973, 50-52.
- ¹⁸⁴ “Bego hortan. Jo aintzina”, *Zabal*, 4, 1973, 53-54.

- ¹⁸⁵ *Zabal*, 4, 1973, 48-49.
- ¹⁸⁶ *Zabal*, 6, 1974, 23.
- ¹⁸⁷ *Zabal*, 15, 1975, 1-3.
- ¹⁸⁸ Davant, J.L.: “Euskal ezkeraz”, *Zabal*, 15, 1975, 2.
- ¹⁸⁹ “Herriko Alderdi Sozialistaren ikuspegi oinarriak”, *Zabal*, 7, 1974, 16-18.
- ¹⁹⁰ HAS, “Euskal olde sozialista zabal bati buruz”, *Zabal*, 9, 1974, 18-20.
- ¹⁹¹ “Ipar Euskadiko Itsas hegiko egoeraz, Iparretarrak mintzo”, *Zabal*, 14, 1975, 8-13.
- ¹⁹² *Zabal*, 18, 1976, 37-44.
- ¹⁹³ “Euskal departamenduaz”, *Zabal*, 11, 1975, 1-13.
- ¹⁹⁴ “Azken gose-grebaz zenbait gogoeta”, *Zabal*, 1, 1973, 3-9.

X. ET Aren antolaketa-arazoak

- ¹⁹⁵ *Euskadi Ta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, II, Txalaparta, 1993, 260-261. Federiko Krutwigek egindako ekarpena izan zen lau adar hauena, honen heriotzarakoan Jokin Gorostidik aitortu bezala (*Egunkaria*, 1988-XI-17).
- ¹⁹⁶ Lehen zatiketa eman zen 1967ko V. Biltzar Nagusi hartan, lau txosten nabarmentzen dira: lehenik, ETAko Bulego Politikoan jarrera likidazionistetan usmatzen den “sindikalismoa”, Del Río eta Iturriozek aldarrikatzen dutena; bigarrenik, Julen Madariagak 1963an idatzitako “La insurrección en Euskadi” izeneko txostena, zeinetan Hirugarren Munduko gerrillaren planteamenduak egiten baitira; hirugarrenik, Txillardegik eta honen taldekoen planteamendu kulturalistak; laugarrenik, Jose Antonio Etxebarrietaren “Qué hacer” izeneko txostena, zeinetan Kubako iraultzaren miresle agertzen baita. Bertan, orokorrean, Etxebarrieta anaiek, Madariagak, Eskubik, Bareñok, Bilbaok eta Krutwigek sostengatzen dituzten tesi marxistak nagusitzen dira eta, ondorioz, ETA erakundetik at geratzen dira “Felipeak” deituak eta Txillardegiren taldekoak (*Euskadi Eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, III, op. cit., 271-276).
- ¹⁹⁷ Urte mugitua da 1970ekoa: maiatzaren 20an, hogeita hamar lagun lehen gose-greba egiten hasten dira Baionako katedralean, horien artean Monzon eta Txillardegik, hil bereko 28an bukatuko dena; ETAko zuzendaritzak “Carta a los makos” izeneko txostena igortzen die kartzelatuei 1970eko maiatzaren 19an eta urte bereko abuztuaren 31n, berriaz, bere VI. Biltzar Nagusia egingo du Itsasun; V.eko beste sektoreko

batzuek ez baitute onartzen (*Euskadi Eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, III, 197), lehenago zuzendaritzako sei kidek VI. Biltzar horren kontrako agiria izenpetzen dute 1970eko abuztuaren (Ibid., 247); 1971ko abenduan, ETA Sextako sektore batek, *Barnuruntz* taldekoak, beste Biltzar bat egiten du, zeinetan ETA Sextatik erabat aldentu eta beste kolektibo komunistekin elkartzea erabakitzen baitu; 1972ko abenduan, ETA Sextakoen Biltzarraren bigarren zatia egiten da, talde troskistak deituta, LCRkin (Liga Comunista Revolucionaria) elkartzeko xedearekin eta, ondorioz, erakunde internazional horrekin elkartzen da 1973ko azaroan; beraz, ETA Sextakoak, geroztik, “mayoritarios” eta “minoritarios” izeneko taldeetan zatituko dira, lehenengoak troskistak aitortzen direlarik, IV. Internazionalaren xedeekin ados datozenak eta, honela, ETA Sextak sorrerako erakundearen izena erabiltzeari utzi egiten dio (Ibid., 131). ETA Sextaren zatiketa Burgosko prozesua baino hiru hilabete lehenago gertatu zen. ETAK, *Hautsi* 4. zenbakian dakarrenez, Erakundeak inoiz ezagutu duen krisirik sakonena ezagutu zuen orduan, zatituen kopuru handiarengatik eta eman zen une kritikoarengatik: “Tanto por la importancia numérica de los escindidos, como por la conyuntura en que se dio, tal rotura fue, a nuestro juicio, la crisis más profunda con la que se ha enfrentado ETA. Nunca hasta entonces la continuidad en la línea que tanto nos había prestigiado entre todos los trabajadores y el resto del pueblo vasco se había visto tan seriamente comprometida” (Ibid., 131). Hor bi arrazoi aipatzen dira: zatituen kopuru handia eta zatiketa eman zen garaia, Burgosko prozesuaren atarian. Hor ondorioak bakarrik datoz, baina ez zatiketaren arrazoiak berak. Hauek, egia esan, modu nahasian datoz emanak, unean uneko gertakarien harian. Praktikan Erakundearen dinamika aldenduak zeuden sei kide horien Agiria eta J. J. Etxaberen protagonismoa batera doaz Burgosko prozesu-garaian. ETA Sextakoek, gehiengo osatzen zuten baseko militanteen artean zuhurki jokatu, ETAKo “militarrak” deituak jadanik aski desprestigiaturik zegoen J. J. Etxaberen izenarekin berdintzen dituzte eta ETAREN ideologia, berriz, Agiria izenpetzen duten seiko horienarekin. Hor zegoen arazoa: hots, ez J. J. Etxabek ez sei horiek ez zutela ordezkatzeko unean hartan ETAREN egiazko oinarri soziologikoa, neurri apalean izan ezik. Horrela esplikatu da ETA Sextakoen eragina hainbeste zabaltzea, bai herri-mailan, bereziki Herri Gazteriak irekitako gizarte-sare zabalean, presoek kolektiboan eta, arestian esan bezala, barruko militantzian.

¹⁹⁸ Ibid., III, 192.

¹⁹⁹ Ikus Biltzarrean onartutako 4 orrialdeko txostena, “Por qué estamos por un Estado Socialista Vasco” (Ibid., III, 133).

²⁰⁰ Ibid., 149.

- ²⁰¹ Ibid., IV, 26-32.
- ²⁰² Honen pentsamoldea, *Langile* aldizkarian biltzen da, lehen zenbakia 1974ko uztailekoa delarik. ETarentzat, langile-erakunde berri honek bost puntu hauek jasotzen zituen: bateratzailak izatea, egonkorrak, isilekoak, demokratikoak eta aurrerakoiak (Ibid., IV, 31).
- ²⁰³ Honi buruzko lehen iturria, *Sugarra* da. Ikus, erakunde hau zehazkiago ezagutzeko, *Notas sobre la Historia de LAIA* izeneko lana; 1978-05-24koa da.
- ²⁰⁴ *Euskadi Eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, IV, op. cit., 29.
- ²⁰⁵ “Militargintza euskal iraultzan”, *Zabal*, 9, 1974, 2-6.
- ²⁰⁶ “En 1972 había cristalizado en ETA la fusión de la mayoría de la militancia que en EGI había adoptado el nombre de ‘Batasuna’. La transformación que sufrió EGI fue producto de un análisis similar sobre las necesidades que había visto la primera ETA (...) El proyecto de fusión venía desde 1968 y en él confluyeron dos líneas bien distintas. Finalmente el acuerdo sería entre EGI y ETA. Desde *Branka*, y en especial tras la izquierdización de ETA, había habido un intento de atraer a EGI, que se presentaba como una formación sólida, hacia un proyecto alternativo nacionalista, a medias entre el PNV y la organización ETA. Pero este proyecto que tomó el nombre de ‘Aintzina’, contaba con una evidente falta de espacio natural. La maniobra de *Branka* no tendría efecto alguno, porque los militantes de EGI, como los de ETA, eran hijos del 68 vasco, con las muertes de Etxebarrieta y Manzanas, o del proceso de Burgos. Finalmente EGI-Batasuna entraría en ETA. El 20 de setiembre de 1972 Jonan Aranguren, uno de los artificios de la unificación, sería muerto por la Guardia Civil en Urdazubi (...) La nula actividad del PNV había propiciado gran parte del acercamiento. Los jeltkides entrenaron desde villa de Izarra, de Beyris, en las cercanías de Baiona, a grupos de jóvenes para la acción. También reivindicaban con orgullo las acciones armadas de EGI entre 1968 y 1969. Pero con la muerte de Joseba Rezola en 1971, el abandono de las aventuras armadas se hizo total (...) En el Aberri Eguna de 1972 se había sellado oficialmente, en un piso de Erandio, la incorporación orgánica de EGI (el calificativo ‘Batasuna’ era aportado por el PNV, quien no reconocía a la organización juvenil) en ETA. Para entonces EGI había realizado campañas activistas parciales paralelamente a la formación de sus miembros, que llegaron a ser casi 500 en la época de la fusión. Sus dos máximos representantes en las conversaciones con ETA había sido Iñaki Mugika y Jonan Aranguren. El texto del documento de la integración recogía cuatro puntos de encuentro: independencia con reunificación para Euskal Herria, socialismo, euskaldunización y referencia de ETA como organización revolucionaria” (Ibid., III, 100-101).

- ²⁰⁷ Hazparnen egiten den ETAREN VI. Biltzar Nagusiko lehen zatia bukatu eta hurrengo hilean, iraileko *Hautsik*, bere 4. zenbakian, erakunde gisa egoera osasuntsuan aurkitzen zela aitortzen zuen: “En estos tres años ETA ha recuperado el prestigio puesto en entredicho tras la escisión de Sexta y, con él, la legitimidad de sus siglas. Pero más que ello, más que todas las siglas, más que todo el prestigio, lo que se ha reafirmado ha sido la conciencia abertzale, la conciencia de que somos Pueblo” (Ibid., III, 132). Indartsu sentitzen delako, 1973ko irailean “Txikia” komandoa Madrilera joaten da Carrero Blanco-ren atentatua presatzera (Ibid., III, 145). Biltzar Nagusi honen bigarren zatia 1975eko urtarrilean egin zen (Ibid., III, 132).
- ²⁰⁸ Carrero Blanco-ren atentatua gertatu bezain laster, abenduaren 20an bertan, ETAK bere gain hartu zuen ekintza, baina ez zioten sinetsi. Horregatik, abenduaren 22ko bigarren agirian, nahasketarik egon ez zedin, hilketaren erantzukizun osoa berea zela berrestera behartua aurkitu zen: “Argi eta garbi ukatu nahi ditugu ETA-ko ez diren organizazio eta pertsona batzuen esanak (Leizaola jauna, Euskal Gobernu-buruarenak; España-ko Komunista Alderdiaren Biltzarrarenak). Ezen hauek ukatu egin nahi izan baitute Carrero Blanco jaunaren hilketan gure erantzukizuna. Jokabide hori, gure ustez, frankismoaren kontrako oposizioan buru agertu nahi duten buruzagiengan, prestutasunik eza harrigarri eta larria iruditzen zaigu” (Ibid., III, 147). Poliziak atentatu-egilezat, Jabier Larreategi, Jose Migel Beñaran, Jose Antonio Urrutikoetxea, Iñaki Perez Beotegi, Juan Bautista Eizagirre eta Joseba Abaitua jo zituen. Jose Migel Beñaran (Argala) izan omen zen aparatu elektronikoaren botoia zapaldu eta leherketa eragin zuena.
- ²⁰⁹ Honela dio: “La euskerización como primer paso para la revolución cultural vasca debe ser:
- A escala de ETA: total, como ejemplo y efectividad.
 - A escala popular: devolver el euskara al Pueblo Vasco es devolverle sus propios esquemas mentales nacionales.
- Para desarrollar este Frente Cultural:
- Controlar ikastolas, etc. (...)
 - Desarrollar actividades marginales tales como grupos folklóricos, teatrales, etc., en las que se tenderá a presentar cosas modernas, progresistas, que aumenten la combatividad popular.
- Todas estas tareas han de ser desarrolladas por adherentes a la organización juntamente con la Oficina Paralela” (Ibid., II, 260).
- ²¹⁰ Hala irakurtzen da pasarte honetan: “Este último englobaría al Frente Cultural en su totalidad, creando un pequeño organismo autónomo que pasaría a llamarse ‘Euskal Kultura’ y que se encargaría de profundi-

zar en los trabajos sobre ikastolas, enseñanza del euskera, promoción de la cultura vasca, etc. De este manera quienes trabajaran en este campo se verían con mayores posibilidades de no sufrir la represión directa por el hecho de ser militantes de ETA” (Ibid., III, 103).

²¹¹ Ibid., IV, 28.

²¹² *Zabal*, 10, 1974, 37-41. Zuhurtziatzko neurriengatik, aldizkari hone-tako zenbait artikulua izenpetu gabe datoz edo ezizenez izenpetuta. Ar-tikulu horretan Apalategiren luma ikusten da. Izan ere, 10. zenbakian dakarren euskal kulturari buruzko artikulua hau hertsiki-hertsiki loturik doa aurreko zenbakian ETArekin militarrez zekarrenari. Ideia bertsuak errepikatzen dira bietan. Berea dela ziurtatu digu.

²¹³ “IRATIri erantzunez”. Artxibategi pertsonala.

²¹⁴ Izarreko, “ETAko batzuk autokritikatuz datozkigu”, *Zabal*, 11, 1975, 24-28.

²¹⁵ “Euskal proletalgora, Burgoskoak eta L.A.I.A.”, *Zabal*, 12, 1975, 14-20.

²¹⁶ “LAIA-ren *Sugarra* kritikatu”, *Zabal*, 13, 1975, 10-13.

²¹⁷ “*Sugarra*-ri buruz Iparreko batzuen erantzuna”, *Zabal*, 1, 1975, 4-7.

²¹⁸ Ikus J. L. Davant, “Euskal ezkeraz”, *Zabal*, 15, 1975, 1-3.

²¹⁹ “ETAko batzuk autokritikatuz datozkigu”, *Zabal*, 11, 1975, 25-27.

Laugarren zatia: Kultura, hezkuntza, gai berriak

XI. Euskal kulturaren soziologiaz

²²⁰ Sarraih de Ihartza, F.: *Vasconia. Estudio dialectico de una nacionalidad*, Ediciones Norbait, Buenos Aires, 1962. Irakurtzekoak dira nazionalitatearen eta etniaren gainean idatzitako atalak, 19-75 orrialde bitar-tekoak. Haren tesia da pentsaera eta kulturaren sustrairik garrantzi-tsuena, zalantzarik gabe, hizkuntza dela: “Mentalidad y cultura. Estos dos factores están estrechamente relacionados al idioma y, sin que se pueda decir que se deriven únicamente de él o que el idioma esté, a su vez, preferentemente influenciado por ellos, el idioma es sin duda el sostén más importante de ambos” (ibid., 21). Kultura batek hizkuntzaz gain beste elementu osatzaile batzuk baldin baditu ere, azken hori du funtsezkoena.

²²¹ *Euskal gaztedia kultura bideetan. Jakintza berria*, 29, 1968, 5.

²²² *Jakin*, 30, 1968, 5-7.

- ²²³ Jokin Apalategi, Mikel Azurmendi, Mikel Lasa, Ibon Sarasola eta Joan Mari Torrealdai dira lankide gisa parte hartzen dutenak zenbaki horretan.
- ²²⁴ Paulo Iztueta “Meakaberri”, *Zabal*, 1, 1973, 53-57.
- ²²⁵ Profesionaltasunaren beharraz dihardu esplizituki *Jakinek* 34. zenbakian. Horko sarreran, ordura arteko kulturgintzan nagusituz datozen espontaneismoa, amateurismoa eta folklorismoa gaindituz, aurrerantzean plangintza berri bat egin beharko litzakeela esaten da, zeinetan talde-lan koordinatuan arituko bailirateke koadro profesionalak.
- ²²⁶ Paulo Iztueta “Meakaberri”, “Amorrazioa... Joerak eta zentsurak”, *Zabal*, 2, 1973, 48-57.
- ²²⁷ *Jakin*, 35, 1969, 40-45.
- ²²⁸ *Zabal*, 15, 1975, 26-29.
- ²²⁹ *Zabal*, 16, 1975, 26-38.
- ²³⁰ *Zabal*, 8, 1974, 30-40.
- ²³¹ *Zabal*, 16, 1975, 26-38.
- ²³² *Zabal*, 17, 1976, 37-42. Egilea nor den? Agian, hizkuntza erabili eta gaia lantzeko moduagatik, badirudi Hegoaldeko norbait dela.
- ²³³ “Euskaltzaleen Biltzarra Saran”, 3, 1973, 38-39. Egilea *Eskualtzaleen Biltzarra*-n sartua dela adierazten du esaldi honek, “lan ttipi batzuk antolatu ditugu adibidez haurrentzat kantu xapelketa bat” baitio.
- ²³⁴ “Ipar aldean argitaratzen diren kaseta-aldizkarietaz bi gogoeta”, *Zabal*, 18, 1976, 3-7.
- ²³⁵ “*Irati* liburu saila”, *Zabal*, 5, 1974, 2.
- ²³⁶ “Ipar Euskal Herrian ere, iturri on batetik jakin dugunez, *Irati* deritzan argitaldari bat sortzekotan omen dira. Ez dugu dudarik egiten bere premiaz, lege eta beste zenbait arazo bide delarik Hego Euskal Herrian ez baita aisa edozein liburu argitaratzen. Ia ba ikusten den asmo horren uztarik lehenbailehen” (“Kultur mugimenduaz”, *Zabal*, 10, 1974, 51).
- ²³⁷ “Euskarazko emankizunak frantses irrati-telebistan”, *Zabal*, 18, 1976, 20-23.
- ²³⁸ “Ortziken”, *Zabal*, 17, 1976, 10-16.
- ²³⁹ “Kultur mugimenduaz”, *Zabal*, 10, 1974, 47-52.
- ²⁴⁰ “*Anaitasuna* berritua”, *Zabal*, 9, 1974, 38-40.
- ²⁴¹ “Ipar Euskal Herrian *Herria*-k lan ederra egin lezake, baina ez du egiten, beste arrazoiengatik, apaiz zaharren eskuetan dagoelako. Gazteak beharko lirateke sartu hor, aldizkari hau baita sarrerarik gehien duena

herriaren baitan. Baina gazte-txertaketaren mentuak ez zuen iraupenik izan: “Oraingo kudeatzaileek, Emile Larre apezak eta beti bezala kazeta horren jabe bakar dagoen Piarres Lafitte kalonjeak, bilkura bat egin zuten dozena erdi bat idazle gazteagorekin, hauek galdeginik. Elkarrekin ikusi zuten zer gisatara hasten ahal ziren, kazeta horri berrialdi baten ematen. Talde berria, bero beroan, lanean ere hasi zen, oraingo kudeatzailearen inguruan, hilabetero bilduz. Ez zuten ordea, bilkura hauek luzaz iraun, zeren taldeak zabalkundearen eta idazlanen mailan hasi zuen sailak, laster gisa bateko edo besteko trabak aurkitu baitzuten” (Gexan Lantziri, “*Zeruko Argia* eta *Anaitasunaren* ondotik, *Herria* ere berrituko ote zaigu?”, *Zabal*, 17, 1976, 25-26).

²⁴² G. L., “Euskal liburu berriak direla eta”, *Zabal*, 1, 1973, 58-60.

XII. Hezkuntza-sistema euskaldun baten bila

²⁴³ Elkar lanean, “Ikastoletako irakaskuntzaren garapena”, *Jakin*, 28, 1983, 10.

²⁴⁴ Edili, Donostia.

²⁴⁵ EFA, Arantzazu-Oñati.

²⁴⁶ *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, UEH, Bilbo, 1994, 234-260.

²⁴⁷ *Zabal*, 5, 1974, I-IX.

²⁴⁸ Une hartan, kultur saileko arazoez arduratzen ziren ETA erakundeko arduradunak, berdin erakundekoak ez ziren barruko ezker abertzaleko hainbat, sarritan izaten nituen hartaz eta honetaz galdezka Hazparne aldean, iritzi eske. Hegoaldekoaren berri ez bainuen zuzenean ezagutzen, prentsaren eta ahozko esanen bidez bakarrik baizik, jada Parisetik Hegoaldera joana zen aspaldiko taldekide L. M. Aristegiri eskatu nion, orduko giroa arnastuz, Ikastolez artikulua bat egin zezan, azken idazkera elkarrekin egingo genuela aginduz. Halaxe argitaratu zen, agindu bezala. Honek esan nahi du “Errezabal”en azterketa hori nire egiten nuela. Ikuspegiaren aldetik, noski. Azalpen hau irakurleari zor diodala uste izan dudalako ireki dut ohartxo hau.

²⁴⁹ Egileak aipu hau hautatzen du lekuko gisa: “Egunetik egunera ikusten ari gara, nola ikastolak, abertzale aurrerakoi eta sozialista euskaltzale eskuetatik ihes egiten ari dirazela, ta kontserbatzaile eskuetan erortzen” (*Berriak*, 13).

²⁵⁰ “Ikastolak ere herri-borrokaren erradikalizatzearekin batera etorri dira bilakatzen, egunetik egunera aurrerakoiago hain zuzen ere. Globalean

hitz eginda behintzat, uste dugu ikastolak inoiz ez direla izan gaur baino aurrerakoiagoak” (Aristegi, 5, 1974, III).

²⁵¹ “Ikastolak herri-borrokatik sortuak izanik eta Herria klase batek baino gehiagok osatzen dutela jakinik, garbi egon behar lukeela uste dugu ikastolak ez daudela klase borrokatik at. Ezin uler dezakegu, beraz, beren buruak marxistatzat dauzkaten jende baten harridura. Euskal burgesi abertzaleak bere nagusitasuna ahal duen bezala defenditzen saiatzeari, guk guztiz normal deritzogu (...) Euskal abertzaleen artean klase interes desberdinak daudela konstatatzea bidezko eta beharrezko da” (Aristegi, 5, 1974, III).

²⁵² Handik hartua da aipu hau ere: “Gure ustez premia gehiago dauka bide horretan (eskola nazionaletan) lan egiteak (nahiz eta nekea eta luzea izan), ikastola kontserbadoretan denbora galtzeak baino...” (*Berriak*, 13).

²⁵³ Egilea nor izan daitekeen? Ez jakin. Manex Goihenetxe, agian?

²⁵⁴ “Ikas”en Ageriak dakarren pasarte honetan esaten da zergatik ez zen bete lege hau: “1951-ko Deixonne legea aipatzen bide da askotan, baliorik gabea eta aplikatu gabea delarik ezin aplikatua delakotz. Egia erran, euskararen irakaskintza ‘ikaslan zuzenduak’ delakoen baitan onartua da bakarrik, hauek eskolako orduetatik kanpo direlarik! Eta gisa guziz, ikaslan hori ez da gehiago kudeatzen egungo eskolako lanetan” (*Zabal*, 7, 1974, 46).

²⁵⁵ Ikus hemen “Uztarpeko”ren “Zeind da *Ikas*-en arloa?” artikulua (*Zabal*, 4, 1973, 43-44). Hemen ere ematen da lege horren berri.

²⁵⁶ Jarraiko lau proposamen hauek egiten zaizkio gutun honetan:

- Haurtzaindegietan. Bilinguismoa sar dadila; horretarako euskal batasunek prestatuko dituzte andereño ibilkariak.
- Lehen mailako eskolan. Ordu bat edo bi astero irakaskuntza normalean, salbu gurasoak aurka agertzen balira. (Entseguetan oraindik ez da gurasorik aurka atera).
- Seigarrenetik Hirugarrenera. Gurasoek jartzen dituzte umeak euskarazko irakaskuntzan; haurrek jarraitzen dute normalki irakaskuntza hori, beste edozein mintzaira bezala. Irakasle eta andereño ibilkariak izanen dira irakaskintzarako, akademiak ordaindurik.
- Hirugarrenetik Batxiler-urteraino. ‘Guichard’ ministroaren agindua bete dadila: hots hiru ordu astero, eta batxilergoan azterketa” (Gogo xume, 12, 1975, 41).

²⁵⁷ Ustez, Mattin Lartzabal kazetaria da Mattin Uztarpeko hori.

²⁵⁸ *Zabal*, 7, 1974, 46-50. Baionan egina, 1974ko otsailaren 27an. Agiri bat den aldetik, testuak izaera kolektiboa du, baina ziur aski Manex Goihenetxeren lumak idatzia dela esango genuke.

- ²⁵⁹ Hamazazpi kultur batasunen aipamena egiten da beste artikuluko bateko pasarte batean.
- ²⁶⁰ “Duela lau urte (beraz, 1971ean), Ikas Baionako kultura batasunak, Ipar Euskadiko lehen euskal astea, muntatu zuen Baionan. Duela hiru urte (1972), sail berari jarraiki zitzaion, Baionako II. Kultur Astea moldatuz. Bi Kultur Aste horiek arrakasta ona ukan zuten, bai parte hartu zutenen aldetik, bai eta lekuko erdal eta euskal kazeten aldetik, hauek, irratia ahanzi gabe, egin zieten zabalkundea ez baitzen gutxiestekoa izan. Duela bi urte (1973), Ikas batasuna, Udako Lehen Unibertsitatearen apailatzeari lotu zen, eta horrela gelditu zen Baionako Euskal Astearen historia laburra” (*Zabal*, 10, 1974, 44).
- ²⁶¹ Honela dio hazpandarrak: “Eta horra non bi urtez Haritzelarrek euskal Kultur Asteak Baionan antolatu genituela, harremanak izan genituen Carlos Santamariarekin. Hura izan da Udako Euskal Unibertsitatearen ideia asmatu zuena (...) Iparraldeko lehen UEUren talde sortzailea Haritzelarrek, Manex Goihenetxek eta nik osatu genuen Donibane Lohitzunen” (*Jakin*, 97, 1996, 118).
- ²⁶² “*Zabal* ou le renouveau culturel basque”, *Enbata*, 340, 27-II-1975.
- ²⁶³ “Recontres sur l’histoire et la culture basques”, 405, 1975-V-27.
- ²⁶⁴ *Enbata*, “Donibane Lohitzunen Euskal Unibertsitatea”, 549, 1973-IX-16, 12.
- ²⁶⁵ “Euskal Unibertsitatea”, *Zabal*, 4, 1973, 10.
- ²⁶⁶ *Herria* astekarian (1.202, 1973-VIII-16) datozen irakasle-izenak kontatuta, 25eko kopurua ateratzen da. Honako hauek dira: Luis Villasante, Txillardegui, X. Irigaray, J. M. Barandiaran, J. R. Etxebarria, Alfonso Irigoien, J. L. Lizundia, Luis Mitxelena, A. Lertxundi, M. Mourgiart, Ibon Sarasola, Pierre Bidart J. M. Satrustegi, P. Narbaitz, Karlos Santamaria, Gurutz Ansola, Piarres Xarritton, J. M. Larramendi, Juan San Martin, Patxi Altuna, C. Harlouxet, Jose Azurmendi, Ramon Garate, J-L. Davant eta, P. Agirrebaltzategi.
- ²⁶⁷ Kopuru hau 110era jaisten da *Zeruko Argia*-ko Errialde (M. Atxaga?) kazetariak Manex Goienetxeri egiten dion elkarrizketan (“Donibane Lohitzunen Euskal Unibertsitatea”, 1973-IX-16, 12).
- ²⁶⁸ Ez dakigu *Zabalen* izenean izenpetzen duen anonimo hori nor den. Bertan uzten dituen arrastoak ikusita, oso posible da Manex Goihenetxe izatea.
- ²⁶⁹ Aldizkariaren iritzia ordezkatzeko duena nor den ez dakigu.
- ²⁷⁰ *Zabal*, 4, 1973, 5. Hitzaldi hau Joxe Azurmendik eman zuen irailaren 9an. Berak deituta, lagun batzuk egon ginen elkartzuta, hitzaldia non-

- dik nora bidera zitekeen pentsatzen. Ez dut uste testua idatzia ekarri zuenik Alemaniatik; apunte moduko ohar batzuk, bai.
- ²⁷¹ “Udako Euskal Unibertsitatea. Jean Haritxelar mintzo”, *Zeruko Argia*, 601, 1974-9-8, 6.
- ²⁷² “Udako Euskal Unibertsitatea. Soziologia eta antropologiaz”, *Zeruko Argia*, 594-595, 1974-7-21-28.
- ²⁷³ *Zeruko Argia*, 549, 1974-IX-22, 6-7.
- ²⁷⁴ “Udako II Euskal Unibertsitatea Donibane Lohitzunen”, *Zeruko Argia*, 1974-9-15, 5.
- ²⁷⁵ “Unibertsitatea”, *Herria*, 1259, 1974-IX-19.
- ²⁷⁶ *Ibid.*
- ²⁷⁷ “Azken eguneko Batzarre Nagusia”, 549, 1973-IX-22, 6-7; *Herria*, 1272, 1974-XII-19.
- ²⁷⁸ “Udako Euskal Unibertsitatea”, 1.272, 1974-XII-19.
- ²⁷⁹ Ikus argitalpen honen laburpena, in *Zeruko Argia*, 646-647, 1975-VII-20-27, 1.
- ²⁸⁰ “Udako III-garren Euskal Unibertsitatea”, *Herria*, 1298, 1975-VI-19.
- ²⁸¹ *Enbata*, 416, 1976-VIII-12.
- ²⁸² Egitarau osoa, sailez sail eta irakasleen izenekin, aipatutako *Enbata*-n dator.
- ²⁸³ Honela dator pasarte honetan: “Programa ikusirik, jende asko joan baitzen Uztaritzera sail konkreturen baten bila; horretarako, zenbait lan eta zenbait aukera uzten zuelarik, gainera. Penagarria benetan diot berriro ere, programaturiko zenbait sailen arduradunek ez bide baitu kontutan hartu ere puntu hori: jendea lanpetuegi dabilela alegia alfer joan-etorrietan denbora galtzeko. Baina, diodan beste behin, hori guztia ezin ulertuzkoa litzateke gorago aipatu giro-ingurumaria kontutan hartu gabe. Esango nuke, hain zuzen, UEU honen hurgunea, hondo-hondoan, programaketa egiterakoan, sudurra urrunegi luzatu nahi izana dela: berriztapen bidean egin zitekeena baino urrunago jo nahi izana alegia” (Metal-Iturri, “Udako III-garren Euskal Unibertsitateaz”, *Zeruko Argia*, 652, 1975-IX-7, 1).
- ²⁸⁴ “Eta garbi ikusi da, unibertsitate tradizionalen dabilen jendea, irakasleak nahiz ikasleak, ezin igaro direla kolpetik unibertsitate molde berri batetara. Irakasleak nahiz ikasleak diot. Halaxe da. Aurtengoan arduradunek huts egiten baldin badute, arrazoia, neurri handian, puntu honetan aurkitu behar da. Eta Euskal Herriko *irakasle jaunek* UEUri boikot egin baldin badiote, neurri handian, arrazoi horrengatik izan da. Baina, gauza bera geratu da ikasleen aldetik ere” (*Ibid.*).

- ²⁸⁵ “Unibertsitarioak”, *Zabal*, 12, 1975, 21-28.
- ²⁸⁶ “Handik dauzkagu behar ditugun laneko era eta tresna guztiak, bereziki kulturaren sailean. Ikastolak sortu dira Hegoaldean, nonahi, abantzu batere landu behar ez duen landa batean, arbia sortzen den bezala, samin-samina. Hemen aldiz ikastolen hazia erori da lapar eta asun pean. Ongi iraulia eta berritua ez den lurlean, ez da sekula arbirik izaten, bakanka baizik. Ikastolen mugimenduaren arroila berdintsuan dabil alfabetatzearena. Ba da jadanik urte bat baino gehiago, hemen hasi ginela ikastaldi bat antolatzen, beste Aldeko ‘kurtsilloen’ moduan. Aurtengo udan, bigarren aldiko, bildu gara berrogei bat lagun ikasle ta irakasle” (Mendibehere, 4, 1973, 39).
- ²⁸⁷ Apaizak kritikatzeko batere asmorik gabe, baina horregatik kontatze-koa isildu gabe, hau da bertan esaten dena: “Gure aurtengoek ba zuten hasteko, jendearen okaztarazteko sekretua: debekuak eta morala ausarki eta merke, janaria eta pentsioa garesti: gutxi janez ukan dugu ongi ase; horiek denak bihotz oneko karitate zabalenaekin eskainiak” (Mendibehere, 4, 1973, 41).
- ²⁸⁸ “Alfabetzeaz”, *Zabal*, 16, 1975, 39-41; 18, 1976, 7-11.

XIII. Sekularizazioaren zeinuak euskal gizartean

- ²⁸⁹ Euskal Herriko erlijioaren soziologian egindako lehen lanetako bat J. I. Ruiz Olabuenagaren “Ex-prêtres en Espagne” lana izan zen, *Social Compass*-en argitaratua, XVII, 1970-74, 503-516.
- ²⁹⁰ Elkar-lanean: *Jakin 25 urte euskal kulturaren*, 21, extra, EFA/Jakin, Oñati-Arantzazu, 1982, 108.
- ²⁹¹ *Ibid.*, 162-163.
- ²⁹² *Erljioa hauzipean*, Jakin Sorta, 5, EFA/Jakin, Arantzazu, 1071, 207-228.
- ²⁹³ Editions Eskual Herria, Baiona.
- ²⁹⁴ *Erljioa hauzipean*, 5, Jakin Sorta, 1971, 227.
- ²⁹⁵ “Eliza eta fedea Euskal-Herrian”, *Zabal*, 3, 1973, 5-13.
- ²⁹⁶ *Ibid.*, 9.
- ²⁹⁷ Nire ustez, esaldi hori idaztean, lehen aipatutako Joxeren orri-erdiko pasarteak zituen aurrean, horietako batean haxe esaten baitu: “Historikoki begiratuz pixka bat elkar gainka eta beste pixka bat elkar joka desarroilatu diren tradizio adaxkak dauzkagu. Nire ustez Euskal Herriko ezkerren ezaugarri eta dohain bat izandu da, halere, eklektiko izatea,

—nahiz eta garaiotako erradikaltasun irritsari eklektizismoa bereziki higuin izan—. Gure herrixka eta auzoetako ‘gorriek’, guztiz liberalki, darwinismoarekin, marxismoarekin, Ilustrazio arrazionalismoarekin, protestantismoarekin eta eskura zetorkien edozerekin arrazonatu ohi zituzten beren aburu kritikoak. Horren arriskuak nabarmenak dira. Baina, eguneroko bizitzan, sistema logiko garbi batenak baino handiago direnik nekez esan daiteke. Horrelako nahasketak, egiazki, gogaramendu fragmentarioa bakarrik, eta ez barne kontradikziorik gabekoa, osa lezake” (“Filosofia sobietarraren erlijio kritikoa”, in *Erljioa hauzi-pean*, op. cit., 162).

²⁹⁸ A. Vázquez Rabanal, F. Azcona San Martin eta J. M. Díaz Mozas-ek elkar-lanean egina, Arzobispado de Pamplona, 1973.

²⁹⁹ Ez dakigu Euskaldunak taldeko laikoak deituak izan zirenetz. Xehetasun hau ez dator artikuluan. Eta apaizak ez zirela deituak izan esatean, bera, Manex eta antzeko beste batzuk bazter utzi zituztela, dio. Esaten ez badu ere, dirudienez, Jean Hiriart-Urruty ez.

³⁰⁰ Murua Uria, Imanol, “Piarres Xarritoni elkarrizketa”, *Jakin*, 97, 1996, 122 .

³⁰¹ Hurbileko historia pixka bat egin beharra dago pasarte hau ulertzeko. Baionan bost urtez Filosofia irakasle, Eskualdun Gazteriako ardura-dun eta *Gazte* aldizkariko zuzendari izan ondoren, 1960an Hazparnen Langintza-Eskola sortu zuen Apezpikuaren babesean eta sei urtez bertako zuzendari izan zen. Garai hartan Hegoaldetik ihes etorritako batzuk, hauen artean Txillardegi eta Benito Del Valle, irakasle gisa hartu zituen. Gobernuak euskal errefuxiatuak ohiltzeko erabakia hartu zuen, Piarres Xarriton horien defentsan atera baitzen, bertatik Prefetaren aginduz bota zuten, baina Vincent gotzainak dimisioa eskatuta. Hazparne 1965ean utzi eta Parisera joan zen berriro 1967an Baionako Saint-Amand parrokiara etortzeko, gotzainak hala eskaturik. Tesia egiteari utzi eta parroki ardura hartzen du, baina ez lehenago goiko testu horretan aipatzen duen “hiru solas” horiek esan gabe, lehendik ontsa pentsatuak zeuzkanak: “Bat: buruzagi batek ardura duen zerbait duen larkirik erraiteko bere menpe duen bati, behar dio laster erran eta berari zuzenean, ez beste baten bidez. Bi: badira metodo batzuk erabiltzen ahal ez direnak, eta horietariko bat da fitxen metodoa; Gotzaindegiak badu fitxa bat gutarik bakoitzarentzat, eta horiek oro bil eta erre behar harko liriateke Baionako Gotzaindegiaren aitzineko plazan; Eliza demokratizatzen ari delako seinale litzateke. Hiru: predikatzen dugu gure Eliza laikoan eliza dela, ez direla apaizak diktadore, laikoek behar dutela bere hitza erran; baina hirugarren gotzaina zara nik ezagutu dudana eta konturatzen naiz diozesia honetan laikoan postua gero eta atzerago

doala” (Murua Uria, Imanol, “Piarres Xarritoni elkarrizketa”, *Jakin*, 97, 1996, 121).

- ³⁰² “Jose Luis Segundo-ren Askatasun Teologia”, *Zabal*, 19, 1976, 10-14.
- ³⁰³ *Le droit des peuples à leur identité*, Montréal, Ed. Fides, 1977. Doktore-tesi hau hasi, Parisen hasi zen egiten 1865ean, Hazparneko ikastetxe-zuzendaritza utzi eta gero, Sion-go komentuan kaperau gisa zegoela, Baina, esan bezala, han bi urte egin eta gero, bertan behera utzi beharra izan zuen, Saint Amand-eko parrokiara etortzeko, gotzainak hala eskatuta (*Jakin*, 97, 1996, 117-118). Montréal-en bukatu zuen eta bertan argitaratu.
- ³⁰⁴ “Ikastaldia 73”, *Zabal*, 4, 1973, 41.
- ³⁰⁵ “Udako Euskal Unibertsitateaz”, *Zabal*, 4, 1973, 7-8.
- ³⁰⁶ Eliz Atarian, Lazkaoko beneditarrek argitaratua.
- ³⁰⁷ Elkar, Donostia, 1981. Jatorrizko testuaren izenburua, doktore-tesi bezala burutua, hau da: *Sociologie du phénomène contestataire au Pays Basque Sud: L'exemple du clergé. Analyse de causes de la radicalisation du clergé basque dans la période 1940-1975*, Université de Vincennes, 1976.
- ³⁰⁸ Maison de la Recherche Universitaire de Toulouse-Le-Mirail, octobre 2001.

XIV. Emaztekien borroka

- ³⁰⁹ Ikus 54-55, juillet-octobre, Paris.
- ³¹⁰ FM/Petite collection Maspero, Paris, 1972, 2. arg.
- ³¹¹ “Hilortzeaz”, *Zabal*, 1, 1973, 43-53.
- ³¹² Euskaldun emazte talde bat, “Emaztea eta hilortzea”, *Zabal*, 11, 1975, 53-56.
- ³¹³ “Hogeigarren mendean, emaztea beti morroi”, *Zabal*, 2, 1973, 34-40.
- ³¹⁴ Laburduraren izen osoa: *Institut National de Statistiques et Etudes Economiques*. Hemen 1969ko datuak jasotzen dira. Horko zifrak zein urte-takoak diren ez da esaten.
- ³¹⁵ “Emazteen elkarretaratzea Ipar-Euskadin”, *Zabal*, 8, 1974, 13-14.
- ³¹⁶ Emazte talde bat, “Emazte batzuek zer pentsatzen duten”, *Zabal*, 10, 1974, 15-16.
- ³¹⁷ “Bretoi emakumeak”, *Zabal*, 9, 1974, 22-26.

- ³¹⁸ Emazteki hori izan bide daiteke Maite Idirin kantaria, bera ere Euskal Emazteen Taldekoa baitzen.
- ³¹⁹ Euskal Emazteen Taldea, “Neska margolari bat”, *Zabal*, 12, 1975, 43-44.
- ³²⁰ Emazte batek, “Eva Forest”, *Zabal*, 14, 1975, 34-36.
- ³²¹ “Nolakoa den gure sozialisma”, *Zabal*, 13, 1974, 4.

XV. Kezka ekologikoa

- ³²² G. L., “Gardaren lo Larzac”, *Zabal*, 4, 1973, 35-38.
- ³²³ “Larzac”, *Zabal*, 9, 1974, 36-37.
- ³²⁴ “Ihizlarien arrazoak”, *Zabal*, 5, 1974, 14-15.
- ³²⁵ “Nuklear zentralak auzipean”, 1974, 9-14.
- ³²⁶ “Nukleartegiak”, 1975, 14-17.
- ³²⁷ “Nuklear zentralak: Kontuz”, 1975, 18-21.
- ³²⁸ “Hamar galdera giltzarri erradiotibitateaz”, 14, 1975, 22-25.

XVI. Euskara landuaren jorrocketan batuaren bidetik

- ³²⁹ F. Krutwigek, nafar-lapurteraren ordeztan, lapurtera klasikoa proposatzen zuen, pentsatzen baitzuen Axular edo Ètxeberri baten euskara eta Oihenart batena elkarrengandik hurbilago zeudela egungo zuberera eta lapurtera baino (Gutuna F. Kruwigek P. Lafitte-ri, 1951-IV-9an, ikus in P. Iztueta: *Orixen eta bere garaia*, V, Etor/Eusko-Jaurlaritza, 1991, 882).
- ³³⁰ *Zabal*, 5, 1974, 45-46.
- ³³¹ *Zabal*, 9, 1974, 50-57.
- ³³² *Zabal*, 7, 1974, 58-59; *Zabal*, 8, 1974, 44-47; *Zabal*, 10, 1974, 60.
- ³³³ Zernahi gisatara, erabakia behin-behinekotzat hartzen da: “Gerta daiteke egun batez, guk hemen argitaratu hitz hauetarik bata edo beste, batasunaren izenean, beste era batera idaztea. Anartean, pentsatzen dugu hitz zerrenda hau, euskara idatziaren batasunaren egile eta eragile izanen dela, eta horrengatik euskaraz idazten duten guztiak eskuratu eta jarraiki nahiko dutela” (*Zabal*, 9, 1974, 50). Erabaki honen berri honela dakar Gexan Alfarok hurrengo zenbakian: “*Zabal* agerkari honek, azkeneko zenbakian argitaratu du hitz zerrenda bat, hein bat luzea, non ere hizki edo letra bakar batek bereizten zituen hirurehun

bat hitz berdinki idatzirik agertzen baitzituena, erranez zenbaki hartatik aurrera, horrela idatziko zirela aldizkari honetan, geroago, batasunaren izenean, bakar zenbaiten idazkera edo ortografia aldatu behar izanen ba zen ere” (*Zabal*, 10, 1974, 44).

- ³³⁴ Altzükürü, “Hitz batuen arazoa”, *Zabal*, 10, 1974, 58-60.
- ³³⁵ “UEU Euskal kuturaren aitzindari”, *Zabal*, 10, 1974, 44-45.
- ³³⁶ Gexan Alfaro: “Euskara idatziaren batasunzaleen arteko bilkura”, *Zabal*, 19, 1974, 45.
- ³³⁷ “75-Urtarrila 11 zenbakiko eranskina. 600 hitz eskuara batuan. Baiotan 1974ko abenduan finkatu hiztegia”.
- ³³⁸ “Hitz berrien ildotik”, *Zabal*, 7, 51-54.
- ³³⁹ “Euskara ala baskoina?”, *Zabal*, 18, 1976, 44.
- ³⁴⁰ Sortzez Getxoko semea, pentsamoldez greziar tradiziokoa, Bilbon hil zen 1998ko azaroaren 16an 77 urterekin eta hurrengo egunean egin zitzaion azken agurra Derioko hilerrian. Kultura handikoa, poliglota handiagoa, lapurtera klasikoaren aldekoa, bere garaian ideia iraultzaileak sartu zituen, batez ere, euskal kulturaren zein politikan.
- ³⁴¹ *Zabal*, 19, 1976, 15.
- ³⁴² Iztueta, Paulo: “Hitzaurrea”, *Filosofia Hiztegia*, I, UZEI-Elkar, 1987, 17.
- ³⁴³ “Jokin Zaitegi: Ebangeline. Sopokel-en antzerkiak. Goldaketan”, *Eusko-Jakintza*, 1, 1949, 94.
- ³⁴⁴ “Errores de vascólogos nuestros”, *Gernika*, 11, 1950, 26.
- ³⁴⁵ “Euskaldun izen eta izana”, *Zabal*, 19, 1976, 47-50.
- ³⁴⁶ “Euskadiko gataska linguistikoaren aurrean”, *Zabal*, 10, 1974, 30-35.

XVII. Liburu-kritikak

- ³⁴⁷ “*Hil ala bizi* eleberria”, *Zabal*, 4, 1973, 42.
- ³⁴⁸ Paulo Iztueta “Meakaberi”, “Eleberri ziztagarri bat: *Hil ala bizi*”, *Zabal*, 5, 1974, 37-41.
- ³⁴⁹ *Zabal*, 8, 1974, 41-43.
- ³⁵⁰ B.O., *Zabal*, 12, 1975, 46-47.
- ³⁵¹ *Zabal*, 17, 1976, 43-56. Izen-abizenen laburdura hori Joxe Ramon Etxebarriarena ote?
- ³⁵² *Zabal*, 18, 1976, 59-60.

³⁵³ *Zabal*, 17, 1976, 48-49.

³⁵⁴ *Zabal*, 18, 1976, 57-59.

³⁵⁵ *Zabal*, 17, 1976, 47.

³⁵⁶ *Zabal*, 17, 1976, 51-56.

Bibliografia osagarria

I. atala

- ARROIABE, Karmelo (1974): "Gramsci", *Zabal*, 9, 30-35.
- BOWLES, Samuel; GINTIS, Herbert (1972): *La meritocracia y el 'coeficiente de inteligencia': una nueva falacia del capitalismo*, Cuadernos de Anagrama, Barcelona.
- DAVANT, Jean-Louis (1975): "Nolakoa den gure sozialisma", *Zabal*, 13, 1-4.
- ENEKO (1974): "Kultur mugimenduaz...", *Zabal*, 10, 47-54.
- GARATE, Gotzon (1977): *Maoren marxismoa: Maoismoa*, Gero, Bilbo.
- IDIART, Kattalin (1975): "Elkarrizketa Kattalin Idiartekin", *Enbata*, 340, 27-02-1975.
- IZTUETA, Paulo; APALATEGI, Jokin (1974): *Marxisma eta nazional arazoa Euskal Herrian*, Irati, Baiona.
- KRUTWIG, Federiko (1976): "Egiak eta gezurrak sozialismuan eta sozial-asmoan", *Zabal*, 19, 15-34.
- (1979): "Nacionalismo revolucionario", *Branka*, I, Ediciones Vascas, Donostia.
- ODRIOZOLA, Jose Manuel "Izarreko" (1975): "Sozialismaren egungo zenbait arazo", I, *Zabal*, 14, 27-30.
- SUDUPE, Jon "Perugorria" (1975): "Louis Althusser-en autokritika-gaiak", I, *Zabal*, 12, 48-52; II, 13, 40-45; III, 15, 19-24.
- (1976): "Kristau marxistak direla eta...", *Zabal*, 18, 23-27.
- TXILLARDEGI (1979): "Unas palabras de introducción", *Branka*, I, Ediciones Vascas, Donostia.

- URTEAGA, Mikel “Baigura” (1975): “Legezkoa, justua, zuzena”, *Zabal*, 11, 45-52.
- (1976): “”Ultra ezkertiarak”, *Zabal*, 17, 27-30.
- URTEAGA, Mikel “Huarte” (1971): “Likidazionistak eta gu”, II, *Zabal*, 16, 4-6.
- (1973): “Nora goaz”, *Zabal*, 2, 6-7.
- (1974): “Proletalgoaren aginte bakarra”, *Zabal*, 7, 37-42.
- (1975): “Likidazionistak eta gu”, I, *Zabal*, 15, 3-5.

II. atala

- AGIRRE BILBAO “G. Hirurizar” (1967): “Por un socialismo vasco”, *Branka*, 5, 44-53.
- ANSART, P. (1990): *Les sociologies contemporaines*, Editions du Seuil, Paris.
- APALATEGI, Jokin “Begiko” (1973): “Hizkuntza, pentsakera eta herrikidetasuna Larresoro baitan” *Zabal*, 1, Baiona, 61-64 or.; *Zabal*, 2, 1973, 59-65.
- APALATEGI, Jokin; IZTUETA, Paulo (1974): *Sei idazle plazara*, I-II, Jakin, Arantzazu-Oñati.
- APALATEGI, Joxemartin “D2T5” (1975): “Marxismo eta alderdi”, *Zabal*, 16, 17-21; 17, 31-36.
- ASKOREN ARTEAN (1973): “Minorités nationales en France”, *Les tempos modernes*, 324-325-326, Aout-Septembre, Paris.
- (1979): *Branka*, Ediciones Vascas, Donostia. Berralgitalpena.
- AZURMENDI, Joxe (1971): *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*, Euskal Elkargoa, Baiona.
- (1975): “Marxisma eta euskal arazoa”, *Zabal*, 11, 29-44.
- (1996): “W. von Humboldt: el concepto de individuo y la búsqueda de un nuevo humanismo. Banakoaren kontzeptua humanismo berri baten bila”, *RIEV*, 412, 2, 305-333.
- BART, F. <arg.> (1989): *Ethnic Groups and Boundaries*, Little, Brown and Co, Boston.
- DAVANT, Jean-Louis (1973): “Les tempos modernes agerkarian: Aberri rapalduak”, *Zabal*, 4, 29-34.

- EGUZKITZA, Andolin “Altzürükü” (1974): “Euskal iraultzaz gogoeta zenbait”, *Zabal*, 7, 24-29.
- (1974): “Meakaberriri ohar beharrezko batzuk”, *Zabal*, 10, 55-57.
- GARCIA COTARELO, R.; PANIAGUA SOTO, J. L. <arg.> (1995): *Introducción a la ciencia política*, UNED, Madrid.
- GIDDENS, A. (1987): *Las nuevas reglas del metodo sociológico*, Amorrortu editores, Buenos Aires.
- HARRIBIZKETA “Alvarez, Jose Luis” (1979): “Proyecto de manifiesto vasco”, in Askoren artean: *Branka*, 2, Ediciones Vascas, Donostia, 731-800. Ez dakigu noizkoa den lan hau.
- KIMU BERRI taldea (1977): *Euskal Autonomi Estatutu berrirako aurre-projektua*, Bilbo.
- LARRESORO “Alvarez, Jose Luis” (1972): *Hizkuntza eta pentsakera*, Etor, Bilbo
- MEAKABERRI “Iztueta, Paulo” (1974): “Altzürüküri ohar batzuk”, *Zabal*, 8, 18-20.
- MENARA “Alvarez, Jose Luis?” (1970): Irmokeritik pluralismorako bidean”, *Branka*, 10, Belgika, 12-14. Ustez, Txillardegiren beste ezizen bat.
- MENDILLORI, Xabier “Ezizena” (1978): “Tribuna libre”, *Branka*, 7, 10-12.
- NIELSON, G.P. (1989): “Sobre los conceptos de etnicidad, nación y estado”, in Pérez-Agote, A. (arg.): *Sociología del nacionalismo*, II. Congreso Mundial Vasco, Servicio Editorial Universidad del País Vasco, Gobierno Vasco, Vitoria.
- ODRIOZOLA, Jose Manuel “Izarreko” (1975): “Gizona, dialektika eta beste”, *Zabal*, 12, 33-36bis.
- (1976): “Txillardegiren sozialismoa”, *Zabal*, 18, 33-37.
- PEREZ-AGOTE, A. (1981): *Abertzales y vascos*, Akal, Madril.
- TXILLARDEGI (1970): “*Le grand tournant du socialisme*” (Garaudy), *Branka*, 10, Belgika, 20-27.
- (1973): “Begikori erantzunez”, *Zabal*, 4, Baiona.
- (1976): “Izarrekoren sozialismoa”, *Zabal*, 19, 40-45.
- (1976): “E.H.A.S. y el abanico político vasco”, *Enbata*, 350, Baiona.

- (1979): “Hizkuntza eta pentsakera”, *Branka*, 1, Ediciones Vascas, Donostia, 35-59; TXILLARDEGI “Alvarez, Jose Luis” (1979): “Hizkuntza eta herrikidetasuna”, *Branka*, 2, Ediciones Vascas, Donostia, 2-19.
- USAKO <Alvarez, Jose Luis> (1967): “El marxismo-leninismo y los problemas nacionales”, *Branka*, 5, Belgika, 36-43.
- VALLE, Benito del (1967: “Algunas ideas sobre una Euzkadi Socialista”, *Branka*, 5, Belgika, 9-22.
- VALLE, Benito del “Zabalo” (1967: “La autogestión en Yugoslavia”, *Branka*, 3-4, Belgika, 77-102.
- WILLIS, P. (1985): “Producción cultural y teorías de la reproducción”, *Educación y Sociedad*, 5, Akal, Madril, 7-34.
- (1988): *Aprendiendo a trabajar*, Akal, Madril.

SAIAKERA

BILDUMA

1. Jexux Larrañaga Arriola: *Jolas sakona*. 2014.
2. Ibai Iztueta Azurmendi: *Cultura vasca vs Euskal kultura*. 2015.
3. Paulo Iztueta — Jokin Apalategi (prest.): *Euskal pentsamendu berritzailearen sorrerak*. ZABAL. *Testu hautatuak*. 2015
4. Paulo Iztueta Armendariz: *ZABALen isuria (1973-1976)*. 2015.